

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

ASKATASUNAZ

*

EMAKUMEEN
MENPEKOTASUNA

*

SOZIALISMOARI
BURUZKO KAPITULUAK

JOHN STUART MILL

Askatasunaz

*

Emakumeen
Menpekotasuna

*

Sozialismoari buruzko
Kapituluak



Jatorrizko izenburua:
On Liberty, The Subjection of Women, Chapters on Socialism.
Euskaratzailea: *Alberto Gabikagojeaskoa*
Berrikuslea: *Andoni Ibarra*
Hitzaurregilea: *Jonathan Riley*

Lehen argitalpena: 2004ko apirilean

© Itzulpenarena: Alberto Gabikagojeaskoa
© Klasikoak, 2004

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2004-III-12

ISBN: 84-88303-07-06
Lege gordailua: BI.-1046-04

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

John Stuart Millen (1806-1873) ideia demokratiko liberal aurreratuek eztabaida kritikoa sortarazi zuten lehenbizi argitaratu zirenetik eta oraindik ere debate akademiko biziak eragiten dituzte.¹ Edizio honetan berrinprimaturiko hiru lanetan argudiorik zorrotzen eta erradikalenak ageri dira, justizia berdinkideaz, askatasun indibidualaz eta ongizate orokorraz arduraturik dauden guztien azterketarik arretatsuen merezi dutenak.

Londresen jaioa, Millek hamabost urte ukan aurretik heziketa zorrotza hartu zuen logikan eta ekonomia politikoan bere aita Jamesengandik, zeina Jeremy Benthamekin loturiko mugimendu utilitaristaren benetako eragile nagusia baitzen. 1823an aita lanean ari zen East India Company enpresan hasi zen eta hurrengo hogeita hamabost urteetan hantxe jarraitu zuen, Aztertzaile [*Examiner*] (aginte katean bigarren postua) izatera iritsita, 1858an Parlamentuak konpainia desegin arte. Gaztaroan aldi labur batez Benthamen jarraitzaile sutsua izan zen arren, benthamismoaren kontra agertu zen hogeitaka urte zituela, aita 1836an hil zitzaionetik gutxira, eta erradikalismo utilitaristaren bertsio «handiagotu» bat, benthamismoan «iraunkorki baliagarria» zena atxikitzen zuena, aldeztu zuen, baina zenbait gizarte-ideal liberal aurreraturekin osoturik. Geroztiko bizitza guztian etengabe sortuz joan zen idazlan sailean filosofia erradikal berri horixe argitzen ahalegindu zen. Proiektu hau burutzeko ukan zuen ezinbesteko lankidea, Millek

sekulako garrantzia emanda esaten zuen moduan, Harriet Taylor izan zen, 1830ean ezagutu eta gero, haren lehenengo senarra zendu eta urte bi ingurura, 1851n emaztetzat hartu zuen emakumea. Harriet 1858an hil zen Frantzian zehar bidaian zebiltzala, eta Millek geroztiko urte bakoitzaren zati handi bat haren hilobia zegoen Avignonetik hurbileko landetxe batean pasatzen zuen, gehienetan haren alaba Helenen konpainian. Bere idazle lanetik aparte, Westminsterreko Parlamentario izan zen 1865etik 1868ra, eta erreforma aurrelarien aldeko kanpainak egin zituen, hala nola, emakumeen boto eskubidearen alde eta Thomas Hareren hauteskundeetako ordezkartza sistema proportzionala indarrean jartzearen alde. Avignonen hil zen, eta bertan dago hilobiratutik bere emaztearen ondoan.²

Harrieten laguntzaz, Millek imajinatu zuen ezen, gizarte demokratiko liberal ideal batean, berak «berdinen gizartea» esaten zionean, denon zoriona goren gradura eramateko benetako aukera izanen zela. Gizarte horrek bere praktiketan haren erradikalismo utilitaristak aurreraturiko justizia berdinkidearen ikuspegia izanen zuen, honako hauek barne hartuko zituen, alegia, –ordezkaritzazko gobernu konstituzional batez gain– askatasun eskubide berdina asunto pertsonal hutsetan, eskubide berdina emakumeentzat, eta beharbada jabetzaren banaketa berdina ekonomia sozialista deszentralizatu baten pean.³ Ideia nagusi horiexek eztabaidatzen dira luze samar eskuetan duzun liburu honetan berrinprimaturiko hiru idazlanetan.

Askatasunaz lanean (1859), Millek «bi maxima» aldeztu ditu, berak dioenez zeinahi gobernu era duen gizarte zibil orori aplikat dakizkiokeenak. Maximotako bata, berak askatasun indibidualaren «oso printzipio xumea» esaten dionak, baiesten du heldu orok «norberari soilik begirako» bizitzaren zatiarekiko askatasun osorako eskubide morala duela (eta, beraz, legezko eskubidea ere eduki beharko lukeela). Bigarren maximak, gizarte agintearen printzipioa esan dakiokeenak, baiesten du gizarte zibil orok aginte legitimoa duela edozein pertsonaren besteei begirako zati bereizia, Millek jokaera «soziala» esaten diona, erregulatzea erabakitzeke.⁴

Askatasun printzipioa ulertzeko, funtsezkoa da hark «norberari soilik begirako» jokaerari dagokionez «askatasunerako eskubidea» esatean zer esan nahi duen ulertzea. Nik neuk jarraian azaltzen dudan moduan interpretatzen dut Mill.⁵ «Eskubide» bat gizarteari babes eske

egindako erreklamazio bat da, eta erreklamazio horri beste jende baten aldetik betebeharrak dagozkio korrelatiboki. Galdatzaileak (edo bere ordezkariak) betebeharrak korrelatiboak betearaztea galdatzeko edo betearazpenari uko egiteko ahalmena du. Betearaztea galdatuz gero, betebeharrak dagozkienek gogo onez bete behar dituzte kontzientzia onean. Bete nahi ez izanez gero, ordea, gizarteak, bidezki, zenbait neurri hertsatzaile (desohore soziala eta legezko zehapenak barne) erabil ditzake eginbeharrak betearazteko.

«Eskubidetik» diferentea denez, «askatasuna» norberak nahi duena egitean datza. Lagun batek ekintza sail jakin batekiko «askatasun osoa» du, baldin saileko ekintza guztien artean nahi duena hautatzeko aukera badu. Bistan denez, kirten batek askatasun osoa ukan dezake ekintza sail batekiko, inolako eskubide moralik edo are baimen moralik ez ukan arren askatasun horretarako. Baina Millek argudiatzen du heldu orok eduki daukala eskubidea norberari begirako ekintzen artean berak nahi duena hautatzeko.

«Norberari soilik begirako» jokaera besteengan, berek nahi izan ezean, eraginik ez duen jokaera da. Zehazki, ez die kalterik egiten «zuzenean eta lehen eraginean», euren nahiaren kontra nolabaiteko «oker hautemangarria» eraginez (adibidez, zauri fisikoak, dirugalerak, kontratuko aurreikuspenekiko etsipena). Jokaera horrek honako hauek barne hartzen ditu: gai orori buruz ideiak eta iritziak eratzea liburuak irakurritz, filmak ikusiz, etab.; bizi tankera pertsonala aukeratzea karrerari, bizitzako planei eta antzekoei dagokienez; beste inori zuzenean eta lehen eraginean kalterik egin gabe har daitekeen produktu oro kontsumitzea (pozoiak, drogak, alkohola barne); eta beste heldu batzuekin, beraiek hala nahi izanda, biltzea horrelako jardueretan eta hirugarrenei zuzenean eta lehen eraginean okerrik ez dakarkieten bestelako jardueretan (harreman sexualetan, esate baterako) aritzeko. Hala ere, era aipagarrian, horietatik kanpo uzten du erosgaiak saltzea, baita ideiak eta iritziak adieraztea ere. Merkataritza eta adierazpena besteei begirako jokaeraren adibideak dira, besteentzat, euren nahiaren kontra, zuzenean eta lehen eraginean oker hautemangarriak arriskua gutxienez badakartenak. Saltzaile batek negoziotik kanpo utz ditzake bere lehiakideak haien kaltetan salmentak lortuz adibidez, hizlari batek besteei entzuleak ken diezazkieken bezalaxe haien ideien kontra hitz eginez eta haien ospea zalantzan jarritz.

Millek argudiatzen du norberari begirako askatasunerako esku-bide berdinak justifikaturik daudela baliagarritasun orokorragatik, «berorren zentzurik zabalenean, gizakiaren interes iraunkorretan oinarriturik, gizakia aurrera egiten duen izakia denez».⁶ Norberari begirako jokaerarako askatasun osoa funtsezkoa da norbanakotasuna edo norbere garapena sustatzeko, norbanako ororen ongizatearen osagai nagusia berori. Horretan, onartzen du norberari begirako jokaerak eragina ukan ohi duela eta ukan behar lukeela besteengan, atsegina edo desatsegina sentiaraziz. Besteek desatsegina senti dezakete norbaiten iritzi erlijioso nabarmenen aurrean edo bizimodu homosexualaren aurrean, adibidez. Baina desatsegin edo nahigabe emozional hutsa, hautemateko moduko kalte nabaririk gabekoa, ez da benetako kaltea. Millek, noski, azpimarratzen du zenbait «zigor natural» banaezinak direla norberari begirako jokaerarako askatasunetik, zeren besteek, edonork beraiei gustatzen ez zaion norberari begirako jokaera badarabil, askatasuna baitute horren konpainia saihesteko. Hartara, Millen ikuspegi utilitaristan, kalterik gabeko desatsegin edo pena hutsa aintzat hartzekoa da, izan, baina ezin du inoiz justifikatu norberari begirako askatasunari oztopo hertsakorrik jartzerik: beste batek darabilen norberari begirako jokaera gogoko ez duen orok askatasun osoz saihets dezake haren konpainia.

Azpimarratzekoa da norberari begirako askatasunaren printzipioak ez duela zerikusirik inoren bizitza indibidualeko besteei begirako atalean edo atal sozialean. Are, gizarte agintearen printzipioa aplikatzen da. Besteengan, berauek arlo horretan gogoko edo desgogoko zer duten aparte utzita, eragina duen besteei begirako jokaera arautzeko gizartearen agente legitimoa erabiltzeko erarik onena zein den erabaki orduan, Millek argudiatzen du baliagarritasun ereduak, «zentzurik zabalenean», gidatu behar lukeela, horretan ere, edozein gizarte zibil. Zehatzago esanda, gizarteak besteei begirako jokaeraren arau moral utilitaristak ezarri behar lituzke eta, behar bezainbatean, hertsapena erabili (desohore soziala eta legezko zehapenak barne) arau horiek beteko direla segurtatzeko. Haren moral utilitarista hemen osoki eztabaidatzen hasterik ez badugu ere, azpimarratzekoak dira berorrekin zerikusia duten hiru puntu.

Lehenik, Millek *Utilitarianism* lanaren (1861) bosgarren kapituluaz aztertzen duen moduan, gizarte zibil baten arau moral garran-

tzitsuenak justiziaren arauak dira, guztien ongizatea sustatzen baitute, zuzenean eta lehen eraginean hirugarrenei kalte *serioak* dakarzkieten besteei begirako jarduerak debekatuz⁷. Norbanako oro bere nahiaren kontra horrelako kalte larriak pairatzetik babesteko, justiziaren arauak eskubide indibidualak eta betebeharrak korrelatiboak banatzen dituzte zigor egokien mehatxuaz indartuta. Millek iradokitzen du denon ongizateak irizpide moral bat ezartzen duela kaltea behar bezain handia, hau da, norbanako orok berau ez pairatzeko eskubidea edukitzeko —edo gizartearen aurrean erreklamazio hori egiteko— modukoa noiz den erabakitzen laguntzeko. Hartara, norbanakoek beren etnia dela eta, adibidez, besterik gabe inork ez hiltzeko eskubide berdina behar dituzte, baita beren lan eta aurrezpenaren fruituak inork ez kentzeko eskubideak ere, eskubide horiek eta betebeharrak korrelatiboak banatzen dituzten arauak denon zoriona sustatzeko jarriak direnez gero.

Millen arrazoibidea *Askatasunaz* idazlanean bateragarria da *Utilitarianismen* justiziaz egiten duen deskripzioarekin, nahiz eta askok bestera dela iradoki. Haren ikusiz, norbanakoaren norberari begirako askatasunean esku sartzeko era hertsakor oro kalte handia da, norbanakoak berau ez pairatzeko eskubidea ukan beharko lukeelarik. Justiziaren arau utilitaristek norberari begirako askatasunerako eskubide berdina eta betebeharrak korrelatiboak banatuko dituzte. Denon ongizatea sustatzeko, heldu orok eskubidea behar du inork ere ez eragotz ez diezaion berari begirako ekintzen artean berak nahi duena aukeratzeko, eta besteek ez eragozteko betebeharra berenganatu behar dute. Millen ustez, norberari begirako aukera eta esperimentazioaren bidez lortzen diren garapen pertsonalaren onurek beti balio dute hortik besteei datozkien desatsegin eta nahigabe emozional hutsak baino gehiago. Horrelako desatseginak hain garrantzi erlatibo txikia du, non zentzu hertsian «kaltetzat» ere ezin den jo. Gainera, desatsegin hori sentitzen duena libre da norberari begirako jokaera duena saihesteko, eta horrela berak ontzat duena bere erara bilatzen jarraitzeko aukera dauka beste horren indibidualtasuna ezabatu gabe.

Azpitxarrazteaz merezi duen bigarren puntua da norberari begirako askatasunaren maximak erabateko muga ezartzen duela moralitasunaren eremuan eta ondorioz gizarte zibil orok gizarte agintearen maximaren pean bidezki erabil dezakeen hertsapenaren norainokoa mugatzen duela. Gizarteak bidezki ezar eta betearaz ditzake, adibidez,

enpresei saltzen dituzten produktuei buruzko informazio zuzena publikatzea galdatzen dieten justiziaren arauak. Arau horiek kontsumitzaileei zuzenean eta lehen eraginean kalte larria dakarkien saltzaille portaera iruzurtia galarazten dute. Antzera batean, gizarteak ingurua poluitzea galaraz diezaieke enpresei, baita enpresak enplegatuei lan baldintza seguruak eskaintzera hertsatu eta erosleei erosi nahi dituzten produktuei buruzko informazioa, produktuok saltzeko baldintza moduan, eskatzera behartu ere, produktu horiek besteei kalte serioa eragiteko erabiliz egindako krimenen polizi ikerketa errazteko. Baina gizarteak ezin du *inoiz* besteei zuzenean eta lehen eraginean kalterik egin gabe erabil daitezkeen produktuak saltzea *debekatu*. Arautze soziala ezin da, bidezki bederen, debeku sozial bihurtu: kontsumitzaileak norberari soilik begirako erabilpenak dituzten produktuak nahierara erosteko eskubide moralak dauka.

Hirugarren puntua da gizarteak besteei begirako jokaera arautzea erabakitzeke duen bidezko aginpideak ez duela inplikatzeko gizarteak beti ezarri eta betearaz behar dituenik besteei begirako jarduera mota oro gobernatzeko arau moralak. Besteei begirako egintza mota jakin batek, adibidez, besteei (zuzenean eta zeharka) kaltea baino gehiago onura ekarriko diela arrazoiz espero baldin badaiteke, orduan hobe da gizarteak arautzeko politika barik *laissez-faire*koa hartzea. Millen iduriko, «jendea baketan uzteko» politika orokorra egokia da (salbuespen batzuekin) bai merkataritzari eta bai adierazpenari dagokionez, nahiz eta besteei begirako jokaera mota horiek badaramaten, eramanez, beren baitan besteei zuzenean eta lehen eraginean kalte egiteko arriskua. Benetan ere, *laissez-faire* egokia izan daiteke batzuetan, besteei onura baino gehiago kaltea ekarriko diela arrazoiz espero daitezkeen jokaera sozialari dagokionean ere. Horixe gertatzen da, araubide bat ezarri eta betearazteak dituen kostu ezberdinak jokaera arautzeak azkenean galaraziko dituen kalteak ezabatzeak merezi dituenak baino handiagoak direnean. *Laissez-faire*, jakina, ezin hobe da besteei begirako ekintza filantropikoei dagokienez, zeren horiek zuzeneko eta lehen eragineko onurak dakartzate eta, besteei kalte modurik ekarri gabe.

Ondorioa da gizarte zibil orok utz diezaiekeela norbanakoei eta borondatez sorturiko taldeei (hala nola, enpresei eta elkarte filantropikoei) besteei begirako jarduera mota batzuei dagokienez askatasu-

nez jokatzeko, nahiz eta askatasun osorako eskubidea norberari soilik begirako jokaerara mugaturik egon. Besteei begirako ekintza sail (mugatu) bateko ekintzen artean aukeratzeko baimen morala testuinguru sozial batetik bestera diferenteak izan daitezkeen onura-kostu inportanteen kalkuluen mende dago. Baimen moral horretan oinarrituriko legezko eskubideak norbanakoen esku utzita egonda ere, eskubide horiek egokiro mugaturik daude halatan, non eskubideduna beharturik gelditzen baita besteenganako zenbait betebeharrak moral iraunkorki betetzera. Merkaturak besteekin lehian libreki aritzen uzten zaizen saltzaileek beharturik daude, adibidez, iruzurrezko salmentak debekatzen dituzten arau moralak (eta legalak) betetzera, hain zuzen ere hizlariak difamazio maltzurra edo bortizkeriara zirikatzeko debekatzen duten justiziaren arauak betetzera beharturik dauden bezalaxe. Besteei benetako laguntzarik sekula ematen ez dien ustezko filantropoei bidezki kentzen zaie izen ona, ohiko dituzten karitatezko obligazioak ez betetzearren. Inork ez du eskubide moral osorik besteei begirako jokaerarekiko.⁸

Argi gelditzen da ezen, Millen ustez, gizarte zibileko kide orok izaera pertsonal bat garatu beharko lukeela, bi hauek konbinaturik lituzkeena, alegia, norberari begirako gaietan nahierara aukeratzeko jarrera «pagano» bat, alde batetik, eta besteei begirako jokaeraren arau moral (eta legal) arrazoizkoak betetzeko jarrera «kristau» edo «platoniko» bat, bestetik. Horrelako izaera Millek ideal «periklear» gisa aipatzen du, dirudienez Periklesek, Peloponesoko Gerraren bigarren urtean egindako hileta-hitzaldian, antzinako atenastarrak goretsi zituelako euren bizimodu tradizionalagatik, zeinaren baitan norbanakoaren zenbait gai pribatutako berezkitasunarekiko tolerantzia gai publikoetan gehiengo demokratikoek ezarritako arauak betetzeko konpromisoarekin bateratzen zuten.⁹ Badirudi Millek «berdinen gizarte» demokratiko liberal baten posibilitatea imajinatzen duela, non heldu guztiek norberari begirako aferetan nahierara jokatuko luketen, aukera berdina luketen besteei begirako legeak indarrean jarriko lituzkeen sistema politiko demokratiko batean parte hartzeko eta besteei begirako gaietan gehiengo legegilearen ebazpenak gogo onez beteko lituzketen, beti ere gauza inportante batez ohartuta, alegia, indarrean dauden arauak kritikatu eta euren erreforma eskatzeko askatasunak etengabe babes-tuta egon behar duela, giza hutseginkortasuna gogoan izanda.

Millek *Emakumeen Menpekotasuna* izeneko lanean (1869) argi uzten duen moduan, «berdinen gizarte» modernoaz duen ikuspegiak «justiziaren moralak» denengana zabaltzea inplikatzeko du. Antzinako Atenasekin kontrastean, non «berdintasuna ez zen gizonezko hiritar libreengana baino iristen», heldu guztiak, emakumeak eta egoiliar atzeritarrak barne, berdinen artean sartuko lirarteke: «gizakien benetako bertutea elkarrekin izaki berdin gisa bizitzeko gaitasuna da, norberetzat norberak beste guztiei libreki ematen diena besterik eskatu gabe, eta nolanahiko agintea salbuespeneko eta beti ere aldi baterako beharizantzat edukiz eta, ahal den guztian, buruzagitzan eta jarraitzaileztan guztiak txandakatzeko moduko jendearekin egindako elkar-atea hobetsiz»¹⁰. Aldi baterako aginte politikoan kargua libreki eskatu eta harturiko ordezkari hautatuaren talde ezberdinak txandakatuko lirarteke herritarren gehiengoaren sentimenduen arabera¹¹. Baina gizartea bera berdinen mila elkartek osotuko lukete, hala nola, tokiko komunitateak, negozio sozietateak eta ezkontzek. Elkarre horien barruan ere agintea aldi baterakoa eta txandakatu litzateke, bete beharreko zereginen arabera kide ezberdinak izanik buru.

Berdinen gizarte demokratiko moderno bat erdiestea eta birstortzea, Millek argudiatzen duenez, horretarako behar diren gaitasun intelektual eta moralak famili barruan lantzearen mende dago, honek, aldiz, lehenago gizon eta emakumeak ezkontza idealen barruan izaki berdin gisa elkar maitatzen ikasiak izatea eskatzen duelarik:

Ez dut deskribatu nahi zer litzatekeen iritzi eta xede berdinak dituzten eta euren artean berdintasunik bikainena lortu duten bi pertsona ikasiren arteko ezkontza, ahalmen eta gaitasun berdintsuak edukitzeak emandako elkarrekiko nagusitasunaren jabe direnean eta, elkarri begietara begiratzean, bien garapenaren bidean batzuetan laguna gidatzeko eta besteetan hark gidatua izateko aukera dutenean ... Baina nik konbentzimendu sakonez uste dut horixe eta horixe bakarrik dela ezkontzako ideala ... Gizateriaren berronbidetatze moralak ez da benetan hasiko, harik eta harreman sozial oinarritzkoen justizia berdinkidearen araupean jarri arte eta harik eta gizateriako kideek eskubideetan eta gaitasunetan beren maila berekoa duten kidearekiko begikotasun beroena lantzen ikasi arte¹².

Nahiz eta helduek aske izan behar luketen elkarren arteko harreman sexualak nahierara eratze eta desagiteko, beti ere hirugarrenei (euren seme-alabak ere barne) zuzeneko eta lehen eragineko kalterik egin ezean, Millek uste du kulturadun gizakiek normalean

monogamia aukeratuko dutela, bizitzako ardurei biek batera erantzutean elkarrenganako kutuntasun sakon bat garatu eta gozatzeko. Benetan ere, baldin (dudazkoa dirudi baina) gizonak eta emakumeak izaera esentzial ezberdinak badituzte, hori horrela dela berdinen arteko ezkontza ideal horiexen testuinguruan bakarrik egiazta daiteke: «eta seguru esan daiteke bi lagunak artean ez dagoela ezagutza osorik, bi lagunok adiskide minak izatez gain, maila berean egon ezean»¹³. Bitartean, gizarte patriarkalaren lege eta ohitura bidegabeen pean gizonak eta emakumeak erakutsitako izaera ezberdinak ez dira hartu behar euren arteko diferentzia naturaltzat, badaitekeelako konbentzionalak baino ez izatea. Aitzitik, ohiturak aldatu beharra dago, emakumei eskubide eta aukera berdina bermatzeko, hartara, gizonak eta emakumeak behar bezala elkar estimatzera hel daitezen eta gizarteak bitzuen ahalegin eta talentuen onura guztia jaso dezan.

Sozialismoari buruzko Kapituluak izeneko osatu gabeko idazlanean (1879), Millek posibilitate seriotzat hartzen du merkatu ekonomia lehiakor batean langile ikasiek berdinen elkarte sozialistak eratzea, hau da, langileen kooperatibak, non kapital ondasunak jabetza komuneak izanaren diren, enpresa zuzentzeko ahalmena lankideen boto gehienaren arabera aldi baterako hautaturiko buruen artean txandakatuko den eta irabazi garbiak gehiengoak onetsitako ekitatezko printzipio finkoren baten arabera banatuko diren. Ezkerraren kritikekin bat dator indarrean dagoen ordena industrial kapitalista bidegabea delako baieztapenari dagokionez: «Gizartearen egungo egoeran, justizia banatzailearen benetako ideia, edo arrakastaren eta merezimen duaren arteko edo emaitzaren eta ahaleginaren arteko nolabaiteko proportzionaltasunaren ideia, hain nabarmenki kimerikoa da, non fantasia hutsaren mailara jaits daitekeen»¹⁴. Baina badio, halaber, kritikariek gaizki ulertzen ohi dutela teoria ekonomikoa. Ondorioz, ez dute ikusten euren objektioei (ongi oinarrituak direnean ere) aise erantzun dakiekeela jabetza pribatuaren egungo legea aldatu eta «ordainsariaren eta ahaleginaren arteko ekitatezko proportzio printzipio» batekiko adostasunera ekarriz gero, zeinak, *Principles of Political Economy* lanaren II. Liburukian (1848) aldeztu duen moduan, justifikazioa baitakarkio jabetza pribatuko ekonomia orori, zehazki, produktoreei euren lan eta aurrezpenari bidezki dagokien merkatu lehiakorreko ordainsaria zor zaiela dioen printzipioari¹⁵. Behar diren erreformak

burutuko balira, hortik letorkeen kapitalismo mota egundaino ikusita-ko ezein sistema kapitalista baino bidezkoago eta berdinzaleagoa litzateke, zeren desberdintasun iturri bidegabeak, hala nola, mugarik gabeko jaraunspena, baliabide naturalen (inork sortu gabekoen) titulurik gabeko jabetza, erregulatu gabeko botere monopolista eta merkatu lehiakorrei jarritako hainbat eratako eragozpen politiko artifizialak, kendu egingen lirateke eta. Kapitalismo «mota hoberen» hori «aurreikus daitekeen etorkizunerako» balio duen eredua da, dio hark, eta mailaka bakarrik erdietsi daiteke, gizarteko kide gehienek beren gaitasun intelektual eta moralak justiziaren moralara preziatzeko behar den heinean landu ahala¹⁶. Bitartean, prestakuntzarik gabeko masen alde abangoardiak gidaturiko iraultza sozialista bat-bateko eta bortitza ekidin egin behar da. Iraunen duen sozialismo bat posible bada, kapitalismo motarik onena erdietsi ondoren bakarrik etorriko da. Sozialismo deszentralizatua izanen da, «berezko prozesu moduko» baten bidez kapitalismo kooperatibo aurreratutik azaleratuko dena¹⁷.

Masen garapen intelektual eta moralara burutzen denean, pentsatzen du Millek, mota bitako elkarte ekonomikoak sortzeko joera izanen da: «Nagusien eta langile jendearen arteko erlazioen ordezkari politiki bazkidetzak sortuz joanen dira, bizpahiru eratan: kasu batzuetan, langileek kapitalistekin egindako elkarteak izanen dira; beste batzuetan, eta agian azkenerako denetan, langileek euren artean egindako elkarteak»¹⁸. Motarik oneneko elkarte kapitalista kooperatiboetan, kapital jabe batzuek lan ekarpenik egin gabe enpresan inberti dezakete, eta horregatik mozkin orotan euren parteia izateko eskubidea dute, baina ez dute lanagatik ezein merkatu ordainsarirako eskubiderik. Elkarteko kiderik gehienek, ordea, lan ekarpena egiten dute, baita euren aurrezpenen zati bat bederen inbertitu ere, eta horregatik soldata lehiakor bat jasotzeko eskubidea dute euren langintzaren arabera, baita mozkinetan euren parteia izateko ere, egindako inbertsioaren arabera. Enpresako bazkide orok ordainsari berdina jasotzen du beti ere euren lanaz eta kapital inbertsioaz egindako ekarpen produktiboaren arabera. Horrekin kontrastean, elkarte sozialista batean, justiziaren moralara gehiago hurbiltzen den elkarte bera, ez dago kapital jabe pribaturik, ezta alferrentzirik edo antzekorik ere. Aitzitik, elkar-tearen kapitala bazkideen jabetza komuna da, haietako inork ezin duelarik bere parteia saldu ez beste moduren batean enpresatik atera.

Bazkide guztiak enpresan lan egiten eta inbertitzen dute, eta merkatu ordainsariak lankideek (gehienek) onetsitako justizia banatzailearen printzipio bati jarrai banatzen dira denen artean. Bazkide bakoitzak ordainsari bera jaso dezake, zeinahi izanik ere bakoitzaren langintza eta kapital inbertsioa.

Millek, egia esan, espero du, herriaren moraltasunak aurrera-pausoak eman eta jabetza pribatuaren erreforma egokien bidez aberas-tasuna jendartean zabaldu ahala, bazkidetza sozialistako sistema lehia-kor batek ordez dezakeela kapitalismoa, motarik onenera iritsitakoa ere. Hala ere, beldur da bere esperantzak ez ote diren inoiz ere gauzatu gabe geldituko. Haren zalantzak batik bat askatasun indibidualaren jira-biran dabilta. Beldur da merkatu sozialismo idealak berak ere ez ote duen erakutsiko norberari begirako gaietako askatasun indibidualareki-ko kapitalismo motarik onena baino itxiagoa dela. Elkarre sozialista orotan, beren lankideez arduraturik dauden langile ongi prestatuen gehiengoek ideia, bizi tankera eta antzerako gauza «bitxiak» ez susta-tzeko joera ukan dezakete. Bazkide bakoitzak elkarrearen kapitalaren partetxo bat ere bere kontura erabiltzeko eskubiderik ez duenez, gehiengoak uniformetasuna bultzatzeko duen ahalmena nabarmena da alternatiba kapitalistarekin alderatuta, azken horretan uniformetasune-rako joera arazo kezagarria baita. Hala ere, ez da ezinezkoa agian egu-nen batean aurrerapen moral eta intelektualak merkatu sozialismoa indibidualtasunik handienarekin bateragarri bihurtzea.

Millek «berdinen gizarteaz» duen ikuspegia ideal demokratiko liberal handi bat da, non gizarte horretako instituzioek kapitalismoa haren era onenean edo merkatu sozialismo lehiakorra daukaten beren baitan. Herriaren ordezkari den gobernu demokratikoa eskaintzen du gizarte horrek, eskubide liberal unibertsalekin eta nolnahi ere aberas-tasunean funtsezko berdintasunarekin. Millek argi uzten duen moduan, badirudi horrelako gizarte ideala, non goi mailako garapenaren jabe diren bertako herritarrek xede moral eta estetikoak aberastasunaren eta populazioaren ugaltze etengabearen gainetik jartzen dituzten, ekono-miaren «egoera egonkor» batekin lotu-loturik dagoela, non metaturiko kapitla eta populazioa arrazoizko maila minimoetan egonkor manten-tzen den denboran zehar. Egoera egonkorrean, goi milako garapena erdietsi duten jende horiek euren orotarako kopuruei eta euren bizimo-duari eusten diete, euren ohitura eta balioak —labur esanda, euren iza-

ra periklearra— hurrengo belaunaldiari transmitituz. Adibidez, jaiotza-kontrolleko eta kontsumo eta inbertsio pertsonaleko aztura egokiak helaraziko liekete. Era berean, asunto politiko eta ekonomikoetan elkar laguntzeak eta ezohiko ideiekin eta bizi tankera pertsonalekin norberari begirako esperimentuak egiteak duten garrantzia irakatsiko liekete, baita ingurune naturalaren edertasuna estimatzen jakiteak eta, jeneralean, elkarren eskubide berdinak, norberari begirako askatasuna ere barne, errespetatzeak dutena ere. Millek iradokitzen duenez, justizia, askatasun eta zoriontasun berdina aldi berean maximizatuko lirateke horrelako gizarte demokratiko liberal baten testuinguruan. Osasun oneko heldu guztiengandik eurek aukeraturiko langintzetan jardutea espero izanen litzateke; inor ezinen litzateke jaioz geroztik bizi irabazi gabeko jaraunspen eskergetatik edo errentan emandako ondasunetatik; inork ez luke izanen bere hurkoak, dela estatuan, ekonomian edo familian, beti gobernatzen jarduteko eskubiderik, Aurrerapen teknologikoa, mugarik gabeko hazkunde ekonomikoa barik, asti gehiagorako aukera ekarriko liguke guztioi, laboratu gabeko arlo guztiak gizakiaren xedeetarako eraldatzea areagotuz eta animali bizitzaren forma ezgizatiar guztiak gero eta gehiago suntsitzea lortuz¹⁹.

Gizarte erlatiboki aurreratuak ere badaiteke ez egotea gaur egun Millen garaian baino berdin gizarte ideal batetik hurrago. Hark zeraman demokrazia liberalaren marka gehienbat ulertu gabe gelditzen da. Baina haren filosofia moral eta politiko distiratsuak leku bat dauka betiko gordeta justizia berdinkidearen, askatasun indibidualaren eta denon ongizatearen alde engaiatuta dihardutenen bihotzetan.

Jonathan Riley
Filosofia eta Ekonomia Politikoko Irakaslea
Tulane Unibertsitatea
New Orleans, LA 70115
AEB

¹ Ikus, adibidez, C.L. Ten, *Mill on Liberty* (Oxford, Clarendon Press, 1980); H.L.A. Hart, «Natural Rights: Bentham and John Stuart Mill», haren *Essays on Bentham* lanean, Oxford, Oxford University Press, 1982) 79-104 orr.; John Gray, *Mill on Liberty: A Defence* (Londres, Routledge, 1983; 2. ed., 1996); Fred Berger, *Happiness, Justice and Freedom: The Moral and Political Philosophy of John Stuart Mill* (Berkeley, University of California Press, 1984); Joel Feinberg, *The Moral Limits to the Criminal Law*, 4 lib. (Oxford, Oxford University Press, 1984-88); John Skorupski, *John Stuart Mill* (Londres, Routledge, 1989); Jonathan Riley, *Mill on Liberty* (Londres, Routledge, 1998); *The Cambridge Companion to John Stuart Mill*, John Skorupski ed. (Cambridge, Cambridge University Press, 1998); Joseph Hamburger, *John Stuart Mill on Liberty and Control* (Princeton, Princeton University Press, 1999); *On Liberty: John Stuart Mill*, David Bromwich eta George Kateb ed. (New Haven, Yale University Press, 2003); eta Riley, *Mill's Radical Liberalism* (Londres, Routledge, 2004an argita-

ratuko dena). Millen ideiei buruz egun izan diren erreakzio batzuk eza-gutzeko, ikus *Liberty: Contemporary Responses to John Stuart Mill*, lanean bilduriko analisiak, Andrew Pyle ed. (Bristol, Thoemmes, 1994); eta *The Subjection of Women: Contemporary Responses to John Stuart Mill*, Andrew Pyle ed. (Bristol, Thoemmes, 1995).

² Millen bizitza zehatzago aztertze-ko, ikus Mill, 'Autobiography' [1873], *The Collected Works of John Stuart Mill* obran [aurrerantzean, CW], gen.ed., J.M. Robson, 33 lib. (Toronto eta Londres, University of Toronto Press eta Routledge & Kegan Paul, 1963-91), 1. Lib., 1-290 orr.; Alexander Bain, *John Stuart Mill: A Criticism, with Personal Recollections* (Londres, Longmans, Green, 1882); Michael St. John Packe, *The Life of John Stuart Mill* (Londres, Secker and Warburg, 1954); eta Riley, *Mill on Liberty*, pp. 3-27.

³ Millek *Principles of Political Economy* lanean [1848; 7. edizioa, 1871] adierazten du berdintasuna baino justizia banatzailearen eredu oraindik garaiagoa erdiets daitekeela sozialismoan, zehazki, «denek nor-

bere gaitasunaren arabera lan egitea eta norbere beharritzenen arabera jasotzea», Millek Louis Blanc jaunarena dela uste duen printzipioa berau (CW, 2. Lib., 203 orr.).

4 «Maxima bi» horien enuntziatu baterako, ikus Mill, *On Liberty* [1859], CW, 18. Lib., 292 orr.

5 *On Liberty*z eta Millen filosofiaz zabalagoan nik daukadan interpretazioa hobeto eztabaidatzeko, ikus Riley, *Mill on Liberty*; eta Riley, *Mill's Radical Liberalism*.

6 *On Liberty*, CW, 18. Lib., 224 orr.

7 Mill, *Utilitarianism* [1861], CW, 10. Lib., 240-59 orr.

8 Millen adierazpen askatasuna nik interpretatzen dudana moduan zehatzago eztabaidatzeko, ikus Riley, 'Mill's Liberal Utilitarian Doctrine of Free Speech', *Utilitasen* agertuko dena, 16. Lib. (2004); eta Riley, *Mill's Radical Liberalism*, 6-8 Kapituluak. Orainsu, zenbait iruzkingilek iradoki dute (oker, ene ustez) Millek adierazpena norberari soilik begirako jokaera gisa ikusten duela. Ikus, adibidez, K.C. O'Rourke, *John Stuart Mill and Freedom of Expression* (Londres, Routledge, 2001).

9 Millek egiten dituen Periklesen aipuen inguruan, ikus *On Liberty*, CW, 18. Lib., 266 orr. Hileta hitzaldia bera George Grotek aldeztu izulita eta eztabaidatuta dauka bere *A History of Greece* obran (lehenbizi 1846-56ean 12 liburukitan argitaratua) (Bristol, Thoemmes, 2000, 1872an 10 liburukitan publikaturiko 4. edizioaren berrinprimaketa), 5. Lib. 64-74 orr. Grotek antzinako atenastarren bizi-

moduari oro har eta Periklesen izaerari bereziki egindako gorespenak errepikatzen ditu. Ikus, adibidez, Mill, 'Grote's Greece, V eta VI. Liburukiak' [1849], CW, 25. Lib., 1128-34 orr.; eta Mill, 'Grote's History of Greece' [1853], CW, 11. Lib., 317-21, 333-34 orr.

¹⁰ Mill, *The Subjection of Women* (1869), CW, 21. Lib., 294 orr. Aristotelesekin dio gizarterik onenean maila berekoak izan diren herritarrek elkarren artean txandakatuko direla, aldi batean agintzen eta bestean esanak egiten jardunez. *Politikan*, III. Liburua, 13 dioenez: «Herritarra gobernatzen eta gobernatua izaten parte hartzen duena da. Diferentia da gobernu era ezberdinetan, baina Estaturik onenean herritarra bizitza bikaina lortzeko gobernatua izateko eta gobernatzeko gai dena eta bata eta bestea aukeratzen duena da». Ikus halaber haren oharra III. Liburuan, 4, «araubide konstituzionalaz». Aristotelesen aipuok *The Complete Works of Aristotle* Oxfordeko itzulpen berrikusitik, 2 liburuki, Jonathan Barnes ed. (Princeton, Princeton University Press, 1984), 2. Lib., 2037orr. eta 2027 orr., hurrenez hurren, hartuak dira.

¹¹ Millen ordezkartitzazko demokrazia konstituzionalari buruzko teoria hobeto eztabaidatzeko ikus, adibidez, Mill, *Considerations on Representative Government* (1861), CW, 19. Lib.; Dennis F. Thompson, *John Stuart Mill and Representative Government* (Princeton, Princeton University Press, 1976); Jonathan Riley, 'Utilitarian Ethics and Democratic Government', *Ethics* 100

(1990): 335-48; eta Nadia Urbinati, *Mill on Democracy: From the Athenian Polis to Representative Government* (Chicago, University of Chicago Press, 2002).

¹² Mill, *The Subjection of Women*, CW, 21. Lib., 336 orr.

¹³ *The Subjection of Women*, CW, 21. Lib., 279 orr.

¹⁴ Mill, *Chapters on Socialism*, CW, 5. Lib., 714 orr.

¹⁵ Mill, *Principles of Political Economy*, CW, 2. Lib., 208, 215 orr.

¹⁶ Kapitalismo «motarik onena» ekartzeko behar den erreforma prozesuari buruz, ikus Jonathan Riley, 'Justice Under Capitalism', *Markets and Justice: NOMOS 31* lanean, John W. Chapman eta J. Roland Pennock ed. (New York, New York University Press, 1989), 122-62 orr.; eta Riley, 'Mill's Liberal Utilitarian Assessment of Capitalism Versus Socialism,' *Utilitas* 8 (1996): 39-71, 45-64 orrialdeetan. Orokorkiago, ikus halaber, Samuel Hollander, *The Economics of John Stuart Mill*, 2 liburuki. (Toronto,

University of Toronto Press, 1985), 2. Lib., 825-912 orr.

¹⁷ Kapitalismo «motarik onenetik» merkatu sozialismoa azaleratzea eragin dezakeen «berezko prozesua» honako idazlan hauetan eztabaidatzen da: Mill, *Principles of Political Economy*, CW, 3. Lib., 791-94 orr.; Mill, *Chapters on Socialism*, CW, 5. Lib., 743 orr.; Hollander, *The Economics of John Stuart Mill*, 2. Lib., 817-8 orr.; eta Riley, 'Mill's Liberal Utilitarian Assessment of Capitalism Versus Socialism,' 39-45, 64-68 orr.

¹⁸ *Principles of Political Economy*, CW, 3. Lib, 769 orr.

¹⁹ Millek egoera egonkor bateko gizarte demokratiko liberal idealaz duen teoria zehatzago eztabaidatzeko, ikus Mill, *Principles of Political Economy*, CW, 3. Lib., 752-57 orr.; Riley, 'Mill's Political Economy: Ricardian Science and Liberal Utilitarian Art', *The Cambridge Companion to John Stuart Mill* lanean, 293-337; eta Riley, *Mill's Radical Liberalism*.

Bibliografia

John Stuart Millen obra

Two Letters on the Measure of Value (1822)

Questions of Population (1823)

War Expenditure (1824)

Political Economy (1825)

Review of Miss Martineau's Tales (1830)

The Spirit of the Age (1831)

Essay on Bentham (1838)

A System of Logic (1843)

Essays on Some Unsettled Questions of Political Economy (1844)

Claims of Labour (1845)

The Principles of Political Economy: With Some of Their Applications to Social Philosophy (1848)

The Negro Question (1850)

Dissertations and Discussions (1859)

On Liberty (1859)

Thoughts on Parliamentary Reform (1859)

Considerations on Representative Government (1860)

Centralisation (1862)

The Contest in America (1862)

Utilitarianism (1863)

An Examination of Sir William Hamilton's Philosophy (1865)

Auguste Comte and Positivism (1865)

Inaugural Address at St. Andrews (1867)

England and Ireland (1868)

Thorton on Labor and Its Claims (1869)

The Subjection of Women (1869)

Chapters and Speeches on the Irish Land Question (1870)

On Nature (1874)

Autobiography of John Stuart Mill (1873)

Three Essays on Religion (1874)

John Stuart Milli buruzko bibliografia.

AUGUST, EUGENE. *John Stuart Mill: A Mind at Large*. New York: Charles Scribner's Sons, 1975.

BARRY, BRIAN. *Political Argument*. London: Routledge, Kegan, and Paul, 1965.

BECKER, LAWRENCE C. *Property Rights: Philosophical Foundations*. London: Routledge, Kegan, and Paul, 1977.

- BERLIN, ISAIAH. *Four Essays on Liberty*. Oxford: Oxford University Press, 1969.
- BROWN, DONALD G. «John Mill: John Rawls.» *Dialogue* 12 (1973): 1-3.
- BROWN, DONALD G. «Mill on Harm to Others' Interests.» *Political Studies* 26 (1978)
- BROWN, DONALD G. «Mill on Liberty and Morality.» *Philosophical Review* 81 (1972)
- BROWN, DONALD G. «Mill's Act-Utilitarianism.» *Philosophical Quarterly* 24 (1974)
- BROWN, DONALD G. «What is Mill's Principle of Utility?» *Canadian Journal of Philosophy* 3 (1973)
- DEVLIN, PATRICK. *The Enforcement of Morals*. Oxford: Oxford University Press, 1965.
- DOUGLAS, CHARLES. *John Stuart Mill: A Study of his Philosophy*. Edinburgh: Blackwood, 1895.
- DRYER, J. P. «Mill's Utilitarianism.» In *Essays on Ethics, Religion and Society*. Toronto: University of Toronto Press, 1969.
- FEINBERG, JOEL. *Social Philosophy*. Englewood Cliffs, N.J.: Prentice-Hall, 1973.
- FEYERABEND, PAUL K. *Against Method*. London: New Left Books, 1975.
- FRIEDMAN, MILTON. *Capitalism and Freedom*. Chicago: University of Chicago Press, 1974.
- HALLIDAY, R. J. *John Stuart Mill*. London: Allen & Unwin, Ltd., 1976.
- HAMPSHIRE, STUART. «Uncertainty in Politics.» *Encounter* 8 (January 1957): 34-37.
- HART, HERBERT L. A. *Law, Liberty and Morality*. Stanford, Calif: Stanford University Press, 1963.
- HASCALL, DUDLEY L., and ROBSON, JOHN M. «Bibliography of Writings on Mill.» *The Mill News Letter* I (Fall 1965) through V (Spring 1970). Toronto: University of Toronto Press.
- HAYEK, FRIEDRICH A. *The Constitution of Liberty*. Chicago: Henry Regnery Company, Gateway Edition, 1970.
- KNICKERBOCKER, F. W. *Free Minds: John Morley and His Friends*. Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press, 1943.
- LIPPINCOTT, B. E. *Victorian Critics of Democracy*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1938.
- LIVELY, J. and REES, J. C. *Utilitarian Logic and Politics*. Oxford: Oxford University Press, 1978.
- LONG, D. G. *Bentham on Liberty*. Toronto: University of Toronto Press, 1977.
- LYONS, DAVID. *Forms and Limits of Utilitarianism*. Oxford: Oxford University Press, 1965.
- LYONS, DAVID. «Human Rights and the General Welfare.» *Philosophy and Public Affairs* 6 (Winter 1977): 113-129.
- LYONS, DAVID. *In the Interest of the Governed*. Oxford: Oxford University Press, 1973.
- LYONS, DAVID. «J.S. Mill's Theory of Morality.» *Nous* 10 (May 1976): 101-119.
- MACMINN, NEY; Hains, J.R.; and McCrimmon, James McNab, eds. *Bibliography of the Published Writings of John Stuart Mill*. 1945.

- MACPHERSON, C. B. *The Life and Times of Liberal Democracy*. Oxford: Oxford University Press, 1977.
- MACPHERSON, C. B. *The Political Theory of Possessive Individualism*. Oxford: Oxford University Press, 1962.
- MAZLISH, BRUCE. *James and John Stuart Mill*. New York: Basic Books, 1975.
- MITCHELL, BASIL. *Law, Morality, and Religion*. Oxford: Oxford University Press, 1967.
- PARKER, JOSEPH. *John Stuart Mill on Liberty, A Critique*. London, 1865.
- PAPPE, H. O. *John Stuart Mill and the Harriet Taylor Myth*. Melbourne: Melbourne University Press, 1962.
- PLAMENATZ, JOHN PETROV. *The English Utilitarians*. Oxford: Basil Blackwell, 1958.
- POPPER, KARL R. *The Open Society and Its Enemies*. London: Routledge, Kegan, and Paul, 1978.
- RADCLIFF, PETER, ed. *Limits of Liberty*. Belmont, Calif.: Wadsworth, 1966.
- REES, JOHN C. «A Phase in the Development of Mill's Ideas on Liberty.» *Political Studies* 6 (1958): 33-44.
- REES, JOHN C. «A Re-Reading of Mill on Liberty.» *Political Studies* 8 (1960): 113-129.
- REES, JOHN C. «H.O. Pappé's *John Stuart Mill and the Harriet Taylor Myth*.» *Political Studies* 10 (1962): 198-202.
- REES, JOHN C. *Mill and His Early Critics*. Leicester: Leicester University College, 1956.
- REES, JOHN C. «The Thesis of the 'Two Mills.'» *Political Studies* 25 (1977): 369-382.
- REES, JOHN C. «Was Mill for Liberty?» *Political Studies* 14 (1966): 72-77.
- ROACH, JOHN. «Liberalism and the Victorian Intelligentsia.» *The Cambridge Historical Journal* 13 (1957): 58-81.
- ROBSON, JOHN M. «John Stuart Mill.» *Victorian Prose: A Guide to Research*. New York: The Modern Language Association of America, 1973.
- ROBSON, JOHN M. *The Improvement of Mankind: The Social and Political Thought of John Stuart Mill*. Toronto: University of Toronto Press, 1968.
- ROBSON, JOHN M., *Collected Works of John Stuart Mill*. Toronto: University of Toronto Press, 1963.
- ROBSON, JOHN M. and LAINE, MICHAEL, eds. *The Mill News Letter*. (Department of English, Victoria College, University of Toronto, Toronto, Canada.) 1965.
- RYAN, ALAN. *John Stuart Mill*. London: Routledge, Kegan, and Paul, 1974.
- RYAN, ALAN. «John Stuart Mill and the Open Society.» *The Listener* (May 17, 1973): 633-635.
- RYAN, ALAN. «John Stuart Mill's Art of Living.» *The Listener* (Oct. 21, 1965): 60-62.
- RYAN, ALAN. «Mr. McCloskey on Mill's Liberalism.» *Philosophical Quarterly* 14 (1964): 253-260.
- RYAN, ALAN. *The Philosophy of John Stuart Mill*. London: Macmillan & Co., 1970.

SCHWARTZ, PEDRO. *The New Political Economy of J. S. Mill*. B. Leblanc. Durham (itzulp) , N.C.: Duke University Press, 1972.

SPITZ, DAVID, ed. *On Liberty*. Norton Critical Edition. New York: W. W. Norton, and Co., 1975.

STEPHEN, JAMES FITZJAMES. *Liberty, Equality, Fraternity*. Edited by R. J. White. Cambridge: Cambridge University Press, 1967.

STEPHEN, LESLIE. *The English Utilitarians*. London: Duckworth, 1900.

STRAWSON, P. F. «Social Morality and Individual Ideal.» *Philosophy: The Journal of the Royal Institute of Philosophy* 36 (Jan. 1968): 1-17.

URMSON, J. O. «The Interpretation of the Moral Philosophy of J. S. Mill.» *Philosophical Quarterly* 3 (1953): 33-39.

WATKINS, J.W.N. «Three Views Concerning Human Freedom.» In *Nature and Conduct*. London: Royal Institute of Philosophy Lectures Vol. 8, 1974.

WOLLHEIM, RICHARD. «Mill on the Limits of State Interference.» *Social Research* 40 (1973): 1-30.

John Stuart Mill gatzelaniaz

MILL, J. S. (1985). *Principios de economía política*. Mexiko: FCE.

MILL, J. S. (2001). *Sobre la libertad*. Madril: Alianza.

MILL, J. S. (1999). *El utilitarismo*. Madril: Alianza.

MILL, J. S. (2001). *Consideraciones sobre el gobierno representativo*. Madril: Alianza.

MILL, J. S. (1965). *De la libertad ; Del gobierno representativo ; La esclavitud femenina*. Madrid: Tecnos.

MILL, J. S. (1999). *La esclavitud femenina* [bertsio elektronikoa]. Alacant: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, 1999 (www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/45782819096547495299979/index.htm).

MILL, J. S. (1998). *La naturaleza*. Madril: Alianza.

MILL, J. S. (1995). *La utilidad de la religión*. Madril: Alianza.

MILL, J. S. (1975). *Tres ensayos sobre la religión*. Madril: Aguilar.

MILL, J. S. (1986). *Autobiografía*. Madril: Alianza.

John Stuart Mill frantsesez

MILL, J. S. (1988). *Système de logique déductive et inductive*. Paris: Librairie philosophique de Ladrangé.

MILL, J. S. (1953). *Principes d'économie politique*. Paris: Dalloz.

MILL, J. S. (1990). *De la liberté*. Paris: Gallimard.

MILL, J. S. (1988). *L'utilitarisme*. Paris: Flammarion.

MILL, J. S. (1966). *Considérations sur le gouvernement représentatif*. Paris: Éditions inter-nationales.

MILL, J. S. (1992). *De l'assujettissement des femmes*. Paris: Avatar.

MILL, J. S. (2003). *La nature*. Paris: la Découverte.

MILL, J. S. (1993). *Autobiographie*. Paris: Aubier.

ASKATASUNAZ
[1859]

*Orrialde hauetan azalduko argudio bakoitzak zuzenean era -
kusten digun printzipio nagusia, printzipio gailena, giza garapenak
bere dibertsitate aberatsenean daukan garrantzi erabateko eta fun -
tsezkoa da.*

WILHELM VON HUMBOLDT

Gobernuaren eremua eta eginbeharrak

*Ene idazlanetan dagoen onenaren inspiratzaile eta, alde bere -
ren, autore ere izan zenaren oroipen maitatu eta negartuari, ene lagun
eta emaztearen oroipenari, dedikatzen diot liburu hau, haren egia eta
zuzentasun sen gartsua izan bainuen eragingarririk biziena, eta haren
onespena, berriz, sari nagusi. Hainbat urtetan idatzi dudan guztia
bezalaxe, liburu hau ere harena da nirea den bezainbeste, baina lan
honek, dagoen moduan, inola ere aski ez den graduan baino ez dauka
haren berrikuspenaren abantaila estimagaitza; beronen zati garran -
tzitsuenetako batzuk bigarren azterketa arretatsuagoaren zain geratu
ziren, eta orain ez dute sekula jasoko. Haren hilobian ehortzita dau -
den pentsamendu handien eta sentipen nobleen erdia munduarentzat
interpretatzeko kapaz banintz, on handiagoa egingo nioke munduari,
haren zuhurtzia paregabearen bultzadarik eta laguntzarik gabe idatz
nezakeen guztitik sor daitekeena baino.*

I SARRERA

Saiakera honen gaia ez da Hautamena deritzana, gaizki izendaturiko Beharrezkotasun Filosofikoaren doktrinaren aurrez aurre hain trakeski jarri izan dena, baizik Gizarte Askatasuna edo Askatasun Zibila, hau da, gizarteak gizabanakoarengan bidezki ezar dezakeen boterearen izaera eta mugak. Oso gutxitan planteatu eta, orokorki, ia inoiz ere eztabaidatu ez den auzia da hau, baina garai honetako eztabaida praktikoetan eragin sakona izan duena bere presentzia estariatik, eta seguru-segurutik laster batean etorkizuneko auzi ezinbestekotzat hartu beharko dena. Inondik ere ez da berria auzi hau, zeren, zentzu batean, gizateria bitan banandu baitu antzina-antzinako aroetatik, baina, giza espezieko talde zibilizatuenak egun sartu diren aurre-rapen egoeran, baldintza ezberdinetan aurkezten da eta tratamendu ezberdina eta funtsezkoagoa behar du.

Askatasunaren eta Agintearen arteko borroka ezaugarriarik nabarmenena dugu lehenbizi ezagutu ditugun historiaren ataletan, bereziki Grezia, Erroma eta Ingalaterrako historietan. Baina antzina liskar hori menpekoen, edo menpeko mota batzuen, eta Gobernuaren artekoa zen. Askatasunak gobernu politikoaren tiraniatik babesa esan nahi zuen. Gobernariak (Greziako herri-gobernu batzuetan salbu) gobernatzen zuten herriaren aurkako jarrera ezinbestekoan bururatzen zituen beti jendeak. Gobernariak agintari Bat, edo tribu edo kasta bat ziren, herentziaz edo konkistaz berenganaturiko aginpidea zeukate-

nak; ez zuten inola ere gobernatuen oniritzirik eta inor ez zen inola ere ausartzen haien nagusitasuna eztabaidatzera, eta agian inork ez zuen nahi ere eztabaidatu, haien jokabide zapaltzailearen aurka neurriak hartu arren. Beharrezkotzat zeukaten haien boterea, baina baita oso arriskugarritzat ere: etsaien kontra bezainbat menpekoen kontra erabiltzen saiatuko ziren armatzat. Komunitateko kiderik ahulenak ez zitzaaten hainbat eta hainbat saik jan, nahitaezkoa zen haietako bat, indartsuena, egotea beste guztiei eusteko ardurarekin. Baina saien erregea beste ahulagoak bezain prest zegokeenez taldean triskantzak egiteko, beraren moko eta atzaparretatik babesteko etengabeko jarreran egon behar. Horregatik, abertzaleen xedea gobernariak komunitatearengan erabil zezakeen botereari mugak jartzea zen; eta muga horixe zen askatasun hitzaz adierazi nahi zutena. Hori lortzen bi eratara saiatzen ziren. Lehenik, askatasun politiko edo eskubideak zeritzen immunitate batzuen aintzatespena erdietsiz, Gobernuak, bere eginbeharrak hautsi gabe, ezin zituelarik eskubideok urratu, eta, urratuz gero, unean uneko erresistentzia eta matxinada orokorra ere justifikatuz jotzen zirelarik. Bigarren eta eskuarki geroagoko neurri bat galga konstituzionalak ezartzea izan zen; haien bidez komunitatearen edo ustez beronen interesak ordezkatzeko zituen talderen baten adostasuna beharrezko baldintza bihurtzen zen botere gobernatzailearen ekintza garrantzitsuenetako batzuetarako. Europako herrialde gehienetan, gobernuak mugatze mota hauetariko lehenengoari men egin behar izan zion gutxi-asko. Ez zen gauza bera gertatu bigarrenaren kasuan: eta hori lortzea edo, hein batean lortuta zegoenean, osorik lortzea askatasuna maite zutenen helburu nagusi bihurtu zen herrialde orotan. Eta gizateria etsai baten kontra beste baten bidez borrokatzera eta nagusi batek gobernatua izatera mugatuta zegoenez, haren tiraniatik eraginkorki, gutxi-asko, babesturik egoteko baldintzarekin, ez zituzten beren helmugak hemendik haratago eramane.

Giza negozioren aurreramenaren, hala ere, une bat heldu zen, gizakiek beren gobernariak beren kontrako interesa zeraman botere lokabe bat izatea beharrian naturala zela pentsatzeari utzi ziotena. Askoz hobeto iritzi zioten Estatuaren magistratu ezberdinak beren maizter edo ordezkariak eta, beraz, beren nahierara kengarriak izateari. Horrexetara bakarrik, hala zirudien, espero zezaketan segurtasun osoz inork ez zuela gobernuaren botereez beren kaltetan abusatuko.

Mailaka, gobernari aldi baterako hautetsien galdapen berri hori herri-alderdiaren helburu nagusi bihurtu zen alderdi hori zen toki guztietan; eta, hein handian, gobernarien boterea mugatzeko ordura arteko aha-lerinak ordezkatu zituen. Borroka hori botere gobernatzailearen jatorria gobernatuen alditik aldirako hautespenetan jartzeko zenez gero, batzuk pentsatzen hasi ziren garrantzi handiegia eman zitzaiola boterea bera mugatzeari. *Hori* (dirudienez) herriaren aurkako interesak ohi zituzten gobernarien kontrako baliabide bat izan zen. Orduan gobernariak herriarekin bat eginik egotea lortu behar zen, haien interesa eta nahia nazioaren interesa eta nahia izatea. Nazioak ez zukeen bere nahitik babestuta egoteko premiarik. Nazioak bere burua tiranizatze-ko beldurrik ez zegokeen. Nazio bateko gobernariak beronen aurrean erantzule eta aise kengarriak zirenez gero, nazioak haien eskuetan utz zezakeen boterea, berak aginduko baitzien nola erabili. Haien boterea nazioaren beraren boterea besterik ez zen, kontzentraturik eta erabil-
tzeko erarik onenean. Pentsaera hori, edo agian hobeto sentiera hori, ohiko gauza zen europar liberalismoaren azken belaunaldikoen artean, eta, dirudienez, orain ere nagusi da haren adar kontinentalean. Gobernu batek egin dezakeenari mugaren bat onartzen diotenak (berauek ustez existitu behar ez luketen gobernuen kasuan izan ezik) salbuespen nabarmenak dira kontinenteko pentsalari politikoen artean. Sentiera hori nagusi izan zitekeen gure herrialdean ere, garai batean indartu zuten zirkunstantziak aldatu izan ez balira.

Baina teoria politiko eta filosofikoetan, pertsonen artean beza-
la, arrakastak argitara ateratzen ditu porrotak agian sekula agerian eta behagarri jarriko ez zituzkeen akats eta ahuldadeak. Herriek beren buruarekiko boterea mugatu beharrik ez dutelako ideia axiomatikoa zela eman zezakeen herri-gobernua amestua besterik ez zenean, edo horrelakoaren existentzia antzinako garaietako historiaren batean baino irakurtzen ez zenean. Eta ideia hori ez zuten lorrinduko Frantziako Iraultzaren aldi bateko aberrazioek ere, beraietako txarre-
nak gutxiengo usurpatzaile baten lana izan zirelarik eta, edonola ere, ez zirelarik herri-erakundeek ekintza etengabearen ondorio izan, monarkiaren eta aristokraziaren despotismoaren kontrako bat-bateko asaldurazko leherketa batena baizik. Une batean, hala ere, errepublika demokratiko batek lurrazalaren zati handi bat okupatzea lortu zuen eta nazio-komunitateko kiderik boteretsuenetako bat bihurtu zen; eta hau-

tespenezko gobernu erantzulea sorturiko gertakari handi bati zuzentzen zaizkion ohar eta kritiken jopuntu bihurtu zen. Orduan ikusi zen «norbere buruaren gobernu» edo «herrien boterea euren buruarekiko» eta gisako esaldiek ez zutela adierazten errealitatearen egiazko egoera. Boterea darabilen «herria» ez da beti botere horren eragina leporatzen duen herri bera, eta hainbat aldiz aipatzen den «norbere buruaren gobernu», ez da norberak erabilitako norbere gobernu, beste guztiek erabilitako norberaren gobernu baizik. Herriaren nahiak, gainera, praktikan herriaren *zatirik* jendetsuen edo aktiboena- ren nahia esan nahi du; gehiengoaren edo gehiengotzat onartua izatea lortzen dutenen nahia; herriak, beraz, bere kideen kopuru bat zanpatu *nahi* izan lezake; eta horren kontra beste edozein botere abusuren kontra bezain kontuz ibili behar da. Gizabanakoen gaineko gobernu boterearen mugatzeak, beraz, ez du daukan garrantzitik izpirik ere galtzen, boterea daukatenak komunitatearen aurrean, hau da, bertako alderdi- rik indartsuenen aurrean, araubidez erantzule direnean. Gauzen ikus- kera horrek, pentsalarien adimenara zein demokrazia euren benetako edo ustezko interesen kontra duten europar gizarteko klase inportan- teen joerara era berean egokituz, ez du izan eragozpen modurik onar- tua izatea lortzeko; eta espekulazio politikoetan «gehiengoaren tira- nia» gizarteak erne borrokatu beharreko gaitzen artean sartuta ageri da eskuarki gaur egun.

Beste tiraniak bezala, gehiengoaren hori ere hasieran beldurrez onartzen zen, eta gaur ere onartzen da herrian arruntki, agintari publi- koen egintzen bidez diharduenean batik bat. Baina jende gogoetatsuak hautematen zuen ezen, gizartea bera denean tiranoa –gizartea kolekti- boki, bera osatzen duten gizabanako isolatuekiko–, hark tiranizatze- ko dituen bitartekoak ez direla mugatzen bere funtzionario politikoen bidez egin ditzakeen ekintzetara. Gizarteak betearaz ditzake eta bete- arazi ere egiten ditu bere aginduak; eta agindu onak eman beharrean txarrak ematen baditu, edo berak konpondu behar ez litzukeen gauzei buruz ematen baditu, zapalkuntza politiko mota askok baino tirania sozial ikaragarriagoa praktikatzen du, zeren, normalean hain zigor gogorrez baliatzen ez bada ere, ihesbide gutxiago uzten baititu, bizi- tzako xehetasunetan askoz sakonago sartuz, arimari berari katea ezar- tzeraino. Magistratuaren tiraniatik babesturik egotea, beraz, ez da nahikoa; nagusi den iritzi edo sentieratik babesturik egotea behar da,

gizarteak, zigor zibilez ateko bitartekoak erabilia, bere ideia eta praktikak beraiekin bat ez datozenei jokaera arau gisa inposatzeko duen joeratik babesturik, baita bere moldeekin harmonian ez dauden nortasunen garapena itotzeko eta, ahal izanez gero, sorrera ere eragozteko eta izaera guztiak bere eredura moldatzera behartzeko joeratik ere. Iritzi kolektiboak gizabanakoaren independentzian eduki behar duen esku-hartze bidezkoak muga bat dauka; eta muga hori aurkitu eta inbasio ororen aurka mantentzea despotismo politikotik babestea bezain ezinbestekoa da giza arazoak egoera onean egon daitezen.

Baina, proposizio hori, oro har, ia eztabaidaiezina den arren, arazo praktikoa, hots, non jarri behar den muga —nola egin doitze egokia gizabanakoaren independentziaren eta gizartearen kontrolaren artean— ia alde oro lantzeke daukan gaia da. Gure existentziari balioa ematen dion guztia besteen ekintzei ezarritako bortxa edo murrizketaren mende dago. Horregatik, jokaera arau batzuk inposatu egin behar dira, legez lehenik eta iritziz gero, legeak harrapatu ezin dituen hainbat gauzari dagokionez. Zeintzuek behar luketen izan arauok, horixe da giza aferetako auzi nagusia; baina, kasurik nabarmenenetako bana-ka batzuk kenduz gero, auzi horrexen ebazpidean egin da aurrerapen gutxien. Ez bi mendetan, ezta ia bi herrialdetan ere ez da gauza bera erabaki, eta mende baten edo herrialde baten erabakia harridura iturri da bestearentzat. Hala ere, mende bateko eta herrialde bateko jendeak ez du susmatzen gai horretan gizateria beti bat etorri izan balitz legokeena baino zailtasun handiagorik dagoenik. Euren artean nagusi diren arauei berenez begi-bistakoak eta justifikatuak deritzete. Irudipen oso eta unibertsal hori ohituraren eragin magikoaren adibide bat dugu, ez dena, izan, esaera zaharrak dioenez, bigarren izaera bat soilik, lehenengoaren lekua etengabe hartzen duena baizik. Ohituraren eragina, gizakiek elkarri inposatzen dieten arauetikiko errezelo oro eragotziz, ezin beteagoa da, eskuarki ez delako uste izaten gai horri buruz arrazoiak eman beharrik dagoenik ez besteei ez norbere buruari. Jendeak uste izaten du, eta filosofo izan gurako askok animatu egiten dituzte uste horri eustera, euren sentipenak horrelako gaietan arrazoiak baino hobeak direla, eta haiek daudenean arrazoiak ez direla beharrezko. Giza jokaeraren erregulazioari buruzko iritzietan gidari duten printzipio praktikoa lagun bakoitzak bere gogamenean duen honako sentipena da, alegia, beste guztiak ere berek eta begiko dituztenek gogoko

luketen modura jokatzera behartu behar liratekeela. Izan ere, inork ere ez du aitortzen bere gustua dela bere burubidearen erregulatzaileria; arrazoieta euskarritu gabeko jokaera puntu bati buruzko iritzia lagun baten hobespentzat baino ezin jo daiteke; eta arrazoiak, ematen direnean, beste batzuek duten antzeko hobespenera jotze hutsa baldin badira, guztia orduan askoren gustua baino ez da, batena izan beharrean. Gizaki arrunt batentzat, alabaina, bere hobespena, horrela euskarritua, arrazoi erabat asegarria ez eze, bere sinesbide erlijiosoan espresuki idatzita ez dituen moraltasun, gustu, edo komenigarritasunari buruzko nozio guztiei eusteko daukan arrazoi bakarra da, baita sinesbide horren interpretaziorako gidari nagusia ere. Horregatik, gizakiek goraiagarri edo gaitzesgarri denari buruz dituzten iritziaik besteen jokaerarekiko dituzten gurarietan eragina duten askotariko kausek ukitura daude, eta beste edozerekiko dituzten gurariak determinatzen dituzten kausak bezain ugariak dira. Batzuetan euren arrazoiak, beste batzuetan euren aurreiritziak edo sineskeriak, maiz zaletasun sozialak eta ez gutxitan joera antisozialak, euren inbidia edo jeloskortasuna, harropuzkeria edo mespretxua, baina gehienetan euren gurari edo beldurrak, euren buruarekiko interes bidezko edo bidegabekoa. Klase menperatzailea den edonon, herrialdeko moraltasunaren zati handi baten sorburua haren klase interesean eta nagusi den klaseko sentitzean datza. Moralitasuna espartarren eta iloten artean, landatzaileen eta beltzen artean, printzeen eta menpekoen artean, nobleen eta plebeioen artean, gizonen eta emakumeen artean, aipaturiko klase interes eta sentipenen sorkari izan da gehienbat: eta horrela sorturiko sentimenduek eragina dute berriro klase menperatzaileko kideek euren arteko harremanetan dituzten sentipen moraletan. Bestalde, lehenago menperatzailea izandako klase batek bere nagusitasuna galtzen duenean edo nagusitasun hori herrian onartua ez denean, nagusi diren sentipen moralek nagusitasunaren kontrako sentimendu erre baten ukitua agertzen dute. Legeak edo iritziaik inposaturiko jokaera arauen ebazle — hala egiteei nola ez-egiteei dagokienez — den beste printzipio handi bat euren mundu honetako nagusien edo jainkoen ustezko begikotasun edo herrekiko jopukeria izan da. Jopukeria hau, funtsean egoista den arren, ez da hipokrita; benetako gorroto sentimenduak sortarazten ditu; aztiak eta herejeak erretzera eramane du jendea. Hainbeste eragin makurren artean, gizartearen interes orokor eta nabariek, jakina, beren parteak, eta parte handia gainera, izan dute sentimendu moralen lanke-

tan: gutxiago, hala ere, arrazoiz eta euren baliogatik, euren inguruan sorturiko sinpatia eta antipatien ondorio gisa baino; eta gizartearen interesarekin zerikusi handirik edo inolakorik eduki ez duten sinpatiek edo antipatiek ere neurri berean sentiarazi dute euren indarra moraltasunak ezartzean.

Hartara, gizartearen edo haren zati boteretsu baten gustu eta herrak dira nagusiki eta praktikoki, legearen edo iritziaren zehapenpean, jende guztiak betetzeko ezarritako arauak zehaztu dituztenak. Eta, oro har, pentsamendu eta sentipenetan gizartearen aurretik izan direnek printzipioz ukitu gabe utzi dute egoera hori, nahiz eta xehetasunen batean berorrek inoiz gatazkan egon. Gehiago arduratu dira jakiten gizariek zer izan behar lukeen edo ez lukeen gogoko, haren gustuek edo herrek gizariek onartzen duten lege izan behar ote luketen egiaztatzen baino. Beraiek heretiko ziren puntuetan gizariek sentipenak aldatzen ahalegindu nahiago izan dute, askatasunaren alde heretikoekin jeneralean bat egin baino. Sinesmen erlijiosoaren kasuan bakarrik hartu da printzipioz goi irizpide bat, eta iraunkortasunez eutsi zaio gero, haren haren norbaiten kasua kenduta: modu askotan irakasbide handia izan den kasua berau, eta ez gutxiago sen moralaren deritzaren hutseginkortasunaren adibide nabarmenena bat osatzen duen heinean, zeren *odium theologicum*, fanatiko zintzo batengan, sentipen moralaren kasu nabarmenena baita. Bere buruari Eliza Unibertsala deitzen zionaren uztarria lehenbizi hautsi zutenak eliza bera bezain uzkur zeuden, eskuarki, iritzi erlijiosoko diferentziak onartzerakoan. Baina liskarraren sua, garapen osorik alde bati ere eman gabe, amatatu zenean eta eliza edo sekta bakoitzak bere esperantzak mugatu eta okupaturiko eremuaren jabetzarekin gelditu beharra izan zuenean, gutxiengoek, ikusirik ez zutela gehiengo bihurtzeko aukerarik, konbertitu ezin izan zituztenei eurekin ados ez etortzeko baimena eskatu beharra eduki zuten. Horrela, gudu-zelai honetan, ia bakarrik berton, printzipio oinarri zabalen gainean segurtatu ziren gizariek eskubideak gizariek kontra, eta argi eta garbi eztabaidatu zen gizariek ustezko eskubidea disidenteengan agintea erabiltzeko. Munduak daukan erlijio askatasuna zor dien idazle handiek kontzientzi askatasuna eskubide ezeztatzeko gisa baieztatu dute eta erabat ukatu dute gizariek bere sinesmen erlijiosoagatik inoren aurrean erantzule izan litekeenik. Hala ere, hain naturala zaio gizariek into-

lerantzia berari benetan ardura dion edozertan, non askatasun erlijio-soa ia inon ere ez den praktikan jarri, bakea liskar teologikoz lorrinduta ikusi nahi ez duen axolagabetasun erlijiosoak bere pisua balantzan jarri duen tokietan salbu. Ia pertsona erlijioso guztien buruetan, are herrialde tolerantteenetan, tolerantzia erreserba tazituekin onartzen den eginbeharra da. Batek jasanen du disidentea elizaren gobernuari dagozkion kontuetan, baina ez dogmari dagozkionetan; beste batek edonor jasan ahal du, papista edo unitarioa izan ezik; beste batek erlijio errebelatuan sinesten duen oro; gutxi batzuek urrunago hedatzen dute beren karitatea, baina Jainkoarengan eta geroko bizitzan sinesten dutenengan egiten dute planto. Gehiengoaren sentimendua oraindik benetakoa eta indartsua den leku orotan gutxi motelduta aurkituko dugu obeditua izateko guraria.

Ingalaterran, gure historia politikoaren zirkunstantzia berezien ondorioz, iritziaren uztarria agian astunagoa bada ere, legearena Europako beste herrialde gehienetan baino arinagoa da; eta errezelohandia dago botere legegilea edo betearazlea zuzenean jokaera pribatutan sartzearen kontra, ez hainbeste gizabanakoaren independentzia bidezko den moduan aintzat hartzen delako, baizik, oraindik ere iraun dirauen ohiturari jarrai, gobernu publikoaren aurkako interes baten ordezkaritzat dagoelako. Gehiengo ez da heldu oraindik gobernuaren boterea bere boteretzat edo haren iritzia bere irititzat hartzera. Horretara heltzen direnean, gizabanakoaren askatasuna Gobernuaren inbasioen arriskutan egonen da, segurutik jada iritzi publikoaren arriskutan dagoen maila berean egon ere. Baina, orain arte, joera indartsu bat ageri da, beti prest dagoena legeak, orain arte jendea legeak kontrolatu gabe ikusten ohituta egon den gaietan, gizabanakoak kontrolatzeko egiten dituen ahaleginen kontra irtetera; eta hori ongi bereizi gabe gaia lege-kontrolaren esparru legitimoan dagoen ala ez, joera hori, oro har oso onuragarria, deslekuan jarria bezain ongi oinarritua gertatzeraino bere aplikazioaren kasu gehienetan. Egotez, ez dago gizarteak onarturiko printzipiorik, Gobernuaren esku-hartzearen egokitasuna edo desegokitasuna eskuarki egiaztatzeko balio duenik. Nork bere hobespenen arabera erabakitzen du jendeak. Batzuek, gauza on bat egin edo gaitzen bat erremedia daitekeela ikusi orduan, pozik ziritatuko lukete gobernu lan hori egin dezan; beste batzuek, ostera, nahiago dute ia gizarte gaitz guztiak jasan, gobernuaren kontrolpean

jar daitezkeen giza interesen zerrendara beste bat gehitu baino. Eta jendea kasu partikular bakoitzean alde batean edo bestean jartzen da, beren sentimenduen norabide orokorraren arabera, edo gobernuak egin beharko lukeen gauza konkretuan duen interes mailaren arabera, edo gobernuak eurek nahi duten moduan egingen duela, edo ez duela, segurtatzen dien ustearen arabera; baina oso bakanki gobernuak egiteko egokiak diren gauzei buruz tinko atxikitzen duten iritziz bat kontuan hartuta. Eta nik uste dut ezen, arau edo printzipio gabetasun honen ondorioz, alde bat bestea bezain maiz dagoela oker egun; gobernuaren esku-hartzea maiztasun bertsuaz eskatzen da desegokiro eta gaitzesten da desegokiro.

Saiakera honen helburua oso printzipio xume bat baieztatzea da, gizarteak gizabanakoekin konpulsio edo kontrol eran ukan behar dituen harremanak gobernatzea destinatua, horretarako erabilitako bitartekoak legezko zigorrez ezarritako indar fisikoa nahiz iritziz publikoaren hertsapen morala izanik. Printzipio hori honako hau baieztatzea datza, alegia, gizateriak, indibidual edo kolektiboki, bere kideetako edozeinen askatasunean esku-sartzea justifikagarri bihurtzen duen xede bakarra gizartearen beraren babesa dela. Komunitate zibilizatuko kideren batengan beraren nahiaren kontra boterea erabiltzeko eskubidea ematen duen helburu bakarra besteei kaltea ekiditea dela. Kide horren ona, fisikoa edo morala, ez da behar bezainbateko justifikazioa. Inor ezin daiteke bidezki behartu zerbait egitera edo ez egitera, horrela jokatzeko beretzat hobeia izanen delako, zoriontsuago egingen duelako, edo horrela jokatzeko, beste norbaiten iritziz, egokiago edo bidezkoago delako. Esandakoak arrazoi onak dira aipaturiko kidearekin eztabaidatzeko, arrazoitzeko, edo hura limurtzeko edo arren eskatzeko, baina ez hura behartzeko edo hari inolako kalterik egiteko, bestela jokatzeko badu. Hori justifikatzeko, hark bazter uztea nahi dugun jokaerak beste bati kaltea ekarriko diola uste izan behar da. Gizartearen aurrean erantzukizuna sortzen digun jokaeraren alde bakarra besteekin zerikusia duena dugu. Norberari bakarrik dagokion aldea, gure independentzia, eskubidez, erabatekoa da. Bere buruaren gain, bere gorputz eta gogamenaren gain, gizabanakoa subiranoa da.

Agian ia beharrezko ere ez da esatea doktrina hori gizakiei euren ahalmenen heldutasunera iritsi ondoren soilik zaiela aplikagarri. Ez gara hurrez ari, ez eta legeak gizontasun edo emakumetasunera

iristeko finkatuta duen adinetik beherako gazteez ere. Oraindik ere inork kargu hartu beharreko egoeran daudenak babestu egin behar dira, hala euren ekintzetatik nola kanpoko eraso eta kalteetatik. Arrazoi beragatik, doktrina hori aplikatzetik kanpo utz ditzakegu egoera atzeratuan dauden gizarteak, non arraza bera adin-txikitasunean dagoela uste izan daitekeen. Berezko aurrerapenerako lehenengo zailtasunak hain handiak dira, non eurok gainditzeko bitartekoen aukera modurik ere ez dagoen; eta hobekuntzarako garra duen gobernariak agian bestela erdietsi ezinezkoa den xedea erdiesteko behar den bitarteko oro erabiltzeko eskubidea dauka. Despotismoa gobernatzeko era bidezkoa da barbaroei aplikatuta, beti ere beronen helburua haien ona denean eta bitartekoak helburu horretara bideratuak direlako justifikaturik daudenean. Askatasuna, printzipio gisa, ez dago inola ere aplikatzerik gizateria maila berekoen arteko eztabaida librearen bidez bere burua hobetzeko gai egin zen aldiaren aurreko gauzen ezein egoeratan. Ordura arte, gizakiek ez zuten Akbar bati edo Karlomagno bati inplizituki obeditzea beste biderik, horietako bat aurkitzeko zortea ukanez gero, jakina. Baina gizateriak konbentzimenduz edo limurtzez bere hobekuntzara gidatua izateko gaitasuna erdietsi bezain laster (hemen eztabaidatu behar dugun aldi luzea nazio guztietan erdietsi zenetik), konpultsioa, hala zuzenean nola ez betetzeagatiko zehapen eta zigorren bidez ezarritakoa, ez da aurrerantzean onargarri norbere ona lortzeko bitarteko gisa, eta besteen segurtasunerako bakarrik da justifikagarri.

Esan beharra dago uko degiodala eskubide abstraktuaren ideia-tik, baliagarritasunetik aparteko gauza legez, nire argudiorako etor litekeen abantaila orori. Baliagarritasuna auzi etikotako apelazio gorentzat daukat, baina baliagarritasuna beronen zentzurik zabalenean hartuta, gizakiaren interes iraunkorretan oinarriturikoa, gizakia aurrera egiten duen izakia denez. Interes horiek, nire ustez, berezko-tasun indibiduala kanpotiko kontrolaren pean jartzeko eskubidea ematen dute, baina besteen interesarekin zerikusia duten norberaren ekintzei dagokienez bakarrik. Norbaitek besteentzat kaltegarri den egintzaren bat burutzen badu, hura zigortzeko zioa dago *prima facie*, edo legez, edo lege zigorrik aplikatzerik ez dagoenean, jende gehienaren gaitzespenez. Badira, halaber, besteentzat onuragarri diren eta gizakia burutzera bidezki behar daitekeen egintza asko, hala nola, justizi auzitegi baten aurrean testigantza egitea, defentsa komunean edo babesa

ematen dion gizartearen intereserako beharrezko den beste edozein auzolanetan dagokion heinean parte-hartzea; baita ongintza indibidualleko zenbait ekintza burutzea ere, hala nola, hurkoari bizitza salbatzea, defentsarik gabekoa tratu txarretatik babestea, eta, horiek egitea gizakiaren eginbeharra denez gero, ez egiteagatik gizartearen aurrean erantzule egin daiteke bidezki. Lagun batek ez bakarrik egiteagatik, ez egiteagatik ere kalte egin liezaieke besteei, eta kasu biotan da kaltearen erantzule haien aurrean. Bigarren kasuan, egia esan, lehenengoan baino kontu handiagoz erabili behar da konpultsioa. Norbait besteei kalte egitearen erantzule egitea araua da; norbait hori kaltea ez ekiditearen erantzule egitea, konparazioz hitz eginda, salbuespena da. Hala ere, kasu asko daude salbuespen hori justifikatzeko bezain argi eta larriak. Gizabanakoaren kanpoko harremanekin zerikusia duten arlo guztietan, hori erantzule da *de jure* euren interesetan kaltetu gertatu diren guztien aurrean, eta behar izanez gero, haien babesle den gizartearen aurrean. Maiz arrazoi sendoak izaten dira erantzukizun hori ez galdatzeko; baina arrazoiok kasuaren zirkunstantzia berezietatik ateratakoak behar dute izan, dela kasu horretan lagun horrek bere kontura utzita oro har hobeto jokatuko duelako, gizarteak kontrolatzeko dituen bitartekoak erabilia baino, dela kontrola erabiltzeko ahaleginak eragotzi nahi dituen gaitzak baino handiagoak ekarriko lituzkeelako. Horrelako arrazoiak erantzukizuna galdatzea eragozten dutenean, egilearen beraren kontzientziak jarri behar du epailearen aulki hutsean eta kanpoko babesik ez duten interesak babestu, bere burua ahalik zorrozkien epaituz, kasua ezin jarri delako lagun hurkoen epaiaren pean.

Baina bada ekintza esparru bat, non gizarteak, gizabanakoa-
rengandik diferentea denez, edukitzekotan, zeharkako interesa baino ez duen; ekintza esparru horrek norberarengan bakarrik edo bestee-
gan ere, beti ere haiek nahita, libreki eta hausnartu ondoren emanda-
ko adostasuna bitarteko dela, eragina duen lagunaren bizitzaren eta
jokaeraren alde guztia hartzen du. Norberarengan bakarrik diodane-
an, zuzenean eta lehenengo eta behin esan nahi dut, zeren norberare-
kin zerikusia duen orok beste batzuegan eragina izan dezake norbe-
raren bidez, eta horretan oinarrituriko objekzioa geroago hartuko da
kontuan. Hauxe da, orduan, giza askatasunaren eremu egokia. Lehenik, kontzientziaren barne eremua hartzen du, kontzientzi aska-

tasuna zentzurik zabalenean, pentsamendu eta sentipen askatasuna; iritzi eta sentipen askatasun erabatekoa gai guztietan, praktikoko zein espekulatiboetan, zientifiko, moral nahiz teologikoetan. Iritziak adierazi eta publikatzeko askatasuna beste printzipio baten pean dagoela eman lezake, besteekin zerikusia duen gizabanakoaren jokaerari dagokiolako; baina ia pentsamendu askatasuna bera bezain garrantzitsua izanik eta gehienbat arrazoi berak izanik euskarri, beronetatik praktikan bereiztezina da. Bigarrenik, printzipioak gustu eta helburretarako askatasuna galdatzen du; askatasuna geure bizitzako plan-gintza geure izaeraren arabera zirrirmarratzeko, nahi dugun moduan jokatzeko, datozkeen ondorioei erantzunez, hurkoek gure jokabidea eragotzi gabe kalterik egiten ez diegun heinean, nahiz eta haiek gure jokabidea eroa, gaiztoa edo okerrekoa dela pentsatu. Hirugarrenik, gizabanako bakoitzaren askatasun horretatik gizabanakoen artean elkartzeko askatasuna dator, muga beren barruan: elkartzeko askatasuna, besteentzat kalterik ez dakarren edozein xede lortzeko, beti ere elkartzen diren lagunak adin nagusikoak eta inork behartu edo engainatu gabekoak izanez gero.

Askatasun horiek, oro har, errespetatzen ez dituen gizartea, edozein gobernamentu era duelarik ere, ez da libre; eta ez da osorik libre, baldin bertan askatasunok erabat eta bete-betean bermaturik ez badaude. Izen hori merezi duen askatasun bakarra geure ona gure geure erara bilatzeko askatasuna da, beti ere besteei euren kentzen ez badiegu edo euren lortzeko ahaleginak egitea galarazten ez badiegu. Norbera da bere osasunaren zaindari berezkoa, dela gorpuzteko edo gogamenekoarena dela osasun espiritualarena. Gizateriak gehiago irabazten du gizaki bakoitzari ondoen deritzon modura bizitzuten utzita, bakoitza gainerakoei ondoen deritzen moduan bizitzera behartuta baino.

Doktrina hori inola ere berria ez bada ere eta askorentzat truisimo antza ukan dezakeen arren, ez dago beste doktrinarik gaur nagusi diren iritzi eta praktikaren joera orokorraren kontrakoagorik. Gizarteak ahalegin berdin-berdinak egin ditu (bere argien arabera) gorentasun indibidualari zein sozialari buruz dituen nozioak onartzerara behartzeko jendea. Antzinako errepublikak eskubide nahikoarekin sentitzen ziren, eta antzinako filosofoek alde zituzten, jokabide pribatua agintaritza publikoaren bidez erregulatzeko, oinarri hartuta

Estatuak interes handia zuela herritar bakoitzaren gorputz eta gogameneko diziplinan, etsai ahaltsuz inguraturiko errepublika txikietan onargarri izan zitekeen pentsaera berau, zeren kanpoko erasoen edo barne iskanbilen eraginez hankaz gora joateko etengabeko arriskuan baitzeuden, eta apur batean ere indarrak eta agintea nasaitzeak hain aise ekar liezaiekeen hondamendia, non ez baitzuten askatasunaren ondorio osasungarri iraunkorren zain egoteko aukerarik. Mundu modernoan, komunitate politikoak handiagoak izateak eta, batez ere, aginte espirituala mundutarretik bereizteak (gizakien kontzientzia zuzentzea beraien arazo mundutarrak kontrolatzen zituzten eskuetan barik bestelakoetan jartzen zuen zertzelada berau) legea bititza pribatuko xehetasunetan hainbestearaino sartzea eragotzi zuten; baina errepresio moraleko makineria kontzientzia indibidualari buruz nagusi zen iritziarekiko desadostasunen kontra bortizkiago erabili zen, gizarte gaitan eurretan baino; erlijioa, sentipen moralaren eraketan sartu izan diren elementuetan indartsuena, edo giza jokaeraren adierazpen guztiak kontrolatu nahi zituen hierarkia baten botere goseak edo puritanismoaren spirituak gobernatuta egon da ia beti. Eta iraganeko erlijioen kontra bortizkien atera diren erreformatzaileetako batzuk ez dira, ez, ibili elizen ez sekten atzetik menperatze espiritualerako esku-bidea baieztatzeko orduan: Comte jauna, bereziki, zeinaren sistemak, bere *Système de Politique Positive*n azaltzen duen moduan, gizabanakoaren gainean gizartearen despotismoa ezartzea (nahiz eta bitarteko moralez, legezkoz baino areago) duen helburu, antzinako filosofoen arteko diziplinazale zorrotzenen ideal politikoetan ikus daitekeen guttia gaindituz.

Pentsalari indibidualen iritzi bereziez aparte, joera hazkor bat dago munduan oro har gizartearen ahalmenak gizabanakoarengana bidegabeki hedatzera, bai iritziaren eta bai legeriaren indarraren bidez; eta munduan ageri diren aldakuntza guztien joera gizartea sendotzera eta gizabanakoaren ahalmena urritzera denez, mutur-sartze hori ez dago berez desagertzera doazen gaitzen artean, baizik, aitzitik, gero eta gehiago haziz eta sendotuz doazenen artean. Gizateriaren jaugin hori, gobernari zein herritar gisa, norbere iritziak eta joerak jokaera arau moduan besteei inposatzera, giza izaerari datxekzion sentipen onenetako eta txarrenetako batzuek hain indartsu eutsita daukate, non ia inoiz ere ez duen botererik ezak izan ezik beste ezerk

kontrolatzen; eta boterea beherantz barik gorantz doanez, gaiztakeriaren aurka konbentzimendu moralezko barradera sendo bat eraiki ezean, jaugin hori, munduan egun ditugun zirkunstantzietan, hazi egiten dela espero behar.

Argudioarentzat komenigarri izanen da, tesi osoan sartu beharrean, berorren adar batera mugatzea lehen unean, zeren horri buruz ezarritako printzipioa, oso-osoan ez bada ere, neurri bateraino egungo iritziak onartua baita. Adar hori Pentsamendu Askatasuna da, eta berorrengandik ezin bereiz daiteke hitz egiteko eta idazteko askatasuna. Askatasunok, neurri handi batean, erlijio-tolerantzia eta erakunde libreak aitortzen dituzten herrialde guztietako moraltasun politikoaren osagai diren arren, euskarri dituen oinarri bai filosofikoa eta bai praktikoa ez dira agian hain ezagunak iritzi orokorrarentzat, ezta iritzi gidariak preziatuak ere, espero zitekeen mailan bederen. Oinarriok, zuzen ulertzen direnean, gaiaren alde bati dagokion baino zabaltasun handiagoz aplikatzekoak dira, eta auziaren zati horren azterketa osoa egitea gainerako guztirako sarrerarik onena izanen da. Erranen ditudan gauzetan ezer berririk aurkitzen ez dutenek espero dut barkatuko didatela, hala ere, duela hiru mendetik hona hain maiz eztabaidatua izan den gai bati buruz beste eztabaida bat egitera ausartu izana.

II PENTSAMENDU ETA EZTABAIDA ASKATASUNAZ

Espero izatekoa da iragan dela jada «prentsa askatasuna» gobernu ustel edo tiranikoen kontrako segurtasun gisa aldeztu beharra zegoen garaia. Uste izan dezakegu gaur ez dela behar argudiorik herriarekin interesetan bat egiten ez duen botere legegile edo bete-arazle bati herritarrak iritzi bat edo beste edukitzera behartzen lagatzearen kontra, ezta zein doktrina edo zein argudio entzuteko baimena duten zehazten uztearen kontra ere. Auziaren alde hori, gainera, lehenagoko idazleek hain maiz eta hain argudio erantzunezinekin azaldu dutenez, ez dago hemen horri era berezian gehiago ekin beharrik. Ingalaterran prentsari buruzko legea gaur egun ere Tudortarren

garaian bezain zuriketaria den arren, ez dago eztabaida politikoaren kontra indarrean jar dezaten arrisku modurik, matxinadaren batek une bateko izualdian ministroak eta epaileak senetik ateratzea edo gertatu ezean¹; eta, jeneralean hitz eginda, herrialde konstituzionaletan ez dago zertan beldurrik izan gobernuak, herriaren aurrean erabat erantzulea izan edo ez, iritziaren adierazpena kontrolatzen maiz ahalegintzeari, horrela jokatzuz jendearen intolerantzia orokorraren organo egiten denean izan ezik. Demagun, beraz, gobernuaren herriarekin zeharo bat eginda dagoela eta inoiz ere ez daukala hertsatzeko boterea erabiltzeko asmorik, bere ustez herriaren iritzia denaren arabera izan ezean. Bada, nik herriari hertsapen hori, dela bere kabuz dela gobernuaren bidez, burutzeko eskubidea ukatzen diot. Boterea bera da ez-legitimoa. Gobernurik onenak ez du txarrenak baino eskubide gehiagorik horretarako. Iritzi publikoarekiko adostasunez burutzen denean haren kontra burutzen denean bezain kaltegarria edo kaltegarriagoa da. Gizateria guztia gizaki bat izan ezik iritzi batekoa balitz eta bakar hori kontrako iritzikoa, gizateria gizaki bakar hori isilarazteagatik ez legoke justifikatuago, hori, horretarako boterea edukiz gero, gizateria isilarazteagatik legokeen baino. Baldin iritzia bere jabearentzat bakarrik balioa lukeen ondasun pertsonala balitz, baldin beronen gozame-na eragozteka kalte pertsonala baino ez balitz, alde egonean litzateke kaltea gutxi batzuei egiteak askori egitera. Baina iritziaren adierazpena isilarazteak inplikatzeko duen gaitza giza arrazari lapurreta egitean datza, hala ondorengo belaunaldiak nola egungoari, iritzi horrekin ados ez daudenei gehiago oraindik, bat datozenei baino. Iritzi zuzena bada, errakuntza egiagatik trukatzeko aukera kentzen zaie; okerra bada, onura txikiagoa ez dena galtzen dute: egiaren hautemate argi-agoa eta inpresio biziagoa, errakuntzarekin talka egiteak eragindakoak.

Bi hipotesi horiek bereiz aztertu behar dira, bakoitzak horri dagokion argudioaren adar diferente bat dauka eta. Ezin dugu sekula seguru jakin ito nahian gabiltzan iritzia faltsua dela, eta seguru bage-neki ere, iritzi hori itotzea gaitz bat litzateke.

Lehenik, agintez ezabatu nahi den iritzia egia izan liteke. Ezabatu nahi dutenek ukatu egiten dute, jakina, haren egia; baina ez dira hutsezinak. Ez dute aginterik gizateria guztiarentzat auzia eraba-kitzeko eta beste guztiei iritzeko bitartekoak kentzeko. Iritzi bat entzu-teari uko egitea, norbera seguru dagoelako faltsua dela, *norberak* dau-

kan segurtasuna *absolutua* dela baieztatzea da. Eztabaida isilarazte orok norbere hutsezintasuna onartzea inplikutzen du. Beronen gaitzespena argudio komun horren gainean oinarritua dela onar daiteke, zeina komuna izanagatik ez den txarrena.

Gizateriaren sen onarentzat zoritxarrez, gizakien hutseginkortasunari ez zaio ematen euren judizio praktikoetan, hurrik eman ere, teorian ematen zaion garrantzia; zeren, gizaki orok norbere burua hutseginkortzat daukan arren, gutxik pentsatzen dute beren hutseginkortasunaren kontrako neurririk hartu behar denik, edo onartzen dute oso ziurtzat daukaten edozein iritzi eurek egin dezaketela aitortzen duten errakuntzaren adibide bat denik. Printze absolutuek, edo mugarik gabeko begirunea jasotzera ohiturik daudenek, ia gai guztiei buruz dituzten iritzietan sentitzen dute konfiantza oso hori. Hobeto kokaturiko jendeak, batzuetan bere iritziak eztabaidatuta ikusten dituenak eta lantzean behin bederen oker dagoenean zuzendua izaten denak, mugarik gabeko konfiantza bera jartzen du bere inguruko guztiek edo begirunea izan ohi diotenek onartzen dituzten iritzietan bakarrik; izan ere, zenbat eta handiagoa izan gizaki batek bere iritzi bakarrean duen konfiantza falta, hainbat eta handiagoa da orokorrean «munduaren» hutsezintasunean, konfiantza inplizituz, daukan uste osoa. Eta munduak, gizabanako bakoitzarentzat, gutariko bakoitza harremanetan gauden munduaren partea esan nahi du: gure alderdia, gure sekta, gure eliza, gure gizarte klasea; eta mundua bere herrialdea edo bere garaia hartzen duen zerbait dela uste duen gizakia, konparazioz, ia liberala eta ikuspegi zabalekoa dela esan daiteke. Eta aginte kolektibo horretan duen fedeari ez dio zirkinik ere eragiten berak ongi jakiteak beste garai, herrialde, sekta, eliza, klase eta alderdi batzuen iritzia juxtu kontrakoa izan dela eta egun ere halaxe dela. Bere munduari leporatzen dio beste jende batzuen mundu disidenteen kontra arrazoi ukatearen erantzukizuna; eta inoiz ez du kezkatzen jakiteak akzidente batek, ez beste ezerk, erabaki duela mundu askotarik zeinek irabazi behar duen bere konfiantza, eta Londresen kristau egin duten kausa berek Pekinen budista edo konfuzianista eginen luketela. Hala ere, argudio pilorik handienak egin lezakeen baino bistakoagoa da berez ezen garaiak ez direla gizabanakoak baino hutsezinagoak; garai orok ukan ditu hurrengo garaiek faltsutzat ez eze absurdutzat jo dituzten iritzi asko; eta hori bezain gauza ziurra da iritzi asko, gaur orokorrak,

geroko garaiek errefusatu eginen dituztela, beste asko, behiala orokor-
rrak, gaur egun errefusaturik dauden moduan.

Argudio horri segurutik jarriko zaion objektzioa agian honela-
xe formulatuko litzateke: ez dago hutsezintasun uste handiagorik erra-
kuntzaren zabalkundea debekatzean, aginte publikoak bere burubide-
aren arabera eta bere ardurapean egiten duen beste edozertan baino.
Burubidea erabiltzeko eman zaie gizakiei. Oker erabil daitekeela eta,
ezertan ere ezin erabil dezaketela esan behar ote zaie? Kaltegarri dela
deritzena debekatzea ez da errakuntzatik libre daudela aldarrikatzea,
hutseginkorrak izan arren beren konbentzimendu kontzienteen arabe-
ra jokatzeko duten eginbeharra betetzea baizik. Sekula jokatu-
ko ez bagenu geure iritzien arabera, iritzi horiek okerrekoak izan litezkeela-
ko, geure interes guztiak bertan behera eta geure eginbehar-
rak bete gabe utziko genituzke. Jokaera orori aplikatzen zaion objektzioa joka-
era konkretu bati aplikatzeko baliozkoa ez izatea gerta daiteke.
Gobernuen, eta gizabanakoen, eginbeharra da ahalik iritzirik egiazko-
enak eratzeta: ardura handiz eratzeta eta besteei inoiz ere ez inposatzea,
iritziok zuzenak direla erabat ziur egon ezean behintzat. Baina ziur
daudenean (arrazoiketa hori darabiltenek esan lezakete), zinez barik
koldarkeriaz jokatzeta da kikilduta euren iritzien arabera ez jokatzeta
eta gizateriaren mundu honetako edo geroko bizitzako ongizatearen-
tzat arriskugarritzat oneski dituzten doktrinak mugarik gabe zabal dai-
tezen uztea, kultura gutxiagoko garaietan egun egiazkotzat dauden iri-
tziak jazarri direla eta. Kontuz ibil gaitezen, esan dezakete, errakuntza
berean ez erortzeko; baina gobernuek eta nazioek egin dituzte erra-
kuntzak beste gauza batzuetan, agintea erabiltzeko gai egokiak direla
inork ukatzen ez duen arren: zerga txarrak galdatau dituzte, bidegabe-
ko gerrak egin dituzte. Ez ote dugu, horregatik, zergarik eskatu behar,
eta, edozein probokazioren aurrean ere, ez ote dugu gerrarik egin
behar? Gizakiek eta gobernuek, euren gaitasunen barruan, ahalik
ondoan jokatu behar dute. Ziurtasun absoluturik ez dago, baina bai
giza bizitzaren helburuetarako behar den adina segurtasun. Suposatu
ahal eta behar dugu gure iritzia egiazkoa dela gure jokaera gidatzeko;
eta hori nahikoa da dongeei faltsu eta kaltegarritzat dauzkagun iritziak
zabalduz gizartea perbertitzen ez uzteko.

Nik horri ihardesten diot gehiegi suposatzea dela. Alderik han-
diena dago iritzi bat, gezurtatzeko aukera guztiak erabiliz errefutatu

ez delako, egiazkoa dela uste izatetik errefutatzen ez uzteko helburuz egiazkoa dela suposatzea. Gure iritzia ezeztatu eta gaitzesteko askatasun osoa ematea da guk iritzi hori ekintzarako egiazkotzat onartzen dugunean justifikatzen gaituen beharrezko baldintza; eta beste ezela-ko prozeduraz ezin du giza ahalmenak dituen izakiak bera zuzen dagoen segurtasun razionalik ukan.

Iritziaren historia edo giza bizitzako jardun arrunta kontuan hartzen dugunean, zeri egotz dakioke bata eta bestea diren baino okerragoak ez izatea? Ez behintzat giza adimenari datxekion indarrari, zeren berez nabaria ez den edozein gaitan laurogeita hemeretzi lagun dira gai horri buruz irizteko erabat ezgai direnak, gai den bakar baten ondoan; eta ehun lagun horien gaitasuna erlatiboa baino ez da; izan ere, aurreko belaunaldietako goi mailako gizaki gehienek gaur egun okerrekoak direla dakigun iritzi asko atxiki zituzten eta egun inork justifikatuko ez lituzkeen anitz gauza egin edo onetsi zituzten. Zergatik ageri da, orduan, gizateriarengan iritzi razionalaren eta jokera razionalaren nagusitasuna? Nagusitasun hori benetan baldin bada- go –eta egon behar du, behintzat giza aferak egoera desesperatuan ez badaude edo beti egon ez badira– gizakiarengan, izaki adimendun nahiz morala denez, errespetagarri den ororen iturri den giza gogame- naren nolakotasun bategatik da, hau da, gizakiaren errakuntzak zuzen- garriak direlako. Eztabaida eta esperientziaren bidez bere hutsegiteak zuzentzeko gai da. Ez esperientziaren bidez bakarrik. Eztabaida behar da, esperientzia nola interpretatu behar den agerian jartzeko. Okerreko iritzi eta praktikek mailaka amore ematen dute gertakari eta argudioen aurrean; baina gertakariak eta argudioak, gogamenean era- ginik izateko, azaldu egin behar dira. Oso gertakari gutxi dira beren historia berenez esateko gai, euren esanahia adierazteko moduko komentarioen premiarik barik. Giza burubidearen indar eta balio guz- tia, orduan, errakuntzatik egiara pasa ahal izatean datzan propietate bakarraren mende dagoenez, hori egiteko bitartekoak etengabe esku- ra dituenen bakarrik eduki ahal izanen da konfiantza burubide horre- tan. Zergatik heltzen gara gizaki baten burubidean konfiantza jartze- ra? Zabalik ukan duelako gogamena bere iritzien eta jokaeraren kriti- kara. Bere kontra esan zitekeen guztia entzuteko jokaera izan duelako, zuzena zen guztia aprobetxatuz eta bere buruari eta, aukera izanez gero, besteei ere faltsua zenaren faltsutasuna azalduz jokatu duelako.

Konturatu delako gizakiak gai baten ezagutza betera iristeko duen era bakarra gai horri buruz iritzi guztietako lagunek esan lezaketena entzutea eta izaera guztietako gogamenek nor bere ikuspegitik gaia ikusteko duten modu diferenteak aztertzea dela. Jakitun den inor ere ez da bere jakituriaren jabe egin horrexetara izan ezik; eta giza adimenaren izaerari ez dagokio beste inola jakitun bilakatzea. Bere iritzia besteekin erkatuz zuzendu eta osotzeko aztura iraunkorrak ez dio inolako zalantza ez ezbairik sortzen praktikara eramatean, iritzi horretan konfiantza bidezki edukitzeko duen oinarri tinko bakarra baita; izan ere, bere kontra, nabariki bederen, esan daitekeen ororen jakitun izanik eta bere iritzia ukatzen duten guztien kontrako jarrera harturik –jakinik objekzio eta zailtasunetatik iheska ibili beharrean, berauen bila jardun duela eta ez duela gaiaren inguruan alderen batetik argi egin zezakeen argirik sekula itzali–, bere judizioa antzeko prozesutik pasa ez duen beste ezein gizabanako edo jendetzarena baino hobetzat edukitzeko eskubidea dauka.

Gizakirik jakitunenek, beren burubideaz fidatzeko motiborik gehien dutenek, konfiantza hori bermatu beharra sentitzen badute, ez dateke gehiegikeria publikoa deritzan zuhur gutxik eta kaiku askok osoturiko bilduma nabar horri berme bera galdatzea. Elizarik intolenteenak, Eliza Katoliko Erromatarrek, saildu baten kanonizazioan bertan ere, onartzen du, eta entzun egiten dio «deabruaren abokatuari». Gizakirik sailduenari ere, dirudienez, ezin zaio hilondoko ohoretarako atea zabaltu, harik eta deabruak haren kontra esan dezakeen oro ezagutua eta pisatua izan arte. Filosofia newtondarra bera ere auzitan jartzen utzi ez balitz, gizateriak ez lukeen egun duen haren egiaaren segurtasunik. Konfiantza handienaz atxikitzen ditugun usteek, zutik irauteko, babes bakarra dute: etengabe gonbidapena egitea mundu guztiari uste horiek oinarririk gabekoak direla froga dezan. Erronka onartzen ez bada edo, onartuta, ahalegina hutsean gelditzen bada, orduan ere ziurtasunetik nahiko urrun gaude oraindik, baina giza arrazoimenaren egungo egoerak uzten digun guztia egin dugu; ez dugu bazter utzi egiari gugana iristeko aukera eman diezaiokeen ezer; hesiak zabalik edukitzen badira, espero dezakegu ezen, egia hoberik bada, aurkituko dugula, giza gogamena egia hori bereganatzeko gai denean, eta bitartean egia gure garai honetan ahal bezainbatean hurbildu garen ziurtasuna ukan dezakegu. Horixe da izaki hutseginkor

batek erdiets dezakeen ziurtasun guztia, eta horixe da ziurtasun hori erdiesteko dagoen bide bakarra.

Bitxi samarra da, jendeak eztabaida librearen aldeko argudioak baliozkotzat onartu ondoren, argudiook «azken muturreraino» eramateko eragozpenak jartzea, ikusi barik ezen, arrazoiak ertzeko kasutarako baliozko ez baldin badira, ezein kasutarako ere ez direla baliozko. Gauza bitxia da jende horiek iruditzea eurek ez dutela hutsezintasunik onartzen, aitortzen dutenean *dudazkoak* izan litezkeen gai guztiei buruz eztabaida librean egon behar litzatekeela, baina pentsatzen dutenean zenbait printzipio edo doktrina auzitan jartzea debekatu egin behar litzatekeela, doktrina *ziurrak* direlako, hau da, *eurak ziur dau delako* ziurrak direla. Edozein proposizio ziurra dela esatea, bakar batek, utziz gero –baina ez zaio uzten– haren ziurtasuna ukatuko lukeen bitartean, gu geu eta gurekin ados datozen guztiak ziurtasunaren epaile garena onartzea da, eta epaile beste parteari entzun gabe.

Garai honetan, «fedez gabetua, baina eszeptizismoak izutua» dela esanez deskribatu izan den garai honetan, zeinetan jendea ziur sentitzen den ez hainbeste bere iritzien egiaz, baizik eurokin zer egin ez jakiteaz, iritzi bat eraso publikoetatik babesteko galdapena iritzi horren egian baino gehiago gizartearentzat duen garrantzian oinarritzen da. Badira, alegatzen da, zenbait uste [*beliefs*] ongizaterako hain baliagarriak –ezinbestekoak ez esateagatik–, non uste horiei zutik eustea gobernuen eginbeharra baita, gizartearen beste edozein interes babestea den bezainbestekoa izan ere. Horregatik, premia handikoa den eta euren eginbeharrean zuzenean sartzen den kasu batean, hutsezintasuna baino gutxiago den zerbait omen dago gobernuek euren iritziazen arabera jokatzeko justifikazioa, eta horretara behartu ere egin ditzakeena, beti ere gizateriaren iritzi orokorrak berretsita. Halaber, maiz argudiatzen da, eta are maizago pentsatzen, dongeek baino ez luketela gurako uste osasungarri horiek ahultzea; eta ezin dai-teke ezer txarrik egon, uste da, dongeak erreprimitu eta eurek bakarrik egin nahi luketena egiten debekatzean. Pentsaera horren arabera, eztabaidari jarritako muga justifikazioa, doktrinen egiaren arazoa barik, euron baliagarritasunaren arazoa da; eta bere burua lausengatzen du iritzien epaile hutsezin moduan agertzearen erantzukizunari horretara itzuri egiteagatik. Baina horrela pozten direnak ez dira konturatzen hutsezintasun ustea leku batetik bestera aldatu besterik ez dutela egi-

ten. Iritzi baten baliagarritasuna bera ere iritzi kontua da: iritzia bera bezain eztabaidagarria da, eztabaidara hura bezain zabalik dagoena eta eztabaida hark bezainbat behar duena. Iritzi bat kaltegarria dela ebazteko, faltsua dela ebazteko adina behar da iritzien epaile hutsezin bat, gaitzetsiriko iritzia bere burua defendatzeko aukera osoa izatea gertatu ezean. Eta ez du balioko esateak heretikoari bere iritziaren baliagarritasun edo kaltegabetasunari eusten utz dakiokela, haren egiari eustea debekatzen zaion arren. Iritziaren zati bat beraren baliagarritasuna da. Proposizio batean sinestea guragarri den ala ez jakin nahi dugunean, posible al da kontuan ez hartzea egia den ala ez? Dongeen iritzian barik gizonik onenenean, egiaren kontrakoa den ustea ezin da egiazki baliagarria izan; eta posible al da euren defentsan hori alegatzen ez uztea, baliagarritzat dagoen baina eurek faltsutzat duten doktrinaren bat ukatzeagatik erruztatzen dutenean? Iritzi eskuarki onartuen aldean daudenek alegazio horretatik ahalik abantaila gehien ateratzen dituzte hutsik gabe; ez dituzue aurkituko *haiek* baliagarritasunaren problemaz egiarenetik zeharo banatu ahal baledi bezala jarduten; aitzitik, euren doktrina «egia» delako batez ere dute hain ezinbestekotzat doktrina hori ezagutu edo sinestea. Ezin da eztabaida leialik egin baliagarritasunaren arazoaz, hain argudio funtsezkoa alde bata bai, baina besteak erabili ezin duenean. Eta, izatez, legeak edo sentiera publikoak iritzi baten egia eztabaidan jartzen uzten ez duenean, iritzi horren baliagarritasuna ukatzen dutenean bezain intoleranteak dira. Gehien ere onartzen dutena iritzi horren beharrian absolutua edo berori errefusatzeko den hobena pitin bat arintzea da.

Hobeto argitzeko nolako makurkeria den zenbait iritzi entzuteari ezezkoa ematea, geure burubidean gaitzetsi ditugulako, komenigarri izanen da eztabaida kasu zehatz batean finkatzea; eta horretarako nire alde gutxien doazen kasuak hobesten ditut, hau da, sendoena legez iritzi askatasunaren aurkako argudioa erakusten dutenak, hala egiari nola baliagarritasunari dagokionez. Demagun aurkaturiko iritzia Jainkoarenganako eta gero bizitzarekiko sinesmena edo eskuarki onarturiko doktrinaren bat direla. Borroka arlo horretan egiteak abantaila handia ematen dio aurkari desleialari, zeren ziur esanen baitu (eta desleial izan nahi ez duten askok ere euren baitan esanen dute), horiek al dira zuek legearen babespean jartzeko bezain ziurtzat ez dituzuen doktrinak? Jainkoarengan sinestea ere ziurtzat edukiz gero zuen ustez

hutsezintasun ustea suposatzen duten doktrinetako bat al da? Baina zilegi bekit ohartaraztea doktrina bat (edozein dela ere) ziurtzat edukitzea ez dela nik hutsezintasun ustea deitzen dudana. Uste hori auzia *besteentzat* erabakitzean datza, beste aldeak esan dezakeena entzuteko aukera guztiak galaraziz. Eta nik pretentsio hori salatu eta gaitzetsi egiten dut, eta ez gutxiago neure konbikzio irmoenei dagokienean. Norbaiten uste osoa positiboena izanda ere iritzi baten faltsutasunaz ez eze, haren ondorio kaltegarriez ere –ondorio kaltegarriez ez eze, (nik zeharo gaitzesten ditudan esamoldeak erabilita) haren moraltasunik ezaz eta erlijio gabetasunaz ere–, baldin burubide pribatu horren araber, herrialdearen edo garaikideen iritziaren euskarria edukita ere, lagun horrek iritzi horren defentsa entzuten galarazten badu, bere hutsezintasuna baieztatzen du. Eta baieztapen hori, iritzia ezmoral edo erlijio gabe deklaratu izan delako hain eragozgarria edo arriskugarria ez izatetik urrun, zorigaitzokoagoa da kasu horretan, beste kasu guztietan izanen litzatekeen baino. Horrelakoxe uneetan egiten dituzte, egin ere, belaunaldi bateko gizakiek ondorengoei harridura eta izua eragiteko moduko huts ikaragarriak. Euron artean aurkitzen ditugu historiako adibide gogoangarriak, zeintzuetan legearen besoa gizakirik onenak eta doktrinarik nobleenak errotik erauzteko erabili den, arrakasta deitoragarriarekin gizakiei dagokienez, nahiz eta doktrinotako batzuek iraun egin duten, *eurokin* edo euron interpretazio eskuarki onartuarekin bat ez datozenen kontrako antzeko jokaeren defentsan (burlaz balitz bezala) erabiliak izateko.

Gizateriari nekez gogoraziko zaio sarriegi behinola Sokrates izeneko gizon bat izan zela, bere garaiko legezko agintariekin eta iritzi publikoarekin talka gogoangarria ukan zuena. Gizabanako handitan oparoa izan zen aro eta herrialde batean jaioa, hura eta haren garaia ondoen ezagutzen zutenek herrialde horretako gizonik bertutetsuentzat aurkeztu digute; *guk*, gainera, ondorengo bertute-maisuen buru eta prototipo gisa ezagutzen dugu, aldi berean Platonen goi inspirazioaren eta Aristotelesen utilitarismo burutsuaren iturri gisa, «*i maestri di color che sanno*», etikaren eta beste filosofia ororen sortzaileak berauek. Ordudanik bizi izan diren goi mailako pentsalari guztiek onarturiko maisu hau –zeinaren ospea bi mila urte eta koska geroago ere haziz doan eta euren sorterria izen handiko egin duten izen guztien gainditzan duen– heriotzara kondenatu zuten bere herrikideek,

epaiketa egin ondoren, erlijioabetasunagatik eta moralitasunik ezagatik. Erlijioabetasuna, Estatuak onarturiko jainkoak ukatzearren; akusatzaileak ezein jainkorengan ez zuela sinesten baieztatu zuen biribil (ikus *Apologia*). Moralitasunik eza, bere doktrina eta irakaspenez «gazte-galtzailea» izatearren. Epaimahaiak oneski –sinesteko orotariko arrazoiak daude– kargu horien errudun aurkitu zuen, eta kriminal bat bezala hiltzera kondenatu zuen, segurutik orduan jaiotako guztien artean gizateriaren esker onik beroena merezi izan zuen gizona.

Pasa gaitzen Sokrates kondenatu ostean inorentzat dezepzioa izan gabe aipa daitekeen bidegabekeria judizialen beste adibide bakkerra: duela mila eta zortziehun urte baino gehiago Kalbarioan jazo zen gertaerara. Bere handitasun moralagatik bere bizitza eta solasaren lekuko izan zirenen oroimenean hurrengo hamazortzi mendeek Ahalguztiduntzat omentzerainoko inpresioa utzi zuen gizona laidogarriro heriotzara kondenatu zuten, zer dela eta? Biraolaria zela eta. Gizakiek beren ongiletzat hartu gabe utzi ez eze, zertzat eta zenaren aurkakotzat hartu zuten eta erlijioabetasuna bera izan balitz bezala tratatu zuten, hau da, hari emandako tratuagatik orain eurak direla deritzoguna izan balitz bezala. Gertaera deitoragarriok, bereziki bigarrrena, begiratzean gizateriak dituen sentipenek gertaeron egile zorigaiztokoei buruzko judizioan arras bidegabe izatera daramate. Ez ziren izan, ordea, itxura guztien arabera, dongeak, ezta gizakiak eskuarki ohi diren baino txarragoak, baizik, aitzitik, beren garai eta herriaren sentipen erlijioso, moral eta abertzaleak neurri betean, edo neurri betetik gora nolabait, zituzten gizonak, garai guztietan, are guretan ere, bizitzatik gaitzespenik gabe eta errespetatuak izanik pasatzeko aukera gehienak dituzten gizonen modukoak. Apaiz gorena, bere herrialdeko ideia guztien arabera hobetik latzena ziren hitz haiek ahoskatzen entzutean jantziak urratu zituenean, segur aski egungo gizaki jainkozale eta errespetagarri gehienak euren sentipen erlijioso eta moraletan diren bezain zintzoa izan zen bere lastura eta haserrean; eta jokabide haren aurrean orain ikaran jartzen diren gehienek, garai hartan bizi eta judu jaio izan balira, hark bezalaxe jokatuko zuket. Lehen martiriak heriotzaraino harrikatzen zituztenak nahitaez eurak baino dongeagoak izan zirela pentsatzeko tentazioa duten kristau ortodoxoek jazarle horietako bat San Paulo izan zela gogoratu beharko lukete.

Eman dezagun beste adibide bat, denetan harrigarriena, baldin errakuntzaren astuna huts egiten duenaren jakituria eta bertuteaz neur-tzen bada. Boteretsuren batek ukan baldin badu bere garaikideen arte-an onena eta adimentsuena zela sinesteko ziorik, hori Marko Aurelio Enperadorea izan zen. Mundu zibilizatu guztiko monarka absolutua, bere bizitza guztian gorde zuen, ez bakarrik justiziarik akatsik gabe-koena, baizik bere heziera estoikoa kontuan hartuta gutxiago espero zitekeena, bihotzik samurrena. Egotzi zizkioten hutsegite urriak, bihozberatasun aldetik izan ziren denak; haren idazkiek, antzinateko espirituaren ekoizpen etiko gorena, berriz, igartzeko moduko diferen-tzia gutxi dute, bat ere baldin badute, Kristoren irakaspen karakteris-tikoetatik. Gero errege izan diren subirano nabarmenki kristaurik gehienak baino, dogmatismoan izan ezik, kristau hobea zen gizon horrek kristauteria jazarri zuen. Gizateriaren aurreko lorpen guztien gailurrean jarrita, adimen ireki eta libre baten jabe eta bere idazkietan kristautasunaren ideala txertatzera eraman zuen izaerarekin, ez zen, hala ere, heldu ikustera kristautasuna, zeinaren aginduak hain sakon-ki bere baitaratuta zeuzkan, ona, eta ez txarra, zela munduarentzat. Bazekien egoera deitoragarrian zegoela orduko gizartea. Baina, hori horrela izanda ere, ikusi zuen edo ikusi uste izan zuen eurentzat har-turiko jainkoekiko fedeak eta gurtzak eutsiko ziotela gizarte horri eta okerragora egitetik salbatuko. Gizateriaren gidari moduan, bere egin-behartzat hartu zuen gizarteari mila zatitan lurrera erortzen ez uztea; eta ez zuen ikusi ezen, zeuden loturak apurtuz gero, haien ordez beste lotura batzuk sortuko zirela, gizartea berriz lotuko zutenak. Erlijio berriak lotura horiek nabariki apurtu nahi zituen; horregatik, bere eginbearra ez zenez erlijio hura beretzat hartzea, bere eginbearra erlijio hori eraistea zela iruditzen zitzaion. Kristautasunaren teologia-ri egiazkoa edo jainko-jatorrikoa ez zeritzenez, Jainko gurutziltzatua-ren historia bitxi hori sinesgarri ez zitzaionez eta ezin zuenez aurrei-kusi zeharo sinestezina zitzaion oinarrian eutsitako sistema batek gerora, beherakada guztien ondoren, bazeukala frogatu zuen eragin berriztatzailea zeukanik, filosofo eta legelarik bigun eta atseginenak, eginbearr sena ardurarik handienaz erabilita, kristauteria jazartzeko agindu zuen. Nire ikusirako, historia guztiko gertakari tragikoena da hori. Latza da pentsatzea zein ezberdina izan zitekeen kristautasuna munduan, baldin kristau fedea inperioko erlijio gisa Konstantinoren babespean hartu beharrean Marko Aureliorenean hartu izan balitz.

Baina berari dagokionez bidegabea bezain egiari dagokionez faltsua litzateke ukatzea egun irakaspen antikristauak zigortzeko jar litezkeen estakuru guztiak Marko Aureliori aplika dakizkiokeenik, kristautasunaren zabalkundea zigortu zuen moduan zigortu zuelako. Ez dago kristaurik, ateismoa faltsua dela eta gizartea suntsitzeko joera duela, Marko Aureliok, orduko gizon guztien artean hori balioesteko gaien-tzat zegoenak, kristautasunaz hori bera sinesten zuen baino irmoago sinesten duenik. Iritziak zabaltzea zigortzearen alde dagoen orok, bera Marko Aurelio baino zuhurrago eta gizon hobea dela sinetsita egon ezean, bere garaiko jakiturian adituagoa, adimenez hura baino jaso-agoa eta egiaren bilaketan arduratsuagoa edo egiari, aurkitu ondoren, emanagoa izan ezean, ez du onartu behar bere eta jendetzaren hutse-zintasuna, Antonino handiak hain emaitza zorigaiztokoarekin egin zuen moduan.

Erlijio askatasunaren etsaiek, jakinik iritzi erlijio-gabeak murrizteko zigorrak baliatzea aldezerik ez dagoela aldi berean Marko Antonino* ere justifikatuko ez lukeen ezein argudioz, euren burua gogor presionatuta ikusten dutenean, onartzen dute ondorio hori, eta, Johnson doktorearekin batera, esaten dute kristauteriaren jazarleak zuzen zeudela; jazarpena egiak iragan beharreko proba gogorra dela, eta arrakastaz iragaten duela beti; legeen zigorrak, azkenean, indar gabekoak direla egiaren kontra, nahiz eta batzuetan eragin onuragarria izan errakuntza kaltegarrien kontra. Intolerantzia erlijiosoaren aldeko argudio bat da hori, nabarmenegia aipatu gabe uzteko.

Egiaren jazarpena egiari jazarpenak kalterik egin ezin diolako justifikatzen duen teoria ezin da akusatu egia berriak onartzearen kon-trako intentziazko etsaitasunaz; baina ezin dugu goraipatu teoria horren eskuzabaltasuna gizateriak egiongatik asko zor dienekiko. Munduari sakonki interesatzen zaion eta ordura arte ez zekien zerbait deskubritzea, bere interes material edo espiritualen puntu garrantzitsu batean oker egon dela frogatzea, gizakiak bere lagun hurkoei eskain diezaiekeen zerbitzurik handiena da, eta Johnson doktoreak bezala pentsatzen dutenek uste dute kasu batzuetan egindakoa, lehenengo kristauen eta erreformatzaileen kasuan adibidez, gizateriari egin zekiokkeen dohaintzarik handiena izan zela. Mesede itzel horiek egin-dakoei martirioaz ordaindu izana, saritzat kriminalik doilorrenari ematen zaion tratua jaso izana, ez da, teoria horren arabera, errakun-

tza eta zorigaitz deitoragarria, zeinengatik gizateriak zakuz eta hausterrez penitentzia egin behar lukeen, baizik egoera normal eta justifikagarria. Egia berriren bat proposatzen duenak, doktrina honen arabera, lokriarren legerian egia berriren bat proposatzen zuena joaten zen moduan aurkeztu behar du, hots, soka bat lepoan lotuta, berehala estutzeko, baldin batzarrak, haren arrazoiak entzunda, han bertan proposamena onartzen ez bazuen. Ezin liteke pentsa ongileei horrelako tratua ematea aldezten dutenek mesedeei balio handirik ematen dietenik; eta nire iritzia da auzi hori horrela ikusten dutenak zera pentsatzen dutenak direla batez ere, alegia, egia berriak behiala onargarriak zirela, baina egun nahikoa eta lar ditugula.

Baina, benetan ere, egia jazarpenetik beti garaile ateratzen dela dioen esaera gizakiek hurrenez hurren topiko bihurtzeraino errepikatzen dituzten, baina esperientziak zeharo errefutatzen dituen faltseria atsegin horietako bat da. Historiak hainbat eta hainbat kasu eskaintzen dizkigu, zeinetan egia jazarpenak suntsituta geratzen den. Betiko ezabatuta ez bada, mendeetan atzera botata bai bederen. Erlijioari buruzko iritzia baino ez aipatzearren: Erreforma gutxienez hogeitaz hasi nahi izan zen Lutero aurretik, eta beste hainbestetan azpiratu zuten. Bresziako Arnaldo azpiratu egin zuten, Fra Dolcino azpiratu egin zuten, Savonarola azpiratu egin zuten. Albitarrak azpiratu egin zituzten. Valdotarrak azpiratu egin zituzten. Lollardarrak azpiratu egin zituzten. Hustarrak azpiratu egin zituzten. Luteroren aroa igaro ondoren ere, jazarpenak iraun zuen toki orotan arrakastatsu jarraitu zuen. Espainian, Italian, Flandesen, austriar inperioan, protestantismoa errotik erauzia izan zen; eta Ingalaterran ere gauza bera gertatuko zatekeen, Mary erregina bizi izan balitz edo Elizabeth erregina hil izan balitz. Jazarpena garaile atera da beti, heretikoek eraginkortasunez jazarriak izateko baino alderdi boteretsuagoa osatzen zuten tokietan izan ezik. Zentzunduna den inork ere ezin du zalantzan jarri errotik erauz zitekeela kristautasuna erromatar inperioan. Zabaldu egin zen eta nagusi bihurtu, baina hori jazarraldiak noizean behingoak, iraupen laburrekoak eta ia propaganda libreko tarte luzez bananduak zirelako izan zen. Sentimentalismo hutsa da esatea egiak, egia bezala, aparteko indar bat duela bere baitan, errakuntzari ukatzen zaiona, ziegaren eta suaren kontra nagusi ateratzeko. Jendea ez da lehiatsuagoa egiarekiko maiz errakuntzarekiko den baino, eta legeak edo are gizar-

teak ezarritako zigorrak behar bezainbatean aplikatzeak bata eta bestearen zabalkundea galaraztea lortzen du. Egiak daukan benetako abantaila honexetan datza: iritzi bat egiazkoa denean, iraungi daitekeela behin, birritan edo askotan, baina aroetan zehar birdeskubrituko dutenak izanen direla gehienetan, eta egiaren berragertze horietakoren bat jazarpenari ihes egiteko moduko zirkunstantziez hornituriko aldi batean gertatuko da, egia hori ezabatzeke ahalegin guztiei aurre egiteko indarra lortuko delarik.

Esanen da ezen orain ez zaiela heriotza zigorrik ematen iritzi berriak dakartzatenei: gu ez gara profetak hiltzen zituzten gure gurasoak bezalakoak, guk hilobiak eraikitzen dizkiegu. Egia da guk orain ez ditugula heretikoak heriotzara eramaten; eta sentimendu modernoez, iritzirik nardagarrienen kasuan ere, toleratuko luketen sufrimendu penal kantitatea ez dela nahikoa iritziok erauzteko. Baina ez gaitezen jar geure burua lausengatzen jazarpen legalaren orbanetik behintzat libre gaudela eta. Iritziengatik, edo eurok adierazteagatik, legezko zigorrak badira gaur ere; eta eurok ezartzea, garaiotan ere, ez da hain ezohikoa, ez behintzat egunen batean zigorrok euren indar guztiarekin birpiztea sinestezintzat hartzeko moduan. 1857an, Cornuallesko konderriko udako sesio judizial batean, gizon gizajo bat², akatsik gabeko jokiaerakoa omen zena bere bizitzako harreman guztietan, hogeita bat hilabeteko kartzelaldira kondenatu zuten, kristautasunari buruz zenbait hitz iraingarri esan eta ate batean idatzita jartzeagatik. Hilabete geroago, Old Baliey-an, bi lagun, aldi ezberdinetan³, zinpeko gisa errefusatuak izan ziren eta bata zakarki iraindu zuen epaileak, zintzo aitortu zutelako eurek ez zutela sinesmen teologikorik; eta hirugarren bati ere, atzerritarra bera⁴, arrazoi beragatik, justizia ukatu zitzaion lapur baten kontra. Ukatze hori doktrina legalaren indarrez egin zen, beraren arabera Jainkoarengan (edozein jainkoarengan) eta geroke bizitzan sinesten ez duen inor ezin baita onartu epaitegien lekuko gisa deklaratzeko; eta hori aipaturikoez legez kanpo eta epaitegien babesik gabe deklaratzeko bezainbeste da, baita beste hau onartzea bezainbeste ere, alegia, ez bakarrik pertsona horiei lapurreta eta eraso inolako zigorrik jaso gabe egin dakizkiekeela, eurak edo iritzi berdintsuetako lagunak bakarrik presente egonez gero, baizik beste edonori ere lapurreta eta eraso inolako zigorrik jaso gabe egin dakizkiokeela, gertakariaren froga euren deklarazioaren mende egonez gero.

Geroko bizitzan sinesten ez duenaren zina baliorik gabekoa delako ustean dago oinarriturik hori; hori baieztatzen dutenengan ezjakintasun handia erakusten duen ustea da hori (historikoki egia delako fedegabeetako asko, aro guztietan, zuzentasun eta ohore handiko jendea izan direla), eta ez lioke eutsiko uste horri beste hau lekikeen inork, alegia, zenbat lagun, munduaren aurrean ospe handikoak hala euren bertuteengatik nola ezagutzengatik, izan diren fedegabeak, behintzat euren adiskide minen aurrean. Arau hori, gainera, suizida da eta bere oinarriak suntsitzen ditu. Ateo guztiek gezurtiak izan behar dutela suposatuz, gezurra esateko eragozpenik ez duten ateo guztien lekukotasuna onartzen du, eta faltsua dena baieztatu beharrean gorrotatzen duten fedea jendaurrean aitortzea den desohoreari aurre egiten diotenak bakarrik errefusatzeko dituzte; bere xederako hain absurdu dela frogatu duen arau bat gorroto sinbolo edo jazarpen aztarna moduan soilik eduki liteke indarrean; eta jazarpen horrek, gainera, berezitasun haxe dauka, hots, berori sufritzeko gaitasunak argiro frogatzen duela ez dela merezia. Araua, eta inplikatzeko duen teoria, ez dira laidogarriak fedegabeentzat, fededunentzat baino. Izan ere, baldin geroko bizitzan sinesten ez duenak nahitaez gezurra badio, honek esan nahi du hartan sinesten dutenei gezurra esaten galarazten dien bakarra, galarazten badie, infernuari dioten beldurra dela. Ez diegu eginen arau honen egile eta defendatzaileei kristau bertuteari buruz beren baitan egin duten ideia beren kontzientziatik atera dutela suposatzea litzatekeen iraina.

Horiek guztiak, egia esan, jazarpen hondarrak baino ez dira, eta pentsa daiteke jazarpeneko gurariaren adierazleak barik, ingeles gogamenetan hain sarri ageri den eta, printzipio txar bat benetan praktikan jartzea gura izateko bezain dongeak jada ez direnean, berori baieztatuz zentzugabeko atsegin bat hartzean datzan anomaliaren adibideak direla. Baina, zoritxarrez, iritzi publikoaren egungo egoeran ezin da segurtatu lege jazarpeneko erarik txarrenek, belaunaldi batez aplikatu ez direnek, aplikatu barik jarraituko dutela. Garai honetan, errutinaren azalera barea berdin asaldatzen dute iraganeko gaitzak birpizteko ahaleginek zein onura berriak ekartzekoek. Orain erlijioaren suspertze gisa goraiatzen dena, gogamen estu eta ezikasien artean bederen, beti ere fanatismoaren suspertzea da; eta, herriaren sentipenetan intolerantzi legamia indartsu eta iraunkorra, herrialde honetako

klase ertainean beti egon dena, dagoenean, ez da gauza handirik behar horiek beti jazarri beharrekotzat ukan dituztenak gartsu jazartzera zirikatze⁵. Hori horrela delako, jendeak berak garrantzizkotzat dituen usteak ukatzen dituztenei buruz dauzkan iritziak eta sentipenak dira herrialde hau pentsamendu askatasunik gabeko bihurtzen dutenak. Aspaldi-aspalditik, lege zigorren okerrik handiena estigma soziala areagotzea da. Eta estigma hori benetan eraginkorra da, hainbestearino, non gizartearen debekuaren pean dauden iritziak edukitzea askoz gutxiagotan gertatzen den Ingalaterran, beste herrialde askotan zigor judiziala jasotzeko arriskua inplikatzeko dutenak aitortzea gertatzen den baino. Mundu guztiarentzat, euren diru egoeragatik besteen borondate onaren mende egon beharrik ez dutenak kenduta, iritzia, arlo honetan, legea bezain eraginkorra da; gizakiak kartzelaratu euren eguneroko ogia irabazteko moduaz gabetu bezain erraz egin daiteke. Ogia seguru dutenek eta boterean daudenengandik ez ezein erakundetik ez publikoarengandik mesederik nahi ez dutenek ez dute zertan beldur izan beren edozein iritzi argi eta garbi adieraztetik sorturiko ondorioei, jendea eurei buruz txarto pentsatzen edo gaizki esaka ibiltzeari izan ezean, eta hori eramateko ez dute adore heroikorik behar. Ez dago horien alde *ad misericordiam* deirik egin beharrik. Baina gure moduan pentsatzen ez dutenei lehenago egin ohi genien adina okerrik egiten ez badiegu ere, baliteke geure buruei inoiz baino oker gehiago egitea, haiek tratatzeko daukagun moduagatik. Sokrates hil egin zuten, baina filosofia sokratikoa eguzkia zeruan gora legez altxatu zen eta bere argia ortzi intelektual guztiaren gainera barreiatu zuen. Kristauak lehoi artera bota zituzten, baina Kristau Eliza arbola sendo eta zabalkor bihurtu zen, landare zaharrago eta makalagoei gaina hartuz eta bere gerizaz itoz. Gure gizarte intolerantzia hutsak ez du inor hiltzen, ez du iritzirik erauzten, baina jendea bere iritziak mozorrotzera edo zabaltzeko ahalegin eraginkorrik ez egitera bultzatzen du. Gure artean, iritzi heretikoek hamarkada edo belaunaldi bakoitzean ez dute ez aurrera ez atzera egiten, hauteman ahal izateko moduan bederen; ez dira zabaltzen argitsu edonora, baizik garrik gabe sutan segitzen dute sortu ziren jende pentsatzaile eta ikastunaren zirkuluen barruan, gizateriaren arazo orokorretara inoiz ere argirik ekarri gabe, ez egiazkorik ez engainagarririk. Eta hartara, batzuentzat oso onargarria den gauzen egoera mantentzen da, zeren, inor isundu edo kartzelaratzeko prozedura desatsegina erabili barik, iritzi komun guztiak

itxuraz ukigabe uzten baititu, pentsamenduaren gaixotasuna duten disidenteei arrazoimena erabiltzen inola ere eragotzi gabe. Oso plan egokia mundu intelektualean bakea edukitzeko eta gauza guztiei lehen bezalatsu joaten uzteko. Baina bakegintza intelektual horren truke ordainduriko prezioa giza gogoaren adore moral guztiaren sakrifizioa da. Gauzen egoera horretan, adimenik aktiboen eta bilatzaileenetako askok zuhurtzat dute euren konbentzimenduen benetako printzipio eta oinarriak bihotz barrenean gordetzea, eta, jendaurrean ari direnean, beren konklusio guztiak beren barrenean arbuiatu dituzten premisetara ahalik ondoen moldatzen ahalegintzen dira, eta, horregatik, ezin dira sortu behiala pentsamenduaren mundua edertu zuten izaera ireki eta beldurgabeko gizaki haiek ez adimen logiko eta koherente haiek. Egoera horretan ikus daitezkeen gizaki mota edo topiko-errepikatzaile huts edo unearen araberrako egiaren zerbitzari izanen da, gai garrantzitsu guztiei buruz, eurak konbentzitu dituzten argudioak barik, entzuleak entzun nahi duena oinarrituko dutenak erabiliko dituenak. Alternatiba hori saihesten dutenek euren pentsamenduak eta interesa printzipioen eremuan ezer arriskatu gabe azter daitezkeen gauzetara mugatuz lortzen dute hori, hau da, garrantzi handirik gabeko gai praktikoa, giza adimena sendotu eta hedatuz besterik gabe berez konponduko liratekeenak, baina hori egin arte behar bezala konponduko ez direnak bakarrik jorratuz; bitartean, gizakien gogamenak sendotu eta hedatuko lituzkeena, hots, gai gorenei buruzko espekulazio libre eta ausarta, bertan behera uzten da.

Heretikoaren aldetiko errezelo hori txartzat jotzen ez dutenek kontuan hartu beharko lukete, lehenik, berorren ondorioz ez dagoela inoiz iritzi heretikoaren eztabaida leial eta sakonik, eta iritzion artean horrelako eztabaidari eusterik ez luketenak ez direla desagertzen, nahiz eta euron zabalkundea eragotzi ahal izan. Baina ez dira heretikoaren gogamenak kalterik handiena pairatzen dutenak, konklusio ortodoxoetan amaitzen ez diren ikerketak debekatzen direnean. Kalterik handiena heretikoak ez direnei egiten zaie, heresiaren beldurra euren garapen mental guztia itota eta arrazoimena izututa uzten baitie. Nork kalkula lezake zenbat galtzen duen munduak izaeraz beldurtiak diren hainbat eta hainbat adimen etorkizuntsutan, pentsamendu ildo ausart, sendo eta lokabeei jarrai jokatzen atrebitzen ez direnean erlijioigabe edo ezmoraltzat har litekeen zerbaitetara heltzeko beldurrez? Euron

artean, batzuetan, kontzientzia sakon eta adimen zorrotz eta oso landuko gizakiren bat ikusten dugu, bizitza osoa sofistikatzeko ematen duena isilarazi ezin duen adimena erabiliz, eta bere kontzientziaren eta arrazoimenaren zirikaldira guztiak ortodoxiarekin uztartzen saiatzen dena bere asmamenaren baliabide guztiak agortzeraino, lortu ahal azkenean lortzen ez badu ere. Inor ezin da pentsatzaile handi izan pentsatzaile moduan duen lehenengo eginbeharra bere adimenari jarraitzea dela aitortu gabe, zeinahi konklusiotara daramala ere. Egiake gehiago irabazten du azterlan eta prestakuntza egokiarekin bere kabuz pentsatzen duenaren errakuntzen eraginez, pentsatzea zail egiten zaizkio bakarrik mantenduriko beste batzuen egiazko iritzien eraginez baino. Pentsatzeko askatasuna ez da beharrezkoa pentsalari handiak formatzeko bakarrik. Aitzitik, horretarako bezain ezinbestekoa eta are ezinbestekoagoa da jendeak gizakien batezbestekoak erdiets dezakeen maila intelektuala erdietsi dezan. Izan dira, eta berriro izan litezke, pentsalari handi banakak morrontza mentaleko giro orokorrean. Baina inoiz ez da izan, ezta izanen ere, giro horretan, herri intelektualki aktiborik. Herriaren batean aldi batean bederen egoera horren antzekoa izan dutenean, hori espekulazio heterodoxoaren beldurra aldi batean etenda egon delako izan da. Printzipioak ez direla eztabaidatu behar adosten duen hitzarmen tazitua eginda dagoenean, gizateria kezka dezaketen auzi nagusien eztabaida itxitzat jotzen denean, ezin dugu espero historiaren zenbait aldi hain aipagarri egin dituen goi maila mental orokor hori aurkitzerik. Eztabaidak garra pizteko bezain sakon eta inportanteak izan diren gaiak ekidin ditutenean, sekula ere ez da atera izan herriaren gogo bere oinarrietatik, ezta adimenik arrunteko pertsonak izaki pentsatzaileen duintasunera jasotzen dituen bultzada eman ere. Honen adibide bat Europako Erreformatoren ondoko garaian ukan zuen egoera daukagu; beste bat, kontinentera eta klase landuagora mugatua, hamazortzigarren mendeko bigarren zatia mugimendu espekulatiboan; eta hirugarrena, iraupen laburragokoa oraindik, Alemanian Goethe eta Fichten garaian izandako hartidura intelektualean. Hiru aldiok oso diferenteak izan ziren garatu zituzten iritzirik partikularrei dagokienez; baina berdinak ziren beste honetan: hirurotan haustean agintearen uztarria. Eurotako bakoitzean pikutara bidali zen despotismo mental zaharra, eta ezein berrik ez zuen zaharraren lekua hartu. Hiru aldi horietan eman zitzaion bultzadak egin du Europa egun dena. Giza gogoan edo erakundeetan izan-

dako hobekuntza zehatz bakoitza aldi horietako bat edo besterekin lot daiteke. Dena daukagu, aspaldion dirudienez, seinalatzen ia ahituta daudela hiru bultzadak; eta ezin dugu abiamen berririk espero, harik eta geure askatasun mentala berriro segurtatu arte.

*

Goazen orain argudioaren bigarren partera eta, onarturiko irizietako baten bat faltsua izan daitekeela suposatzea albo batera utzita, demagun egiazkoak direla, eta azter dezagun, iritzion egia askatasunez eta zabaltasunez eztabaidatzen ez denean, euroi eusteko erak duen balioa. Iritzi sendo bat duenak, bere iritzia faltsua dela ontzat hartzeko gogo modurik ez ukan arren, pentsatu behar du, egiazkoena izanda ere, baldin alde guztietatik maiz eta libreki eztabaidatu ez bada, egia bizitzat barik dogma hiltzat hartuko dela.

Badira batzuk (horietarikoak, zorionez, lehenago baino gutxiago badira ere) askitzat dutenak lagun batek zalantzarik gabe baiestea eurek egiazkoa dela uste dutena, lagun horrek euren iritziaren arrazoi inolako ezagutzarik ez badu ere eta objekziorik azalekoenen kontra berorren defentsa onargarririk egiteko gai ez bada ere. Horrelakoek, beren sinesbidea aginteak irakatsita ikustea lortuz gero, pentsatzen dute hura auzitan jartzen uztetik onura batik ere, eta etortzekotan kalteren bat baino, ezin etor daitekeela. Euren eragina nagusi den edonon ia ezinezko bihurtzen dute onarturiko iritzia zuhurtziaz aztertu ondoren errefusatzea, nahiz eta zuhurgabeki eta ezjakintasunez errefusatzea gerta daitekeen, zeren eztabaida bat zeharo ixtea ia ezinezkoa baita, eta eztabaidak aurrera egitea lortzen duenean, konbentzimenduan oinarritzen ez diren usteek atzera egiten dute argudio modukorik arinenen aurrean. Posibilitate hori, hala ere, albo batera utzita, egiazko iritzia gogamenean atxikitzen dela onarturik, aurreiritzi gisa, argudiotik aparteko uste eta beraren kontrako froga gisa, atxikitzen da, eta ez da hori izaki razionalak egiari eusteko ukan behar lukeen modua. Hau egia ez ezagutzea da. Horrela eutsitako egia beste sineskeria bat baino ez da, egia enuntziatzen duten berbei kasualitatez itsatsia.

Gizateriaren adimena eta burubidea landu beharrekoak badira, protestanteek bederen ukatzen ez dutena, zertan erabil ditzake edonork egokiroago ahalmenok, eurei buruz iritziak edukitzea beharrezko ikusteraino interesatzen zaizkion gauzetan baino? Gure adimena

lantzea zerbaitetan baldin badatza beste ezertan baino gehiago, nork bere iritzien oinarriak aurkitzean datza, dudarik gabe. Zernahi delarik ere jendeak uste duena zenbait gaiz, zeintzuei buruz garrantzirik handienekoa baita uste zuzena edukitzea, uste hori defendatzeko gai izan behar luke, objekzio ohikoenen aurka bederen. Baina baten batek esan lezake: «*Irakats* dakizkiela gizakiei euren iritzien oinarriak. Iritzioi buruzko eztabaida inoiz entzun ez izanetik ez dator nahitaez loroak bezala errepikatu behar izatea. Geometria ikasten ari direnek ez dituzte buruz bakarrik ikasten teorema, baizik era berean demostrazioak ulertu eta ikasten dituzte; eta absurdua litzateke esatea egia geometrikoen oinarriak jakin gabe gelditzen direla, inoiz ez dutelako inor entzun egiok ukatzen edo ezezteko ahaleaginean». Dudarik gabe, irakaspen hori nahikoa da matematika bezalako gai batean, non ez dagoen ezertxo ere esan beharrik auziaren alderdi faltsuari buruz. Matematikako egien frogen berezitasuna argudio guztiak alde batetik egotean datza. Ez dago objekziorik ez objekzioei ihardespenik. Baina iritzi ezberdinak edukitzea posible den gai orotan egia elkarren kontrako arrazoiaren sistema biren artean idoro beharreko orekaren mende dago. Filosofia naturalean bertan ere, gertakari beren beste azalpen bat eman daiteke beti; teoria geozentrikoren bat heliozentrikoaren orde, flogistoarena oxigenoaren orde; eta demostratu beharra dago zergatik ezin daitekeen egiazkoa izan beste teoria hori, eta hori nola demostratu den jakin arte, ez ditugu ulertzen geure iritziaren oinarriak. Baina gai askoz konplikatuagoetara joz gero, hala nola, gai moral, erlijioso eta politikoetara, edo gizarte harreman eta bizimoduko aferetara, iritzi eztabaidatu bakoitzaren aldeko argudioen hiru laurdenak hartatik diferentea den iritziaren alde dauden itxurak ezabatzean dautza. Antzinateko hizlaririk handienak —handiena bat kenduz gero— esanda utzi zuen berak bere kontrarioaren kasua berea estudiatzeko jartzen zuen adinako arretaz edo are handiagoz aztertzen zuela. Zizeronek auzitegian arrakasta izateko praktikatzan zuena gairen bat egia iritsi nahian aztertzen duen orok imitatu behar luke. Auziaren bere aldea bakarrik ezagutzen duenak gutxi daki hartaz. Onak izan daitezke haren arrazoiak eta baliteke inork ere ezin errefutatzea. Baina, baldin bera ere kontrako aldearen arrazoiak errefutatzeko gai ez bada, ezagutzen ez baditu, iritzi bata ala bestea zein hobetsi ebazteko motiborik ez dauka. Haren jarrera razionala burubidea atzeratzea da, eta hori onartu ezean, edo aginteari jaramon egiten dio edo, gehie-

nak egiten duten moduan, gogokoen duen alderdira jotzen du. Eta ez du aski kontrarioen argudioak bere irakasleen ahotik entzutea, haiek beren modura aurkeztuta, errefutapentzat eskaintzen dizkietenak eta guzti. Ez da hori argudioei justizia egiteko bidea, ezta beraiek bere gogamenarekin benetako harremanean jartzekoa ere. Eurotan benetan sinetsi eta zintzo eta ahalegin guztiaz defendatzen dituztenengandik entzuteko aukera ukan behar du. Iritzion alderik onargarri eta konbentzigarrienak ezagutu behar ditu, eta gaiari buruzko egiazko iritzira heltzeko gainditu beharreko zailtasunaren indar guztia sentitu; bestela ez du sekula bereganatuko zailtasun hori topatu eta ezabatuko duen egiaren zatia. Ikasiak esaten zaien gizakien ehuneko laurogeita hementzi daude egoera horretan, baita euren iritzien alde barra-barra argudiatzeko gai direnen artean ere. Euron konklusioak egiazkoak izan litezke, baina dakitenetik berdin izan litezke faltsuak. Ez dute inoiz jauzi egin eurengandik diferente pentsatzen dutenen jarrera mentale-ra, ezta haiek esateko dutena kontuan hartu ere; eta ondorioz ez dute ezagutzen, zentzu propioan, ezta berek irakasten duten doktrina ere. Ez dituzte ezagutzen beste guztia esplikatzen eta justifikatzen duten beren doktrinaren zatiak, beste batekin itxuraz uztarrezina den gertakari bat izatez bateragarria dela edo arrazoi itxuraz sendo biren artean bat hobetsi behar dela erakusten duten burutapenak. Ez dute ezagutzen gogamen erabat informatuen judizioa trenkatzen eta erabakitzen duen egiaren alde hori; izan ere, alde hori alderdi biei aditasun beraz eta inpartzialki entzun dietenek eta bien arrazoiak argi indartsuenaren pean ikusten saiatu direnek bakarrik ezagutzen dute. Hain funtsezkoa da jokabide hori gai moral eta gizatarak ulertzeko, non, egia garrantzitsuetan aurkaririk ez badago, ezinbestekoa den aurkariak irudituta eta beraien ahotan deabruaren abokaturik trebeenak asma litzakeen argudiorik sendoenak ipintzea.

Burutapenon indarra urritzeko, eztabaida librearen etsaiak agian esanen du gizakiek oro har ez dutela inolako beharrianik filosofoek eta teologoek euren iritziaren kontra edo alde esan lezaketen guztia ezagutu eta ulertzeko; gizaki arruntek ez dutela euren kontrario azkar baten errakuntza eta falazia guztiak atzeman beharrik; nahikoa dela horiei beti ere norbaitek erantzun ahal izatea, hartara ezikasiak engaina litzakeen ezer gera ez dadin errefutatu gabe; gogamen xumedunek, irakatsi zaizkien egien oinarri nabariak ezagutzen dituztenek,

gainerakoei dagokienez aginteaz fida daitezkeela eta, konturaturik ez dutela ez ezagutzarik ez talenturik sor daitezkeen zailtasun guztiak ebazteko, lasai egon daitezkeela, ziur jakinik gai horietan prestakuntza berezia dutenek emana dietela edo eman diezaieketela erantzuna sor daitezkeen zailtasun guztiei.

Beren usteak lagun izan beharreko egiaren ulerkuntza txiki-narekin konformatzen direnek gaiaren ikuspegi horrentzat erreklama-tzen duten guztia ontzat jota ere, eztabaida librearen aldeko argudioa ez da inola ere ahultzen. Izan ere, doktrina horrek berorrek ere aitortzen du gizateriak objektzio guztiei onargarriro erantzun zaiela baieztatzen dion segurtasun razionala eduki behar duela; eta nola erantzun-nen zaie, baldin erantzuna behar duena azaldu ez bada?; edo nola jakin-nen da erantzuna onargarria dela, objektzioa jarri dutenek onargarria ez dela azaltzeko aukerarik ez badute? Jendeak oro har ez agian, baina zailtasunak ebatzi behar dituzten filosofo eta teologoek bederen ohitu egin behar dute aipaturiko zailtasunetara, nahasgarrienak direnean ere; eta hori ez dago egiterik, zailtasunok libreki enuntziatu eta ukan dezaketen alde argitsuenak nabarmenduz azaldu ezean. Eliza Katolikoak bere erara jokatzeko du arazo nekagarri horretan. Argi bereizten du bere doktrinak konbentzimenduz hartzen utz dakiekeen eta sinesgai gisa onartu behar dituztenen artean. Inori ere ez zaio ematen onartu behar duena aukeratzeko ahalmenik; baina apaizek, konfiantza osoa merezi dutenek bederen, aurkariaren argudioak ezagut ditzakete, ontzat jo beharreko eran eta euren merituz ezagutu ere, erantzun ahal izateko, eta, beraz, irakur ditzakete liburu heretikoak; laikoek ezin dute hori egin, lortzen zaila den baimen bereziarekin izan ezik. Jokabide honek onartzen du aurkariaren argudioak ezagutzea onuragarria dela maisuentzat, baina horrekin bateragarri diren bitarte-koak aurkitzen ditu beste guztiei hori ukatzeko, hartara eliteari masa-ri permititzen dion baino kultura mental handiagoa emanik, askatasun gehiago ez baina. Amarru horren bidez lortu egiten du bere helburue-tarako behar duen nagusitasun mental hori edo; zeren, nahiz eta kul-turak askatasunik gabe sekula ez duen egin gogamen zabal eta libera-lik, egin bailezake kausa baten *nisi prius* abokatu azkar bat. Baina protes-tanteak diren herrietan, ez da posible baliabide hori, zeren protes-tanteek, teorian behintzat, erlijioa aukeratzeagatiko erantzukizuna norberarena dela eta maisuei ezin egotz dakiekeela baieztatzen dute

eta. Gainera, munduaren egungo egoeran, egiatan ezinezkoa da ikasiek irakurtzen dituzten idazkiei ezikasiengana heldu barik eustea. Gizateriaren maisuek jakin behar duten guztia ezagutu behar badute, libre izan behar du edonork inolako murrizketarik gabe edozer idaztea eta argitaratzea.

Hala ere, eztabaida librerik ez egoteak, onarturiko iritziak egiazkoak direnean, iritzion oinarriak ezagutu gabe uztea beste gaitzik ez balekar, pentsatu ahal izanen litzateke hori gaitz intelektuala dela, baina ez morala, eta ez duela eraginik iritziek, izaeraren baitan duten eraginarenean aldetik begiratuta, daukaten balioan. Gertatzen da, alabaina, ezen, eztabaidarik ez dagoenean, iritziaren oinarriak ez eze, iritziaren esanahia bera ere ahanzi egiten dela. Hura adierazten duten hitzek ez dute jada ideiarik iradokitzen, edo hasierako erabileran euron bidez komunikatu nahi ziren ideietako gutxi baino ez dituzte iradokitzen. Ikusmolde sendo eta uste bizi bat zegoen lekuan errutinak eutsitako esaldi urri batzuk baino ez dira gelditzen; eta esanahiaren parteren bat gordetzen bada, hori azala eta bilgarria baino ez da, barruko mami guztia galdurik. Gertakari horrek betetzen duen historiaren kapitulu handia ez da inoiz aztertu eta hausnartuko gehiegizko arduraz.

Horren adibide asko ditugu ia doktrina etiko eta sinesbide erlijioso guztietan. Esangura eta bizitasunez beterik daude hala sortzaileentzat nola euron hurrengo jarraitzaileentzat. Doktrinon esangura murriztu gabeko indarrez sentitzen jarraitzen du jendeak, eta segurutik kontzientzia biziagoz sentitzen du, doktrina edo sinesbideari beste sinesbideen gaineko nagusitasuna emateko borroka dirauen artean. Azkenean edo nagusitzen da, eta iritzi orokor bihurtzen, edo haren aurrerakada gelditu egiten da; kasu horretan, bereganaturiko eremuaz jabetzen da, baina ez da gehiago zabaltzen. Emaitzotako bat garbiro gertatu denean, gaiari buruzko eztabaida ahuldu egiten da, poliki-poliki iraungi arte. Doktrinak bere lekua hartu du, onarturiko iritzi gisa ez bada, ontzat harturiko iritzi-sekta edo sailtako bat bezala; doktrina hori dutenek, eskuarki, heredatu egin dute, ez dute berek berengantatu; eta doktrina horietako batetik bestera konbertitzea salbuespenez baino gertatzen ez denez, horrek ez du tarte handirik hartzen berauen aldekoen pentsamenduetan. Egon beharrean, hasieran bezala, etengabe adi eta erne euren burua munduaren kontra defendatzeko edo mundua eurengana erakartzeko, etsipenean erori dira, eta ez entzuten

dituzte, ahal izanda, euren sinesbidearen kontrako argudioak, ez aztoratzen dituzte euren disidenteak (edukiz gero) beronen aldeko argudioez. Hona helduz gero, beherantz hasi ohi da doktrinaren indar bizia. Sarri entzuten ditugu sinesbide orotako maisuak kexatzen ize-nez aitortzen duten egia bizia sentimenduetan barrena sartu eta jokieran benetako eragin sakona izateko moduan sinestunen gogamenetan atxikitzeko zailtasunaz. Ez dira, ordea, aipaturiko zailtasunaz kexatzen sinesbidea oraindik bere existentziaren alde borrokan dabilenean; orduan borrokalari ahulenez ere badakite eta barruan sentitzen dute zeren alde ari diren borrokan, baita zer alde dagoen beren doktrinaren eta beste doktrina batzuen artean ere; eta, sinesbide ororen existentziaren aldi horretan, ez dira izaten gutxi beren funtsezko printzipioak pentsamendu era guztietan egiaztatu dituztenak, euren alde inportanteetan aztertu eta jorratu dituztenak eta sinesbide horretan sinesteak bertan aitzin-gibel murgildutako gogamenetan ukan behar duen eragina bete-betean esperimentatu dutenak. Baina herentziazko sinesbide bilakatzen denean eta aktiboki barik pasiboki hartzera heltzen garenean –gogamena bere sinesmenak aurkezten dizkion auziei buruz bizi-indarrak hasierako mailan erabiltzera bultzatua ez denean– joera bat sortzen da sinesmenetik dena ahanztera, formulismoak izan ezik, edo sinesbideari baiespen motel eta geldo bat ematera, sinesgai gisa onartzeak kontzientzian gauzatzetik edo esperientzia pertsonalean egiaztatzetik lekatuko balu bezala, gizakiaren barne bizitzarekin ia lotura guztia galtzeraino. Orduan, gure garaian gehiengo osatzerainoko maiztasunez ikusten dira kasuak, zeintzuetan sinesbidea gogamenetik kanpo balego bezala gelditzen den, horrek gure izaeraren goragoko aldeetara zuzenduriko beste eragin guztien kontra zarakarriz beterik eta harri bihurtuta uzten duelarik, eta bere indarra konbikzio berri eta biziak beregan sortzea galaraziz erakusten duelarik, baina gogamenaren edo bihotzaren alde ezer egin gabe, biok hutsik egon daitezen segurtatzeko adi ibili besterik.

Fededun gehienek kristautasuneko doktrinak nola sinesten duten aztertuz ikusten da gogamenean eraginik sakonena egiteko berez gai diren doktrinak noraino gera daitezkeen bertan sineste hil moduan, irudimenak, sentimenez, edo adimenak inoiz ulertu gabe. Kristautasunaz nik hemen eliza eta sekta gehienek ulertzen dutena aditzen dut: Itun Berrian dauden maxima eta aginduak. Sakratutzat

dituzte kristau guztiek, eta lege bezala onartzen dituzte. Hala ere, ez da larregikeria esatea mila kristautik batek baino gehiagok ez duela lege horien arabera gidatzen edo kontrastatzen bere jokaera. Horretarako erabiltzen duen eredia bere nazioaren, klasearen edo erlijioaren ohitura da. Horrela, alde batetik, maxima etikoen bilduma bat dauka, jakituria hutsezinak bere burua gobernatzeko emandako arautzat duena; eta, berriz bestetik, eguneroko judizio eta praktika mordo bat, maxima haietako batzuekin neurri batean bat datozenak, beste batzuekin ez hainbestean, eta beste batzuekin, ordea, aurkakotasun garbian daudenak, eta, oro har, kristau sinesbidearen eta bizitza mundutarreko interes eta iradokizunen arteko hautsi-mautsi bat direnak. Ereduotako lehenengoari kristauak omenaldia eskaintzen dio, bigarrenari, leialtasuna. Kristau orok sinesten du zorionekoak pobreak eta apalak eta munduak gogor egiten dien guztiak direla; ganbeluari errazago zaiola orratz-begian zehar pasatzen, aberatsari zeruetako erreinuan sartzen baino; ez dutela inor epaitu behar, eurak ere epaituak ez izateko; ez dutela sekula ere zinik egin behar; lagun hurkoa norbere burua legez maitatu behar dutela; kapa kentzen dienari, jaka ere eman behar diotela; ez dutela biharamunaz kezkatu behar; perfektuak izateko, daukaten guztia saldu eta txiroei eman behar dietela. Ez dira azalutsak horiek guztiak sinesten dituztela diotenean. Benetan sinesten dituzte, jendeak beti goraipaturik eta sekula eztabaidatu gabe entzun duena sinesten duen moduan. Baina jokaera arautzen duen fede bizi horren zentzuan, euren arabera jokatzeko ohikoa den neurrian soilik sinesten dute. Doktrinok, guztiak, baliagarriak dira eurokin aurkariak harrikatzeko; eta ulertzen da aurrean jarri behar direla (ahal den guztian), gizakiek goresgarritzat duten oro egiteko dauzkaten arrazoiak bezala. Baina norbaitek gogoraziko balie maxima horiek eurek egitea sekula pentsatu ere ez duten mila gauza eskatzen dituztela, ez lukete lortuko beren burua besteak baino hobetzat edukitzeagatik gizartean inolako onarpenik ez dutenen artean sailkatuta gelditzea besterik. Doktrina horiek ez daude batere errotuta sinestun arruntengan, ez dute botererik euren gogamenetan. Ohiko errespetua diote euren soinuari, baina ez daukate hitzetatik adierazitako gauzetara hedatzen den, gogamena *eurok* aintzat hartzera behartzen duen eta formularen araberrako bihurtzen dituen sentimenik. Jokaera auzitan dagoen guztian, euren ingurura begiratzen dute, urliak edo sandiak esan diezaien noraino jo behar duten Kristori esana egiten.

Oso seguru egon gaitezke lehen kristauek hagitz bestela jokatzzen zutela. Horrela izan ez balitz, kristautasuna ez zen sekula igaroko hebrear mespretxatuen sekta ilun bat izatetik inperio erromatarren erlijioa izatera. Haien etsaiek esaten zutenean «Begira nola duten maite elkar kristauek» (gaur egun segurutik inork ere eginen ez luketen aipamena), beren sinesbidearen esanahiarekiko ordudanik inoiz izan duten baino sentimen biziagoa zuten dudarik gabe. Eta horrexegatik segurutik egiten du egun kristautasunak hain aurrerapen gutxi bere eremuaren hedakuntzan eta, hamazortzi mende geroago, dago europarren eta europarren ondorengoen artera mugatuta. Hertsiki erlijiosei eurei ere, beren doktrinekiko benetako berotasuna erakutsi eta doktrinotako askori jende arruntak baino esanahi handiago eransten dietenei, eskuarki gertatzen zaie euren gogamenetan erlatiboki aktiboa den partea Kalbinek, Knoxek edo izaeraz eurengandik hurbilago dagoen norbaitek landua izatea. Kristoren esanak pasiboki daude euren gogamenetan besteekin batera, hain hitz atsegin eta eztiak entzuteak sortzen duenaz aparte beste eragin modurik sortarazi gabe. Arrazoi asko daude, dudarik ez, sekta baten ikur diren doktrinek sekta ezagun guztiek komunak dituztenek baino bizitasun gehiago ukan dezaten eta maisuek beraien esanahia bizi mantentzen ahalegin handiagoak egin ditzaten; baina arrazoi bat, argi dago, doktrina bereziak auzitan jarriagoak eta ukatzen dituztenen kontra maizago defendatu beharrekoak izatea da. Bai maisuak eta bai ikasleak loak hartzen ditu beren postuetan, etsaiak gudu-zelaitik alde egin bezain laster.

Hau berau egia da, oro har, doktrina tradizional guztiei dago-kienez ere, hala zuhurtziari eta bizitzaren ezagutzari nola moralari eta erlijioari buruzkoei. Hizkuntza eta literatura guztiak bizitzari buruzko oharrez beterik daude, zer den eta bakoitzak bertan nola jokatu adierazten duten oharrez hain zuzen; mundu guztiak ezagutzen dituen oharrek dira, mundu guztiak errepikatzen dituenak edo onartuz entzuten dituenak, truisimo gisa hartzen direnak, baina, hala ere, jenderik gehienak ez du ikasten euren benetako esanahia harik eta esperientzia batek, mingarria berau eskuarki, eurentzat errealitate bihurtu arte. Zenbat bider, norbait aurreikusi gabeko ezbehar edo desengainu batek jota dagoenean, ekartzen duen oroimenera bere bizitza guztian entzun izan duen atsoitiz edo esaeraren bat, zeinaren esanahia lehenago orain sentitzen duen moduan sentitu izan balu, zorigaitzetik salbatuko zuke-

ena! Egia da badirela horretarako eztabaidarik ezaz ateko beste arrazoi batzuk ere: hainbat egia daude esanahi osoa ulertu *ezin dakiekee - nak*, esperientzia pertsonalak ulertarazten digun arte. Baina egia horien esanahia ere askoz hobeto ulertuko zatekeen, eta ulerturikoak gogamenean eragin sakonagoa egingen zukeen, gai horretan adituak direnen *alde* eta *kontrako* arrazoiak entzuteko ohitura ukan izan balu gizakiak. Gizateriak, gauza bat jada dudazkoa ez denean, berari buruz pentsatzeari uzteko daukan joera zorigaiztokoa da haren errakuntzen erdiaren zergatia. Autore garaikide bat zuzen mintzatu da «iritzi eztabaidaezinen lozorro sakonaz».

Baina zer! (galde daiteke): Guztien adostasunik eza egiazko ezagutzaren ezinbesteko baldintza al da? Beharrezkoa al da gizateria- ren zati batek errakuntzan irautea beste zatiak egia uler dezan? Ustea, eskuarki onartua izanez gero, ez al da jada erreala eta dinamikoa, eta proposizioa ez al da guztiz ulertua eta sentitua, berari buruz dudarik gelditzen ez bada? Gizateriak egiaren bat aho batez onartzen duen unean, egia hori deuseztatu egiten al da haren barruan? Orain arte pentsatu izan da adimenaren aurrerapenaren helbururik gorena eta emaitzarik onena gizateria egia garrantzitsu guztien ezagutzan gero eta gehiago elkarraraztea dela: eta bere xedea lortu ez duen artean soilik iraunen al du adimenak? Garaipen osoa lortzeak konkistaren fruituak galtzea al dakar?

Nik ez diot hori. Gizateriak hobera egin ahala, jada auzitan edo zalantzan ez dauden doktrinen kopuruak gora egingen du etengabe; eta gizateriaren ongizatea eztabaidaezin izatera heldu diren egien kopuru eta garrantzitik neur daiteke. Eztabaida serio oro amaitzea, lehenbizi gai baten eta gero beste baten inguruan, iritzia sendotzeko beharrezko diren gertaeretako bat da, egiazko iritzien kasuan osasungarria den neurri berean okerreko iritzien kasuan arriskutsu eta kaltegarria den sendotzea berau. Baina iritzi desberdintasunaren mugak poliki-poliki estutze hori beharrezko den arren hitzaren zentzu bietan, aldi berean ekidinezin eta ezinbesteko izanik, ez daukagu horregatik nahitaez deduzitu beharrik haren ondorio guztiak onuragarriak direnik. Egia baten atzemate adimentsu eta bizia lortzeko berori aurkarien kontra azaldu edo defendatu beharrak eskaintzen duen moduko laguntza inportantea galtzea egia horren ezagutza unibertsalaren onura galtzea baino desabantaila handiagoa ez bada ere, ez da desabantaila hutsala

ere. Aitor dut, aipaturiko laguntza hori eduki ezin denean, gogoko nukeela gizateriaren maisu-maistrek berorren ordezkoren bat bilatzeko eginahalak egiten ikustea, eta asmakizunen bat bilatzea ikaslearen kontzientziara auziaren zailtasunak aurkezteko, bera konbertitu nahian lebilkeen disidente nagusiren batek jarritakoak balira bezala.

Baina horretarako bitarteko berriak bilatu beharrean, lehenago zituztenak ere galdu egin dituzte. Dialektika sokratikoa, Platonen elkarrizketetan hain adibide ederrez agertzen dena, bitarteko horietako bat zen. Funtsean filosofia eta bizitzako galdera eta auzi nagusiei buruzko eztabaida negatibo bat ziren, eskuarki onarturiko topikoak hartu besterik egiten ez dutenei trebetasun bikainez zuzendua, hain zuzen ere ez zutela gaia ulertzen sinestarazteko, onarturik zituzten doktrinei ez zietela esanahi zehatzik ematen; eta hori guztia, euren ezjakintasunaz kontziente, doktrinen esanahia eta berauen frogak argiro atzematean oinarrituriko uste sendoa erdiesteko bidean jar zitezten. Erdi Aroko eskolen arteko eztabaidek ere antzeko helburua zuten. Ikasleak bere iritzia ulertzen zuela ziurtatzen saiatzen ziren, baita (beharrezko korrelazioz) berearen aurkako iritzia ere, eta batarren oinarriak defendatu eta bestearenak errefutatu ahalko zituela. Azken eztabaidok gaixotasun sendaezina zuten: arrazoimenetik barik autoritatetik ateratzen zituzten beren premisak; eta gogamenarentzako irakasgai gisa, *Socratici viri* haien adimena lantzen zuen dialektika indartsu hura baino beheagoko mailakoak ziren ikuspegi guztietatik; baina gogamen modernoak eskuarki onartu nahi izaten den baino gehiago zor die biei, eta hezkuntzan egun ditugun modek ez dute bataren edo bestearen lekua mailarik txikienean ere bete dezaketenez. Bere heziketa guztia maisuengandik eta liburuetatik ateratzen duena, ikasi eta ikasi ibiltzeko tentazio obsesiboari ihes egin arren ere, ez dago alde biei entzutera beharturik; horregatik pentsalarien artean ere bakanki ezagutzen dira alde biak; eta bere iritziaren defentsan edonork dioenaren zatirik ahulena antagonistei ihardesteko proposatzen duena izaten da. Gure garaian modan dago logika negatiboa gutxiestea, teoriaren puntu ahulak eta praktikaren errakuntzak agerian jartzen dituen, egia positiborik ezarri gabe. Kritika negatibo hori benetan pobrea litzateke azken emaitza moduan; baina izen hori merezi duen edozein ezagutza edo konbikzio erdiesteko bitarteko moduan, nekez balioets daiteke goregi; eta jendea berriro horretara-

ko hezi arte, ez da izanen pentsalari handi askorik, eta batez besteko adimen maila baxua izanen da edozertan, espekulazio matematiko eta fisikoetan izan ezik. Beste edozein gaitan inoren iritziak ez du ezagutza izena merezi, baldin iritzi horren jabeak, behin inork behartuta behin bere kabuz, aurkariekin eztabaida aktibo batean egin beharreko prozesu mentala burutu ez badu. Zeinen absurdu ikaragarria den ez dagoenean hain ezinbesteko izanik sortzen hain zaila den aukera hori berez esku-eskura ageri zaigunean galtzea! Onarturiko iritzi bat auzitan jartzen duten edo legeak edo iritziak utziko balie hori eginen luketen pertsonak baditugu inguruan, eman diezazkiegun eskerrak, entzun diezaiegun adimena zabalik eta poz gaitetzen euren egiten dutelako gure ordezkari guk geuk, geure konbentzimenduen ziurtasun edo bizitasuna aintzat hartuko bagenu, lan gehiago geureganatuta egin beharko genukeena.

*

Oraindik aipatzeko geratzen zaigu iritzi desberdintasuna abantailatsu egiten duen kausarik nagusienetakoa, egiten segituko ere duena, harik eta gizateria gaur egun distantzia kalkulaezinean daukagula dirudien aurrerapen intelektualeko etapa batean sartu arte. Orain arte bi posibilitate izan ditugu kontuan: onarturiko iritzia faltsua izatea, eta, beraz, besteren bat egiazkoa izatea, edo, onarturiko iritzia egiazkoa izanik, aurkako errakuntzarekiko gatazka egia argiro atzetan eta sakonki sentitzeko funtsezkoa izatea. Baina bada beste kasu bat aurreko biak baino ohikoagoa dena: gatazkan dauden doktrinek, bata egiazkoa eta bestea faltsua izan beharrean, egia bien artean partekatzen dutenean, eta iritzi disidentea egiaren gainerakoa ekartzeko beharrezkoa denean gertatzen dena, onarturiko iritziak egiaren parte bat baino ez daukalako. Herri iritziak, sentsumenek hautemangarri ez dituzten gaiei buruz, egiazkoak izaten dira maiz, baina nekez edo inoiz ere ez egia osoa. Egiaren zati bat izaten dira; batzuetan handiagoa eta besteetan txikiagoa izaten den zati, baina puztua, desitxuratua eta beronen lagun eta mugatzaile izan behar duten egietatik banatua. Iritzi heretikoak, bestalde, ezabatu eta mespretxaturiko egia horietakoak izaten dira, eusten dieten lokarriek apurtuz iritzi komunean dagoen egiarekin adiskidetu nahi dutenak edo beroni etsai gisa aurre egiten diotenak, egia osoa balira bezalako eskusibismoaz tentetuz. Azken kasua da gaurdaino ohikoena, zeren giza gogamenean aldeba-

kartasuna izan baita beti araua eta aldeaniztasuna salbuespena. Horregatik, iritzi iraultzetan eurretan ere, egiaren zati batek behera egiten du eta besteak gora. Aurrerapenak berak, egia areagotu behar lukeenak, gehienbat egia partzial eta ez-oso bat beste batez ordezkatu besterik ez du egiten; eta hobekuntza nagusiki honexetan datza: egi zati berria ordezkaturik baino beharrezkoagoa izatean eta hobeto egokitzean uneko beharrianetara. Horrelakoxea izanik gailentzen diren egien izaera partziala egiazko oinarriak dituztenean ere, iritzi komunean ez dagoen egi zatiren bat daukan iritzi oro preziazatuz eduki behar da, nolana hika delarik ere egiak irabiatuz daukan errakuntza eta nahasketa. Giza auzien epaile zentzundun den inor ez da haserre jarriko guk ikusi gabe uzten ditugun egiei erreparatzera behartzen gaituztenek guk ikusten ditugun batzuk ikusi gabe uzten dituztelako. Hori barik, pentsatuko du ezen, herri iritzia aldebakarrekoa delarik, hobe dela herri iritzia ez denak ere aldeztale aldebakarrekoak ukatea, berauek izaten direlako adoretuenak eta jendearen arreta uzkurari jakituria osoa balitz bezala aldarrikatzen duten jakituri zatirantz bultzatzea egiteko ahalbide gehien dituztenak.

Horrela, hamazortzigarren mendean, ia jende eskolatu orok eta berauen gidaritzapeko eskolatu gabeek zibilizazioa deritzanaren eta zientzia, literatura eta filosofia modernoaren mirariak liluraz miresten zituenean, eta, garai modernoetako eta antzinako gizakien arteko aldeak gehiegi handituz, alde guztia euren alde zegoela ebazten zuten artean, bonbak bailiran eztanda egin zuten, zein osasungarriro egin ere, Rousseuren paradoxek, eta aldebakarreko iritzi-ore trinkoa lokatuz, beronen elementuak lehen baino hobeto eta osagai berriak gehituta birkonbinatzera behartu zituzten. Ez iritzi hedatuena oro har Rousseurenak baino egiazki urrunago zeudelako; aitzitik, hurbilago zeuden; gehiago zeukaten egia positibotik, eta askoz gutxiago errakuntzatik. Hala ere, Rousseuren doktrinak herri iritziari hain zuzen ere falta zitzaizkion hainbat egia zeuzkan, eta doktrina horrekin batera iritziaren korrontera sartu dira; eta egiok uholdea pasa ondoren gelditu zen sedimentua dira. Bizimodu sinplearen goi balioa, gizarte artifizialaren traba eta azaluserien ondorio asaldagarri eta etsigarria, Rousseauk idatzi zuenez geroztik gogamen landuetatik guztiz kanpo sekula egon ez diren ideiak dira; eta, denborarekin, euren ondorioa izanen dute, nahiz eta orain inoiz baino gehiago baieztatu behar diren,

ekintza bidez gainera, zeren hitzek, gai honetan, ahitu egin dute eta haien ahalmena.

Gainera, politikan ia topiko gisa esan ohi da bai ordena eta egonkortasuneko alderdi bat eta bai aurrerapen eta erreformako bat biak direla bizitza politiko osasungarriaren beharrezko osagaiak, harik eta batak edo besteak bere botere intelektuala maila berean ordenako eta aurrerapeneko alderdi izateraino hedatu arte, gordetzea merezi duena jo eta hautsi beharrekoa denetik ongi bereiziz. Pentsaera biok elkarren hutsuneetatik ateratzen dute beren baliagarritasuna; baina bestearen aurkakotasuna da neurri handian bakoitza arrazoien eta zuhurtziaren mugen barruan mantentzen duena. Demokraziaren eta aristokraziaren, jabetzaren eta berdintasunaren, lankidetzaren eta elkarren lehiaren, luxuaren eta urritasunaren, gizartearen eta gizabanakoaren, askatasunaren eta diziplinaren eta bizitza praktikoko antagonismo guztien aldeko iritziak askatasun beraz adierazi eta talentu eta indar beraz betearazi eta defendatu ezean, ez dago inolako modurik elementu biek zor zaiena erdiets dezaten, eta balantzaren alde batak gora egingen du eta besteak behera. Egia, bizitzako arazo praktikoa nagusi guztietan, hain da aurkakoak bateratu eta konbinatzeko kontua, non gutxik ere gutxik duten doikuntzak behar bezain egokiro egitera hurbiltzeko behar den adimen kapaz eta inpartziala, eta, horregatik, bandera etsaien pean borrokatzen diren soldaduen arteko auskaka bezalako prozedura gogorrez lortu beharra egoten da. Arestian aipatu ditugun ebatzi gabeko arazo nagusietako edozeini dagokienez, iritzi bietako batak besteak baino eskubide hobea badu toleratua ez eze, goraipatua eta euskarritua ere izateko, hori han eta orduan gutxiengoan dagoen iritzia da. Iritzi hori orduan bertan behera utzitako interesak, hau da, dagokion partea baino gutxiago eskuratzeko arriskuan dagoen giza ongizatearen aldea, ordezkatzeko duena da. Seguru nago herrialde honetan ez dagoela inolako intolerantziarik topiko horietako gehienei buruzko iritziei dagokienez. Honexetarako soilik aipatzen dira, alegia, adibide anitz eta onartuen bidez erakusteko giza adimenaren egungo egoera iritzi ezberdintasunaren bidez bakarrik dagoela egiaren alde guztientzako joko garbirako aukera eta hau gertakari unibertsala dela. Munduak edozein gairi buruz duen adostasunean salbuespenak direnak aurkitzen direnean, mundua zuzen egonda ere, segurutik disidenteeak, beti ere, entzutea

merezi duen zerbait dute esateko, eta eurok isiltzeaz zerbait galduko luke egiak.

Eragozpenak jar daitezke esanez: «Baina onarturiko printzipio *batzuk*, batik bat gai goren eta garrantzitsuenei buruzkoak, egia erdiak baino gehiago dira. Moral kristaua, adibidez, egia osoa da gai honetan, eta baten batek beronetatik aldentzen den moralik irakasten badu, erabat oker dago». Kasurik inportanteena praktikan horixe denez, ezein ere ez berebizikoagoa maxima orokorra frogatzeko. Baina moral kristaua zer den edo zer ez den esan aurretik, moral kristaua esatean zer esan nahi den zehaztea komeniko litzateke. Itun Berriko morala esan nahi baldin badu, harritu egiten nau beronen ezagutza liburutik bertatik hartu duen edonork moralaren doktrina oso bezala iragarria edo interpretatua izan zela suposatzeak. Ebanjelioa aurretiko moral batez ari da beti, eta bere aginduak moral hori zuzendu beharrekoa edo beste zabalago eta jasoago batez ordeztu beharrekoa den kasuetara mugatzen ditu; eta, gainera, hitz orokorragoz mintzatzen da, maiz literalki ulertezinak diren eta poesiaren hunkigarritasunetik edo elokuentziatik legegintzaren zehaztasunetik baino gehiago duten hitzez. Bertatik doktrina etikoaren korpus bat ateratzea inoiz ez da posible izan, Itun Zaharrarekin, hau da, benetan landua, baina alde askotatik barbaroa eta herri barbaro batentzakoa soilik den sistema batekin osotu gabe. San Paulok, doktrina interpretatzeko juduek zuten era honen etsai garbia bera, bere Maisuaren eskema betez, aurretiko moral bat onartzen du era berean, zehazki, greziarren eta erromatarrena; eta kristauei luzatzen dien aholkua berorretara egokitzeke sistema bat da neurri handian, itxuraz esklabotasuna onestearainokoa izan ere. Moral kristaua esan zaiona, baina hobeto esanda moral teologikoa esan behar litzaiokeena, ez zen Kristok edo Apostoluek egina izan, eta askoz geroagokoa da haren jatorria, lehenengo bost mendeetako eliza katolikoak poliki-poliki eraikia baita, eta, modernoek eta protestanteek inplizituki onartu ez badute ere, uste izan zitekeena baino askoz gutxiago aldatu dute. Izan ere, Erdi Aroan egindako eransketak kentzearekin konformatu izan dira gehienbat, eta sekta bakoitzak bere izaera eta joeretara egokituriko eransketa berriekin bete du hutsik geraturiko lekua. Gizateriak asko zor diola moral honi eta beronen lehenengo maisuei, hori ukatzen azken izanen nintzateke ni; baina ez dut eskrupulurik esateko, puntu inportante askotan, ez-osoak eta aldebaka-

rra dela eta, hark berretsi gabeko ideiek eta sentipenek lagundu ez balute europarren bizitza eta izaera lantzen, giza arazoak egun dauden baino egoera txarragoan leudekeela. Kristau moralak (hala deritzanak) erreakzioaren ezaugarri guztiak ditu; zati handi batean paganismoaren kontrako protesta bat da. Haren ideala negatiboa da, positiboa baino gehiago, pasiboa, aktiboa baino gehiago; inozotasunetik gehiago dauka, nobleziazetik baino; gaizkitik alde egitera doa gehiago, ongia lehiatsu bilatzera baino; haren aginduetan «ez duzu eginen» ugariak gailentzen dira, behar ez bezala, «eginen duzu» urrien gainetik. Sentsualitatearen izuz, idolo bihurtu zuen aszetismoa, eta poliki-poliki legezkotasunaren idoloarekin ordezkatu du. Zeruaren esperantza eta infernuaren mehatxua ditu bizimodu bertutetsurako motibo aproposen eta lagungarriena; horretan antzinako onenen nahikoa behetik gelditzen da eta giza moralitasunari izaera funtsean egoista emateko behar dena egiten du, norberaren betebeharraren sentimenduak lagun hurkoen interesetatik bananduz, motibo egoista batek berauek kontuan hartzera bultzatzen duenean izan ezik. Obedientzia pasiboko doktrina bat da funtsean; eraturiko agintari guztiei men egiten irakasten du, nahiz eta, erlijioak debekatzen duen ezer aginduz gero, obeditu, ez zaien aktiboki obeditu behar, baina ezta erantzuki egin ere, eta are gutxiago euren kontra jaiki, handiena izanik ere gure kontra egindako bidegabea. Eta nazio pagano onenen moralean Estatuarekiko betebeharrak neurritz kanpokoa ere baden lekua dute, gizabanakoaren bidezko askatasuna urratuz; etika garbiro kristauan, ordea, betebeharraren arlo handi hori ia aipatu ez aintzat hartu ere ez da egiten. *Koranean* irakurtzen dugu, ez Itun Berrian, honako maxima hau: «Bere agindupeko lurrean gizon gaituagorik egonik, kargu publiko baterako beste gizon bat izendatzen duen gobernariak Jainkoaren eta Estatuaren kontra egiten du bekatu». Moral modernoan publikoarekiko obligazioak duen onarpen apurra iturri greziar eta erromatarretatik etorria da, ez kristauetatik; bizimodu pribatuko moralean ere eskuzabaltasunetik, goisentimenduetatik, duintasun pertsonaletik, are ohore senetik den guztia gure heziketaren alderdi gizatar hutsetik, ez erlijiosotik, etorria da, eta inoiz ere ezin zitekeen izan balio bakartzat, espresuki bederen, obedientzia aitortzen duen etika mota batetik sorturiko fruitu.

Inor baino urrunago nago esatetik akats horiek etika kristauari, beronen nolanahiko ikusmoldean ere, ezinbestez datxezkionak direla,

edo doktrina moral osoa izateko falta zaizkion beharkizun guztiak berarekin uztartu ezinak direla. Askoz gutxiago iradokiko nuke hau Kristoren doktrinei eta aginduei buruz. Uste dut Kristoren hitzak izan nahi izan dutena direla nabariki; ez direla bateraezin moral orohar-tzaile batek behar duen ezerekin; etikan bikain den oro kausi daiteke-ela eurretan, euren hizkuntzari eurotatik edozein jokaera sistema dedu-zitzen saiatu diren guztiek baino bortxa gehiagorik egin gabe. Baina horrekin zeharo bateragarri da uste izatea hitzok barruan egiaren zati bat baino ez daukatela eta edukitzea nahi ere ez zela; moral gorenaren funtsezko elementu asko ez zirela aurreikusten eta ez zirela aurreiku-si nahi Kristautasunaren Sortzailearen irakaspenetan eta Eliza Kristauak irakaspenon oinarriaren gainean eraikitako etika sisteman zeharo arbuaiatuak izan direla. Eta hori horrela delarik, errakuntza han-dia dela uste dut doktrina kristauan gure jokaera arau osoa aurkitzen segitzea, doktrina horren egileak hori berretsi eta indartu bai, baina aldez bakarrik ezarri nahi izan zuenean. Halaber uste dut teoria estu hau gaitz praktiko handi bilakatu dela, egun asmo oneko laguna asko bultzatzen ahalegintzen diren trebakuntza eta heziketa moralari balioa kentzen baitie. Beldur naiz biziki, adimena eta sentimena eredu erli-jiosoaren arabera soilik hezten ahalegintzeagatik eta eredu sekularrak (izen hoberik ez eta, horrela deituak), orain arte etika kristauarekin batera bizi eta horren espiritutik zerbait hartuz eta beretik zerbait ema-nez berorren osagarri izandakoak baztertzeagatik, ez ote den aterako, eta ez ote den ari jada ateratzen, jopu izaerako tipo narras eta doilor bat, ahal duen guztian Borondate Gorena deritzanari men egiten diona eta Ontasun Gorena bururatzeko edo bere baitan harekiko sinpatia sortzeko kapaz ez dena. Pentsatzen dut kristau iturrietatik sortutzat ukan daitezkeenetatik bestelako etikek egon behar dutela etika kris-tauaren aldamenean gizateriaren morala bere onera ekartzeko; eta sis-tema kristaua ez dela, giza gogamenaren egoera hobegarria denean, egiaren interesek iritzi desberdintasuna behar dutela dioen arauaren salbuespen bat. Ez da beharrezko jendeak, kristautasunean ez dauden egia moralak ezagutzen hastean, badaudenetako batzuk ahanztea. Aurreiritzi edo huts hori ere, gertatzen denean, gaitz bat da; baina berorretatik salbu beti egotea espero ezin dezakegun gaitza da eta on estimagaitz baten prezio moduan ikusi behar dugu. Protestatu beharra dago egiaren zati batek berak bakarrik egia osoa izan nahiaren kontra, eta erreakzioaren bultzadak protestagileak ere bidegabeko bihurtuz

gero, partzialkeria hori, bestea legez, deitoratu ahal izanen da, baina toleratu beharrekoa da. Kristauek sinesgabeei kristautasunarekin justuak izaten irakatsi nahi baliote, eurek ere sinesgabetasunarekin justuak izan beharko lukete. Egiari ez zaio inolako zerbitzurik honako egia hori, liburuetako historiaren ezagutzarik arruntena dutenek ezagutzen dutena, ahanzteaz, alegia, irakaspen moral nobleen eta balio-tsuenaren zati handi bat kristau fedea ezagutzen ez zuten gizakien sorkaria ez eze, ezagutu eta errefusatzen zutenena ere izan dela.

Ez diot nik iritzi posible guztiak enuntziatzeko askatasunaren erabilerarik mugagabeenak sektakeria erlijioso edo filosofikoaren amaiera ekarriko lukeenik. Gaitasun urriko gizakiek fede onez egiaren bat sinesten duten guztian, gauza segurua da egia hori baieztatu, irakatsi eta kasu askotan berorren arabera jokatu ere egingen dutela, munduan beste egiarik, edo, edonola ere, hura muga edo kualifika lezakeenik ez balego bezala. Aitor dut iritzi guztiek sektario bihurtzeko duten joera ez dela sendatzen eztabaidarik libreenez, maiz areagotu eta bizitu egiten baita eztabaidaz, ikusi beharreko baina ikusi gabeko egia gogor ere gogor errefusatu izan baita aurkari moduan ikusten diren pertsonak aldarrikatzen dutelako. Baina iritzien arteko talkak jende alderdikoi grinatsuaren baitan barik, ikusle mantso eta desinteresatuagoaren baitan dauka eragin osasungarria. Gaitz beldurgarria ez da egiaren aldean arteko gatazka bortitza, baizik egiaren erdia lasai ezabatzea; jendeak alde biak entzun beharra duenean, beti dago esperantza; alde bakar bat aditzen duenean bihurtzen dira errakuntzak aurreiritzi eta egiak berak, faltsutasuneraino puztuta, egiaren efektua edukitzeari uzten dio. Eta gutxi direnez auzi baten alde bien artean, abokatuak batek bakarrik edukita, zuhurki erabakitzeke ahalmen judizial hori baino bakanagoak diren gogamen ezaugarriak, egiak ez du zereginik, baldin egiaren alde guztiek, haren zati bat duten iritzi guztiek, abokatuak aurkitzez gain, entzutea merezi izateko moduan defendatzen ez badira.

*

Onartu dugu orain gizateriaren ongizaterako (eta horren mende dago bestelako ongizate oro) beharrezkoak direla iritzi askatasuna eta iritzia adierazteko askatasuna, lau harroinen gainean, oraintxe laburbilduko dugun moduan.

Lehenik, iritziren bat isilarazia denean, iritzi hori izan daiteke, guk dakigula, egiazkoa. Hori ukatzea geure hutsezintasuna onartzea da.

Bigarrenik, isilarazitako iritzia errakuntza bat izanda ere, eduki dezake, eta maiz eduki ere badauka, egiaren zati bat; eta edozein gairi buruzko iritzi orokorra edo hedatuena egia osoa bakanki baino edo inoiz ere izaten ez denez, elkarren kontrako iritzien bidez bakarrik ezagut liteke, ezagutzekotan, egia osoa.

Hirugarrenik, onaturiko iritzia egia ez eze, egia osoa izanez gero, gogor eta sakon eztabaidatu ezean, egia horren aldekorik gehienek aurreiritzi bezala defendatuko dute, arrazoi razionalen ulerkuntza edo sen handi barik. Eta ez hori bakarrik, zeren, laugarrenik, doktrina-
ren beraren esanahia galtzeko arriskutan edo ahulduta eta izaeran eta jokaeran duen eragin bizi-az gabetuta geldituko baita; dogma aitorten formal huts bihurtuko da, ongirako gauza ez dena, baina bai eremua oztopen-
betetzeko eta arrazoietan edo norberaren esperientzian oinarri-
turiko bihotz barreneko konbikzio ororen garapena galarazteko.

Iritzi askatasunaren gaia utzi aurretik, komeni da zerbait esatea iritzi guztien adierazpen askea, neurriz egindakoa eta eztabaida leial baten mugez haratago ez doana izanez gero, libre izan behar litzateke-
ela uste dutenei buruz. Asko esan daiteke ustezko muga horiek non jarri behar diren zehazteko ezintasunaren inguruan; izan ere, baldin irizpidea euren iritziagatik kontra egiten diegune-
i irainik ez egitea bada, uste dut esperientziak erakusten duela irain hori eraso-
nabar-
mena eta indartsua den guztian egiten dela, eta besteak estu eta larri eta erantzun ezinik darabiltzan aurkari orori, gaian benetako interesa ipintzen baldin badu, neurritasunik gabeko aurkaria iritziko diotela. Baina hori, ikuspuntu praktikotik inportantea bada ere, ezabatu egiten da objekzio funtsezkoago baten aurrean. Iritzi bat baieztatze-
ko era, dudarik ez, egiazkoa izanda ere, objektagarria izan daiteke oso, eta gaitzespen zorrotza merezi dezake bidezki. Baina mota honetako irain nagusiak norberak akzidentalki aitortu ezean, demonstratu ezinezkoak dira. Euron artean astunena era sofistan argudiatzea, gertakariak edo argudioak ezabatzea, kasuaren elementuak era desegokian azaltzea edo aurkako iritzia desitxuratzea dira. Baina hau guztia, mailarik larrienean ere, hain maiz eta federik onenaz egiten dute ezjakintzat ez dauden eta beste ikuspegi askotan ezjakintzat edo ezgaitzat hartzea merezi ez duten pertsonen-
ek, non oso bakanki jo daitekeen, kontzientien-

tzian eta behar adina arrazoierekin, moralki erruduntzat desitxuratze hori gauzatu duena; eta askoz gutxiago nahas zitekeen legea horrelako desleialtasun polemiko batean. Eskuarki neurritasunik gabeko eztabaida esan ohi zaionari dagokionez, hau da, hitzaldi iraingarriari, sarkasmoari, pertsonalismoari eta horrelakoei dagokienez, arma horiek salatzeari sinpatia gehiago sortaraziko luke, alde biei era berean debekatzeari proposatuko balitz; baina horiek nagusi den iritziaren kontra erabiltzea mugatu nahi da bakarrik; nagusi ez den iritziaren kontra erabiltzen direnean, gaitzespen orokorrik gabe erabili ahal izateaz gain, erabiltzen dituen segurutik laudatua izanen da erakutsitako ardura onest eta haserre bidezkoagatik. Hala ere horrelako jokabideek egiten duten kaltea inoiz ere ez da handiagoa konparatiboki, defentsa gabekoak diren iritzien kontra erabiltzen direnean baino; eta iritzietako batek horrela baieztatzearen lor lezakeen abantaila bidegabekoa onarturiko iritziek jasotzen dute ia beti. Honetan, polemika batean egin daitekeen irainik handiena aurkako iritzia defendatzen dutenak donge eta ez moral gisa estigmatizatzea da. Horrelako kalumnien arriskua onartua ez den iritziren bat defendatzen dutenek dute batez ere, eskuarki gutxi eta gizartean eraginik gabekoak direlako eta inork ere, eurak kenduta, ez duelako interesik justizia egin dakien; baina arma hau, kasuaren izaeragatik beragatik, ukatu egiten zaie nagusi den iritzi baten kontra doazenei: ezin dute iritzi hori erabili euren segurtasuna arriskuan jarri gabe, eta ahal izanez gero ere, beren kausaren kaltetan izatea baino ez lukete lortuko. Normalean, eskuarki onarturikoen kontrako iritziek ongi aztertutako hizkuntza neurtuaz aurkeztuta eta alferreko irain oro ahalik eta konturik handienaz ekidinda bakarrik lor lezakete entzunak izatea, eta, horregatik, jokaera ildo honetatik pitin batean ere desbideratu gabe ibili beharra dute, lur tinkoa ez galtzeko; nagusi den iritziaren aldetik erabilitako laido gordinek, ordea, aurkako iritzia edukitzeko eta dauzkatenei entzuteko gogoia benetan kentzen diote jendeari. Horregatik egiaren eta justiziaren onerako, askoz inportanteagoa da laidozko hizkuntza honi mugak jartzea, besteari baino; eta, adibidez, aukeratu beharra balego, askoz ere beharrezkoagoa litzaiteke desleialtasunaren kontrako erasoei mugak jartzea, erlijioaren kontrakoei baino. Bistakoa da, hala ere, legeak eta agintaritzak ez dutela inolako zereginik ez bataren ez bestearen mugaketan; iritzia, ordea, kasu bakoitzean, kasu horren zirkunstantzien arabera ebazti behar du bere epaia; bere argudioa aldezteko moduan fede txarra, gaiztakeria,

fanatismoa edo intolerantzia erakusten duen oro gaitzetsi behar da, argudioaren alde batean zein bestean egon, baina bizio horiek ez zaizkio inori egotzi behar laguna zein aldetan jartzen den kontuan hartuta, auzi horretan gu gauden aldearen kontrakoa izan arren; eta merezi duen ohorea eman behar zaio bere aurkariak eta beraien iritziak egia-tan zer diren ikusteko baretasuna eta aitortzeko prestutasuna daukan orori, zeinahi delarik aldezen duen iritzia, haiei izen ona kentzeko ezer puztu gabe eta euren aldekoa izan litekeen ezer ezkutuan gorde gabe. Horixe da eztabaida publikoko benetako moralitasuna; eta sarri urratzen bada ere, poztan nau pentsatzeak polemista asko daudela moralitasun horren arauak neurri handian betetzen dituztenak eta are gehiago direla kontzienteki betetzen ahalegintzen direnak.

III BANAKOTASUNAZ, ONGIZATEARENELEMENTUETAKO BAT DENEZ

Horiexek direlarik gizakiak beren iritziak eratzeko eta errepa-rorik gabe adierazteko aske izatea egiten duten arrazoiak eta, era bere-an, askatasun hori ematen ez bada edo, debekatuta egon arren, eusten ez bazaio, adimenerako eta beronen bitartez gizakiaren izaera morale-rako sortzen diren ondorio kaltegarriak ere horiexek direlarik, goazen orain aztertzeraz ea arrazoi berek ez duten galdatzen gizakiak aske iza-tea euren iritzien arabera jarduteko eta euren bizitzetan arrazoiok praktikara eramateko, lagun hurkoen aldetiko inolako eragozpen fisi-korik ez moralik gabe, nork bere arriskuak eta atakak bere gain har-tzen dituen heinean. Azken baldintza hori, jakina, ezinbestekoa da. Inork ez du baiesten ekintzek iritziek bezain libreak izan behar dute-nik. Aitzitik, iritziek eurek ere beren immunitatea galtzen dute, beren adierazpeneko zirkunstantziengatik adierazpen hori ekintza kaltega-rriren bat burutzeko zirrikaldi positiboa denean. Gari salerosleek pobreak gosez hiltzen dituztelako iritziari edo jabetza pribatua lapu-rreta delakoari ez zaio trabarik jarri behar prentsan besterik gabe adie-razten denean, baina zigortu egin behar da gari salerosle baten etxau-rreran bildutako jendetza sutu baten aurrean ahoz adierazten denean

edo jendetza beraren aurrean karteletan erakusten denean. Besteei, kausa justifikagarririk gabe, kalte egiten dieten ekintzak, nolanahikoa direlarik, kontrola daitezke eta kasurik inportanteenetan erabat kontrolatu behar dira kontrako sentimenduak adieraziz eta, beharrezko denean, gizateriak eraginkorki esku hartuz. Gizabanakoaren askatasuna horrelaxe mugatu behar da; ez du besteentzako kaltegarri bihurtu behar. Baina besteei dagokienean kalte egitetik aldentzen bada eta bere joeraren eta burubidearen arabera jokatu besterik egiten ez badu berari dagozkion gauzetan, orduan iritziak libre izan behar lukeela frogatzen duten arrazoi berek frogatzen dute inolako trabarik gabe utzi behar zaiola gizakiari bere iritziak praktikara eramaten bere gain eta galorde. Honako hauek guztiak, alegia, gizakiak ez direla hutsezinak, euren egiak, gehienak, egi erdiak direla, iritzi batasuna, aurkako iritziak zehatz-mehatz eta askatasunik handienaz erkatzetik lortua izan ezik, ez dela gura izatekoa eta dibertsitatea gauza txarra barik ona dela, gizateria egiaren alde guztiak ezagutzeko egun den baino askoz gaiago izan arte, gizakien jokatzeko erei, iritziei baino ez gutxiago, aplikagarri zaizkien printzipioak dira. Gizateria inperfektua den artean iritzi ezberdinak egotea baliagarria den bezala, halaxe da baliagarria bizitzeko era ezberdinak egotea, izaera diferenteei bideak libre uztea, besteei kalterik egin ezean, eta bizitzeko era ezberdinen balioa praktikan frogatzea, norberak hori egitea egoki ikusiz gero. Gura izatekoa da, labur esanda, besteei nagusiki ez dagokien gauzetan banakotasuna baiestea. Norberaren izaera barik beste jende baten tradizioak edo ohiturak direnean jokaera araua, giza zoriontasunaren osagai nagusienetakoa eta, dudarik gabe, aurreramendu indibidual eta sozialaren osagai inportanteena falta da.

Printzipio horri eutsi orduan topatzen den zailtasunik handiena ez datza xede ezagun batera garamatzaten bitartekoen balorazioan, baizik pertsonen oro har xedearekiko duten aihergatasunean. Ulertuko balitz banakotasunaren garapen librea ongizatearen printzipio funtsezkoenetako bat dela, ez dela zibilizazio, irakaspen, hezkuntza, kultura hitzek adierazten duten guztiarekin koordinaturiko elementu bat soilik, baizik gauza horien guztien parte bat eta baldintza bat, orduan ez luke askatasunak balioa galtzeko arriskurik, eta berorren eta gizarte kontrolaren arteko doikuntzak ez luke aparteko zailtasunik. Baina gaitza ohiko pentsaerak gizabanakoaren berezkotasunari balio intrin-

tsekorik nekez ematean datza, eta aintzat hartzerik ere ez duela merezi uste izatean. Gehiengoak, gizateriaren egungo ohiturekin direndirenean konforme (ohiturok egiten baitute, egin ere, egun dena), ezin du ulertu zergatik ez duten ohiturok edonorentzat onak izan behar; eta are, berezkotasuna ez da sartzen erreformatzaile moral edo sozial gehienen idealean, eta errezeloz hartzen dute, oztopo zail eta agian gaindiezintzat joz euren iritziz gizateriarentzat onena litzatekeena jendeak eskuarki onar dezan. Gutzik, Alemaniatik kanpo, aditzen dute Wilhelm von Humboldtek, goi-mailako hala *savanta* nola politikaria bera, tratatu baten gai gisa erabili zuen doktrinaren esanahia, hots: «gizakiaren xedea, arrazoimenaren betiereko aginduek manaturikoa eta ez gurari lanbrotsu eta iragankorrek iradokitakoa, bere ahalmenak maila goren eta harmoniatsuenean garatzea dela osotasun beteen eta sendoeneraino»; ondorioz, «gizaki bakoitzak bere ahalegin guztiekin etengabe bilatu beharreko xedea, batik bat bere herrikideengan eragina izan nahi duten guztiek begirik kendu barik so egin behar diotena, boterearen eta garapenaren banakotasuna dela»; horretarako bi baldintza daudela: «askatasuna eta askotariko egoerak»; eta horiek batzetik «indar indibiduala eta askotariko aniztasuna», «originaltasunean» konbinatzen direnak⁶.

Von Humboldten doktrina hori gutxien zabaldua egon arren eta bertan banakotasunari ematen zaion balioak harridurarik handiena eragin arren ere, auzia, ongi pentsatuz gero, gradukoa baino ez da. Inork ez du uste giza jokaeraren bikaintasuna jendeak bata besteari kopiatu besterik ez egitean datzanik. Inork ez du baiesten jendearen bizitzeko eta aferak eramateko eran ez duela eraginik izan behar euren burubideak edo izaerak. Bestalde, zentzugabekeria litzateke jendea mundu honetan bera etorri arte ezer jakin ez balitz bezala bizi dadin nahi izatea; esperientziak ezer egin ez balu bezala bizitzeko edo jokatzeko era zehatz bat beste bat baino hobea dela erakusteko. Inork ez du ukatzen gazteriak giza esperientziak erdietsitako emaitzak eza-gutu eta beraien onura jasotzeko moduko irakaspena eta hezkuntza hartu behar dituenik. Baina bere ahalmenen heldutasunera iritsitako gizakiaren pribilegioa eta izaera propioa da esperientzia bere erara erabili eta interpretatzea. Berari dagokio erabakitzea jasotako esperientziatik zer zaien egokiro aplikagarri bere zirkunstantziei eta izaerari. Beste jende batzuen tradizioak eta ohiturak, neurri bateraino,

esperientziak haiei irakatsi dienaren frogabide dira; presuntziozko frogabide eta, horregatik, begirunez hartu beharrekoa; baina, lehenik, haien esperientzia urria izan liteke, edo haiek zuzen ez interpretatua. Bigarrenik, haiek egindako esperientziaren interpretazioa zuzena izan daiteke, baina desegokia gizaki horrentzat. Ohiturak ohiko zirkunstantzietarako eta ohiko izaerentzat eginak daude: eta gizaki horren zirkunstantziak eta izaera ezohikoak izan daitezke. Hirugarrenik, ohiturak onak eta, gainera, gizaki horrentzat egokiak izan arren, ohitura-ra, ohitura soil legez, moldatzeak ez du gizaki hori hezten, ez eta berorren baitan garatzen gizakiaren dohain bereizgarriak diren nolakotasunetako bat bera ere. Pertzepzioa, burubidea, bereizmena, jarduera mentala eta are hobespen morala bezalako giza ahalmenak aukera egitean bakarrik erabiltzen dira. Zerbait ohitura delako egiten duenak ez du aukerarik egiten. Ez du inolako praktikarik egiten onena zer den bereizteko edo gura izateko. Ahalmen mental eta moralak, indar muskularra bezalaxe, erabiliz bakarrik hobetzen dira. Ahalmenok besteek egiten dutelako soilik norberak ere zerbait eginez ez dira erabiltzen gehiago, besteek sinesten dutelako soilik norberak ere sinetsiz baino. Baldin iritzi baten arrazoiak ez badira eztabaidaezinak norbere arrazoimenarentzat, norbere arrazoimena indartu barik makaldu egingen da iritzi hori onartuz gero; eta ekintza baten motibokak ados ez badatoz gizaki horren sentimenduekin edo izaerarekin (besteek afektuak edo eskubideak ukitzen ez direnean), asko dago eginda norbere sentipenak, aktibo eta bizi bihurtu beharrean, inerte eta geldo bihurtzeko.

Munduari, edo bere mundu zatiari, bere bizitzako plana bere ordeztu aukeratzen uzten dionak ez du behar tximinoen moduko imitazio ahalmena besterik. Bere plana berak aukeratzen duenak, ordeztu, bere ahalmen guztiak darabiltza. Behaketa erabili behar du ikusteko, arrazoiketa eta burubidea aurreikusteko, ekintzak erabakitze materialak biltzeko, bereizmena erabakitze eta, erabaki duenean, irmotasuna eta autokontrola jakinaren gainean harturiko erabakiari eusteko. Eta zenbat eta handiagoa den bere burubidearen eta sentipenaren araberak erabakitzen duen bere jokaeraren zatia, gehiago behar ditu eta darabiltza gaitasun horiek guztiak. Baliteke, horrelakorik barik ere, bide onetik ibiltzea eta kaltegarria denetik aparte. Baina zein izanen da haren balio konparatiboa gizaki legez? Benetan inportantea ez da

bakarrik gizakiek egiten dutena, egiten dutenak nolako gizakiak diren ere inportantea baita. Gizakiaren lanen artean, hobetzeko eta edertzeko ahaleaginean bere bizitza eskaintzen dien lanen artean, garrantzi aldetik lehena gizakia bera da. Suposatuz gero makinek –giza irudiko automategen– honako hauek guztiak egin ahal dituztela, alegia, etxeak eraiki, garia egin, batailak irabazi, auziak defendatu eta are elizak eraiki eta otoitzak egin, galera handia litzateke automata horiek egun munduko alde zibilizatuenetan bizi diren eta naturak ziur ekoiztu ahal duen eta ekoiztuko duenaren tipo gabetuak diren gizon eta emakumeak ordezkatzeko. Gizatasuna ez da eredu baten arabera fabrikaturiko makina bat, agintzen zaion lana agindu bezalaxe doi-doi egiteko prest dagoena, baizik zuhaitz bat, gauza bizidun egiten duten barne-indarren joeraren arabera berez hazi eta garatu beharra duena alde guztietatik.

Onartuko da segurutik guragarria dela jendeak bere adimena erabiltzea, eta hobe dela ohiturari zuhurtziaz jarraitzea edo batzuetan zuhurtziaz ohituratik aldentzea, hari itsuan eta mekanikoki atxikitzea baino. Neurri bateraino onartzen da gure adimenak geurea izan behar duela, baina nekezago onartzen da gure desirak eta bulkadetak ere geureak izan behar dutela era berean; nor bere bulkadak, indartsu samarrrak, edukitzea arriskua eta tranpa dela uste da. Hala ere desirak eta bulkadak gizaki perfektuaren zati dira, usteak eta barneko galgak bezalaxe: eta bulkada indartsuak behar bezala orekaturik ez daudenean bakarrik dira arriskugarriak, hau da, hainbat xede eta joera indartsu garatzen direnean, bitartean beraiekin batera egon behar duten beste batzuk, ordeak, ahul eta ezer egin gabe daudelarik. Gizakiek gaizki jokatzen badute, ez da euren bulkadak indartsuak direlako, euren kontzientziak ahulak direlako baizik. Ez dago lotura naturalik bulkada indartsuen eta kontzientzia ahularen artean. Lotura naturala beste zentzuan gertatzen da. Lagun baten desira eta sentipenak beste batekin baino indartsuagoak eta anitzagoak direla esatea zera esatea baino ez da, alegia, hark giza izaeraren lehengaitik gehiago daukala, eta, ondorioz, gai dela agian gaitz gehiagorako, baina ziur ongi gehiagorako. Bulkada indartsuak energiaren beste izen bat baino ez dira. Energia gauza txarretarako erabil liteke, baina on gehiago jalgi daiteke beti izaera kementsu batetik izaera odolgabe eta geldo batetik baino. Sentimen naturalagoa dutenei bihur dakizkieke beti indartsuago sentipen landuak. Bulkada pertsonal bizi eta indartsuak izateak

dakarren sentikortasun sendo bera da bertutearekiko maitasun grina-
tsuena eta autokontrolik zorrotzena sortzen dituen iturria. Beraiek lan-
duz egiten ditu gizarteak bi gauza: bere eginbeharra bete eta bere inte-
resak babestu, heroiak egiteko materiala arbuiaitu gabe, berak ez
dakiela-eta heroiak nola egiten diren. Desira eta bulkadak bere-bere-
ak dituen lagunak –hau da, horiek bere kulturak garatu eta aldatu dion
izaeraren adierazpena direnean– aiurria daukala esan ohi da. Bereak
ez dituen desira eta bulkadak dauzkanak ez du aiurrik, lurrin-maki-
na batek aiurrik ez duen bezalaxe. Bereak izatez gain, bulkada indar-
tsuak baldin badira eta nahimen boteretsu baten agindupean badaude,
aiurri kementsua dauka. Desira eta bulkaden banakotasunaren garape-
na ez dela bultzatu behar uste duenak defendatu beharko du gizarteak
jende indartsuen beharrik ez duela –ez dela hobea aiurri handiko
lagun asko edukitzearren– eta batez besteko energia orokor handia ez
dela gurarria.

Gizarte primitibo batzuetan indar horiek gizarteak orduan
eurak kontrolatu eta diziplinapean jartzeko zeukan boterearen gaine-
tik egon zitezkeen eta egon ziren. Izan zen garai bat, zeinetan berez-
kotasun eta banakotasun elementua gehiegi gailendu zen, eta gizarte
printzipioak borroka latza izan zuen berarekin. Zailtasuna orduan gor-
putz edo gogamen indartsuko gizakiak euren bulkadak kontrolatzea
galdatzen zieten arauetara egitera eramatean zetzan. Zailtasun hori
gainditzeko, legeak eta diziplinak, Aita Santuek enperadoreen kontra
borrokatzean bezala, gizaki osoaren gain ezarri zuten beren boterea,
haren bizitza osoa kontrolatzea galdatuz, haren aiurria, gizarteak beste
inolako bitartekoz lotu ezin izan zuena, kontrolatzeko xedez. Baina
orain gizarteak bereganatu du gehienbat banakotasunaren onena; eta
gizatasuna mehatxatzen duen arriskua ez dator bulkada eta hobespen
pertsonal gehiegi edukitzetik, gutxiegi edukitzetik baino. Gauzak asko
aldatu dira gizartean zeukaten mailagatik edo beren dohain pertsona-
lengatik indartsuak zirenen grinak beti lege eta aginduen kontra jaiki-
ta egon ohi ziren garaitik, eta grinok hertsiki lotu beharra zegoenetik,
euren ingurukoak segurtasun izpiren bat edukitzera hel zitezen. Gure
garaiotan, jende oro, gizarte maila gorengotik beherengora, zentsura
etsai eta beldurgarri baten begipean balego bezala bizi da. Ez bakarrik
besteei dagozkien gauzetan, baizik norberari dagozkionetan ere giza-
banakoak edo familiak ez dio bere buruari galdetzen: zer dut nik

nahiago?, edo zer da nire izaera edo joerari ongien letorkiokeena?, edo zerk utziko lioke eremurik zabalena niregan onena eta gorena denari eta, horretara, hazteko eta garatzeko aukera eskainiko? Hori barik beste hau galdetzen diote bere buruari: zer datorkio ongien nik daukadan mailari, zer egiten dute nire mailan eta zirkunstantzia ekonomikoetan daudenak? edo (txarrago dena), zer egin ohi dute nireak baino goragoko maila eta zirkunstantzietan daudenek? Ez dut esan nahi ohikoa aukeratzen dutela, beren joerei dagokienaren gainetik. Ez dute, ukan, inolako joerarik, ohikoa denerako izan ezik. Horrela gogamena bera ere uztarpera makurtzen da: jendeak plazeragatik egiten dituenetan eurretan ere, adostasunean pentsatzen dute beste ezertan baino lehenago; jendetzen gustuak dituzte, ez dute inolako aukerarik egiten jendeak egin ohi dituen gauzetatik kanpo: gustu bakanak edo jokaera bitxiak krimenak bailiran baztertzen dira; beren izateari jarraitu barik jokatzearen jokatzek, jarraitu ahal izateko izaterik gabe gelditzen dira; giza gaitasunak lehorte eta ahitu egiten zaizkie; eta desira indartsu edo plazer naturalik edukitzeko ezgai bihurtzen dira eta, eskuarki, ez dute beren baitatik sorturiko edo beren-berena dela esateko moduko iritzi edo sentipenik. Orain, hori al da gizatasun modu desiragarria?

Teoria kalbinistan bada desiragarria. Teoria horren arabera, gizakiaren hutsegite handiena norbere nahimena edukitzea da. Gizateriak egin lezakeen on guztia obedientzian sartzen da. Ez duzu aukerarik; honelaxe jokatu behar duzu, ez beste ezelan: «betebeharra ez den guztia bekatu da». Gizatasuna errotik ustelduta dagoelarik, ez da erredentziorik inorentzat, harik eta gizatasuna norbere baitan hil arte. Bizitzan teoria honen alde dagoen edonorentzat, giza ahalmen, gaitasun edo sentikortasun guztiak erabat zapaltzea ez da inolako gaiztakeria; gizakiak ez du Jainkoaren nahiari men egitekoa beste gaitasunik behar; eta bere ahalmenen bat nahi hori eraginkorkiago betetzea ez den beste zerbaitegarako erabiltzen badu, hobeto legoke ahalmenok gabe. Horixe da kalbinismoaren teoria; eta beronen alde daude, modu arinagoan, euren buruak kalbinistatzat ez dituzten beste asko ere; arintze hau Jainkoaren nahi horri hain aszetikoa ez den interpretazioa ematean datza, baieztatuz haren nahia gizateriak bere joeretako batzuk asetzea dela, ez, jakina, gizakiek nahi duten eran, obedientzia eran baizik, hau da, aginpidez manatzen zaien eran, aginpide horrek, horregatik, kasuaren izaeragatik beragatik, denentzat berbera izan behar duelarik.

Era maltzur horretan joera indartsu bat dago egun bizitzako teoria estu horren alde eta beronek babesten duen gizatasun zurrin eta hertsia horretarantz. Jende askok zintzo uste du, dudarik ez, horrela estutu eta nano bihurturiko gizakiek euren Egileak izatea nahi izan zuen modukoak direla; hain zuzen ere askok pentsatzen duten bezalaxe zuhaitzak kimatuta edo abereen irudiak aterata daudenean naturak egin zituen moduan baino politagoak direla. Baina erlijioaren zati bat gizakia Izaki on batek egin dela sinestea baldin bada, federekin koherenteagoa da sinestea Izaki honek giza ahalmen guztiak landu eta garatu ahal izateko, eta ez erauzi eta xahutzeko, eman dizkiola gizakiari, eta atseginez ikusten dituela bere kreaturek ahalmenon barruan dagoen ikusmolde idealera egindako hurbiltze oro, ulertzeko, jarduteko edo gozatzeko gaitasunetako edozeinetan egindako areagotze oro. Bada giza bikaintasun mota bat, kalbinistenetik ezberdina; gizateriaren ikuskera bat, non gizakiari bere izaera horri uko egiteko barik beste xede batzuetarako ematen zaion. «Norbere burua baieztatze paganoa» giza balioetako bat da, «norbere buruari uko egite kristaua» den bezalaxe⁷. Greziarrek badute norbere garapenaren (*self-development*) eredu bat, zeinarekin norbere burua gobernatzearen (*self-government*) eredu platonikoa eta kristaua konbinatzen den, baina ordeztu gabe. Hobe da John Knox bat izatea, Alzibiades bat baino, baina hobe da Perikles bat izatea, biotako edozein baino; eta Perikles bat, halakorik egun bagenu, ez legoke John Knoxek ukaniko ezein gaitasunen faltan.

Gizakia, nork bere-berea duena, uniformetasunez jantzi barik, landuz eta nabarmenduz –besteen eskubideek eta interesek ezarritako mugen barruan, jakina– bihurtzen da ikusgai zindo eta eder; eta lanei egiten dituztenen izaeraren zerbait gelditzen zaenez beti ere, prozesu beraren bidez giza biziak ere, aberats, askotariko eta bizi-emaile bihurtuz, goi pentsamendu eta sentipen jasoei elikagai gehiago ematen die, eta gizabanako bakoitza bere arrazarekin lotzen duten loka-rriak estutzen ditu, arraza horretakoa izatea mila bider gehiago merezi duen balio bilakatuz. Bere banakotasuna garatzen duen heinean, pertsona bakoitza balio handiagoko bihurtzen da norberetzat, eta, ondorioz, besteentzat ere baliotsuagoa izateko gai egiten da. Bere bizitzan bizi-betetasun handiagoa lortzen du, eta unitateetan bizi gehiago dagoenean, horiek osatzen duten masan ere gehiago dago. Ezin daite-

ke albo batera utzi giza espeziearen ale indartsuenak besteen eskubi-deak urratzea eragozteko behar den ulerkuntza; baina horretarako konpentsazio handi bat dago giza garapenaren ikuspegitik bertatik ere. Gizabanakoak besteei kalte egiteko dituen joerak asetzea eragozten zaionean galtzen dituen garatzeko bitartekoak besteen garapenaren alde eskuratzen dira nagusiki. Eta hark berak ere konpentsazio balio-kidea aurkitzen du bere izaeraren alde egoistaren mugaketak ekarritako bere alde sozialaren garapen hobean. Besteengatik justiziaren arau zorrotzen pean jokatzek besteen ona xede duten sentipenak eta gaitasunak garatzen ditu. Baina besteen ona ukitzen ez duten gauzetan jarduera eragozteak, eragozlearen gogoko ez izatearren soilik, ez dakar ezer baliozkorik, eragozpenei aurre egitean berez gara daitekeen barne indarra izan ezik. Amore emanaz gero, horrek izate osoa histen eta kamusten digu. Nori bere izaeraren araberrako jokoa libre uzteko, beharrezko da lagun diferenteei bizimodu ezberdinak edukitzen uztea. Garai ezberdinetan zabaltasun hori praktikan jarri den hein berean egin du garai horren balioak gora ondorengoan iritzian. Despotismoak berak ere ez ditu eragiten beren ondorio latzenak bere baitan banakotasuna dagoen bitartean; eta banakotasuna zapaltzen duen guztia despotismoa da, bera izendatzeko erabiltzen den izena gorabehera, hala Jainkoaren nahia nola gizakien aginduak betearazi nahi baditu ere.

Esan dugularik banakotasuna eta garapena gauza bera direla eta banakotasuna lantzek soilik egiten dituela, edo egin ditzakeela, gizaki ongi garatuak, hortxe itxi dezaket argudioa, zeren, zer gehiago eta hobeto esan daiteke giza aferen edozein kondiziori buruz, gizakiak eurak izan litezkeen onenera hurbiltzen dituela baino?, edo zer txarragorik ongia egiteari jarritako edozein oztopori buruz, horixe eragozten duela baino? Zalantzarik gabe, hala ere, gogorakizunok ez dira izanen konbentzitzeko premiarik handiena dutenak konbentzitzeko behar adinakoak; eta, gainera, agerian jarri beharra dago gizaki garatu horiek badutela baliorik garatu gabekoentzat: askatasunaren beharrik ez dutenei eta askatasunaz baliatuko ez direnei ikusaraztea sarituak izan daitezkeela, era ulergarrian gainera, besteei oztoporik gabe askatasunaz baliatzen uzteagatik.

Lehenik, bada, iradokiko nuke agian zerbait ikas lezaketela haiengandik. Inork ez du ukatuko originaltasuna baliozko elementua

dela giza aferetan. Beti behar da jendea egia berriak aurkitu eta behinola egia izandakoak jada egiazkoak ez direla adierazteko ez ezik, praktika berriak abian jartzeko eta jokabide argitsuagoaren, gustu hobearen eta zentzunaren eredu izateko ere giza bizitzan. Hori ezin du ukatu mundua bere modu eta jardunbideetan hobezintasunera iritsia dela sinesten ez duen inork. Egia da denak ez direla maila berean gai onura hori ekartzeko; izan ere, besteek horrelako esperimentuak egiten jarritz gero, gutxi lirateke gai, gizateria guztiaren ikusian, ezarritako praktikan hobekuntza ekartzeko moduko esperimentuak egiteko. Baina gutxi horiek lurreko gatza ditugu; eurok barik giza bizitza ur geldizko putzu bilakatuko litzateke. Lehen ez genituen gauza onak ekarri ez eze, ditugunak biziz hornitu ere egiten dituzte. Ezer berririk ez balego egiteko, ez ote genuke jada beharrezko adimena? Gauzak zaharrak izatea arrazoi bat ote da gauzok egiten dituztenek zergatik egiten dituzten ahantz dezaten eta gizakiek bezala barik abereek bezala egin ditzaten? Uste eta praktika onenen baitan joera handiegia dago gainbehera etorri eta zerbait mekaniko bihurtzeko; eta norbaitzuek bata bestearen ondoren hantxe egon ezean beren originaltasun agortezinaz uste eta praktika horiek tradizional huts bihurtzea ekiditeko, materia hil horrek ez lioke eutsiko benetan bizirik dagoen ezerekiko talkarik txikienari eta ez legoke arrazoirik zibilizazioaren heriotza ez gertatzeko, Bizantziar Inperioan gertatu zen bezalaxe. Talentu handiko jendea, egia da, gutxiengo txiki bat da eta beti izanen da segurutik; baina horrelako jendea edukitzeko, horrelakoak hazten diren lurra zaindu beharra dago. Jeinuak askatasun atmosferan bakarrik har leza ke arnasa aske. Talentu handiko jendea, *ex vi termini*, besteak baino indibidualagoa da eta, beraz, ez da hain gai gizarteak bere kideei, beren izaera eratzeko lana aurrez dezaten, ematen dizkien molde urrietako batera, konpresio kaltegarririk gabe, moldatzeko. Herabetasunagatik edo, molde horietako batean sartzeko presioari eusten ez badiote eta presiopean hedatu ezin den euren izatearen parte hedatu gabe uzten badute, gizarteak ez du hobekuntza handirik jasoko haien talentutik. Aiurritz sendoak izan eta girgiluak hausten badituzte, ordea, gizartearen jopuntu bilakatzen dira, zeinak, ohiko eskemen barruan sartu ezin izan dituenenez, «basati», «alditsu nabarmen» eta horrelakotzat seinalatzen ditu handikiro; eta hori Niagara ibaia, holandar kanal baten antzo, bere ertz bien artean mantso-mantso ez doalako kexatzea bezalakoa da.

Jeinuaren garrantzia eta berari, hala pentsamenduan nola praktikan, aske hedatzen uzteko beharrezana horrenbeste azpimarratzen badi-tut, hori da ongi dakidalako ezen, teorian planteamendu hori inork ukatuko ez badu ere, izatez ia guztiak direla erabat ezaxola berorrekiko. Jendeak jeinua gauza handia dela uste du, baldin gizaki bat poema zirraragarri bat idazteko edo koadro bat pintatzeko gai egiten badu. Baina bere egiazko zentzuan, inork ez dioen arren pentsamendu eta ekintzako originaltasun hori ez dela miresteko kontua, ia denek, beren bihotz barrenean, pentsatzen dute majo ibil daitezkeela jeinurik gabe ere. Zoritzarrez inor harritzeko baino ohikoagoa da hori. Originaltasuna da originaltasunik gabeko adimenek baliagarritasunik aurkitu ezin dioten gauza bakarra. Ezin dute ikusi zer egin lezakeen euren alde: nola ikusiko dute, bada? Euren alde zer egin lezakeen ikusi ahal balute, ez litza-teke originaltasuna. Originaltasunak egin beharko liekeen lehenengo zerbitzua begiak zabaltzea da; eta hori erabat egin ondoren, eurek ere originalak izateko aukera bat leukakete. Bitartean, gogoratzuz inoiz ez dela ezer egin berori egiten norbait aurrena izan gabe eta diren gauza on guztiak originaltasunaren fruitu direla, izan daitezela originaltasunak burutu beharreko zer bait oraindino gelditzen dela sinesteko bezain apa-lak eta ziur egon daitezela zenbat eta gutxiago ohartzen diren original-tasunaren beharra dutela, orduan eta gehiago behar dutela.

Egia soil da ezen, benetako edo ustezko nagusitasun mentala-ri aitortu edo egindako gorazarrea nolanahikoa delarik ere, munduan zehar kaskarkeria gizakien arteko botere goren bihurtzea dela gauzen joera orokorra. Antzinatean, Erdi Aroan, eta maila txikiagoan feuda-lismotik honako aldian, gizabanakoa boterea zen berez; eta talentu handiak edo gizarte maila garaia edukiz gero, kontuan hartzeko bote-rea zen. Gaur egun gizabanakoak jendetzaren baitan galdurik daude. Politikan ia arrunkeria da esatea orain iritzi publikoak agintzen duela munduan. Izena merezi duen botere bakarra masena da, eta gobernuarena ere bai masen joera eta intuituen organo bihurtzen diren hei-nean. Hori hala bizitza pribatuko gizarte harremanetan nola transak-zio publikoetan da egia. Iritzi publikoa osatzen duten iritzien aldeko-ak ez dira beti mota bereko publikoa: Amerikan, populazio zuri guz-tia dira; Ingalaterran, nagusiki klase ertaina. Baina masa dira beti, hau da, kaskarkeria kolektiboa. Eta are nobedade handiagoa: masak orain ez ditu hartzen bere iritziak Eliza edo Estatuko goi mailako aginta-

riengandik, ageriko buruzagiengandik edo liburuetatik. Pentsamendua euren antz-antzekoak diren gizakiek egiten diete, egunkarien bidez mintzatzen zaizkielarik edo euren izenean hitz egiten dutelarik momentuan puri-purian dauden arazo eta gertaerei buruz. Ez naiz horren guztiaren kexu. Nik ez diot badela, arau orokor gisa, giza adimenaren gaur egungo egoera kaskarrarekin bateragarri den zerbait hobe. Baina horrek ez du eragozten kaskarkeriaren gobernu gobernu kaskarra izatea. Demokraziak edo askoren aristokraziak eraturiko ezain gobernu jakin izan du kaskarkeriaren gainetik jarduten, ez bere ekintza politikoetan ez iritzietan ez gaitasunetan, ezta barruko gogotonuan ere, «Asko» subiranoak dohain eta irakaspen hobez hornituri-ko Baten edo Gutxiaren aholku eta eraginak gidatuta jokatu duenean (eta bere garai onenetan horrelaxe egin du) izan ezik. Gauza egoki eta noble ororen hasiera, gizabanakoengandik dator eta etorri behar du; lehenengotan gizabanako bakar batengandik eskuarki. Gizaki arruntaren ohorea eta loria inizatiba honi jarraitzeko gai izatean datza; gauza egoki eta noblei erantzun ahal izatean, eta gauza horietara gidatzen dutenean begiak zabalik joan ahal izatean. Ez naiz ari «heroi-gurtza» ontzat jotzen, munduaren gobernuaz indarrez jabetu eta haren borondatearen kontra mundua bere aginduetara makurrarazten duen talentudun gizon indartsua txalotzen duena. Horrelakoak galda lezakeen bakarra bidea seinalatzeko askatasuna da. Besteak berari jarraitzera behartzeko botereak, haien askatasun eta garapenarekin bateraezin izateaz gain, usteldu egiten du gizon indartsua bera. Hala ere, badi-ru-di ezen, gizaki arruntek osaturiko masaren iritzia nonahi botere gailen bihurtu den edo bihurtzen ari den honetan, joera horri jarri beharreko kontrapisu eta zuzengarria pentsamenduaren goi-goienean daudenen banakotasun gero eta areagotuagoa litzatekeela. Zirkunstantzia horie-xetan batik bat aurkitu behar lukete ezohiko gizakiek, kikilduta gera-tu beharrean, masek ez bezala jokatzeko adorea. Beste garai batzuetan hori egiteak ez zekarren inolako abantailarik, diferente ez eze, hobeto ere jokatu ezean. Gaur egun, ordea, desadostasunaren eredu izate hutsa, ohituraren aurrean belaunikatzeari uko egite hutsa, zerbitzua da besterik gabe. Iriztiaren tirania bitxitasuna gaitzespen bihurtzeraino-koa delako hain zuzen, guragarria da, tirania hori hausteko, jendea bitxia izatea. Bitxitasuna ugari izan da beti aiurri indartsuko jendea ugari izan den aldian eta tokian; eta bitxitasun kantitatea gizarte bate-an proportzionala izan da eskuarki bertan zegoen talentu, indar men-

tal eta adore moralarekiko. Bitxiak izaten ausartzen direnak hain gutxi izateak gure garaiko arrisku nagusia erakusten du.

Esan dut inportantea dela ezohiko gauzei ahalik eta eremu libreena uztea, denboragarrenean ager dadin zeintzuk diren egokiak ohitura bihurtzeko. Baina ekintzako independentzia eta ohiturari jaramonik ez egitea ez dira bultzatu behar ekintza metodo hobeak eta onarpen orokorragoa merezi duten ohiturak sor daitezen bakarrik; eta nagusitasun mental nabaria dutenak ez dira beren bizitza nork bere erara eramatea xedetzat har dezaketen bakarrik. Ez dago arrazoirik giza existentzia oro eredu bakar baten edo gutxiren gainean eraikitzeko. Norbaitek zentzuna eta esperientzia arrazoizko neurrian badauzka, bere existentzia atontzeko daukan bere-bere era du onena, ez berez onena delako, baizik bere-berea duelako. Gizakiak ez dira ardiak bezalakoxeak; eta ardiak eurak ere ez dira bereiztezinki berdinak. Batek ezin du eskuratu ongi doakion jaka bat edo bota pare bat, neurrira egiten ez badizkiote edo denda handi batean aukeratzeko modurik ez badu; eta errazago al da berari doakion jaka bat erdiestea, ondo doakion bizitza bat baino, edo gizakiak elkarren antzekoagoak al dira beren osaera fisiko eta espiritual osoan, beren oinen forman baino? Gizakiak gustu ezberdintasunak bakarrik balituzte ere, hori nahikoa litzateke guztia eredu bakarraren arabera taxutzen ez ahalegintzeko. Baina lagun ezberdinek baldintza ezberdinak ere behar dituzte garapen espiritualerako; eta baldintza moral beretan ezin dira bizi osasuntsuago, landare barietate guztiak atmosfera eta klima fisiko beretan baino. Pertsona batentzat bere goi-izaera lantzeko laguntzak diren gauza berak oztopoak dira beste batentzat. Biziera bera batentzat eragingarri osasuntsua da, ekintzarako eta gozamenerako ahalmen guztiak sasoirik onenean jartzen dizkiona; beste batentzat, ordea, karga ikaragarri bat, barne bizitza oro eten edo zapaltzen diona. Hain dira handiak gizakien arteko aldeak atsegin-iturrietan, atsekabetzeko eretan eta eragile fisiko eta moral ezberdinek eurengan duten eraginean, non, bizieran ere horren neurriko ezberdintasuna eduki ezean, ez duten ez zoriontasunean dagokien partea osorik erdiesterik, ez beren izaera gai den bezainbesteko maila mental, moral eta estetikora heltzerik. Zergatik, orduan, hedatu behar du tolerantziak, sentimendu publikoari dagokionez, euren aldeko jendetza-ren onarpena lortzen duten gustu eta bizieretara bakarrik? Inon ere

(zenbait fraide-erakundetan izan ezik) ez da erabat ukatzen gustu ezberdintasuna; pertsona bati gusta lekiok e do ez, gaitzesgarri izan gabe, arraunean egitea, erretzea, musika, ariketa atletikoak, xakea, karta jokoa, edo ikastea, gauza horien guztien aldeko eta kontrakoak isilpean edukitzeko baino gehiago direlako. Baina «inork egiten ez duena» egiteaz edo «mundu guztiak egiten duena» ez egiteaz akusa daitekeen gizonak eta areago emakumeak delitu moral astunen bat egindako gizon edo emakumearen pareko mespretxuzko ohartarazpenak merezi dituzte. Titulu bat, edo lerrun txartelen bat, edo lerruneko jendearen aintzatespena behar du lagunak, bere gogara jarduteko luxua nolabait onar dakion, berekiko estimuaren kalterik gabe. Nolabait onar dakion, berriz diot, onarpen horretaz gehiegi fidatzen denak erdeinuzko erran-merranak jasotzekoa baino arrisku handiagoa baitu; batzorde baten aurrean ero gisa agertzeko eta batzorde horrek bere jabetzako ondasunak kendu eta bere ahaideei emateko arriskuan legoke⁸.

Iritzi publikoaren gaur egungo norabideak ezaugarri bat dauka, beren-beregi kalkulatu banakotasunaren agerraldi oro jasanezin bihurtzeko. Gizateria, batez beste, adimen kontuan ez eze, joeretan ere moderatua da; gizakiek oro har ez dute ezohikoa den zerbait egitera bultzatzeko moduko gustu edo desirarik, eta, beraz, ez dituzte ulertzen horrelakoak dituztenak, eta goitik behera begiratzen ohi dituzten basati eta neurritasunik gabekoen artean sailkatzen dituzte. Orain, orokorra den gertakari horrez gain, hobekuntza moralerantz doan mugimendua indartsu bat agertu dela suposatzea besterik ez dugu behar, eta begibistakoa da zer itxaron behar dugun. Gaur egun agertu da mugimendu hori; asko egin da egun jokaera-erregulartasuna areagotzeko eta larregikeriak mugatzeko bidean; eta atzerrian izpiritu filantropiko bat dago, berori erabiltzeko ez dagoelarik eremu hoberik, gure hurkoak moral eta zuhurtzia kontuan hobetzea baino. Garaiotako joera horiek eragiten dute jendea aurreko aldietan baino pretago egotea jokaera-arau orokorrak ezartzeko eta mundu guztia onetsitako eredura egoki dadin lortzeko. Eta eredu, ageriko edo tazitu, hori ezer ere gogo biziz ez gura izatean datza. Berorren izaera ideala izaera nabarmenik ez edukitzea da; nabarmen ageri den eta pertsona bere itxuran gizateria arruntarengandik nabariki ezberdina izatera daraman giza izaeraren atal oro estutuz moztea, emakume txinatar baten oinak bezala.

Guargarri denaren erdia kanpo uzten duten idealekin gertatu ohi den bezala, oraingo onespen ereduak beste erdiaren imitazio kaskarragoa baino ez du eragiten. Arrazoi sendoez gidaturiko energia handiak eta nahimen arretatsuak irmoki kontrolaturiko sentipen indartsuak izan beharrean, aipaturiko ereduaren emaitza sentipen ahulak eta energia ahulak dira, araupean, beraz, jar daitezkeenak, azaletik bederen, nahimenaren edo arrazoimenaren esfortzurik gabe. Aiurri kementsuak, neurri handian, tradizionalak izatera baino ez dira heltzen. Herrialde honetan orain energiak ez du negozioak beste irtenbiderik. Horretan erabilitako energia nahikoa handitzat jo daiteke oraindik. Lan horrek libre uzten duen zirrikitua zaletasunen [hobby] baterako uzten da; eta zaletasun hori baliagarria eta are filantropikoa izan daiteke, baina gauza bakarren bat izaten da beti, eta normalean dimentsio handirik gabeko gauza bat. Ingalaterraren handitasuna kolektiboa da guztiz; banaka txikiak izanik, elkarrekin konbinatzeko azturarengatik soilik agertzen gara gauza handietarako gai; eta horrekin erabat pozik daude gure filantropo moral eta erlijiosoak. Baina beste molde bateko gizakiak izan ziren Ingalaterra izan dena izatera eraman zutenak; eta beste molde bateko gizakiak beharko dira gure herriaren gain-behera eragozteko.

Ohituraren despotismoa da nonahi giza aurreramenduen oztopo iraunkorra, ohikoa baino hobea datekeen zerbait lortzeko joerarekin etenik gabeko antagonismoan dagoelarik, zirkunstantzien arabera askatasun, aurrerapen edo hobekuntza espiritua esaten zaion joera bera. Hobekuntza espiritua ez da beti askatasun espiritua, gura ez duen herriari ere hobekuntzak ezartzera jo dezake eta; eta askatasun espiritua, horrelako joeren kontra dagoen heinean, hobekuntzaren kontra daudenekin elkar daiteke leku jakin batean eta aldi batez; baina hobekuntza iturri hutsezin eta iraunkor bakarra askatasuna da, zeren, berari esker, zenbat gizabanako hainbat hobekuntza gune independente baitaude. Aurreramendu printzipioa, ordea, bere eretako edozeinetan, askatasunaren nahiz hobekuntzaren maitasun gisa, ohituraren eragimenaren kontrakoa da, eta uztarri horretatik libratzea hartzen du bere baitan; eta bion arteko norgehiagoka gizateriaren historiako gauzarik interesgarriena dugu. Munduaren zatirik handienak ez du, zehazki hitz eginda, historiari, ohituraren despotismoa bete-betea delako bertan nonahi. Horixe gertatzen da Hegoalde osoan.

Ohitura da han, edozertan, azken apelazioa; justiziak eta eskubideak ohiturarekiko adostasuna esan nahi dute; inori ere, botereaz intoxikatutiko tiranoren bat kenduta, ez zaio bururatzen ohiturari aurka egitea. Eta ikusten dugu emaitza. Nazio horiek behiala originaltasuna ukan bide zuten; ez ziren lurretik jaio jendetsu, ikasi eta bizitzako arte askotan trebe; euren ahaleginez heldu ziren hori guztia izatera, eta, orduan, munduko nazio handien eta boteretsuenak izan ziren. Zer dira orain, ordea? Jauregi zoragarriak eta tenplu ederrak zituztenean basoetan zehar hara-hona zebiltzan, baina ohiturak, alde batetik, eta askatasunak eta aurrerapenak, bestetik, erdi eta erdi agintzen zieten arbasoak dituzten tribuen menpekoak edo agindupekoak. Herri bat, dirudienez, aurrerakoia izan daiteke aldi batez, eta gero aurrera egin ezinik gelditu; noiz gelditzen da? Banakotasuna edukitzeari uzten diotenean. Horrelako aldaketa bat Europako nazioetan gertatuko balitz, ez litzateke modu berean gertatuko; izan ere, gure nazioak mehatxatzen dituen ohituraren despotismoa ez datza preseski lehengoan geratzean. Singularitasuna galarazten du, baina ez du aldaketa eragozten, denak batera aldatuz gero. Bazter utzi ditugu gure arbasoen ohitura tinkoak; orain ere mundu guztiak joan behar du besteen antzera jantzita, baina moda urtean behin edo birritan alda daiteke. Horrela, aldaketa egiten denean, aldaketagatik beragatik egin dadin arduratzen gara, eta ez ezein edertasun edo egokitasun ideiatatik, zeren edertasun edo egokitasun ideia bera ez luke mundu guztiak une berean onartuko eta denek batera albo batera utziko beste une batean. Baina aurrera goazenak eta aldakorrak gara aldi berean; aurkikunde berriak egiten ditugu etengabe gauza mekanikoetan eta hantxe edukitzen ditugu harik eta hoberen batek gainditu arte; hobekuntza bila irrikitzen ibiltzen gara politikan, hezkuntzan eta moralean bertan ere, nahiz eta azken horretan perfekzioaz dugun ideia besteak gu geu bezain onak izan daitezen konbentzitzean edo hartara behartzean datzan. Aurre-ramenduari ez diogu eragozpenik jartzen; aitzitik, goraipatu egiten dugu geure burua inoiz izan den jenderik aurrerakoienean garena eta. Banakotasuna da guk borrokatzen duguna; gauza itzela egin dugula pentsatuko genuke denok berdinak izatea lortuz gero; zeharo ahantziz pertsona bat beste batengandik ezberdina izatea dela eskuarki bieideigarri gertatzen zaien lehenengo gauza norbere tipoaren inperfekzioarekiko eta bestearen nagusitasunarekiko edo, bien abantailak konbinatuz, bata eta bestea baino hobea den zerbait erdiesteko posi-

bilitatearekiko. Adibide adierazgarri bat Txinan daukagu, talentu handiko nazioa bera, eta gai batzuetan jakituna ere bai, antzina, oso noizean behingo zorte onak lagunduta, hainbat ohitura bereziki on hartu izanari esker, lan hori europar argienek ere, muga batzuen barruan, jakintsu eta filosofo titulua emanez agurtu beharreko gizonak egindakoa izan delarik neurri batean. Azpimarragarriak dira, halaber, komunitateko gogamen bakoitzean beren doktrinarik onenak sartu ahalean tinko sartzeko eta eurok ondoen berenganatzen dituztenei ohore eta botere postuak hartuko dituztela segurtatzeko duten era bikainagatik. Hori egin zuen herriak, ziur, giza aurreramenduaren sekretua deskubritu du eta munduko mugimenduaren buruan tinko jarrita egon behar izan du. Gero, aitzitik, geldikor bihurtu dira, ez atzera ez aurrera milaka urtez; eta aurrerantzean hobekuntzarik izanen badute, atzerritarren bidez izanen da. Esperantza oro gainditu dute filantropo ingelesak hain ahalegintsu lantzen ari diren gaian: jende berdin-berdinez osaturiko herria egitea, guztiek beren pentsamenduak eta jokaera maxima eta arau berberez gobernatzea; eta horiexek ditugu fruituak. Iritzi publikoaren erregimen modernoa, antolatu gabeko eran, txinatar hezkuntza eta politika sistemak era antolatuan diren gauza berbera da; eta banakotasuna uztarri horren kontra garaile ateratzeko gauza ez baldin bada, Europak, bere aurrekari nobleak eta aitorturiko kristautasuna gorabehera, beste Txina bat bihurtzera joko du.

Zerk salbatu du orain arte Europa horra iristetik? Zerk egin du nazioen familia europarra gizateriaren zati aurrerakoia, eta ez geldikorra? Ez behintzat euretan aurki daitekeen inolako goibikaintasunak, existitzen denean efektu gisa eta ez kausa gisa existitzen dena bera, baizik euren arteko izaera eta kultura ezberdintasun nabarmenak. Gizabanakoak, klaseak, nazioak elkarrengandik zeharo ezberdinak izan dira; askotariko bideei ekin diete eta bide bakoitzak baliozko zerbaitea eraman ditu; eta aldi bakoitzean bide ezberdinetan ibili direnak elkarrekin intoleranteak izan diren arren eta euretako bakoitzak pentsatu izan duen arren gauza itzela zatekeela beste guztiak bere errepidetik ibiltzera behartu ahal izatea, beraien ahaleginak elkarren garapena eragozteko oso gutxitan izan dute arrakasta iraunkorrik, eta guztiek iraun dute besteez eskainta-ko ona hartzeko adina. Europak, ene ikusiz, bide aniztasun horrixe

zor dio erabat bere garapen aurrerakoi eta alde anitzekoa. Baina hasi da jada onura hau askoz maila baxuagoan edukitzen. Erabakitsu doa aurrera jende guztia berdin izatea lortzeko txinatar eredurantz. Tocqueville jaunak, bere azken lan garrantzitsuan, azpimarratuta agertzen digu zenbat diren elkarren antzekoagoak egungo frantsesak, azken belaunaldikoak eurak ziren baino. Ohar bera, baina goragoko mailan, egin daiteke ingelesei buruz. Wilhelm von Humboldt看, pasarte jada aipatu batean, bi gauza seinalatzen ditu giza garapenaren beharrezko baldintza gisa, jendea elkarrengandik ezberdin bihurtzeko beharrezkoak direlako, erran nahi baita, askatasuna eta askotariko egoerak. Baldintza biotako bigarrena egunean baino egunean urriago da gure herrian. Klase eta gizabanakoak ingurumarian dituzten eta izaerak taxutzen dizkieten zirkunstantziak elkarren antzekoagoak dira egunetik egunera. Antzina, lerrun diferenteak, auzune diferenteak, industria eta lanbide diferenteak mundu diferenteak esan dakiekeenetan bizi ziren; egun, ordea, maila handi batean, mundu berean. Konparatuz hitz eginda, orain gauza berak irakurri, entzun eta ikusten dituzte, leku beretara doaz, beren esperantza eta beldurrek objektu berak dituzte, eskubide eta askatasun berak dituzte eta eurok defendatzeko modu berak. Gelditzen diren maila diferentziak handiak direlarik, ez dira ezer desagertu direnekin erkatuta. Eta asimilazioa aurrera doa oraindik ere. Garai honetako aldaketa guztiek bultzatzen dute, denak baitoaz behekoa jasotzera eta goikoa jaistera. Hezkuntza zabaltze orok ere bultzatzen du, hezkuntzak jendea eragin komunaren pean jartzen duelako eta gertakari eta sentimenduen emari orokorrerako sarbidea eskaintzen diolako. Komunikatzeko bitartekoen hobekuntzek ere bultzatzen dute, elkarrengandik urrun bizi den jendea harreman pertsonalean jarritz eta bizileku aldaketen korrante azkar bat ezarritz toki baten eta bestearen artean. Merkataritza eta manufaktura gehitzeak ere bultzatzen du, aldeko zirkunstantziak zabalago hedatuz eta anbizio-gaiak, gorenak ere, lehiaketa orokorrera irekiz, eta, hartara, gorago igotzeko desira klase partikular baten izaerari barik klase guztienari dagokion kontu bihurtuz. Gizateria guztian antzekotasun orokorra sortzeko aipaturikoek baino eragimen indartsuagoa daukana zera da, alegia, hemen eta beste herrialde libreetan, iritzi publikoaren nagusigoa ezartzea Estatuan. Gorentasun sozial ezberdinak, euren atzean gordetako lagunei jendetza mespretxatze-

ko aukera ematen zienak, poliki-poliki berdinduz joan diren heinean, publikoaren nahiari, nahi hori badaukala positiboki jakinez gero, ezetz esateko ideia bera ere politikari praktikoen buruetatik gero eta desagertuago doan heinean, desadostasunerako euskarri soziala ere ezabatu egiten da; ez da gelditzen gizartean inolako botere inportanterik, bera kopuruen aurkakoa izanik, publikoarenak ez bezalakoak diren iritzi eta joerak bere babespean hartzeko interesik duenik.

Kausa horien guztien konbinazioak banakotasunaren kontrako hain eragin multzo handia eratzen du, non ez den erraz ikusten nola iraun lezakeen hark zutik bere lekuan. Gero eta zailago ukanen du hori egiten, publikoaren zati adimentsua banakotasunaren balioaz konturatzen hasi ezean, hasi ezean ikusten ona dela aldeak egotea, hoberako ez badira ere, eta eurek txarragorako direla baderitzote ere. Banakotasunaren eskubideak beti aldarrikatu behar badira, oraintxe da horretarako garaia, asimilazio behartua osotzeko oraindik asko falta denean. Lehenengo faseetan bakarrik borroka daiteke arrakastaz usurpazioaren aurka. Jende guztia geure antzekoa izateko eskaria elikatzen den heinean hazten da. Horren aurka egiteko bizia tipo uniforme bakarrera murriztu arte itxaronez gero, tipo horretatik aldentze oro erlijiogabe, ezmoral, munstrokeria eta naturaren kontratztat joko da. Gizateria dibertsitatea burutzeko ezgai bihurtzen da, hura ikusteko ohitura aldi batez galdu duenean.

IV

GIZARTEAK GIZABANAKOAREN GAIN DAUKAN AGINPIDEAREN MUGEZ

Zein da orduan gizabanakoak bere buruaren gain duen subiranotasunaren muga bidezkoa? Non hasten da gizartearen subiranotasuna. Giza bizitzatik zenbat esleitu behar zaio banakotasunari eta zenbat gizarteari?

Elementuotako bakoitzak berari dagokion partea hartzen du, baldin berezikiago interesatzen zaiona badauka. Banakotasunari inte-

resatu nagusia gizabanakoa duen bizitzaren partea egokitu behar litzaioke; gizarteari, interesatu nagusia gizartea duen partea.

Gizartea kontratu batean oinarriturik ez dagoen arren, eta are bertatik betebeharrak deduzitzeko kontraturen bat asmatuz ezer onik erdiesten ez den arren, gizartearen babesa hartzen duen orok ordain bat zor dio gizarteari harturiko onurarengatik, eta gizartean bizitzeak ezinbesteko bihurtzen du bakoitza beharturik aurkitzea besteekiko jokaera ildo bati eustera. Jokaera hori, lehenik, bata besteari bere interesetan kalterik ez egitean datza; edo, hobeto esanda, zenbait interesetan, legedeklarazio zehatzez edo elkar-ulertze tazituz, eskubidetzat eduki behar liratekeenak beroriek; eta, bigarrenik, nork bere partea (ekitate printzipio baten arabera finkaturikoa) hartzean, gizartea edo bertako kideak kalte edo arazoetatik defendatzeko beharrezko diren lan eta nekeetan. Gizarteak bidezki ezartzen dizkio baldintza horiek, zer gerta ere, bete gabe pasa gurarik dabiltzanei. Eta horretan ez da amaitzen gizarteak egin dezakeen guztia. Gizabanako baten egintzak besteentzat kaltegarriak edo beraien ongizatea behar bezala zaintzen ez dutenak izan daitezke, hain eskubide eratuak urratzera heldu gabe ere. Gaizki jokatu duena, orduan, bidezki zigor lezake iritziak, baina ez legeak. Lagun baten jokaeraren zati batek besteen interesetan eragin kaltegarria izanez gero, gizarteak eskumena du haren gain, eta eztabaida daiteke gizartearen esku-hartzea ongizate orokorraren aldekoa ala kontrakoa den. Baina ez dago arrazoirik auzi hori planteatzeko norbaiten jokaerak inolako eraginik ez duenean inoren interesetan, edo beraiek nahi izan ezean (beti ere helduak eta bereizmen normaleko pertsonak izanik) derrigor eraginik ez duenean. Horrelako kasu guztietan, askatasun osoa dago, legala eta soziala, ekintza burutu eta ondorioei aurre egiteko.

Doktrina hori oso gaizki ulertzea litzateke pentsatzea axolagabetasun egoistaz beterik dagoela eta ondokoa dioela, alegia, gizakiek ez dutela besteek bizitzan duten jokaerarekin inolako zerikusirik eta ez dutela ardurarik hartu behar besteen ongi jokatzearen edo ongi izatearen inguruan, beren interesa jokoan egon ezean. Inoren ona sustatzeko, ahalegin desinteresatuak gutxitu barik gehitu egin behar dira. Baina onginahi desinteresatuak zigorra eta zartailua, errealak nahiz metaforikoak, ez diren beste tresna batzuk aurki ditzake jendea bere onera jo dezan konbentzitzeko. Norberari begirako bertuteak gutxietsiko dutenen artean azken nago ni, baina bigarren mailako garrantzia dute, biga-

rrenekoa ere badute, gizarte kontuetan. Hezkuntzari biak berdinean lantzea dagokio. Baina hezkuntzak berak ere konbentzimenduz eta limurtez jotzen du konpultsioz adina, eta lehenengoez soilik, eta hezkuntza aldia igarota, irakasten dira norberari begirako bertuteak. Gizakiek laguntza eman behar diote elkarri ongia gaizkitik bereizteko, eta lehenengoa aukeratzerako eta bigarrena bazter uztera elkar animatu. Elkar akuilatzen jardun behar lukete beti beren goi-ahalmenak gero eta gehiago erabil eta beren sentipen eta gogoia zuhur denera, eta ez burugabekeriara, gero eta gehiago bidera ditzaten, objektu eta kontenplazioetan behera barik gora eginez. Baina ez lagun batek ez zenbait lagunek ez dute eskubiderik heldutasunera iritsi den gizaki bati esateko ez dezala bere bizitzarekin egin bere onerako egitea aukeratu duena. Bera da interesik handiena duena bere ongizatean; beste edozeinek horretan eduki dezakeen interesa, atxikimendu pertsonal sendo bateko kasuetan izan ezik, garrantzirik gabekoa da, berak duenaren aldean; gizarteak harekiko gizabanako gisa duen interesa (besteekiko duen jokaerari dagokionean izan ezik) zatikakoa eta aldi berean zeharkakoa da; gizon edo emakume arruntenak, ordea, bere sentipen eta zirkunstantziei buruz ezagutza mila bider handiagoa du, beste inork eduki dezakeena baino. Gizartearen esku-sartzea gizabanakoaren burubide eta asmoak gidatzeko berari bakarrik dagozkion gauzetan, irudipen orokorretan oinarritua da nahitaez; eta irudipenok, gainera, faltsuak izan daitezke eta, egiazkoak izanda ere, kasu partikularretara txarto aplikatzeko arriskua ukan dezakete kanpotik ikusten dituztenek baino kasuon zirkunstantzien eza- gutza handiagorik ez dutenek. Horregatik, giza aferen departamentu horretan banakotasunak bere ekintza eremu propioa du. Gizakien elkarrekiko jokaeran beharrezko da arau orokorrak gehienbat betetzea, jendeak zer espero dezakeen jakin dezan; baina pertsona bakoitzari dagozkion gauzetan, pertsonaren berezkitasun indibidualak askatasunez jarduteko eskubidea dauka. Besteek eskain, eta are inposa, diezazkiokete bere burubideari laguntzeko gogorakizunak, bere nahimena indartzeko aholkuak, baina hura bera da azken epailea. Aholku eta abisu horien kontra jotatuz egin ditzakeen errakuntza guztiak hobeak dira, besteek euren ustez bere ona dena egitera behartzen uztea den gaitza baino.

Ez dut esan nahi lagun batek besteengan sortarazten dituen sentipenek lagun horren gaitasun edo akats pertsonalen inolako eragirik ukan behar ez dutenik. Hori ez da ez posible ez guragarri. Norbait

goi-mailakoa bada bere onera daramaten gaitasunetako batean, horrek berorrek miresgarri egiten du. Gizatasunaren perfekzio idealetik askoz hurrago jartzen du. Gaitasun horiez nabarmenki gabeturik badago, mirespena barik horren aurkako sentipena eraginen du. Txorakeria maila bat dago, baita (esamoldea eragozpenik jarri ezin zaiona ez bada ere) gustuaren beherapen edo gaiztotze bat ere, zeinak, berori agertzen duen lagunari kalte egitea justifikatzen ez duen arren, lagun hori, ezinbestez eta bidezki, gorrotagarri eta, ertzeko kasuetan, erdeinagarri ere bihurtzen duen; aurkako gaitasunak indartsu dituenak derrigor izan beharko ditu sentipen horiek. Lagunak, inori okerrik egin gabe ere, zorotzat edo behe-mailako izakitzat hartzera eraman gaitzakeen eran joka dezake; eta hark gure iritzi hori ekidin nahiko lukeenez, zerbitzu bat egiten zaio horretaz eta etor dakizkiokeen ondorio txarrez aurretiaz ohartarazteaz. Gauza ona litzateke, benetan ere, zerbitzu hori gaur egun kortesiaren formek uzten duten baino libartate handiagoz egin ahal izatea, eta lagun batek beste bati hobendun ikusten duela zintzo agertu ahal izatea, oihas edo harropuztat inork ere hartu gabe. Badaukagu, halaber, norbaitez dugun iritzi txar-raren arabera era ezberdinetan jokatzeko eskubidea ere, ez haren banakotasuna zapaltzeko, baizik geurea erabiltzeko. Ez gaude, adibidez behaturik haren konpainia bilatzera; hura ekiditeko (ekidite hori nabarmentzen ibili gabe, baina) eskubidea daukagu, onargarriena dugun konpainia aukeratzeko eskubidea daukagulako. Eskubidea daukagu, eta betebeharra ere bai agian, besteei harekin kontuz ibili daitezzen abisatzeko, baldin uste badugu haren etsenpluak edo solasak eragin kaltegarria ukan dezakeela berarekin dabilen jendearengan. Haren aurretik besteek jarri ahalko ditugu hautazko mesedeak egiteko orduan, beti ere mesedeok haren hobekuntzarakoak ez badira. Era ezberdinotan zigor latzak jaso ditzake lagun batek besteen eskutik berari bakarrik zuzenean dagozkion hutsegiteengatik; baina zigor horiek hutsegiteen euren ondorio naturalak eta, esanen genuke, berezkoak diren heinean pairatzen ditu, eta ez beren-beregi zigortzeagatik ezarritakoak direlako. Ozarkeria, egoskortasuna, harropuzkeria erakusten duenak –baliabide arruntekin bizi ezin denak, asebide kaltegarrirei uko egiten ez dakienak, animalia plazerak bilatzen dituenak adimen eta sentimenaren plazeraren kaltetan– besteen iritzian behera egitea eta haiek bere aldeko sentimendu gutxiago edukitzea espero behar du; gainera, ez du horretaz kexatzeko eskubiderik, behintzat gizarte

harremanetan haien ederra irabazita eta, hartara haien mesedea bereganatzeko eskubidea, bere buruarekiko demerituek hondatu gabea, eskuratuta eduki ezean.

Nik baiesten dut besteen kontrako iritzitik hertsiki banaezinak diren eragozpenen mende soilik egon behar duela laguna, bere onarekin loturik dagoen, baina besteek berarekiko harremanetan dituzten interesak inola ere ukitzen ez dituen bere jokaera eta izaeraren zatiari dagokionez. Besteentzat kaltegarriak diren ekintzek, ordea, tratamendu zeharo ezberdina behar dute. Haiei eskubideak kentzea; haiei norbere eskubideek justifikatu gabeko galera edo kalteren bat eragitea; haiekiko harremanetan erabilitako faltsukeria edo tolesa; haien gaintiko abantailaz bidegabeki edo eskuzabaltasunik gabe baliatzea; are haiek berekoiki gaitzetik ez defendatzea, horiek guztiak moralki gaitzesarriak dira adiera hertsian, eta, kasu astunetan, zigorra merezi dute bidezki. Eta ez bakarrik ekintza horiek, baizik eurotara daramaten jarrerak ere zehazki ez-moralak dira eta gorrotoraino ere hel daitekeen ezespena merezi dute. Ankerkeriarako joera, malezia eta izaera gaiztoa; grina guztietan gorrotagarriena eta antisozialena den inbidia; disimulua eta faltsukeria, behar bezainbateko kausarik gabe sumintzea, probokazioen aurrean neurrigabe erresumintzea, beste guztiak menpean edukitzeko grina, abantailetan norberari dagokion partea baino gehiago hartzeko desira (grekoen *φιλοτιμία*), besteak beheartzean plazer hartzen duen harrokeria; bera eta berari dagozkionak beste ezer baino inportanteagoztat dituen eta zalantzako gauza guztiak bere alde erabakitzen dituen norberekeria, ... ; horiek guztiak bizio-moralak dira eta izaera moral gaiztoa eta gorrotagarria osatzen dute: gorago aipaturiko norberari begirako hutsegiteen antzik eduki gabe, horiek ez baitira, izan, egintza ez-moralak zehazki, eta, mailarik gorenera eramanda ere, ez baitira gaiztakeria izatera heltzen. Izan daitezke zentzun faltaren edo duintasun pertsonalik edo norbere buruarekiko errespeturik ezaren frogak; baina besteekiko betebeharren urraketak inplikatzan dutenean bakarrik dira moralki gaitzesarriak, haiengatik bere burua zaintzera beharturik dagoelarik gizabanakoa. Geure buruarekiko betebeharrak deritzenak ez dira sozialki betebeharrekoak, zirkunstantziek aldi berean besteekiko betebeharrak bihurtu ezean. «Norbere buruarekiko betebeharra» terminoak, zuhurtzia baino zerbait gehiago esan nahi duenean, norbere buruarekiko errespetua edo

norbere garapena esan nahi du; eta ez batagatik ez besteagatik eman behar die inork konturik bere lagun hurkoei, horrek ez liokeelako inolako onurarik ekarriko gizateriari.

Zuhurtziarik edo duintasun pertsonalik ezagatik lagun batek bidezki gal lezakeen besteen begirunearen eta besteen eskubideen kontrako jokaerak jasotzen duen gaitzespenaren arteko bereizketa ez da izen hutseko bereizketa. Alde handia egonen da beti, lagun harekiko ditugun bai sentipenetan eta bai jokaeran, hari erantzukizuna galdatzeko eskubidea daukagula uste dugun gauzetan hark gu atsekabetzetik eskubide hori ez daukagula dakigun gauzetan atsekabetzera. Gaitzi bazaigu, adierazi ahal izanen dugu geure nahigabea eta gustatzen ez zaigun gauza batetik bezala berarengandik urrun ibili; baina horregatik ez dugu joko hari bizitza nekagarri egitera. Hausnartu eta atera behar dugu jasotzen ari dela jada, eta jasoko duela, bere okerraren zigorra; berak bere bizitza, gaizki erabiltzeagatik, hondatzen badu, guk ez dugu, hargatik, nahi izanen oraindik gehiago hondatu: hura zigortu gura izan beharrean, hari zigorra arintzen saiatu behar dugu, bere jokaerak dakartzkion gaitzak nola ekidin edo senda litzakeen erakutsiz. Lagun horrek guri errukia, edo agian higuina ere eragin diezaguke, baina sekula ere ez haserrea edo erresumina; ez dugu tratatuko gizartearen arerio gisa; bere kontura uztea izanen da txarrenean ere geure buruaren aurrean justifikatu ahal izanen duguna, bihotzik onenarekin hurbiltzen ez bagatzaizkio ere ardura eta lagundu nahia erakutsiz. Kontua guztiz aldatzen da, baldin bere lagun hurkoak indibidualki edo kolektiboki babesteko beharrezko diren arauak urratu badi-tu. Haren egintzen ondorio txarrek, orduan, haren buruarengan barik besteengan dute eragina; eta gizarteak, bere kide guztien babesle denez, haren kontra hartu behar ditu errepresaliak; min eman behar dio berariaz zigortzeko asmoz, eta zigorra behar bezain zorrotza izan dadin arduratu behar du. Kasu horretan, geure auzitegiaren aurrean dagoen errudun bat da, eta geu gara hari epaia ematera ez eze, geure sententzia, era batera edo bestera, betearaztera deituak; beste kasuan, ez dagokigu hari inolako sufrimendurik ezartzea, geure aferen erregulazioan hari bereetan ematen diogun askatasun bera erabiltzetik intzidentalki eratorritakoak izan ezik.

Askok ez dute onartu nahi hemen seinalatzen dugun bereizketa, hau da, gizabanakoaren bizitzan berari bakarrik dagokion zatiaren

eta besteei dagokienaren artean dagoena. Nola daiteke (galde dezake edonork) gizarteko kide baten jokaeraren zati batek beste kideei bost axola izatea? Inor ez da erabat isolaturik dagoen izakia; ezinezkoa da lagun batek beretzat serioski edo iraunkorki kaltegarri den ezer egitea, gaitza bere hurkoenengana behintzat, eta maiz askoz urrunagokoen-gana, iritsi gabe. Bere jabegoari kalte egiten badio, euren baliabideak jabego horretatik, zuzenean edo zeharka, erdiesten zituztenei egiten die kalte eta, gehienetan, komunitatearen baliabide orokorrak gutxitu egiten ditu, neurri handian edo txikiagoan. Bere gorputz edo gogo ahalmenak hondatzen badiu, euren zorionaren zati bati dagokionez bere beharrean izandako guztiei oker handia egitez gain, ezgai bihurtzen da bere hurkoei, oro har, eskaini beharreko zerbitzuak emateko; agian haien adiskidetasun eta onginahiaren motelgarri den karga bilakatzen da; eta jokaera hori oso maiz ukanez gero, ez legoke ongiaren guztirako baturari horrek baino gehiago kenduko liokeen hutsegiterik. Azkenez, baldin bere bizio edo txorakeriez batek besteei zuzenean kalterik egiten ez badie, hala ere (esan daiteke), kaltegarria da bere etsenpluaz, eta bere burua kontrolatzera behartu beharko litzateke, bere jokaera ikusita edo ezagututa gaiztotu edo okerbidera eraman ditzakeenen mesedetan.

Eta are (gehituko da) baldin jokaera txarraren ondorioak giza-banako bizioso eta burugabekoaren baitan mugatu ahal balira ere, beren kontu eta gidaritzapean utzi behar ote lituzke gizarteak horretarako nabarmenki ezgai diren horiek? Haur eta adin txikikoei euren borondatearen kontra ere babesa garbiro zor bazaie, ez al dago gizartea era berean beharturik beren burua gobernatzeko maila berean ezgai diren helduei ere babesa ematera? Baldin jokoa, hordikeria, neurrigabekeria, alferkeria edo zikintasuna legez debekaturiko ekintza asko edo gehienak bezain kaltegarriak badira osasunerako eta haiek bezainbateko oztopoak hobekuntzarako, zergatik (galde daiteke) ez da ahalegintzen legea horiek ere zigortzen gizartearen praktika eta kome-nentzien neurrian? Eta legearen akats ekidinezinen osagarri moduan, ez ote luke iritziak kontrol gogor bat antolatu behar aipaturiko bizio-en kontra eta zigor sozial zorrotzak ezarri gizartearen jakinean praktikatzen dituztenei? Hemen ez gabilta (esan daiteke) banakotasunari mugak jartzen edo bizitzan esperientzia berri eta originalak egiteko ahaleginak eragozten. Eragotzi nahi diren gauza bakarrak munduaren

hasieratik gaurdaino entseatu eta gaitzetsi direnak dira, esperientziak erakutsi duenez, inoren banakotasunarentzat baliagarriak ez egokiak ez diren gauzak. Denbora bat igarotzea eta esperientzi kantitate bat behar dira moraleko edo zuhurtziako egia bat ezarritzat jotzeko; eta nahi izaten den guztia da, jendea, belaunaldi bat bestearen ondoren, euren aurretikoentzat hondagarria izandako amildegi berean behera jaus dadin eragozte.

Erabat onartzen dut norberak norbere buruari egiten dion kalteak eragin serioa ukan dezakeela norberarekin harreman hurbilak dituztenengan, beraien begikotasunean eta interesean batik bat, eta, beheragoko mailan, gizartearengan oro har. Horrelako jokaeraz norbaitek beste norbaitekiko edo norbaitzuekiko betebeharrak zehatz eta egozgarri bat hausten duenean, kasua jada ez da norbere buruari begirakoa eta moralki gaitzesgarri bihurtzen da hitzaren adiera zehatzean. Baldin, adibidez, gizon bat, neurritasunik gabe edo nabarmenkerietan ibiltzeagatik, bere zorraz ordaindu ezinik gelditzen bada, edo familia baten erantzukizun moralak bere gain hartu ondoren, aipaturiko zergatiagatik familia hori aurrera ateratzeko edo hezteko ezgai egiten bada, ondo merezirik gaitzetsiko dute eta bidezki zigortua izan daiteke, baina nabarmenkeriengatik barik bere familiarekiko edo hartzedunekiko eginbeharrak ez betetzearen. Haien izan beharreko baliabideak, inbertsiorik zuhurrenerako erabili izan balira ere, erru moralak berbera zatekeen. George Barnwell-ek osaba hil zuen bere amorantearentzako dirua eskuratzeko, baina negozioak martxan jartzeko egin balu ere, berdin urkatuko zuket. Era berean, aztura txarren mende egotearen bere familiari atsekabea dakarkion gizonaren maizko kasuan ere gizon horrek gaitzespena merezi du bere zakarkeria edo esker txarragatik; baina gauza bera mereziko luke berez biziosak ez diren, baina berekin bizi direnei edo euren ongizatea bere mende dutenei min ematen dieten azturak landuko balitu. Besteen interes eta sentimenduei eskuarki zor zaien begirunean huts egiten duenak, beste betebeharrak premiazkoagoren batek horretara bultzaturik edo hobespen pertsonal onargarriaren batek justifikaturik egon gabe, gaitzespen moralak merezi du hutsegite horrengatik, baina ez horren kausagatik, ezta urruneko kausa gisa horra eraman zezaketen bere buruarekiko errakuntza pertsonalengatik ere. Antzera batean, norbait bere buruari soilik begirako jokaeragatik jendearekiko duen betebeharrak zehatzen bat

betetzeko ezgai bihurtzen denean, hoben sozial baten errudun egiten da. Inor ez da zigortu behar edanda egoteagatik; baina soldadua edo polizia bai, bere lanean diharduenean edanda egoteagatik. Labur esanda, beti ere kalte zehatz bat edo kalte arrisku zehatz bat dagoenean behin gizabanako batentzat behin jendearentzat, kasua askatasunaren eremutik irten eta moraltasunaren edo legearen eremura sartzen da.

Baina lagun batek jendearekiko betebeharrak zehatzik hausten ez duen edo bere buruari izan ezik beste ezein gizabanakori oker haute-mangarririk ez dakarkion jokaeraz gizarteari egiten dion kalte gertagarri edo, esan daitekeen moduan, inplizituari dagokionez, hori gizarateak giza askatasunaren mesedetan jasan dezakeen okerra da. Jende heldua bere buruaren ardura behar bezala ez hartzearen zigortu behar bada, nahiago nuke jende horren onagatik zigortzea, eta ez gizarateak bere ustez ere eskubide gisa galdatu ezin dituen onurak gizarteari ekartzeko jende horrek duen gaitasuna gutxitzea eragozteko dela esanda. Baina ezin dut onartu puntu hori eztabaidatu orduan, gizarateak, bere kide ahulenak jokaera razionalaren ohiko mailara jasotzeko, haiek irrazionala den zerbait egin arte itxarotea eta, gero, egindako horregatik zigor legala edo morala ezartzea beste bitartekorik ez balu bezala jokatzeko. Gizarateak erabateko boterea ukan du horrelakoengan euren bizitzako lehen zati osoan; haurtzaro eta adin txiki osoa ukan du, horiek bizitzan jokaera razionala eduki dezaten gaitzen saiatzeko. Oraingo belaunaldia hurrengo belaunaldiaren hezkuntzaren eta ahalbide guztien jabe da; ezin ditu guztiz jakitun eta on egin, oraingo belaunaldiak berak ere, zoritxarrez, akatsak dituelako ontasunean eta jakiturian; eta haren ahal-eginik handienak ez dira beti, kasu indibidual batzuetan bederen, arrakastatsuenak; baina erabat gai da hurrengo belaunaldia, oro har, bera bezain ona eta apur bat hobea izatea lortzeko. Baldin gizarateak bere kideetako askori urruneko motiboak razionalki aintzat hartuta jokatzeko gai izatera heldu gabe ume moduan hazten uzten badie, gizarate horrek bere buruari egotzi behar dio ondorioen errua. Hezkuntzaren botereekin ez eze, onarturiko iritziaren aginpideak berenez irizteko ezgaienak diren gogamenetan beti duen eraginarekin ere armaturik eta ezagutzen dituztenen ezinikusia edo gutxiespena jasotzen dutenek nahitaez batzen dituzten zigor *naturalek* lagunduta dagoelarik gizaratea, ez beza esan, horretaz guztiaz gain, gizabanakoei pertsonalki dagozkien gauzetan aginduak emateko eta obedientzia galdatzeko ahalmena

behar duela, zeren, horretan, justizia eta politikako printzipio guztien arabera, erabakiak bere ondorioei eutsi behar dietenena izan behar baitu. Eta ez dago ezer jokaeran eragiteko bitartekoen entzute ona galtzera eta erabat zapuztera gehiago daramanik, okerrera jotzea baino. Zuhurtziara edo neurritasunera behartu nahi direnen artean izaera sendo eta lokabea duen jendea egiteko behar den zura daukanik izanez gero, uztarriaren aurka jaikiko da hutsik gabe. Horrelako jendeak ez du inoiz onartuko besteek bere ardurako ezertan sartzeko eskubidea dutenik, haiek berari beren interesetan kalterik egiten ez uzteko eskubidea duten moduan; eta aginte usurpatu horri inolako kasurik ez egitea eta agintzen duenaren justu kontrakoa nabarmenkeriaz egitea aise bihurtzen da gogo eta adore adierazgarri, Charles II.aren garaian, puritanoen intolerantzia moral fanatikoaren ondoren etorri zen oieskeri modak erakusten duen moduan. Biziosoak edo laxoak besteei ematen dien etsenplu txarretik gizartea babestu beharrari dagokionez, egia da etsenplu txarrak eragin kaltegarria izan dezakeela, batik bat inolako zigorrik jaso gabe besteei kalte egiten dienaren etsenpluak. Baina orain besteei kalterik egin gabe egileari berari, suposizioz, oker handia dakarkion jokaeraz ari gara; eta ez dut ulertzen hau uste dutenek nola ez duten pentsatzen aipaturiko etsenplua, oro har, mesedegarria dela, kaltegarria baino areago, zeren, jokaera txarra erakusten badu ere, era berean agerian jartzen baititu kasu guztietan edo gehienetan, jokaera bidezki gaitzesten baldin bada, uste izan behar dugun moduan atzetik ekarriko dituen ondorio mingarri eta apalgarriak.

Baina argudiorik sendoena publikoak jokaera pertsonal hutsean esku-sartzearen kontra da ezen, esku sartzen duenean, segurutik oker egiten duela eta okerreko lekuan. Gizarte moraltasun kontuetan, besteekiko betebeharrei dagokienean, jendearen iritzia, hau da, nagusi den gehiengoarena, maiz okerra izan arren, are maizago zuzena izan daiteke, horrelako kontuetan euren interesez eta jokaera batek, gauzatzen utziz gero, beraiengan ukanen lukeen eraginaren nolakotasunaz eman behar dutelako iritzia. Baina norberari begirako jokaera-ko arazoei buruzko antzeko gehiengo baten iritziak, gutxiengoari lege moduan inposatuak, zuzena izateko, okerra izateko adina aukera ditu ia, zeren horrelako kasuetan iritzi publikoak, onenean ere, jende batek besteentzat ona edo txarra denari buruz duen iritzia esan nahi du eta; eta sarri askotan horixe ere ez du esan nahi, zeren jendea ezaxolarik

handienaz pasatzen baita jokaera gaitzesten dienen plazer edo erosotasunen gainetik, euren aukera besterik kontuan hartu gabe. Asko dira gogoko ez duten jokaera oro berentzako kaltetzat eta beren sentipentzako laidotzat hartzen dutenak; hain zuzen ere, fanatiko erlijioso batek, besteen sentipen erlijiosoekiko begirunerik ezaz akusatzen dutenean, beraiek direla, euren sinesbide eta gurtzari gogor eutsita, bere sentipenekiko begirunerik ez dutenak erantzuten dien bezalaxe. Baina ez dago parekotasun handiagorik norbaitek bere iritziarekiko duen sentipenaren eta beste batek hark iritzi horri eusten diolako min-duta sentitzen denaren sentipenaren artean, lapur batek poltsa bat ebasteko duen nahiaren eta eskubidedun jabeak poltsa atxikitzeiko duenaren artean dagoena baino. Eta pertsonak gustua iritzia eta poltsa bezain bere-berea du. Erraz du edonork iruditzen ziurrak ez diren gauza guztietan gizabanakoen askatasuna eta aukera ukigabe uzten dituen eta esperientzia unibertsalak gaitzetsi dituen jokamoldeak soilik bazter uztea galdatzen duen publiko ideala. Baina non ikusi da bere zentsurari horrelako mugak jartzen dizkion publikorik?; edo noiz kezkatzen da publikoa esperientzia unibertsalaz? Besteen jokaera pertsonalean sartzen denean, nekez pentsatuko du berak ez bezala sentitu edo jokatzearen izugarrikeria ez den beste ezertaz; eta irizpide horixe da, arinki mozarrotuta, gizateriari erlijioaren eta filosofiarenekin agindu gisa aurkeztu diotena moralista eta idazle espekulatiboek, hamarretik bederatziko proportzioan. Horiek irakasten dute gauzak ongi daudela ongi daudelako; guk halaxe daudela sentitzen dugulako. Geure gogobihotzetan bilatzeko dioskute geure buruarekin eta beste guztiekin bete beharreko jokaera legeak. Zer egin lezake publiko gizajoak irakaskaspen horiek aplikatu eta ongiari eta gaizkiari buruzko norbere sentipenak, euroi buruz behar bezainbateko adostasuna lortu denean, mundu guztiak bete beharrekotzat ezarri besterik?

Hemen seinalatzen den gaitza ez da teorian bakarrik existitzen eta agian baten batek espero izanen du nik hemen aipatzea garai eta herrialde honetako publikoak bere hobespenei lege moralen izaera desegokiro egotzi diela adierazten duten adibideak. Ez naiz ari oraingo sen moralen aberrazioen gaineko saiakera bat idazten. Gai garrantzitsuegia da parentesi artean eta adibide bitartez eztabaidatzeko. Hala ere, adibideak beharrezkoak dira, agerian jartzeko, hain zuzen, nik aldeztu dudana printzipioak garrantzi benetakoa eta praktikoa duela

eta ez naizela ari irudipenezko gaitzen kontra hesia eraikitzen. Eta ez dago zail agerian jartzen, adibide ugariz, ordenu morala esan dakiokeenaren mugak gizabanakoaren bidezko askatasun eztabaidaезinean bidegabeki sartzearaino hedatzea giza joera guztietan unibertsalenetako bat dela.

Lehenengo adibide bezala, har ditzagun gizakien artean, eurenak ez bezalako iritzi erlijiosoak dituztenek euren praktikak eta batez ere euren abstinentzia erlijiosoak ez betetzea baino arrazoi hoberik gabe, sortzen diren elkar ezinikusiak. Adibide xume samar bat jartzeko, kristauen sinesbide eta praktika guztian mahometarren beraienganako gorrotoa gehien pizten duen puntua kristauek txerrikia jatea da. Kristauek eta europarrek ekintza gutxiari begiratzen diete musulmanek kristauen gosea asetzeko modu berezi horri begiratzen dieten baino planta gabeko higuin handiagoz. Euren erlijioarekiko irain bat da lehenik, baina horrek ez du inola ere esplikatzen higuin horren maila ez mota; zeren ardoa ere debekatzen die euren erlijioak, eta ardoa edatea txartzat dute musulman guztiek, baina ez higuingarritzat. «Patari zikinaren» haragiak ematen dien nazka, aitzitik, izaera berezikoa da, ezinikusi instintiboaren antzekoa, eta hori zikintasunaren ideiak, dirudenez, behin sentipenetan barna erabat sartzen denean, pizten du beti garbitasun aztura pertsonal eskrupulosoetatik lekutan dabilen jendearengan ere, nazka horren adibide aipagarri bat lohikeria erlijiosoaren sentimendua, Hinduen artean hain bizi dagoena, delarik. Demagun orain gehienak musulmanak diren herri batean gehiengoa herrialdeko mugen barruan txerrikia jatea debekatu nahirik dabilela. Hori ez litzateke nonbait ere berria herri mahometarretan⁹. Iritzi publikoaren agintearen erabilpen bidezkoa ote litzateke hori?; eta ez baldin bada, zergatik ez da? Aipaturiko praktika benetan da nazkagarria jende horrentzat. Gainera, zintzo sinesten dute praktika hori Jainkoak debekatua eta gorrotatua dela. Eta debeku hori ezin liteke jazarpen erlijiosotzat jota gaitzets. Izan zitekeen erlijiosoa jatorriz, baina ezin da izan erlijioagatikoa jazarpena, txerrikia jatea inoren erlijiotan ere betebeharra ez denez gero. Gaitzesteko arrazoi bakarra hauxe litzateke, alegia, publikoak ez duela zertan sarturik gizabanakoen gustu pertsonaletan ez arazo partikularretan.

Gatozen etxetik hurbilxeagora: espainolik gehienek jainkogatutasun handitzat dute, Izaki Gorenaren kontrakotzat goren mailan,

modu erromatar katolikoa ez den beste edozeinetan Jainkoa gurtzea; eta beste ezein gurtza era ez da legezkoa Espainia aldean. Hego Europako jendeak apaiz ezkondua erlijio gabetzat ez eze, lizun, lotsagarri, zakar eta nazkagarritzat dauka. Zer deritzete protestanteek bene-benetako sentipen horiei eta katoliko ez direnei horiek inposatzeko haiek egiten duten ahaleginari? Hala ere, gizakiek besteen interesekin zerikusirik ez duten gauzetan elkarren askatasunean esku sartzeko eskubidea baldin badaukate, zein printzipiotara jo daiteke horrelako kasuak ezinezko bihurtzeko?, edo nork egotz liezaioke jendeari errua Jainkoaren eta gizakien begietarako eskandalutzat duena galara zi nahi izateagatik? Ezmoralitasun pertsonaltzat hartzen dena debekatzeko ezin aurkez daiteke arrazoi sendoagorik, praktika horiek galarrazteko fedegabetasuntzat jotzen dituztenek aurkezturikoak baino; eta prest egon ezean jazarleen logika hartu eta esateko guk besteak jazar genitzakeela zuzen gaudelako eta haiek gu ez gaitzuztela jazarri behar oker daudelako, kontuz ibili behar dugu ez dezagun onar gero geuri aplikatu dakigukeen eta mingarria izanen zaigun injustizia handi bat.

Aurreko adibideei oztopoak jar dakizkieke, arrazoirik gabe baina, esanez adibideok hemen gure artean ezinezkoak diren gertakizunetatik aterata daudela; iritziak, herrialde honetan, ez du segurutik haragi-uzterik inposatuko, ezta jendearen gauzetan sartu ere euren sinesbide edo zaletasunaren arabera gurtza egiteagatik, edo ezkontzeagatik edo ez ezkontzeagatik. Hurrengo adibidea, hala ere, askatasunean esku-sartzetik hartua izanen da, eta gogoan izan behar dugu esku-sartze horren arriskua inola ere ezin dugula joandako kontutzat hartu. Puritanoek behar adina botere izan duten toki guztietan, Ingalaterra Berria eta Britainia Handian Commonwealth garaian adibidez, arrakasta handiz ahalegindu ziren dibertsio publiko guztiak eta pribatuak ere ia guztiak kentzen, bereziki musika, dantza, jolas publikoak eta dibertsiorako bestelako bilerak, eta antzerkia. Asko dira oraindik herrialde honetan, euren moralitasun eta erlijio ideien arabera, olgeta horiek gaitzesten dituztenak; eta horiek gehienbat klase ertainekoak direlarik, hau da, erresumaren egungo egoera sozial eta politikoan indar nagusi den klasekoak, ez da inola ere ezinezkoa horrelako sentimenduak dituztenak, lehenago edo geroago, Parlamentuan gehiengoa izatera heltzea. Komunitatearen beste zatiak gogoko izanen ote du libre izanen dituen dibertsioak kalbinista edo

metodista hertsienen sentimendu erlijioso eta moralen arabera arautu-
rikoak izatea? Ez al die berehala esanen hain erlijiotasun muturluzeko
gizartekide horiei inoren arazoez barik berenez arduratzeko? Horixe
da, hain zuzen, eurek gaitzesgarritzat duten plazerik beste inork ez
gozatzea nahi duten gobernu guztiei eta publiko guztiei esan behar
zaiena. Baina nahi horren printzipioa onartzen baldin bada, inork ezi-
nen dio arrazoiz eragozpenik jarri nahi hori gauzatzeari gehiengoaren
edo herrialdean gailen den beste botereren baten zentzuan; eta denek
egon behar dute kristau komunitate (*commonwelth*) baten ideia onar-
tzeko prest, Ingalaterra Berrian lehenbizi etorri zirenek ulertu zuten
moduan, haienaren antzeko fede erlijioso batek galdutako eremua
berriro irabaztea inoiz lortuko balu, ustez gainbehera zetozen erlijio-
ek, dakigun moduan, maiz egin izan duten bezala.

Imajina dezagun beste gertakizun bat, aipatu berri dugunak
baino agian gauzatzeko aukera gehiago dituen. Joera adierazi bat
dago mundu modernoan gizartearen eraketa demokratikorantz, era-
kunde politikoko herritarrekin edo beroriek gabe. Esan ohi da joera hori
gauzatuen daukan herrialdean, hala gizarterik nola gobernurik demo-
kratikoena duenean –Estatu Batuetan– gehiengoaren sentipenak,
gehiengoak lehian jardun ahal izateko baino bizi-tankera arranditsua-
go edo garestia goa agertzearen kontrakoa denak, luxu-lege jasanga-
rriro eragingarri baten moduan jokatzeko duela, eta Batasunaren alde
askotan errenta handi baten jabe denak nekez aurkituko duela errenta
hori herriaren gaitzespena jasoko ez duen eraren batean gastatzeko.
Baieztapen horiek, dudarik ez, arrunt gehiegizkoak diren arren gerta-
karien irudikapen gisa, deskribatzen duten gauzen egoera sentipen
demokratikoaren emaitza bururagarria eta litekeena ez ezik, daitekee-
na ere bada, publikoak gizabanakoek beren errenta gastatzeko duten
erarekiko beto eskubidea duelako ideiarekin konbinatua. Nahikoa da
gero iritzi sozialistaren zabalkunde handi goa suposatzea, ondasun
txiki batetik gorako jabegoa edo eskulanaz irabazi gabeko sarrearen
bat edukitzea gehiengoaren ikusiz lotsagarria izan dadin. Printzipioz
horien antzekoak diren iritziak askogatik dira nagusi jada artisau kla-
sean, eta pisu handi eta zapaltzailea dute klase horren iritzi nagusiaren
pean daudenentzat, bertako kideentzat batik bat. Jakina da langile txar-
rrek, industriako adar askotan gehiengo direnek, erabakitsu uste
dutela langile txarrek onak bezainbateko soldata jaso behar luketela

eta inori ere ez litzaiokeela laga behar, somara edo bestela lan eginez, trebeagoa edo ahalegintsuagoa delako horrelakoak ez direnak baino gehiago irabazten. Eta politika morala darabilte, batzuetan fisiko ere bilakatzen dena, langile trebeei zerbitzu baliagarriago bategatik soldata handiagoa jasotzea eta ugazabei ematea galarazteko. Publikoak arazo pribatuetan eskumenen bat baldin badu, ezinezko egiten zait ikustea jende horrek hutsen bat egiten duela, edo gizabanakoaren publiko partikularra gaitzets daitekeela berak bere jokaera indibidua-larekiko publiko orokorrak jende guztiarekiko duen aginpide berbera duela baieztatzearren.

Baina suposaturiko kasuetara jo barik, gaur egun ere askatasun-usurpazio handiak gertatzen dira bizitza pribatuan, eta are handiagoak ditugu mehatxuka, arrakasta izan dezaketenak, eta iritziak adierazten dira, baieztatzen dutenak publikoak mugagabeko eskubidea duela ez bakarrik bere ustez txarra dela uste duen guztia debekatzeko, baizik, txarra dela uste duen orotara seguru irits dadin, errugabetzat onartzen dituen hainbat gauza ere debekatzeko.

Neurrigabekeria eragozteko dela eta, kolonia ingeles bateko eta Estatu Batuen ia erdiko biztanleriari irakindako edariaren erabilpen oro debekatu zaio, medikuntza helburuetarako izan ezik: izan ere, edarion salmenta debekatzea, izatez eta nahi izan den moduan, euron erabilpena debekatzea baita. Eta legea indarrean jarri zuten zenbait estatutan, izena eman dioenean bertan ere, betearazi ezinak derogatu beharra ekarri duen arren, gure herrialdean ere antzeko lege bat erdiesteko agitzio-ahalegin bat jarri da abian eta gure filantropo profesional askok jarraipena eman diote arta handiz. Horretarako eraturiko elkarteak edo «Aliantza»-k, bere buruari jarritako izenaz esanda, entzute zenbait lortu du, bere idazkariaren eta politikari baten iritziek printzipioetan oinarrituak izan behar dutela uste duten gizon publiko ingeles bakanetako baten arteko gutunei emandako publizitateari esker. Espero izatekoa da Lord Stanleyk korrespondentzia honetan izandako parte-hartzeak sendotu egingen dituela zenbaitzuen esperantzak, hain zuzen ere hark bere zenbait agerpen publikotan erakutsitako gaitasunak bizitza politikoan ageri direnengan, zoritxarrez, zein bakanak diren dakitenek berarengan jarritakoak. Aliantzaren organoak, zeinak «barru-barrutik deitoratuko lukeen fanatismoa eta jazarpena justifikatzeko balioko lukeen edozein printzipio onartzea», bere

gain hartu du agerian jartzea printzipio horiek elkartarenetatik banantzen dituen «hesi zabal eta zeharkagaitza». «Pentsamenduari, iritziari, kontzientziari buruzko gai guztiak –dio– legeriatik kanpo daudela deritzot; gizarte ekintzei, azturei, harremanei dagozkien gauzak soilik daude Estatuari berari, eta ez gizabanakoari, esleituriko eskumenaren barruko boterearen mende». Ez da aipatzen hirugarren mota bat, bi horietatik diferentea, hau da, sozialak barik indibidualak diren ekintza eta azturak, nahiz eta irakindako likoreak edatea, segur aski, mota honexetakoa den. Irakindako likoreak saltzea, hala ere, merkataritza da, eta merkataritza gizarte ekintza da. Baina erreklamatzeko den urraketa ez da saltzailearen askatasunarekikoa, eroslearen eta kontsumitzailearen askatasunarekikoa baizik, zeren berdin baita Estatuak ardoa edatea debekatzea nahiz hura eskuratzeko inolako modurik ez uztea. Idazkariak, ordea, dio: «Hiritar naizenez, nire gizarte eskubideak beste baten gizarte ekintzak inbadituak diren guztian legeak egiteko eskubidea erreklamatzeko dut». Eta jarraian «gizarte eskubideok» honelaxe definitzen ditu: «Ezerk inbaditzen baditu nire gizarte eskubideak, edari gogorren trafikoa inbaditzen ditu. Nire segurtasun eskubidea, lehen mailakoa, deuseztatzen du, desordena soziala sortuz eta suspertuz. Nire berdintasun eskubidea inbaditzen du, miseria sortzetik onura ateraz, horretarako zerga neuri ezartzen didatelarik. Garapen moral eta intelektual liberarako daukadan eskubidea galarazten dit, nire bidea arriskuz betez eta elkarrekiko laguntza eta harremanak eskubidez galda niezazkiokeen gizartea ahuldu eta desmoralizatuz». «Gizarte eskubideen» teoria bat da hori, lehenago ezberdinki formulaturikoarekin segurutik inolako antzekotasunik ez duena, hauxe besterik esan nahi ez duena: gizabanako orok daukala gizarte eskubide osoa beste edozein gizabanakok behar bezalaxe joka dezan orori dagokionez; hutsegite txikienak, beraz, nire gizarte eskubidea urratzen du eta eskubidea ematen dit legebiltzarrari injustizia ken dezan eskatzeko. Hain printzipio hastangarria edozein askatasuneragotze baino arriskugarriagoa da; ez dago printzipio horrek justifikatuko ez lukeen askatasun-uraketarik; ez du onartzen ezelako askatasunerako eskubiderik, agian iritziak, inoiz ere agertu gabe, sekretuan gordetzeko askatasuna izan ezik; zeren nik kaltegarritzat dudan iritzi bat norbaiten ezpainetatik ateratzen den une berean, Aliantzak ematen dizkidan «gizarte eskubide» guztiak inbaditzen ditu. Doktrina horrek gizaki guztiei esleitzen die elkarren perfekzio moral, intelek-

tual eta are fisikoa ere interes bat, auzi-jartzaile bakoitzak bere irizpidearen arabera definitu behar duena.

Gizabanakoaren askatasun bidezkoan esku-sartze bidegabekoaren beste adibide bat, kasu horretan mehatxu hutsa barik aspalditik arrakastaz buruturiko zerbait dena, zapatuari buruzko legeria da. Zalantzarik ez, egunero egin ohi dugun lana astean behin uztea, bizi-tzako beharrianek uzten diguten heinean, ohitura arrunt onuragarria da, nahiz eta inorentzat ez den, juduentzat izan ezik, betebeharrilijio-soa. Eta ohitura hori langile klaseen arteko adostasun orokorrik gabe bete ezin denez eta, beste alde batetik, zenbait lagunek lan eginez gero behar hori besteei ere inposatzea gerta daitekeenez, onargarria eta bidezkoa izan liteke legeak bakoitzari bermatzea besteei ere beteko dutela legea, horretarako egun jakin batean industriaren jarduna geldiaraziz. Baina justifikazio hori, gizabanako bakoitzak praktika hori bete dezan besteei duten interesean oinarritua, ez da aplikatzen nork bere aisialdiarako egokitzen aukeraturiko zereginari dagokienez; eta inondik ere ezin da onartu jo dibertsioen legeko murrizketa. Egia da batzuen dibertsioa besteen lana dena; baina askoren plazarak, eta are gehiago jostaketa baliagarriak, merezi du gutxienean lana, zeregina askatasunez aukeratu eta askatasunez utzi daitekeena izanez gero. Langileek arrazoi osoa dute uste izatean igandez denek lan eginen balute, zazpi eguneko lana egin beharko luketela sei eguneko soldataren truke; baina lanik gehien-gehienak geldiarazten diren hainbatean, besteei gozatzeko lan egin behar duten gutxiak irabazien gehikuntza proportzional bat lortzen dute, eta ez daude lan horretan segitzera beharturik, irabazia baino atsedena nahiago izanez gero. Beste erremedio bat gura izanez gero, horrelakoentzat asteko beste egunen bat jaiegun ezartzea baino ez da behar. Igandez dibertsioak galaraztea defendatzeko arrazoi bakarra, beraz, horrelakoak erlijio aldetik gaitzesgarriak izatea behar du izan; legea egiteko motibo bat bera, zeinaren kontra sekula ere ez den gogorregi protestatuko. «*Deorum injuriae Diis curae*». Frogatzeke gelditzen da ea gizarteak edo bere funtzionarioen batek hartu duenentz goietatik Ahalguztidunaren kontrako ustezko irainengatik, aldi berean gure lagun hurkoentzat inolaz ere okerra ez direnengatik, mendeku hartzeko eginkizuna. Bestea erlijio-soa izan dadin saiatzeko gizakiaren eginbeharra delako ideia izan da burutu izan diren jazarpen erlijioso guztien oinarria, eta, onartuz gero,

zeharo justifikatuko lituzke guztiak. Nahiz eta igandetan trenez bidaiatzea galarazteko behin eta berrizko ahaleginetan, Museoak zabaldu nahi ez izatean eta antzekoetan ageri den sentipenak ez duen antzinako jazarleen krudelkeriarik, erakusten duen gogo egoera funtsean bera da. Erabaki sendoa da, besteei beren erlijioak uzten diena egiten ez lagatzeko, zergatik eta jazarlearen erlijioak horrelakorik lagatzen ez duelako. Horrelakoek Jainkoak fedegabearen ekintza gorrotatu egiten duela bakarrik ez, baizik gu geu ere, fedegabea baketan uzten badugu, ez gaituela errugabetzat hartuko sinesten dute.

Ezin diot eutsi giza askatasunari eskaintzen ohi zaion begirune urriaren adibide horiei beste bat gehitzeko gogoari, hots, herrialde honetako prentsak, beti ere mormonismoaren fenomeno aipagarriaz ari denean, darabilen jazarpen garbiko hizkerarena. Asko hitz egin daiteke guretzat irakasbide den ezusteko gertakari batez, alegia, ustezko errebelazio berri batean eta beronetan oinarrituriko erlijioan, iruzur nabarmen baten fruitu den eta bere fundatzailearen ezohiko dohaien *itzalik* ere ez duen erlijioan, ehunka eta milaka lagunek sinesteaz, halatan sinesteaz gainera, non gizarte baten oinarri bihurtu duten egunkarien, trenbideen eta telegrafo elektrikoaren aroan. Hemen axola diguna da erlijio horrek, beste erlijio hobeek bezalaxe, bere martiriak dauzkala; erlijio horren profeta eta fundatzailea, bere predikuengatik, heriotzara eraman zuela jendaila talde batek; bertara atxikitako beste batzuek bizia galdu zutela bortizkeria bidegabeko bera bitarteko; indarrez egotzi zituztela, denak batera, jaio ziren herritik; eta orain, basamortu baten erdian dagoen leku bakarti batera jaurtiak izan direnean, gure herrialde honetako askok garbi diote bidezko litzatekeela (komenigarri ez baina) haien kontra espedizio bat bidaltzea, haiek guztiak indarrez behartzeko gainerako jendearen iritziarekin bat etortzera. Tolerantzia erlijiosoak jarri ohi dituen kontrolak horrela apurtzen dituen eta antipatia horren eragile nagusia den doktrina mormoiaren artikulua poligamia onartzen duena da, zeinak, mahometarrei, indioei eta txinatarrei libre uzten bazaie ere, ikusezin itzalgaizta pizten duela baitirudi, ingelesez mintzo den eta kristau mota bat direla dioen jendeak praktikatzten duenean. Inork ez du nik baino sakonkiago gaitzesten instituzio mormoi hori; beste arrazoi batzuk albo batera utzita, askatasunaren printzipioan nolabait ere oinarriturik egotetik urrun, printzipio hori zuzenean urratzen duelako,

komunitatearen erdiaren kateak errematxatu besterik egiten ez duenez gero, beste erdia haiekiko betebeharretik libre utzita. Hala ere gogoan izan behar da erlijio hori, bertan biktimak diruditen emakumeentzat, beste edozein ezkontza-instituzio bezain borondatezkoa dela; eta horrek arrunt harrigarria dirudien arren, munduan komun diren ideia eta ohituretan du esplikazioa, izan ere, bi horiek emakumeei ezkontza beharrezko gauza bakarra dela uste izaten irakasten dienez gero, ulergarria baita emakume askok nahiago izatea gizon baten zenbait emaztetariko bat izan, ezkondu barik gelditu baino. Beste nazioei ez zaie eskatzen ezkontza horiek ontzat hartzea eta populazioaren zati bat euren legeen loturatik askatzea iritzi mormoiengatik. Baina disidentek bidezki eska dakiekeena baino askoz gehiago eman dietenean beskeen etsaitasunezko sentimenduei, euren doktrinak onartezintzat ukaniko herrialdeak utzi eta lekutako bazter batean bizitzen jarri direnean, eurak izanik paraje hori gizakiak bizitzeko moduan egokitu duten lehenengoak, zail da ikusten zein printzipiotan, tiraniarenetan ez bada, oinarrituta galaraz dakiekeen han nahi duten legeen pean bizitzea, beti ere beste nazioei erasorik ez egitekotan eta hango bizimoldeekin konforme ez daudenei handik irteteko eskubide osoa ematekotan. Oraintsuko idazle batek, zenbait ikuspegitik merezimendu handikoa bera, komunitate poligamo horrentzat gurutzada bat barik (haren hitza erabilia) *zibilizada* bat egitea proposatzen du, berak zibilizazioan urrats atzerakorra deritzonari amaiera emateko. Nik ere hala deritzot, baina ez dakit ezein komunitatek ere daukan beste bat zibilizatu izatera behartzeko eskubiderik. Lege txarraren biktimek beste komunitatei laguntza eskatu ezean, ezin dut onartu haiekin inolako harremanik ez duen jendeak hara joan eta bertan interes zuzena duten guztiek pozik onartzen duten egoera bati amaiera emateko galdatzea, zergatik eta milaka miliatara dagoen eta han parterik ez interesik ez duen jende batentzat hura eskandalua delako. Igorri misiolariak, hala nahi bada, egoera horren kontra predika dezaten, eta erabil ditzatela bidezko bitartekoak (beraien artean ez dago maisuak isilaraztea), horrelako doktrinei euren herrian aurrera egiten ez uzteko. Zibilizazioa basakeriari nagusitu bazaio basakeria munduan nagusi zenean, gehiegikeria da orain basakeria, menpean hartua izan ondoren, suspertuko ote den eta zibilizazioa konkistatuko ote duen beldur izatea. Zibilizazio batek azpiraturiko etsaiaren aurrean lur jo dezan, halako gainbeheratze mailara helduta egon behar du lehenago, non ez bere apaiz eta maisuek ez

beste inork ere ez dukeen beraren alde egiteko gaitasunik ez lan hori bere gain hartzeko gogorik. Zibilizazio hau horrela badago, zenbat arinago desagertu, hobe. Txarretik txarragora joan beste irtenbiderik ez du, harik eta barbaro kementsuek (Mendebaldeko Inperioa bezalaxe) zibilizazio hori suntsitu eta birsortu arte.

V APLIKAZIOAK

Orrialdeotan baietsitako printzipioak orokorkiago onartu behar dira xehetasunen eztabaidarako oinarri moduan, gobernuaren eta moralaren adar ezberdinetara arrakasta izateko aukeraz aplikatzen saiatu ahal izan aurretik. Xehetasun kontuetan egin nahi ditudan ohar urriak printzipioak argitzeko pentsatuak dira, printzipiook azken ondorioetara eramateko baino areago. Aplikazioak baino gehiago aplikazio laginak eskaintzen ditut, Saiakera honen doktrina guztia osatzen duten bi maximen esanahia eta mugak argiago ikusten eta, biotako zein zaion kasuari aplikagarri zalantzan ageri denean, euron arteko orekari eutsiz nork bere irizpena egiten laguntzeko balio lezaketanak.

Maximak hauexek dira: lehenengoa: gizabanakoa ez dela gizartearen aurrean erantzule bere egintzengatik, egintzok bere interesekin beste inorenekin zerikusirik ez duten heinean. Aholkua, irakaspena, limurtzea, eta besteek beren onerako behar izanez gero gizabanako hori saihestu eta bakarrik uztea dira gizarteak dituen bitartekoak, horrelakoaren jokaera gogoko ez duela edo gaitzetsi egiten duela justifikazio osoarekin adierazteko. Bigarrena: gizabanakoa erantzule dela besteen interesetarako kaltegarri diren egintzengatik, eta zigor legala edo soziala ezar dakiokela, gizarteak irizten badio bata nahiz bestea beharrezkoa dela bere babeserako.

Lehenik, ez da inola ere uste izan behar ezen, gizartearen esku-sartzea besteei euren interesetan egindako kalteak edo kalte arriskuak bakarrik justifikatzen duelako, horrek beti justifikatzen duenik esku-sartze hori. Kasu askotan gizabanakoak, bidezko xede bat erdietsi nahian dabilela, nahitaez eta, beraz, bidezki min ematen edo galera eragiten die besteei, edo erdiestea espero duten gauza onen bat lortzea eragozten die. Gizabanakoen arteko interesen aurkakotasun horiek

gizarte erakunde txarretatik sortzen dira sarri, baina ekidinezinak dira erakundeok dirauten artean, eta batzuk edozein erakunderen pean ere ekidinezinak lirateke. Profesio jendetsu batean edo lehiaketa bateko azterketan arrakasta duen nornahik, bik nahi duten zerbait lortzeko lehian bestea bazter utzita aukeratua den nornahik, onura ateratzen du besteen galera, alferreko ahalegin eta etsipenetik. Baina, onarpen komunez, gizateriaren interes orokorrerako hobe da gizakiak euren helburuak lortzen saiatzea, horrelako ondorioak direla-eta atzera egin gabe. Beste hitz batzuekin esanda, zapuzturiko lehiakideei gizarteak ez die onartzen horrelako sufrimenduetatik immune izateko eskubiderik, ez legalik ez moralik; eta interes orokorra kontuan edukita onartezinak diren bitartekoak, hala nola, iruzurra, azpikeria edo indarra erabili direnean bakarrik sentitzen du gizarteak esku hartzeko beharra.

Berriz esatea komeni da: merkataritza gizarte ekintza da. Publikoari nolanahiko salgaiak saltzen lan egiten duen nornahik beste batzuen eta oro har gizartearen interesak ukitzen dituen zerbait egiten du; eta, beraz, horrelakoaren jokaera, lehenengo eta behin bederen, gizartearen jurisdikziopean dago; horren arabera, garai batean baietsi zen prezioak finkatzea eta fabrikazio prozesuak arautzea gobernuen eginbeharra zela, garrantzizkotzat jotako kasu guztietan. Baina gaur onartzen da, lehenago borroka luze bat eginda baina, produktuen merketasuna eta kalitate ona tinkoago segurtaturik gelditzen direla ekoizleak eta saltzaileak erabat libre utziz, erosleek nahi duten lekuan eros-teko askatasun berdina edukitzea izanik mugaketa bakarra. Hori librekanbioko doktrina deritzana da, Saiakera honetan aldarrikaturiko gizabanakoaren askatasun printzipioaren oinarrietatik diferenteak, nahiz eta maila berean sendoak, diren oinarriak dituen. Merkataritzari edo salerosketa-xedeetarako produkzioari jarritako mugak benetako hertsapenak dira, eta hertsapen oro, *qua* hertsapen, txarra da; baina hemen aztergai ditugun hertsapenek gizartea hertsatzeko eskudun den jokararen zatia besterik ez dute ukitzen eta euron bidez erdietsi nahi diren emaitzak eragiten ez dituztelako soilik dira txarrak. Askatasun indibidualeko printzipioa librekanbioko doktrinan inplikaturik ez dagoen bezala, ez dago doktrina horren mugei buruz sortzen diren auzi gehienetan ere, hala nola, zer neurritako kontrol publikoa den onargarria aizuntze bidezko iruzurrean, zenbateraino behar daitezkeen enpleguemaileak osasun goitapenak edo lan arriskugarrietan langileak babes-

tekoak hartzera, eta horrelako auzietan. Horrelako auziek, jendea bere kontura uztea, *coeteris paribus*, kontrolpean jartzea baino hobea den aldetik bakarrik inplikatzan dituzte askatasun ikuspegiak; baina printzipio ukaezina da zilegitasunez kontrola daitezkeela aipaturiko xedetarako. Bestalde, badira merkataritzan esku-sartzeari dagozkion auziak, muinean askatasun auziak direnak, hala nola Maine Legea, jada aipatua, opioa inportatzeko debekua Txinan, pozoien salmentari jarritako mugak, eta, labur esanda, merkantzia bat eskuratzea ezinezko edo zail egiteko esku-sartzez ebazten diren kasu guztiak. Esku-sartzeoi jar dakizkieke oztopoak, ez ekoizlearen edo saltzailearen, baizik eroslearen askatasuna urratzen dutelako.

Adibideotako batek, pozoien salmentarenak, auzi berri bat planteatzen du: polizi funtzioak dei dakiekeenenez berezko mugak; noraino inbadi daitekeen bidezki askatasuna, krimena edo istripua prebenitzeko. Gobernuaren funtzio bat, eztabaidatik kanpo dagoena, krimenaren kontrako goitapenak krimena gauzatu aurretik hartzea da, gauzatu ondoren deskubritu eta zigortzea den bezalaxe. Gobernuaren prebentzio funtzioan, hala ere, funtzio zigortzailean baino askoz errazago abusa daiteke askatasunaren kaltetan, zeren nekez aurkitu ahal izanen baita gizaki baten ekintza-askatasun bidezkoaren zati bat, delinkuentzi era baterako edo besterako erraztasunak gehitzen dituela onartu beharrik ez duena. Hala ere, agintari publiko batek edo are lagun pribatu batek norbait nabariki krimen bat egiteko prestatzen ari dela ikusten badu, ez dago beharturik ezer egin gabe begira gelditzera harik eta kriminalak krimena burutu arte, esku hartu bailezake krimena eragozteko. Pozoiak jendea hiltzeko bestetarako inoiz erosiko ez erabiliko ez baliara, zuzen legoke haien fabrikazioa eta salmenta debekatzea. Baina kalterik gabeak ez eze baliagarriak ere izan daitezke, eta mugak ezin dira kasu batean jarri, bestean eraginik izan gabe. Gainera, agintaritzako publikoari dagokion zeregina da istripuen kontrako babesa. Funtzionario publiko batek edo beste edozeinek norbait arriskutsu deklaraturiko zubi bat pasatzen ikusten badu, eta arriskuaz ohartarazteko denborarik ez balu, heldu ahal izanen lioke pertsona horri eta atzera egitera behartu, haren askatasuna ezertan urratu gabe, zeren askatasuna norberak nahi duena egitean baitatza, eta hark ez du ibaira jausi nahi. Hala ere, gaitza ziurra barik gaitz arriskua baino ez denean, lagunak berak, ez beste inork, ebatz dezake arriskuan sartzera eramanez lezaketen motiboak

behar bezainbestekoak diren ala ez: kasu horretan, beraz, (pertsona hori haur bat ez bada, edo pentsamenaren erabilera betea eragozten dion nolabaiteko eldarnio, artegatasun edo oharkabetasun-egoeran ez bada-go) nire ustez arriskuaz ohartarazia izan behar du, baina ez zaio erago-tzi behar arriskuan sartzea. Horrelako gogorakizunek, pozoien salmen-taren auziari aplikatuta, gai egin gaitzakete posible diren erregulazio era diferenteen artean printzipioaren kontrakoak zein diren eta zein ez diren erabakitze. Droga arriskutsua dela adierazten duen hitzen bat etiketan idaztea bezalako goitapena, adibidez, askatasuna urratu gabe inposa daiteke; ezinezkoa da erosleak jakin gura ez izatea berak daukan gauza batek gai pozoitsuak dituela. Baina kasu guztietan medikuaren ziurtagiria galdatzeak batzuetan ezinezko eta beti ere garesti bihurtuko luke artikulua bidezko erabilpenerako erostea. Horrelako baliabidez buruturiko krimenei, gai pozoitsuak beste zerbaitetarako nahi dituzte-nen askatasuna urratu gabe, oztopoak jartzeko era bakarra, nire ustez, Benthamek hain egokiro «aldeztatik eraturiko frogak» deitu zuena xedatzean datza. Aurreikuspen hori oso ezaguna da kontratuen kasuan. Ohikoa eta bidezkoa da kontratua egitean legeak, bera betetzera behar-tzeko baldintza bezala, zenbait formalitate gorde daitezen galdatzea, hala nola, sinadurak, lekukoen testigantza eta horrelakoak, gero liska-rrik sortuz gero kontratua egin zela eta ez zela hura baliogabetzeko moduko zirkunstantziarik egon frogatu ahal izateko, horren ondorioa zera delarik, alegia, oztopo handiak jartzea kontratu faltsuak edo eza-gutuz gero baliogabeturik utziko lituzketen zirkunstantzietan egindako kontratuak egiteko. Antzeko goitapenak ezar litezke krimenak egiteko tresnatzat balio lezaketen artikulua saltzeari dagokionez. Saltzailea behar daiteke, adibidez, erregistro batean idaztera salmentaren data doia, eroslearen izena eta helbidea, salduriako kantitatea eta kalitatea zehazki, baita erosleari artikulua zertarako nahi duen galdetzerako eta erantzunak jasota uztera. Medikuen agindurik ez badago, hirugarren lagun baten presentzia galdatzeak eroslearen nortasuna egiaztatze-ko, geroago artikulua xede kriminaletarako erabili izan dela uste izateko arrazoirik sortuz gero. Aipaturiko erregulazioak ez lirateke, oro har, artikulua eskuratzeko eragozpen materiala, baina bai eragozpen handi bat inor ohartu gabe haren erabilpen desegokia egiteko.

Krimenen kontra bere burua aldeztatik aurreko neurriez babesteko gizarte-ari datzekion eskubideak muga nabariak iradokitzen ditu zera

dioen maximari dagokionez, alegia, norberarekiko bakarrik txarra den jokaerak ezin duela jaso ez prebentzio ez zigor neurririk. Hordikeria, adibidez, kasu normaletan, ez da legez zehazki eragozgarria; baina erabat bidezkotzat nuke nik noizbait edanaren eraginpean besteekin indarkeria erabiltzeaz konbiktu dena beretzako beren-beregi pentsaturiko lege-muga berezi baten pean jartzea, eta, gero edanda aurkituz gero, horrelakoari zigorra ezarri ahal izatea, eta, egoera horretan beste norbaiti okerren bat eginez gero, oker horrengatik zigor gogorragoa ezartzea. Mozkorra harrapatzea, hordi egoteak beste min ematera bultzatzen duen batengan, besteen kontrako krimena da. Era berean, alferkeria, publikoarengandik laguntza hartzen duenarengan izan ezik, edo kontratu-haustea denean izan ezik, ezin da tiraniarik gabe legez zigortu; baina alferkeriagatik edo ekidin daitkeen beste edozergatik, norbaitek besteekiko legezko betebeharrak betetzen ez baditu, seme-alabak mantentzekoa, adibidez, ez da tirania horrelakoa bere betebeharrak hori betetzera behartzea derrigorrean lan eraginda, beste modurik ezean.

Gainera, badira beste ekintza asko, egileentzat bakarrik direlarik kaltegarri, legez galarazi behar ez liratekeenak, baina jendaurrean eginez gero, gizalegearen urratzea direnak eta, hartara besteen kontrako irainen kategorian sartzen direnez gero, bidezki debeka daitezkeenak. Mota horretakoak dira itxura onen kontrako hutsak; horretaz ez dago gehiago ekin beharrik, are gehiago zeharka baino ez dagoelako gure gaiarekin loturik, zeren jendaurrekotasunaren kontrako arrazoia era berean indartsua baita berez gaitzesgarriak ez diren eta hartakotzat ere ez dauden ekintza askoren kasuan.

Bada beste auzi bat, hemen ezarri diren printzipioekin koherentea datekeen erantzuna aurkitu behar zaiona. Ustez gaitzesgarriak den, baina askatasunarekiko errespetuak, zuzenean sortzen den gaitzak egilea bakarrik ukitzen duelako, gizarteari galarazten edo zigortzen uzten ez dion jokaera pertsonalaren kasuetan, egileak ekintza hori libreki egin dezakeen bezala, beste batzuek hark bezain libreki aholkatu eta zirikatu al dezakete gauza bera egitera? Auzi hori ez da zailtasunik gabekoa. Beste bati ekintza bat egin dezan eskatzen dionaren kasua ez da hertsiki norberarekiko jokaeraren kasua. Norbaiti aholkua ematea edo zerbait egitera bultzatzea gizarte ekintza da eta, horrengatik, besteengan eragina duten ekintza guztietan bezala, gizar-

te kontrola ezar dakioke. Baina hausnarketa txiki bat nahikoa da lehenengo inpresioa zuzentzeko, agerian jartzen baitu ezen, kasua askatasun indibidualaren definizioaren hertsiki barruan ez dagoen arren, aplikagarri zaizkiola askatasun indibidualaren printzipioaren oinarri diren arrazoiak. Jendeari, norberari bakarrik dagozkion gauzetan, berak ondoen deritzon moduan eta bere gain eta galorde jokatzeko utzi behar bazaio, era berean libre eduki behar du elkarrekin kontsultatzea zer egitea komeni den, ildo horretan iritziak trukatu eta iradokizunak eman eta hartzeko. Zerbait egitea onartua bada, berori egitea aholkatzea ere onartu behar da. Zirikatzaileak aholkutik beretzako onuraren bat ateratzen duenean bakarrik bihurtzen da auzia dudazko; haren lanbidea, bizitzeko edo dirua irabazteko, gizarteak eta estatuak gaiztat dutena bultzatzea denean. Orduan, benetan ere, konplikazio elementu berri bat sartzen da, haxe zehazki, guztion ontzat dagoenaren kontrako interesak eta on horrentzako oztopo diren bizitzeko erak dituzten pertsona motak egotea. Esku sartu beharra ote dago ala ez ote dago horretan? Larrua jotzea, adibidez, baita jokoa ere, toleratu egin behar dira; baina libre al da edonor proxeneta izateko edo jokoetxe bat edukitzeko? Kasua printzipio biren arteko banalerroan doidoi dauden horietakoa da, eta ez da behingoan nabaritzen bietako zein dagokion zehazki. Alde bietan daude arrazoiak. Toleratzearen alde esan daiteke ezen bestela onargarri litzatekeen zerbait bizitzeko edo aberasteko lanbide moduan hartzeak ezin duela kriminal bihurtu zerbait hori, ezen ekintza hori koherentziaz beti permititu edo beti debekatu behar litzatekeela, ezen, orain arte defenditu ditugun printzipioak egiazkoak badira, gizarteak ez duela zereginik, gizarte *moduan*, gizabanakoari bakarrik dagokiona txarra den erabakitzeari dagokionez, ezen gizartea ezin dela joan disuasiotik harago eta laguna nor-nahi zerbaitetara limurtzeko libre dela, hain zuzen ere beste bat nor-nahiri daukan asmoa burutik kentzeko bezain libre. Horren aurka esan daiteke ezen, publikoak edo Estatuak gizabanakoaren interesak soilik ukitzen dituen jokaera hori edo bestea, errepresioari edo zigorrari begira, ona ala txarra den aginpidez erabakitzeko eskubiderik ez duen arren, justifikazio guztiarekin esan dezakeela, baldin berak txartzat badauka, gutxienez eztabaidagarria dela horrela den ala ez. Hori suposatuz, ezin lezake gaizki joka Estatuak edo publikoak, desinteresatuak ez diren eskaerak eta inpartzialak izan ezin diren zirikatzaileen eragina baztertzean, zeren zuzeneko interes pertsonala hain

zuzen ere Estatuak txartzat daukan aldetik edukitzez gain, euren aitortu bezala helburu pertsonaletarako sustatzen baitute. Segururik, alega liteke, ez da ezer galtzen, ezta ona den ezeri uko egiten ere, pertsonak beren aukera, zuhurki edo burugabeki, baina beren erabakiz eta beren joerak euren helburu pertsonaletarako kilikatzen dituztenen amarruetatik ahalik libreen egiteko moduan gauzak atontzen direnean. Hartara (esan daiteke), legez kanpoko jokoekiko estatutuak zeharo defendaezinak diren arren –nahiz eta jende oro libre izan norbere etxean edo besteenean, edo euren diruaz eraturiko eta kideentzat eta bisitarientzat bakarrik zabalik dauden txokoetan jokoan jarduteko–, hala ere joko-etxe publikoek debekaturik egon behar lukete. Egia da debekua ez dela inoiz eraginkorra eta, poliziari emandako botere tiranikoa litekeen handiena izanda ere, joko-etxeak beti gorde ahal dira beste zerbaiten itxurapean; baina behar daitezke beren jarduerak sekretu eta misterio maila batekin egitera, hartara bila dabiltzanak baino ez dezaten etxeon berririk izan; eta gizarteak ez luke hori baino gehiago egiterik nahi izan behar. Indar handia dute argudiook. Ez naiz ausartuko erabakitzen ea, funtsezkoa libre uzten (eta utzi behar ere) denean, funtsezkoa ez dena zigortzea den anomalia morala justifikatzeko adinakoak direnentz argudiook, hau da, proxeneta bai, baina larru-jotzailea ez, joko-etxearen ugazaba bai, baina jokalaria ez isuntzea edo espetxeratzea justifikatzeko modukoak. Are gutxiago eragotzi behar dira, arrazoi horietan oinarrituta, ohiko salerosketak. Erosi eta saldutako ia artikulua oro gehiegikeriaz erabil daiteke eta saltzaileak gehiegikeria hori bultzatzeko diru-interesa du; baina hori ezin da izan, adibidez, Maine Legearen aldeko argudioa, edari gogorren saltzaile klasea, edarion abusuan interesa eduki arren, behar-beharrezkoa delako edarion erabilpen bidezkorako. Baina saltzaileek neurrigabekeria bultzatzeko duten interesa benetako gaitza da eta justifikaturik uzten du Estatuak haiei mugak jartzea eta bermeak galdatzea, nahiz eta horrelakoak, justifikazio horregatik ez balitz, bidezko askatasunaren urrapenak lirakeen.

Beste auzi bat da ea Estatuak, egilearen interesik hoberenen kontraktotzat duen jokaera bat toleratu arren, hala ere, jokaera horretan jarraitzea zeharka zaildu behar lukeenentz; ea, adibidez, mozkortzeko bitartekoak garestiago atera litezen neurriak hartu behar lituzkeen, edo eurok eskuratzeko zailtasuna gehitu saltegien kopurua

mugatuz. Horri buruz, beste arazo praktiko askori buruz bezalaxe, bereizkuntza asko egin beharra dago. Bizigarriei zergak ezartzea, erostea zailago izan dadin, zeharo debekatzetik graduz baino ezberdina ez den neurria da, eta hori justifikagarria balitz soilik litzateke hura ere justifikagarria. Kostua gehitze oro debekua da gehituriko preziora heltzerik ez duten guztientzat; eta heltzen direnentzat, gustu partikular bat asetzeko ezartzen zaien zehapen bat da. Euren plazeren aukera eta euren dirua gastatzeko era, behin Estatuarekiko eta besteekiko betebeharrak bete dituztenean, euren kontua da, eta ez beste inorena, eta, beraz, euren irizpidera geratu beharrekoa. Lehen ikusian eman lezake bizigarriak haziendarako zergagarri berezitat aukeratzea gaitzesten dutela. Baina gogoratu beharra dago ezen xede fiskaletarako zergak ezartzea erabat ekidinezina dela; ezen herrialderik gehienetan beharrezkoa dela ezartze horren zati handi bat zeharkakoa izatea; ezen Estatuak, horregatik, ezin duela ekidin kontsumo gai batzuen gain zehapenak, batzuentzat debekatzaileak izan daitezkeenak, ezartzea. Horregatik Estatuaren eginbeharra da, zergak ezartzean, kontuan izatea zein diren kontsumitzaileak albo batera errazkien utz ditzakeen produktuak, eta, *a fortiori*, lehenengo eta behin bere ustez erabiltzaileentzat, kantitate txiki-txikietan erabili ezean, positiboki kaltegarriak direnak aukeratzea zergak ezartzeko. Bizigarriei zergak ezartzea, beraz, etekinik handiena emateraino (Estatuak zergon bidez lortutako sarrera guztiak behar dituela suposatuta), ametitzeko modukoa ez ezik, onesgarria ere bada.

Produktu horien salmenta zenbaterainoko pribilegio eskusibo bihurtu behar den jakin nahian egindako galderari era ezberdinean erantzun behar zaio, muga zehazki zertarako jarri zaien kontuan hartuta. Publikoa biltzeko diren leku guztiak dute poliziaren kontrolaren beharrezana, eta aipaturiko lekuak era berezian, eurentan batik bat sor daitezkeelako gizartearen kontrako hobenak. Horregatik, egoki da aipaturiko produktuak saltzeko baimena (han bertan kontsumitzeko bada bederen) errespetagarritasuna ezagutua eta bermatua dutenei bakarrik ematea; egoki da, halaber, irekitzeko eta ixteko orduak arautzea zaingo publikoak galdatu bezala, baita lizentzia kentzea ere, baldin, negozioa daramanaren ezikusiarrena egitea edo ezgaitasuna bitarteko, bertan bake publikoa maiz urratzen bada edo legearen kontrako hobenak asmatu eta prestatzeko biltoki bihurtzen bada. Hortik gorako

mugarik jartzeari ez deritzot, hasiera batean bederen, justifikagarri. Garagardoa eta likoreak saltzen dituzten lekuak hain eskura ez edukitzeko eta tentaldirako aukerak gutxitzeko kopuruz mugatzeak baditu bere eragozpenak, hots, ez bakarrik batzuek erraztasunaz abusatuko luketela, baizik hori langile klaseak aitortuki haur eta basati gisa tratatuak eta muga bidez heziak diren gizartearen egoera bati dagokiola, gerora askatasunaren pribilegioetara onartuak izateko gai egin daitezzen. Ezein herrialde libretan langile klaseak ez dira printzipio horretan aitortuki oinarrituta gobernatzeko; eta askatasunari zor zaion balioa ematen dion inork ez du bere baiezkoa emanen langileak horrela gobernatuak izan daitezzen, askatasunerako hezteko eta gizaki libre moduan gobernatzeko ahalegin guztiak egin eta ustel irtenda gero eta haur gisa gobernatzea beste erremediorik ez dagoela frogatu ondoren izan ezean. Alternatibaren azalpen hutsak agerian uzten du zein absurdua den suposatzea aipaturiko ahaleginak egin direla hemen aintzat hartu beharreko ezein kasutan. Herrialde honetako erakundeak inkoherentziazko sare bat direlako bakarrik onartzen dira gure praktikan sistema despotikoari edo, esan ohi zaion moduan, gobernu aitatiarrari dagozkion gauzak, gure erakundeen askatasun orokorrak, oster, bazter uzten duenean hertsapena heziketa moral benetan eraginkor bihurtzeko behar den adina kontrol erabiltzea.

Saiakera honen lehenengo partean adierazirik gelditu da gizabanakoaren askatasunak, gizabanakoari bakarrik dagozkion gauzetan, antzeko askatasuna inplikatzeko duela edozein gizabanako kopururi dagozkionez euren arteko adostasunez eurei talde gisa dagozkien gauzak arautzeko. Gai horrek ez du zailtasunik erakusten, inplikaturiko lagun guztien nahia aldatzen ez den heinean; baina nahi hori alda daitekeenez, beharrezko izaten da sarritan, eurei bakarrik dagozkien gauzetan ere, lagun horiek elkarrekiko konpromisoak hartzea; eta orduan komeni da, arau orokor gisa, harturiko konpromisoak betetzea. Hala ere, arau orokor horrek salbuespenak ditu segurutik herri guztietako legeetan. Ez bakarrik ez dira behartzen pertsonak hirugarren baten eskubideak urratzen dituzten konpromisoak betetzera, baizik, batzuetan, eurentzako kaltegarri izatea ere konpromisoa betetzetik libre gelditzeko nahikoa den arrazoitzat hartzen da. Herrialde honetan, beste herrialde zibilizatu guztietan bezala, pertsona batek harturiko konpromisoa, adibidez, bere burua esklabotzat saltzeko edo beste batek sal

dezan uzteko, ezdeusa eta baliorik gabea litzateke; ez legeak ez iritziak ez luke horrelakorik betetzera behartuko. Norbere biziarekin norberak nahi duena egiteko ahalmenak duen mugaren oinarria agerikoa da eta argi ikusten da muturreko kasu horretan. Pertsona baten nahitako egintzetan, besteen onerako izan ezean, eskurik ez sartzeko arrazoia pertsona horren askatasunarekiko begirunea da. Nahita egin duen hautuak behar bezainbatean bermatzen du aukeratzen duena beretzat guragarria edo, behintzat, eramangarria dela, eta haren ona, oro har, hobeto zaintzen da on hori bilatzeko bitartekoak berari hartzen utzita. Baina bere burua esklabotzat salduz, uko egiten dio bere askatasunari; ekintza bakar horrez geroztiko askatasunaren erabilera orori egiten dio uko. Horrelakoak, beraz, atzera botatzen du bere buruarekin nahi duena egiten uztea justifikatzen duen arrazoia. Ez da jada aske; eta, aurrerantzean, haren jarrera bertan nahita dirauela pentsatzea ez onartzeko modukoa da. Askatasun printzipioak ezin du galdatu norbait aske ez izateko aske izatea. Nork bere askatasunari uko egin ahal izatea ez da askatasuna. Kasu partikular horretan begi-bistako indarrez ageri zaizkigun arrazoiok, argi dago, aplikazio askoz handiagokoak dira; hala ere, bizitzako beharrianek mugatuta ageri dira nonahi eta beharrianok etengabe galdatzen digute, ez nonbait geure askatasunari uko egitea, baina bai modu batera edo bestera berorren mugatzeak onartzea. Hala ere, egileei berei bakarrik dagozkien gauzetan mugagabeko ekintza-askatasuna eskatzen duen printzipioak argi galdatzen du hirugarrenei interesatzen ez zaien gauzetan zerbait betetzera elkar behartu dutenek harturiko konpromisotik libre uztea batak bestea; eta, batak bestea borondatez libre uzterik gabe ere, agian ez dago kontraturik edo konpromisorik, diruari edo diruaren balioari dagozkionak izan ezik, horiei buruz hitza jateko askatasunik ez dagoela esan baitaiteke. Wilhelm von Humboldt baroiak, jada aipatua dudana saiakera bikainean, baieztatzen du berak uste osoz uste duela harreman edo zerbitzu pertsonalak inplikatzan dituzten konpromisoek ez luketela inor legez behartu behar inoiz epe mugatu batetik harago; eta konpromiso horietariko inportanteenak, ezkontzak, berezitasun gisa bien sentimenduak bere xedearekin harmonian jada ez dauden unetik xede hori zapuztuta gelditzea daukalarik, alde bataren zein bestearen nahi deklaratu baina ez lukeela behar deuseztatua izateko. Gai hori parentesi batean eztabaidatzeko baina garrantzitsuago eta korapilotsuagoa da, eta argitzeko beharrezko den neurrian baina ez dut uki-

tuko. Humboldt baroiaren mintzaldiaren laburtasun eta orokortasunak premisak eztabaidatu barik konklusioak enuntziatzearekin konformatzera behartu ez balute, dudarik gabe aitortuko zukeen auzia ezin dai-tekeela erabaki berak, bere burua mugatuta, erabili bezalako arrazoi sinpleetan oinarrituta. Norbaitek, agintza esplizituz nahiz bere jokae-raz beste bat berak ildo beretik jokatzen jarraituko duela uste izatera eramán duenean, hau da, uste horren gainean igurikapenak eta kalku-luak egin eta bere bizitzako planaren zatiren bat eraikitzaera, orduan pertsona horrekiko hainbat betebehár moral berri sortzen zaizkio, zapal litezkeenak, baina ezikusi egin ezin zaienak. Eta, gainera, baldin alde kontratatzaile biren harremanak beste batzuentzat ondorioak eka-rrí baditu, baldin hirugarren bat egoera berezian jarri badu edo, ezkon-tzaren kasuan bezala, hirugarren hori bizitzera ekarri badu, betebeha-rrak sortzen zaizkie alde kontratatzaile bieí hirugarren horiekiko, eta betebehár horiek betetzea, edo edonola ere betetzeko era, kontratuaren jatorrizko alde bien harremanaren jarraipenaren edo hausturaren mende egonen da hein handian. Hemendik ez dator berez, eta ník ezin dut onartu, jarraitzeko gogorik ez duen aldearen zorionaz ordainduta kontratua betetzea galdatzeraino heltzen direla betebehárrak, baina beharrezko elementu díra kontu horretan; eta are, nahiz eta, von Humboldtek deritzon moduan, ez luketen aldatu behár konpromisotik aske geratzeko aldeek duten *legezko* askatasuna (eta neuk ere uste dut ez luketela *asko* aldatu behár), asko aldatu behárko lukete, ordea, ezin-besteaz askatasun *moral*a. Laguna beharturik dago zirkunstantzia horiek guztiak kontuan hartzera, besteen hain interés garrantzitsuetan eragina ukan dezakeen urrats bat egitea erabaki aurretik; eta interés horiei duten garrantzia ematen ez badie, bera izanen da sorturiko kal-teen erantzule. Begi-bistako ohar horiek askatasun printzipio orokorra hobeto argitzeko egin ditut, eta ez gai honetan beharrezko dírelako, zeren auzi hori, aitzitik, seme-alaben interésa dena balitz eta helduena ezer ere ez balitz legez eztabaidatzen baita normalean.

Ohartarazia dut ezen askatasuna, printzipio orokor onarturik ez dagoelako, bermatu egiten dela ukatu behár litzatekeenean eta, berriz, ukatu bermatu behár litzatekeenean; eta europar munduan askatasun sentimendua bizien dagoen kasuetako bat sentimendu hori, ene iduriz, lekuz kanpo dagoen kasu bat da. Lagunak aske behár luke izan nahi duen modura jokatzeko bere aferetan, baina ez luke aske izan behár

beste baten izenean diharduenean, haren arazoak bereak dituela estakurutzat erabilita. Estatua, norberari bereziki dagozkion gauzetan bakoitzaren askatasuna errespetatzen duen artean, beharturik dago kontrol jagole bat hedatzera norberari eman zaion besteeikiko botere ororen erabilerara. Betebehar hori inola ere aintzat hartu gabe gelditzen da familiarteko harremanen kasuan, nahiz eta kasu hori, gizakien zorionean duen eragin zuzenagatik, beste guztiak batera baino inportanteagoa den. Ez dago hemen senarrek emazteengan duten botere ia despotikoaren inguruan luze ari beharrik, gaitz hori erabat ezabatzeko behar den gauza bakarria emazteek beste pertsona guztiek dituzten eskubide berberak eta haiek duten legearen babes bera edukitzea delako, eta, gai horretan, ezarritako injustiziaren defendatzaileak ez direlako askatasunaren aitzakiaz baliatzen, baizik boterearen aldeko sutsu legea aurkezten. Haurren kasuan dauka Estatuak benetako oztopoa bere eginbeharrak betetzeko, kasu horretan askatasun nozioak gaizki aplikatzen direlako. Batek ia-ia uste izanen luke gizon baten seme-alabak literalki, eta ez metaforikoki, gizon horren zati direla, hain arduratsua baita, izan ere, iritzia hark bere haurren gain duen kontrol erabateko eta eskusiboan legeak esku-sartze txikienik izan ez dezan –haren ia edozein ekintza-askatasunetan esku-sartzerik izan ez dezan baino arduratsuagoa, egia esan–, non gizateriak, oro har, askatasuna boterea baino balio txikiagotzat daukan. Har dezagun, adibidez, hezkuntzaren kasua. Ez al da ia-ia axioma berez nabaria Estatuak bere herritar jaiotako gizaki ororen hezkuntza, maila bateraino bederen, galdatu eta ezarri behar lukeela? Baina, hala ere, nor ez da egia hori aitortu eta baieztatzeko beldur? Nekez ukatuko du inork gurasoen (hau da, aitaren, legeak eta usadioak ezarri duten moduan) eginbehar sakratuenetako bat dela, gizaki berri bat mundu honetara ekarri ondoren, gizaki horri hezkuntza bat ematea, bizitzan bere buruarekiko eta besteeikiko dituen betebeharrak ondo betetzeko gai izatera hel dadin. Baina aho batez aldarrikatzen den arren hori aitaren betebeharra dela, ia inork ere ez du, herrialde honetan, onartuko behar daitekeela betetzera. Bere haurraren hezkuntza ziurtatzeko behar diren ahalegin eta sakrifizio guztiak egin ditzan galdatu beharrean, zer eta aukeran uzten zaio hezkuntza hori onartzea edo ez onartzea, doan eskaintzen zaionean! Oraindik ere ez gara heldu onartzera haur bati gorputzerako jatekoa ez eze, gogorako irakaskuntza eta trebakuntza emateko segurtasun oinarritua eduki gabe bizia ematea krimen morala dela bai zori-

gaiztoko ondorengoaren kontra eta bai gizartearen kontra, eta aitak betebeharrak hori betetzen ez badu, Estatuak betearazi behar diola, aitararen kontura, ahal izanez gero.

Hezkuntza unibertsala ezartzeko eginbeharra hasieratik onartuko balitz, amaiera emanen litzaieke Estatuak zer irakatsi behar lukeen eta nola irakatsi behar lukeen planteatzean sortzen diren zailtasunei, egun arazo hori sekta eta alderdien gudu-zelai bihurtzen duten zailtasunak eurak, heziketari eman beharreko denbora eta lana hezkuntzari buruz hika-mikan inbertitzea dakartenak. Gobernuak haur guztientzat hezkuntza on bat *galdatzea* erabakiko balu, berak *emateko* ardura kenduko luke. Libre utz diezaike gurasoei beren haurren hezkuntza nahi duten tokian eta eran erdiestea, eta berak nahikoa luke klase pobreen umeen eskola-gastuak ordaintzen laguntzea, edo inolako modurik ez dutenei gastu guztiak ordaintzea. Estatuaren hezkuntzari arrazoiz jartzen zaizkion eragozpenak ez dira Estatuak hezkuntzako eginbeharra betearazteari buruzkoak, baizik Estatuak hezkuntza zuzentzeko ardura bere gain hartzeari buruzkoak, zeharo ezberdina den kontua edonola ere. Jendearen hezkuntza guztia edo zati handi bat Estatuaren eskuetan egotea horren kontra dagoen edonork bezain indartsu gaitzesten dut. Izaerako banakotasunaren garrantziaz eta iritzi eta jokareta aniztasunaz esan den guztiak garrantzi itzel bereko hezkuntza aniztasuna inplikatzeko du. Estatuaren hezkuntza orokorra asmakizun huts bat da, jendea bata bestearen berdin-berdina izateko moduan moldeatzeko; eta beraiek funditzeko darabilen moldeak Gobernuaren nagusi den botereak gogoko duena denez, dela bera monarkia, teokrazia, aristokrazia zein uneko belaunaldiaren gehiengoa, botere horrek, bere eraginkortasun eta arrakastaren heinean, despotismo bat ezartzen dio gogoari, berezko joeraz gorputzeraino hedatzen dena. Estatuak ezarri eta kontrolaturiko hezkuntza, izatekotan, beste askorekin lehian diharduen esperientzia bat baino ezin da izan, eredu eta zirikatzailerik izateko asmoz eratua, besteak perfekzio maila bateraino bultzatzeko. Ostera, gizartea oro har hezkuntza erakunde egokiak berez ezin eratzerainoko edo ez eratzerainoko atzerapen egoeran dagoenean gobernuak lan hori bere gain hartu ezean, orduan gobernuak bere ardurapean har lezake, hartu, gaitz handi bitarik txikiena lege, eskola eta unibertsitateetako zeregina, kapital sozialeko konpainiena ere har lezakeen moduan, herrialdean ez dagoenean industriako lan handiak buru-

tzeko moduko enpresa pribaturik. Baina, orokorrean, herrialdeak gobernuaren babespean hezkuntza emateko behar adina lagun aditu badauzka, horiexek lirateke gai eta prest egonen lirateke bestea bezain hezkuntza ona emateko, borondatezko printzipioan oinarritua, eta beraien ordainsaria hezkuntza derrigorrezko bihurtuko lukeen lege batek eta gastuei erantzun ezin dietenei Estatuak emandako laguntzak segurtaturik.

Legea betearazteko tresna azterketa publikoa besterik ezin da izan, haur guztiengana hedatua haurtzaroan goiz hasita. Adin bat finka daiteke haur orori azterketa egin dakion derrigor, irakurtzen dakien al ez egiaztatzeko. Haurra irakurtzeko gai ez balitz, aitari, desenkusatzeko behar adinako motiborik eduki ezean, isun txiki samar bat jar dakioke, bere lanarekin ordainduko lukeena beharrezko izanez gero, eta haurra aitaren kontura sar daiteke eskolaren batean. Azterketa urtean behin eginen litzateke berriro zenbait gairi buruz, poliki-poliki gaiak gehituz joanen liratekeelarik, ezagutza orokorren minimo bat hartzea eta batez ere buruan atxikitzea birtualki beharrezko bihurtzeraino. Minimo horretatik gora, borondatezko azterketak egonen lirateke gai guztietan, eurotan aurreramendu mailaren bat erakusten dutenek ziurtagiri bat galdatu ahalko luketelarik. Estatuak neurri horien bidez iritzian eragin kaltegarria ukan dezan eragozteko, azterketa gainditzeko beharrezko ezagutza (ezagutzaren parte instrumentalak, hala nola, hizkuntzak eta euron erabilpena, kanpo utzita) goren mailako azterketetan ere gertakarietara eta zientzia positibora soilik mugatu beharko litzateke. Erlijio, politika edo beste gai eztabaidatu batzuei buruzko azterketak ez dira izanen iritzien egiaren edo faltsutasunaren inguruan, baizik honako iritzi hau oinarri horrekin eta bestearekin autore, edo eskola, edo eliza horrek eta besteak defenditzen dutela dioen izatezko gaiaren inguruan. Sistema horretan, belau-naldi sortu berria ez legoke oraingoa dagoen baino okerrago eztabaidaturiko egia guztiei buruz; bertako kideek sinestun edo disidente aterako lirateke, gaurkoak bezala, eta Estatuaren ardura bakarra sinestun edo disidente ikasiak izan litezen litzateke. Ezerk ere ez luke eragoztziko erlijioa ikastea, gurasoek nahi izanez gero, beste gauza guztiak irakatsiko lizkieketen toki beretan. Estatuak bere herritarren gai eztabaidatuei buruzko konklusioetan eragina izateko egiten dituen ahalegin guztiak gaitz bat dira; baina egokiro eskain dezake bere burua zera

egiaztatu eta ziurtatzeko: norbaitek badituela gai jakin bati buruz atera dituen konklusioak besteek aditasunez aztertzea merezi izateko behar diren ezagutzak. Filosofia ikasle bat izanen litzateke egokiena Locke eta Kanti buruzko azterketa bat egiteko, bata zein bestea begiko luke-larik, edo ez bata ez bestea; eta ez dago eragozpen arrazoizkorik ateo batek kristautasunaren frogei buruzko azterketa egin dezan, euretan sinestea galdatzen ez bazaio. Hala ere, ezagutzaren goi mailetako azterketek, ene ikusiz, erabat borondatezkoak behar lukete izan. Gobernuei botere arriskugarria ematea litzateke norbait bere lanbidetik, are irakasle lanetik, kanporatzen uztea ustezko gaitasun ezagatik; eta Wilhelm von Humboldtekin batera uste dut graduak edo ezagutza zientifiko edo profesionalen ziurtagiri publikoak azterketetara aurkeztu diren eta gainditzu duten guztiei eman behar litzazkiekeela; baina ziurtagiri horiek ez lukete eman behar iritzi publikoak euron testigantzari eman liezaiokeen balioa beste abantailarik gainerako lehiakideekiko.

Hezkuntza gaietan bakarrik ez dira askatasun nozio okerrak oztupo gurasoek beren betebeharrak moralak aitortzen eta legezko betebeharrak ezar daitezela, arrazoi indartsuak daudelarik beti lehenengorako eta kasu askotan bigarrenerako. Gizaki bati izatea ematea bera erantzukizunik handieneko ekintzetako bat da giza bizitzan. Erantzukizun hori norbere gain hartzea –norbaiti madarikazio bat edo benedikazio bat izan daitekeen bizia ematea–, baldin bizia hartzen duenak existentzia guragarri baterako aukera normalak bederen edukiko ez baditu, izaki horren kontrako krimen handi bat da. Eta herrialde gainpopulatua den batean, edo horretarako arriskuan dagoenean, haurrak kopuru txiki-txiki batetik gora sortzea, eta ondorioz sorturiko lehiaren eraginez lansariak murriztea, oker handia da beren lanetik bizi diren guztientzat. Kontinenteko herrialde askotan, ezkongaiak familia aurrera ateratzeko bitartekoak dituztela demostratu ezean ezkontza debekatzen duten legeek ez dituzte gainditzu Estatuaren botere legítimoak; eta legeak baliagarriak izan edo ez izan (zirkuntantzia eta sentipen lokalen mende dagoen kontua), ezin lekietara jar eragozpenik askatasun urraperen gisa. Lege horien bidez Estatuak ekintza gaizto eta besteentzat kaltegarri bat, gaitzespena eta mespretxu soziala merezi behar lukeen ekintza bat, eragozteko esku hartzen du, nahiz eta zigor legalak gehitzea egoki ikusi ez. Hala ere, ohiko aska-

tasun ideiek, hain erraz doazenek gizabanakoari soilik dagozkion gauzetan haren askatasuna urratzera, gizabanakoaren joerak oztopatzeko ahalegin oro arbuaiatuko lukete, amore emate horren ondorioa ondorengo miseria eta gaiztakeriaz beteriko bizitza edo bizitzak direnean, askotariko okerrak ekarriko dizkietenak haien ekintzen irispidean dauden guztiei. Gizateriak alde batetik askatasunari dion errespetu bitxia bestetik daukan askatasun gabezia bitxiarekin alderatzen dugunean, imajina dezakegu gizakiak besteei kalte egiteko eskubide ezinbestekoa duela eta ez duela inori kalterik egin gabe bere gustua egiteko inolako eskubiderik.

Azkenerako gorde ditut Gobernuaren esku-sartzearen mugei buruzko hainbat gai, zeintzuk, saiakera honen gaiarekin hurbiletik loturik dauden arren, ez diren gai horren hertsiki barrukoak. Kasu horietan esku-sartzearen arrazoiak ez dute zerikusirik askatasun printzipioarekin: arazoa ez da ea gizabanakoen ekintzak eragotzi behar diren, baizik ea lagundu behar zaien; galdetzen dena da ea Gobernuak egin edo sustatu behar duen zerbait haien mesedetan, haiek, banaka edo borondatezko konbinazioan, egin dezaten utzi beharrean.

Gobernuaren esku-sartzeari, askatasun urrapenik inplikatzeko ez duenean, jarritako objektzioak hiru motakoak izan daitezke.

Lehenengoa, eginen den gauza gizabanakoek gobernuak baino segurutik hobeto eginen luketenean agertzen da. Orokorki hitz eginda, inor ez da egokiago negozio bat gidatzeko edo nola edo nork gidatuko duen ebazteko, negozio horretan pertsonalki interesaturik daudenak baino. Printzipio horrek argi gaitzesten du legebiltzarraren edo gobernuko funtzionarioen esku-sartzea, behiala hain ohikoa, industriaren prozesu arruntetan. Baina gaiaren zati hori ekonomilari politikoek jorratu dute behar bezainbatean, eta ez du erlazio berezirik saia-kera honetako printzipioekin.

Bigarren objektzioa gure gaitik hurbilago dago. Kasu askotan, balitekeen arren gizabanakoek gauza zehatz bat, batez beste gobernuko funtzionarioek bezain ondo ez egitea, on da, hala ere, gobernuak barik haiek egitea gogamena hezteko bide legez, era bat delarik hori beren ahalmen aktiboak lantzeko, beren irizpena erabiltzeko eta euren ardurapean utzi zaizkien arazoei buruz hurbileko ezagutza hartzeko. Horixe da gomendio nagusi bat, bakarra ez baina, bai auzitegietako prozesuena (politikoak ez diren kasuetan), bai udaletako eta tokiko

erakunde libre eta herritarrena, eta bai borondatezko elkarrekin sortu-
 rikoen enpresa industrial eta filantropikoen zuzendaritzena. Horiek ez
 dira askatasun arazoak, eta gai honekin urruneko joeraz baino ez dute
 zerikusirik; baina garapen arazoak dira. Ez da hori paradarik egokie-
 na gauza horiek hezkuntza nazionalaren zati gisa jorratzeko; izan ere,
 herritar baten heziketa partikularra, herri libre baten hezkuntza politi-
 koaren alde praktikoa, jendea egoismo pertsonal eta familiarren zir-
 kulu estutik ateratzen duena eta guztien interesak ulertzen eta guztien
 arazoak aurrera ateratzen ohitzen duena da, horretarako motibo publi-
 ko edo erdipublikoengatik jokatzeko eta euren jokaera gidatzeko jendea
 bata bestearengandik banandu barik batzen duten helburuak hartzera
 ohituz. Aztura eta botere horiek gabe ezin du funtzionatu ez iraun
 Konstituzio libre batek, askatasun politikoaren izaera maizegi iragan-
 korrak frogatzen duen moduan askatasuna eskubide lokalen behar adi-
 nako oinarrian eraikita ez duten herrialdeetan. Afera lokal soilak
 herriek berek eta industri enpresa handien aferak euretarako diru
 baliabideak jarri dituztenen batzarrak kudeatzea gomendatzen da gai-
 nera, Saiakera honetan garapen indibidualari eta jokatzeko eren aniz-
 tasunari dagokion bentajatzat agertu diren abantaila guztiengatik.
 Gobernuaren jokaerak toki guztietan berdintsuak izateko joera dute.
 Gizabanakoen eta borondatezko elkarrekin kasuan, aitzitik, askotariko
 esperientziak eta amaigabeko esperientziak aniztasuna ikus daiteke.
 Estatuak lan baliagarri gisa egin dezakeena da proba askotatik ater-
 tako esperientziaren gordetzailerik zentral eta, aldi berean, propagandis-
 ta eta hedatzaile aktibo bihurtu. Estatuaren lana esperimendatzailerik
 guztiei besteen proben onura hartzeko aukera ematea da, bereak beste
 esperimendurik egiten ez uztea barik.

Gobernuaren esku-sartzea murrizteko hirugarren arrazoiak,
 indartsuena, haren boterea areagotzea den oker handia dugu. Jada
 Estatuak betetzen dituen gehituriko funtzio orok haren eragimena
 esperantza eta beldurren gain gehiago hedatzea dakar eta publikoaren
 zati aktibo eta goranahia gobernuaren edo gobernu izan nahi duen
 alderdiren baten menpeko bihurtzen du. Baldin errepublikak, trenbide-
 ak, bankuak, aseguru etxeak, konpainia anonimo handiak, unibertsita-
 teak eta karitate publikoa gobernuaren adarrak balira guztiak, baldin,
 gainera, udal korporazioak eta kontseilu lokalak, egun haien mende
 dagoen guztiarekin, administrazio zentralerako departamentu bilakatzen

badira, baldin enpresa ezberdin guztietako enplegatuak gobernuak izendatu eta ordainduko balitu eta berarengandik espero balituzte beren bizitzako hobekuntza guztiak, orduan prentsa askatasun erabatekoak eta legebiltzarren eraketa herritarrenak ez lukete herrialde hau ez beste ezein aske eginen, izenez baino. Eta zenbat eta eragin-kortasun eta zientifikotasun handiagoz eraiki makineria administratiboa eta zenbat eta plan iaioagoak egin lan horretarako esku eta bururik gaituenak lortzeko, orduan eta handiagoa litzateke okerra. Ingalaterran, oraintsu, proposatu da gobernuaren langile publiko guztiak lehiaketaz aukeratzea, kargu horietarako jenderik argien eta jantzi-ena erdiesteko; eta asko esan eta idatzi da proposamen horren alde eta kontra. Berorren kontrakoez gehien erabili duten argudio bat da Estatuko kargu iraunkor bat edukitzeak ez duela eskaintzen, ordainsariei eta garrantziari dagokienez, talenturik handienak erakartzeko moduko perspektibarik, horiek beti aurkituko dutelako konpainietan eta beste zerbitzu publiko batzuetan karrera erakargarriagoa. Ez gintuzkeen harrituko argudio hori proposamenaren aldekoek euren zailtasun nagusiari erantzuteko erabili izan balute. Aurkariengandik etortzea nahikoa harrigarria da. Eragozpen moduan aurkeztzen den hori proposaturiko sistemaren segurtasun-balbula da. Baldin, benetan ere, gobernuaren zerbitzuak herrialdeko goi talentu guztiak bereganatu *ahal* balitu, emaitza hori lortzera lihoakeen proposamen batek, arrazoiz, ezinegon sor lezake. Gizarte batean antolaketa kontzertatua edo ikuspegi luze eta zabala behar duen guztia gobernuaren eskuetan balego eta gobernuaren bulego guztietan gizakirik trebeenak ari balira lanean, orduan herrialdean zabalduko kultura eta aplikaturiko adimen guztia (espekulatibo hutsa salbu) burokrazia ugari batean bilduta legoke, gainerako komunitate guztiak berari bakarrik begira egon beharko lukeelarik gauza guztietarako: jendetza, berak egin beharreko guztian zuzendua eta irakatsia izateko; abila eta goranahia, bere aurre-ramendu pertsonalerako. Burokrazia horren lerroetan onartua izatea eta, onartua izan ondoren, gora egitea litzateke goranahiaren helburu bakarra. Kanpoko publikoak, erregimen horren pean, ez du, esperientzia praktikorik ez duelako, burokraziaren jokabidea kritikatu edo kontrolatzeko gaitasunik, baina, horrez gain, nahiz eta erakunde despotikoen ezbeharrek edo herri erakundeen lan normalak eraginda joera erreformatzaileak dituen gobernari batek edo batzuek inoiz gora egin, ezinen da burokraziaren interesen kontrakoa den inolako erre-

formarik egin. Horrelakoxea da errusiar inperioaren egoera tristea, nolakoa den behar bezala ikusteko aukera izan dutenek dioskutenez. Tsarra bera ezgai da burokraziaren kontra; Siberiara bota dezake kide bakoitza, baina haiek gabe edo haien nahiaren kontra ez du gobernatzerik. Beto tazitua dute haren dekretu guztiekiko, beraien betearaztea eragotziz soilik. Zibilizazioz aurreratuagoak eta gogoz matxinada zaleagoak diren herrialdeetan publikoak, ohitua baitago bere ordezena Estatuak egitea espero izatera edo behintzat Estatuari ez bakarrik egin lezakeen, baizik nola egin behar duen kontsultatu aurretik bere kabuz ezer ez egitera, Estatuak egiten du, jakina, gertatzen zaizkion gaitz guztien erantzule eta, gaitzek bere pazientziari gainez egiten diotenean, gobernuaren kontra jaikitzen da eta iraultza deritzana egiten du; eta horren ondorioz norbait, nazioarengandik aginpide legezkoa hartuta edo hartu gabe, boterearen aulkiaz jabetzen da, bere aginduak ematen dizkio burokraziari eta denak segitzen du lehen bezalatsu: burokrazia ukigabe, eta inor ere gai ez dela haren lekua hartzeko.

Ikuskizun zeharo ezberdina aurkezten du bere arazoak berak konpontzen ohiturik dagoen herriak. Frantzia, herriaren zati handi batek soldadutza egina duelako, asko ofizialorde gradura helduta gainera, herri matxinada orotan hantxe dira beti zenbait lagun, buruzagitza hartzeko eta ekintza plan onargarriren bat bat-batean asmatzeko gai direnak. Frantsesak gai militarretan direna dira amerikarrak edo zertariko afera zibiletan; utzi haiek gobernurik gabe, eta amerikarren kidego oro agertuko da gai bat-batean beste gobernu bat eratzeke eta afera hori edo bestea aurrera ateratzeko behar adinako argitasun, ordena eta erabakimenez. Horrelakoxea izan behar luke herri aske orok; eta horretarako gai den herriak ziur daki aske izanen dela; inoiz ez diote utziko ezein gizon edo erakunderi beraiek esklabo egiten, administrazio zentralaren bridak hartu eta tiratzeko gai direlako. Ezein burokraziak ere ezin espero dezake horrelako herria nahi ez duena egitera edo jasatera behartzerik. Baina den-dena burokraziaren bidez egiten den tokian, ez dago burokraziaren kontra benetan doan ezer egiterik. Horrelako herrialdeen Konstituzioa nazioaren esperientzia eta trebetasun praktikoa diziplinapean jarritako kidego batean eratzean datza, gainerako guztiak beraren bidez gobernatzeko; eta zenbat eta hobeia izan bere baitan eraketa hori, zenbat eta arrakasta handiagoa izan komunitateko maila guztietako pertsonarik gaienak beregana

erakarri eta beretzat hezteko lanean, orduan eta osoagoa da guztien esklabotasuna, are burokraziako kideena ere. Izan ere, gobernariak beren eraketaren eta diziplinaren esklaboak dira, gobernatuak gobernariak diren hein berean. Txinatar mandarin bat nekazaririk apale-na den hein berean da despotismoaren tresna eta sorkaria. Jesuita bat, norbanako gisa, bere ordenaren esklabo da, beheramenduaren azken mailaraino, ordena bera bere kideen ahalmen eta garrantzia kolekti-borako existitzen bada ere.

Ezta ere ez da ahanzi behar herrialdeko gaitasun nagusiak kidego gobernatzaileak xurgatzea hondagarria dela, lehenago edo geroago, kidego horren berorren jarduera eta aurreramendu mentale-rako. Kideak bat eginda daudenez –sistema guztiak bezala arau finkoz dabilen sistema bat lantzen–kidego ofiziala errutina zabarrean mur-gilduta egoteko tentaziopean dago etengabe, edo, baldin unerren bate-an noriaren inguruan ibiltzeari uzten badio, kidegoan beso luzea duen baten bati atentzioa eman dion nabarmenkeria erdiazterturen batera abiadan jotzeko tentazioan; eta hertsiki elkarturikoak, nahiz eta itxu-raz elkarren kontrakoak, diren joera horien muga bakarra, kidegoaren gaitasuna bera goi mailan eduki dezakeen eragingarri bakarra, kide-gotik kanpoko gaitasun bereko kritika erneari erantzun beharra da. Ezinbestekoa da, beraz, gaitasun hori eratzeko eta arazo praktiko nagusiez iritzi egokia edukitzeko moduko aukerez eta esperientziaz hornitzeko bitartekoak egotea gobernutik at. Funtzionarioen kidego trebe eta eraginkor bat iraunkorki eduki nahi badugu –batik bat hobe-kuntzak sortzeko gai den eta ezartzeko irrikaz dagoen kidego bat–, gure burokrazia pedantokrazia [*pedantocracy*] bat izateraino degene-ra dadin nahi ez badugu, kidego horrek ez ditu bereganatu behar giza-teria gobernatzeko beharrezko diren ahalmenak eratzen eta lantzen dituzten zeregin guztiak.

Gobernatzeko arteak dituen arazoen artean zailen eta korapilo-tsuenetako bat honako hau zehaztea da, alegia, giza askatasun eta aurreramendurako hain beldurgarriak diren gaitz horiek zein puntutan hasten diren, edo batez ere gizartearen indarra, beraren buruzagi onar-tuen pean, gizartearen ongizatearen bidean dauden oztopoak kentzeko kolektiboki aplikatuzetik espero daitezkeen onuren gainetik gaitzok gailentzen noiz hasten diren, edo bestela esanda, botere eta adimen zentralizatuaren ahalik abantaila gehien segurtatzea, gobernuaren

kanaletan jarduera orokorra proportzio handiegian sarrarazi gabe. Xehetasun kontua da, hein handian, non gogorakizun asko eta ezberdinak kontuan ukan behar diren, arau orokorrik ezarri gabe. Baina uste dut salbabidea dakarren printzipio praktikoa, begi bistan ukan behar den ideala, zailtasuna gainditzeko egindako antolamendu guztiak balio dutenentz ikusteko irizpidea, ondoko hitzetan adieraz daitekeela: eraginkortasunarekin bateragarri den boterearen ahalik barreiapen handiena, baina informazioaren ahalik zentralizaziorik handiena lortzea, eta informazio hori guztia erdigunetik zabaltzea. Hartara, udal administrazioan, Ingalaterra Berriko Estatuetan bezala, zuzenean interesatuak direnen eskuetan uztea komenigarri ez den arazo guztien banaketa zehatz-zehatza egin behar litzateke herri ezberdinetan hautaturiko funtzionarioen artean; baina, horrekin batera, arazo lokaletako departamentu bakoitzean superintendenzia zentral bat eduki beharko luke, gobernu zentralaren adar bat osatuko lukeena. Superintendenzia horren organoak, foku batean bezala, herri guztietako afera publikoen adar horren zuzendaritzatik, atzerrian egiten den antzeko orotatik eta zientzia politikoaren printzipio orokorretatik erdietsitako informazioa eta esperientzia bilduko lituzke. Organo zentral horrek egiten den guztia jakiteko eskubidea ukanen luke, eta bere eginbehar berezia leku batean harturiko esperientzia besteentzat baliagarria izan dadin lortzea litzateke. Goienean egoteari eta guztia ikusteko moduko behatokia edukitzeari esker herrietako aurreiritzi ziztrin eta ikuspegi hertsietatik askatuta, haren aholkuak, jakina, autoritate handia leukake; baina haren benetako boterea, erakunde iraunkor gisa, nik bururatzen dudanez, herrietako funtzionarioei euren jokabidea gidatzeko ezarritako legeak betearaztera mugatuko litzateke. Arau orokorrez aurreikusi gabeko orotarako, funtzionario horiek euren irizpenaren arabera jokatzeko aske utzi behar lirateke, euren hautesleen aurrean erantzun beharko luketelarik. Arauak urratzeagatik legearen aurrean lirateke erantzule, eta legeak legebiltzarrak ezarriko lituzke; aginte zentral administratiboak arauok betetzen direnentz soilik jagonen luke eta, behar bezala beteko ez balira, kasuaren izaeraren arabera, auzitegietara joko luke legea betearaz dezaten, edo hautesleengana, legearen izpirituaren arabera jokatu ez duen funtzionarioa kargutik ken dezaten. Horrelakoxea da, ideia orokorrean, Ongintza Kontseilu Zentrala [*Poor Law Board*] Txiroentzako Zergaren [*Poor Rate*] administratzaileekiko herrialde guztian zehar erabiltzen saiatu den ikuskaritza zentrala.

Direnak direla muga hori gaindituz Kontseiluak erabili dituen botereak, bidezkoak eta beharrezkoak izan dira kasu partikular horretan, herriak ez ezik komunitate osoa kaltetzen zuten tinko erroturiko administrazio txarreko ohiturei konponbidea bilatzeko; zeren, ezein herrik ere ez du eskubide moralik bere administrazio txarragatik pobretasun habia bilakatzeko, zeinak, nahitaez transmitituko denez beste herri batzuetara, komunitate langile guztiaren izaera morala eta fisikoa ahulduko duen. Ongintza Kontseilu Zentralak dituen hertsapen administritiborako eta menpeko legeingintzarako botereak (baina gai horri buruzko iritziz egoeragatik oso gutxi erabiltzen dituenak), nahiz eta lehenengo mailako interes nazionalako kasu batean zeharo justifikaturik dauden, erabat lekuz kanpo leudeke interes lokal soilen ikuskaritzan. Baina herri guztientzako informazio eta irakaspeneko organo zentral batek balio bera izanen luke administrazioako departamentu guztietan. Gobernu batek ezin du neurria gainditu gizabanakoaren ahaleginak eta garapena eragotzi ez, baina lagundu eta zirikatzan dituen mota horretako jardueran. Gizabanakoen eta kidegoen jardueraren botereak sustatu beharrean, bere jarduerarekin haiena ordezkatzan duenean hasten da gaitza, informatu, aholkatu eta, kasuaren arabera, salatu beharrean, katez lorturik lan eragiten dietenean edo albo batean egoteko aginduz haiek egin beharreko lana berak egiten duenean. Estatu baten balioa, luzera, bera osatzen duten gizabanakoen balioa da; eta *haien* hedapen eta mailaz igotze mentala trebetasun administritibo apur baten edo praktikak aferen xehetasunetan ematen duen trebetasun itxuraren atzean jartzen duen Estatuak, bere gizonak, xede onuragarrietarako izanda ere, bere eskuetan tresna esangin izan daitezzen txikiagotzen dituen Estatuak, laster egiaztatuko du gizon txikiekin benetan ere ezer handirik burutzerik ez dagoela eta horretarako dena emanda bilatu duen makineriaren perfekzioak, azkenerako, ezertarako ere ez diola balioko, makinak aiseago lan egin dezan zokoratu nahia-go izan duen bizi-indarra falta zaiolako.

Oharrak

¹ Hitz hauek idatzi bezain laster ia, nabarmenki geurtatu nahi izan balira bezala, 1858ko Gobernuaren Prentsa Jazarpena gertatu zen. Eztabaida publikorako askatasunean esku-sartzetzat oker harturiko honek, hala ere, ez nau bultzatu testuko hitz bakar bat ere aldatzera, eta inola ere ez du ahuldu neukan uste irmoa, ondoko hau baieztatzen duena: eztabaida politikoagatik zehapen eta zigorren aroa, izualdiko uneak kenduta, behin betiko iragan dela gure herrialdean. Izan ere, lehenik, jazarpenak ez ziren iraunkorrak izan; eta, bigarrenik, ez ziren inoiz izan, zehazki hitz eginda, jazarpenak. Akusazio gisa ez zitzaien leporatu instituzioak edo pertsonen edo agintarien egintzak kritikatu izana, baizik doktrina ezmoralizat jotzen zena, tiranizidioaren justifikazioa, zabaldu izana.

Kapitulu honetako argudioek baliorik badute, askatasunik osoena ukan behar du edonork doktrina oro, ezmoralentzat dagoena ere, aitortu eta eztabaidatzeko, konbikzio etikoko gai gisa. Horregatik, garrantzirik gabekoa eta lekuz kanpokoa litzateke tiranizidioaren doktrinak izen hori merezi duenentz eztabaidatzea. Nahi-

koa izanen dut esatea ezen gai hori eztabaidara irekita egon diren moraleko auzietako bat izan dela garai guztietan; ezen herritar pribatu batek legearen gainera igota legearen zigor edo kontroletik kanpo jarri den kriminalaren kontrako atentatua egitea nazio osoek eta gizaki onen eta jakintsuenetako batzuek ere krimintzat barik goi mailako bertute ekintzatzat eduki dutela; eta ezen, bidezko edo bidegabeko izan, ez duela erailketa izaerarik, gerra zibil izaera baizik. Horrelakoa denez, baiesten dut ekintza hori egitera zirikatzea, kasu zehatz batean, zigorgarria izan daitekeela, baina ondoren ekintza nabari bat egin baldin bada eta ekintzaren eta zirikatzearen artean segurutik lotura badagoela frogatu ahal bada soilik. Orduan ere, atzerriko gobernu batek barik eraso jaso duen gobernuak bakarrik, bere burua defendatuz, zigor ditzake bere existentziaren kontra egindako erasoen egileak.

² Thomas Pooley, Bodmin Assizes, ekainaren 31a, 1857. Hurrengo abenduan Koroaren indultu bat jaso eta aske irten zen.

³ George Jacob Holyoake, abuztuaren 17a, 1857; Edward Truelove, uztaila, 1857.

⁴ Baron de Gleichen, Marlborough-street Police Station, Abuztuaren 4a, 1857.

⁵ Irakaspen handiak ateratzen dira jazarle baten grinaren gainezkatzetik, eta gainezkatze hau zipaiaren matxinada gertatu zenean gure izaera nazionalaren alderdi txarrenen hedapen orokorrarekin nahasi zen. Fanatikoek edo hitzontziek pulpitutik esandako erokeriak kontuan hartzea merezi ez dutenak izan daitezke; baina alderdi ebanjelikoaren buruzagiek, hinduak eta mahometarrak gobernatzeko printzipio gisa, aldarrikatu dute Biblia irakasten ez duen eskolarik diru publikoaz ez sostengatzea eta, ezinbesteko ondorioz, kristau ez den edo kristau dela ez dioten inori enplegu publikorik ez ematea. Estatu idazkariorde batek (William N. Massey jaunak) bere hautesleei 1857ko azaroaren 12an egindako hitzaldi batean, jakinarazi zenez, hauxe esan zien: «Gobernu britainiarren fedea» (ehun milioi britainiar hiritarren fedea), «eurek erlijioa deitzen duten sineskeria, toleratzeak britainiar izenaren nagusitasuna atzeratzea eta kristautasunaren hazkunde onuragarria eragozteka ekarri zuen. ... Tolerantzia izan da herrialde honetako erlijio askatasunen kantoi-harri nagusia; baina ez diezaiogun inori laga tolerantzia hitz eder honetaz abusatzeko. Hark ulertzen zuen moduan, hitz horrek orotarako askatasunik beteena esan nahi zuen, gurtzeko askatasuna, *kristauen artean, oinarri bereko gurtzak burutzen zituzten kristauen artean. Bitartekotza bakarrean sinesten zuten kristauen sekta eta izendapen guztien arteko tolerantzia esan nahi zuen*».

Denok arretaz aditzea nahi dut herrialde honetako gobernuan, ministerio liberal batean, goi eginkizun bat betetzeko egokitzat jo den gizon batek zer aldeztu duen, alegia, Kristoren jainkotasunean sinesten ez duen oro tolerantziaren eremutik kanpo dagoela dioten doktrina. Nork, zentzugabekeria hau entzun ondoren, uste izan lezake, irudikerian jausi gabe, jazarpen erlijiosoa erabat joana dela berriro inoiz ez itzultzeko?

⁶ *Gobernuaren eremua eta eginbe-harrak*, Wilhelm von Humboldt baroiak alemanez idatzitakoa.

⁷ Sterling: *Essays*.

⁸ Aldi berean mespretxagarria eta beldurgarria den zerbait dago testigantza mota zehatz batean, zeinetan oinarriturik edozein pertsona bere negozioak eramateko ezgai deklaratu baitaiteke judizialki; eta pertsona hori hil ondoren, bere ondasunak egin duen xedapena albo batera utzi daiteke, auziaren gastuak ordaintzeko adina baldin badago, gastuok ondasunetara kargatzen baitira. Haren bizitzako xehetasunik txikiak ikertzen dira eta, doilorretan doilorrenaren hautemateko eta deskribatzeko ahalmenek ikusita xehetasunotako edozeinek topikorik erabatekoenak ez bezalako itxura daukala aurkituz gero, erotasun frogaren moduan aurkezten zaio epaimahaia-ri, maiz arrakastaz gainera; zinpekoak ez dira izaten lekukoak eurak baino asko jantziagoak ez jakitunagoak; eta epaileek, ingeles legelariengan etengabe harriturik ikusten dugun giza izaera eta bizitzaren eza-gupen falta horrekin, errakuntzara bideratzen laguntzen diete. Judizio

horiek liburu osoak baino gehiago dioskute herritarrek giza askatasunari buruz duten sentipen eta iritzi egoeraren inguruan. Banakotasunari baliorik ematetik urrun, gizabanako bakoitzak, gauza indiferenteetan, bere iritzi eta joeren arabera egoki ikusten duen moduan jokatzeko daukan eskubidea errespetatzetik lekutan, epaileek eta zinpekoek ezin dute bururatu ere burutik sano dagoen pertsonak askatasun hori gura izan dezakeenik. Behiala, ateoak erretzea proposatzen zenean, jende karitatetsuak horrelakoak zoroetxera sartzea iradoki ohi zuen; ez litzateke inola ere harrigarri gure garai honetan jende hori hori egiten eta egileek beren buruari txaloka ikustea, erlijogatik jazarri beharrean, zorigaiztoko horiek tratatzeko hain era gizatarrak eta kristaua erabili izanagatik, ez

isilean poztu gabe haiei merezitakoa eman izanagatik.

⁹ Bonbaiko parsien kasua bitxia da honetan. Tribu langile eta lehiatsu hori, pertsiar su-gurtzaileen ondorengoak, kalifek hartaratuta bere herrialdetik ihesi Indiako mendebaldera heldu zenean, errege hinduek toleratu egin zioten beren herrian finkatzea, behikirik ez jatekotan. Geroago konkistatzaile mahometarrek lurralde horiek beren mende hartu zituztenean, parsiek tolerantziak jarraitzea lortu zuten, txerrikirik ez probatzekotan. Hasieran aginteari obediencia zena bigarren izaera bihurtu zitzairen, eta oraingo parsiek behikirik ez txerrikirik jan gabe bizi dira. Euren erlijioak galdaturikoa ez den arren, haragi-uzte bikoitza haien tribuaren ohitura bilakatu da; eta ohitura, ekialdean, erlijio da.

EMAKUMEEN
MENPEKOTASUNA
[1869]

I

Saiakera honetan dudan helburua ondokoa da, alegia, gizarte eta politika auziei buruzko lehenengo konbikzioak neure egin nituenetik daukadan eta hausnarketaren eta bizitzako esperientziaren eraginez, ahuldu eta aldatu beharrean, gero eta indartsuago bihurtu zaidan iritzi bat aldezteko arrazoiak ahal dudan ongien azaltzea. Uste dut sexu bien arteko gizarte harremanak erregulatzen dituen printzipioa –legearen izenean sexu bata bestearen mende jartzen duena– txarra dela berez, eta gaur egun, horrez gain, giza hobekuntzarako oztopo nagusietako bat; nire ustez, berdintasun osoaren printzipioarekin ordeztu behar da, sexu batarentzat botere edo pribilegiarik, ez bestearentzat ezgaitasunik onartu gabe.

Ene gain hartu dudan lana adierazteko behar ditudan hitzek berek erakusten dute zein lan nekeza den egin behar dudana. Baina errakuntza larria litzateke uste izatea gainditu behar dudan zailtasuna nire konbikzioen oinarri diren arrazoiaren ezaskitasunean edo iluntasunean datzala ezinbestez. Ez, zailtasun hori sentipen orokor eta indartsu baten kontra borrokan hasten den orok aurkitzen duena da. Zenbat eta tinkoago egon iritzia jendearen sentipenetan errotuta, orduan eta alferrekoagoa dugu argudio erabakigarriak jartzea iritzi horren kontra, zeren argudio horiek, jende horren iritziari indarra kendu beharrean, eman egiten diote eta. Izan ere, iritzia arrazoiketaren emaitza balitz, hori errefutatzeak zartatu egingen luke konbikzioaren sendotasuna;

baina iritzia sentipenean soilik oinarritzen denean, zenbat eta egurtuago ateratzen den eztabaida batetik, orduan eta argiago ikusten dute haren jarraitzaileek ezen beren sentipena, ezinbestez, argudioek atzematerik ez duten arrazoi sakonagoren baten gainean oinarritzen dela; eta sentipenak dirauen artean, ez zaio defendatzeko argudiorik faltako eta irekitzen dioten zuloa behingoan itxiko du. Eta aztergai dugun gai honekiko ditugun sentipenak, arrazoi askogatik, iraganeko ohitura eta instituzioen inguruan babes-hesi bat eratzen dutenen artean bizien eta errotuenak dira. Horregatik, ez gara harritu behar ikustean garai modernoetako iraultza intelektual eta sozial itzelaren aurrerakadak beste guztiek baino azpijan txikiagoa egin diela sentipen horiei eta gutxiago lokatu dituela, ezta uste izan behar ere gizakiek aspaldi-aspalditik errespetatzen dituzten instituzioak ez direla berek lehenago suntsitu zituztenak bezain barbaroak.

Lan zaila izan da beti ia unibertsalki onarturiko iritzia-ri kontra egitea. Eta zorte handia edo aparteko gaitasuna ukan ezean, entzuna izatea ere ez du lortzen horrelako jendeak. Zailago izaten dute judizioa lortzea, hara joanda aldeko epaia lortzea baino. Entzuna izatea lortuz gero, beste batzuei galdatzen zaizkienetatik zeharo ezberdinak diren baldintza logikoen pean jarri beharra izaten dute. Frogatu beharra, beti ere, baiesten duenari dagokiola suposatzen da. Baten bat hilketat akusatzen badute, akusatzaileek frogatu behar dute akusatua errudun dela, eta ez hark bera errugabea dela. Edozein gertaera historikoren, hala nola, Troiako setioaren errealitateari buruz iritzi ezberdinak agertuz gero, gertaera hori jazo zela baiesten dutenek aurkeztu behar dituzte frogak, beste iritzikoei ezertxo galdatu aurretik; eta hauek nahikoa dute besteek aurkezturiko frogak baliorik ez dutela demostratzeaz. Era berean, gai praktikoetan, frogatu beharra askatasunaren kontra daudenei dagokiela suposatzen da: murrizteko edo debekatzeko neurriak hartzearen alde daudenei, dela giza ekintza oro har nolanahi mugatzearen alde, dela pertsona edo klase bat besteek baino gaitasun edo eskubide gutxiagorekin uztearen alde. *A priori* presuntzioa askatasunaren eta inpartzialtasunaren alde dago. Bidezko murrizketa bakarrak denon onak galdatzen dituenak direla defendatzen da, eta legeak ez duela egin behar salbuespenik inorekiko eta denak berdin tratatu behar dituela, beti ere justizia edo politika arazo positiboek trataera ezberdina ematea eskatu ezean. Baina nik hemen

aldezen dudan iritzia dutenek ezin balia dezakete froga arau horieta-ko batik ere. Gizonak agintzeko eskubidea eta emakumeek obeditzeko betebeharra daukatela edo gizonak gobernatzeko gai eta emakumeak ezgai direla uste dutenei alferrik esanen nieke eurak auziaren baiespen alderdian daudela eta, beraz, euren baiespenen froga positiboak aurkeztu behar dituztela, edo bestela baiespenok baztertu. Era berean, ezertarako ere ez lida eke baliozko gizonaren pribilegioa diren askatasuna eta eskubideak, askatasunaren kontra eta partzialtasuna gomendatzen ari direla susmatzeko arrazoiak eskainiz, emakumeei ukatzen dietenei esatea berei dagokiela beren iritziaeren froga zorrotzenak ekartzea, eta, duda oro ezabatzea lortu ezean, kontrako epaia eman behar zaiela. Beste edozein eztabaidatan eskari onak lirateke horiek, baina kasu honetan ez dira horrela. Ezer garbirik atera nahi izanez gero, kontrako iritzia dutenek esandako orori erantzun ez eze, esan lezaketen guztia imajinatu ere egin behar dut eta gero guztiei erantzun; eta haien argudio guztiak errefutatu ondoren, argudio positibo eztabaida ezinak galdatuko lizkidakete negatibo bat frogatzeko. Eta hori guztia egin eta beste iritzikoak erantzun ezindako argudioz inguraturik utzi ahal banitu ere, aldi berean euren argudioetako batik ere errefutatu barik utzi gabe, orduantxe ere ezer gutxi egin nuela pentsatuko zuket; izan ere, alde batetik erabilera unibertsalak eta bestetik herriaren sentimenduaren hain eragin handiak eutsitako kausa batek beti izanen du bere alde presuntzio sendoa, arrazoiria etortzeko dei batek ezein adimenetan, goi mailakoetan izan ezik, eragin lezakeen konbikzioa baino sendoagoa.

Aipaturiko zailtasunak ez ditut beraiez kexatzeko aipatzen, alferreko litzateke eta; zailtasunok jendearen adimenaren bidez jende horren sentipenen eta joera praktikoen etsaitasunaren kontra borrokatu beharraren ondorio dira; gizateriaren gehiengoaren adimenek orain arte izan diren baino askoz hobeto landuak behar lukete izan, guk argudioak estimatzeko duten ahalmenean konfiantza handia izateko eskatu aurretik, hartara, euren jaiotza eta hazierako giro inguratzaile izandako printzipio praktikoak, munduan gaur dugun ordenaren oinarri direnak hein handian, albo batera uzteko gai izan daitezen, logikaz aurre egin ezinen dioten argudiozko lehen eraso hartu ondoren. Horregatik, nik ez diet errieta egiten arrazoiketan behar bezainbeste-ko federik ez dutelako, ohituran eta iritzi orokorrean fede gehiegi

dutelako baizik. XIX. mendeak XVIII.aren kontra izandako erreakzioaren ezaugarri den aurreiritzi bat giza izaerako elementu irrazionaleri XVIII.enean razionaleri ezartzen omen zieten hutseginkortasuna esleitzea da. Izan ere, arrazoimenaren apoteosia senarenarekin ordeztu dugu, eta sena esaten diogu oinarri razionalik aurkitu ezin diogun gure baitako orori. Idolatria horrek, bestea baino askoz apalgarriagoa, egungo sineskerietan kaltegarriena eta orain guztien euskarri nagusi denak, iraun eginen du, harik eta psikologia zindo batek desagerrarazi arte, naturaren asmo edo Jainkoaren manu moduan beneratzen ditugun uste eta sinesteen benetako sustraia zein den agerian utziz. Eskuartearen darabilgun auziari dagokionez, prest nago aurreiritziak ezartzen dizkidan baldintza desfaboragarriak onartzeko. Onartzen dut ezarritako ohiturak eta sentipen orokorrak ene kontrako ihardespenez gabeko arrazoitzat hartzea, baldin argi uzten ez badut ohitura eta sentipen horiek, mendez mende, zindotasuna ez bezalako beste kausa batzuen ondorio izan direla eta berauen botereak giza izaeraren alderdi onenetan barik txarrenetan izan duela jatorria. Epaia kontra etor dakidan onartzeko prest nago, baldin nire jueza erosita egon dela demostratu ezin badut. Nik emandako abantaila ez da dirudien bezain handia, zeren hori frogatzea nire lanaren alderik errazena baita dudarik gabe.

Ohitura bat orokorra denean, xede laudagarrietara daramana edo behiala bederen zeramana dela pentsatu beharra dago zenbait kasutan. Esate baterako, ohitura hasieratik edo geroago horrelako xedeetarako erabili izan denean eta helburuok lortzeko modu eraginkorrenaren esperientzian oinarriturik egon denean. Baldin gizonen emakumeekiko aginpidea, lehenengoz ezarri zenean, erabaki hori gizartea gobernatzeko dauden era ezberdinen arteko erkaketa zorrotz baten ondorioz hartu izan balitz; baldin gizartea eratzeke beste molde batzuk taxutzen saiatu ondoren –hala nola, emakumeek gizonak gobernatzea, bion arteko berdintasuna, eta asma daitekeen beste edozein molde misto biek parte hartuta–, esperientzian oinarrituta erabaki izan balitz sexu bien zorion eta onera daraman antolabiderik onena emakumeak gizonen aginpidearen erabat mende egotea zela, zeregin publikoetan inolako parte-hartzerik eduki gabe eta bizitza pribatuan ere emakume bakoitza bere patuan elkarkide duen gizonari obediencia eskaintzera legez behartuta egonik; baldin gizartea horrela anto-

latu izan balitz, orduan egun pentsatu ahal izanen genuke antolabide hori eskuarki onartzeak nolabait frogatzen duela garai hartan onena zela; baina erantsi ahal izanen genuke, lehen garaietako beste gertakari sozial garrantzitsu batzuetan gertatu bezala, mendeen joanean, orduan beronen alde zeuden arrazoiak jada ez daudela. Gertatu dena, alabaina, alde guztiei begiratuta, horren kontrakoa da zeharo. Lehengo eta behin, oraingo sistemaren aldeko iritzia, sexu ahulagoa indartsuagoaren erabat mende jartzen duenaren aldekoa, teorietan baino ez da oinarritzen; ez da beste sistemarik probatu, eta, beraz, inork ezin du esan esperientziak, zentzu arruntean teoriaren kontrakoa den heinean, inolako epairik eman duenik. Eta bigarrenik, desberdintasun sistema hau onartzea ez da inoiz izan deliberamenduaren, ez aurrez pentsatzearen, ez inolako ideia sozialen edo gizateriaren ona edo gizarteko ordena ona ezartzeko bitartekoen ezein ideiarekin fruitu. Sistema hau honako honetatik ez beste ezertatik dator, etorri, alegia, gizartearen lehen egunez geroztik emakume orok (alde batetik, gizonek emakumeari ematen zioten balioak eta, bestetik, haiek baino indar fisiko gutxiago edukitzeak eraginda) gizonen baten esklabo bihurtu beharra izanetik. Legeak eta gobernu sistemak norbanakoen artean jada dau den erlazioak onartzetik hasten dira beti. Gertakari fisiko huts bat zena legezko eskubide bihurtzen dute, gizartearen berrespena ematen diote eta, batez ere, indar fisikozko gatazka bidegabe eta legegabea eskubideok finkatu eta babesteko erabilitako bitarteko publiko eta eratuekin ordeztara jotzen dute. Jada obedientziara indarrez beharturikoak legez gelditu ziren horrela gauza berera beharturik. Esklabotasuna, hasieran ugazabaren eta esklaboaren arteko indar kontua baino ez zena, araututa eta ugazaben arteko itun kontu bihurtuta gelditu zen, eta ugazabek elkar babesteko konpromisoa hartuta, talde indarraren bidez bermatuta utzi zituzten nork bere ondasunak, beren esklaboak ere barne. Antzina gizonezko gehienak esklaboak ziren, emakume guztiak ziren moduan. Eta mende asko, batzuk goi kulturakoak, iragan dira pentsalariren bat esklabotasuna bataren zein bestearen zuzentasuna eta erabateko premia soziala auzitan jartzen ausartu aurretik. Poliki-poliki pentsalari horiek agertuz joan ziren, eta (gizartearen aurrerapen orokorra lagun) gizonezkoen esklabotasuna, behintzat Europa kristauko herrialde guztietan (batean duela urte gutxira arte ez baina), azkenerako abolitu egin zen, eta andrazkoena apurka-apurka menpekotasun bigunagoa izatera heldu zen. Baina menpekotasun

hori, gaur egun dirauen bezalaxe, ez da instituzio berria, zuzentasuna eta gizarte baliagarritasuna kontuan hartuta berriren berri sorturikoa; hasierako esklabotasun egoera da, jokaera orokorrak leundu eta giza harreman guztiak justiziaren kontrolpera eta ideia humanitarioen eraginpera ekarri dituzten kausa berek eragindako biguntze eta aldaketen bidez gaurdaino dirauena. Ez du, hala ere, ezabatu bere jatorri basatiaren orbana. Izaten hasi zenetik, beraz, ez dago haren aldeko argudiorik ateratzerik. Alde daukan bakarra, akaso, gaurdaino iraun izana da, iturri nardagarri beretik etorritako beste gauza asko desagertu direnean. Eta, horrexegatik, pertsona arruntei benetan ere harrigarri egiten zaie entzutea gizonen eta emakumeen arteko eskubide desberdintasunak indartsuenaren legea beste sorbururik ez duela.

Enuntziatu horrek paradoxa bat ematen badu, neurri bateraino zibilizazioaren aurrerapenari eta gizateriaren sentimendu moralen hobekuntzari zor zaio. Egun gu (erran nahi baita, munduko nazio aurreratuenetariko bat edo bi) indartsuenaren legea munduko aferak arautzeko printzipio gisa erabat bertan behera utzia ematen duen egoeran bizi gara; inork ez du arautzat aipatzen eta, gizakien arteko harremanik gehienei dagokienez, inork ez du lege hori praktikan jartzeko eskubiderik. Norbaitek horrela egiten badu, interes sozial orokorren bat bere alde daukan itxura ematen dion estakururen baten pean egiten du. Horixe da gauzen itxura hutsezko egoera eta jendeak atsegin du pentsatzea indar hutsaren araua bukatu dela; indartsuenaren legea ezin dela izan gaurdaino bete-betean funtzionatu duen zerbaiten existentziaren arrazoia. Hala ere, haien ustez, gure instituzioek, nolanahiko hasiera edukita ere, zibilizazio aurreratuko gure garaietara arte iraun badute, giza izaerara egokitze eta denon ona bultzatzeko gai zirelako sentipen tinkoaren eraginez izan da. Ez dute ulertzen eskubidea indarraren aldean jartzen duten instituzioek norainoko bizitasun eta iraunkortasun itzela duten; ez dakite zein gogor heltzen dioten beroni; boterea euren eskuetan dutenen joera onek zein txarrek nola jotzen duten botere hori atxikitza; zein astiro desagertzen diren instituzio txar horiek, bana banaka, bizitzako eguneroko azturekin gutxien lotuta daudenetatik hasita; eta legezko boterea lehenago fisikoa eduki zutelako lortu dutenek zein bakanki galdu duten botere horren jabetza, botere fisikoa beste aldera pasa aurretik. Indar fisikoaren aldaketa hori emakumeen kasuan ez gertatu izanak eta, horrez

gain, kasu partikularren ezaugarri eta berezitasunek argi ziurtatzen dute indarrean oinarrituriko eskubide sistema hori, nahiz eta bere ezaugarri lazgarrienetan beste sistema batzuk baino lehenago gelditu bigunduta, azkenen desagertuko zena izanen zela. Ekidinezina zen indarrean oinarrituriko gizarte harremanen kasu bakar horrek justizia berdinean oinarrituriko instituzioak zituzten belaunaldi askotan zehar irautea, salbuespen bakarra izanik euren lege eta ohitura guztien izaerari; baina sistema horren jatorria zein den jendartean zabaltzeko ez denez eta eztabaidak beronen egiazko izaera agerian jarri ez duenez, jendeak ez du sentitzen zibilizazio modernoarekin talka kirrinkatsua egiten duela, esklabotasunak grekoek beren buruaz herri libre gisa zuten ideiarekin talka egiten zuen baino nabarmenkiago.

Izan ere, oraingo belaunaldiko eta azken bizpahiru belaunaldietako jendeak zeharo galdu du gizateriaren lehen egoeraren ideia oro; eta historia sakon aztertu duten pertsonak edo antzinateko jendearen azken ordezkariak bizi diren munduko bazterrak maiz bisitatu dituztenek bakarrik dira gai orduko gizartea zer nolakoa zen iruditzeko. Oraingo jendeak ez daki indartsuenaren legea noraino zen bizi-arau lehen mendeetan; ez daki jendaurrean eta ageri-agerian onartzen zela lege hori, eta ez dut esanen zinismoz eta lotsarik gabe egiten zutenik hori, zeren hitz horiek horretan zertaz lotsatua zegoela esan nahi baitute, eta horrelako noziorik ezin topa zitekeen garai hartako jendearen adimenean, filosofo edo sailduren batenean izan ezean. Historiak giza izaeraren irudi krudela eskaintzen digu, agerian jartzen digunean klase baten bizitza, ondasunak eta mundu honetako zorion osoa besteak behartzeko zuen boterearen arabera doi-doi neurtzen zirela. Ikusten dugu agintari armatuari buru egiten ziotenek, latzena izanda ere haren probokazioa, euren kontra zituztela, ez bakarrik indarraren legea, baizik beste lege guztiak eta gizarte betebeharraren oinarri diren nozio guztiak; eta agintarientzat krimen baten errudun ez ezik, krimenik handienaren errudun ziren, eta gizakiek ezar dezaketzen zigorrak mingarriena merezi zuten. Goiko bat behekoen eskubidea nolabait onartzera beharturik sentitzen hasi bazen noizbait, behekoek, bere komezentziagatik, agintzariren bat egin beharra ukan zuenean izan zen. Agintzari horiek, zin serioenez berretsiak zirenean ere, ez zuten eragotzi mende askotan agintzaileek, probokaziorik edo tentaziorik txiekienak medio, agindutakoa atzera bota edo urratzea; hala ere daiteke-

ena da jende horrek, moraltasun normaletik beherako pertsonen kasuan izan ezik, zinaustea gutxitan egitea bihotz-zimikoren bat edo beste jasan gabe. Antzinako errepublikak gehienbat elkarrekiko itun batean oinarriturik zeuden hasieratik, edo nolanahi ere indarrez paretsu zeuden pertsonen osaturiko elkarteak ziren, eta, horregatik, indarrarena ez bezalako lege batek babesturiko zenbait giza harremanen adibidea eskaintzen digute. Hasierako indarraren legeak indarrean zirauen ugazaben eta esklaboen artean, baita (itun espresoz mugaturik ez zegoen kasuetan bederen) komunitatearen (*commonwealth*) eta beraren menpekoei edo beste komunitate independente batzuen artean ere. Hala ere, hasierako lege hori, hain esparru mugatutik bada ere, ezabatzeak giza izatea eraberritzea ekarri zuen, esperientziak demostratu digun bezala interes materialetarako ere balio itzela duten eta ordutik aurrera hutsetik sortu beharra barik garatu beharra besterik ez duten sentimenduak sortuz. Esklaboak ez ziren komunitateko kide, baina, hala ere, estatu libreetan hasi ziren lehenbizi gizaki gisa eskubideak edukitzen. Estoikoak izan ziren, uste dut, lehenbizi (juduen legea lehenago agian) irakatsi zutenak ugazabek betebeharrak moralak zituztela esklaboekiko. Kristautasuna zabaldu ondoren, inorentzat ere ez zitekeen arrotz izan sineste hori, teoriarik behintzat, eta Eliza Katolikoa ezarri ondoren ez zitzaion aldeztailerik falta izan. Hala ere, hori gizaratean ezartzea izan zen kristautasunak inoiz egin behar izan duen lanik nekezena. Mila urte baino gehiagorik ekin zion lan horri Elizak igartzeko moduko emaitza batik ere apenas lortu gabe. Eta hori ez zen horrela gertatu gizakien gogamenen baitan botererik ez zeukalako. Botere itzela zeukan; gai zen erregeek eta aitoren seme-alabek euren eduki baliotsuenei uko egitea eta horrela eliza aberastea lortzeko. Gai zen milaka lagun, sasoirik ederrenean eta munduko erosotasun guztien jabe izanda, komentuetan sartzea bultzatzeko, txirotasun, barau eta otoitzean beren salbazioa bilatu nahian. Ehun milaka gizon bidaiatzeko itzazko eta lehorrez, Europa eta Asia zehar, beren bizia ematera Hilobi Saindua askatzeko. Erregeak, berriz, amodio grinatsuz maite zituzten emakumeak uztera behartzen zituen, zazpigarren mailako ahaideak (gure kalkuluetan hamalagarren mailakoak) zirela deklaraturik. Hori guztia egin zuen, baina ezin izan zuen lortu aitoren semeek elkarren kontra gutxiago borrokatzea, ez beren jopuei eta, ahal izanez gero, burgesei ere ankerkeria gutxiago egitea. Ez zuen lortu haiek indarraren bi aplikazioetatik bati ere uko egitea: ez borrokala-

riari ez garaileari. Boteretsuak ezin izan ziren hori egitera eraman, harik eta indar handiago batek horretaratu arte. Erregeen botere hazkorrak soilik lortu zuen borroka horiei amaiera ematea, eta geroztik erregeek edo erresuma eskuratzeko lehiakideek beren artean bakarrik borroka zezaketen; hiri gotortuetako burgesia aberats eta gertlari baten eta gudu zelaietan diziplinarik gabeko zalditeriak baino indar handiagoa erakutsi zuen infanteria plebeioaren hazkundearen eraginez bakarrik lortu zen aitoren semeen burgesekiko eta nekazariekiko tirania lotsagabea mugatzea. Tirania horrek zapalduak mendeku ikusgarria hartzeko moduko boterea eskuratu eta handik askoz geroagora arte iraun zuen; eta kontinentean praktika tiraniko horietako askok Frantses Iraultzara arte segitu zuten, baina Ingalaterran klase demokratikoen antolakuntza goiztiar eta hobeak lehenago ekarri zuen horien amaiera, berdintasunezko legeak eta instituzio nazional libreak ezarriz.

Jenderik gehienak ez daki gure espezieak iraun duen aldiaren zatirik handienean indarraren legea izan dela oso-osoan onarturiko jokaera arau orokorra, beste edozein arau berezitasunen aparteko eta salbuespenezko ondorio baino izan ez delarik. Ez dakite zein oraintsu jarri den gizartea bere aferak oro har lege moralaren arabera erregulatu nahian; baina, horrez gain, jendeak ez du gogoratzen ez aintzat hartzen indarraren legea beste oinarririk ez duten instituzioek eta ohiturek iraun dirautela, behiala ezartzen inola ere utziko ez zukeen jendearen garaietan eta iritzi orokorrean ere. Duela berrogei urte baino gutxiago, ingelesek esklabotasunean eta beste edozein ondasun bezala salgai eduki zitzaizketen gizakiak, legez eduki ere; mende honen barruan gizakiak beren herrialdeetan harrapatu eta handik kanpora eraman zitzaizketen, eta heriotzaraino, literalki, lan eragin. Indarraren legearen kasu erabat muturreko hori, ia nolanahiko botere arbitrarioa tolera dezaketenez ere gaitzetsia, arazoa inpartzialtasunez begiratzen duten guztien sentimenduak gora-goraka jartzeko modukoa, Ingalaterra zibilizatu eta kristauaren legea zen, egun bizi diren askok gogoratzen duten moduan; eta Amerika anglosaxoirik erdian duela hiruzpalau urte esklabotasuna ez ezik, esklaboen salerosketa eta esklaboen hazkuntza ere, beren beregi salerosketarako, praktika orokorra ziren estatu esklabisten artean. Hala ere, horren kontrako sentimenduak oso biziak ziren eta, gainera, Ingalaterran bederen ohiko indar abusuen alde baino sentipen edo interes gutxiago zegoen abusu

horren alde, irabazi gosea, argi eta garbi eta mozorrorik gabe, beste motiborik ez zeukalako; eta etekina ateratzen ziotenak herrialdearen zati txiki-txiki bat baino ez zirenean, horretan interes pertsonalik ez zeukaten guztiek abusu hori biziki gorrotatzen zuten. Hain ertzeko adibide horren ondoren ez da behar besterik aipatzea, baina gogoan izan dezagun monarkia absolutuaren iraupen luzea. Ingalaterran gaur egun ia denok gaude konbentziturik despotismo militarra indarraren legearen era bat dela, beste inolako jatorririk ez justifikaziorik gabe-koa. Hala ere, Europako nazio handi guztietan, Ingalaterran izan ezik, oraindik ere existitzen da, edo orainsu arte existitu izan da, eta egun ere aldeko asko ditu gizarte maila guztietan eta, jende edukitsuen artean. Horrelakoxea da indarrean dagoen sistema honen boterea, nahiz eta unibertsala ez izan, nahiz eta historiako ia aldi guztietan horren aurkako sistemaren baten adibide garrantzitsu eta ezagunak izan, komunitaterik ospetsuen eta arrakastatsuenak eskainitakoak ia beti. Aipaturiko kasuan, gainera, bidegabeko boterea daukana, horretan zuzenean interesaturik dagoena, pertsona bakar bat da; beraren menpekoak, orde, gainerako guztiak, literalki, dira. Uztarria, berez eta ezinbestez, apalgarria da denentzat, tronuan dagoenarentzat eta gehien ere haren ondoren bertan jesartzea espero duenarentzat izan ezik. Zein ezberdinak diren botereok gizonak emakumearen gain duenarenetik! Ez naiz ari orain aurretik juzgatzen justifikagarria denentz. Demostratzen ari naiz ezen, justifikagarria ez balitz ere, gure egunetara arte iraun duten beste menperatze motak baino askoz iraunkorragoa izan behar duela nahitaez. Boterea edukitzeak ematen duen gogobetetasun harroa eta berau erabiltzeko dagoen interes pertsonala ez dira kasu horretan klase baten pribilegio: sexu maskulino guztiari dagozkio erabat. Gizonik gehienentzat batez ere abstraktuan desiragarria den gauza bat edo, alderdien debate bidez erdietsi ohi diren xede politikoak bezala, buruzagiei izan ezik besteei ezar gutxi interesatzen zaien gauza bat izan beharrean, gizonaren boterea famili buru den edo gerora izatea espero duen gizon ororen bihotzean errotuta dago. Kaikuak aitoren seme gorenaren maila berean darabil edo erabil deza-ke bere botere parte. Eta botere mota horren jabe izateko desira biziagoa da, zeren boterea nahi duenak batez ere inguruan dituenengan, bizikide dituenengan, bere interesetan partaideen dituenengan eta bere aginpidetik askatuz gero bere gustuak betetzea oztopatuko luke-tenengan erabili nahi baitu botere hori. Baldin arestian aipaturiko

beste kasuetan argi eta garbi indarra beste oinarririk ez duten eta askoz jasangaitzagoak diren botere motak hain astiro eta hain nekez kentzen badira gainetik, are zailago da aztergai darabilgun botere mota hori gainetik kentzen, haiek baino oinarri hoberik ez duen arren. Kontuan izan behar dugu, gainera, botere mota hori dutenek beste edozein mota dutenek baino erraztasun gehiago dutela beronen kontrako protestak eragozteko. Menpekoea hemen ugazabaren begipean eta ia eskupean, esan daiteke, bizi da, barne-elkartasun handiagoan ugazabarekin, menpekotasunean kide dituenekin baino; ez dago ugazabaren kontra konspiratzeko modurik, ez dago hura azpiratzeko aukerarik, eta, bestalde, motiborik handienak daude menpekoen alde tik haren ederra bilatzeko eta hari haserreberdik ez emateko. Askapen politikoaren aldeko borroketan, mundu guztiak daki nola erosten edo izutzen dituzten ekintzaileak. Emakumeen kasuan, klase menperatuko kide bakoitza eroskeria eta beldurrez osoturiko egoeran bizi da eten-gabe. Erresistentziaren zutoihala altxatzean, buruzagietako askok eta jarraitzaileetako are gehiagok bizitzako plazeren eta gozagarrien ia erabateko sakrifizioa egin beharko du. Baldin inoiz pribilegio eta menpekotasun behartuko sistemaren batek azpian dituztenen lepogai-nean uztarria estu-estu lotu badu, aztertzen ari garen sistema izan da hori egin duena. Ez dut oraindik demostratu sistema hau bidegabeta dela; baina sistema honetaz pentsatzeko gai den orok ikusiko du nahitaez, bidegabeta bada ere, gainerako bidegabeko aginte era guztiek baino gehiago dirauela. Eta beste eretako nazkagarrienek herrialde zibilizatu askotan oraindik iraun dirautenean eta zenbaitetan orainsu baino kendu ez dituztenean, harrigarria litzateke sakonkien errotuta dagoenari non edo han igartzeko moduko aldaketak egin izana. Arrazoi gehiago dago sistema honen kontra egin diren bezalako protesta eta testigantza ugari eta gogorrek egin izanaz harritzeko.

Horren kontra esanen da sexu maskulinoaren gobernuaren eta beronen argigarritzat gogoratu ditugun bidegabeko beste botere eren arteko eraketarik ezin litekeela bidezki egin, horiek arbitrarioak eta usurpazio hutsaren ondorio direlako, hura, ordea, naturala denean. Baina izan al da inoiz menperatzerik, menperatzaileek berek naturalizat eduki ez dutenik? Garai batean gizateria klase bitan zatituta ego- tea, ugazabena eta oso kide gutxikoa izanik bata eta esklaboena eta oso jendetsua bestea, adimen landuenek ere giza arrazaren izaera

naturala, natural bakarra, zela zeritzoten. Nork eta Aristotelesek berak ere, giza pentsamenduaren aurrerapena hainbestean bultzatu zuen talentuak, iritzi bera defendatu zuen zalantzarik ez kezkarik gabe, eta gizonek emakumeak menperatzeko eskubidea dutela esan ohi dutenen arrazoi beretan oinarritu zuen bere iritzia, zehazki, esanez gizateriaren baitan izaera desberdineko gizakiak daudela, libreak batzuk, esklaboak besteak; grekoak izaeraz libreak zirela, traziarrak eta asiarrak bezalako barbaroak, osteraz, esklaboak izaeraz. Baina zertarako jo atzera Aristotelesenganaino? Amerikako Estatu Batuetan ere esklabo-jabeek ez al zioten Hegoaldeko Estatuetan doktrina berari eusten, gizonek beren grinak justifikatzen eta beren interes pertsonalak legitimatzen dituzten teoriari atxikitzen dioten fanatismo guztiarekin? Ez al dute behin eta berriz zin egin esanez gizon zuriak beltza menpean edukitzea gauza naturala dela, beltza berezko izatez askatasunerako ezgai eta esklabo bizitzeko jaioa dela, batzuek esku-langileen askatasuna gauzen ordena naturalaren kontrakoa zela esateraino helduz? Gainera, monarkia absolutuaren teoriariek beti esan izan dute monarkia gobernu era natural bakarra dela, gobernu era patriarkaletik etorria, zeina gizartearen jatorrizko eta berezko era baitzen, gizartearen beraren aurrekoa eta, beraiek ziotenez, dagoen aginterik naturalena den aitaren agintearen ereduaren arabera eraikia. Are, gai honi dagokionez, indarraren legea bera, euren alde beste legerik aipatzerik ez dutenei, agintea erabiltzeko arrazoirik naturalena iruditu zaie beti. Arraza konkistatzaileek defendatzen dute naturaren beraren manua dela konkistatuek konkistatzaileei obeditzea edo, eurek eufemismoz esan ohi duten moduan, arraza ahulago eta baketsuagoak kuraiosago eta kementsuagoei men egin behar izatea. Ez da behar Erdi Aroko bizitzaren sakonegi ezagutzea ikusteko zein natural eta logiko aurkitzen zuten aitoren seme feudalek behe mailakoak beren mende edukitzea, eta zein antinatural iruditzen zitzairen behe-klaseko batek eurekiko berdintasuna galdatzea edo eurei agintzea. Eta euren menpean zegoen klaseak ere antzera pentsatzen zuen. Jopu burujabetuek eta burgesek, borrokarik gogorrenetan ere, ez zuten helburu agintea konpartitzea; eurekiko botere tiranikoari mugaren bat jartzea besterik ez zuten eskatzen. Hain da egia esan duguna, non antinaturalak hemen ezohikoa besterik ez duen esan nahi, eta ohikoa den orok naturala dirudien. Emakumeen gizonekiko menpekotasuna ohitura unibertsala delarik, ohitura horretatik desbideratze orok, naturaltasun handienarekin, anti-

naturala dirudi. Baina esperientziak hainbat aldiz erakusten du zenbateraino egoten den sentipena, kasu horretan ere, erabat ohituraren mende. Ezerk ere ez du gehiago txunditzen munduko alde urrunduetako jendea, Ingalaterrari buruz lehenengoz zer bait entzutean, herrialde honek erregina duela buru jakiteak baino: hain antinaturala deritzote horri, non ia sinestezina dela iruditzen zaien. Ingelesek ez deritzote inola ere antinaturala, ohituta daudelako horretara; baina antinaturala iritziko liokete emakumeak soldadu edo Parlamentuko kide izateari. Garai feudaletan, aitzitik, ez zegoen antinaturaltzat emakumeak gerran edo politikan sartzea, ezohikoa ez zelako; gauza naturala zela zirudien klase pribilegiatuetakoa emakumeek gizon izaera edukitzea eta euren senar edo aitak baino gutxiago ezertan ez izatea, indar fisikoan izan ezik. Emakumeen independentziari grekoek ez zeritzoten antzinako beste herriek bezain antinaturala, Amazonen fabulagatik (historikoa zela uste baitzuten) eta, aldeaz, Espartako emakumeek emandako etsenpluagatik; izan ere, hauek Greziako beste Estatuetan baino gizonaren menpekotasunetik libreago ez zeuden arren legeaz, izatez libreagoak ziren, eta, ariketa fisikoetan gizonak bezalaxe entrenatzen zirelarik, ongi frogatu zuten ez zeudela horietan berez haiek baino beherago. Ez dago dudarik Platoni ere Espartako esperientziak iradoki ziola, bere beste doktrina askoren artean, sexu bien berdintasun sozial eta politikoaren ideia.

Baina –esanen didate– gizonak emakumeak menperatzea aipaturiko beste menperatze mota guztietatik diferentea da, hor menperatzaileak indarrak ez darabilako; borondatez onartua da; emakumeak ez dira kexatzen eta nahita jartzen dira menpean. Horretaz lehenengo eta behin esan behar dut emakume askok ez dutela hori onartzen. Emakumeek beren sentimenduak idazkiz ezagutaraz ditzaketenetik (gizarteak libre uzten dien publizitate bide bakarra berori), gero eta gehiagok idatzi dituzte egun duten egoera sozialaren kontrako protestak; eta, oraintsu, milaka emakumek, publikoarentzat ezagun diren ospetsuenak buru dituztela, Parlamentuari eskaerak egin dizkiote, parlamenturako hauteskundeetan boto emateko eskubidea erdiesteko. Emakumeen erreklamazioak, gizonena bezain hezkuntza sendoa eta haiek lantzen dituzten adar beretara hedatua eskatuz, gero eta indartsuagoak dira eta arrakasta izateko gero eta aukera gehiago dute; eta gero eta gehiago premiatuz eskatzen ari dira zabal dakizkiela orain arte

zeharo itxita eduki dituzten profesio eta lanetako ateak. Egia da Ingalaterran ez dagoela, Estatu Batuetan bezala, aldezkatu batzarrik ez antolaturiko alderdirik Emakumeen Eskubideen alde propaganda egiteko, baina badago elkarte sozial jendetsu eta aktibo bat emakumeek antolatua eta zuzendua, helburu mugatuago baterako: boto emateko eskubidea erdiesteko. Eta gure herrialdean eta Amerikan bakarrik ez dira protestatzen hasi emakumeak, kolektiboki gutxi-asko, jarrita dituzten gairak beharreko oztopoen kontra. Frantziak, Italiak, Suitzak eta Errusiak ere orain mugimendu berorren adibideak eskaintzen dizkigute. Inork ezin jakin lezake zenbat emakume gehiago diren isilean gauza bera lortzeko guraria dutenak; baina seinale asko dira, erakusten digutenak zenbat gehiago *liratekeen*, baldin gurari horiek euren sexuaren erabidearen kontrakotzat erreprimitzen hainbesteko gogortadaz irakatsiko ez balitzaie. Gogoratu beharra dago, gainera, esklaboek ere ez zutela behingoan galdu askatasuna. Simon de Montfortek udaletako diputatuak Parlamentuan lehenengo aldiz jesartera deitu zituenen, izan al zen inor amestu zuenik eskatzea botoemaileek hautetsitako biltzar bat izan zedin ministerioak egin eta deseginen zituena eta erregeari Estatuko aferetan nola jokatu aginduko ziona? Horrelako pentsamendurik handinahienaren irudimenean ere ez zen sartzen. Nobleziak bazuen nahikari hori; herriak zerga arbitrarioetatik eta erregearen funtzionarioen zapalkuntza demasetik libratzea beste helbururik ez zuen. Lege politiko naturala da jatorriz antzinakoa den botereren baten mende daudenak inoiz ez hastea botereaz beraz kexatzen, beronen erabilera zapalgarriaz baizik. Beti izan dira emakumeak beren senarrek emandako trataera txarraz kexu izan direnak. Eta askoz gehiago *lirateke*, baldin kexek trataera txarrak errepikatzea eta gehitzea ez balekarte. Ez da posible gizonaren boterea mantentzea eta aldi berean emakumea haren abusuetatik babestea, eta zentzu horretan egindako ahalegin oro alferrekoa da. Emakumea da (seme-alabez aparte), epaileen aurrean bidegabekeria jasan duela frogatu ondoren, bidegabekeria hori egin duen errudunaren botere fisikoaren pean berriro uzten den pertsona bakarra. Horregatik emazteak, tratatu txar fisikoaren kasurik ertzekoen eta luzeenetan ere, nekez ausartzen dira beren babesarako egindako legeez baliatzen; eta unerik batean, haserreari eutsi ezinik edo auzoren batek esku hartuta, horretara jotzen badute, gero ahalegin guztia egiten dute beren tiranoaren miseriak ahalik gehien ezkutatzeko eta hura merezi duen zigorretik salbatzeko.

Kausa guztiek, bai sozialek eta bai naturalek, bat egiten dute ia ezinezko bihurtzeko emakumea gizonaren boterearen kontra jaikitzea. Emakumea menpeko beste klase guztienetik diferentea den egoeran dago, halako moldez egon ere, non emakumearen ugazabak zerbitzua baino zerbaít gehiago espero duen berarengandik. Gizonek ez dute nahi emakumeen obedientzia soilik, haien sentimenduak nahi eta behar dituzte. Gizon guztiek, astakirtenenak salbu, eurekin harremanik estuenak dituen emakumearengan, beharturiko esklaboa barik borondatezko esklaboa eduki nahi dute, esklabo huts bat barik esklabo kuttun bat. Horregatik, edozer eginen dute haien gogoá esklabo bihurtzeko. Beste esklabo guztien ugazabek, obedientzia segurtatzeko, beldurra dute arma, berekiko beldurra edo beldur erlijiosoa. Emakumeen ugazabek obedientzia hutsa baino zerbaít gehiago behar zuten, eta hezkuntzaren indar guztia erabili zuten beren nahia betetzeko. Emakume guztiak, txiki-txikitatik, beren izaera ereduá gizonaren izaera ereduaren kontrakoa den ustean hezten dituzte; nork bere erabakimenaz eta nork bere burua gobernatuz jokatzén barik, besteen menpean egoten eta haien nahiari amore ematen irakasten zaie. Arau moral guztiek diotsete inorentzat bizitzea dela emakumeen betebeharrá, eta sentimentalismo guztiek, euren izaerak ere hala nahi duela; emakumeek beren burua zeharo ukatzea eta beren maitasunetarako bestetarako ez bizitzea nahi dá. Eta maitasunak esatean edukitzen lagatzen zaizkien bakarrak esan nahi díra, hau dá, bizikide duten gizonarenganakoa eta emakumearen eta beronen gizonaren arteko lokarri berri eta apurtezin díren seme-alabenganakoa. Hiru elementu hauexek kontuan hartzen baldin baditugu, alegia, lehengo, sexu bien arteko erakarpen naturala, bigarren, emaztearen senarrarekiko menpetasun erabatekoa, emaztearen pribilegio edo plazer oro haren opari edo haren nahiaren erabat mende dagoen zerbaít izanik, eta, hirugarren, emazteak gizakiak bizikien bilatzen duena, aintzat hartua izatea, eta xede sozial handi guztiak eskuarki senarraren bidez bakarrik bila eta erdiets ditzakeela, hiruhoriek kontuan hartuz gero, diot, mirakulua litzateke gizonentzat erakargarri izatea emakumeen hezkuntzako eta izaeraren moldaketako iparrizar ez bihurtu izana. Eta, behin emakumeen gogoan eragina izateko bitarteko indartsu horren jabe eginda, norberekeri senak eraman zituen gizonak berorrez azkeneraino baliatzerá emakumeak menpean edukitzeko, beraiei aditzera emanéz otzantasuna, men egitea eta norbere nahi guztiak gizonaren esku uztea

erakargarritasun sexualaren funtsezko osagaiak direla. Jar al daiteke zalantzan gizateriak apurtu ahal izan dituen beste uztarriek ere gure garai honetaraino iraunen zuketela, iraun, baldin arestian aipaturiko bitarteko berak eskura izan balira eta ardura beraz erabili izan balira gogoak uztarpera makurrarazteko? Plebeio gazte ororen bizi-helburu patrizioren baten ederra irabaztea edo jopu gazte ororena jaunen baten bereganatzea izatea lortu izan balitz; baldin jaun horren morroi izatea eta haren maitasun pertsonaletan parte izatea guztiek bilaturiko saririk handiena izan balitz, iaioen eta handinahienek sari desiragarrienez jabetuz; eta baldin, sari hori eskuratu ondoren, brontzezko horma batez ugazabarengandik kanpoko interes orotatik, harekin konpartiturikoetatik ez beste sentimendu eta gurari guztietatik banandu izan balira, jaunen eta jopuen artean, plebeioen eta patrizioen artean ere ez ote zatekeen egonen, gaurdaino egon ere, gizonen eta emakumeen artean dagoen moduko bereizpen sakona? Eta, pentsalariren bat edo beste kenduta, ez luke edonork uste izanen bereizpen hori giza izaerari datzekion gertaera funtsezko eta aldaezina dela?

Arestiko gogorakizunak ongi erakusten dute ohiturak, unibertsalena izanda ere, ez dakarkigula presuntziorik eta ez ligukeela sortu behar emakumea gizonarekiko menpekotasun politiko eta sozialean jartzen duten antolamenduen aldeko aurreiritzirik. Baina harago joan naiteke baieztatuz ezen historiaren bilakabidea eta aurreratuz doan gizartearen joerek ez bakarrik ez dakarkigutela eskubide ezberdintasuneko sistema honen aldeko presuntziorik, baizik beronen kontrako indartsu bat dakarkigutela; ezen, giza hobekuntzaren bilakabide osoak, joera modernoek korronteak, gai honi buruz ondorioren bat ateratzea bermatzen duen heinean, garbi atera behar dugula iraganaren geldikin hori geroarekin muturka dagoela eta derrigor desagertu behar duela.

Izan ere, zein da mundu modernoaren izaera berezia? Zerk batez ere bereizten ditu instituzio modernoak, ideia sozial modernoak, bizitza modernoa bera, antzinako garaietakoetatik? Bada, bereizten dituen da: gizakiak orain ez direla bizitzan egokitu zaien leku edo egoera berean beti egoteko jaiotzen, ez daudela egoera horretara lokarri hautsezinez lotuta, baizik aske direla beren giza ahalmenak eta aurkezten zaizkien aukerak desiragarrien zaizkien helburuak erdiestera bideratzeko. Behiala gizarte oso printzipio ezberdin baten arabera

eraturik zegoen. Gizabanakoa egoera sozial finko baterako jaiotzen zen, eta hantxe egon beharra zuen legez edo handik irteteko modurik gabe uzten zutelako. Batzuk zuri eta beste batzuk beltz jaiotzen diren moduan, halaxe batzuk esklabo eta beste batzuk gizaki libre eta hiritar jaiotzen ziren; batzuk patrizio, besteak plebeio, batzuk aitoren seme, besteak morroi eta *roturier*. Esklaboak edo jopuak ezin zuen bere burua libre deklaratu, ezta, bere ugazabaren erabakiz izan ezik, libre izatera heldu ere. Europako herrialde gehienetan, Erdi Aroaren amaieran, ez lehenago, eta errege boterea areagotzearen ondorioz, plebeioak noble bilakatu ahal izan ziren. Nobleen artean ere semerik zaharrena zen, jaiotza eskubidez, aitaren ondasunen oinordeko bakkarra, eta denbora asko pasa zen aita semea deseredatzeko eskubidea finkatuta ikusi aurretik. Industriako klaseetan, gremioren baten barruan jaiotakoak edo bertako kideek barruan onarturikoak bakarrik jardun zezaketen beraien lanbidean, gremioari ezarritako muga barruan, eta inork ezin zuen inportantetzat jotako ezein lanbidetan jardun, legez ezarritako eran eta agintariek agindutako prozesuak betez izan ezik. Manufakturari batzuk pikotara eramane zituzten beren lanean metodo berri eta aurreratuak ibili izana leporatuta. Europa modernoan, hobekuntza modernoetan gehien parte hartu duten herrialdeetan batez ere, lehenagokoen zeharo aurkako doktrinak dira orain nagusi. Legeak eta gobernuak ez dute erabakitzen nork zuzendu behar duen edo behar ez duen proiektu industrial bat, ezta zein metodo diren legezkoak lan hori burutzeko. Horrelako gauzak gizabanakoen aukera libreria gelditzen dira. Langileak apendizkoa egitera behartzen zituzten legeak ere baliogabetuta gelditu dira Ingalaterran, zeren irmoki uste baita apendizkoa beharrezko den kasu guztietan, beharrezkotasuna bera aski izanene dela jendea horretara behartzeko. Teoria zaharrak gizabanakoaren aukera ahalik gehien murriztea nahi zuen, haren ekintzak, ahal zen neurrian, goi jakituriak bideratuak eta zuzenduak izatea. Seguru zegoen gizabanakoak, bere kontura utziz gero, oker jokatu zuela. Gaur egungo uste sendoa, mila urteko esperientziaren fruitua, ostera, da gizabanakoaren zuzeneko interesekoak diren gauzak inoiz ez direla ongi joaten beraren kontura utzi ezean, eta agintek haiek erregulatu nahian egindako esku-sartze oro, besteen esku-bideak babesteko egindakoak izan ezik, dudarik gabe kaltegarriak direla. Astiro erdietsitako eta harik eta aurkako teoriaren ia aplikazio posible guztiak emaitza hondagarriekin egin arte onartu ez den kon-

klusio hori gaur egun nagusi da (industri sailean bederen) herrialde aurreratu guztietan eta nolabaiteko aurreramendua lortu nahian ari diren ia herrialde guztietan. Horrek ez du esan nahi prozesu guztiak maila berean onak edo pertsona guztiak edozertarako maila berean gaituak direnik; horrek esan nahi du gaur egun badakigula gizabanakoaren aukerak soilik ziurtatzen duela prozesurik onenak hautatzea eta nor bere gaitasunei dagokien lanean aritzea ongien. Inork ez du uste errementari guztiek beso indartsuak eduki behar dituztela ezartzen duen lege bat egitea beharrezko denik. Askatasuna eta lehia aski dira beso indartsukoak errementari izatea lortzeko, beso ahulekoek, berek hobeto egin ditzaketen lanetan sartuta, diru gehiago irabaz dezaketelako. Doktrina horri jarrai, uste dugu, presuntzio orokor batean oinarrituta, gizabanako batek honetarako edo hartarako balio duen ala ez aurretiaz erabakitzea agintearen mugak gainditzea dela. Egundak erabat jakina eta onartua da, horrelako presuntziorik egotera ere, presuntzio hori ez litzatekeela hutsezina. Kasurik gehienetan arrazoietan oinarritua balitz ere, oso litekeena ez dena, kasu gutxi batzuk kanpogan geldituko lirateke, eta horietan gizabanakoentzat bidegabekeria eta gizartearentzat kaltea litzateke gizabanako batzuei beren ahalmenak beren eta besteen onerako erabiltzea galaraziko dieten hesiak jartzea. Bestalde, ezgaitasuna benetakoa bada, giza jokaeraren zio normalak aski dira, azken batean, gizabanako ezgaiari ez dagokion lanean has-tea edo irautea eragozteko.

Baldin zientzia sozial eta ekonomikoko printzipio orokor hori egiazkoa ez bada, baldin gizabanakoak, euren ezagunen iritzietatik har dezaketen laguntzarekin, legea eta gobernua baino beren gaitasun eta bokazioaren epaile hobeak ez badira, orduan gobernuak printzipio hori berehala bertan behera utzi eta araupetzeen eta ezgaitasunaren sistema zaharrera itzuli behar du. Baina printzipioa egiazkoa bada, berorren arabera jokatu behar dugu, eta ez dugu dekretatu behar mutil jaio beharrean neska jaiotzeak erabakiko duela pertsonak bere bizitza guztian izanen duen egoera, lehenago zuri jaio beharrean beltz edo noble jaio beharrean plebeio jaiotzeak erabakitzen zuen moduan. Horrek ez du jendea gorengo maila sozialetatik eta lan duinetatik, gutxi batzue-tatik izan ezik, kanpo utzi behar. Gaur sinestarazi nahi dugutena, hau da, gizonak egundak eurentzat bakarrik diren zereginetarako gaiago dire-la, ontzat joko bagenu ere, Parlamentuko kideei gaitasun maila galda-

tzea galarazten duen legea erabili ahal izanen genuke argudio gisa. Hautagai izateko baldintzek hamabi urtetan behin diputatu izateko gai den pertsona bat kanpoan uzten badute, horretan benetakoko galera bat dago; milaka pertsona ezgai kanpoan uzteaz, ordea, ez da ezer irabazten; izan ere, hauteskundeetako kidegoa jende ezgaia hautatzeko moduan eratuta badago, horrelako pertsona asko izanen dira beti euren artetik hautatu ahal izateko. Zailtasun edo garrantzi handi samarreko zereginetan, ongi egin ditzaketen lagunak behar direnak baino gutxiago izaten dira, hautagaiei dagokienez inolako mugarik jarri gabe ere. Eta hautaketaren eremua mugatze orok gai den eta zerbitzu ona emanen liokeen pertsona bat hautatzeko aukerak kentzen dizkio gizarteari, ezgai den bat hautatzetik inoiz ere babestu gabe.

Gaur egun, herrialderik aurreratuenetan, legeek eta instituzioek emakumeen ezigaitasunen kasua bakarrik, beste bat salbu, aintzat hartzen dute jaiotzatik bertatik, eta dekretatzen dute pertsona horiei euren bizitza osoan inoiz ere ez zaiela utziko zenbait gauza lortzeko lehian jarduten. Salbuespen bakarra erregetzarena da. Oraindik ere tronurako jaiotzen diren pertsonak daude; inor ezin da bertan jesarri errege familiakoa ez bada, eta familia horretakoa izanda ere, inor ezin da hara heldu herentziazko ondorengotzaz dagokiolarako izan ezik. Beste dignitate eta gizarte abantaila guztiak irekita daude sexu maskulino guztiarentzat; asko, egia esan, aberastasunaz bakarrik eskura daitezke, baina mundu guztia aberats daiteke, eta, lortu ere, jatorri txiroroko askok lortzen dute aberastea. Zailtasunak, egia esan, gehienentzat gaitzietatik dira zorteak lagundu ezean, baina ezein gizonezkori ez zaio debeku legalik ezartzen; ez legeak ez iritziak ez die oztopo artifizialik eranstean berezkoei. Erregetza, esan dudan moduan, salbuetsita gelditzen da; baina kasu horretan mundu guztiak sumatzen du salbuespena dela; anomalia bat da mundu modernoan, beronen ohitura eta printzipioekin aurkakotasun nabarmenean dagoena, eta ez da justifikatzen baliagarritasun motibo bereziz izan ezik, motibook izan badirelarik, gizabanakoek eta nazioek ezberdinki baloratu arren. Baina salbuespenezko kasu horretan goi gizarte-funtzio bat betetzeko eskubidea, arrazoi garrantzitsuengatik, lehiagarritasunean barik jaiotzan oinarrituta ematen bada ere, nazio askeek, hala ere, izenez hausnartzen duten printzipioari atxikirik jarraitzen dute funtsean. Eman ere, goi funtzio hau itxuraz dagokion pertsonari egiatan betetzea eragozte-

ko kalkulaturik dauden baldintzen pean ematen da; betetzen duen pertsonak, horren ardura hartzen duen ministroak, ordea, lehian erdiesten du postu hori, eta legeak ez du lehiaketa horretatik kanpo uzten sexu maskulinoko ezein hiritar heldu. Emakumeei emakume jaiotze hutsagatik eratzikitzen zaizkien ezgaitasunak, beraz, legeria modernoan aurkitzen ditugun mota horretako kasu bakarrak ditugu. Gizateriaren erdia diren emakumeentzat izan ezik, beste ezein kasutan ez daude goi gizarte-funtzioak inorentzat itxita, ezein ahaleginek ez zirkunstantzi aldaketak gainditu ezin duen jaiotzako patuagatik. Izan ere, ezgaitasun erlijiosoek eurek ere (Ingalaterran eta Europan, gainera, jada praktikan ia guztiz desagertu direnak) ez diote ixten ezgaituari, konbertituz gero, ezein karreratarako atea.

Emakumearen menpekotasun soziala, hartara, gertakari bakar gisa ageri da gizarte instituzio modernoetan; berorien oinarrizko lege bihurtu denaren haustura bakar, beste arlo guztietan leherturiko baina interes unibertsaleko puntu batean iraunarazitako antzinako mundu intelektual eta moral baten aztarna bakar izanik. Imajina ezazue trikuharri erraldoi bat edo Jupiter Olinpikoaren tenplutzar bat San Paulo dagoen lekuan eguneroko gurtzarako erabilia, inguruko kristau elizak jaiegunetan eta ospakizun handietan baino irekitzen ez direlarik. Gertakari sozial baten eta beraren inguruko beste guztien arteko desadostasun erabateko horrek eta berorren izaerak denean aurrera doan mugimenduari, mundu modernoaren harrotasuna denari eta horrelako beste edozer mundutik desagerrarazi duenari, aurrez aurre jartzen dion kontraesanak hausnargai sakona eskaintzen diote giza joeren behatzaile arretatsuari. Hortixe sortzen da sexuen desberdintasunaren kontrako *prima facie* iritzi bat, ohiturak eta erabilerak zirkunstantzia horietan horren alde sor dezaketena baino askoz sendoagoa dena eta auzi hori, errepublikaren eta monarkiaren arteko eztabaidan gertatzen den bezala, gutxienez erabaki gabe uzten duena.

Eska daitekeen gutxiena zera da: egitate burutuak eta nagusi den iritzia bitarteko direla auzia aurretik juzgatu beharrean, eztabaidara zabalik gelditzea hala justiziaren nola baliaagarritasunaren ikuspegitik; izan ere, horri buruzko erabakia, gizateriaren beste antolamendu guztiei buruzkoa bezalaxe, joeren eta ondorioen balioespen argi bat egin ondoren gizateriarentzat abantailatsuena dela –sexu arteko inolako bereizketarik egin gabe– ikusten denaren mende baitago

edo egon behar bailuke. Eta eztabaidak egiazkoa izan behar du, sako-neraino doana eta baieztapen lanbrotsu eta orokorrekin konformatzen ez dena. Ez du balioko, adibidez, termino orokorretan baieztatzea gizateriaren esperientzia egungo sistemaren alde agertu dela. Esperientziak ezin izan du bi aukeraren artean erabaki, baten esperientzia baino ez du eduki eta. Sexuen arteko berdintasunaren doktrinak teoria beste oinarririk ez duela baldin badioskute, gogorarazi beharko diegu kontrako doktrina ere ez dela teorian baino oinarritzen. Horren alde zuzeneko esperientziaz frogatuta dagoen guztia da gizateria berorren pean bizitzeko eta egun ikusten dugun hobekuntza eta oparotasun mailara heltzeko gai izan dela; baina esperientziak ez dio oparotasun hori gizateria beste sistema baten pean bizi izan balitz baino lehenago lortu dugunik edo orain handiagoa denik. Bestalde, esperientziak badio, hori bai, gizateriaren hobekuntzan egin den urrats bakoitzak emakumeek gizarte mailan egindako gorakada bat izan duela beti lagun, eta horrexek eraman ditu historialari eta filosofoak emakumeen gorakada edo beherakada herri baten edo aro baten zibilizazio maila neurtzeko frogarik seguruentzat eta neurgailurik egokientzat hartzera. Giza historiaren aurreramenduko aldi guztian zehar, emakumeen egoera hurbilago joan da gizonekiko berdintasunera. Horrek berorrek ez du berez frogatzen hurbiltasunak berdintasun osoraino joan behar duenik; baina, zalantzarik gabe, horren aldeko pre-suntzioa dakarkigu.

Ezta ere ez du ezertarako balio esateak sexu bien *izaerak* sexu bakoitza bere egungo funtzio eta egoerara moldatzen duela eta funtzio eta egoerok eurentzako egokiak izatea egiten duela. Zentzunean eta giza gogamenaren izaeran oinarrituta, zeharo ukatzen dut sexu bien berezko izaera inork ezagutzen duenik edo ezagut dezakeenik, egungo elkarrekiko harremanetan baino ikusi ez ditugunez gero. Baldin emakumerik gabeko gizon hutsen gizarteren bat aurkitu izan balitz, edo gizonik gabeko emakumeena, edo gizon eta emakumeena, baina emakumeek gizonen kontrolpean egon gabe, orduan zerbait jakin zitekeen positiboki sexu bakoitzaren izaeran egon daitezkeen diferentzia intelektual eta moralei buruz. Egun emakumeen izaera deitzen dena goren mailan artifiziala den zerbait da: behartuta ezarritako errepre-sioaren ondorio zenbait norabidetan, naturala ez den estimulaziorena beste zenbaitetan. Eskrupulurik gabe baiezta daiteke inoiz ez dela

mota bateko menpekoen izaera, euren ugazabekiko harremanen eraginez, bere neurri naturaletatik okertu, emakumearena egin den hainbestean; izan ere, konkistaturiko herriak eta esklabo arrazek zenbait aldetatik gogorkeria handiagoz erreprimituak izan badira ere, burdinazko uztarriak hautsi ez zieten joerek beren eboluzio naturalean jarraitu zuten normalean, garapenerako baldintza egokiak topatu zituzten heinean. Emakumeekin, ordea, berotegiko hazkuntza sistematik erabili dira euren gaitasun batzuei dagokienez, euren ugazaben onura eta plazererako beti ere. Gero ikusirik giro berotu horretan eta aparteko eran elikatu eta ureztaturiko inguru horretan landareak indartsu hazi eta mardultzen direla, sustrai bereko kimuak, ordea, kanpoan neguko hotzetan utziz eta nahita izotzez inguratuz gero, gutxi hazten direla, eta beste batzuk suak erreta desagertzen direla, gizonek, analisirako gai ez diren adimenen ezaugarri den norbere lana ezagutzeko ezgaitasun horrekin, tonto-tonto pentsatzen dute landarea berez hazten dela eurek hazarazi duten moduan, eta hil eginen litzatekeela landarearen erdi bat bero lurrintzan eta beste erdia elurtzan eduki ezean.

Pentsamenduaren aurrerapena eta bizitzari eta giza erakundeei buruzko ongi oinarrituriko iritzien eratzea oztopatzen dituzten zailtasun guztietatik handiena gizakiaren izaera eratzen duten eraginei buruz gizateriak daukan ezjakintasun eta axolagabetasun adieraztezinak da. Giza espeziearen zati bat den modukoa den edo dela dirudien neurrian, uste dugu berezko joera duela horrelakoxea izatera, nahiz eta gizaki horiek bizi izan dituzten zirkunstantzien ezagutza oinarritzen agerian jarri zein diren horrelakoak izatera eramanez dituzten zergatiak. Bere lurren ugazabari zor dizkion ordainketak egiten oso atzeratuta dabilen errentari irlandar bat lanerako uzkurtxo dabilelako, irlandarrak berez alferrak direla uste du jende batek. Frantzian, konstituzioak betearazteko izendaturiko agintariek beraiei kontra jartzen direnean, konstituziook jo eta eraitsi daitezkeelako, frantsesak gobernu librearen edukitzeko jaioak ez direla uste du beste jende batek. Grekoek turkoak engainatu zituztelako eta turkoek grekoei lapurretan egin besterik ez zitelako egin, batzuek uste dute turkoak berez zintzoagoak direla; eta emakumeak, maiz esan ohi den moduan, ez direlako politikaz batere arduratzen, pertsona ospetsuez izan ezik, suposatuzat jotzen da denon ona gutxiago interesatzen zaiela emakumeei, gizonei baino. Historiak, ordea, gaur egun lehenago baino askoz hobeko

to ulertzen den historiak, bestelako lezioa irakasten digu: agerian uzten digu nolako erraztasunez hartzen dituen giza izaerak kanpoko eraginak eta zein aldagarriak diren unibertsalen eta uniformeentzat dauzkagun haren agerpenak eurak ere. Baina historian, bidaietan bezala, gizakiek beren buruan jada dutena baino ez dute ikusten normalean, eta historia ikastera beren baitan jakituria handirik ez dararmatenak ez dute historiatic asko ikasten.

Horregatik, sexuen arteko alde naturala zein den jakitea den arazo zailari dagokionez –gizartearen egungo egoeran gai horri buruz ezagutza oso eta zuzena erdiestea ezinezkoa da–, nahiz eta ia edonor ibili berorren gainean dogmatizatzen, ia mundu guztiak uzten du albo-ra arazo hori alde beren ulertzeko argia ekar dezakeen bitarteko bakarra, hau da, psikologiako kapitulu garrantzitsuenaren azterketa analitikoa, alegia, zirkunstantziek izaeran duten eraginaren legeena. Izan ere, gizonaren eta emakumearen arteko alde moral eta intelektualak handienak eta itxuraz ezabagaitzenak izanda ere, alde horiek naturalak direlako frogarik ez dago egun. Artifizialak inola ere izan ezin daitezkeenak baino ezin ditugu naturaltzat hartu, hau da, sexu batean edo bestean hezkuntzak edo kanpoko zirkunstantziek esplikatzaketen ezaugarri guztiak kendu ondoren gelditzen direnak bakarrik. Izaera eratzen duten legeen ezagutzarik sakonena ezinbestekoa da norbaitek alde horiek badirela baieztatzeko eskubidea ukan dezan, eta arrazoi handiagoz sexu bien artean, izaki moral eta razional gisa, dauden aldeak zein diren esateko; eta gaurdaino inork ere ez duenez ezagutza hori (izan ere, ez baitago gairik, bere garrantzia kontuan hartuta, hori bezain gutxi aztertu denik), inor ere ez dago gaituta gai horri buruz iritzi positiborik emateko. Aieruak baino ezin ditugu egin gaur egun; probabilitate gehiago edo gutxiagoko aieruak, psikologiak izaeraren eraketan duen eraginaren legeez daukagun ezagutzaren arabera.

Atariko ezagutza bera ere, hau da, gaur egun sexuen arteko aldeak –euren jatorriari buruzko galdera guztiak aparte utzita– zein diren galdetuz atera genezakeena, oso kontu urri eta osagabea da. Mediku praktikanteek eta fisiologoek gorputzen osaerako aldeak seinaltatu dituzte neurri bateraino, eta hori elementu inportantea da psikologoarentzat; baina nekez aurkitzen da psikologoa den medikurik. Medikuek emakumeen ezaugarri mentalei buruz dioskutenak ez du beste edozeinek esan ohi duenak baino balio handiagorik. Gai horri

buruz ez daiteke behin betiko ezer jakin, hori benetan ezagutzen duten bakarrek, emakumeek eurek, horren berri handirik eman ez dutenez, eta eman duten apurra ere gehienetan interesatua izan denez gero. Aise ezagutuko dituzu emakume tuntunak. Ergelkeria, izan ere, gauza bera da mundu guztian zehar. Ziurtasunez jakin daiteke zein diren pertsona ergel baten ideiak eta sentipenak, haren inguruko jendearengan nagusi direnak ezagutuz gero. Ez da hori gertatzen, ordea, euren izaera eta ahalmenei darizkien iritzi eta sentipenak dituztenen kasuan. Gehienez ere gizonen bat edo beste aurkituko dugu han edo hemen, bere familiako emakumeen izaeraren ezagutza onargarri samarra duena. Ez diot haien gaitasunena, zerren horiek inork ere ez baititu ezagutzen, emakumeek berek ere, gaitasunotako gehienak inoiz ere erabili ez dituztelako. Haien egungo ideia eta sentipenez ari naiz. Hainbat gizonen uste dute berek oso ongi ezagutzen dituztela emakumeak, zenbaitekin, askorekin agian, amodiotan ibiliak direlako. Begirale onak badira, eta duten esperientziak kantitatetik eta kaletatik bietatik badu, emakumearen izaeraren alderdi txiki bat ezagutu ahal izan dute, alderdi inportantea, dudarik gabe. Baina gainerako alderdiei dagokienez, ezjakinenak dira, emakumeak gehien euren aurrean disimulatu eta alderdi horiek konturik handienaz ezkutatu dituelako. Gizonak bere emaztearengan eduki ohi du emakumearen izaera ikertzeko aukerarik onena, horretarako egokierak gehiago eta hobeak direlako eta ez oso bakanak senar-emazteen arteko sinpatia beteko kasuak. Eta, izatez, normalean iturri horrexetatik etorriko da, nire ustez, gai horretan jakitea merezi duen guztia. Baina gizon gehienek ez dute ukan modu horretan kasu bat baino gehiago ikertzeko aukerarik; beraz, barregarri gertatzen da gizon baten emaztea nolakoa den gizon horrek emakumeez oro har dituen iritzietatik besterik gabe inferitu nahi izatea. Kasu bakar horretatik ere ezer garbirik ateratzeko, emakumeak ezagutua izatea merezi izan behar du eta gizonak, epaile trebe izatez gain, izaera oso sinpatikoa eta emaztearenera egokitua behar du, hartara haren adimenean sinpatiazko intuizioz irakurtzeko modua ukan dezan edo hark bere barrua ahalkerik gabe erakuts diezaion. Eta ezer bakanik badago, horiek guztiak batera gertatzea da, ene ikusiz. Senar-emazteen artean maiz gertatzen da sentipen batasuna eta ikuspegi adostasuna edukitzea kanpoko gauzei buruz, baina elkarren barne bizitza pertsonalean ezagunen artean izan ohi dena baino sarbide handiagorik ez edukitzea. Benetako maitasunak elkartuta bizi arren, aginteak alde

batetik eta menpekotasunak bestetik konfiantza osoa edukitzea eragozten diete. Nahita ezer ez gorde arren, gauza asko ez dira agertzen. Gurasoen eta seme-alaben artean ere antzeko fenomenoak ikusten da. Aita eta semearen arteko harremanari dagokionez, alde biek elkar benetan maite izan arren, aitak, mundu guztiak dakienez, ez ditu ezagutzen ezta susmatu ere maiz bere semearen izaeraren zenbait alderdi, haren lagunak eta maila bereko jendeak ongi ezagutzen dituztenak. Izan ere, beste bati goitik behera begiratzea ez da, benetan ere, haren zintzotasuna eta zabaltasuna lortzeko egoerarik egokiena. Hain da handia goikoaren iritzi ona edo maitasuna galtzeko beldurra, non, izaeraz zuzena izan arren, joera inkontziente bat sortzen baita alderik onena, edo, onena ez izan arren, goikoak gogokoena duen aldea erakustera; eta seguru esan daiteke bi lagunen artean ez dagoela ezagutza osorik, bi lagunok adiskide minak izatez gain, maila berean egon ezean. Eta hori arrazoi handiagoz izan behar egia, batari, gizonaren agintepean egotez gain, bere eginbehar guztia gizonaren ongizatearen eta plazeraren mende jartzean eta hari atsegin zaiona besterik ikusten eta sentitzen ez uztean datzala irakatsi zaionean. Zailtasun horiek guztiek eragozten dute gizonak aukera egokiz iker dezakeen emakume bakarra bera ere guztiz ezagutzea. Eta, horrez gain, kontuan hartzen badugu ezen emakume bat ezagutzea ez dela nahitaez beste bat ere ezagutzea; ezen, klase jakin bateko edo herrialde jakin bateko emakume asko ikertu ahal izanez gero ere, ez genituzkeela, horregatik, ulertuko beste klase eta herrialde batzuetako emakumeak eta, hori lortuta ere, ez liratekeela historiaren aldi bateko emakumeak besterik, hori guztia kontutan hartuta, diot, segurtasun osoz esan dezakegu gizonak emakumeaz, emakumea izan denaz eta egun denaz, izan litekeena aparte utzita, beregana dezakeen ezagutza zeharo osagabea eta azalekoa dela eta izanen dela beti, harik eta emakumeek eurek esateko duten guztia esan arte.

Eta horrelako egoerarik ez da oraindik heldu, eta heldu ere ez da eginen astiro eta mailaka ez bada. Atzo oraindik, esanen genuke, berenganatu zuten emakumeek, beren literatur talentuagatik edo gizar-teak baimenduta, publikoari zerbait esateko eskubidea. Gaurdaino emakume gutxi ausartu dira beren literatur arrakastaren giltza duten gizonak entzun nahi ez duten ezer esaten. Gogora dezagun, oraintsu-oraintsu arte oraindino, eskuarki oso txarto hartua zela eta maila bate-

raino orain ere dela ideia originalak edo nabarmenegitza jo izan diren sentipenak adieraztea, gizon bat izanda ere autorea, eta, hori kontuan izanda, eduki ahal izango dugu ideia txikiren bat bere portaeraren arau nagusi ohitura eta iritzia direla sinetsita hezitako emakume batek, liburuetan bere izatearen barru-barrutik ateratako zerbait adierazi nahi duenean, ukanen dituen eragozpen eta oztopo itzelei buruz. Bere herrialdeko literaturan maila bikaina emateko moduko idazlan ederrak utzi dituen emakume ospetsuenak beharrezko ikusi zuen bere liburu ausartenean goiburu haxe jartzea: «*Un homme peut braver l'opinion; une femme doit s'y soumettre*»¹. Emakumeek emakumeei buruz idazten dutenetik gehiena gizonentzako lausengu hutsa da. Emakume ezkongeen kasuan, ematen du senarra topatzeko aukerak gehitzeko soilik idazten dutela. Emakume asko, ezkonduak nahiz ezkongeeak, harago doaz, eta beren generoarentzat ezein gizonak, oihasenak kenduta, nahi duen edo gogoko duen baino mirabetza handiagoa bultzatzen dute. Baina orain horrelako kasuak desagertuz doaz. Emakume literatoak egiazaleago bihurtzen ari dira, eta euren benetako sentimenduak adierazten ausartzen dira. Ingalaterran bereziki, zoritxarrez, emakumearen izaera produktu artifiziala da, azterketa eta ideia pertsonal gutxiz eta onarturiko ideia pilo handi batez osaturikoa. Egoera hori leunduz joanen da, baina iraun egingen du hein handian, gizarte instituzioek emakumeari bere originaltasuna gizonak euren lantzeko duten askatasun beraz garatzen uzten ez dioten artean. Garai hori helitzen denean, eta ez lehenago, ikusiko dugu, eta ez entzun bakarrik, zenbat ikasi behar den emakumeen izaera ezagutzeko eta beste zenbait gauza izaera horretara egokitzeke.

Gaur egun gizonak emakumeen benetako izaera ezagutzea eragozten duten zailtasunei hainbeste ekin badiet, honetan ere, beste gauza askotan bezala, *opinio copiae inter maximas causas inopiae est* egia delako da, eta, gainera, gai honi buruz arrazoiz pentsatzeko aukera handirik ez dagoelako, gizonak harrotasunez esaten segitzen duten artean beraiek ezin hobeto ulertzen dutela gehienek inondik ere ezagutzen ez duten gai bat, gaur egun, gainera, ezein gizonak, ezta gizon guztiek batera ere, emakumeei euren bokazioa zein den edo zein ez den esateko moduan ezagutu ezin dutena. Zorionez, horrelako ezagutzarik ez da behar emakumeek gizartean eta bizitzan eduki behar duten lekuaren inguruko xedeak zehazteko. Izan ere, gizarte moder-

noaren eraketako printzipio guztien arabera, emakumeei berei dagokie hori erabakitzea, beren esperientziaren arabera eta beren ahalmenez baliatuta. Ez dago modurik pertsona bat edo asko zer egiteko kapaz diren jakiteko, proba eginda izan ezik, eta batek ezin du beste bat ordeztu hark bere zorionerako zer egin edo egin barik utzi behar duen erabaki orduan.

Honako honetaz bederen ziur egon gaitezke: emakumeen izaeraren kontrakoa dena ez dute haiek sekula eginen, askatasun osoa ematen bazaie ere. Gizateriak, naturak bere xedea beteko ez ote duen beldur, naturari laguntzeko duen kezka inondik ere ez da beharrezko ardura. Inondik ere ez dago emakumeei beren izaeraz egin ezin dutena debekatu beharrik. Nahikoa da konkurrentzia emakumeak gizonezko lehiakideek bezainbatean egin ezin dezaketen guztitik kanpo uzteko, zeren inork ez baitu eskatzen emakumeen aldeko ez babesneurririk ez pribilegiorik; eskatzen den gauza bakarra egun gizonek dituzten babes-neurriak eta pribilegioak kentzea da. Emakumeak gauza batzuetara joera natural handiagoa badu beste batzuetara baino, ez dago lege ez gizarte bultzada beharrik emakumerik gehienak hau barik bestea egitera behartzeko. Direnak direla behar diren emakumeen zerbitzuak, konkurrentzi askatasunak emanen die emakumeei kargu bat beren gain hartzea erabakitzeko bultzadarik handiena. Eta, hitzek berek adierazten duten moduan, eurek ondoen egin dezaketena egiteko beharko dira; eta emakumeei horiek emanez gero, sexu bien gaitasun kolektiboak emaitzarik baliotsuena lortzeko moduan erabili ahal izanen dira.

Uste da gizonek eskuarki pentsatzen dutela emakumearen bokazio naturala emazte eta ama izatea dela. Eta *uste da* diot, zeren gertakarietatik eta gizartearen egungo eraketatik oro har gizonen iritzia juxtu kontrakoa dela inferi baitaiteke. Ongi begiratuta, pentsa daiteke gizonen ustez emakumeen bokazio naturaltzat dagoena dela beraien izaerarekin muturkarik handiengan dagoena, eta, emakumeek bestelako zerbait egiteko askatasunik balute, bestela bizitzeko eta euren denbora eta ahalmenak euren gustukoa litzatekeen beste moduren batean erabiltzeko zirrikituren bat utziko balitzaie, ez liratekeela asko izanen euren bokazio naturala omen dena onartuko luketenak. Hori bada gizonik gehienek duten iritzia, komeni litzateke argi esatea. Teoria hori gaiari buruz idatzi den guztiaren azpian dago, egon, baina

gustatuko litzaidake norbait esaten entzutea: «Gizarteak behar-beharrezko du emakumeak ezkondu eta umeak egitea. Haiek, ordea, ez dute hori eginen behartu ezean. Beraz, behartu egin behar dira». Orduantxe definituko genuke argi zein den auziaren koska. Hegoaldeko Karolinako edo Louisianako arazoak zeukan berbera: «Kotoia eta azukrea landatu beharra dago. Gizon zuriek ezin dute hori egin, beltzek, berriz, ez dute egin nahi ordaindu nahi diegun soldataren truke. *Ergo* behartu egin behar ditugu». Beste adibide bat, gure gaiarekin lotuagoa, errekrutatzearena da. Herrialdea defendatzeko beharrezko da itsasorako gizonak errekrutatzea. Baina haiek askotan ez dute borondatez izena ematen. Horregatik, horretara behartzeko boterea behar dugu. Hamaikatxo bider erabili izan da logika hori! Eta, akatsik falta ez zaiolako ez balitz, dudarik gabe gaurdaino iraunen zukeen arrakastatsu. Baina honelaxe ihardetsi ahal dugu beronen kontra: Lehenbizi ordain iezaiezue onestasunez gizon horiei euren lanaren balioa. Eta, beste enplegatzaile batzuek ematen dietena ordaintzen diezuenean, ez duzue izanen beste horiek duten baino zailtasun handiagorik haien zerbitzuak kontratatzeko. Horrek ez dauka «ez dut nahi» beste erantzun logikorik eta, orain jendea langileari bere soldata lapurtzeaz lotsatu egiten denez eta horrelakorik egin nahi ez duenez, errekrutatzeak ez du inor aldekorik. Beste irtenbide guztiak itxita, emakumeak ezkontzera behartu nahi dituztenak ihardespén zorrotz bertsua jasotzeko arriskuan daude. Diotena pentsatzen badute, haien iritziak esan nahi du gizonak ez duela lortzen ezkontza emakumeentzat eskaintzen dituen abantailengatik izatea desiragarria. Ez dirudi eskaintzen dena gauza handitzat daukagunik, «hauxe ala ezer ere ez» beste aukerarik uzten ez dugunean. Eta hortxe dago, ene ustez, emakumearen askatasun berdinari benetako ezinikusia dioten gizonen sentipenen gakoa. Nik uste horiek beldur diotela, ez emakumeak ezkondu nahi ez izateari, zeren ez baitut uste horren benetako kezkarik inork ere duenik, baizik ezkontzan baldintza berdinak galdatzeari: beldur diote talentua eta gaitasuna dituen emakume orok ezkontzean ugazaba bat hartu eta daukaten guztia berari eman besterik egin ez dutenez gero. Eta, benetan ere, ondorio hori ezkontzari ezinbestez datxekiona balitz, oinarri sendoa luke kezkak. Ados nator uste dutenekin segurutik beste zerbait egiteko gai diren emakume gutxik aukeratuko luketela eurentzat, beste ezer balioesten uzten ez dien

grina eutsiezin batek hartaratuta egon ezean, horrelako egoera bat, bizitzan ohorezko postu bat betetzeko beste aukera batzuk eskura edukita; eta gizonak ezkontzako legea despotismoa izan behar duela defenditzeko prest badaude, zuzen daude erabat, eta euren komenentzia zaintzen dute, emakumeei «hauxe ala ezer ere ez» beste aukerarik ez uztean. Baina, orduan, mundu modernoan emakumeen gogamenean jarritako kateak laxatzeko egin den guztia oker eginga izan da. Inoiz ere ez geniokeen utzi behar emakumeari letra-hezkuntzarik hartzen. Irakurtzen duten emakumeak eta are gehiago idazten dutenak, egungo egoeran, kontraesan bat eta elementu asaldatzailerik bat ditugu; eta oker handia izan da emakumeei odaliska bati edo neskame bati dagokionez aparteko ezer irakastea.

II

Ongi izanen da gaiaren eztabaida xehatua honainoko azterketan iritsi garen ikuspuntutik hastea, hau da, herrialde honetako eta besteetako legeek ezkontza kontratuari eransten dizkieten baldintzetatik. Ezkontza delarik gizarteak emakumeei seinalatzen dien helmuga, eurak heztean begipean duen etorkizuna eta emakume guztiei, ezein gizonek bere bizilaguntzat hartzeko bezain xarmangarriak ez direnei izan ezik, bilatu beharrekotzat jartzen dien helburua, uste izan genezake dena dagoela eratuta ezkontzako egoera hori ahalik atseginena izateko moduan, emakumeak beste edozein egoera aukeratzeari uko egin izanaz damu izan ez daitezen. Gizarteak, hala ere, bai kasu horretan eta, hasieran bederen, baita beste guztietan ere, nahiago izan du bere helburua bitarteko bidezkoek baino lotsagarriez erdietsi; hala ere, kasu horrexetan bakarrik iraun du metodo horiek gure egunetara arte erabiltzen. Hasieran indarrez harrapatzen zituzten emakumeak, edo aita saltzen zion senarrari alaba. Oraintsu arte Europan aita zuen alaba bere nahiaren eta gustuaren arabera ezkonarazteko aginpidea, alabaren nahia inola ere kontuan hartu gabe. Elizak, egia esan, gogoko moraltasun ideia bati eusten zion, «ezkontzako» elizkizunean «baiezko» formala eskatuz emakumeari; baina ez zuen ezer egiten baiezko hura behartuta emandakoa zenentz egiaztatzeko; aita bere aginduari eutsiz gero, ezinezko zitzaion neskari aitaren nahiari ezetz esatea, lekaimetzako botoak egiteko erabakia hartuz erlijioaren babe-

sa lortu edo egin ezean. Ezkondu eta gero, gizonak antzina (kristautasuna baino lehen) bizi eta heriotza eskubidea zuen emaztearekiko. Emazteak ezin zuen legera jo gizonaren kontra; gizona zuen epaile eta lege bakar. Aldi luzez emaztea zapuzteko ahalmena izan zuen; hark, ordea, ez zuen gizonarekiko ahalmen bera. Ingalaterrako antzinako legeek senarra emaztearen *jauna* izendatzen zuten; emaztearen subiranotzat hartzen zuten, emazteak buruturiko gizon baten hilketari traizioa (*behe mailako* traizioa, *goi mailako* traiziotik bereizteko) esateraino hartu ere, eta goi mailako traizioa baino krudelkiago zigortzen zen, zeren ezartzen zitzaion zigorra bizirik erreta hiltzea baitzen. Askotariko izugarrikeria horiek egiteko ohitura galdu delako (zeren gehienak ez baitziren formalki abolitu, ez behintzat egiteari utzi eta handik askoz geroagora arte), gizonak uste dute orain dena dagoela behar bezala ezkontzako kontratuari dagokionez, eta etengabe esaten zaigu zibilizazioak eta kristautasunak dagozkion eskubide guztiak bihurtu dizkiotela emakumeari. Baina hori ez da horrela, eta emaztea bere senarraren benetako esklaboa da, beste garai batzuetako esklaboak bezainbatekoa obligazio legalei dagokienez. Senarrari bizitza guztian eginen diola esana zin egiten du aldarean, eta legeak zin hori bizitza guztian betetzera behartzen du. Kasulariek agian esanen dute lege horrek bere muga duela, emakumea krimen batean parte hartzera behartu nahi denean indargetu egiten dela, baina beste orotara hedatzen da, dudarik gabe. Emazteak ezin du ezertxo ere egin senarraren baimen tazitua bederen ukan gabe. Ezin du ondasunik bereganatu, senarrarentzat izan ezean; ondasunen bat, herentziaz bada ere, bereganatzen duen une berean, ondasun hori *ipso facto* senarrarentzat da. Horretan, emazteak Ingalaterrako lege komunean duen egoera esklaboek herrialde askotako legeetan ukan zutena baino okerragoa da: erromatarren legean, adibidez, esklaboak bere pekulioa eduki zezakeen, berak bakarrik erabili ahal izatea bermatzen ziolarik neurri batearaino legeak. Gure herrialde honetako goi klaseek ere horrexen antzeko abantaila eman diete emakumeei, legea albo batera uzten duten kontratu berezien bidez gastu txikietarako diru bat jarrita, haiek nahierara erabil dezaketena; izan ere, aiten guraso sentimendua sexu berekoa izateak sortzen dieten sentimendua baino indartsuagoa izanik, aita batentzat gehienetan lehenago da berea duen alaba, arrotz zaion suhia baino. Guraso aberatsek, akordio egokien bidez, emazteak heredaturiko ondasun guztiak edo batzuk bederen senarraren erabateko kontrol-

petik at uztea lortzen dute; baina ez dira heltzen emaztearen kontrol-pean uztera; gehien ere senarrari ondasun horiek xahutzen ez uztera heltzen dira, eta aldi berean eskubidea duen jabeari ondasunok erabiltzea galarazten diote. Ondasunak eurak bien irismenetik kanpo gelditzen dira; eta ematen duten errenta, emaztearen aldekoena den akordioan ere (ondasun bananduzko erregimen gisa ezagutzen denean) emazteak hartu behar du, ez senarrak, baina hark hartu eta batera senarrak indarrez kentzen badio, ezin da gizon hori horregatik zigortu, ezta errenta hori bihurtzera behartu ere. Horixe da aitoren semerik boteretsuenak, Ingalaterrako legeetan, senarraren aurrez aurre bere alabari eman liezaiokeen babes guztia. Kasurik gehien-gehienetan ez dago akordiorik eta senarrak dena bereganatzen du: eskubideak, ondasunak, emaztearen askatasuna. Biek «legezko pertsona bakar bat» osatzen dute, horrek esan nahi duelarik emaztearena den guztia senarrarena dela, baina ez senarrarena den guztia emaztearena denik; azken irizpide hori ez zaio gizonari aplikatzen, hirugarrenen aurrean andrearen egintzen erantzule egiteko ez bada, ugazaba bat bere esklaboen edo hazienden egintzen erantzule egiten den moduan. Ez dut inola ere esan nahi emazteak eskuarki ez direla esklaboak baino hobeto tratatzen; baina badiot ez dagoela esklaborik, emazteak bezainbatean esklabo denik hitz horren zentzu osoan. Esklaboa, bere ugazabaren zerbitzu pertsonalerako erabilia izan ezean, nekez izan daiteke esklabo ordu eta minutu guztietan; eskuarki esklaboak, soldaduak bezala, bere egitekoa du, eta hura bukatzean edo eginbeharretik kanpo aurkitzean, bere denbora, neurri bateraino, nahierara erabil lezake, eta famili bizitza bat dauka, ugazabak bakanki inbaditzen duena. «Osaba Tomek», bere lehenengo ugazabaren menpean, bere bizitza zuen bere «txabolan», etxetik lanera joan behar duen gizonak bere familiarekin duen bezalaxe ia. Emaztearen kasuan, ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Lehenengo eta behin, emakume esklaboak (herrialde kristaue-tan) ugazabari azken faboreak ukatzeko eskubide onartua eta obligazio morala dauzka. Emazteak, oster, ez: tiranorik ankerrenari katez lotuta egon arren –gizonak gorrotatu egiten duela jakin arren, haren plazerik handiena bera egunero torturatzea izan arren eta hura ez gorrotatzea ezinezko duela tripetan barrena sentitu arren–, gizakiak jasan dezakeen degradaziorik apalgarrienera jaitsaraz lezake tirano horrek, bere nahiaren kontra animala funtzio baterako tresna izatera behartuz. Baina, andrea bera esklabotasunik okerrenaren pean dagoen

bitartean, zein da haren egoera ugazabaren eta bien intereseko diren seme-alabekiko? Legearen arabera, senarrarenak dira seme-alabak, *bereak* ditu. Berak bakarrik ditu lege eskubideak haiekiko; emazteak ezin du haienganako ezer egin, senarraren ordezkaritzaz izan ezik. Senarra hil ondoren ere ez da seme-alaben legezko zaindaria, hark testamentuan hala xedatu ez badu. Senarrak, oraintsu arte, emaztearengandik aparta zitzakeen seme-alabak eta haiek ikusteko edo haiekin harremanak izateko modurik gabe utzi ama, zehazki *Serjeant Talfourd's Act* izeneko legeak senarraren botere hori neurri batean murriztu zuen arte. Eta emazteak ez du egoera legal horretatik ihes egiterik. Senarrari hor konpon esanda alde egiten badu, ezin du ezer eramanez, ez bere seme-alabak ez eskubidez berea duen ezertxo. Senarrak nahi badu, itzultzeraz behar lezake legez edo indar fisiko; edo emazteak irabazitakoa edo ahaideengandik harturikoa beretzat hartzearekin konforma liteke. Auzitegiko epaiaz lorturiko legezko banantzeak bakarrik eman liezaioke emazteari aparte, kartzelero amorratu baten zainpera itzultzeraz inork behartu gabe, bizitzeko eskubidea, baita berak irabazitakoak bere beharrianetarako erabiltzeko ahalmena ere, beharbada hogeitertan ikusi ez duen gizonak egun batean burrunban etorri eta irabazitako guztia eramateko beldurrik gabe. Oraintsu arte, auzitegiek ez zuten legezko banantze hori ematen diru askoren truke izan ezean, halatan, non gizarte maila gorenetakoei bakarrik eskura zezaketen horrelako banantzea. Gaur egun ere bertan behera uzte edo ankerkeriazko kasu muturrekoetan baino ez da ematen, eta, hala ere, kexak daude egunero, errazegi ematen dela eta. Baldin emakumeari despota baten esklaboia izatea beste biderik uzten ez bazaio eta haren zoriona esklabo egin beharrean kuttun eginen duen gizon bat aurkitzeko zortearen mende badago, ziur esan daiteke zorte hori behin bakarrik bilatzen uztea emakumearen patua krudelki larriagotzea dela. Emakumearen bizitzan dena dagoenez ugazaba on bat aurkitzearen mende, egoera horren ondorio natural gisa beharrezko litzateke ugazabaz behin eta berriz aldatu ahal izatea, harik eta on bat aurkitu arte. Ez dut esan nahi emakumeari pribilegio hori eman behar litzaiokeenik; beste kontu bat, erabat diferentea, da hori. Nire asmotik kanpo dago berriz ezkontzeko askatasuna ere inplikatzeko duen dibortzioaren auzia garbitzea. Orain hauxe bakarrik diot, joputza beste aukerarik uzten ez zaionari ugazaba libreki aukeratzeko eskubideak bakarrik leun liezaiokeela, behar adina inola ere ez baina, jopu-

tzaren latza. Askatasun hori ukatzeak emakumearen eta esklaboaren arteko berdintasun osoa dakar, eta kasu horretako esklaboa joputzarik latzenean bizi dena da, zeren esklabo kode batzuetan esklaboak, tratu txarreko zenbait kasutan, ugazaba legez behar baitzezakeen bera beste ugazaba bati saltzera. Baina traturik txarren eta luzeenek ere Ingalaterran, horiei senarraren adulterioa gehitu ezean, ez dute libratuko emaztea bere torturatzailearengandik.

Ez dut larregikerietan ibili nahi, eta kasu honetan ibili beharrik ere ez dago. Emakumearen egoera legala deskribatu dut, ez errealki ematen zaion tratua. Herrialde gehienetako legeak eurok betearazten dituztenak baino askoz okerragoak dira eta legeotako askok inoiz edo behin edo sekula ere erabili ez direlako diraute. Ezkonbizitza legeak soilik ikusita izan behar lukeena balitz, gizartea infernua litzateke mundu honetan. Zorionez, sentipenak eta interesak ere hantxe daude, gizon askorengan tiraniarako bulkadak eta joerak indargetzeko eta gehienengan leuntzeko; eta sentipen horietatik indartsuena konparaziorik gabe, egoera normalean, senarra bere emaztearekin lotzen duena da. Horren antzeko lokarri bakarrak, aita bere seme-alabekin lotzen duenak, salbuespenezko kasuetan izan ezik, lehenengo lokarria nasaitzeko barik estutzeko joera du. Hori egia delako, gizonak, eskuarki, legeek emazteekin tirano gisa jokatzeko ematen dieten ahalmen guztia erabiliko balute emazteei ekarri liezaiekeen miseria guztia pairarazten ez dielako, ezkontza gaur dagoen moduan defenditzen dutenek uste dute justifikaturik dagoela beronen bidegabekeria guztia eta protestak gauza on ororen ordainetan onartu beharreko gaitzaren alferreko gaitzespenak baino ez direla. Baina tirania mota hori edo beste edozein legez erabat indarrean edukitzearekin bateragarri diren leuntzeek praktikan, despotismoa justifikatzeko barik, gizakiak instituzio lotsagarrienen kontra erreakzionatzeko zenbateko ahalmena duen eta ongiaren hazia, gaizkiarena bezala, giza izaeran zenbaterainoko bizitasunaz barreiatzen eta ernetzen den frogatzeko balio dute. Familiako despotismoaz diogun bera esan daiteke despotismo politikoaz ere. Errege absolutu guztiak ez dira leihora ateratzen euren meneko torturatuen aienez goatzera, eta ez dituzte azken piltzarra kendu eta narru gorritan hotzez dardarka kalera jaurtitzen. Luis XVI.aren despotismoa ez zen izan Felipe Ederraren, edo Nadir Shahen, edo Kaligularen despotismoa, baina Frantses Iraultza justifi-

katzeko eta beraren izugarrikeriak eurak ere neurri batean zuritzeko bezain okerra izan zen. Emazteen eta senarren arteko atxikimendu sendoa aipa badaiteke, beste horrenbeste esan daiteke etxe-esklabotasunaz ere. Grezian eta Erroman oso gertakari arrunta zen esklaboak torturapean hiltzen ikustea, euren ugazabei traizioa egin baino lehenago. Erromako gerra zibiletako proskripzioetan emazteak eta esklaboak heroismorainoko leialtasuna erakutsi zuten; semeak, osterak, traidoreak ziren oso maiz. Hala ere, badakigu zein ankerki tratatzen zituzten erromatarrek esklaboak. Baina, egiatan, sentimendu indibidual indartsu horiek ez dira inon iristen instituziorik ankerrenen pean erdiesten dituzten adinako oparotasun mailetara. Bizitzako ironiaren zati bat da, giza izaerak, dirudienez, gizakiengan sor ditzakeen esker on sutsuko sentimendurik indartsuena gizaki horien mundu honetako bizitza zeharo hondatzeko boterea edukita botere hori borondatez erabili gabe uzten dutenentzat izatea. Krudela litzateke egiaztatzea zenbateko lekua betetzen duen sentimendu horrek gizonik gehienek baitan, debozio erlijiosoan bertan ere. Egunero ikusten dugu askoren Jainkoaganako esker ona biztu egiten dela, Jainkoa besteekin eurekin bezain errukiorra ez dela izan konturatzen direnean.

Instituzio despotikoren bat –dela esklabotasuna, dela absolutismo politikoa nahiz famili buruaren absolutismoa– defendatzen dutenek instituzio hori adibide onenetatik juzga dezagun nahi izaten dute. Alde batean maitasunezko agintea eta bestean beronekiko maitasunezko menpetasuna agertzen duten koadroak pintatzen dizkigute, eta eurotan jakituria goreneko jaun batek gauza guztiak bere menekoen onik beteenerako atontzen ditu, haien irribarre eta benedikazioez inguratuta. Hori guztia oso egokia litzateke, munduan gizon onik ez dagoela uste bagenu. Nork jartzen du zalantzan ontasun handia, zorion handia eta maitasun handia egon litekeela gizon on baten gobernu absolutuaren pean? Baina legeak eta instituzioak gizon onentzat barik txarrentzat egin behar dira. Ezkontza ez da aukeratu gutxi batzuentzat sorturiko instituzioa. Gizonei ez zaie ezkontzera joan aurretik eskatzen testigu bidezko frogaz egiaztatzea botere absolutua era egokian erabiltzeko modukoak direla eta fida gaitezkeela euren gan. Senarra bere emazteari eta seme-alabei lotuta eduki ohi duten maitasun eta obligaziozko lokarriak oso sendoak izaten dira oro har gizarte sentipen biziak dituztenen kasuan, baita beste gizarte lokarrie-

kiko sentiberatasun handirik ez duten askoren kasuan ere; baina loka-
rri horrekiko, hala sentiberatasunean nola sentiberatasun ezean, mila
maila daude, gizonen artean ontasun eta gaiztakeri maila guztiak dau-
den moduan, inolako lokarririk ez dutenenganaino eta gizarteak *ulti -
ma ratio* –hau da, legearen zigorrak– aplikatuz soilik zentza litzakee-
nenganaino heldu arte. Beheranzko eskala horren maila guztietan
daude senarraren botere legal guztiak dituzten gizonak. Gaizkile doi-
lorrenak dauka emakume zorigaiztoko bat berarekin ezkondata edo,
hobeto, lotuta, eta emakume horren kontra hil ez beste izugarrikeria
guztiak egin ditzake, eta, nahikoa kontuz ibiliz gero, hil ere egin leza-
ke lege zigorrak jasotzeko arrisku handi barik. Zenbat milaka gizon
dauden herrialde guztietako gizarte maila beherenetan, zeintzuek,
zentzu hertsiki legalean gaizkileak izan gabe, etxetik kanpo beren era-
soek erantzuna jasotzen dutelako, bortizkeriazko larregikeria guztiak
egiten dizkieten emazte gaixoari, zeinak, bakarrik, edo pertsona hel-
durik gabe bederen, ezin izaten dien eraso basati horiei aurre egin ez
saihestu! Emakumeak jasan behar duen gehiegizko menpetasunak iza-
era doilor eta basatiko gizon horiei, bere zoriona euren ontasunaren
erabat mende duenarekin begiramendu zabala eta ongi portatzeko
ohore puntu bat edukitzea iradoki beharrean, ideia gaizto bat iradoki-
tzen die: legeak emaztea gauza legez entregatu diela, nahierara erabil-
tzeko, eta inork ez duela espero behar eurek harekin beste pertsona
ororekin izan beharreko begiramenduarekin jokatzetik. Legeak etxe
barruko zapalkuntza muturreko izugarri horiek ere praktikan zigortu
gabe uzten izan ditu oraintsu arte, eta azken urteotan soilik egin ditu
izugarrikeriok erreprimitzeko zenbait ahalegintxo. Baina ahaleginok
ezer gutxi lortu dute, eta espero ere ezin dezakegu gehiagorik, zeren
arrazoiaren eta esperientziaren kontrakoa baita uste izatea biktima
borreroaren eskuetan utzita basakeriaren benetako kontrola erdiets
daitekeela. Harik eta pertsonaren kontrako bortizkeriagatik, edo
behintzat horretan berrerortzeagatik, ezarritako kondena batek ema-
kumeari *ipso facto* dibortziorako edo gutxienez banantze judizialera-
ko eskubidea eman arte, «eraso larriok» lege zigorrez erreprimitzeko
ahaleginak ondoriorik gabe geldituko dira kereilaririk ezagatik edo
lekukorik ezagatik.

Kontuan hartzen badugu zenbat eta zenbat diren edozein
herrialde handitan abere mailatik askoz gorago ez dauden gizonak eta

horiei ezerk ez diela eragozten, ezkontza legea bitarteko, biktima batez jabetzea, laster ikusiko dugu ezen era horretan instituzioen abusuz soilik sorturiko giza miseriaren luze-sakona izugarria izateraino heltzen dela. Hala ere, horiek ertzeko kasuak dira, leize sakonenak; baina zenbat eta zenbat izan dira sakon horietara iritsi aurretik! Etxeko tiranian, tirania politikoa bezala, goitik beherako munstroen kasuek batez ere erakusten dute nolakoak diren instituzioak: beraien bidez jakiten da apenas dagoela instituzio horren barruan gerta ezin daitekeen izugarrikeriarik, despotak hala nahi izanez gero, eta, era berean, argi agertzen dute zenbat eta zenbat gauza ez hain izugarriak, baina alde handirik gabekoak, gertatu diratekeen. Deabru garbiak aingeruak bezain bakanak dira, agian bakanagoak, giza espeziean; basati ankerak, gizatasun ukituren bat ere noizbehinka badutenak, ordea, maiz ikusten dira; eta giza espeziearen ordezkari duinetatik bereizten dituen tarte zabalean, zenbat aberekeri eta egoismo maila dagoen, zibilizazio eta kulturaren bernizpean maiz! Gizon horiek legearekin bakean bizi dira, euren boterearen pean ez dauden guztien aurrean itxura errespetagarria agertzen, baina euren boterepean dituztenei bizitza tormentu eta karga bihurtzen! Gogaikarria litzateke gizonek oro har aginterako duten ezgaitasunari buruzko topikoak errepikatzea; zenbait mendetako eztabaida politikoen ondoren, mundu guztiak dakizki buruz, baina inori ez zaio gogoratzen maxima horiek egokien datozkion kasuari aplikatzea: ez hemengo eta hango zenbait gizonen eskuan utzitako botereari, baizik gizonezko heldu guztiei, mespretxagarrien eta basatienei ere, eskainitakoari. Gizon batek hamar mandamenduetako batik ere hautsi ez duelako, berarekin hurbileko traturik edukitzera behartu ezin duen jendearekin dituen harremanetan jokaera errespetagarria duelako, eta bera jasateko obligaziorik ez dutenekin haserre bizian jarrita bortizkerietan hasten ez delako, ezin daiteke beste barik pentsa zer jokabide izanen duen gizon horrek etxean, bere burua mugarik gabeko jaun eta jabe ikusten duenean. Gizonik arruntenek ere beraiei aurre egiterik ez dutenentzat gordetzen dute euren izaeraren alderdi bortitz, zakar eta ageriki egoista. Agintedunen eta menekoen erlazioa da izaerako bizio hauen mintegia, eta, nonahi ageri direlarik, iturri horren gainezkatze bat dira. Bere maila berekoekin bortitza edo zakarra den gizona, seguru da beldurraraziz eta artegaraziz menpean eduki ahal izan dituen beheragokoekin bizi izan dela lehenago. Familia, esan ohi denez begikotasun eta samurtasun eskola bat baldin bada, etxeko-

ekiko maitasunak eraginda norbere buruaz ahanzten irakasten duena, sarriago da, famili buruari dagokionez, burugogorkeri eta aginkeri eskola bat, hari bere nahikariak mugarik gabe betetzen eta egoismo berretu eta idealizatua gauzatzen irakasten diona, halatan, non haren sakrifizioa bera ere egoismo era bat den eta gizona emazteaz eta seme-alabez bere interesen eta ondasunen zati direnez bakarrik arduratzen den, haien zorion indibiduala bere apeta txikien aldarean sakrifikatzen duelarik era askotara. Egungoa bezalako ezkontzatik ba al dago ezer hoberik espero izaterik? Badakigu giza izaeraren jaidura gaiztoei mugartean eusterik ez dagoena, eurok asetzeko aukera guztiei bidea itxi ezean. Badakigu jaiduraz eta bulkadaz, nahita ez denean, amore ematen dutenez abusatzen dena beti, harik puntu batera heltzean biktimak abusatzaileari aurre egitera behartuta aurkitzen diren arte. Giza izaeraren joera horixe izanik ere, gure egungo instituzioek gizonari ia mugarik gabeko boterea ematen diote gizateriako beste kide batengan bederen, berarekin bizi eta beti alboan duenarengan. Botere horrek gizonaren bihotzeko tolestura sakonetan gorderik dauden egoismoaren haziak bilatzen ditu, txinpartarik txikiak eta garrik gabeko txingarrak hauspotzen ditu, beste harreman guztietan gizonak denborarekin bigarren natura bat eratzeraino erreprimitu eta disimulatu beharko lituzkeen bere jatorrizko izaeraren joerak asetzeko baime-na ematen dio. Badakit auziak beste alde bat ere baduena. Aitortzen dut emazteak, gizonari eraginkorki aurre egiterik ez badu, errepresaliak har ditzakeela; berak ere gizonaren bizitza zorigaiztoko bihurtzeko bitartekoak ditu, eta bitarteko horiek erabiltzen ditu bere nahia nagusi ateratzeko hala egin behar lukeen kasu askotan eta hala egin behar ez lukeen beste askotan ere. Baina bere burua babesteko sistema horrek –eskandaluaren boterea eta umore txarraren zehapena esan dakiokenak– oso akats txar bat dauka: hain tiranikoak ez diren uga-zaben kontra eta hain duinak ez diren menekoen alde erabiltzen dela gehienetan. Emakume haserrekor eta burugogorren arma da, boterea balute, gaizkien erabiliko luketenena eta, hartzen dutenean, gaizki erabiltzen dutenena. Emakume atseginak ezin du tresna hori erabili, eta goi sentimenduak dituenak erdeinatu egiten du. Eta bestalde, arma hori, eraginkorkien, senarrik bigunen, erasorik gutxien egiten dutenen, kontra erabiltzen da, agintea gogortada handiz erabiltzera probokaziorik zorrotzenak ere bultzatzen ez dituen senarren kontra. Emakumeak desatsegina izateko duen botereak kontra-tirania ezarri

besterik ez du egiten normalean, eta tiranoak izateko joera gutxien duten senarrak batik bat egiten ditu biktima.

Zer da, orduan, boterearen ondorio usteltzaileak benetan urritzen dituen eta eurok egun gure inguruan ikusten dugun on kantitate errealarrekin bateragarri izatea egiten duena? Emakumearen txera ezti hutsek, kasu partikularretan eraginkorrak izaten diren arren, ezer gutxi balio dute egoeraren joera orokorrak aldatzeko; izan ere txeron eraginak emakumea gazte eta eder den artean edo sarri berriaren xarmak dirauen artean bakarrik irauten du gehiegizko konfiantzak ere ezabatu gabe; eta gizon askorengan inoiz ere ez dute izaten eragin handirik. Instituzioa ezitzen laguntzen duten benetako eragileak ondoko hauek dira: 1) denboraren joanean sortzen den maitasuna, gizona izaeraz maitasuna sentitzeko gai den neurrian, eta emakumearen izaera sentimendu hori eragiteko bezain atsegina denean; 2) seme-alabekiko dituzten interes komunak eta hirugarrenei buruz biek dituzten interesak (horretan muga handiak badira ere); 3) emazteak gizonaren eguneroko erosotasunean eta atseginetan duen eragina eta senarrak bere kontuetan emazteari ematen dion balioa, horrek, besteen aldeko sentimenduak edukitzeko gai den gizonarengan, emaztea beragatik bakarrik maitatzea sortzen duelarik. 4) azkenez, ia gizaki guztiek inguruan dituzten guztiengan duten eragina (eurentzat benetan desatseginak ez badira); pertsona horiek, izan ere, beren zuzeneko erreguen bidez edo beren sentimendu eta jarrerak inkontzienteki komunikatuz, gai izaten dira maiz, indar bereko beste eraginen batek aipaturiko bitartekoei indarra kendu ezean, beren nagusien portaerekiko gehiegizko eta arrazoiz kanpoko aginpidea lortzeko. Askotariko bitarteko hauen bidez, senarraren gain botere handiegia ere erabiltzera heltzen da emaztea; baita haren jokaerarekiko eragin handiegia edukitzera ere, horrekin onerako laguntzarik eman ezin dionean ere batzuetan. Izan ere, eragin hau argirik gabekoa izatez gain, moralki txarra den kausaren baten alde erabil daiteke, gizonak bere kabuz jotatzen utzita hobeto jokatu lukeen kasuetan. Baina ez familiako aferetan ez Estatukoetan, boterea ez da askatasunaren galeraren konpentsazioa. Botereak emakumeari eskubidez ez dagokiona ematen dio maiz, baina ez dio bereak dituen eskubideak segurtatzeko modurik eskaintzen. Sultan baten kuttunak esklaboak ditu bere menpean eta eurekin tirano gisa joka lezake, baina esklaborik ez edukitzea eta bera ere esklabo ez izatea

litzateke zuzena. Bere bizitza bere senarrarenean zeharo murgilduz, edo biei dagokien gauzetan norbere nahiaz gabetuz, senarrarena baino ez edukitzeko (edo hari berak nahi duena besterik ez duela nahi sinetaraziz), eta bizi guztian haren sentimenduen arabera jokatzuz, emazteak hark kanpoko harremanetan –emazteak gaitasun faltaz juzgatu ezin dituen edo arazo pertsonalen batek edo edozein partzialtasun edo aurreiritzik baldintzatuta juzgatzen dituenetan– daukan portaera aldatzeko eta agian okertzeko desioa ase dezake. Horren arabera, gauzen egungo egoeran, bere emaztearekin onberenak diren senarrak, familiarik kanpoko interes guztiei dagokienez, emaztearen eraginez onago edo gaiztoago bihurtzen dira, bata bestea bezain maiz. Emakumeari familiaren eremutik kanpoko gauzetan ez duela zereginik irakatsi zaio; beraz, ez du izaten normalean iritzi zintzo eta jakinaren gainean harturikori gauza horiei buruz, eta horregatik horrelako gauzetan ez da ia inoiz ere sartzen xede legitimoren baterako baizik, eskuarki xede interesaturen bat bilatuz. Politikan ez daki zein den alderdi zuzena, eta horrek axola ere ez dio; baina oso ongi daki zerk ekarriko dituen etxera dirua eta gonbidapenak, eta zerk emanen dion titulu bat senarrari, postu bat semeari edo ezkontza on bat alabari.

Baina nola, galdetuko zait, izan daiteke gobernurik gabeko elkarterik? Familia batean, Estatu batean bezala, beharrezko da aginduko duen pertsona bat egotea. Nork erabakiko du ezkontideak iritzi berekoak ez direnean? Ezin dira nor bere bidetik abiatu, eta bide bata edo bestea aukeratzea erabaki behar dute.

Ez da egia pertsona biren arteko borondatezko elkarte orotan bata jaun eta jabe izan behar duela, eta are gutxiago legeari dagokiolari hori nor izanen den esatea. Ezkontzatik hurbil maizen ikusten dugun borondatezko elkartearen negozio sozietatea da; eta inork ez du pentsatu beharrezko dela legez indarrean jartzea horrelako sozietatean bazkide bakar batek ukan behar duela negozio osoaren kontrola, besteek hari obeditu beste zereginik ez dutelarik. Inork ez luke sartu nahi izanen sozietate horretan nagusi baten ardurapean egoteko, bulegari edo ordezkari batek dituenak beste botere eta eskubiderik gabe. Legeak beste kontratuetan ezkontzakoan bezala jokatu balu, honako hauek agindu beharko lituzke: bazkide bakar batek administra lezan guztien negozioa, berea bakarrik balitz bezala; besteek ahalmen delegatuak baino eduki ez litzaten, eta bazkide bakar hori legearen

xedapen orokor batez izendatua izan ledin, adibidez, zaharrena izate-agatik. Legeak ez du horrelakorik inoiz egiten, eta esperientziak ez du inoiz demostratu bazkideen artean inolako ezberdintasun teorikorik egon behar duenik boterean, edo sozietateak inolako baldintzarik eduki behar duenik, beraiek adostasun artikuluetan jarritakoetatik aparte. Hala ere, badirudi sozietatearen kasuan botere eskusiboa behekoen eskubide eta interesetarako arrisku gutxiagorekin eman daitekeela, ezkontzaren kasuan baino, zeren bazkideak botere hori ezeztatzeke gai baitira, sozietatetik alde eginez. Emakumeak ez du aukera hori, eta balu ere, neurri guztiak probatzea komeni zaio ia beti, horretara jo aurretik.

Dudarik ez dago egunero erabaki behar diren gauzek, gerorazterik edo akordioaren zain egoterik ez dutenek, baten erabakiaren mende egon behar dutela, pertsona bakar baten kontrolpean egon behar dutela. Baina horrek ez du esan nahi pertsona hori beti pertsona bera izan behar duenik. Antolaera naturala botereak bien artean banatzea da, bakoitza bere sailean erabateko erabakitzaile izanik eta sistemaz edo printzipioz aldatzeko beti ere bien adostasuna beharko delarik. Banatze hori nola egin ezin du legeak aurrezarri, eta ez du ezarri behar ere, hori bakoitzaren gaitasunen eta egokimenen arabera egin beharrekoa da eta; ezkontide biek hala baderitzote, aurretiaz ados dezakete hori ezkontza kontratuan, egun maiz diru kontuak aurretiaz adostuta uzten diren moduan. Nekez legoke zailtasunik horrelako gauzak bien adostasunez erabakitzeko, zorigaiztoko kasu batzuetan izan ezik, zeintzuetan dena bihurtzen den ezkontideen arteko liskarbide eta eztabaidagai. Eskubideen banatzeari betebeharren eta zereginen banatzeak jarraitu behar dio; eta hori adostasunez egiten da dagoeneko, edo behintzat legez barik ohitura orokorreaz, ohitura hori pertsona interesatuek nahierara alda dezaketelarik eta aldatzen dutelarik.

Aferen erabaki erreala, nornahi delarik ere legezko aginpidea hartzen duena, gaitasun erlatiboen mende egonen da, eta orain ere halaxe dago. Senarra eskuarki emaztea baino zaharragoa izateak gizonari emanen dio gehienetan nagusitasuna, biak adineko aldeak inportantziarik izaten ez duen bizitzako sasoiran heldu arte behintzat. Eta, jakina, zeresan gehiago izanen du beti etxera bizibidea dakarrenak, bata zein bestea izan. Horrek ekarritako ezberdintasuna ez dator

ezkontza legetik, baizik gizarteak, gaur eratuta dagoen moduan, dituen baldintzetatik. Ezagutza orokorren edo berezien jabe izanik adimenez hornituago izateak, baita izaera erabakitsuagoa edukitzeak ere, eragin handia ukanen du nahitaez ezkontideen bizitzan. Halaxe dauka orain. Eta horrek argi erakusten du zein oinarri gabekoa den uste izatea bizikideen botere eta erantzukizunak (negozioetako bazkideenak bezala) beraien artean adostasunez ongi banantzerik ez dagoela. Beti banatzen dira ongi, ezkontzak porrot egiten duenean izan ezik. Gauzak ez dira sekula gertatzen botere guztia alde batean eta obediencia guztia bestean ikusteko moduan, elkartzea errakuntza hutsa izan denean salbu, eta kasu horretan benedikazio handia litzateke, bientzat, harturiko loturatik libre gelditzea. Baten batek esan lezake diferentziak adiskide moduan ezartzeko ahalbidea ematen duena legeak behartzeko ahalmena edukitzea eta ezkontideak hori jakitea dela, obeditzera behar gaitzakeen auzitegi bat dugulako ikuspegian, arbitraia baten mende jartzen garenean bezala. Baina kasuok erabat paraleloan jarri ahal izateko, suposatu beharko genuke auzitegien jurisprudentzia auzia aztertzea barik, epaia beti alderdi bataren alde, demandatuaren alde kasu, ematea dela. Kasu horretan, demandatua ia arbitraia ororekin konforme legoke, ez, ordea, auzi-jartzailea. Legeak senarrari ematen dion botere despotikoa dela eta, emaztea prest egoten da boterea praktikan senarraren eta bien artean banatzeko konpromiso oro onartzeko, baina ez senarra. Elkarrekin ongi konpontzen diren senar-emazteen artean akordio praktikoa bat egoten da beti, nahiz eta euretako bat bederen akordio hori egitera fisikoki edo moralki behartuta egon ez, eta horrek frogatzen du pertsona biren arteko elkarbizitza biek onartzeko moduko borondatezko konponketa baten bidez antolatzea gehienetan, kasurik zailenetan izan ezik, gertatzen dela. Egoera ez da, ez, hobetzen legeak gobernu librearen gainegitura alde batetik despotismoaren eta bestetik menpekotasunaren oinarriaren gainean eraikitzea erabakiz, ezta despotak egindako emakida guztiak, nahierara eta inolako abisurik gabe, atzera ken ditzakeela ezarritik ere. Askatasunak ez du asko merezi beraren jabetza hain prekariora denean, eta, horrez gain, askatasun horren baldintzak ezin dira seguruenik ekitatezkoenak izan, legeak balantzaren alde batean hain pisu ikargaria jartzen duenean, pertsona bik egindako hitzarmenak batari edo zertarako eskubidea ematen dienean eta besteari, ordea, lehenengoaren nahia egiteko eskubidea besterik ez, beti ere gehiegikeria zapal-

tzailerik handienen aurrean ere ez jaikitzeo obligazio moral eta erlijioso gogorrenaren pean gainera.

Aurkari setatiren batek, ertzero jota, esanen du agian ezen senarrek arrazoizko izan eta beren ezkontideei emakida zuhurrak egin nahi dizkiela inork horretara behartu gabe, baina emazteak ez daudela hori egiteko prest; ezen, emakumeei zenbait eskubide emanen bali-tzaie, eurek ez lioketela inori ere eskubiderik aitortuko eta ez luketela ezertan ere amorerik emanen, gizonaren aginteak zerbaitetan amore ematera behartu ezean. Askok esanen zuten hori duela zenbait belau-naldi, emakumeei buruzko satirak modan zeudenean eta gizonak agudezia handitzat zeukatenean emakumeak gizonak egin dituzten bezalakoxeak direla esanez laidotzea. Baina txantxa horiek egun ez dute ihardespenik merezi. Gaur egungoen iritziz emakumeak ez dira lokarri sendoenekin lotuta daudenekiko sentimendu onak edukitzeko eta egoera horretan daudenak aintzat hartzeko ezgaiagoak, gizonak diren baino. Aitzitik, emakumeak gizonak bezain onak balira bezala tratatzearen erabat kontra daudenek beti esaten digute emakumeak gizonak baino hobeak direla; hainbestearino, non esaera hori lelo aspergarri bihurtu den, iraina lausenguz estaltzeko erabili den lelo, Gulliverrek dioskunez, Liliputeko erregeak dekretu odolzaleenen goialdean bere errege bihozberatasunari dedikatzen zizkion laudorioak gogora dakarzkigun lelo. Emakumeak gizonak baino hobeak zerbaitetan badira, etxekoengatik beren buruari uko egiteko gaitasunean dira hobeak. Baina ez dut azpimarratu nahi hori, zeren emakume guztiei irakasten baitzaie beren buruari uko egiteko sortuak direla. Uste dut eskubide berdintasunak emakume izaeraren egungo ideal artifiziala den gehiegizko uko egite honi soberan daukana kenduko liokeela, eta emakume on bat ez litzatekeela bere buruari uko egiten gizon onena baino hobe; baina, bestalde, gizonak ez lirateke egun bezain berekoiak izanen eta gaur baino maizago egingen liokete uko beren buruari, ez litzaiekeelako irakatsiko beren borondatea gurtzen, beste izaki arrazoimendun batentzat benetako lege izaterainoko gauza handitzat hartuz. Gizonak beren burua gurtzen ikasten dute beste ezer baino errazago; pertsona eta klase pribilegiatu guztiek horrelakoxeak izan dira beti. Zenbat eta beherago gizateriaren eskalan, orduan eta gartsuago da gurtza hori, batez ere zorigaiztoko emazte baten eta seme-alaba batzuen gainetik baino ez dauden eta egon ere ezin dire-

nengan. Horretan beste giza ahulezietan baino salbuespen ohoragarri gutxiago aurkitzen ditugu. Filosofiak eta erlijioak, gaitz horren kontra egin beharrean, berorren alde egiten dute eroskeria bitarteko; ezerk ere ez dio gaitz horri kontra egiten, kristautasunaren teoria den gizakien berdintasunaren sentipen praktikoak izan ezik, baina kristautasunak ez du inoiz lortuko teoria hori praktikara eramateko moduan irakastea, gizaki bat bestearen gainetik hobestean oinarritzen diren instituzioak onesten dituen bitartean.

Badira, dudarik ez, emakumeak, gizonak diren moduan, berdintasunarekin konforme ez daudenak, beren borondatea edo nahia ez den beste nahirik aintzat hartuz gero bakerik ez daukatenak. Pertsona horientzat dago propio egina dibortzio legea. Bakarrik bizitzeko jaioak dira, eta inor ere ezin da eurekin elkartuta bizitzera behartu. Baina legezko menpetasunak bultzatu egiten du emakumeen artean horrelako izaera. Gizonak bere botere osoa erabiltzen badu, emakumea, jakina, inperatuta dago; baina biguntasunez tratatzen badu eta boterea hartzen uzten badio, ez dago haren abusuei mugarik jartzetik. Legeak ez ditu zehazten emakumearen eskubideak, teorian batik ere ez dio ematen; horregatik, praktikan emakumearen eskubideak berak lortu ahal duen guztiraino iristen direla deklaritzen du.

Ezkonduen arteko berdintasuna legearen aurrean, haien harremanak alderdi biei dagokienez justiziaren arabekoak eta bien zoriona lortzeko modukoak izatea lortzeko era bakarra ez eze, gizateriaren eguneroko bizitza heziketa moraleko eskola bihurtzeko bide bakarra ere bada. Agian belaunaldi asko igaroko dira egia hau eskuarki onartu baino lehen, baina egiazko sentimendu moraleko eskola berdinen arteko elkarte da. Gizateriaren heziketa morala batez ere indarraren legetik etorri da gaurdaino, eta indarrak sortzen dituen harremanetara ia soilik dago egokiturik. Egoera sozial atzeratuenetan nekez onartzen da berdinen arteko harremanik. Berdina eta etsaia gauza bera dira. Gizartea, mailarik gorenetik beherenera, kate, edo agian eskailera, luze bat da, non gizabanako bakoitza bere auzorik hurbilena baino gorago edo beherago dagoen, agintzen ez duenean obeditu beharra daukalarik. Egungo agindu moralak, beraz, aginte eta obedientziako erlazioei dagozkienak dira gehienbat. Hala ere, agintea eta obedientzia giza bizitzako zorigaiztoko derrigorrak baino ez dira: gizartearen egoera normalea berdintasunean oinarrituriko elkarte da. Bizitza modernoan jada,

eta gero eta gehiago hobera egin ahala, agintea eta obedientzia salbuespenezko gertakariak dira, eta arau orokorra berdintasunean oinarrituriko elkarte da. Lehen mendeetako moralak indarraren pean egoteko obligazioan oinarritzen zen; geroagoko mendeetan, osterak, ahalak indartsuaren biguntasun eta babeserako duen eskubidean. Gizarte eta bizimodu era bat noiz arte moldatuko da beste baterako egindako moralatasunera? Izan dugu menpetasunaren moralak, izan dugu gizabidetatsun eta eskuzabaltasunaren moralak; orain justiziaren moralaren garaia etorri zaigu. Iragan mendeetan, berdintasunean oinarrituriko moralera hurbilpenen bat egin den guztian, justiziak bertutearen oinarri gisa dituen eskubideak aldarrikatu ditu. Halaxe gertatu zen antzinateko errepublika libreetan. Baina haietako onenetan ere, berdintasuna ez zen gizonezko hiritar libreengana baino iristen; esklaboak, emakumeak eta hiritartasun eskubiderik gabekoak indarraren legearen pean zeuden. Zibilizazio erromatarren eta kristautasunaren eragin bikoitzak ezabatu zituen bereizkeria horiek, eta teoriarik (praktikan guztiz ez baina) deklaratu zuen gizakiaren eskubideak, gizaki gisa, sexu, klase, eta gizarte mailari dagozkien eskubideak baino goragokoak direla. Desagertzen hasiak ziren hesiak, iparraldeko barbaroen inbasioek bitarteko, berriro eraiki ziren, eta historia moderno guztia hesi horiek hausteko prozesu geldoa baino ez da. Justizia berriro bertute nagusi izanen den aldian sartzen ari gara, eta behiala bezala pertsona berdinen elkartean oinarriturik egonen da, baina, aurrerantzean, baita sinpatiak elkarturiko pertsona berdinen elkartean ere; eta elkarte horrek sustraia ez du jada izanen berdinen beren burua babesteko senean, baizik landuriko elkarrekiko sinpatian, inor ere kanpoan utzi gabe eta denentzat neurri bera izanik. Betiko kontua da gizateriak bere aldaketak argi eta garbi ez aurreikustea eta bere sentimenduak iraganera, eta ez etorkizunera, moldatuak edukitzea. Espeziearen etorkizuna ikustea elite intelektualaren edo berarengandik ikasi dutenen pribilegioa izan da beti; etorkizuneko sentipenak edukitzea, berriz, elite are urriagoaren ospea eta nekaldia. Instituzioek, liburuek, hezkuntzak, gizarteak... denek jotzen dute gizakiak gauza zaharretarako prestatuz, berriak etorri eta askoz geroago ere; arrazoi gehiagorekin iristen ari direnean. Baina gizakien benetako bertutea elkarrekin izaki berdina gisa bizitzeko gaitasuna da, norberetzat norberak beste guztiei libreki ematen diena besterik eskatu gabe, eta nolana hiko agintea salbuespeneko eta beti ere aldi baterako beharrezantzat edukiz eta, ahal den guztian, buruzagitzan eta

jarraitzailetzan guztiak txandakatzeko moduko jendearekin egindako elkarteak hobetsiz. Bizitzan, egun eratuta dagoen moduan, ez dira bertute horiek praktikan jarritz lantzen. Familia despotismo eskola bat da, non despotismoaren bertuteek, baina baita bizioek ere, elikagai ugari duten. Hiritartasuna, herrialde libreetan, alde bederen berdintasuna ikasten den eskola bat da; baina hiritartasunak tarte txiki bat baino ez du betetzen bizitza modernoan, eta ez da hurbiltzen eguneroko azturetara edo barne sentimenduetara. Familia litzateke, oinarri justuen gainean eratuta, askatasunari dagozkion bertuteak lantzeko benetako eskola. Gauza segurua da beste edozertarako eskola dena. Familia beti izanen da obedientzi eskola seme-alabentzat eta aginte eskola gurasoentzat. Behar dena da berdintasunean sinpatia lantzen, elkarrekin maitasunez eta alde batean botererik eta bestean obedientziarik gabe bizitzten ikasteko eskola izatea. Horrelaxe izan behar luke gurasoen artean. Orduan familian beste elkarteetan beharrezko diren bertuteak ikasiko lirateke; seme-alabek aldi baterako obedientziaren bidez berenganatu eta berentzat ohiko eta natural bihurtu behar dituzten sentimendu eta portaerarako eredu bat aurkituko lukete. Aurrerapen oro bizi baldintza batzuetarako giza prestakuntza bat besterik ez denean, gizateriaren hezkuntza morala ez da inoiz egokituko baldintza horietara, harik eta familia barruan gizartearen eraketa normalari egokitzen zaion arau moral bera praktikatzan ez den artean. Bere barne-bihozkada bizienak bera erabateko ugazaba dutenenganako dituen gizon batek eduki dezakeen askatasun sentimendua ez da askatasunarekiko maitasun benetakoa edo kristaua, baizik antzinatekoen eta Erdi Arokoen maitasuna: norbere buruaren duintasunaren eta garrantziaren sentipen bizia, norberetzat apalgarritzat jotzen den uztarria, interes egoistagatik edo norbere burua goresteko, besteei inolako eragozpenik gabe ezartzeko prest jartzen gaituen askatasunarekiko maitasuna.

Gogoz onartzen dut (eta horrexetan funtsatzen ditut ene esperantzak) egungo legearen pean ezkonduko asko (Ingalaterrako goi klaseetan seguruenik gehiengoa) berdintasun lege justu baten espirituaren arabera bizi direla. Legeak sekula ere ez lirateke hobetuko, baldin indarrean dauden legeetatik gorako sentimendu moraletako jende asko ez balego. Jende horrek nik hemen aldeztan ditudan printzipioak sostengatu behar lituzke, senar-emazte guztiak euren antzekoak izatea beste xederik ez dutenak. Baina balio moral handiko pertsonak ere,

pentsatzaileak ere ez baldin badira, oso erraz sinesten dute beraiei okerrik ekarri ez dieten lege eta praktikek ez dutela gaitzik egiten, (eskuarki onartuak badirudite) seguruenik on ere egiten dutela eta, horregatik, lege horien kontra dihardutenak oker daudela. Senar-emazte horien aldetik, hala ere, elkartzen dituen lokarriaren legezko baldintzetan urtean behin ere pentsatzen ez dutelako eta eurak edozertan legez berdinak balira bezala bizi eta sentitzen dutelako, errakuntza handia litzateke uste izatea beste senar-emazte guztien kasua ere berdina dela, senarra gizatxar nabarmena ez denean bederen. Hori uste izateak giza izaerari buruz eta gertatzen denari buruz ezjakintasun berdina erakustea litzateke. Zenbat eta gutxiago balio duen gizon batek boterea edukitzeko –zenbat eta probabilitate gutxiago duen botere hori pertsona batengan, pertsona horren adostasunarekin, erabiltzeko baimena jasotzeko–, orduan eta gehiago zoriontzen du bere burua legeak ematen dion botereagatik, orduan eta zorrozkiago erabiltzen ditu azkenerraino ohiturak (bera bezalako gizonen ohiturak) praktikatzen uzten dioten legezko eskubideak, eta orduan eta plazer handiagoa hartzen du bere boterea beronen jabe izatearen sentimendu atsegingarria biziagotzeko erabiltzean. Are gehiago; aberetasun naturala eta hezkuntza moralik eza nagusi diren beherengo klaseetako zati horretan, emakumearen esklabotasun legalak eta beronen menpetasun pasiboak, senarraren tresna bat balitz bezala, sekulako errespetu falta eta erdeinua sortarazten dizkiote senarrari bere emaztearekiko, beste ezein emakumeretik edo ezagutzen duen beste ezein gizakirekiko sentitzen ez dituen modukoak, bere emaztea nolanahiko gizatxarkeriak jasateko jaioa balitz bezala tratatzera daramatenak. Betorkigu behar adina aukera dituen gertakarien behatzaile zorrotz bat gauzak horrela diren ala ez esatera; baina gauzak guk bezala ikusten baditu, ez dadila harrituta gera gizona horrenbesteko gaiztakeri egoerara berez-berez daramaten instituzioek eragiten diguten nazka eta haserrea dela eta.

Agian esanen didate erlijioak ezartzen duela obeditzeko betebeharra. Zerbait ezerk ere justifikatzeko baino txarragoa denean, erlijioak inposatzen duela esanez ateratzen da jendea. Egia da Elizak bere formularioetan sartzen duela obedientzia, baina benetan zaila litzateke agindu hori kristautasunetik datorrela frogatzea. Esan digute San Paulok zera esan zuela: «Emazteok egiezue esana zeuen senarrei», baina beste hau ere esan zuen: «Esklabook, egiezue esana zeuen uga-

zabei». San Paulok nahi zuena, ezta haren helburuarekin, hau da, fedearen zabalkundearekin, bateragarria zena ere, ez zen indarrean zeuden legeen kontra jaikitza inor bultzatzea. Apostoluak gizarte instituzio guztiak zeuden moduan onartu izanetik ez da atera behar instituziook garai egokian hobetzeko ahaleginak txartzat jotzen zituenik. Ez litzateke, ezta ere, zilegi esatea ezen, «botere oro Jainkoarengandik datorrela» deklaritzen duenean, despotismo militarra eta bera bakarrik onesten duela gobernu era kristautzat, edo botere horri pasiboki obeditzeko agintzen duela. Kristautasunaren xedea indarrean zeuden gobernu erak estereotipatzea eta aldaketatik babestea zela uste izatea kristautasuna islamismoaren edo brahmanismoaren mailara jaistea da. Horrelakorik egin ez duelako, hain zuzen ere, izan da kristautasuna gizateriaren sektore aurrelarien erlijioa, eta islamismoa, brahmanismoa, etab., sektore geldikorren erlijioak, edo, hobeto esanda (gizarte geldikorrik ez dagoenez gero), sektore atzerakoenak. Jende asko izan da, kristautasunaren aro guztietan, kristautasuna beste erlijio atzerakoen antzeko bihurtzen saiatu dena; kristauok bibliadun musulman bilakatu nahi izan gaituena, hobekuntza oro debekatuz; jende horrek botere handia ukan du, eta askok euren bizitzak eman dituzte jende horri aurre gogor egiteko. Baina gogor egin zaie eta gogor egite horrek egun garenera eramán gaitu eta gerora izan beharko dugunera eramánen gaitu.

Obeditzeko obligazioari buruz esandakoaren ondoren, ia soberan dago auzi orokorraren barruan doan puntu bereziago bati buruz, emakumeak bere ondasunak erabiltzeko duen eskubideari buruz hain zuzen, ezer esatea. Izan ere, ez dut itxaropenik idazlan honek eraginik izanen duenik emakumeak heredaturiko edo bere lanaz irabazitako ondasunak ezkondu ostean aurretik bezain bereak dituela onartzeko arrazoiak behar dituztenengan. Araua sinplea da: ezkongee baleude senarrarena edo emaztearena litzatekeen oro, ezkondata ere nor bere kontrolpean eduki behar du, nahiz eta honek ez dien galarazten itun baten bidez bien ondasunak batzea, seme-alabentzat gordetzeko. Bada jende bat, ondasunak banantzean pentsatze hutsak sentimenduak gora-goraka jartzen dizkiona, ideia hori bi bizitza batean biltzearekin bateragarri ez balitz bezala. Niri dagokidanez, ondasun erkideagoaren aldeko sutsuen artean nago, jabeen artean dena biena izatea dakarren sentimendu batasun osoaren fruitu denean. Baina ez dut gogoko hara-

ko doktrina bitxi hartan oinarritzen den ondasun erkidegoa: «nirea dena zurea ere bada, baina zurea dena ez da nirea»; eta neure probetxurako ere ez nuke horrelako traturik onartuko inorekin ere.

Emakumeei egiten zaien injustizia eta zapalkuntza berezi hori, jenderik gehienentzat gainerakoa baino nabariagoa dena, konpon daiteke arazoaren beste alderdiak ezertan ukitu gabe, eta konpondu ere, zalantzarik gabe, aurrenetarik eginen da. Dagoeneko Amerikar Konfederazioko estatu berri askotan eta zahar batzuetan xedapenak sartu dira idatzitako konstituzioetan ere, emakumeei gai honetan eskubide berdintasuna bermatzen dietenak eta ondasunak dituzten emakumeei bederen ezkontzako harremanetan duten egoera hobetzen dietenak, emaztearen eskuan botere tresna bat utziz, ezkontzean inori ematen ez diona. Hartara, ezkontzako instituzioaren abusu eskandalagarri bat eragozten da: gizon batek neska gazte bat, haren diruez jabetzeko xede bakarraz, berekin hitzarmenik egin gabe ezkontzeko limurtzen duenean burutzen dena. Familiaren mantenua jabetzatik barik laneko irabazietatik egiten denean, senar-emazteen arteko lan banatzerik egokiena normalean, nire ustez, gizonak etxean behar den dirua irabaztea eta emazteak etxeko martxa guztia eramatea da. Baldin, seme-alabak hazteak suposatzen duen sufrimendu fisikoaz eta lehenengo urteetan haien zaintza eta heziketak eskatzen duen ardura guztiaz gain, emazteak gizonak irabazitakoa familia guztiaren ongizaterako arduraz eta ekonomiaz erabiltzeko lana hartzen badu, ezkonbizitzak eskatzen dituen lan fisiko eta espiritualen zati on bat ez eze, normalean astunena ere hartzen du bere gain. Beste ardura batzuek ere hartzen baditu, nekez uzten ditu bertan behera, baina behar bezala bete ezinik aurkitzen da. Haurren eta etxearen ardura berak eraman ezin duenean, beste inork ez du hartzen bere gain ardura hori; hiltzen ez diren haurrak, bertan behera utzita hazten dira, eta etxeko martxa hain txarto joaten da, non ekonomiaren ikuspegitik ere atzerakada handia izaten den, emaztearen irabaziek konpentsatzen ez dutena. Ez da, beraz, guragarri, uste dut nik, bestelako egoera justu batean emazteak bere lanaz familia mantentzen laguntzea. Egungo egoera injustuan ona izan daiteke emaztearentzat, hori egiteak legez bere ugazaba den gizonaren begietan balio handiagoa emanen diolako; baina, beste aldetik, horrek gizonari bere botereaz abusatzeko aukera gehiago ematen dio, emaztea lan egitera behartuz eta familiaren ardura guztia haren kontura utziz, bera

firi-fara dabilen bitartean edanean eta alferkerian. Dirua irabazteko *ahalmena* funtsezkoa da emakumearen duintasunerako, ondasun banandurik ez badauka. Baina baldin ezkontza berdintasunezko kontratua balitz, obeditzeko obligaziorik gabekoa, baldin lotura beharturikoa eta ezkontzan gaitz hutsa baino aurkitzen ez dutenek zapaltzeko erabilia ez balitz, baldin emakumeak banantze justua (ez naiz orain dibortzioaz ari) lortu ahal balu, horretarako eskubide morala leukake-elako eta enplegu egoki guztietarako bideak zabalik balitu, gizonek dituzten moduan, orduan ez litzateke beharrezko emakume horrek, ezkontuta dagoela, bere ahalmen horiek erabiltzea. Gizonak lanbide bat aukeratzen duenean bezala, uste izan daiteke emakumeak, ezkontzen denean, etxe bat aurrera eramatea eta familia bat hazi eta hezteak aukeratzen duela bere ahaleginen xede nagusitzat, lan hori betetzeko behar diren urte guztietarako, eta uko egiten diela, ez beste helburu eta lan guztiei, baizik aipaturikoaren eskakizunekin bateragarri ez diren guztiei. Printzipio horrexek galarazten die praktikan emakume ezkontdu gehienei etxetik kanpoko lanean edo etxe barruan egin ezin denean jardutea. Baina arau orokorrek bidea libre utzi behar diete emakumeen egokimen bereziei, eta ezerk ez du eragotzi behar beste zerbaitetarako gaitasun apartak dituzten emakumeek, ezkontuta egon arren, beren bokazioari jarraitzea, beti ere etxekoandre gisa dituzten zereginetan gerta daitezkeen denera heldu ezinak beste era batera konpontzeko neurriak hartuta. Iritziak arazo horren nondik norako guztia argi ikusiko balu, ez legoke eragozpenik iritzia izan ledin aipaturiko gauzak arautuko litzukeena, legeak ezertan esku hartu gabe.

III

Uste dut ez nukeela zailtasun handirik izanen gizonak eta emakumeak familian ukan behar duten berdintasunaren auzian jarraitu didatenak emakumeen berdintasun justuaren ondorio batez konbentzitzeko, hots, emakumeari gaur arte sexu indartsuaren monopolio izan diren eginkizun eta lan guztietara bide eman beharraz. Nik uste dut lan horietarako ezgaitzat eduki badira, etxe barruan duten menpetasun egoerari iraunarazteko izan dela, gizonezkoek oro har ez dutelako oraindik onartzen beren maila bereko kide batekin bizitzea. Horrexegatik ez balitz, uste dut, gaur egun gai politiko eta ekonomi-

koei buruz iritziak duen egoeran, ia mundu guztiak onartuko lukeela bidegabekeria handia dela gizateriaren erdia irabaziak ematen dituzten lan gehienetatik eta ia goi eginkizun sozial guztietatik kanpo uztea, emakumeak jaioz geroztik beste sexuko artaburuen eta doilorrenek legez lor litzaketen karguak eta lanak erdiesteko gai ez direla dekretatuz, edo bestela, gaienak izan arren, enplegu horiek eurentzat debekaturik egonen direla erabakiz, gizonezkoentzat bakarrik izan daitezen. Azken bi mendeetan, emakumeen ezgaitasunak justifikatzeko emakumea izatez ateko arrazoiaren bat behar zela pentsatzen zenean (nekez gertatzen zena), jendeak nekez esaten zuen arrazoi hori emakumeen adimen urriagoan zetzala, inork ez baitzuen horretan sinesten, zeren bizitza publikoko borroketan (emakume batzuei ere eurotan parte hartzeko aukera ematen zitzaielarik) bakoitzaren gaitasunak neurtzen baitziren. Aldi horretan ematen zuten arrazoa ez zen emakumeen ezgaitasuna, baizik gizartearen interesa, hau da, gizonen interesa, *raison d'état* esamoldea, gobernuaren komenentzia eta ezarritako agintearen defentsa adieraziz, krimenik lazgarrienak esplikatu eta zurrizko nahikoa zen moduan. Gaur egun botereak hizkera leunagoa darabil, eta edonor zapaltzen duenean zapalduaren onerako egiten duela esaten du beti. Horren ondorioz, emakumeei zerbait debekatzen zaienean, uste da beharrezko dela esatea eta ona sinestea gauza hori egiteko gai ez direla, eta lan hori hartu nahi dute-nean beren benetako arrakasta eta zorionaren bidetik irteten direla. Arrazoi hori onargarri (ez diot baliozko) bihurtzeko, beharrezko litzateke berori dakarrenak esperientziaren bidea egiteko ausardia izatea, gaur arte inork egin ez duen bezala. Ez da nahikoa mantentzea emakumeak batez beste gizonak batez beste baino urriagoak direla gogameneko goi ahalmenei dagokienez, edo adimen argia galdatzen duten zereginak betetzeko gai diren emakumeak gizonak baino gutxiago direla. Zeregin horietarako ezein emakume ez dela gai mantendu behar da, eta emakumerik bikainenak egun zeregin hauen arduraren ematen zaion gizonik erdipurdikoenaren azpitik daudela buruahalmenetan. Izan ere, kargu hori lehiaketaz edo interes publikoa kontuan duen beste edozein metodoz irabaziko balitz, ez legoke inolako beldurrik ezein enplegu inportante gizonen batez bestekoaren edo beronen lehiakide gizonezkoen batez bestekoaren azpitik legokeen emakumeren baten eskuetara joan ledin. Gerta litekeen okerrean enplegu horietan emakumeak gizonezkoak baino gutxiago izatea

litzateke, eta hori beti gertatuko litzateke, emakumerik gehienek segurutik nahiago izanen luketelako inondiko lehiakiderik ukanen ez duten zeregin bakarrean jardutea. Gaur egun, emakumeen kontrako maiseatzailerik gogorrenak ere ez lirateke ausartuko ukatzen ezen, iraganeko esperientziari azkenaldikoa erantsiz gero, emakumeek, eta ez gutxi batzuek anitz emakumek baino, demonstratu dutela gizonen egiteko gai diren edozer, agian salbuespen batik ere gabe, egiteko kapaz direla, arrakastaz eta goresgarriro egiteko gainera. Gehienez ere esan ahal izanen da gauza batzuk ez dituztela zenbait gizonen bezain ongi egin eta beste batzuetan ez dutela gorengo maila lortu. Baina buru-ahalmenez kudeatu beharreko oso gauza gutxitan geratu dira gorengoaren hurrengo izatea erdietsi gabe. Ez al da hori nahikoa, eta nahikoa baino askoz gehiago, frogatzeko emakumearen kontrako tirania eta gizartearentzat kalte handia dela emakumeei gizonekin lehiaketan jarduten ez uztea aipaturiko kargu eta zereginak eskuratzeko? Ez da truisimo hutsa esatea zeregin horiek maiz emakume askok baino gaitasun urriagoa duten gizonen betetzen dituztela, emakumeek edozein lehiaketa justutan gaindituko lituzketenak. Zer aldatzen du nonbaiten gizonak izateak, zeregin batzuetan guztiz enpleguak, aipaturiko emakumeek baino gaitasun hobea dutenak lan horiek egiteko? Ez al da horixe gertatzen lehiaketa guztietan? Sobera asko ote dira, bada, goi zereginetarako gai diren gizonak, gizarteak gai den inoren zerbitzuak arbuia ditzan? Ziur-ziur ote dakigu, bada, beti eskueran izanen dugula hutsik dagoen garrantzizko edozein kargu edo zeregin sozial betetzeko moduko gizonen bat, gizateriarik erdi ezgai deklaratzearekin ezer ere ez galtzeraino, eta haien ahalmenak, distiratsuenak izanda ere, aintzat hartzeari uko egiteraino? Eta ahalmenok albo batera utzi ahal bagenu ere, nola bateratu justiziarekin haiei eskubidez dagozkien ohore eta ospea errefusatzea eta gizaki orok bere lanbidea (besteen kaltetan doana izan ezik) beren hobespenen arabera eta beren gain eta galorde aukeratzeko duen eskubide moralak ukatzea? Eta injustizia ez da hor amaitzen, zeren emakume horien zerbitzuen onura hartuko luketenengana hedatzen baita. Halako edo horrelako pertsonak ezin direla medikuak, abokatuak edo parlamentuko kideak izan dekretatzea pertsona horiei ez eze, horien zerbitzuak erabili nahi lituzketen guztiei kalte egitea da, baita lehia-kide gehiago izateak ekarriko lukeen onurarik gabe uztea eta bakoitzaren aukerak murriztea ere.

Ene tesiaren xehetasunetan zeregin publikoetara mugatuko naiz eta hau nahikoa izanen da segurutik, zeren, tesia puntu horretan frogatzea lortzen badut, aise hartuko zait ontzat emakumeak beste lan guztietarako ere onartu behar liratekeela, inola ere funtsezkoa izan gabe lan horietarako onartzen dituzten ala ez ikustea. Beste guztietatik oso diferentea den eta emakumeek, euren ahalmenei buruz sor daitekeen auzi orotatik aparte, erabiltzeko eskubidea duten zeregin bat aipatuz hasiko naiz. Botoa emateko eskubideaz ari naiz, hala parlamenturako nola udaletarako. Kargu publiko batean lan eginen dutenen hautaketan parte hartzeko eskubidea, kargua erdiesteko lehian parte hartzekotik ezberdina da. Parlamenturako hautagai izateko behar diren gaitasunak ez dituenari botorik ematerik ez bagenu, gobernuaren benetan ere oligarkia arrunt murrizta litzateke. Gobernatuko gaituztenak aukeratzeko boto eskubidea edukitzea mundu guztiak, nahiz eta gobernatzeko eginkizunetik betiko kanpo utzitakoa izan, bere burua babesteko eduki behar duen bitarteko bat da. Eta suposatuta beharra dago emakumeak hautaketa horretarako gai direla, zeren legeak jada ematen baitie eskubide hori eurentzat garrantzitsuenaren kasuan: emakumea bere bizitza bukatu arte gobernatu behar duen gizona hautatzeko eskubidea ematen dio eta beti suposatzen du emakumeak bere borondatez egiten duela hautu hori. Kargu publikoetarako hautaketaren kasuan, legeari dagokio boto emateko eskubidea beharrezko segurtasun eta mugez inguratzea; baina gizonekin hartzen diren segurtasun neurri berak hartzea nahikoa da emakumeen kasuan ere. Direnak direla gizonei boto emateko jartzen zaizkien baldintzak eta mugak, ez dago justifikazio izpirik ere emakumei baldintza beretan boto ematen ez uzteko. Klase bateko emakumeak ez dute segurutik alderik izanen iritzi politikoan klase bereko gizonengandik, emakumeak emakume gisa dituzten interesak moduren batean jotzen diren auzietan izan ezik; eta, kasu horretan, emakumeak boto eskubidea behar dute berdin aintzat hartuak izateko bermea segurtatzeko. Horrek begi-bistakoa izan behar luke nik defendatzen ditudan beste iritzi guztietan nirekin bat ez datozenentzat ere. Emakume guztiak emazteak balira ere eta emazte guztiek esklaboak izan behar balute ere, are gehiago aurkituko lirateke esklabo horiek babes legalaren premian, zeren ongi baitakigu zer nolako babesa izaten duten esklaboek, legeak euren ugazabek egingakoak direnean.

Hauteskundeetan parte hartzeko ez eze, erantzukizun publiko inportanteak inplikatzan dituzten karguak edo profesioak hartzeko emakumeek duten gaitasunari dagokionez, esana dut jada alde hori ez dela funtsezkoa eztabaidagai darabilgun auzi praktikorako, lan egiten utzi zaion profesioan arrakasta duen emakume orok horrexegatik berorregatik frogatzen duenez gero gai dela profesio horretan jarduteko. Eta kargu publikoen kasuan, herrialdeko sistema politikoa gizon ezgaiak kanpoan uzteko moduan eratuta baldin badago, emakumeak ere era berean utziko ditu kanpoan; eta horrela ez bada, onartzen dituen pertsona ezgaiak emakumeak nahiz gizonak izan, gaitzak ez du ez behera ez gora egiten. Beraz, emakume gutxi batzuk bederen kargu horietan jarduteko gai direla onartzen den heinean, emakume horiei ateak ixten dizkieten legeak ezin dira justifikatu oro har emakumeen gaitasunei buruzko ezein iritzitan oinarrituta. Baina, azken gogorakizun hori funtsezkoa ez bada ere, garrantzi gutxikoa izatetik urrun dago; aurreiritzirik gabe aztertuta, indar berria ematen dio emakumeen ezgaitasunaren kontrako argudioari, eta baliagarritasun praktikoko arrazoiak berrindartzen ditu.

Ken ditzagun erabat, hasieran, zera frogatzera doazen gogorakizun guztiak, alegia, emakumeen eta gizonen artean ustez dauden alde mental guztiak beraien hezkuntza eta zirkunstantzietako aldean ondorio naturala direla eta ez dutela inolako alde erradikalik adierazten, eta are gutxiago izaerako gutxiagotasunik. Har ditzagun emakumeak egun diren bezalaxe edo izan direla argi dagoen bezalaxe, eta ikus ditzagun jada praktikan erakutsiak dituzten gaitasunak. Egina dutena bederen, hortik gorakorik ez bada ere, egin dezaketela frogatuta utzi dute. Kontuan hartzen badugu nolako arduraz desbideratzen dituen euren hezkuntzak gizonentzat bakarrik gordetzen diren gai eta lanetatik, horietarako prestatu beharrean, orduan argi geldituko da ez diedala emakumeei abantaila modurik ematen, euren kasua benetan erdietsi dutenean oinarritzen dudanean. Izan ere, froga negatiboak, kasu horretan, gutxi balio du; edozein froga positibo, ordea, eztabaia daezina da. Ez dago inferitzerik emakume batek ezinen duela Homero bat, Aristoteles bat, Migel Anjel bat edo Beethoven bat izan, arrazoi-tzat jarrita orain arte ezein emakumek ez duela sortu haienekin erka daitekeen obrarik haiek gailen izan ziren arloetan. Gertakari negatibo horrek ezbaian eta eztabaida psikologikora zabalik uzten du auzia.

Baina erabat ziurra da emakume bat Elisabet Erregina bat, edo Deborah bat edo Jeanne d'Arc bat izan daitekeela, hori ez baita inferentzia, gertakaria baizik. Gainerakoan kontu bitxia da egungo legeak emakumeari galarazten dizkion gauza bakarrak haiek egiteko gai direla frogaturiko gauzak izatea. Ez dago legerik emakumeei Shakespea-
rek bezalako antzezpenak idaztea edo Mozartek bezalako obrak kon-
posatzea galarazten dienik. Baina Elisabet Erregina edo Viktoria
Erreginari, tronua heredatu ez bazuten, eginkizun politikorik xumee-
na ere ezinen zitzaien ardurapean utzi, nahiz eta lehenengoak handie-
nen pareko maila politikoa erakutsi zuen.

Analisi psikologikotik at, esperientziatik eztabaidaezina den zerbait atera baliteke, hori litzateke emakumeek gaitasunik handiena egiten uzten ez zaizkien gauzetarako hain zuzen ere dutela, zeren gobernatzeko duten bokazioa distiratsu agertu baita eman zaizkien aukera urrietan; itxuraz oso zabalik izan dituzten osperako bideetan, ordea, ez dute lortu horrenbesteko osperik. Badakigu erregeen aldean zein gutxi izan diren historian erreginak. Kopuru txiki horren barruan gobernatzeko talentua erakutsi duten erreginen proportzioa erregeena baino handiagoa da, nahiz eta eurentako asko aldi zailtan izan tronuan. Ohartarazi beharrekoa da, halaber, emakumeei egotzi ohi zaien izaera berezi eta konbentzionalaren erabat kontrako merezimenduengatik nabarmendu direla, gobernatzean erakutsitako irmotasun eta sendota-
sunagatik zuhurtasunagatik bezain distiratsu agertuz. Erregina eta enperatrizei erregeordeak eta probintzietako gobernatzaileak izan diren emakumeak gehitzen badizkiegu, gizateria bikainki gobernatu duten emakumeen zerrenda asko luzatzen da². Hain da ukaezina gertakari hori, non norbait, duela asko, honi beste irain batez ihardesten saiatu zen, esanez erreginak erregeak baino hobeak direla erregeen pean emakumeak gobernatzen dutelako, erreginen pean, ordea, gizonak.

Txiste txar bati erantzuten ibiltzeak denbora galtzea dela eman lezake, baina horrelako gauzek eragina izaten dute jendearen burue-
ran, eta entzun ditut gizon batzuk ateraldi hori berorren baitan zerbait inportantea ikusiko balute bezala aipatzen. Edonola ere, barregarrike-
ria horrek beste edozerk beste balioko dit eztabaidaren abiapuntu gisa. Horrela, hasteko, diot ez dela egia erregeen pean emakumeak gober-
natzen dutela. Horrelako kasuak salbuespenezkoak dira erabat: eta errege ahulek emakumezko begikoen eraginpean gizonezko begikoen

eraginpean bezain maiz gobernatu dute gaizki. Emakume batek amodioaren bidez gidatzen duenean errege bat, ez da espero behar gobernu ona, orduan ere salbuespenak dauden arren. Baina Frantziako historian bi errege ditugu aferen gidaritza batak amari eta besteak arreba bati eman ziotenak: bata, Karlos VII.a, mutiko-mutikoa zen, baina bere aita Luis XI.aren, orduko erregerik iaioenaren, asmoei jarrai egin zuen hori. Bestea, San Luis, Karlomagnoz geroztiko erregerik onena eta gobernari adoretetsuetako bat izan zen. Printzesa biok orduko ezain printzek ere ontzea lortu ez zuen mailan gobernatu zuten. Enperadore Karlos V.ak, bere garaiko printzerik politikoenak, bere zerbitzuan beste ezain printzek baino gizon baliozko gehiago ukan zituenak eta interesak sentimendu pertsonalen mende jartzera batere emana ez zenak, bere familiako printzesa bi, hurrenez hurren, egin zituen Herbehereetako gobernari eta bat edo bestea bere bizitza osoan eduki zituen postu horretan (gero hirugarren batek hartu zuen kargu hori). Arrakasta handiz gobernatu zuten biek, eta bata, Austriako Margarita, garaiko politikorik trebeenetakoena izan zen. Nahikoa da horrekin auziaren lehenengo punturako; goazen bigarrenera. Erreginen pean gizonak gobernatzen dutela esatean, erregeak emakumeek gobernatzen dituztela esatean adierazten duten gauza bera al diote? Erreginek, gobernatzeko tresna gisa, plazer-lagun dituzten gizonak aukeratzen dituztela esan nahi ote du? Horrelakorik ez da maiz gertatu, ezta azken aipaturiko harremanetan Katalina II.a bezalako eskrupulurik gabeko printzesen kasuan ere; eta hori gertatzen denean, inondik ere ez da agertzen gizonen eraginaz erdiesten omen den gobernu ona. Egia bada, orduan, administrazioa erregina baten pean erregerik gehienek pean baino gizon baliozkoagoen eskuetan egoten dela, erreginek gizon horiek aukeratzeko gaitasun handiagoa dutelako izan behar du; eta emakumeek gaitasun handiagoak ukan behar dituzte ez bakarrik tronurako, baizik lehen ministro izateko ere, zeren lehen ministro baten lehenengo arazoa berak bere kabuz gobernatzea barik, afera publikoetako sail bakoitza gidatzeko pertsona egokienak topatzea baita. Eskuarki emakumeek gizonetikiko duten abantailen artean onartzen den moduan, emakumeek jendearen izaera berehala ezagutzeko gizonen baino sen handiagoa edukitzeak, beste gauza batzuetan gaitasun berdinekoak izan arren, gizonak baino gaia-egoigten ditu laguntzaileak aukeratzeko orduan, gizateria gobernatzeko eginkizuna duen ororentzat agian aferarik inportanteena delarik

hori. Printzipio moralik gabeko Mediciko Katalinak berak ere L'Hopital kantzeleriaren balioa estimatzen jakin zuen. Baina halaber egia da erreginarik handienak beren gobernatzeko merituz izan zirela handi, eta horrexegatik zerbitzatu zituztela ongi gizonak. Afera gorenen gidaritza beren eskuetan atxiki zuten beti, eta aholkulari onei entzunez, gobernuko gai gorenak aurrera ateratzeko moduko burueraren jabe ziren frogarik indartsuena eman ziguten.

Arrazoizko al da pentsatzea politikako eginkizun garrantzitsuenetarako gai direnak txikiagoetarako ezgai direla. Ba al da gauzen izaeran arrazoirik printzeen emazte eta arrebak, hartarako deitzen zaien guztian, printzeak berak bezain gai izan daitezen *haien* aferak ongi eramateko, estatu gizonen, administratzaileen, konpainietako zuzendarien eta instituzio publikoetako kudeatzaileen emazteak eta arrebak, ordea, ezgai direnean beren neba eta senarrek egiten dutena egiteko? Benetako arrazoa oso argi dago: printzesak gizonik gehien gaineratzen daude euren mailagatik, sexuagatik beherago egon arren, eta inoiz ez da irakatsi izan politikaz arduratzea beraiei ez zegokien zerbait zenik; aitzitik, gizaki ikasi orori dagokion moduan inguruan dituzten arazo guztiekiko ardura sentitzeko eta deituak direnean arazoon konponketan parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie. Erregetzan diharduen familiako damei bakarrik uzten zaie gizonen maila bereko interesak eta garapen askatasuna edukitzea: dama horientzat ez dago inolako gutxiagotasunik. Emakumeen gobernatzeko gaitasunak proban jarri diren toki guztietan eta jarri diren hein bereberean erakutsi dute gaitasun horien egokitasuna.

Gertakari hori bat dator munduko esperientzia osagabeak dirudienek emakumeen joera bereziei eta gaitasun berezkoei buruz, gaur arte izan diren moduan, iradokitzen dizkigun konklusio orokorrekin. Eta ez diot aurrerantzean izanen diren moduan, zeren, behin baino gehiagotan esan dudan moduan, harropuzkeria deritzot emakumeak, beraien berezko gaitasunen arabera, zer diren edo ez diren, zer izan daitezkeen edo ezin daitezkeen erabaki nahi izateari. Orain arte, berezko garapenari dagokionez, naturala ez den egoeran eduki ditu gizarteak, nonbait ere beraien izaera neurri handian bihurrikatu eta desitxuratzerraino. Eta inork ere ezin du seguru baieztatu ezen, baldin emakumeei beren norabidea libreki hartzen utzi balitzaien gizonen izan zaien moduan eta norabide horri giza elkarrearen kondizioek

sexu biei era berean galdaturikoez landa beste okertasun artifizialik eman ez balitzaio, gizon eta emakumeen artean alde funtsezkoa, edo ez hain funtsezkoa, izanen zatekeela garatuko zituzketen izaera eta gaitasunetan. Oraintxe laster demostratuko dut egungo aldeak, gutxien eztabaida daitezkeenak ere, zirkunstantziek, eta ez berezko gaitasunetako aldeek, eragindakoak izan litezkeela. Baina emakumea esperientziak egun aurkezten digun moduan hartzen badugu, gai honi buruzko jeneralizazioetan dagoen baino egia gehiagorekin esan daiteke batez ere gauza praktikoetarako daukala berezko talentua. Baieztapen hori ados dago emakumeen egungo eta iraganeko historia publiko guztia-rekin. Eguneroko esperientzia komunak ere egiaztatzen du. Azter ditzagun talentudun emakumeen bereizgarri izaten diren gaitasun mentalen izaera berezia: emakumea praktikatuko berebiziko egiten duten gaitasunak dira guztiak, eta praktikatuko joera ematen diotenak. Zer esan nahi dugu emakume batek intuiziorako gaitasuna duela diogunean? Aurrean duen gertakari batean azkar eta zuzen barrentzeko gaitasuna daukala. Intuizioak ez du inolako zerikusirik printzipio orokorrekin. Inork ez du inoiz intuizioz hauteman naturaren lege zientifikorik, ezta betebeharrak edo zuhurtzi lege orokorrik ezagutu ere. Horiek astiro-astiro esperientzia ezberdinak bildu eta erkatzearen emaitza dira, eta intuiziodun gizonak ez emakumeek ez dira arlo horretan distiratsuenak izaten normalean, behar den esperientzia beraiek berenez erdiesteko modukoa denean izan ezik. Izan ere, euren erretasun intuitiboa deritzanak bereziki gai egiten ditu egia orokorrak biltzeko, ohartzeko dituzten bitartekoez batzeko modukoak direnean. Kasualitatez irakurketaren eta hezkuntzaren bidez, gizonak egiten duten bezala, beste jende baten esperientzia etengabe berenganatzen dutenean (kasualitate hitza apropos darabilt, zerren, laguna bizitzako arazo nagusietarako gai egiteko balio duten ezagutzei dagokienez, hezikirik dauden emakume bakarrak autodidaktak baitira), emakumeak gizonak oro har baino hobeto hornitzen dira praktikan trebe eta arrakastatsu izateko behar diren bitarteko guztiez. Ikasketa handiak hartu dituzten gizonak, ez dute izaten aurrean duten gertakaria ulertzeko senik; aurrean duten gertakarian ez dute ikusten hain benetan zer dagoen, baizik ikasi dutenaren arabera zer egon behar lukeen. Nekez gertatzen zaie hori trebe samarrak diren emakumeei. Euren «intuizio» gaitasunak libratzen ditu horrelakoetatik. Esperientzia berdinarekin eta ahalmen orokor berdinekin, emakumeak normalean gizonak baino

askoz gehiago ikusten du aurrean daukanaren baitan. Aurrean dagoenarekiko sentiberatasun horixe da bizitza praktikorako –teoriatik bereizita– gaitasuna erabakitzen duen dohain nagusia. Printzipio orokorrak aurkitzea ahalmen espekulatiboari dagokio; printzipio horiek aplikagarriak diren edo ez diren kasu partikularrak aurkitu eta zehazteko gaitasuna talentu praktikoa da; eta horretarako emakumeak, egun diren bezalakoak, gaitasun berezia dute. Onartzen dut printzipiorik gabe ez dagoela praktika onik edukitzerik eta, emakumeen ahalmenen artean azkar ohartzeko gaitasunak duen leku gailena bitarteko, oso abilak direla euren oharketaz jasotakoaren gainean jeneralizazioak arinegi eraikitzen, nahiz eta aldi berean aise zuzentzen dituzten jeneralizazio horiek, behaketak eremu zabalagoa hartu ahala. Baina akats horren zuzengarria gizateriaren esperientziara, ezagutza orokorrera iritsi ahal izatea da, eta hori ondoen hezkuntzak eman dezake. Emakumearen errakuntzak gizon autodidakta argi batenen antz-antzekoak dira; horrelako gizonak errutinan hezitako gizonak ikusten ez dutena ikusten du maiz, baina errakuntzetan erortzen da aspalditik ezagunak diren gauzak ezagutzen ez dituelako. Gizon horrek, jakina, lehenagotik dagoen ezagutzatik asko hartu du edo ezin izan du ezer hartu, baina dakiena zatika eta ordenarik gabe jaso du, emakumeek egiten duten bezala.

Baina, emakumeen gogamenak aurrean dagoenera, erreala denera, gertakari errealerak daukan joera hau bere eskusibotasunean errakuntza iturri bat bada ere, kontrako errakuntzaren, espekulatiboaren, erremediorik baliagarriena ere bada. Adimen espekulatiboaren aberraziorik handien eta berezkoena, hain zuzen ere, gertakari objektiboaren pertzepzio bizirik eta beti presente dagoen senik eza da. Horrexen faltagatik, ez bakarrik ez dira ohartzen kanpoko gertakariak euren teorien aurrez aurre aurkezten dizkien kontraesanez, baizik bistatik galtzen dute espekulazioak oro har duen helburu bidezkoa, eta beren ahalmen espekulatiboak izaki bizidun edo bizigabeko errealak gabeko eremuetan zehar ibiltzen uzten diete, izaki idealizatuak barik, metafisikaren lilurakeriak eta hitz-joko hutsek sorturiko geriza pertsonifikatuak direlarik, beraiek filosofia goren eta transzendentalenaren benetako xedeak direla uste dutenak. Behaketa bidezko ezagutzarako materialak biltzera barik, materialok pentsamenduzko prozesuen bidez landuz egia zientifikoak eta portaera legeak ateratzera dedika-

tzen den teoria eta espekulazioko gizon batentzat nekez izanen da ezer baliozkoagorik, bere espekulazioak benetako goi mailako emakume baten konpainian eta kritikaren pean burutzea baino. Ezer ere ez hobetik pentsamenduei gauza errearen eta naturako gertakari errearen mugen barruan eusteko. Emakumea nekez desbideratzen da abstrakzio baten atzetik. Bere gogamenaren ohiko joera gauzak bana-banaka, ez multzoan, hartzea da, eta joera honekin erlazionaturiko beste zer-bait ere badauka: pertsonen unean uneko sentimenduekiko duen interes bizia, praktikan jarri beharreko gauza orotan lehenengo eta behin gizabanakoarengan zer nolako eragina izanen duen pentsatzera darmana. Joera bi horiek oso eszeptiko bihurtzen dute emakumea gizabanakoak aherentzia eta gauzak izaki bizidunen sentimenduei ez dagoen irudizko entitatearen baten edo gogamenaren sorkuntzaren baten onerako bakarrik balira bezala tratatzen dituen espekulazio orokiko. Emakumeen pentsamenduak baliagarriak dira gizon pentsatzaileen ideiei errealtatea emateko, gizonen pentsamenduak emakumeen ideiei luze-zabalera emateko diren moduan. Sakontasunean, zabalatasunetik diferentea denez, zalantza handiak ditut ez ote diren emakumeak dagoeneko gizonen parekoak, inolako alderik gabe.

Emakumeek egun dituzten ezaugarri intelektualak, beraz, espekulaziorako laguntza ere baldin badira, are inportanteagoak dira espekulazioak bere lana egin duenean eta teoriaren emaitzak praktikara eramane behar direnean. Jada azaldu ditugun arrazoiengatik emakumeek arrisku txikiagoa dute gizonen ohiko errakuntzan erortzeko, hau da, arauak onartzeko, praktikan aplikagarriak ez direnean edo bereziki moldatu beharra dutenean. Azter dezagun orain emakume argien beste nagusitasun onartu bat: gauzak hautematen gizonak baino azkarragoak izatea. Ez al da hori nagusiki laguna praktikarako gaitzen duen dohaina? Ekintzan, dena dago beti agudo erabakitzearen mende. Espekulazioan, ordea, ezer gutxi balio du horrek. Pentsatzaile huts batek itxaron dezake, denbora har dezake pentsatzeko, froga berriak bil ditzake; aukera galtzeko beldurrak ez du behartzen bere filosofia behingoan formulatzera. Behar adina daturik gabe ahalik konklusiorik onena ateratzeko ahalmena ez da, ez, alferrikakoa filosofian; ezaguturiko gertakariez baliatuz behin-behineko hipotesi koherentea eraikitzea hurrengo ikerketarako beharrezko oinarria izaten da maiz. Hala ere, ahalmen hori lagungarria da filosofian, baina ez bertan behar den

gaitasun nagusia; eta hala jarduera lagungarriko nola nagusirako, filosofoak nahi adina denbora har dezake. Egiten duena azkar egin beharrik ez dauka; gehien behar duena pazientzia da, astiro lan egiteko harik eta argi lanbrotsuak argi garbi bihurtu arte eta aieruetatik teoremak atera arte. Aitzitik, material iheskor eta galkorrarekin –gertakari partikularrekin eta ez gertakari espezieekin– dihardutenentzat, pentsamendu azkartasuna garrantziari dagokionez pentsatzeko ahalmena bera bakarrik aurretik duen gaitasuna da. Ekintzan jokatu behar denean, bere ahalmenak jarduteko prest-prest ez daukana baliteke ahalmenik ez balu bezala ari izatea. Izan daiteke gai kritikatzeko, baina ez da gai ekintzarako. Horretan emakumeak eta emakumeen antzekoak diren gizonak besteen gainetik daude nabarmenki. Beste gizonak, ahalmenik gailenenak eduki arren, oso astiro heltzen dira beren ahalmenak menperatzera. Judizio azkartasuna eta ekintza zentzuzkoak berehala burutzeko gaitasuna, ondoen ezagutzen dituzten arloetan ere, gizon horiek astiro eta mailaka lortzen duten aztura bihurturiko ahalegin neketsuaren ondorio dira.

Esanen da, agian, emakumeen sentiberatasun nerbioso biziagoak ezgai egiten dituela etxeko bizitza ez den beste edozeren praktika-rako, horretarako emakumeak unean uneko eraginen pean aldabarak, iraunkortasun tinkorik gabekoak eta euren ahalmenak erabili orduan segurtasunik ez orekarik gabekoak direla alegatuz. Uste dut aurreko esaldi horiek ongi laburbiltzen dituztela emakumeen goi mailako afera garrantzizkoetarako gaitasunaren kontra jarri ohi diren objekziorik gehienak. Akats horietatik asko indar nerbiosoa gainezkatu eta alferrik galtzearen ondorio dira, eta behingoan konponduko lirатеke indar hori xede zehatz batera bideratuz gero. Horietatik beste asko, berriz, konturatuta edo konturatu gabe emakumeari eman zaion heziketaren ondorio dira, «histerismoak» eta «zorabioak», modatik pasa zirenetik, ia zeharo desagertu izanak erakusten duen moduan. Gainera jendea, goi klaseetako emakume asko bezala (gure herrialdean besteetan baino gutxiagotan gertatzen da hau) etxe barruko epeltasunean hazitako landareak bezala hazten denean, aire korronte eta aldaketa atmosferiko orotatik urrun eta zirkulazioa eta muskulu sistema bizkortu eta garatzen dituzten zeregin eta ariketetan inoiz ibili gabe, eta bitartean haien sistema nerbiosoa, emozioei dagokien arloan batik bat, jarduera anormaleko egoeran mantentzen direnean, ez da harritzekoa pertsona

horiek, ahuleriaz hiltzen ez direnean, barruko zein kanpoko kausa ari-
nek osasun arazoak eragiteko moduko izaera fisikoa edukitzea, irau-
tea edo esfortzua eskatzen duen zeregin fisiko edo mentalak burutze-
ko indarrik gabekoa. Baina bizibidea beren lanaz ateratzeko hezitako
emakumeek ez dute erakusten horrelako ezaugarri morbosorik, leku
osasungaitzetan itxita egondako lan luzeegietan dihardutenean izan
ezik. Gaztaroan beren neben antzeko hezkuntza fisiko osasungarria
eta gorputz-askatasuna izandako emakumeak, gainera gero euren bizi-
tzan aire garbirik eta ariketarik falta izan ez dutenak, nekez erakusten
dute jardun aktiboak galarazteko moduko gehiegizko sentiberatasun
nerbiosorik. Egia da sexu bietan daudela, hein batean, sentiberatasun
nerbiosoa, berez eta gorpuzkeraz, ezohiko mailan duten pertsonak,
hain ezaugarri markatu eta eragin handikoa delarik berau, non bizi-
fenomeno guztietan agintzen baitu indartsu. Gorpuzkera nerbiosoa,
beste izaera fisiko batzuen modura, herentziazkoa da, eta semeei nahiz
alabei transmititzen zaie; baina litekeena eta are daitekeena da jite
nerbiosoa (esan ohi zaion moduan) emakumeek maizago heredatzea,
gizonek baino. Har dezagun hau gertakari gisa eta galde dezagun: jite
nerbiosoko gizonak ezgaitzat al ditugu gizonek bete ohi dituzten egin-
kizun eta jardunetarako? Horrela ez bada, jite bereko emakumeek zer-
gatik izan behar dute eginkizun beretarako ezgai? Jitearen berezitasu-
nak, muga batzuen barruan, oztopo dira, dudarik ez, lanbide batzuetan
arrakasta izateko, eta laguntza bat beste lanbide batzuen kasuan. Baina
lanbidea burutu behar duenaren jiterako egokia denean, eta ez denean
ere batzuetan, arrakasta-adibide ikusgarrienak eskaintzen dituzte eten-
gabe sentiberatasun nerbioso handiko gizonek. Horrexetan batez ere
nabarmentzen dira beren agerpen praktikoetan, alegia, beste gorpuz-
kera batekoek baino zirrara biziagoak sentitzeko gaitasunean; beraien
ahalmenak, kitzikatuak izatean, egoera normalean duten mailatik
beste jendearengan baino gorago igotzen dira; beren buruaren gaine-
tik, esan genezake, igotzen dira, eta bestelako egoeretan inola ere egin
ezin dituzten gauzak egiten dituzte aise asko. Baina goi-goiko kitzika-
pen hori ez da, gorpuzkera ahulekoetan izan ezik, tximistargi huts bat,
arrastorik ere utzi gabe desagertzen dena eta helburu baten bilatze
iraunkor eta tinkoarekin bateratzerik ez dagoena. Jite nerbiosoarean
izaerari luzaz jarraituriko ahaleginen bidez kitzikapen *iraunkorra* lor-
tzeko gai izatea dagokio. *Adorea* esaten zaio horri. Horrexek darama
arrazo oneko lasterketa zaldia abiadura moteldu gabe hilda jausi arte

korrika egitera. Horrexek eman die emakume delikatu askori iraunkortasunik gorenaz jokatzeko gaitasuna, ez bakarrik urkamendiaren aurrean, baizik hara aurretik jasandako gogo eta gorputzeko torturen segida luzean. Bistakoa da jite horretako jendeak aparteko gaitasuna daukala gizateriaren buruzagitzako betearazpen saila esan dakiokiena betetzeko. Hizlari bikainak, sermolari apartak, eragin moralen zabal-tzaile eraginkorrak izateko zura daukate. Balirudike haien gorpuzkera estatu gizonari ministro kontseiluan edo epaileari galdatzen zaizkion gaitasunak edukitzeko egokiena ez dela. Horrelaxe litzateke, baldin egia balitz ezen, jendea kitzikagarria delako, beti kitzikatuta egon behar duela. Baina kitzikagarritasuna hezi eta menperatu egiten da. Sentipen indartsua autokontrol indartsurako tresna eta elementu dugu, baina horretarakoxe landu behar da. Horrela landuz gero, sentipen horrek, bultzadako heroiak ez eze, norbere buruaren konkistako heroiak ere hezi eta prestatzen ditu. Historiak eta esperientziak frogatzen dute izaeraz grinatsuenak direla zurrunenak beren betebeharrak senari dagokionez, euren grina norabide horretan landu denean. Auzi batean bere interes bizien kontra epai justua ematen duen epaileak, sentipen bizi horrexetatik ateratzen du justiziaren obligazioaren sen erabakitsua, eta horrek bere buruaren gain garaipena lortzeko gai egiten du. Gizakia bere eguneroko izaeratik ateratzen duen goi mailako gogo handi horretarako gaitasunak eguneroko izaeraren baitan erreakzionatzen du. Salbuespenezko egoera horretan gizakiak dituen nahiak eta ahalmenak eredu bihurtzen dira beste garai batzuetako sentimenduak eta jarduerak konparatu eta baloratzeko. Eta haren ohiko asmoak goi mailako kitzikapeneko uneetara moldatu eta egokituriko izaera hartzen dute, nahiz eta uneok, gizakiaren izaera fisikoagatik, iragankorrak baino ezin diren izan. Arrazez eta gizabanakoez dakigunak ez du erakusten izaera kitzikagarria dutenak, batez beste, kitzikagaitza-goak direnak baino ezgaiagoak direnik ez espekulaziorako ez praktikarako. Frantsesek eta italiarrek izaeraz, dudarik gabe, nerbio kitzikagarriagoak dituzte arraza teutonikoek baino, eta ingelesekin bederen erkaturik, haiek baino eguneroko eta ohiko bizitza emozional oparoagoa dute; baina txikiagoak izan al dira zientzian, negozio publikoetan, lege kontuan eta gai juridikoetan, edo gerra aferetan? Ongi frogaturik dago grekoak antzina, egun euren ondorengoak diren bezala, gizaterian izan den arrazarik kitzikagarrienetako bat zirela. Ez dago galdetu beharrik zein arlotan ez ziren gailen izan. Daitekeena da erromatarrak,

hegotarrak hauek ere, jatorriz izaera berdintsukoak izatea, baina euren diziplina nazional gogorrak, espartarren antzekoak, grekoenaren kontrako izaera nazionalaren eredu izatera eramán zituen, beren sentimendu naturalen bidea artifizialetara okertuz. Kasu horiek ongi erakusten baldin badute zer egin lezakeen herri berez kitzikagarri batek, zelta irlandarrek beren kontura utziz gero zer diren adierazten digun adibide egokienetakoa dakarkigute (mendeetan gobernu txar baten zeharkako eraginaren pean eta, erlijio katolikoan zintzo sinetsiz, hierarkia katolikoaren heziketaren pean egondakoak beren kontura utzita egon direla esaterik badago). Irlandarren izaera, beraz, nire tesiaren kontrakotzat jo daiteke: hala ere, gizabanakoaren zirkunstantziak alde izan diren guztian, zein herrik erakutsi du gaitasun handiagorik askotariko gailentasun indibidualetarako? Frantsesak ingelesekin, irlandarrak suitzarrekin, grekoak eta italiarrak herri germaniarrekin erkatuta bezalaxe, emakumeak gizonekin erkatuz gero, aurkituko dugu, oro har, gauza berak egiten dituztela, bikaintasun mota berezian diferentzia txiki bat erakutsita agian. Baina ez dut arrazoi txikienik ere ikusten zalantzan jartzeko emakumeak gizonen pareko liratekeela, beraien heziketa eta lanketa beraien izaerako ahuldadeak areagotzeko barik zuzentzeko erabiliko balira.

Demagun emakumeen gogamena izaeraz gizonena baino alda-korragoa dela, segidako ahalegin berean irauteko ez hain aproposa, beren ahalmenak gauza askoren artean banatzeko egokiagoa, eremu berean punturik goreneraino jotzeko baino; hori benetan gerta dakieke emakumeei, gaur diren bezalaxe, (nahiz eta ez salbuespen handi eta askorik gabe) eta baliteke horrexek esplikatzea zergatik gelditu diren emakumeak gizonik gailenenen atzean, gogamen osoa ideia eta lan sail batean buru belarri sartzea batez ere galdatzen duten gauzetan hain zuzen ere. Hala ere, alde hori bikaintasun motari bakarrik dago-kiona da, ez bikaintasunari berari edo beronen balio praktikoari; eta orain frogatzeko gelditzen da ea gogamenaren zati baten erabilera eskusibo hori, pentsamen osoa gai bakar batean buru belarri sartze eta lan bakarrean kontzentratze hori den giza ahalmenen egoera normal eta osasungarria, espekulaziorako bererako ere. Uste dut kontzentrazio horren bidez garapen berezitan irabazten dena gogamenak bizitzako beste xede batzuetarako duen gaitasunean galtzen dela; eta pentsamendu abstraktuan bertan ere, ene uste tinkoa da gogamenak

gehiago egiten duela arazo zail berera behin eta berriz itzulita, etenik gabe bertan itsatsita egonda baino. Edonola ere, praktikan, bertako gauza gorenetatik apalenetaraino, pentsagai batetik bestera azkar pasatzeko gaitasuna, pasatzean adimenak indarra galdu gabe, garrantzi handiko ahalmena da; eta ahalmen hori goren mailan daukate emakumeek, leporatzen zaien aldaberatasunagatik beragatik. Izaeraz ere badute agian ahalmen hori, baina erabileraz eta heziketaz behintzat dudarik gabe daukate. Izan ere, emakumeen ia jardun guztiak mila xehetasun txiki menperatzean dautza, eta eurotako bakoitzean gogamena ezin da minutu bakar batez ere gelditu, besteetara pasa beharra baitauka, eta zerbaitek gehiago pentsatzea galdatzen badio, aisialdiari kendu behar izaten dio horretarako denbora. Maiz nabarmendu izan da emakumeek gizonak, mila aitzakia jarrita, pentsatzen saiatu ere eginen ez liratekeen zirkunstantzietan eta uneetan pentsaketan aritzeko duten gaitasuna; eta emakumearen gogamena, gauza txikiak soilik konpontzen ibili arren, nekez egoten da ezer egin gabe, gizonarena hain sarri egoten den moduan, bere bizitzako asuntotzat daukan hartan ez diharduenean. Emakumearen bizitza arrunteko asuntua dena da, eta munduak bueltak emateari uzten ez dion moduan emakumeak ez dio bertan behera uzten pentsaketari.

Baina –esanen didate– anatomiak frogatzen du gizonak emakumeek baino buru gaitasun handiagoa dutela: garun handiagoa. Nik ihardesten diet ezen lehenengo eta behin hori berori dudazko kontua dela. Ez dago inola ere frogaturik emakumearen garuna gizonarena baino txikiagoa denik. Hori emakumeak eskuarki gizonak baino gorputz txikiagoa eduki izanetik ateratzen bada, irizpide horrek ondorio bitxietara eraman genitzake. Gizon garai eta hezurluze bat, horren araber, gizon txiki bat baino askoz adimen argiagokoa litzateke, eta elefantea edo balea gizateria baino izugarri argiagoak. Gizakien garunaren tamaina, anatomistek dioskutenez, gorputzaren edo buruaren beraren tamaina baino gutxiago aldatzen da gizaki batetik bestera, eta ez dago batetik bestea inferitzerik. Egia da zenbait emakumek edozein gizonena besteko garuna dutela. Neuk ere gogoratzen dut giza garun asko pisatu zituen gizon batek esaten zuela berak pisaturiko astunena, Cuvierena berarena (liburuetan aipatzen den astunena) baino pisutsuagoa, emakume batena zela. Gehitu behar dut oraindik inork ez dakiela zer erlazio dagoen zehazki garunaren eta ahalmen intelektua-

laren artean eta gai horri buruz eztabaida handiak daudela. Erlazioa oso estua dela ezin dugu zalantzan jarri. Garuna, dudarik ez, pentsamendu eta sentipenaren organo materiala dugu eta (albo batera utzita oraindik argitu gabeko eztabaida buru ahalmen ezberdinek garun barruan duten toki diferentei buruz) onartzen dut anomalia bat litzatekeela, baita bizi eta antolaketa legez dakigun guztiarekiko salbuespen bat ere, organoaren tamainak inolako zerikusirik ez edukitzea funtzioarekin; tresna handiagoari ahalmen handiagoa ez egokitzea. Baina salbuespena eta anomalia ez lirateke txikiagoak, baldin organoak bere bolumenagatik *bakarrik* balu eragimena. Naturaren lan delikatu guztietan –eurotatik delikatuena bizidunen sorkuntzarakoak eta horien artean nerbio-sistemarenak direlarik– efektuetako diferentziak eragile fisikoen kalitatearen mende daude, kantitatearen mende dauden bezainbatean; eta tresna baten kalitatea egin dezakeen lan on eta delikatuak neurtzen badu, bada arrazoirik esateko emakumearen garuna eta nerbio-sistema gizonarenak baino kalitate finagokoak direla batez beste. Albo batera utzita kalitateko diferentzia abstraktua, egiaztatzen zail dagoen kontua baita, badakigu organo baten eraginkortasuna, beraren tamainaren mende bakarrik barik, beraren jardueraren mende ere badagoela; eta jardueraren gutxi gorabeherako neurria organoan zehar zirkulatzean odolak duen energian daukagu, estimulua eta indarberritzeko energia batik bat zirkulazioaren mende daude eta. Ez litzateke harrigarri –izan ere, sexu bien eragiketa mentalen artean gaur egun hautematen diren aldeekin ongi adosten den hipotesia baita– gizonak batez beste garunaren tamainan abantaila izatea eta emakumeek, oster, garuneko zirkulazioan. Aieruz, analogian oinarrituta, antolaketako diferentzia horretatik itxaron behar genituzkeen emaitzak gehienetan ikusi ohi ditugunei dagozkienak lirateke. Lehenik, gizonen eragiketa mentalak geldoagoak dira. Ez lirateke emakumeak bezain azkarrak pentsatzen, ez haiek bezain zoliak sentitzen. Gorputz handiak denbora gehiago behar du abian jartzeko. Bestalde, behin martxan jartzea lortuz gero, lan gehiagori eutsiko lioke. Iraunkorrako litzateke harturiko ildoan; zailago luke jokamolde batetik bestera aldatzen, baina harturiko lanean luzaroago iraunen luke indarririk galdu gabe eta nekerik sentitu gabe. Eta ez al dugu denok ikusten gizonen emakumeei abantailarik handiena ateratzen dieten lanak ideia bakar bati ekin eta ekin, jo eta jo, burutu beharrekoak direla, eta emakumeek, ordea, ongien azkar egin beharrekoa egiten dutela? Emakumearen

garuna lehenago nekatzen da, lehenago akitzen da; baina, akitu ondoren, berehala indarberritzen ikusten dugu. Berriz diot erabat hipotetiko delako espekulazio hori; ikerketa ildo bat iradoki besterik ez du nahi. Arestian esana dut gaur gaurkoz ez dakigula ziur sexu bien buru ahalmenen batez besteko indarrean edo norabidean alderik dagoen, eta are gutxiago alde hori zertan datzan. Eta hori jakiterik ere ez dago, izaera eratzen duten lege psikologikoak orokorrean ere hain gutxi estudiatu-rik eta gure kasura era zientifikoan sekula ere aplikatu gabe dauden bitartean; izaerako aldearen kanpoko kausa nabarmenenak gehienetan kontuan hartu gabe uzten segitzen dugun bitartean: behatzaileak aintzat hartu gabe utzi eta hala historia naturaleko nola filosofia mentaleko eskola nagusiek goitik beherako erdeinuz begiratzen dituzten bitartean. Eskola horiek, material nahiz izpirituan oinarritzen direlarik gizaki bat bestearengandik nagusiki zerk bereizten duen aurkitu nahirik, bat datoz alde horiek gizakiek gizartearekin eta bizitzarekin dituzten erlazioen bidez esplikatzen saiatzen direnak zapaldu orduan.

Hain zentzugabeak dira emakumeen izaerari buruz eratuz joan diren ideiak, orokortze enpiriko hutsak, behatzaileari aurkezten zaizkion lehen kasuetatik filosofiarik edo analisirik gabe eraikitakoak, non herriak haien izaeraz duen ideia diferentea baita herrialde diferenteetan, herrialde bakoitzeko iritziek eta zirkunstantzia sozialek bertan bizi diren emakumeei eman dieten garapen bereziaren edo garapen faltaren arabera. Ekialdekoek uste dute emakumeak bereziki haragikoiak direla; ikustea dago idazki hinduetan alor horretan agertzen diren haien abusu bortitzak. Ingelesak, ordea, hotzak direla uste dute. Emakumeen aldaberatasunari buruzko esaerek jatorri frantsesa dute gehienbat, Frantzisko I.aren distiko ospetsuaren aurretik eta ostean. Ingalaterran, ordea, edonon entzuten da emakumeak gizonak baino anitzez iraunkorragoak direla. Iraupenik eza Ingalaterran, Frantzian baino lehenagotik, emakumearentzat desondragarri zen; gainera, emakume ingelesak frantsesak baino iritziaren menpekoagoak dira. Ohartaraz daiteke bide nabar ingelesak baldintza eskasetan daudela naturala zer den edo zer ez den esateko, ez bakarrik emakumeei dago-kienez, baizik gizonei edo gizakiei buruz ere, esperientzia ingelesa baino ez badute behintzat juzku horretarako, zeren agian beste inon ere ez baitu giza izaerak ezkututzen bere jatorrizko ezaugarriak Ingalaterran bezainbatean. Zentzu onean eta txarrean bietan, ingele-

sak beste ezein herri moderno baino natura egoeratik urrunago daude. Beste ezein herri baino gehiago dira zibilizazioaren eta diziplinaren sorkari. Ingalaterran lortu du diziplina sozialak arrakastarik handiena, ez irabazteko, kontra egiten dion guztia deuseztatzeko baizik. Ingelesak, beste ezein herri baino gehiago, arauaren arabera jardun ez eze, sentitu ere egiten dute. Beste herrialdeetan, iritzi ofiziala edo gizartearen eskakizunak izan daitezke botererik handiena, baina giza-banako bakoitzaren joera naturalek horren azpian hantxe diraute eta maiz indarra kentzen diote: araua natura baino indartsuagoa izan daiteke, baina naturak, hala ere, hantxe dirau. Ingalaterran arauak natura ordezkatu du neurri handian. Ingelesak bere bizitzako zatirik handiena arauaren kontrolpean bere joerari jarraitzen barik, arauari jarraitzea beste joerarik eduki gabe igarotzen du. Horrek, egia esan, bere alderdi ona du, dudarik gabe, baina baita ezin txarragoa den beste bat ere; eta araura duen joerak bereziki ezgai egiten du ingelesa bere esperientziatik giza izaeraren jatorrizko joerari buruzko judizioetarako elementuak ateratzeko. Beste herrialde bateko behatzaileak puntu horretan egin ditzakeen errakuntzak oso bestelakoak dira. Ingelesak ez du ezagutzen giza izaera, frantsesak aurreiritzien bidez ezagutzen du. Ingelesaren errakuntzak negatiboak dira, frantsesarenak positiboak. Ingelesak gauzak ez direla existitzen imajinatzen du, berak ez dituelako inoiz ikusi; frantsesak beti eta ezinbestez existitu behar dutela uste du, berak ikusten dituelako. Ingelesak ez du natura ezagutzen, berak ez duelako natura behatzeko aukerarik ukan; frantsesak neurri handian ezagutzen du, baina nahasi egiten du sarritan, sofistikatuz eta desitxuraturik ikusi duelako beti. Izan ere, gizarteak beha-gaiei ezartzen dien artifizialtasunak beraien joera naturalak estaltzen ditu, era bitara: euren izaera iraungiz edo eraldatuz. Lehenengo kasuan izaeraren geldikin bat baino ez da geratzen aztertzeko, bestean hantxe da izaera, baina agian bere berezko hazkundearen kontrako norabidean hedatuta.

Esan dut egun ez dagoela jakiterik gizonen eta emakumeen arteko buru diferentzietan zenbat den naturala eta zenbat artifiziala, are diferentzia naturalik egon ere dagoenentz, edo, diferentziaren kausa artifizial guztiak kenduz gero, zer nolako izaera naturala agertuko litzatekeen. Ez dut saiatu nahi ezinezkotzat jo dudana egiten: baina zalantzak ez du aierua galarazten eta, ziurtasuna erdiesterik ez

dagoenean, izan daiteke probabilitate mailaren batera iristeko modua. Lehenengo puntua, hots, egun ikusten ditugun aldean jatorria, espekulazioaren irispidetan dagoen puntua da; eta bertara daroan bide bakarretik hurbiltzen saiatuko naiz, hau da, kanpoko eraginen ondorio mentalak bilatuz. Ezin dugu isolatu gizakia bizi dituen zirkunstantzietatik, izaeraz zer izan zatekeen esperimenterik frogatzeko, baina kontsidera dezakegu zer den eta zein izan ziren haren zirkunstantziak, gero galdetzeko ea hauek sortu ahal izan dutenentz egun ikusten dugun gizakia.

Har dezagun, bada, emakumeek gizonekiko itxuraz duten gutxiagotasuna frogatzeko behaketak, indar fisikoaren kasua albora utzita, ematen digun datu inportante bakarra. Datu hori da filosofian, zientzian eta arteetan egindako lehen mailako ezein lan ez dela emakume batek eginga. Ba al dago hori esplikatzerik emakumeak lan horiek egiteko gauza ez direla suposatu gabe?

Lehenik, zalantzan jar genezake, arrazoiz gainera, esperientziak eskaintzen ote duen horrelako indukziorako behar den oinarriarik. Orain dela hiru belaunaldi eskas hasi ziren emakumeak, salbuespen bat edo beste kenduta, filosofian, zientzian edo artean beren gaitasuna probatzen. Egungo belaunaldira arte ez dira izan asko ahalegindu direnak; eta egun ere oso gutxi dira Ingalaterran eta Frantzian ez beste nonahi. Galdera inportante bat da ea denborarik dagoen, aukeren kalkulua hutsaren arabera, espekulaziorako edo arte sortzaileetarako lehen mailako gaitasunak dituen adimen bat izar bat legez ager dadin xede horietara dedikatze moduko egoera eta zaletasuna ukan dituzten emakumeen artean. Emakumeek behar adina denbora ukan duten arlo guztietan –bereziki luzaroen jardun izan duenetan, hau da literaturan (prosan zein poesian)– mailarik gorenak lortu ez badituzte ere, ibilitako denbora eta izandako lehiakide ugariak kontuan izanda espero zitekeen bezainbat egin dute eta espero zitekeen beste sari handi eskuratu dituzte. Eta literaturara oso emakume gutxi dedikatzen ziren garaietara bagoaz ere, ikusiko dugu gutxi horietako batzuek aparteko arrakastaz jardun zutela. Grekoek beti ukan dute Safo beren poeta handien artean; eta arrazoiz uste izan dezakegu Mirtisek, Pindaroren poesia irakaslea omen zenak, eta Korinak, Pindarori poesia saria bost bider kendu zionak, azkenerako Pindaro ospetsuarekin erkatze moduko merituak egin zituztela. Aspasiak ez zuen utzi idazlan filosofikorik,

baina badakigu Sokratesek berarengana jo zuela irakaspen bila, eta eskuratu ere egin zuela, Sokratesek berak aitortu zuenez.

Garai modernoetan emakumeek egindako lanak hartu eta gizonen egindakoekin erkatzen baditugu, dela literaturan dela artean, emakumeengan ikusten den gutxiagotasuna funtsean puntu batera, nahiz eta oso garrantzitsura, bil daiteke: originaltasun faltara. Ez da erabateko gabezia, zeren nolabaiteko balioa duen adimenaren sorkari orok bere originaltasuna du; autorearen gogamenak asmatu-rikoa da, ez beste zerbaiten kopia. Pentsamendu originalak, beste nonbaitetik hartuak barik, pentsatzaileak hautemandakotik edo landutako prozesuetatik ateratakoak diren zentzuan, ugariak dira emakumeen idazkietan. Baina oraindik ez dituzte sortu pentsamenduaren historian aro bat sortzen duten ideia berri handi eta argitsu horiek, ezta oraindik iruditu gabeko ondorio posibleen ikuspegia zabaltzen duten eta eskola berria fundatzen duten ikuskera muinetik berri horiek ere. Haien konposizioek beren garaiko pentsamendu fondoan dute oinarria, eta haien sorkuntzak ez dira urrun aldentzen orduko tipoetatik. Horrelakoxea da haien lanek agertzen duten gutxiagotasuna, zeren bestela, egikeran, pentsamenduaren aplikazio xehean eta estiloaren perfekzioan ez dute gutxiagotasunik. Gure nobelistarik onenak konposizioari eta xehetasunen lanketari dagokienez, emakumeak izan dira gehienbat. Literatura moderno guztian ez dago pentsamendu adierazpen biziagorik de Staël andrearen estiloa baino, ezta, bikaintasun artistikoaren adibide gisa, Sand andrearen prosa baino goragoririk, zeinaren estiloak Haydn edo Mozarten sinfonia batek bezalako eragina baitu nerbio-sisteman. Ikusmoldean aparteko originaltasuna da, esan dudan moduan, emakumeei falta zaiena. Eta orain azter dezagun gabezia hori esplikatzeko modurik dagoen.

Pentsamenduari dagokionez, gogora dezagun ezen egia handi eta emankorrek talentuaren bidez bakarrik, aurretik estudio modurik egin gabe edo ezagutza handirik metatu gabe, erdiesten ziren historia- ren eta zibilizazioaren aldi guztian emakumeak ez zirela espekulazio- az amets egiten ere ausartu. Hipatiaren garaitik Erreformaren arora arte, Eloisa ospetsua izan zen horrelako jomuga erdiets zezakeen emakume bakarra; eta ez dakigu, Eloisak bere bizitzan jasan zituen ezbe- harreatatik, emakume haren zenbaterainoko espekulazio gaitasuna galdu zuen gizateriak. Filosofia lantzeko aukera hainbat emakume-

rengana hedatu zenetik, ordinaltasuna ez da inoiz izan kontu erraza. Adimen original hutsaren bidez erdiets daitezkeen ia ideia edo pentsamendu guztiak, aspalditik zituen bereganatuak gizakiak; eta ordinaltasuna, hitzaren zentzurik gorenean, ezin dute orain erdietsi prestakuntza lantsuan jardun eta aurretikoen pentsamenduaren ezagutza sakona lortu duten adimenek baino. Maurice jauna izan da, uste dut, ohartarazi zuena gaur-gaurkoz pentsalari originalenak aurretikoen pentsamendua ongien ezagutzen dutenak direla; eta aurrerantzean arau horrek ez du hutsik egingen. Hain gora doa eraikina, non lanaren oraingo etapan parte hartu eta besteen gainean bere harria, harri berria, ipini nahi duenak nekez eta pekez igo beharko baititu goraino bere harria eta materialak. Zenbat dira lan hori egin duten emakumeak? Somerville anderea da, emakumeen artean bera bakarrik agian, kontuan hartzeko moduko aurkikuntza matematiko bat egiteko gaur egun behar den adina dakiena matematika kontuan. Emakumeen gutxiagotasunaren froga bat ote da, Somerville andereak lortu ez izana euren bizitzaldian gertaturiko zientziaren aurrerapen nabarmenen baten inguruan agertzen diren bizpahiru pertsonen artean bera egotea? Ekonomia politikoa zientzia bihurtu denetik, bi emakume iritsi dira gai horri buruz gauza interesgarriak idazteko lain jakitera. Ekonomia politikoari buruz aldi berean idatzi duten gizon ugarien artean, zenbatez esan daiteke gehiago, egiaz hitz eginda? Gaurdaino emakumerik heldu ez bada historialari handi izatera, zein emakumek ukan du horretarako behar den erudizioa? Filologo ona izan den emakumerik ez badago, zein emakumek ikasi du sanskrito eta eslaviera, Ulphilasen gotikoa eta Zendavestaren pertsiera? Gai praktikoetan eurretan ere denok dakigu zenbat balio duen ikasi gabeko jeinuen originaltasunak. Hurrenez hurren hainbat asmatzailek ordurako asmatu eta hobeturiko zerbaite landu gabeko eran asmatzera baino ez dira heltzen. Emakumeek gizon guztiek egun goi mailan originalak izateko behar duten prestakuntza guztia lortzen dutenean, orduantxe izanen da garaia esperientziatik ateratzeko noraino heltzen den emakumeek originaltasunerako duten gaitasuna.

Maiz gertatzen da, dudarik ez, besteen gairen bati buruzko ideiak sakon eta zehazki estudiatu ez dituen batek berezko ernetasunez intuizio zorioneko bat edukitzea, iradoki bai baina frogatu ezin duena, baina, heldutasunera eramanez gero, zientziari garrantzizko

zerbait gehituko liokeena. Baina horrelako kasuetan ere, ez daukagu justizia egiterik intuizio horri, harik eta beste norbaitek, aldez aurreko ezagutzen jabe denak, jakina, aztergai hartu, egiaztatu, forma zientifikoa edo praktikoa eman eta filosofia edo zientziako egien artean duen lekuan jarri arte. Ba al da uste izaterik emakumeei ezin zaiela horrelako ideia onuragarririk otu? Emakume burutsu orori ehunka otutzen zaizkio horrelakoak. Baina galdu egiten dira gehienak, emakumeek ez daukatelako alboan ideia horiek behar bezala estimatu eta munduaren aurrera eramateko moduko ezagutza multzoa daukan senarra edo laguna; eta munduaren aurrera eramaten dituztenean ere, normalean gizonaren ideia moduan aurkezten dira, eta ez euren benetako autorearen ideia moduan. Nork esan dezake idazle gizonetakoek argitara emandako zenbat ideia original ez diren emakumeek intuizioz asmatu-rikoak, nahiz eta gero gizonak egiaztatu eta landutakoak izan? Neure esperientziatik mintza banaiteke, hori oso maiz gertatzen da. Espekulazio garbitik literaturara, hitz horren zentzu hertsian, eta arte-etara itzulita, begi-bistako arrazoi bat dago esplikatzen duena zergatik emakumeen literatura, bere taxuketa orokorrean eta ezaugarri nagusietan, gizonenaren imitazio bat den. Zergatik da literatura erromatarra, kritikak behin eta berriz aldarrikatzen duen moduan, originala barik literatura grekoaren imitazio bat? Grekoak erromatarren aurretik izan zirelako besterik gabe. Baldin emakumeek gizonik gabeko herrialde batean bizi izan balira, gizonen idazkirik inoiz irakurri gabe, beren literatura propioa ukanen zuketena dudarik gabe. Eta beren literaturarik sortu ez badute, oso literatura aurreratua jada sortuta aurkitu zutelako izan da. Antzinateko ezagutzaren etenik sortu ez balitz, edo errenazimentua katedral gotikoak eraiki aurretik gertatu izan balitz, sekula ere ez ziratekeen eraikiko. Ohartzen gara ezen Frantzia eta Italian antzinako literaturaren imitazioak jatorrizkoaren garapena gerarazi zuela hau abiatuta gero ere. Idazten duten emakume guztiak gizonetako idazle handien ikasleak dira. Pintore baten lehenengo koadroak, pintorea Rafael bada ere, maisuaren koadroetatik bereiztezinak izan ohi dira estiloz. Mozartek berak ere lehenengo obretan ez du bere originaltasun indartsua erakusten. Dohain handiko gizabanakoarentzat urteak direna belaunaldiak dira jendetzarentzat. Baldin emakumeen literatura, euren sexuaren joera naturalen arabera, gizonenetik diferentea izanen den talde-izaera edukitzera helduko bada, iragan dena baino denbora gehiago beharko du, onarturiko ereduetatik aska-

tu eta bere bulkada propioz gidatuta jokatzeko hasi aurretik. Baina baldin, uste dudan moduan, emakumeek beren talentua gizonezkoenetik bereizteko moduko inolako berezko joera komunik ez badute ere, ezin da ukatu emakumeen arteko idazle orok bere joera indibidualak dituela, gaur egun aurrekariaren eta ereduaren eraginpean daudenak, beste belaunaldi asko beharko direlarik, beraien banakotasun berezia eragin horri aurre egiteko moduan garatuta egon dadin.

Emakumeek ahalmen original urriagoak dituztela erakusten duten *prima facie* frogak arte ederretan ageri dira indartsuen lehen ikusian, zeren iritziak (argi esan dezagun) ez baititu emakumeak arte ederretatik kanpo uzten, baizik lantzera bultzatzen ditu, eta beraien hezkuntzan leku handia dute arte ederrak, batez ere klase aberatsetan. Sorkuntza mota horretan beste askotan baino atzerago gelditu dira emakumeak, gizonek erdietsitako gailurretik urrun. Gutxiagotasun hori, hala ere, oso erraz esplikatzeko oso ezaguna den gertakari bat, arte ederretan beste edozein eremutan baino unibertsalagoa dena, gogoratuz beste barik, hau da, amateurrek profesionalekiko duten gutxiagotasun nabarmena. Klase ikasietako ia emakume guztiek arte ederretako adarren bat lantzen dute gutxi-asko, baina ez bizibidea ateratzeko edo gizarteak aintzat hartuak izateko. Emakume artistak amateurak dira guztiak. Salbuespenek araua berretsi besterik ez dute egin. Emakumeei musika irakasten zaie, baina ez konposatzeko, jotzeko soilik baino eta, ondorioz, gizonak konposatzaile gisa bakarrik dira emakumeak baino hobeak. Emakumeek neurri batean lanbide eta bizibiderako zeregin gisa lantzen duten arte eder bakarra antzezpena da, eta horretan gizonen parekoak dira, hobeak ez badira, nabariki gainera. Erkaketa ekitatez egiteko, emakumeen sorkuntza artistikoak lanbidez artista ez diren gizonenekin erkatu beharko lirateke. Musikagintzan, adibidez, gizonezko amateurak inoiz sortu dituzten obren parekoak sortu dituzte. Gaur egun gutxi dira, oso gutxi, lanbidez pintatzen duten emakumeak, eta eurak espero zitekeen besteko talentua erakusten hasi dira dagoeneko. Gizonezko pintoreek eurek ere (*pace* Ruskin jauna) ez dute milagrorik egin azken mendeotan, eta luze joko du horretarako lain direnak agertu aurretik. Antzinako pintoreak modernoak baino askoz hobeak izatearen arrazoia orduan artera gaitasun askoz handiagoko gizonak dedikatu izanean datza. Hamalau eta hamabosgarren mendean pintore italiarrak beren garaiko gizonik jan-

tzienak ziren. Euretako onenek ezagutza eta gaitasun entziklopedikoak zituzten, Greziako gizon handiek bezala. Baina garai haietan arte ederrak, gizartearen burueran eta sentimenduetan, gizakiak ukan zeza-keen lanbide gorenen artean zeuden; eta euren bidez erdiets zezaketen gizonak orain gerra eta politikako sarien bidez bakarrik erdiets deza-ketena: printzeen adiskide eta aitoren seme gorenen maila bereko iza-tea. Gaur egun, baliozko gizonak pintura baino euren osperako inpor-tanteagoa eta mundu modernoko beharrianetarako egokiagoa den zerbaitetara dedikatzea ikusten dute hobeto, eta arraroa da Reynolds bat edo Turner bat (gizon handien artean zein mailatan dauden ez dut hemen zehaztu nahi) arte horretara dedikatu izana. Musika beste kontu bat da: ez du eskatzen hainbesteko ahalmen intelektualik, baina beste arte ederrak baino gehiago dago berezko dohain baten mende; eta, horregatik, harrigarri gerta lekiguke konpositore handien artean ema-kume bakar bat ere ez izana. Baina berezko dohain horrek berorrek ere, sorkuntza handiak egiteko balio dezan, ikasketak galdatzen ditu, eta arte horretara dedikatzea. Lehen mailako konpositoreak, gizonez-koak ere, sortu dituzten herrialde bakarrak Alemania eta Italia izan dira, emakumeak kultura intelektualean, bai orokorrean eta bai bere-zian, Frantzia eta Ingalaterrarekin konparatuta oso atzean geratu diren herrialdeak beraiek; Alemanian eta Italian emakumerik gehienak (gehiegikeriarik gabe esan daiteke) heziketa urria hartzen dute eta ahalmen intelektual gorenak apenas lantzen dituzten. Eta herrialde horietan musikako printzipioak ezagutzen dituzten gizonak ehunka eta segurutik milaka kontatu behar dira, emakumeak, ordea, dozenaka baino ez. Hartara, proportzioa onartuta, ezin dugu arrazoiz espero goi mailako emakume bat agertzea goi mailako berrogeita hamar gizonen artean; eta azken hiru mendeetan Alemanian eta Italian ez dira goi mailako berrogeita hamar konpositore gizonetako sortu.

Badira beste arrazoi batzuk, eman ditugunez aparte, emakume-ak, genero bientzat zabalik dauden lanbideetan ere, gizonen atzetik zergatik geratzen diren esplikatzen laguntzen dutenak. Arrazoi bate-gatik, alegia, oso emakume gutxik dutelako lanbide horietarako asti modurik. Horrek paradoxa dela eman lezake, baina gertakari sozial nabaria da. Emakume orok lanbide horietara dedikatu aurretik gauza praktikoei erantzuten erabili behar ditu bere denbora eta ardurak. Lehenengo eta behin etxeko gobernua eta gastuen ardura eraman

behar ditu familia bakoitzean emakume batek, eskuarki emakume heldu eta esperientziadunak, behintzat zeregin horretarako kanpoko bat kontratatzeko eta administratzeko era horrek ekarri ohi dituen zarrastelkeriari eta bidegabeki eralkitzeari aurre egiteko bezain aberatsa ez denean. Etxekoen gobernua, lan material handirik eskatzen ez duen arren, oso lan zail eta neketsua da ardura aldetik; etengabe adi egotea eta xehetasunik txikiak ere ihes egiten ez dion begia eskatzen ditu, eta azertu eta konpondu beharreko arazo aurreikusiak eta aurreikusi gabeak aurkezten ditu egunaren ordu guztietan, horien arduraduna nekez senti daitekeelarik arazootatik libre. Emakume bat ardura horretatik libre gelditzeko aukera ematen dion goi klasekoa bada eta horretarako moduko zirkunstantzietan bizi bada ere, beti geldituko zaio familiak gizartea deritzonarekin dituen harreman guztiak eraman beharra. Eta zenbat eta denbora gutxiago erabili etxeko lan eta arduretarako, gehiago kenduko diote gizartekoek: bazkariak, kontzertuek, arratsaldeko bilerek, goizeko bisitek, gutun idazketak eta horien inguruko lan guztiak. Eta horri guztiari gizarteak emakumeari ezartzen dion betebeharrak goren gehitu behar diogu: denekin xarmangarria izan beharra. Gizarte maila gorenetakoa emakume argiek ia beren talentu guztiak maneren dotorezia eta solasaldiaren artea lantzen erabiltzearekin konformatzen dira. Gainera, gaiaren kanpoaldeari bakarrik begiratuta, hau da, ongi janzteari (ez dut esan nahi garesti, baizik gustu onarekin eta *convenance* natural eta artifizialez ohartuta) balioa ematen dioten emakume guztiak beren buruaren eta agian beren alaben apainketari dedikatzen dioten ahalegin intelektual handi eta etengabea bakarrik kontuan ukanik, ahalegin horrek asko lagunduko lieke artean, zientzian edo literaturan emaitza onak erdiesten, baina, izatez, horietarako gorde behar luketen denbora eta energia intelektualaren zati handi bat kentzen die³. Baina litekeena balitz interes praktikoa txiki horiek guztiak (eurentzat inportanteak direnak) emakumeei artea eta espekulaziora dedikatzeko astialdi zabala edo energia eta askatasun intelektual handia uztea, orduan gizonik gehienek baino ahalmen aktibo ugariagoak eduki beharko lituzkete. Baina hori ez da dena. Emakumeari dagozkion eguneroko zereginak aparte utzita, bere denbora eta gaitasunak mundu guztiaren esanetara jartzea galdatzen zaio emakumeari. Gizonak, ordea, horrelako eskabideetatik babesten duen lanbide bat edo nolabaiteko zeregin bat bederen baldin badauka, ez du inor mintzen bere denbora horretarako erabiltzeagatik; lanean ibil-

tzea aitzakia nahikoa da egin dakizkiokeen eskabideei ez erantzutea justifikatzeko. Andre baten zereginak, ordea, berak nahita aukeraturikoak bereziki, noiztik hona dira hark gizarte betebeharrak deritzate-nak albo batera uzteko moduko aitzakiatzat onartuak? Bere betebe-har utziezin eta onartuenak ere nekez salbuesten dute, jendearen begietan, beste hori betetzetik. Familian gaixoren bat edukitzea edo ezohiko beste zerba-it gertatzea behar du bere asuntoei besteen nahikeriei baino lehentasun handiagoa eman ahal izateko. Beste norbaiten, eta norma-lean edonoren, esanetara egon behar du beti emakumeak. Ikasketa edo zereginen bat badu eskuartean, beste lanen artean gertatzen zaizkion asti tartetxoak harrapatzen ibili behar izaten du haiei ekin ahal izate-ko. Ospe handiko emakume batek, egunen batean argitaratuta ikustea espero dudan lan batean, zinez dio emakumeak egiten duen guztia tar-teka-marteka egiten duela. Harritzekoa ote da, orduan, bikaintasunik gorena ez lortzea etenik gabeko arretaz eta bizitzako interes handie-naz landu beharreko gaietan? Gaiotako bat filosofia da eta bestea artea, zeinetan batez ere, geure pentsamendu eta sentimendu guztiak jartzeaz gain, eskua ere etengabeko ariketan erabili beharra dagoen trebetasunik gorena erdiesteko.

Beste gogoeta bat gehitu behar diet horiei. Arte eta zeregin intelektual diferenteetan hobekuntza maila bat dago, bertatik bizitze-ko lortu beharrekoa, baita hortik gorako maila bat ere, izen bat hilez-kor bihurtzeko moduko obrak sortu ahal izateko erdietsi behar dena. Lehenbizi aipaturiko mailara heltzeko, zeregin horretan profesionalki diharduten guztiek dituzte motiboak; bigarrenera, ordea, nekez hel-tzen dira ospetsu izateko irrika bizia sentitzen ez dutenak edo behin-tzat euren bizitzako aldiren batean sentitu ez dutenak. Eskuarki esti-mulu horren kinada bizia behar da, berezko dohain gorenetakoa artis-taren kasuan ere, jeinurik handienek maisu-lanak utzi dizkiguten generoetan gailentzeko behar-beharrezko den lan neketsu eta jardun luze eta eroapentsuari heldu eta azken burura eramateko. Orain, ema-kumeek, dela zergati artifizialengatik edo naturalengatik, nekez senti-tzen dute fama-gose hori. Beraien handinahia, normalean, eremu estuagora mugatzen da. Emakumeek lortu nahi duten eraginak ez du beren inguru-inguruan daukatena gaintitzen. Emakumearen desira bere begiekin ikusten dituenek gustatzea eta hurkoen maitatua eta miretsia izatea da; eta ezagutzak, arteak eta trebetasunak ere horrexe-

tarako behar diren neurrian lantzearekin konformatzen da ia beti. Izaerako ezaugarri hori oso kontuan hartu beharrekoa da emakumeez, diren bezalaxe ikusita, iritzi zuzena eduki nahi izanez gero. Nik inola ere ez dut uste ezaugarri hori emakumeei berez datzekien zerbait denik. Beraien zirkunstantzien berezko ondorio bat baino ez da. Ospearekiko maitasuna gizonengan hezkuntzak eta iritziak bultzatzen dute: «ospea lortzeko, plazera arbuia eta ahalegin eta lan handiak egitea «izpiritu noblei» dagokie, nahiz eta berauen «azken ahulezia» dela esan batzuek, eta gizonek ospea bilatzeaz harro agertzen dira, ospeak euren handinahari ateak zabaltzen dizkiotelako eta emakumeen ederra berenganatzen laguntzen dietelako; emakumeek, ordea, handinahirako bide guztiak itxita dituzte, eta ospe desira emakumeengan mari-mutilei dagokien atrebentziazat dago gizartean. Gainera, nola ez ditu bere indar guztiak egunero inguruan dituenengan bilduko, gizarteak bere betebeharrak guztiak haiekikoak izan behar dutela eta bere zorion guztia haien mende egon behar duela tai gabe esaten diotenean? Hurkoen begirunea norberaganatzeko berezko desira gizonengan bezain indartsua da emakumeengan; baina gizarteak halatan atondu ditu gauzak, non, kasu arrunt guztietan, emakumeak bere senarraren edo bere ahaide gizonetako bidez bakarrik erdiets dezakeen adeitasun publikoa, eta emakumea bere inguruko adeitasun pribatua ere galtzeko arriskuan jartzen da bere kabuz gailendu edo gizonen eranskin baino zerbait gehiago izanez agertu nahi duenean. Nornahiren gogamenean familian eta gizartean duen lekuak eta egoera osoak daukan eragina ulertzeko gai den edonork erraz aurkituko du eragin horretan gizonen eta emakumeen arteko itxurazko ia alde guztien esplikazio osoa, gutxiagotasunen bat inplikatzeko dituenena ere barne.

Alde intelektualetatik ezberdinak diren heinean alde moralei dagokienez, diferentzia, eskuarki uste denez, emakumearen alde dago. Gizonen baino gehiago balio dutela esan ohi da; kortesi formula hutsa da hori, emakume sentitzen den ororengan irribarre garratz bat sortarazi behar duena, zeren bizitzako beste ezein egoeratan ez baitago ezarritako eta natural eta komenigarritzat onarturik onena denak txarrena denari obeditu behar diola. Inuzentekeria horiek ezertarako balio badute, gizonen boterearen eragin usteltzailea onartzen dutela argi uzteko da; horixe baita, izan ere, emakumeen nagusitasun moralak, horrelakorik balego, frogatu edo argi utziko lukeen egia bakarra. Eta

egia *da* morrontzak esklaboa gutxiago usteltzen duela ugazaba baino, morrontza basakeriaraino heltzen denean izan ezik. Izaki moral baten duinekoagoa dela deritzot uztarri bat pairatzea, are botere bidegabe bat ezarria, inorengan mugarik gabeko boterea erabiltzea baino. Emakumeak gizonak baino gutxiagotan erortzen omen dira lege penalaren pean, gutxiagotan agertzen ei dira krimenaren estatistiketan. Ez dut zalantzarik gauza bera eta maila bereko egiaz esan daitekeela esklabo beltzei buruz. Inoren kontrolpean daudenak ezin dute krimenik maiz egin, euren ugazaben aginduz eta helburuetarako izan ezik. Ez dut ezagutzen munduak, aditu jendea ere barne, zirkunstantzia sozialen eragin guztiak kontuan ez hartzeko eta gainetik pasatzeko duen itsutasunaren adibide nabariagorik, emakumearen ahalmen intelektual ei dagokienez gizonak agertzen duten gutxieste tentela eta haren gaitasun moralei dagokienez egiten dituzten panegiriko tentelak baino. Ontasun moral handiagoa dutela esanez emakumeei egiten zaizkien konplimenduak ongi uztar daitezke gai moraletara joera handiagoa dutelako erdeinuzko baieztapenarekin. Emakumeak, esaten zaigu, ez dira gai euren partzialkeria pertsonalak menpean hartzeko: sinpatiek eta antipatiek burubidea okertzen diete asunto larrietan. Hori hala dela onartuta ere, frogatzeko gelditzen da ea emakumeek beren sentimenduen eraginez gizonak euren interesen eraginez baino maizago desbideratzen diren. Horretan, badirudi alde nagusia zera dela, gizonak ongizate publikoaren alde jokatzeko betebeharra berekoikeriagatik uzten duela bete gabe, emakumeak, ordea, (bere interes pribaturik edukitzen uzten ez zaiolarik) beste norbaiten ona bilatzeagatik beti ere. Kontuan izatekoa da, halaber, emakumeek gizartearen-gandik hartzen duen hezkuntza guztiak honako hau irakasten diela, alegia, eurekin harremanetan dauden pertsonekin bakarrik dituztela betebeharrak, berauen interesez bakarrik arduratu behar dutela. Interes kolektibo handiei eta goi helburu moralei dagokienez, ordea, emakumeentzat ez direla existitzen esan daiteke, ezta ideiarik elementalenetan ere. Haien kontrako kexa honako hau esanez laburbiltzen da, zintzoegi betetzen dutela irakatsi zaien betebeharrak eta praktikatzan uzten zaien ia bakarria.

Pribilegiadunek pribilegiorik gabekoei emakidak egiten dizkietenean, azken horiek galdatzeko indarra daukatelako izaten da ia beti. Gizonezkoen generoaren kontra jarritako argudioak ez ditu segurutik

aintzat hartuko jendeak oro har, emakumeak ez direla kexatzen esan dezakeen artean. Horrek pribilegioa luzaroago atxikitzeko bidegabeko ahalbidea ematen die gizonei, baina ez dio bidegabekeri izpirik ere kentzen pribilegioari. Gauza bera esan daiteke ekialdeko harenetako emakumez: haiek ere ez dira kexatzen europar emakumeen askatasunik ez dutelako. Goitik beherako lotsagaldu eta mari-mutiltzat dauzkate gure emakumeak. Gizonak ere oso gutxitan kexatzen dira gizartearen egoera orokorraz, eta askoz gutxiagotan kexatuko lirateke, baldin beste leku batzuetan duten antolamendu hobearen berririk ez balute. Emakumeak ez dira kexatzen beren generoaren egoeraz; edo, hobeto esanda, badira kexatzen, zeren horri buruzko elegia negariak ugariak baitira emakumeen idazlanetan, eta are ugariagoak ziren, haien erostek inolako xede praktikorik gabekoak ziruditenean. Kexa horiek gizonek bizitzaren laztasunaz oro har agertzen dituztenen modukoak dira; ez diote errurik inori leporatzen, ezta aldaketarik galdatu ere. Baina emakumeek senarren botereaz kexatzen ez badira ere, kexatzen dira norbere senarraz edo lagunen senarrez. Gauza bera gertatzen da beste morrontza kasu guztietan ere, askapen mugimenduaren hasieran behintzat. Jopuak hasieran ez ziren kexu euren jaunen aginpideaz, baizik haien tiraniaz soilik. Herri xehea udal frankizia gutxi batzuk eskatzetik hasi zen; gero eurek onartu gabeko zergetatik libre geratzea eskatu zuen; baina garai hartan atrebentzia handitzat ukanen zuten erregearen aginpide subira-noan inolako parte-hartzerik galdatzea. Gaur egun, ezarritako arauen kontra jaikitzea behiala menpeko batek bere erregearen kontra jaikitze-ko eskubidea galdatzea bezain gaizki ikusia den kasu bakarra emakumeena da. Bere senarrak onesten ez duen mugimenduren baten parte hartzen duen emakumeak, martiri bihurtzen du bere burua, apostolu izateko ere gai izan gabe, zeren senarrak emaztearen apostolutza bukarazteko eskubide legala baitu. Ezin daiteke espero emakumeek beren generoaren askapenera buru belarri dedikatzea, gizonek, kopuru handian, eginkizun horretan beraiekin batzeko prest ez dauden bitartean.

IV

Beste galdera bat gelditzen zaigu, aztertu ditugunak baino garrantzi txikiagorik ez duena eta beren konbikzioak puntu nagusietan nolabait zart eginda dituzten aurkariak gogait eragiteraino eginen

digutena. Zer onik espero behar dugu –galdetuko digute– gure ohitura eta instituzioetan egin nahi dituzuen aldaketetatik? Zertan eginen luke gizateriak onera, emakumeak aske balira? Ezertan ere eginen ez balu, zertarako asaldu haien gogamena, eta eskubide abstraktu baten izenean gizarte iraultza mota hori egiten saiatu?

Ez dut uste espero izatekoa denik galdera hori hain zuzen ere emakumeek ezkontzan duten egoeraren inguruan proposatzen den aldaketari buruz izatea. Emakume bat gizon baten menpean egoteak kontatu ezin ahala kasutan sorturiko sufrikarioak, egoera ezmoralak eta edozertarako gaitzak ikaragarriegiak dira inork uka ditzan. Buruarinak edo zintzotasun urrikoek, ertzeko kasuak edo jendartearen bala-bala ibiltzea lortzen duten kasuak bakarrik kontuan hartuz, gaitzak salbuespenezkoak direla esan lezakete; baina inor ezin da gelditu gaitz horiek eta, kasu askotan, berorien larritasuna ikusi gabe. Eta erabat begi-bistakoa da botere horren abusuak ezin direla galarazi botereak indarrean dirauen artean. Gizon onei edo errespetagarriei bakarrik barik, gizon guztiei, are basatienei eta kriminalenei, ematen edo eskaintzen zaien boterea da. Gizon horiek ez dute iritziarena beste galgarik eta oro har ez daude eurak bezalako gizonen iritziaren eraginpean baino. Horrelako jendailak basaki tiranizatuko ez balu legeak dena jasatera behartzen duen pertsona, dagoeneko paradisu egoera guke gizartearen. Ez guke legeen beharrik gizonen jaugin biziotsuak bezartzeko. Esanen guke Astraeak, mundura etorri ez eze, gizon gaiztoenaren bihotzean zeukala tenplua. Joputza legea ezkontza barruan kontraesan izugarria da, mundu modernoko printzipio guztiak eta beraiek astiro-astiro eta ahalegin neketsuz lantzeko behar izan den esperientzia guztia ezeztatzen dituen. Orain, beltzen esklabotasuna abolituta dagoenean, emakumearena da gizateriako kide bat, bere ahalmen intelektualak sasoi betean dituela, beste gizaki baten bihozberatasunaren mende uzten den kasu bakarra, beste horrek boterea menpeko duen pertsonaren onerako bakarrik erabiliko duen esperantzan utzi ere. Ezkontza da legeek egun onartzen duten esklabotasun bakarra. Ez dago jada esklabo legalik, etxe bakoitzeko etxekoandreaz aparte.

Gaiaren atal honetan egin beharreko galdera ez ote da, orduan, *cui bono*? Gehien ere esanen didate alderdi txarrekin onek baino pisu handiagoa luketela, baina alderdi onen errealitatea eztaba daezina da. Hala ere, emakumeen ezgaitasun legal guztiak kentzea, emakumeak

hiritartasunari dagokion guztian gizonekin berdintzea, enplegu ohoragarri guztietarako ateak zabaltzea, eta enplegu horietarako behar den hezkuntza eta trebakuntza hartzeko aukera ematea biltzen dituen auzi garrantzitsuagoari dagokionez, pertsona askorentzat ez da nahikoa ezberdintasunak defentsa bidezko edo legitimorik ez edukitzea; ezberdintasuna abolituz erdietsiko liratekeen abantailak zehaztea galdatzen dute horiek.

Horri nik erantzuten diot lehenengo abantaila zera dela: giza harremanetan unibertsalen eta hedatuena, injustiziak barik, justiziak araututa edukitzea dela. Hitzei zentzu morala eranstean dien edonorentzat ez dago azalpenik ez argibiderik, baieztapen soil horrek bezain argiro adieraziko duenik zenbat balio duen abantaila horrek gizateriarantz. Gizaterian diren joera egoista guztiek, norbere buruaren gurtzak, norbera beti lehenengo izan beharrak, gizonen eta emakumeen arteko harremanen egungo erabidean dute sorburua eta sustraia, eta bertatik elikatzen dira. Pentsa zer den mutiko batentzat gizontze-arora arte honako hau uste izanik bizi izatea, hots, bera, meriturik gabe eta inolako ahaleginik ere egin gabe, gizaki guztien artean txolinen eta hutsena edo ezjakinen eta artaburuena izan arren, mutil jaio izan hutsagatik gizateriaren erdia osatzen duten guztien eta bakoitzaren gainekoa dela eskubide osoz, eta horien artean, seguruenik, berak bere gainetik daudela egunero edo orduoro egiaztaturiko batzuk daude. Baina, bere portaera guztian emakume baten gidaritzapean jokatzeko badu eta tonto garbia bada, zalantzarik gabe pentsatuko du emakume hori ez dela bere parekoa ez trebetasunean ez adimenean; eta tontoa ez bada, are okerrago: emakumea bere gainetik dagoela pentsatuko du eta, hala ere, uste osoz sinetsiko du berak emakumeari agintzeko eskubidea duela eta hark berari obeditzeko obligazioa. Nolakoa ote da bidegabekeria horrek gizonaren izaeran duen eragina? Eta klase eskolatuetako gizonak sarritan ez dira konturatzen zenbateraino dagoen hori gizonezkoen adimen gehien-gehienetan sartuta. Izan ere, jende zentzundun eta ongi hezitakoaren artean, ezberdintasuna ahalik gehien ezkutatzen da begien bistatik, batik bat haurren bistatik. Amari ere aitari adina obediencia edukitzen irakasten zaie mutilai, ez zaie uzten arrebak menpean hartzen eta inoiz ere ez dituzte ikusten behe-ragoko mailan, bestera baizik; eta mutilengan galaitasunezko sentimenduak, landu ere, lantzen dituzte, baina beraien atzean haiei galda-

tzen zaien mirabetza estalduz. Hartara, ongi hazitako goi klaseetako mutikoek beren lehen urteetan saihestu egiten dituzte egoeraren eragin gaiztoak eta gizontze-arora iritsita gertakariak diren moduan bizi-tzen hasten direnean soilik nabaritzen dituzte eraginok. Jende hori apenas konturatzen den beste era batera hezitako mutikoek zein goiz hasten diren beren baitan sentitzen neskekiko berez duten gailentasuna; sentimendu hori mutikoa hazi ahala zenbateraino hazten eta hark indarra hartu ahala zenbateraino indartzen den; zein arin irakasten dion eskola-mutiko batek beste bati sentimendu horrez jabetzen; zein goiz hasten den gaztea amaren gaineko sentitzen, amari eroapena eskainiz, baina benetako errespeturik eduki gabe, eta zenbateko gailentasun sentipena, benetan ere sultan batena bezalakoa, sortzen zaion bere bizitza konpartitzeko ohorea egiten dion emakumearekiko. Pentsa al dezake inork horrek guztiak ez duela gizona, bere bizitzako jokaera guztiari dagokionez, gaiztotzen, hala gizabanako gisa nola gizartekide gisa? Sentimendu hori herentziazko erregetzan erregeak daukanaren antzekoa da: beste guztien gaineko sentitzen da, errege jaio zelako, edo aitoren seme, aitoren seme jaio zelako. Senar-emazteen arteko erlazioa jaunaren eta basailuaren artean zegoenaren antz-antzekoa da, baina alde batekin: emakumeak basailuarena baino obedientzia mugagabeagoa dio zor senarrari. Basailuaren izaerak bere menpekotasunaren eragina, onerako edo txarrerako, jasan zuela ikusi ezean ere, argi dago jaunaren izaerak eragin handia izan zuela, dela bere basailuak bera baino baliozkoagoak zirela uste izatera heldu zelako, edo bera bezain baliozkoa zen herriari agintzeko eskubidea, bere meritua eta ahaleginengatik barik, Figarok dioen bezala, jaiotzeko molestia hartu izanagatik zuela sentitzen zuelako. Monarkak edo jaun feudalak praktikatzen duen bere buruaren gurtza gizonezkoak bere buruari eskaintzen dion gurtzaren parekoa da. Gizakiak haurtzaroz geroztik irabazi gabeko pribilegioen jabe izanik haziz gero, harropuztu egiten dira pribilegio horiez. Merezimenduz berenganaturiko pribilegioak edukita, pribilegio horiek oinarritik ez dutela konturatzeak umiltasunera eramandakoak gutxienak dira, eta onenak ere bai. Gainerakoak harrokeria dariola daude, harrokeri mota txarrena gainera, norbere lorpenetan ez, baina kasualitateak ekarritako abantailetan oinarritua. Izaera zintzo eta samurreko gizonek, beste genero osoa menpean eta haietako batengan aginpide osoa dutela sentitzean, begiramendu samurra eskaintzen ikasten dute; izaera gaiztoko gizonei,

ordea, sentimendu berorrek harrokerian eta zapalkuntzan trebatzeko akademia bat eskaintzen die. Beste gizonekin, eskubidez maila berekoekin, aurre eginen dietela ikusiz gero, harrokeriaz jokatzeko gogorari eutsi eginen diote eta euren jokaera jasan beharra beste erremediorik ez dutenengana joko dute, eta maiz emaztearengan mendeku hartuko dute etxetik kanpo euren burua kontrolatu beharra izanagatik.

Etxeko bizitza justizia sozialaren printzipiorik hasi-masizkoenen kontrako harremanetan oinarritzeak dakarkigun jarraibideak eta sentimenduen heziketak, giza izaeragatik, perbertsiorako hain eragin handia du, non, gure egungo esperientzia kontuan hartuta, ezin dugun jaso geure irudimena sexuen arteko ezberdintasunak kentzeak ekarriko lukeen onerako aldaketa ikaragarria ikusteko moduko mailara. Hezkuntza eta zibilizazioa legearen indarrak izaeran dituen eraginak ezabatu eta lege horren ordeztu justiziarena jartzeko egiten ari diren guztia ez da azaletik barrurago pasako, etsaiaren gotorlekuari eraso ezean. Moral eta politikako mugimendu modernoaren printzipioa maxima haxe da: jokaerak, eta jokaerak bakarrik, ematen du errespeturako eskubidea; gizakia denean barik egiten duenean oinarritzen da begirunerako eskubidea; eta merezimenduak bakarrik, ez jaiotzak, ematen du botere eta aginterako eskubidea. Gizakiari beste batengan aldi baterako ez litzatekeen aginterik edukitzen utziko ez balitzaio, gizartea ez litzateke ibiliko esku bataz eraikitzen beste eskuaz ito behar dituen jauginak. Haurrak, lehenengo aldiz gizonaren existentzian, bide zuzenetik ibiltzen ikasiko luke eta nagusi egitean bide horretatik ez aldentzeko aukera bat edukiko luke. Baina indartsuak ahula zapaltzeko eskubidea daukala gizartearen muin-muinera sartuta dagoen bitartean, borroka gogorra egin beharko da gizarte harremanak ahulak indartsuaren eskubide berberak dituela dioen printzipioan oinarrituta egotea lortzeko, zeren justiziaren legea, kristautasunarena ere badena, ez baita inoiz jabetuko gizonen sentimendurik sakonenez, lege horren kontra ariko baitira, men egiten diotenean ere.

Bere ahalmenez baliatzeko era aukeratzen utziz eta gizonari eskaintzen zaizkion lan eremu berak eta sari eta sustagarri berak eskainiz, emakumeak ahalmenok erabiltzeko askatasuna ematetik espero litekeen bigarren onura gizateriaren zerbitzu hoberako erabil daitezkeen ahalmen intelektualen bikoiztea litzateke. Gizateriari mesede egiteko eta denon hobekuntza sustatzeko egun lagun bat

—esate baterako, irakasle publiko bat edo arazo publiko edo sozialetako edozein adarretako administratzaile bat— dagoen tokian bi egoteko aukera legoke orduan. Gaur egun ments dira nonahi mota askotako gailentasun intelektualak, eta gai diren langileen eskaintza eskariaren oso azpitik dago; urri dira trebezia handia eskatzen duen edozein kargutan bikainki jarduteko gai direnak; munduan dagoen talentu guztia-
ren erdia erabiltzeari uko egiteak suposatzen duen galera arrunt serioa da. Energia intelektual hori, egia esan, ez da guztiz galtzen. Zati handi bat etxearen gobernuan eta emakumeek sarbidea duten beste lan gutxi batzuetan erabiltzen da, eta edozein kasutan ere beti erabiliko litzateke; eta beste zatiak kasu indibidual askotan sortzen du onura, emakume indibidualek gizon indibidualengan duten eraginaren bidez. Baina onurok emakumeen jokaleku behar lukeenaren alde batean bakarrik sorturikoak dira; helmen arrunt mugatua dute; eta onartu beharra badago ere gizateria osoak orotara duen adimenaren erdiari askatasuna emanez indar sozial berriari aipaturiko onura hau kendu beharko litzaiokeela, beste aldetik, gizonen adimena bizkortuko lukeen lehia-kortasunaren onura gehitu beharra legoke, edo (adierazpen zehatzagoa erabilita) gizonek postu bat eskuratu aurretik hura merezi izan beharrak ekarriko lukeen onura.

Espeziearen ahalmen intelektualaren eta beraren arazoak ongi kudeatzeko behar den adimenaren gehikuntza, aldeztu, emakumeen hezkuntza hobe eta beteagoaren bidez erdietsiko litzateke, kasu horretan gizonarenarekin *pari passu* areagotuko litzatekeelarik. Hartara, emakumeak oro har beren klase sozial bereko gizonak bezain gai izanen lirirateke negozioez, arazo publikoez eta espekulazio gai gorenez aditzeko; eta besteen ekintzak eta pentsamenduak ulertzeko bakarrik barik, beren kabuz gauza interesgarriak egin eta pentsatzeko gai diren sexu bietako bana-banakoek erraztasun berberak ukanen lituzkete euren gaitasunetan trebatu eta aurrera egiteko, sexu batekoak zein beste-
tekoak izan. Hartara, emakumeen ekintza eremua hedatzea onerako litzateke, emakumeen hezkuntza gizonenaren mailara igoko litzateke-elako eta batzuek besteen hezkuntzaren hobekuntza guztiak partekatuko lituzketelako. Baina horrez aparte, hesia jo eta hausteak bakarrik ere balio itzeleko eragin hezgarria luke. Pentsamenduaren eta ekintza-
ren gailurrak, interes pribatuaren eremua gaintu eta interes publikoan sartzen den guztia, gizonen kontuak, emakumeek albo batera utzi

beharrekoak, direlako ideia –izan ere, gauza horietako asko positibo-ki debekatuta baitituzte emakumeek eta uzten zaien gutxietan hotz eta motz hartzen baitira– burutik betiko kentze hutsa, orduan emakumeak lortuko lukeen kontzientzia, alegia, bera beste edonor bezalako gizakia den kontzientzia –bere lanbidea eta zereginak aukeratzeko eskubidea duena, gizakien ardurako gauza guztietan interesa jartzeko arrazoiak dituena eta giza arazo orotan iritzi indibidualari dagokion eraginaren partea berak ere ekartzeko eskubidea duena, arazootan parte hartzen saiatu edo ez– besterik gabe nahikoa litzateke emakumearen ahalmenen hedakuntza itzela eta sentimendu moralen maila gorago jasotzea eragiteko.

Giza aferak aurrera ateratzeko gai diren talentudun pertsonak gehitzeaz gain (eta ez dira gaur egun gehiegi horrelakoak, naturak eskainitako talentuaren erdia, emakumeena, kanpoan uzten ibiltzeko), emakumeen iritziak eragin onuragarriagoa, handiagoa baino areago, edukiko luke giza iritzi eta sentimenduen multzo osoan. Eragin onuragarriagoa, handiagoa baino areago diot, emakumeen eragina iritziaren izaera orokorrean oso handia izan delako beti edo behintzat historia-
ren lehenengo aldietatik. Amek beren semeen haurtzaroko izaeran duten eraginak eta mutil gazteek nesken begiko izatea lortzeko izaten duten gogoak indar handia izan dute mutilen izaeren itxuratzean, gogoratzen diren garai guztietan, eta zibilizazioaren aurrerapenerako urratsik garrantzitsuenetako batzuk finkatu dituzte. Homeroren garaian bertan ere, -enganako (*emakume
gonaz luredun troiarrenganako) (*begirunea) ekintzarako moti-
bo aipatua eta indartsua izan zen Hektor handiarentzat. Emakumeen eragin moralaz bi era ezberdinetan burutu zen. Hasieran, eragin leun-
garria ukan zuen. Bortizkeriaren biktimak izateko arrisku handia zuten heinean, indarkeriaren eremua mugatzen eta gehiegikeriak ahalik
gehien leuntzen ahalegindu ziren berezko joeraz. Borrokatzeko hezita ez zeudenek, diferentziak konpontzeko orduan, bidezko denez, borro-
ka alde batera utzi eta bestelako bideen alde egin zuten. Oro har, grina egoista baten oldarra gehien sufritu beharra ukan dutenak izan dira
grinak bezatzeko modua eskaintzen duen edozein lege moralen aldeko irmoenak. Emakumeek zeregin garrantzitsua bete zuten iparraldeko
konkistatzaileen artean kristau fedea zabaltzeko lanean, aurreko guz-
tiak baino emakumearen aldekoagoa zen erlijioa bera. Anglosaxoien

eta frankoen konbertsioa, adibidez, Edelberto eta Klodobeoren emazteengandik hasi zela esan daiteke. Beste era batera ere izan du eragin garrantzitsua emakumeen iritziak, alegia, emakumeak landu ez zituen, baina bere babesleak edukitzea komeni zitzaion tasunak indartsu bultzatuz. Adorea eta bertute militarrek oro har gizonak emakumeen mirespena berenganatzeko duten irritsaren eraginez sendotu ziren aldi guztietan; eta bultzada horrek goi mailako tasun horietarako ez eze, beste batzuetarako ere balio du, emakumeen egoeraren berezko ondorio gisa, emakumeak liluratu eta konkistatzeko biderik onena gizonak emakumeez iritzi altua edukitzea izan delako beti. Emakumeen eragin mota bion konbinazioz sortu zen zalduntza espiritua, zeinaren berezitasuna, gertari tasunen mailarik gorenak zeharo bestelako bertuteekin konbinatzea den, honako hauexek bezalakoekin zehazki: jende zibil eta babesgabekoenganako samurtasuna, eskuzabaltasuna eta pairamena, eta emakumeenganako men egite eta gurtza berezia, emakumeak babesgabeko beste klaseengandik honexetan bereizten zirelarik, alegia, menpekotasunera indarrez behartu beharrean euren ederra irabazten saiatzen zirenei borondatez emateko zituzten sari garrantzitsuetan. Zalduntzaren praktika haren eredu teorikotik praktika teoriatik gelditu ohi den baino urrunago gelditzen den arren, gizateriaren historia moraleko oroigarririk preziatuena da, gizarte deseratu eta nahasi batek bere egoera soziala eta erakundeak baino askoz aurrerago zegoen ideal moral bat eraiki eta praktikara eramateko egindako ahalegin eratu eta bateratuaren adibide aipagarri bat; eta helburu nagusiari dagokionez erabateko porrota ezagutu bazuen ere, ez zen inolako eragin gabekoa izan, eta ondorengo belaunaldi guztien ideia eta sentipenetan marka nabarmen eta gehienbat balio handikoa utzi zuen.

Zalduntzaren ideala emakumeen sentimenduek gizateriaren kultura moralean duten eraginaren gailurra da, eta emakumeek egungo menpeko egoeran geldituko badira, biziki deitoratu beharko genuke zalduntzaren erdua betiko joan izana, zeren egoera horren eragin etsigarria leun lezakeen bakarra baita. Baina gure espezieak izan dituen aldaketa historikoek ekidinezin bihurtu dute beste moraltasun ideal zeharo ezberdin batek ordezkatzeko zalduntzaren ideala. Onerako edo txarrerako dena adore indibidualaren mende zegoen gizarte batean elementu moralak sartzeko ahalegina zen zalduntza, beti ere samurtasun eta eskuzabaltasun indibidualaren eragin leungarriaren pean. Gizarte

modernoetan gerla kontuak ere ez dira esfortzu indibidualez erabakitzen, askoren ekintza bateratuz baizik; eta gizartearen zeregin nagusia borrokatzetik negozioak egitera, bizimodu militarretik industrialera, aldatu da. Bizitza berriaren eskakizunek ez dute kanpoan uzten eskuzabaltasuna, zaharrarenek uzten duten baino gehiago, baina berria ez dago jada erabat eskuzabaltasunaren mende. Garai modernoetako bizitza moralaren oinarri nagusiak justizia eta zuhurtzia dira edo izan behar dute; bakoitzaren errespetua beste ororen eskubideekiko eta bakoitzaren gaitasuna bere buruaren ardura hartzeko. Zalduntzak ez zien inolako eragozpen legalik jarri gizartean zigorrik gabe nagusi ziren mota guztietako bidegabekeriei; gutxi batzuk animatu zituen bidegabekeria ibili barik zintzo jokatzera, horretarako laudorioaz eta mirespenaz baliatuz. Baina moralitasunaren indarra santzio penalean datza beti, gizakia gaitzetik aldentzeko duen ahalmenean. Gizartearen segurtasuna ezin da oinarritu zintzotasunari egindako ohorean soilik, gutxi batzuegan izan ezik erlatiboki ahula den eta asko eta askorengan inolako eraginik ez duen motiboa denez gero. Gizarte modernoa bizitzako arlo guztietan gaitza erreprimitzeko gai da zibilizazioak eskuetan jarri dion indar gorena erabiliz, baita, hori eginez, gizarteko kide ahulagoei (babesik gabe utzi beharrean legearen babespean jarrita) bizitza jasangarri bihurtzeko ere, esperantza guztia tiranizatzeko eskubidea dutenen gizabidean jarri beharrik gabe. Zaldun izaeraren edertasuna eta dohaiak ukatzerik ez dago, baina ahulen eskubideek eta gizakien ongizateak oinarri sendagoan dute euskarria orain; beste eremuetan esan nahi dut, zeren ezkonbizitzan ez baita horrelakorik gertatzen.

Gaur egun ere lehen bezain egiazkoa da emakumeen eragin morala, baina ez da hain nabarmen eta bereizgarria: iritzi publikoan eragin orokorrean gehiago nahasita dago. Sinpatiarene eta komunikazioaren bidez, alde batetik, eta gizonek emakumeen begietan distiratsu agertzeko duten desiraren bidez, bestetik, emakumeen sentipenek eragin handia dute zalduntzaren idealetik geratzen denari bizirik eusteko orduan, hau da, sentimenduak landu eta adore eta eskuzabaltasun tradizioei segida emateko orduan. Puntu horietan, emakumeen ideala gizonena baino gorago dago; justiziarenean, ordea, pitin bat beherago. Bizitza pribatuko harremanei dagokienez, orokorrean esan daiteke emakumeen eragina, oro har, bertute samurrenak bultzatuz eta latzeinei erasoz gauzatzen dela, nahiz eta baieztapen hori izaera indibidual

bakoitzak eragin liezazkiekeen aldarazpen guztiekin ulertu behar den. Mundu honetan bertuteak aurre egin beharreko probetako nagusian –interesen eta printzipioen arteko gatazkan– emakumeen eraginaren joera askotarikoa izaten da oso. Interesarekin borrokan dagoen printzipioa heziketa moral edo erlijiosoak emakumearen kontzientzian indartsu grabaturiko gutxien artean badago, emakume hori bertutearen laguntzaile handia da, eta senarra eta semeak inoren bultzadarik gabe beren kabuz sekula egingen ez lituzketen pairamen ekintzak egi-tera bultzatzen ditu maiz. Baina, emakumeak egun hartzen duen hezkuntza eta gizartean duen egoera kontuan hartuta, irakasten zaizkion printzipio moralek bertutearen eremuaren zati erlatiboki txikia baino ez dute hartzen, eta gehienbat negatiboak dira, hau edo bestea egitea debekatzen dutenak, baina emakumearen pentsamendu eta ekintzei norabide orokorrik markatzen ez dietenak. Atsekabez aitortu behar dut emakumeek nekez bultzatzen dutela bizitzan izan ohi duten jokararekiko desinteresa, hau da, familiarentzako abantaila berezirik ez dakarten helburuak lortzen ahalegintsu jardutea. Hoben txikia da emakumeek inork garrantzia ematen irakatsi ez dielako estimatzen ez dituzten eta gizonak emaztearengandik eta familiarekiko arduratik aldentu besterik egiten ez dituzten zenbait xederi baliorik ez ematea. Baina horren ondorioa da emakumeen eragina ez dela inola ere bertute publikoen aldekoa.

Badute, hala ere, eraginen bat emakumeek moraltasun publikoan, euren jardun eremua hedatu denez eta asko direlako euren familia eta etxetik kanpoko helburuak sustatzen ari izan direnak. Emakumeen eragina Europako bizitza modernoko bi berezitasunetan nabarmentzen da asko: gerrarekiko herran eta filantropiarekiko begikotasunean. Ezaugarri ezin bikainagoak biok! Baina, zoritxarrez, emakumeen eragina balio handikoa bada sentimendu horiei oro har ematen dien bultzadari dagokionez, markatzen dien norabideari dagokionez kaltegarria da baliagarria bezain maiz gutxienez. Filantropi eremuan partikularki, emakumeak nagusiki lantzen dituen bi arloak proselitismo erlijiosoa eta karitatea dira. Proselitismo erlijiosoa, hor, ikusiezinak piztea baino esan nahi ez duen esamoldea da; atzerrian, erabilitako bitartekoek eragin dezaketen ondorio hondagarriak –hala xede erlijiosorako nola beste helburu on guztietarako hondagarriak– ezagutu gabe edo eurretaz konturatu gabe zerbait lortzera itsu-itsuan joatea da.

Karitateari dagokionez, berriz, badakigu elkarrekin kontraesan nabarian daudela lagundutako pertsonengan dituen hurbileko efektuak eta denen onerako dituen azken ondorioak. Emakumeei ematen zaien hezkuntzak –sentimenduetara doana, adimenera baino askoz gehiago– eta euren bizitzako zirkunstantziek eraginda berenganaturiko azturak, hau da, pertsonengan sorturiko hurbileko efektuak, eta ez giza klaseengan eragindako urruneko ondorioak, kontuan hartzeko azturak, ezgai bihurtzen dituzte emakumeak euren sentimenduei hain laketa zaizkien karitate edo filantropi era guztien joera kaltegarriak ikusteko eta onartzeko. Argitasunik ez ikuspegiarik gabeko ongini handi eta etengabe hazkorrak, jendea pobreen bizitzak euren ardurapean hartzea eramanez eta euren ekintzen ondorio kaltegarrien erantzukizunetik libratuz, norbere burua errespetatzea, norbere burua laguntzea eta norbere burua kontrolatzea diren hiru arau moralen oinarriak minatzen ditu, arrakasta indibidualaren eta bertute sozialaren funtsezko baldintzak beraiek. Mesede egin beharrean kalte egiten duen baliabideen eta onginahizko sentimenduen eralgitze hau areagotzen eta bultzatzen parte handia hartzen dute emakumeen ekintzak eta eraginak. Ez dut esan nahi horren errudun karitatearen hari praktikoak maneatzeko dituzten emakumeak direnik. Zenbaitetan gertatzen da karitate publikoa administratzen duten emakumeek –aurrean duten errealitatearekiko eta batez ere harremanetan dauden gogo eta sentimenduekiko gizonena baino askoz zoliagoa izaten duten ikuspegiak– argiro hautesmaten dutela emandako limosnen eta laguntzen eragin desmoralizatzailea, eta gai horretan politikari ekonomista askori lezioak emateko moduan daude. Baina laguntzak ematera mugatu eta ondorioak aztertzen jartzen ez diren emakumeek nola aurreikusi ondorio horiek? Emakumeen egungo egoera jaiotakoa izanik, egoera horrekin pozik dagoen emakumeak nola preziatuko du bere burujabetasunaren balioa? Ez da burujabe, inork ez dio burujabe izaten irakatsi; haren zoria dena besteengandik hartzea da, eta beretzat ona dena nola liteke pobrearentzat txarra? Emakumeak onaz duen ideia nagusiren batek emandako mesedearena da. Ahantzi egiten du bera ez dela aske eta pobreak badirela; behar dutena, eurek irabazi beharrean, eman egiten baldin bazaie, ez direla irabaztera beharturik egonen; denak ezin direla egon denen ardurapean eta, horregatik, motiboren batek egon behar duela jendeak bere buruaren ardura hartzeko; eta jendeari, fisikoki gauza izanez gero, beren buruari laguntzen laguntzea dela azkenean

benetako karitatea dela frogatzen duen karitate bakarra.

Oldozpen horiek argi erakusten dute zenbat hobetuko litzatekeen iritzi orokorraren eraketan emakumeei dagokien partea, irakaspen zabalagoa emanen baliote eta euren iritziak eragina ukan dezatekeen gaietan ezagutza praktikoa hartuko balute; horixe litzateke euren askapen sozial eta politikoak ezinbestez ekarriko lukeen fruituetako bat. Baina nabarmenago litzateke oraindik askapenak emakume bakoitzak bere familian izandako eraginaren bidez ekarriko lukeen hobekuntza.

Esan ohi da ezen, tentazioan erortzeko arriskurik handiena duten klaseetan, gizona bere emazte eta seme-alabengatik mantentzen dela ondradu, bai emaztearen eragin zuzenari esker, bai haien geroko ongizateak ematen dion ardurari esker. Hori horrela izan daiteke eta sarri, dudarik ez, horrelaxe da, gaiztoak barik ahulak diren gizonen kasuan; onerako eragin hori berdintasun legeekin babestu eta sendotuko litzateke; eragin hori ez du sustatzen emakumearen joputzak, baina, aitzitik, behe mailako gizonak beren boterearen mende daudenekiko sentitzen duten erdeinuak makaltzen du. Baina gizarte eskalan gora eginez gero, eragingarri zeharo ezberdinen agindupean dagoen klase bat aurkitzen dugu. Emakumearen eraginaren joera, ahal duen neurrian, senarrari herrialdean onespeneren eredia markatzen duen mailatik beherago jausten ez uztera doa; baina indar berdinez doa maila horretatik gorago igotzea eragoztera ere. Emakumea iritzi publiko komunaren laguntzailea da. Adimenez bera baino kaxkaragoa den emakume batekin ezkondata dagoen gizonak betirako pisu hil bat daramala sentitzen du edo, txarrago dena, iritzi publikoak galdatzen diona baino handiagoa izaten saiatzen den guztian gaintitu beharreko oztopo bat duela alboan. Horrela loturik dagoen gizonak nekez lor lezake goi mailako bertuterik. Bere iritzieta masarengandik bereizten bada –masak ikusi ezin dituen egiak ezagutzen baditu, edo, bere bihotzean hark izenez ezagutzen dituen egiak sentitzen dituelarik, egia horiei dagokienez gizaki gehienek baino kontzientzia biziagoz jokatu nahi badu– horrelako ideia eta pentsamenduak aurrera ateratzeko zoztorrik handiena bere emaztearengan aurkituko du, maila komunetik bera baino gorago dagoen emaztea edukitzeko zortea ukan ezean.

Izan ere, horrelako gizonak, beren interesetatik zerbait sakrifiku beharra dauka beti, behin harreman sozialetan, behin diru kontuan; agian bizibidea arriskutan jartzera iritsi beharrean ere aurki daiteke. Sakrifizio eta arrisku horiei aurre egiteko prest egon liteke, berak bakarrik gainditzekoak izanez gero; baina bere familiari ezarri baino lehen, asko pentsatu beharra dauka. Eta familia, kasu horretan, emaztea eta alabak dira, zeren semeengandik ziur espero baitu berak bezala sentitzea eta bera interes horiek albo batera uzteko gai bada haiek ere gauza bererako gai izatea, nahita gainera. Baina alabak? Aitaren jokaeraren mende egon daiteke alabak ezkontzea; emaztea, berriz, sakrifizio horiek zertarako egiten diren ulertzeko gai ez da, berorien xedeak merezi duela pentsatuz gero, gizonarengan konfiantza osoa duelako eta maite duelako litzateke, ezin du konpartitu gizonak senti ditzakeen entusiasmoa eta bere buruarekiko onespena, baina gizonaren sakrifizio guztiak hartzen ditu bere gain. Ez al da egia gizonik zuzenen eta desinteresatuena ere zalantza handiak izan behar dituela arestian adierazitako ondorioak emakumeari ezarri aurretik? Jokoan dagoena bizitza erosoak barik gizartearen aintzatespena denean ere, handia da gizonak kontzientziaren gainean eraman behar duen pisua. Emaztea eta seme-alabak dituenak bahian ematen dizkio munduaren iritziari. Jendetzaren onespena baliteke berdin izatea gizon zintzoari, baina garrantzi handikoa da haren emaztearentzat. Gizona bera iritziaren gainetik egon daiteke edo behar bezainbateko konpentsazioa aurki dezake bere modura pentsatzen dutenen onspenean. Baina berekin loturiko emakumeei ezin die inolako konpentsaziorik eskaini. Batzuetan emazteak bere eragina gizarte aintzatespenaren zerbitzutan jartzera duen joera aldagaitz samarra aurpegiratu zaie emakumeei, eta joera hori ume-ahultasuntzat hartu izan da, injustizia handiz, dudarik gabe. Gizarteak klase aberatsetako emakumearen bizitza osoa etengabeko sakrifizio izatera darama; emakumea bere joera natural guztiak etengabe kontrolpean edukitzera behartzen du eta martirio izena merezi duen egoeraren truke begirunea baino ez dio ematen. Baina emaztearekiko begirunea, emazteak senarrarekiko duen begirunearekin dago bereiztezinkin lotuta, eta, garesti ordaindu ondoren, emakumea konturatzen da begirune hori galdu egin behar duela berak indarrik ikusten ez dien arrazoiengatik. Bere bizi osoa sakrifikatu du begirune horregatik, eta senarrak ez al du sakrifikatuko kapritxo bat, bitxikeria bat, nabarmenkeria bat, munduak onartzen ez duen eta berak

bezala zorakeriatzat, edo zerbait txarragotzat beharbada, daukan zerbait? Dilema hori latzagoa da merezimendu handiko zenbait gizonen kasuan; gizonok, irizkide dituenen artean burua agertzeko talenturik gabe, konbikzioz eusten diote beren iritziari eta ohoreagatik eta kontzientzian behaturik aurkitzen dira iritzi horren zerbitzutan jokatzera, berorri dioten atxikimendua aldarrikatuz, eta denbora, lana eta baliabideak emanez beren iritziaren alde planteatzen den edozertan. Egoerarik latzena gizon horiek, gizartean duten maila eta estatusarengatik, goi mailako gizartea deitzen den horretarako atea ez guztiz itxita ez erabat zabalik ez dutenean gertatzen da, hau da, goi zirkulu horretan onartuak izatea bertakoek euren zuzentasun pertsonalaz pentsatzen dutenaren mende dagoenean eta, euren heziera eta azturak inolako tatxarik gabekoak izanik ere, gizarteari tonua ematen diotenean euren iritziak eta portaera publikoa onartezintzat edukitze hutsak modu eraginkorrean kanpoan uzten dituenen. Emakume batek baino gehiagok harro esaten du (eta hamarretik bederatzitan oker egoten dira) ezerk ez liekeela galaraziko berari eta bere senarrari inguruan duten goi gizartean –euren oso ezaguna eta maila berekoa den jende piloan aise asko dabilen gizartean– sartzea, baldin bere senarra disidentea ez balitz edo behe mailako politika erradikalean nahasita dagoen fama ez balu. Horixe da, pentsatzen du emakumeak, gure seme Gorkari lan bat edo kargu bat eskuratzen, gure alaba Karolinari senar aberatsa topatzen eta niri eta senarrari gonbiteak, eta agian tituluak, erdiesten lagatzen ez diguna, horretarako, nik dakidala, beste edonork adina merezimendu ukan arren. Horrelako eragina, dela aktiboki erabiltzailea dela ez inposatzeko ahaleginik handiena eginda, edukiz gero etxe bakoitzean, harritzekoa ote da jendea garai modernoetako ezaguri nabarmen bihurtzen ari den errespetagarritasunaren kaskarkerian erorita egotea?

Bada beste alde kaltegarri bat, non ongi aztertu behar den, ez zuzenean emakumeen ezgaitasunak, baizik ezgaitasun horiek emakume eta gizon baten hezkuntza eta izaera ezberdinen artean sortzen duen diferentzia itzela. Ezer ere ez hori baino kaltegarriagorik ezkonbilitzaren ideala den gogo eta sentimenduen batasunerako. Erabat ezberdina den jendearen arteko bihotzetik bihotzerako elkarrekin amets hutsa da. Ezberdintasunak erakar dezake, baina antzekotasunak atxikitzen du jendea, eta bien artean dagoen antzekotasunagatik egiten

dute ezkontideek zoriontsu bata bestea. Emakumeak gizonengandik hain diferenteak diren artean, ez da harritzekoa gizon egoistek botere bidegabe baten jabe izateko beharrezana sentitzea, joera ezberdinen gatazka *in limine* gelditzeko, arazo oro euren alde erabakiz. Jendea zeharo ezberdina denean, nekez etor daitezke bat interesetan. Eta ezkontideen artean maiz izaten dira diferentzia itzelak eginkizun moralari buruzko puntu inportanteenez dituzten iritzietan. Zer da ezkontzako batasuna, desadostasun horiek gertatzen direnean? Baina gertatu egiten dira, emakumea izaeraz bizi samarra bada; eta oso maiz gertatzen den kasua da herrialde katolikoetan, beti ere emazteak senarrarekiko desadostasunean men egiten irakatsi dion beste agintariaren, apaizaren, laguntza duenean. Idazle protestante eta liberalek, bere erabakiak eztabaidatuta ikusten ohiturik ez dagoen boterearen atrebentziarekin, apaizek emakumeengan duten eraginari erasotzen diote, berez txarra delako gutxiago, senarraren aginpidearen kontrakoa delako eta emaztea haren hutsezintasunaren kontra jaikitzen bultzatzen duelako baino. Ingalaterran gatazkak sortzen dira emakume ebanjelista bat beste sinesmen bateko senarrarekin ezkondata dagoenean; baina eskuarki desadostasun iturri hori erraz gainditzen da, emakumeen gogamena hutsaren hurrengo izateraino beheratuz, halatan, non munduak edo senarrak buruan sarturikoak beste iritzirik gabe gelditzen diren. Iritzietan alderik ez dagoenean ere, gustu hutseko aldeak nahikoa izan litezke ezkonbizitzako zoriona asko mikazteko. Diferentziak gizonen amodiozko joerak piztu litzakeen arren, hezierako diferentziak gehituz sexuen arteko sortzetiko diferentziak areagotzeak ez dakar ezkontzako zoriona. Ezkontideak heziera eta portaera oneko jendea izanez gero, gustu kontuan elkarrekiko tolerantziaz jokatzeko dute; baina elkarrekiko tolerantzia al da, bada, jendeak ezkontzean irrikaz espero duena? Gustuetako diferentzia horiek, jakina, haien nahia ere, etxe-barruan sorturiko ia gai eta arazo guztien inguruan, ezberdina izatea dakarte, ondorio hori elkarrenganako maitasunak edo betebeharrak eragotzi ezean. Ez da makala izanen ezkontide biok nor bere gustura ibiltzeko nahiko luketen gizarte mota bien arteko diferentzia! Bakoitzak bere moduko gustuak dituen lagunak bilatuko ditu: batarentzat atseginak direnak, bestearentzat interesik gabekoak edo desatsegin hutsak izanen dira; baina guztiak izanen dira bien lagunak nolabait, zeren ezkonduak egun ez dira bizi etxearen parte diferenteetan bakoitzak bere bisitak hartzeko moduan, Luis XV.aren garaian

bezala. Buruera eta asmo diferenteak izanen dituzte nahitaez seme-alaben heziketari buruz ere: bakoitzak bere gustu eta sentimenduak ikusi nahi izanen ditu seme-alabengan erneta, eta agian itun bat egiten dute, erdi eta erdi amore emanda, edo emazteak emanen du amore, asko sufrituta sarri; eta, nahi izanda edo nahi izan barik, senarraren asmoen kontra ekinen dio ezkutuan.

Zentzugabekeria demasa litzateke uste izatea diferentzia horiek emakumeak gizonak ez bezala hezita daudelako bakarrik sortzen direla eta beste zirkunstantzia batzuetan ez legokeela alderik gustuetan. Baina inor ez litzateke harritu behar niri entzutean hezkuntzan dauden diferentziek asko areagotzen dituztela berezko aldeak, aldeok erabat ekidinezin bihurtzeraino areagotu ere. Emakumeek egun hartzen duten heziketari esker, gizona eta emakumea nekez etorriko dira benetan bat eguneroko gaiekiko dituzten gustu eta gurarietan. Adostasunaren esperantza galdu eta eguneroko bizitzako lagun minarengan benetako elkarte orotako kideen batasun lokarri den *idem velle*, *idem nolle* hori aurkitzeari uko egin beharko diote eskuarki; edo bestela, gizonak adostasun hori erdiesten badu, ez *vellerik* ez *nollerik* ez daukan emakume gauza ez den huts bat hautatuz izanen da, norbaitek aginduz gero gauza bat zein haren kontrakoa egiteko prest dagoena. Gizonaren kalkulu hori ere ustel atera daiteke, gatzgabeta-suna eta makaltasuna ez baitira beti emakumearengandik uste osoz espero den menpekotasunaren berme. Baina horrela balitz ere, hori al da ezkontzako ideala? Zer lortzen du horrela gizonak, mirabe, haurtzain edo amorante bat besterik? Aitzitik, gizona eta emakumea inor ez izan beharrean nor direnean, bata bestearekin bat eginda daudenean eta elkarrengandik ezberdinegiak ez direnean, biek etengabe gauza beretan parte hartzeak, elkarrekiko begikotasuna lagun, kanpora ateratzen ditu biek lehenbizi bestearentzat bakarrik interesgarriak ziren gauzez interesatzeko gordeta dituzten gaitasunak, eta poliki-poliki antzeko gustu eta izaerak lantzen ditu, aldez bakoitza ezari-ezarian aldatuz, baina gehiago izaera biak benetan aberastuz, bakoitzak bestearen gustu eta gaitasunak gehituz bereei. Hori maiz gertatzen da elkarrekin luzaro bizi diren sexu bereko lagun biren artean, eta ohiko kontua, edo agian ohikoena, litzateke ezkontzan, baldin sexu bien hezkuntza erabat ezberdinak ezkontideen harmoniazko batasun egiazkoa ia ezinezko bihurtuko ez balu. Hori konponduz gero, nolanahikoak

izanik ere ezkontideek gustuetan dituzten diferentziak, bien arteko batasun eta adostasun erabatekoa lortuko lukete, arau orokor gisa, bizitzako gai eta arazo nagusiei buruz gutxienez. Gai nagusioz ezkontide biak arduratzen direnean eta kontu horietan elkar laguntzen eta animatzen dutenean, beste gai txikiagoetan diferentziak edukitzeak ez du beraientzat garrantzi handirik; adiskidetasun sendo eta iraunkorre-rako oinarria dago, beste edozerk baino hobeto lortuko duena ezkontide bakoitza zoriontsuago izatea, bizitza guztian, besteari poza ematean, berak hartzean baino.

Honaino senar-emazteen arteko diferentziek ezkontzako zorion eta ongizatean dauzkaten ondorioak aztertu ditut bakarrik, baina bada zerbait ezberdintasunaren problema larriki areagotzen duena eta zerbait hori gutxiagotasuna da. Ezberdintasun hutsa, gaitasun onetan diferenteak izatea baino inplikatzan ez duenean, elkarren hobekuntzarako abantaila izan daiteke, ongizaterako oztopo baino areago. Senar-emazteak elkarren lehian ari direnean ahalegintsu bata bestearen gaitasun bereziak berenganatu nahian, diferentziak ez du interes desberdintasunik sortzen, interes berdintasuna areagotzen baizik, bata bestearentzat estimagarriagoa izatea lortzen duelarik. Baina ezkontideetako bata bestea baino askoz beherago badago adimen gaitasunean eta kulturaren eta bestea hura bere mailara jasotzen ahalegintzen ez bada, bien arteko loturak goikoaren garapenean duen eragina hondagarria da, eta are hondagarriagoa maitasunezko ezkontza zoriontsu batean, zoritxarreko batean baino. Ez da zigorrik gabe gelditzen adimenez gorago dagoenak beherago dagoena giltzapean edukitzea, eguneroko lagun min legez hartuta. Hobetzen ez duen konpainia orok hondatu egiten du, eta zenbat eta hurbilekoagoa eta etxeakoagoa izan konpainia, orduan eta egiazkoagoa aforismoa. Benetan goi mailakoa den gizona bera ere hondatzen hasten da ia beti, baldin normalean (esaerak dioen moduan) bere lagunaren errege bada, eta bera baino gutxiago den emaztea duen senarra beti da errege bere konpainia ohikoenarekiko. Alde batetik bere buruzaletasuna tai gabe losintxaz aseta izaten du, bestetik, ordea, berea baino gogamen arruntago eta mugatuago bati dagozkion sentitzeko eta gauzei begiratzeko moduak itsastan zaizkio oharkabe. Gaitz hau honaino aztergai izan ditugun askotatik ezberdina da, eta gehituz doan gaitza izatean datza ezberdintasuna. Gizonek emakumeekin eguneroko bizitzan dituzten harremanak lehenagokoak

ziren baino askoz estuago eta beteagoak dira. Gizonek etxe-bizitza gehiago dute orain. Lehenago, gizonen dibertsio eta zereginak gizonen lagunartean ziren eta emazteentzat tarte laburrak baino ez zituzten. Gaur egun, zibilizazioaren aurrerapenak, iritziak, gizonik gehienek aisialdia betetzen zuten dibertsio zakarren eta jan-edaneko larregikerien kontra jarritz, egin duen birak eta –zergatik ez esan?– senar-emazteen elkarrekiko betebeharrei buruzko ideiak azken garaiotan hobera egin izanak indartsu bultzatu dute gizona etxean eta etxeakoetan bilatzera lehen kanpoan aurkitzen zituen plazer pertsonal eta sozialak. Bestalde, emakumeen hezkuntzan izandako hobekuntzaren nolakotasunak eta mailak ideietan eta gogoko gauzetan gizonaren lagunkide izateko gai egin dituzte neurri batean, nahiz eta kasurik gehienetan gizonaren mailatik behera utzita itxaropenik gabe. Hartara, gizonak normalean, gogo-elkartasunaren bila ibilita, berari ezer irakatsi ezin dion elkartasun bat aurkitzen du. Hobetzen ez aurrera eragiten ez duen konpainiak ahalmenetan eta goi xedeetan berdinak dituenen lagunartean lekua hartzen du (gizonak bakarrik balego bilatu beharko lukeenarena). Hartara, ikusten dugu gizon gazte etorkizuntsuak ezkondu bezain laster inolako hobekuntzarik egin gabe ez aurrera ez atzera gelditzen direla, eta hobekuntzarik ez egiteak gainbeheratzea dakar ezinbestez. Senarra aurrera bultzatzen ez duen emazteak atzera eragiten dio beti. Senarrak galdu egiten du bere emazteari axola ez dionarekiko ardura; ez du jada maite, eta azkenerako ez du gustuko eta bazter uzten du, lehenago bereekin bat zetozen xedeak zituen lagunartea, xedeetatik aldentzea aurpegiratuko ez liokeena; gogo eta bihotz ahalmen guztiak zeharo gelditzen zaizkio. Eta aldaketa horri familiak sorturiko interes berri eta egoistak batzen zaizkiolarik, urte gutxiren buruan gizon hori ez da ezer funtsezkotan bereizten ohiko hutsalkeriak eta diru-helburu arruntak besterik sekula bilatu ez dituztenengandik.

Ez dut deskribatu nahi zer litzatekeen iritzi eta xede berdinak dituzten eta euren artean berdintasunik bikainena lortu duten bi pertsona ikasiren arteko ezkontza, ahalmen eta gaitasun berdintsuak edukitzeak emandako elkarrekiko nagusitasunaren jabe direnean eta, elkarri begietara begiratzean, bien garapenaren bidean batzuetan laguna gidatzeko eta besteetan hark gidatua izateko aukera dutenean. Iruditzen ahal dutenak ez dute nire deskripzioaren beharrik; eta bururatzetik ez dutenak burubero baten ametsa leritzokete. Baina nik konbentzimendu

sakonez uste dut horixe eta horixe bakarrik dela ezkontzako ideala, eta beroni buruz bestelako edozein ideia aldeztu duen edo beronekin nolabait loturik dauden buruera eta xedeei, berdin zaio zeren izenean, beste norabide bat ematen dien iritzi, ohitura edo instituzio oro jatorrizko basakeriaren aztarna dela. Gizateriaren berronbideratze moralala ez da benetan hasiko, harik eta harreman sozial oinarritzkoena justizia berdinkidearen araupean jarri arte eta harik eta gizateriako kideek eskubideetan eta gaitasunetan beren maila berekoa duten kide batekiko begikotasun beroena lantzen ikasi arte.

Honainokoa, aurrerantzean sexua ezgaitasun politikoaren oinarri eta menpekotasunaren ikur ez bihurtzetik etorriko liratekeen onurak aztertzean, indibidualak barik sozialak agertu dira, honako hauexek zehazki: pentsatzeko eta gizartean ekiteko indarraren funts orokorraren hazkundea eta gizon eta emakumeak elkartzeko baldintza orokorren hobekuntza. Baina bazterketa larria litzateke aipatu gabe uztea zuzeneneko onura, askaturiko espeziearen erdiak bere zorion pribatuan izanen lukeen hobekuntza eta emakumearentzat inoren nahiaren pean egotetik arrazoian oinarrituriko askatasun bizitza edukitzera dagoen aldea. Janari eta jantzi premia primarioak aseta, askatasuna da giza izaeraren lehenengo behar indartsuena. Gizakiek legerik gabe zeudenean, legerik gabeko askatasuna irrikatzen zuten. Betebeharraren esanahia eta arrazoiaren balioa ulertzen ikasi zutenean, gero eta joera handiagoa dute bi horiek gidari eta galga dituztela jokatzera beren askatasunaz baliatzean; baina horregatik ez dute gutxiago maite askatasuna; ez daude prest inoren nahia printzipio gidari horien ordezkari eta interpretetzat hartzeko. Aitzitik, arrazoi-mena gehien landu duten eta betebeharraren sozialaren ideia errotuen eduki duten komunitateak dira norbanakoaren ekintza askatasuna, nor bere portaera betebeharrak duen iritziaren arabera eta bere kontzientziak onarturiko gizarte lege eta mugen arabera gobernatzeko askatasuna, indartsuen baieztatu dutenak.

Pertsonaren independentziak bere zorionerako zenbat balio duen behar bezala neurtzeko, pentsa dezagun nolako balioa ematen diogun guk geuk geure izatearen osagai gisa. Gai horrexetan dago alderik handiena norberari buruz iritzia ematek beste norbaiti buruz iritzia ematera. Baten bat entzuten dugunean kezka esaten ekintza askatasunik ere ez diotela ematen, bere asuntxoak nahi duen moduan

konpontzerik ere ez daukala, zera galdetzeko gogoia etortzen zaigu: Zer arraio gertatzen zaio honi? Zertaz da kexu? Zertan daude beronen asuntoak gaizki eramanda? Eta galderoi erantzutean hura benetan kalte-tuta ateratzen ez dela ikusten badugu, entzungor egiten diogu eta haren kexuak ezerk ere kontentatzen ez duen jende kexatiaren irudizko zinkurintzat hartzen ditugu. Baina geure buruaz iriztean zeharo diferente pentsatzen dugu. Orduan, tutore zintzoenak egindako gure interesen administrazio-rik garbienak ere ez gaitu inola ere konforme uzten; erabakiak hartzen dituen agintetik kanpo gelditu beharra bidegabekeriari-rik handiena iruditzen zaigu, administrazio txarraren arazoa eztabaidatzen hasi beharrik ere ez ikusteraino. Gauza bera gertatzen da nazioetan. Herrialde aske bateko zein herritarrek onartuko du bere nazioa ezin hobeto eta trebeki-ago administrazteko eskaintza, askatasunari uko egitearen truke? Burujabetzarik gabeko herri batean administrazio on eta trebea egon daitekeela sinetsi ahal balu ere, herri horren izangoa eraikitze-ko erantzukizun moralaren kontzientzia ez ote litzateke izan- den konpentsazio nahikoa herri horrek bere burua gobernatzean izandako trebetasun falta eta akatsak berdintze-ko? Egon gaitze-zen ziur gizonek askatasunari buruz sentitzen duten guztia emakumeek ere maila berebe- rean sentitzen dutela. Herodotoren garaie- tatik hona gobernu libre-ak ingurua nobletze-ko duen eraginaz esan edo idatzi den guztia –ahalm- en guztiei ematen dien bizitasuna eta eragiten dien jauzia, adimenari eta sentimenduei eskaintzen dien jomuga handi-ago eta ederragoak, sortarazten duen herri-ko arazoekiko ardura desinteresatua, baita betebeharrarekiko ikuspegi bare eta zabalagoak ere, eta gizabanakoa izaki moral, espiritual eta sozial gisa gailurrerai- no jasotze-ko egiten duen ahalegin guztia – maila berean da egia hala gizonei nola emakumei dagokienez. Ez ote dira gauza horiek guztiak norbanakoaren zorionaren osagai inportanteak? Gogora dezagun gizo- nok zer sentitu genuen haurtzarotik –hau da, gurasoek eta nagusiek, maitasunez eta txeratsu baina, ezarritako babes eta kontrolpetik – irten eta gaztaroko erantzukizunak onartzean. Ez al zen izan pisu handi bat gainetik kentzearen edo lokarri eragozgarriak, mingarriak segurutik ez baina, askatzearen antze-ko zerbait? Ez al ginen sentitu lehen baino bi aldiz bizi-ago, lehen baino bi aldiz gizonago? Emakumeek horrela- ko sentipenik ez dutela pentsatzen al dugu gizonok? Harrigarria da nonbait gizonik gehienek beren buruarekin justuak izatea eta beren kasuan arrazoa argi ikustea eta beren duintasunari zor zaizkion sakri-

fizioak ezagutzea, baina beste jende baten kasuan horrelakorik ez ikustea eta haiek askapena lortzeko erabilitako jokaera beste ezer baino gutxiago justifikatzea. Agian hori gizonek beren sentimenduak berba limurtzailez janzten dituztelako gertatzen da, ez direlarik ohartzen zer nolako eragin itzela duten beren bizitzan. Sentimenduon eragina, ziur egon gaitezke, ez da txikiagoa ez motelagoa emakumeen bizitzan. Emakumeak sentimendu horiek, euron adierazpide natural eta osasungarriean, ezabatzeko hezten dituzte, baina barne bultzadak hantxe dirau emakumeen baitan eta beste era batera agertzen da kanpora. Gogamen eginzale eta kementsu batek, askatasuna ukatzen zaionean, boterea bilatuko du: bere buruarengan agintzea ukatu zaiolarik, besteak menpean hartzen ahaleginduz berretsiko du bere nortasuna. Gizakiei beren existentzia propioa edukitzen ez lagatzea, inorenean baino bizitzen ez uztea, gizakiok besteak euren esanetara makurraraztera bultzatzea da. Askatasuna espero izaterik ez dagoenean, bai, ordea, boterea, boterea bilakatzen da giza desiraren helburu nagusi; beren asuntoak lasai kudeatzen uzten ez zaienak, beste batzuen aferetan interes egoistaz muturra sartuz kontsolatzen dira. Hortixe dator emakumeek beren burua edertzeko, janzteko eta arrandiaz agertzeko duten grina ere, baita bertotik luxu, zarrastelkeria eta ezmoraltasun sozial gisa sortzen diren gaitz guztiak ere. Botere gosea eta askatasunarekiko maitasuna amairik gabeko antagonismoan daude. Askatasuna urriagoa den nonahi, botere gosea gartsuagoa eta eskrupulurik gabekoagoa da. Besteengan boterea edukitzeko irritsa gizateria gaitzotuko duen indarra izanen da beti, harik eta gizabanako oro bere buruarengan agintzen hasi artean, eta hori askatasun indibidualarekiko errespetua tinko ezarritako printzipioa izanen duten herrialdeetan bakarrik gertatuko da.

Baina duintasun pertsonalaren sentipena bakarrik ez da gizonok eta ez gutxiago emakumeak, geure ahalmenak nork berak nahi duen norabidean askatasunez bideratu eta eratu ahal izatean zorion iturri bat eta bide horretan oztopoak eta murrizketak jasatean zorigaitz iturburu bat aurkitzera garamatzana. Gaixotasuna, pobrezia eta erruaren harra kenduta, bizitzaz pozik gozatzeko ezer hondagarriagorik ez dago, geure ahalmenen jarduna bideratzeko balioko digun ibilgu baten falta baino. Familia zaintzeko ardura duten emakumeek, horretan diharduten artean, badute ibilgu hori, eta eskuarki horrekin nahikoa

izaten dute; baina zer irtenbide dute ironiaz euren bokazio berezitzat aurkezten dieten ama eginkizunean jarduteko aukerarik ez duten eta gero eta gehiago diren emakumeek? Zer irtenbide dute seme-alabak heriotzak kendu edo negozioek urrundu dizkieten emakumeek, edo haurrak hazi, ezkondu eta beren familiak sortu dituztenean? Mila dira, bizitza osoan negozioetan jardun ondoren, beren ustez atsedenez gozatzeko moduan erretiratzen diren gizonak, baina, lehengoak ordezkatzeko moduko interes eta eragingarririk aurkitzen ez dutenez, ezer egin gabeko bizitzak aspertzea, malenkonia eta heriotza goiztiarra dakartzkienak. Inork ez du, alabaina, pentsatuko antzeko zerbaiz gertatzen zaiela beste hainbeste emakume baliozko eta leiali ere, zeren, gizarteari zor omen diotena ordaindu ondoren, beren seme-alabak akatsik gabe hazi eta hezi ondoren, etxea zuzendu beharra ukan dutenei no etxea zuzendu ondoren, egiten zekien lan bakarra utzi beharra ukan baitute eta lanerako gaitasuna urritu gabe baina zereginik gabe gelditzen baitira, alaba edo errainen batek beren ardurapean utzi ezean familia berrian etxekoandreari dagozkion zereginak. Zahartzaro tristeia munduak euren gizarte eginbehar bakartzat duena euren ardurapean izan duten denbora guztian duintasun handiz bete izan duten emakumeentzat. Emakume horientzat eta eginbehar horren ardura hartu ez duten beste guztientzat –zapuzturiko bokazioaren eta lanbide batean gauzatu ezin izan duten jardunaren kontzientziarekin bizitza guztian zehar gogogabeturik bizi izan direnak beraiek– irtenbide bakarrak, eskuarki, erlijioa eta karitatea dira. Baina euren erlijioa, sentimenduzkoa eta elizkizunez betea izan liteke, baina ezin da ekintzazkoa izan, karitatearen bidetik ez bada. Emakume asko berebizikoak dira izaeraz karitaterako; baina karitatea probetxuz edo behintzat ondorio txarrik gabe praktikatzeke, administratzaile abil baten heziketa, prestakuntza betea, eta adimen ahalmenak behar dira. Gobernatzeko funtzio administratibo gutxi daude, karitatea probetxuz kudeatzeko gai denak gaitasunez burutu ezin dituenak. Kasu horretan eta beste batzuetan (batez ere seme-alaben hezkuntzan), emakumeek ezin dituzte egokiro bete ezarri dizkiegun betebeharrak ere, legeak galarazten dizkietenak betetzeko prestakuntzarik hartu ez dutenez gero, gizartearen galera handirako. Zilegi bekit orain gogoraraztea emakumeen ezgaitasunen auzia agertzeko, gure argudioei erantzun beharrean, lau bufoikeriaz guztia konpontzen dutenek maiz erabiltzen duten bide berezia. Emakumeen gobernatzeko gaitasuna eta aholku zuhurak Estatuko aferetan batzue-

tan baliagarriak izan litezkeela iradokitzen dugunean, aurkari txantxazale horiek munduko ikuskizunik barregarriena muntatzen dute, parlamentua edo ministerioa etxeko egongelatik, bertan dauden bezalaxe, Komunen Ganbarara eramandako hamazortzi eta hemeretzi urteko neskaz, edo hogeita gutxi urteko alarguntsaz beterik ipinita. Ahantzi egiten dute gizonezkoek normalean ez direla adin horretan hautatzen Parlamenturako ez ardurazko eginkizun politikoak betetzeko. Zentzunak esan behar lieke horiei ezen, eginkizun horiek emakumeen ardurapean jarriko balira, ezkontzarako bokazio berezirik ez dituztenentzat izanen liratekeela, edo, beren ahalmenak beste zer baitetan erabili nahiago izanik (egun ere emakume askok nahiago baitute eskuragarri dituzten lanbide ohoragarri urrietakoren batean jardun, ezkondu ta bizi baino), beren gaztaroko urterik onenak gogoko dituzten lanbi-deetarako prestatzen emandakoentzat. Arlo politikoan, beharbada gehienetan, berrogei-berrogeita hamar urteko alarguntsa eta emazteak sartuko lirateke, ikasketa egokiz prestaturik, familia barruan harturiko esperientzia eta gobernatzeko dohainak eremu zabalagoan erabili ahal izanen lituzketenak. Ez dago herrialderik Europan, non gizonik baliozkoenak ez duten probatu eta biziki estimatu munduko emakume buruargi eta esperientziadunen aholkua eta laguntza, helburu pribatu zein publikoak erdiesteko; eta administrazio publikoko gai inportante askotan, besteak beste gastuen kontrolpe zehatzean, gizon gutxik du emakume horiek bezainbesteko gaitasuna. Baina orain ez gara ari aztertzen zein beharrezkoak diren emakumeen zerbitzuak asuntso publikoetan, baizik zein bizitza hits eta esperantzarik gabekora kondentatzen ditugun, euretako askok arazo politikoetarako dituzten dohainak gaurkoa baino eremu zabalagoan, batzuek beti eta beste batzuek jada itxita dutenean, erabiltzea debekatuz. Gizakien zorionerako garrantzi ezin handiagoa daukan zer bait baldin badago, norbere ohiko langintza gogoko izatea da hori. Bizitza zoriontsurako baldintza hori oso eskas ziurtaturik edo zeharo ukaturik dauka gizateriaren zati handi batek, eta berori falta dutelako askoren bizitzak porrot handia dira, nahiz eta, itxuraz, arrakastatsu izateko baldintza guztien jabe izan. Baina gizarteak oraindik gaingitu ezin dituen zirkunstantziek porrot horiek oraingoz ekidinezin bihurtzen badituzte ere, gizarteak berak ez ditu inola ere eragin behar. Guraso buruarinek, gazteriaren esperientziarik ezak, norberari dagokion bokazioa zein den jakiteko aukera faltak eta norberari ez dagokiona ezagutzeko aukerek gizon asko konde-

natzen dituzte bizitza guztian eurentzat zentzurik ez duten eta gorrotatzen dituzten gauzak egiten jardutera, beste gauza batzuetan, ordea, ongi eta gustura jardunen luketenean. Baina emakumeen kasuan legea bera, eta legearen baliokidea den ohitura, da epai hori ezartzen diena. Gizarte ezikasietan zenbait gizonentzat kolorea, arraza edo, konkistaturiko herrialdeetan, naziotasuna direna da sexua emakume guztientzat; ezinbestez ia langintza ohoragarri guztietatik kanpo gelditu beharra, besteek bete ezin dituzten edo onargarritzat ez dituzten lanetatik izan ezik. Horrelako kausetatik datozen sufrimenduek hain sinpatia gutxi aurkitu ohi dute jendearengan, non gutxi jabetzen diren alferrik galdutako bizitzaren sentipenak egun ere sortarazten duen zorigaitz handiaz. Sufrimenduok handiagoak eta ohikoagoak izanen dira, gero eta handiagoa den eskolatzeak emakumeen ideia eta ahalmenen eta gizarteak euren jarduerari ezartzen dion mugaren artean gero eta alde handiago sortzen duen heinean.

Pentsamendura dakardanean deskalifikazioak giza espeziearen erdiari ekarritako benetako okerra –lehenik gozamen pertsonal adorgarri eta jasoena galaraziz eta gero bizitzaz gogaituta, sakonki etsita eta inolako pozik gabe utziz–, ongi ulertzen dut gizakiei lurlean egokitu zaien zoriaren miseria ekidinezinen kontra borrokatzeko behar dituzten gauza guztien artean premiazkoena naturak ezartzen dizkien gaitzei jelsiaz eta aurreiritziz jokatuta elkarri murriztapenak jarritz beste gaitzik ez eransten ikastea dela. Gure errezelo hutsek arrazoirik gabe ditugun gaitzen ordeztu beste gaitz okerrago batzuk ekarri besterik ez dute egiten; eta bitartean lagun hurkoen jokaera-askatasuna mugatzen duen murriztapen orok (egindako gaitzen erantzule direla frogatzen ez duten arrazoiengatik) *pro tanto* agortzen du giza zorionaren iturburu nagusia eta gizateria ezin sinesteko mailara jaitsiz pobretzen du, gizaki bakoitzari bizitza eder eta baliotsu bihurtzen dioten elementu guztietan.

Oharrak

¹ De Staël andrearen *Delphineren* azala.

² Hori bereziki egia da Asia, baita Europa ere, kontuan hartuz gero. Indiako printzerri bat sendotasunez, arduraz eta ekonomiaz gobernatuak badago, ordenua zapalkuntzarik gabe zaintzen bada, kultura eta oparotasuna herrian zabalduz badoaz, printzerri hori lautik hirutan emakume baten agindupean dago. Datu hori, niretzat erabat ustekabekoa, Indiako gobernuen ezagutza ofizial luzea izan ondoren atera dut. Horrelako kasu asko daude han, zeren indiarren instituzioen arabera, emakumeak erregina izaterik ez badu ere, erresumako legezko erregeordea da oinordekoa adin txikikoa den artean; eta adin txikitasuna maiz gertatzen da han, gizonezko agintariek maiz hiltzen baitira gazte alferkeriaren eta gehiegikeria sentsualen ondorioz. Kontuan hartzen baldin badugu printzesa horiek inoiz ez direla publikoan agertzen, inoiz ez dutela hitz egin gizon batekin, ezta bere familiakoekin ere, gortina baten atzetik izan ezik, ez dutela ezer irakurtzen, eta irakurtzen badute ere, ez dagoela euren hizkuntzetan politika gaiei

buruzko irakaspen txikienik eman liezaiekeen libururik, benetan da harrigarria emakumeen gobernatze-ko berezko gaitasunaren inguruan dakarkiguten erakutsia.

³ «Badirudi gauzak ikusteko era zuzen bera dela gizakia apaingarrietan nahiz arteko printzipio irmoenetan *egia* edo egokia denaren ideia zuzena atzemateko gai egiten duena. Apaingarriek perfekzio zentro bera daukate, zirkulu txikiagoaren zentroa bada ere. Jantzi moda bidez, zeinetan gustu ona edo txarra eduki daitekeen, argi daiteke hori. Jantziaren osagai diren atalak etengabe aldatzen dira handitik txikira, laburretik luzera; baina, hala ere, forma orokorrak lehenean dirau: jantzi bera da oro har eta erlatiboki finkoa da, nahiz eta oinarri ahula ukan, baina horrexetan datza moda. Arrakastarik handienaz asmatzen duenak edo gusturik onenarekin jantzen denak, helburu handiagoe-tarako erabiliriko azkartasun beraz, trebetasun berdina deskubritu du edo gustu egoki bera eratu du arteko lan gorenetan». (Sir Joshua Reynolds-en *Discourses*, VII. Hitzaldia).

SOZIALISMOARI BURUZKO
KAPITULUAK
[1879]

ATARIKO OHARRA

Mill jaunak 1869an hartu zuen sozialismoari buruzko liburu bat idazteko erabakia, harrituta baitzegoen, aurreko hogeitaz urteetan, mundua beste gai batzuez arduraturik zebilela zirudienean, pentsalari espekulatiboen ideia sozialistek herrialde zibilizatu guztietako langileen artean izandako hedapen izugarria ikusita. Uste osoz sinetsita gizarte modernoaren joera ekidinezinak gero eta indar handiagoz zihoazela gai horretan inplikaturiko arazoak lehen planoan ipintzera, pentsatu zuen balio praktiko handikoa izanzen zela arazook osoki eta inpartzialki aztertzea, baita teoria espekulatiboki ongien frogatuak indarrean zegoen gauzen ordenari, sufrimendua luzatu gabe alde batetik eta beharrianik gabeko istilurik sortu gabe bestetik, aplikatu ahal izateko moduko ildoak seinalatzea ere. Mill jaunak, beraz, gai guztia zehatz-mehatz eta puntuz puntu aztertuko zuen lan bat planteatu zuen; eta orain inprimatzen diren lau kapituluak lan horren oinarri gisa idatziriko lehen zirriborroak dira. Autorearen ohiturari jarrai, kapitulu hauek ez ziratekeen agian oraingo ordenan argitaratuko, baldin lan hura osorik idatzi eta gero berridatzi izan balitz; beharbada lanaren parte diferenteetan sartuko ziratekeen. Zalanza asko izan ditut aldizkari honen editoreak kapituluok munduari eskaintzeko agerturiko gogo biziari baiezkota eman aurretik; baina onartu egin dut haren eskaria, kapituluok, ene ustez, berezko balio handia eta aldi berean orain publikoaren arreta berenez erakartzen duten arazoetarako aplikazio

berezia izatez gain, berauen autorearen ospe literarioa ere ez dutelako, nik uste, gutxituko; aitzitik, obra on bat burutzeko pazientzia handiz egin beharreko lanaren eredu bat izanen dira.

Helen Taylor
1879, urtarrila

SARRERA

Atlantiko haraindiko herrialde handian, jada munduko ia herrialderik boteretsuena denean eta laster ia gabe eta inolako zalan-tzarik gabe izanen denean, gizonezkoen sufragioa da nagusi. Horrelakoxea da nolakotasun politikoa Frantzian ere, 1848az geroztik, eta izaten hasi berri da Germaniar Konfederakundean ere, hura osatzen duten estatu guztietan ez baina. Britainia Handian sufragioa ez dago oraindik hain zabal hedatuta, baina azken Erreforma Legeak asteroko soldatatik bizi direnen hain multzo handia onartu zuen, esaten den moduan, Konstituzioaren baitan, non horiek, bat eginda klase gisa jokatzea erabaki eta gure egungo instituzioek ematen dieten hautetes-botere guztiak helburu komun batekin erabiltzen hasi bezain laster eta nahi bezain maiz, nagusitasun osoa ez bada ere, oso eragin handia ukanen duten legerian. Horiexek dira orain, maila garaietako jendeak esaten duenez, herrialdean benetan ere arriskurik ez duten klaseak. Ukan, beraiek dute, jakina, arriskurik handiena, eguneroko ogia oparotasuna lortzearen mende dutenez gero. Baina ez dute horiek, euren interes bereziren batek eraginda, jabetza egun dagoen moduan eta are gutxiago bertatik datozen ezberdintasunak defenditzeko konpromisorik (ez daude horretarako erosita, esan genezake). Beraien boterea edo gerora ukan dezaketena iritsi ahal den punturaino, jabetza legeek, iraun ahal izateko, izaera publikoko planteamenduen mende, hau da, legeok denon ongizaterako dakartenagatik merezi izanen duten esti-

mazioaren mende egon beharko dute, eta ez Gobernuaren kontrola daukatenen buruetan eragina duten motibo pertsonal hutsen mende.

Uste dut oraindik ez dutela guztiz atzeman aldaketa horren handia ez berorren kontra azaldu zirenek, ez gure azken konstituzio-aldaketa egin zutenek. Egia esateko, ingelesek aldaketa politikoen jorez dituzten pertzepzioak kamuts samarrak dira. Hain aldaketa asko ikusi dute eginda, aldez aurretik onerako zein txarrerako itxarobide handiak sortu dituztenak, baina auresandakoetatik oso urrun geldituriko mota bietako ondorioak ekarri dituztenak, non sinestera heldu diren aldaketa politikoek, izaeraz, ez dituztela itxaropenak betetzen; erdi oharkabe zera uste izateko aztura hartu dute, hartu ere, aldaketa horiek, beti ere iraultza bortitzez burutzen ez direnean, ez dutela praktikan, luzaz bederen, herrialdeko gauzen ohiko martxa asko aldatzen edo aldrebesten. Hori, alabaina, azaleko ikuspuntua da hala iraganari nola etorkizunari buruz. Azken belaunaldi bietan izandako erreformak auresan bezain fruitukorrak behintzat izan dira ondorio garrantzitsutan. Auresanak ez ziren maiz bete ondorioen bat-batekotasunari dagokionez, eta batzuetan ezta ondorio motari dagokionez ere. Barre egiten dugu askapen katolikoak Irlanda baretu eginen zuela edo britainiar gobernuarekin adiskidetuko zuela pentsatzen zutenen itxaropen hutsalak ikusita. 1832ko Erreforma Legeaz geroztiko hamargarren urtean, gutxik segitzen zuten pentsatzen lege horrek bidegabeke-ria inportante guztiak kenduko zituela, edo sufragio unibertsalerako atea zabalduko zuela. Baina beste hogeita bost urtek haren zeharkako eragin handia garatzeko eremua eskaini dute, zuzenekoak baino garrantzi handiagoa duen eragina bera. Bat-bateko ondorioak historian azalekoak izaten dira normalean. Etorkizuneko gertakarien barrena sakon sartzen diren kausek astiro eragiten dituzte beti beren efektuaren zatirik inportanteenak; horregatik, denbora daukate ohiko bihurtzen den gauzen ordenaren osagai izatera heltzeko, jendea sortarazten ari diren aldaketez konturatu aurretik, zeren, aldaketak nabari izatera heltzen direnean, behatzaile azalekoek ez dute ikusten aldaketok kausa horrekin inolako lotura berezirik dutenik. Gertakari politiko berri baten geroagoko ondorioak ia inork ere ez ditu ulertzen gertatzen direnean, aldez aurretik antzeman zaienean izan ezik.

Antzemate hori garaiz egitea bereziki erraza da 1867ko Erreforma Legeak gure instituzioetan eragindako aldaketaren joerei

buruz. Legeak langile klaseen eskueran jartzen duen hautes-indarra-
ren gehikuntza itzela iraunkorra da. Orain arte botere horren oso era-
bilera mugatua egin izana ekarri duten zirkunstantziek aldi baterako-
ak dira muin-muinean. Behatzaile eskasena ere badauki langile kla-
seek klase moduan dagozkien helburu politikoak dituztela, eta edu-
kitzeko eskubide osoa dutela, eta helburuoi buruz uste dutela, zuzen
edo oker, klase boteretsuen interesak eta iritziak euren kontrakoak
direla. Politikan izan daitekeen neurrian gauza ziurra da ezen, helbu-
ruon bilaketa hauteskundeetarako antolakuntzarik ezagatik, euren
arteko eztabaida liskartsuengatik edo euren gurariak forma praktiko
batean behar bezain zehazki biltzea lortu ezagatik gehien atzeratuta
ere, laster aurkituko dituztela euren talde botere elektorala talde hel-
buruak lortzeko tresna eraginkor bihurtzeko bitartekoak. Eta hori
egitea lortzen dutenean, ez da izanen makineria legal eta instituzio-
nala erabiltzen ohitu gabe dagoen jendeari dagokion modu desorde-
natu eta eraginik gabekoan, ezta berdintasuna lortzeko sen soilaren
bultzadaren bitartez ere. Tresnak prentsa, mitin publikoak eta elkar-
teak izanen dira, baita Parlamentuan langile klaseen xede politikoe-
tan engaiaturiko ahalik jenderik gehien sartzea ere. Xede politikoak
doktrina politiko zehatzek erabakiko dituzte; izan ere, politika orain
zientifikoki estudiatzen da langile klaseen ikuspegitik eta klase
horien interes bereziko pentsaturiko iritziak errebindikazioak filo-
sofia politikoko plataforman leku bat izateraino hedatzen diren sis-
tema eta kredoretan antolatzen dira, aurreko pentsalariek landuriko
sistemen eskubide berarekin. Horregatik, oso inportantea da haus-
narketa egiten duten guztiek aldeztu aurretik aintzat hartzea kred-
o politiko herritar horiek zer izanen diren segur aski, eta kred-
o horien artikul-
u bakoitza ikerketa eta eztabaida zorrotzenen argipean jartzea,
horretarako sasoia helduta, ahal izanez gero, zuzenetik dutena hartu
eta okerretik dutena errefusatzeko gehien adostasunez; eta, era
horretan, zaharraren eta berriaren artean elkarren kontrako gatazka
bat sortu beharrean, bat-
aren eta bestearen alderdi onenak konbinatu
ahal izateko gizarte ehundura ber-
ritu batean. Belaunaldi baten tarte-
a daukagu gutxi gorabehera bortizkeria fisiko barik egin diren alda-
ke-
ta handi horien bake arruntean, eta horixe behar bezala erabiltzearen
mende dago instituzioak gizartearen egoera aldatu-
ra egokitzea
aurreikuspen zuhur baten ala elkarren aurkako aurreiritziek eragin-
dako gatazka baten lana izatea. Gizateriaren etorkizuna arrisku

larrian aurkituko da, baldin auzi nagusiak ezjakinen aldaketaren eta ezjakinen aldaketaren aurkakotasunaren arteko borrokak erabaki ditzan uzten baditugu.

Eta orain behar dugun eztabaidak egungo gizartearen lehen printzipioetaraino iristeko modukoa izan behar du. Oraintxe probatuko da berriro aurreko belaunaldiak eztaba daezintzat onarturiko funtsezko doktrinek balio dutenentz. Gure aldi honetara arte, jabetzaren instituzioa, iraganetik helarazi zaigun moduan, ez du inork, idazle espekulatibo gutxi batzuk salbu, seriozki auzitan jarri, iraganezko gatazkak klaseen arteko gatazkak izan direlako beti, klase bakoitzak bere interesa izan duelarik egungo jabetzaren eraketan. Ezinen da segitu horrela luzaroago. Eztabaidak berena den jabetzari, ia inolakorik ere, ez duten eta instituzio honetan interesa onura publikoa den neurrian soilik duten klaseak barne hartzen dituelarik, ez dute horiek ezer bermatutzat joko, ez behintzat jabetza pribatuaren printzipioa, langile klaseen ikuspuntutik arrazoitzen duten askok beronen zilegitasuna eta baliagarritasuna ukatzen dituztenez gero. Klase horiek dudarik gabe eskatuko dute gaia errotik berraztertzea bere alderdi guztietan, baita instituzio hau barik jokatzeko proposamen guztiak eta langile klaseen aldeko izanen direla diruditen bera aldatzeko erak ahalik zehatzen aztertu eta eztabaidatzea ere, gaia zegoen bezala uztea erabaki aurretik. Herrialde honi (Ingalaterra) dagokionez, langile klaseen jarrerak jabetza sistemaren bazterreko alderdi batzuen kontra bakarrik egon dira. Euretariako askok soldata kontuak jabetza pribatuaren atribuzio bat den kontratazio askatasunetik bereizi nahi dituzte. Gogorrenek lurra inola ere ez dela jabetza pribaturako gai egokia diote, eta agitazioa bultzatzen hasi dira, jabetza Estatuak birberegana dezan. Horrekin batera, agitatzaile batzuen hitzaldietan, eurek lukurreria deitzen dutenaren salaketa erabiltzen da, baina lukurreria hitzaz zer esan nahi duten zehaztu gabe; eta kalapitak ez dirudi etxean sortua, baizik Lan Kongresuaren (*Labour Congress*) eta Elkarte Internazionalaren (*International Society*) bidez sozialista kontinentalekin hasitako harremanetan eskuratua; sozialista kontinentalak diruak emandako interesaren kontra daude eta lana ez den beste ezein jabetza pribatutik errentarik ateratzearen zilegitasuna ukatzen dute. Doktrina horrek ez du oraindik erakutsi Britainia Handian nagusi izateko seinalerik, baina lurra prest-prest

dago beronen haziak hartzeko: atzerriko herrialde horietatik, non teoria orokorrak eta agintzari handiz beteriko eskemak, mesfidantza sortu beharrean, kausa baten herri onarpenerako funtsezkoak diren, zabal barreiaturiko haziak. Jabetzaren kontrako doktrinek Frantzian, Alemanian eta Suitzan limurtu dituzte zentzurik zabalenean langile multzo handiak doktrinon inguruan biltzera. Herrialde horietan gizartea langile klaseen alde erreformatzearen alde dagoen ia orok sozialistatzat aitortzen du bere burua, oso izaera ezberdineko eskemak hartzen eta nahasten dituen izendapena berori, baina, gutxienez, jabetza pribatua abolitzera doan birmoldaketa orokor bat inplikatzeko duena. Eta segurutik egiazta liteke, Ingalaterran ere, langile klaseetako buruzagi gailenen eta eraginkorrenak ere, normalean, sozialistak direla beren kredo pribatuan, nahiz eta, politikari ingeles gehienek bezala, Kontinenteko kideek baino hobeto jakinik gizarte-riaren oinarritzko ideien aldaketa sakon eta iraunkorrak ez direla *coup de main* batez burutzen, beren ahalegin praktikoak errazago eskura daitezkeela diruditen xedeak lortzera bideratzen dituzten, pozik agertzen direlarik ertzeko teoria guztiak geroratzuz, harik eta printzipio berek eskala partzialen batean eragina dutela esperimintatu arte. Langile klase ingelesez izaerak, ingelesez oro har bezala, horrelakoa izaten segitzen duen bitartean, ez da oso daitekeena atzerriko sozialista batzuen ertzekokerietan muturrez aurrera erortzea, zeren horiek, Suitza neurritsuan bertan ere, pozik agertzen baitira subertsioetik besterik gabe hasteaz, ondorengo berreraiketa bertan behera utzita; eta subertsioa esatean, gobernu oro deuseztatzea ez ezik, mota orotako jabetza jabeei eskuetatik kentzea esan nahi dute, denon onerako erabiltzeko; baina, hori nola egingen den zehazteari dagokionez, gero egonen dela horretarako denbora nahikoa esaten dute.

Egunkari publiko batek –elkarte baten organoak (*La Solidarité*, Neuchâtel-en argitaratua)– doktrina hori aitortu izana garai honen ezaugarriarik bitxienetakoa da. Ingeles langileen buruzagiek –langileon ordezkariak neurri handian lagundu baitute Geneva eta Basileako kongresuetan erakutsitako zentzun praktikoa lortzen– ez daude segurutik prest anarkiatik hasteko, gizarte zaharraren lekuan zein berri jarriko den lehenago aztertu eta horren inguruan iritziz bat egin aurretik. Baina begi-bistakoa da ezen, proposatzen dutena proposatu, pro-

posamenaz egokiro iritzi ahal izateko eta iritzi horren arrazoiez jendea oro har konbentzitzeko, ezinbestekoa izanen dela aldez aurretik elkarren kontrako teoria biak aztertzea, jabetza pribatuarena eta sozialismoarena, batak edo besteak eman behar dizkigularik nahitaez eztabaidako premisarik gehienak. Horregatik, horrelako gaiak zehaztasunez eta probetxuz eztabaidatzeko gai izanen bagara, aholkagarria da lehenago sozialismoak sorturiko arazoak oinarrietatik aztertzea. Eta azterketa hori kontrako aurreiritzirik gabe egin beharko da. Jabetza eskubidearen aldeko argudioak antzina-antzinako ohituraren eta norbere interesaren ospe bikoitza aurkitzen diotenentzat errefutaezinak izan arren, gauzarik naturalena da politikaz espekulatzen hasia den langileak argudio horiek beste argipe zeharo ezberdin batean ikustea. Herrialde batzuetan, borroka luzeen ondoren erdietsi delarik jada, eta beste batzuetan ia erdietsi delarik, eskubide soilki politikoetan, euren ustez behintzat, aurrerapen gehiagorik egiterik ez dagoen puntua, daitেকেনা ote da klase txiroetako «gizonezko helduek» ez galdetzea euren buruei ea hor geratu behar duen aurrerapenak? Boto eskubidea zabaltzeko egin den eta eginen bide den guztia aintzat hartu arren, gutxi batzuk aberastasunez gainezka bizitzeko jaio dira, beste batzuk, ordea, gehienak, pobrezian bizirauteko, kontrasteak are latzago bihurtzen duen pobrezian. Gehien-gehiengoa ez dago jada esklabo bihurtuta edo menpetasunera behartuta legearen indarrez, baina bai pobrezia-aren indarrez; oraindik ere postu batera, lan batera eta enplegatzaile baten nahiarekiko menpetasunera lotuta dago, baita, jaiotzako akzidentea dela eta, beste batzuek beren aldetiko ahaleginik eta merezimendurik gabe heredatzen dituzten hala gozamenetatik nola abantaila intelektual eta moraletatik kanpo utzita ere. Pobreak ez daude oker uste dutenean gaitz hori gizateriak orain arte aurre egin dienetako ia beste edozein gaitzen bestekoa dela. Beharrezko gaitza al da? Baietz esan diete pobreziarik bizi izan ez dutenek, bizitzako loterian sari handiak egokitu zaizkienek. Baina esklabotasuna, despotismoa eta oligarkiaren pribilegio guztiak beharrezkoak zirela ere esan zuten. Klaserik pobrenek hurrenez hurren egin dituzten aurrerapauso guztiak, aldez boteretsuen sentimendu hobeei esker egindakoak, aldez haien beldur-reei esker erdietsiak eta aldez diruz erosiak edo boteretsuen sektore bati beste batekin izandako liskarrean emandako laguntzaren truke lortuak, aurreiritzirik gogorrenak ukan dituzte kontra aldez aurretik; baina eurok lortzea menpeko klaseek eskuraturiko boterearen seinale

izan da, klase horiek gehiago eskuratzeko bide bat; ondorioz, klase horiei botereari eskaintzen zaion begirunearen parte bat ekarri zien eta horren araberrako aldaketa bat eragin zuen gizarteak klase horiei buruz duen ustearen. Lorturiko abantaila guztiak klaseoi zegokien eskubide-tzat hartu zituen gizarteak, oraindik eskuratu gabekoak, ordea, inola ere merezi gabekotzat. Horregatik, gizarte sistemak menpeko bihurtzen dituen klaseek ez daukate arrazoi modurik gizarte sistema berak printzipio gisa ezarritako maximetan sinesteko. Gogoan harturik miragarriro malgutzat jo izan diren gizateriaren iritziek dagoena ontzat jotzera eta oraindik existitzen ez dena kaltegarri edo eginezin deklaratzera jotzen dutela, zer segurtasunez onar dezakete klase horiek aberatsen eta pobreen arteko bereizpen horren beharrezkotasu-nak oinarri hobea duela, abolituak izan diren arren, aspalditik ezarri-takoak diren eta lehenago beraietatik probetxu ateratakoek kondenatzen ez dituzten gertakari horien beharrezkotasunak baino? Hori ezin da onartu parte interesatu batak dioelako. Langile klaseek eskubidea dute gizarte instituzio guztien eremua berraztertzea izan dadin eta azterketan auzi oro lehenengo aldiz oraintxe sortua balitz bezala har dadin erreklamatzeko, beti ere begien bistatik kendu gabe edukita konbentzitu behar diren pertsonak ez direla beren erosotasuna eta garrantzia egungo sistema honi zor dizkietenak, baizik gai horretan justizia abstraktua eta komunitate guztiaren ona beste interesik ez dutenak. Helburuak, bada, zera izan behar du: aurreiritzi gabeko lege-lari batek, jabetza dutenen eta ez dutenen artean erabat inpartziala litzatekeenak, zein jabetza instituzio ezarriko litzuzkeen jakitea eta gero instituzio horiek legelari horri benetan eragindako arrazoiekin, eta ez egun dagoenaren alde egiteko prestaturikoak lirudiketenekin, defendatu eta justifikatzea. Jabetzarako eskubide edo pribilegio horiek, proba hau gainditzeko gauza ez diren heinean, bertan behera utzi beharko dira lehenago edo geroago. Gainera, inpartzialtasunez entzun beharko dira jabetzaren beraren kontrako objektzio guztiak. Instituzioari bere forma onenean egotzitako gaitz eta eragozpen guz-tiak irekitasunez onartu behar dira eta, era berean, giza adimenak asma litzakeen erremedio eta leungarri onenak aplikatu. Eta gizarte-erreformatzaileek jabetzako instituzioak xede dituen onurak beronen eragozpenik barik erdiesteko proposaturiko plan guztiak, edozein ize-nez izendatuak, garbitasun beraz aztertu beharko dira, aldeztu aurretik zentzugabe edo eginezintzat jo gabe.

OBJEKZIO SOZIALISTAK GIZARTEAREN ORAINGO ORDENARI

Aldaketarako proposamen guztietan bi elementu dauden moduan, zer aldatu behar den eta zertarako aldatu behar den, halaxe sozialismoan oro har eta beraren barietateetan banan hartuta ere alde bi bereizi behar dira: bata negatiboa eta kritikoa, bestea konstruktiboa. Lehenik, sozialismoak dauden instituzio eta praktikez eta euren emaitzez duen iritzia dago; eta bigarrenik, eurok hobetzeko proposatu dituen hainbat plan. Lehenengoari dagokionez, sozialismo eskola guztiak datoz bat. Ia guztizko adostasuna dute egungo gizarteari aurkitzen dizkieten akatsetan. Puntu bateraino buruera orokor bera dute akats horiei aplikatu beharreko erremedioei buruz ere; baina xehetasunetan, adostasun orokor horren kalterik gabe, ezberdintasun handiak dituzte. Euren doktrinez iritzi bat erdiesten saiatzean, gauza naturala eta ego-kia izanen da guztiek onartzen duten alde negatiboarekin hastea eta euren arteko diferentziekiko aipamen oro euren lanbidearen bigarren parterako uztea, hantxe bakarrik baitituzte diferentzia serioak.

Gure egitekoaren lehenengo partea ez da inola ere zaila, gaur dauden gaitzak zerrendatzean baino ez baitatza. Gaitzik ez da falta eta gehienak ez dira inola ere ilunak edo misteriosoak. Asko moralisten topikorik ohikoenak dira, nahiz eta berauen erroak moralistek iritsi nahi izaten duten baino sakonago doazen. Hain dira askotarikoak, non zailtasun bakarra katalogo zehatz bat egitera hurbiltzea baita. Oraingoz garrantzitsuenetako batzuk aipatzearekin konformatuko gara. Eta gogora beza gauza bat irakurleak: zerrendan begien aurretik hurrenez hurren item bat beste baten ostean pasatzen zaionean eta berak horietan naturaren beharrianen artean sartzen ohituta dagoen gertakari bat beste gertakari baten ostean, instituzio sozialen kontra erabilita, ikusten duenean, ez daukala eskubiderik horiei bidegabeke-ria egozteko eta protestaka hasteko esanez horiek kexaz aipatzen dituzten gaitzak gizakiari eta gizarteari datxezkionak eta konponbide-rik ez daukatenak direla. Hori segurtatzea auzitan dagoen arazoan printzipio-eskabidea egitea litzateke. Inor ere ez dago sozialistak baino prestage onartzeko –esan ere, egiak bermatzen dien baino era-bakitsuago esaten dute hori– kexaz aipatzen dituzten gaitzek ez dute-la erremediorik gizartea gaur egun dagoen moduan antolatuta dagoen

bitartean. Haiek proposatzen dute aztertzea ea ezin den bururatu gaitz horien arriskurik ez lukeen edo arrisku askoz txikiagoa lukeen beste gizarte bat. Gizartea osorik harturik beronen egungo ordenari objektioak jartzen eta alternatiba gisa aldaketa oso baten posibilitatea onartzen dutenek eskubidea dute gaur gizartean, euren egoeraren zati legez, dauden gaitz guztiak seinalatzeko, gaitzok itxuraz gizarte eraketari egozgarriak izan edo ez izan, beti ere gizakiaren ahalak edo oraindik orain dituen ezagutzek kontra egin ezin dien lege fisikoetatik sortuak ez izanez gero. Gaitz moralak eta pertsona guztiek behar bezala jokatuko balute konpondu ahal izanen liratekeen gaitz fisiko guztiak bidezki egotz dakizkioke eurok onartzen dituen gizarte egoerari; eta baliozkoak dira argudio moduan, beste gizarte egoera batek gaitz horiek guztiak edo gehiago ekarriko lituzkeela demostratu ezean. Sozialisten aburuz, gizarteak jabetzari eta aberastasunaren produkzio eta banaketari dagokienez duen antolaketa erabateko porrota da. Gaitz pilo izugarria omen dago, antolaketa horrek ekidin ezin duena; sortzen duen ona, moralak edo fisikoa, zoritxarrez txikia omen da horretan jarritako ahaleginaren aldean; eta on kantitate txiki hori berori ere ondorio, fisiko eta moral, kaltegarritz beterik dauden bitartekoez erdiesten omen da.

Dauden gaitz sozialen artean lehenbizi aipatu beharrekoa pobrezia da. Jabetzaren instituzioa lanak eta urritasunak beren saria segurtatzeko eta gizateria txirotasunetik ateratzeko bideenez bultzatu eta goraipatzen da. Hori izan liteke horrela; sozialistarik gehienek historiaren lehen aldietan horrela izan zela onartzen dute. Baina instituzioek horretan orain arte egin dutena baino gehiago edo hobeto egi-terik ez badute, haien gaitasunak, diote sozialistek, hutsaren hurrengoak dira. Europako herrialderik zibilizatuenetan, populazioaren ehuneko zenbatek gozatzen du pertsonalki jabetzaren onura dela esatea merezi duen zerbaitez? Norbaitek esan dezake ezen, enplegatzaileek jabetzarik beren esku ukan ezean, langileek eguneroko ogirik gabe leudekeela; baina, hori onartuta ere, eguneroko ogia da daukaten gauza bakarra, eta berori ere ez behar adina sarri; ia beti kalitate eskasagokoa eta, gainera, edukitzen segitzeko bermerik gabe, langile klaseetako jendearen proportzio itzel bat euren bizitzakoaldi batean edo bestean, aldi baterako gutxienez, legezko edo borondatezko karitatearen mende egon behar izateraino (eta guztiak horren arriskupean ego-

teraino). Ez da beharrezko hemen txirotasunaren miseriak deskribatzen ahalegintzea edo herrialderik aurreratuenetan gizateriaren ehuneko zenbat dauden bizitza guztian euren sufrimendu moral eta fisikoe-tan bertan behera utzita kalkulatzeko ibiltzea. Filantropoei utz dakieke lan hori, beraiek baitira miseriok kolore aski gogorrez deskribatu dituztenak. Nahikoa bedi esatea Europa zibilizatuan, Ingalaterran eta Frantzia bertan ere, jendetza handien egoera guk ezagutzen ditugun tribu basati gehienetan baino zorigaitzokoagoa dela.

Norbaitek esan dezake inork ez duela aipaturiko patu latzaz kexatzeko arrazoirik, hori beste batzuek atzean utzitakoei bakarrik gertatzen zaielako, indarrez edo zuhurtziaz haien mailatik beherakoak izaki. Hori, egia balitz ere, gaitzaren aringarri eskasa litzateke. Neron edo Domizianoren batek ehun lagun nork bere bizia salbatzeko lasterketan norgehiagoka egitera behartuko balitu, azken helduko liratekeen berrogeita hamarrak edo hogeia heriotzara kondenatuak izateko baldintzaren pean, indartsuena edo arinena, zorigaitzoko ezbeharren bat gertatu ezean, heriotzatik salbatuko litzatekeela ziur egoteak ez luke bidegabekeria txikiagotuko. Miseria eta krimena heriotzara baten bat kondenatzea litzateke. Horrela gizartearen ekonomian ere, baldin baten bat badago, gabezia fisiko edo degradazio morala jasaten duena eta gorputzeko beharrak ase gabe edo patariak bakarrik pozteko moduan aseta dituen, hori, ezinbestez gizartearen krimena ez bada ere, *pro tanto* gizarte antolaketaren porrot handia da. Eta gaitzaren aringarri gisa hori guztia sufritzen dutenak fisikoki edo moralki komunitateko kiderik ahulenak direla esatea zorigaitzari iraina ghitzea da. Sufrimenduaren justifikazioa al da ahuldadea? Ez al da, aitzitik, ahula sufrimendutik babesteko gizaki orori egindako deiadarra? Oparotasunean bizi direnen buruak eta sentimenduak egoera egokian baleude, onartuko ote lukete beren oparotasuna, baldin, hura zaintze-arren, inguruan duten pertsona bakar bat bada ere, bere borondatezko hutsegitez ateko kausa bategatik, bizimodu onargarri bat erdietsi ezinik geratuko balitz?

Bada gauza bat, baieztatzerik balego, instituzioei gaitz horietan parte izatearen erantzukizun oro kenduko liekeena. Giza espezieak zoriontsu bizitzeko edo bizitzeko beste barik bere lan eta abstinentziaz datorrena beste bitartekorik ez duenez gero, ez legoke gizartearen kontra kexatzeko arrazoirik, baldin lanean eta abstinentzian

dagokien neurrian parte hartzeko prest dauden guztiek fruituetan dagokien partea hartzerik balute. Baina hori al da gertatzen dena? Ez al da hain zuzen horren alderantzizkoa gertatzen? Saria, norbanakoa-
ren lan eta abstinentziaren arabera izan beharrean, bi horien ia alderantzizko proportzioan dago: gutxien jasotzen dutenek lan eta abstinentzia gehien egiten dute. Alferrak, arduragabeak eta jokaera gaiztokoak diren pobreek eurek ere, errua euren buruei bota behar lio-
ketela arrazoi osoz esaten zaien horiek, lan handiago eta gogorragoa-
ri eutsi behar izaten diote, jaiotzaz dirua arazo ez dutenek baino eta are bizibidea euren lanaz ateratzen dutenen artean gehien irabazten
duten ia guztiek baino; eta izaeraz langileak diren txiroek euren buruari jartzen dioten kontrol desegokiak berak ere gizartearen goi
aldeko kideei galdatzen zaizkienak baino sakrifizio eta ahalegin han-
diagoak egitera behartzen ditu. Gizartearen egungo egoeran, justizia banatzailearen ideia bera, edo arrakastaren eta merezimenduaren arte-
ko edo emaitzaren eta ahaleginaren arteko nolabaiteko proportzional-
tasunaren ideia, hain nabarmenki kimerikoa da, non fantasia hutsaren mailara jaits daitekeen. Egia da norbanakoen zoria ez dela euren ber-
tute eta zuhurtziarekin zerikusirik ez duena; dohain horiek euren alde mintzo dira, baina inolako meriturik ez duten gauza asko baino askoz
gutxiago. Zirkunstantzia erabakitzaile guztietatik eragintsuena jaiotza da. Gehien-gehiengoa zertarako jaio diren, huraxe dira. Batzuk lanik
gabe aberats izateko jaio dira, beste batzuk lanaz aberasteko moduko egoeran jaio dira, gehien-gehiengoa bizitza guztian lan gogorrean eta
pobrezian jarduteko eta asko eta asko behartsu bizitzeko. Jaiotzaren hurrengo, arrakastaren kausa nagusia gertaera akzidentalak eta aba-
gunea dira. Aberastasunean jaio ez den batek aberastea lortu duenean, bere lan eta trebetasunak asko lagundu dio normalean horretan, baina
lan eta trebetasuna ez lirateke aski berauez gain jende gutxiagok ukan ohi dituen paradak eta aukerak ukan ezean. Pertsonen bertuteek lagun-
tzen baldin badiete mundu honetako norgehiagokan, bizioek ere laguntzen diete horretan, eta agian maizago, hala nola, fidelkeriak eta
salatzaile izateak, bihotz-gogorkeriak eta zikoizkeria egoistak, sale-
rosketan bala-bala erabilitako gezur eta tranpek eta, ez gutxitan, zital-
keria nabarmenak. Energiak eta talentuak bertuteak baino askoz gehiago balio dute bizitzan arrakasta edukitzeko; baina batek energia
eta talentua denen onerako den zerbaitetarako erabiliz lortzen baldin badu arrakasta, beste batek dohain horiek besteak gainditu eta lehia-

kideei porrot eragiteko erabiliz egiten du gora. Hainbestearaino da hori horrela, non moralistaren bat ausartzen den esatera ezen, beste zirkunstantzia batzuetan, politikarik onena onestasuna dela, eta abantaila berdinekin pertsona prestu batek aukera hobeak dituela doilor batek baino. Hori berori ere, bizitzako egoera eta zirkunstantzia askotan, eztabaidagarria da; hortik gorako beste edozer eztabaidatik kanpo gelditzen da. Ezin da uste izan onestasunak, arrakasta-ekarle gisa, gizarte eskalan maila bakar bateko gorakada esplika lezakeenik. Zortearen eta jokaeraren arteko lotura hauxe da gehienbat: jokaera txarrean, edo hobeto esanda, jokaera txar mota batzuetan, maila bat dago zorte onik handiena ere deuseztatzeko nahikoa dena; baina alderantzizkoa ez da egia, hau da, jenderik gehienaren egoeran jokaera oneko mailarik gorenak ez du balio jende horrek munduan gora egin dezan, zorte oneko gertaeren laguntzarik gabe.

Gaitz horiek –pobrezia handia eta merezimenduarekin zerikusi handirik ez duen pobrezia– gizartean dagoen antolaketaren lehenengo porrot handia dira. Bigarrena gizakiaren jokaera gaiztoa da: krimena, bizioa eta zorakeria, berorien ondorioz datozen sufrimendu guztiekin. Izan ere, jokaera gaiztoak, norbere buruaren nahiz besteen kontra erabilitakoak, dituen ia era guztiak hiru kausa hauetako batetik datoz: pobreziatik eta beronek dakartzan tentazioetatik gehienetan, alferkeria eta *désœuvrement*etik zirkunstantziek lanera bultzatzen ez dituen gutxien kasuan eta, azkenez, heziketa txarretik eta heziketarik ezetik. Onar daiteke lehenengo biak gizarte antolaketaren porrotak bederen badirela, azkena, berriz, gaur egun ia unibertsalki onarturik dago antolaketa horren akatsa –krimena ere esan liteke ia– dela. Gutxi gorabehera eta zehaztu gabe mintzo naiz, zeren izaerako akatsen eta jokae-rako errakuntzen iturrien analisi zehatzagoak argi jarriko bailuke huts horiek gizartearen antolaketa akastun batekin duten lotura, nahiz eta agerian jarriko lukeen, era berean, gizartearen egoera koskadun horrek eta giza gogamenaren egoera atzeratuak elkarrekiko duten menpetasuna ere.

Lehenengo aldietako berdintasun sozialaren alde besterik gabe zeudenak gizartearen gaitzak zerrendatzeko puntu horrexetan gelditzen ziren, baina bista luzeagoa duten haien ondorengoek, egungo sozialistak, harago doaz. Haien ikusirako, giza bizitzak gaur eratuta dagoen moduan daukan oinarri bera, egun ekoizkin material guztien

produkzio eta banaketaren euskarria den printzipioa bera, da petrala eta antisoziala funtsean. Printzipio hori indibidualismoaren, lehiaren, printzipioa da, nor bere alde eta gainerako guztien kontra jokatzera daramana. Interesen harmonian barik interesen aurkakotasunean oinarritzen da, eta horri jarrai bakoitzak borroka bidez topatu behar du bere lekua, norberak besteei atzerantz bultza eginez edo besteek norberari. Sozialisten ustez, denok denon kontrako gerra pribatuko sistema hau (horrelaxe esan dakioke) bereziki hondagarria da bai ikuspegi ekonomikotik eta bai ikuspegi moraletik. Ikuspegi moraletik begiratu-ta, sistema honen gaitzak begi-bistakoak dira. Bekaitzaren, gorrotoa-ren eta karitaterik ezaren aita da; norbere bidetik iragaten diren guztien berezko etsai bihurtzen gaitu, eta edonoren bidetik iragan daiteke edonor. Sistema honetan nekez izan daiteke inor irabaztun, beste batek edo askok galduz edo etsita geldituz ez bada. Ongi eraturiko komunitate batean beste guztien ahalegin arrakastatsuei esker izan beharko genuke irabaztun; gaur egun, ordea, besteen galtzeari esker irabazten dugu eta besteen irabazien eraginez galtzen, eta gure irabazirik handienak ituri txarrenetik datoz, heriotzatik, hurkoenak ditugu-nen eta maiteen izan beharko genituzkeenen heriotzatik. Lehia ekono-mikoaren printzipioak bere eragiketa ekonomiko hutsean eragiketa moralean hartzen duen adinako erabateko gaitzespen morala jasotzen du gizarte erreformatzaileengandik. Langileen arteko lehian ikusten dute soldata urrien zergatia; produktoreen arteko lehian, berriz, hon-damenaren eta porrotaren zergatia; eta gaitz biok, populazioak eta aberastasunak gora egin ahala, etengabe areagotzeko joera dute; inork ez du onurarik hartzen, lur-jabe handiak, diru-sarrera finkoak dituzte-nak eta kapitalista handi gutxi batzuk kenduta, euren aberastasunak gero eta gaiago egiten baititu horiek beste produktore guztiak baino merkeago saltzeko, operazio industrial guztiak euren eremura ekar-tzeko, beste enplegatzaile guztiak merkatutik kanpora egozteko eta langileak nolabaiteko esklabo edo jopu bihurtzeko, bizibidea ateratze-ko enplegatzaile handion mende egon beharra eta haiek eskaintzen dituzten baldintzak onartu beharra ukateraino. Gizartea, labur esanda, espekulatzailerien arabera, feudalismo berri baterantz doa, kapita-lista handien feudalismorantz.

Topiko horiez eta beroriekin loturik eta berorien azpian dauden beste askoz daukadan iritzia zabal azaltzeko aukera beste kapitulu

batzuetan ukanen dudanez, orain, beste itzulingururik gabe, sozialista ospetsuek gizartearen egungo antolaketaz dituzten iritziak hona ekartzera noa, argitaratu dituzten idazlanetan aukeratu ditudan zenbait pasarte aipatuz. Oraingoaz, inoren iritzien berriemaile hustzat har nazazuen nahi dut. Geroago agertuko da zenbateraino datorren ala ez datorren bat aipatzen dudana nire neure sentimenduekin.

Giza aferen arlo ekonomikoan gizarteak egun duen ordenaren kontra sozialistek duten auziaren enuntziatu argien, trinkoen, doien eta espezifikoen Louis Blanc jaunaren *Organisation du Travail* lantxoan aurki daiteke. Horregatik, nire lehenengo aipuak, gaiaren parte honetan, tratatu horrexetatik hartuak izanen dira.

Lehia edo norgehiagoka, herriarentzat, sarraski sistema bat da. Gizaki pobrea gizarteko kide bat ote da, ala gizartearen etsai bat? Goazen erantzun bat bilatzera.

Gizaki horrek bere inguru guztian lurra aldeztu aurretik okupaturik aurkitzen du. Ba al du lurra bere probetxurako lantzerik? Ez, zeren lehen okupatzailearen eskubidea jabetza eskubide bihurtu da eta. Ba al du Jainkoaren eskuak gizakiaren bidean umorazten dituen fruituak batzerik? Ez, zeren, lurraz bezala, fruituez ere norbait *jabetu* da eta. Ba al du ehizan edo arraintan egiterik? Ez, zeren hori gobernuaren mende dagoen eskubide bat baita. Ba al du ura ateratzerik landa baten kokaturik dagoen iturburu batetik? Ez, zeren landa horren jabea, landarako duen eskubidearen indarrez, iturriaz jabetu da eta. Goseak eta egarriak hiltzen dagoela, ba al du gizaki horrek eskua luzatuz eskean egiterik? Ez, zeren legeak baitaude eskean egitearen kontra. Nekeak akituta eta babesik gabe dagoelarik, ba al du kalean behearen gainean etzan eta lo egiterik? Ez, zeren legeak baitaude alderrai ibiltzearen kontra. Dena ukatzen dion sorterri ankerretik alde egitea erabaki duelarik, ba al du bizia eman zioten lekutik urrun bizimodua bilatzerik? Ez, zeren debekaturik baitago herrialdez aldatzea, pobreek bete ezin dituzten zenbait baldintza bete ezean.

Zer egin dezake, orduan, gizaki dohakabe horrek? Esanen du: «Eskuak ditut lan egiteko, adimena dut, gaztetasuna dut, indarra dut; hartu zeuk horiek guztiak, eta horien ordainez emadazu ogi zati bat». Horixe dio langileak. Baina kasu horretan ere erantzun ahal izanen diote: «Ez daukat lanik zuretzat» Zer egin behar du orduan?

*

Zer da lehia langilearen ikuspuntutik? Enkantera ateratako lana da. Kontratatzaile batek langile bat behar du: hiru aurkezten dira. –Zenbat eskatzen duzu zeure lanagatik? – Koroa erdi: emaztea eta seme-alabak ditut. – Ongi, eta zuk zenbat? – Bi txelin: ez daukat seme-alabarik, baina bai emaz-

tea.. –Oso ongi, eta zuk zenbat? – Txelin bat eta zortzi penny nahikoa dut: neu bakarrik naiz. Orduan zeuretzat izanen da lana. Kito; lortu du pagotxa. Eta zer egin behar dute beste langile biek. Espero izatekoa da gosez hilko direla bake-baketan. Baina lapurretan hasten badira? Ez izan beldurrik; poli-ziak ditugu. Eta jendea hiltzen hasten badira? Borreroa daukagu prest. Zortea eduki duen langileari dagokionez, haren garaipena ere aldi baterako baino ez da. Ager dadila laugarren langile bat, egun birik behin barau egiteko bezain sendoa dena, eta horrek askoz gutxiago eskatuko du; orduan beste marjinatu bat gehiago egonen da gizartearen, kartzelarako bidean beharbada.

Kontu triste horiek puztuta daudela, gertaera horiek guztiak lan bila ari diren esku guztientzako adina lanik ez badago bakarrik direla posible esanen ote du norbaitek? Nik neuk haxe galdetuz erantzuten diot horrelakoari: lehiaren printzipioak aipaturiko alde kriminala ekiditeko metodoren bat ote dauka, hain suertez, bere baitan? Industriaren adar bat lan-esku faltan egon arren, nork segurtza lezake, lehia unibertsalak sorturiko anabasan, beste adar batek soberan ez daukala? Eta, baldin hogeita hamalau milioi gizonetik hogeit lapurretan egitera beharturik badaude, hori nahikoa litzateke printzipioa gaitzesteko.

Baina nor da itsua honako hau ez ikusteraino, alegia, mugarik gabeko lehia nagusi izanik, soldaten etengabeko jaitsiera ez dela salbuespenezko zirkunstantzia bat, baizik ezinbesteko gertaera orokor bat? Ba al dauka populazioak gehiago ez ugaltzeko mugaren bat? Ba al dugu guk industriari –egotismo indibidualaren gorabeheren mende dagoen eta hain hondamentsua den industriari– esaterik: «Honaxeaino helduko haiz, ez harago». Populazioa etengabe hasiz doa: esaiozue ama gaixoari antzu bihur dadila eta ugalkor egin duen Jainkoaren kontra biraoka has dadila, zeren, esaten ez badiozue, soldaduentzako zerrendak ere laster mugatuegiak izanen dira eta. Makina bat asmatu dute: agindu jo eta apurtzeko eta madarikatu zientzia, hori egin ezean, makina berriak lana kendu dieten mila langileak ate joka joanen dira alboko fabrikara, eta euren langile lagunak soldadak jaitsiko dituzte. Soldata jaiste sistematiko hori, hainbat langileren kaleratzean amaitzen dena, mugarik gabeko lehiaren ondorio ekidinezina da. Langile klaseetako kideak elkar suntsitzera behartzen dituen sistema industrialia da lehia.

*

Zalantzarik gabeko gertakaririk badago, haxe da hori: populazioaren gehikuntza askoz azkarragoa dela pobreen artean aberatsen artean baino. *Europako Populazioaren Estatistiken* arabera, Parisen jaiotzak populazioaren hogeita hamabirena baino ez dira auzo aberatsetan; besteetan, ordea, hogeita seirenera heltzen dira. Alde hori nonahi gertatzen da, eta Sismondi jaunak, Ekonomia Politikoaz duen lanean, hau esplikatzen dio langileek ezin dutela zuhurtzia baikorrik eduki. Geroari begira seguru sentitzen direnek bakarrik erregula dezakete seme-alaba kopurua beren sarreraren arabera; egunez egun bizi dena halabehar misterioso baten uztarpean bizi da, bere seme-alabak

halabehar horrixek sakrifikatuz, bere burua ere sakrifikaturik duen moduan. Egia da hantxe daudela txiroen babesetxeak, gizartea eskale-oldearekin mehatxatzen nonbait –zein ote da horren zergatietatik ihes egiteko modua?... Argi dago ezen, gizarte batean bizibidea segurtatzeko bitartekoak populazioaren kopurua baino astiroago gehitzen direnean, gizarte hori amildegiaren ertzean dagoela... Lehiak miseria sortzen du; estatistikek frogatzen duten gertakaria da hori. Miseria umetsua da oso; estatistikek frogatzen dute hori. Txiroen ugalkortasunak lana behar eta lanik topatuko ez duten haur dohaka-beak jaurtitzen ditu gizartera; hau ere estatistikek frogatzen dute. Puntu honean gizartea bitatik bat, pobrea hiltzea edo dohainik mantentzea –ankerkeria edo erokeria– aukeratzera behartuta aurkitzen da.¹

Hori pobreari dagokionez. Goazen orain klase ertainetara.

Adam Smith eta Léon Sayren eskolako ekonomista politikoen arabera, *merketasuna* da mugarik gabeko lehiaren abantailak laburbil litzakeen hitza. Baina zergatik segitzen dute merketasunaren efektua kontsumitzailearen momentuko abantailaren ikuspuntutik bakarrik ikusten? Merketasuna produktoreen artean anarkia hondagarriaren hazia sartzearen truke da abantailatsua kontsumitzailearentzat. Merketasuna, nolabait esateko, produktore aberatsenek euren lehiakide pobreagoak zanpatzeko erabiltzen duten mailua da. Merketasuna espekulatzailerik ausartek gogor lan egiten dutenak erakartzeko erabiltzen duten beita da. Merketasuna, eskala txikian produktore izaki, bere lehiakide aberatsagoak erraz eskuratu ahal duten makineria erosteko dirurik ez duenaren heriotz epaia da. Merketasuna monopolioak duen tresna itzel bat da; denak xurgatzen ditu: manufaktura industrialari txikia, dendari txikia, ondasun-jabe txikia; berba batean esanda, merketasuna klase ertainen suntsipena da, oligarka industrial gutxi batzuen mesedetan.

Orduan, merketasuna madarikazioa dela pentsatu behar ote dugu? Inork ez luke zentzugabekeria hori aldeztuko. Baina printzipio okerrean berezitasuna ona txar bihurtzea eta gauza guztiak usteltzea da. Lehia sisteman merketasuna behin-behineko abantaila engainagarri bat baino ez da. Borroka dagoen heinean baino ez du irauten; lehiakide aberatsek euren lehiakide pobreagoak merkatutik kanpora bota bezain laster, gora egiten dute prezioek. Lehiak monopoliora garamatza, merketasunak prezio altuetara garamatzen arrazoi beragatik. Hartara, produktoreen arteko borrokan armatzat erabili izan dena, lehentxeago edo geroxeago pobrezia-ekarle bihurtzen da kontsumitzaileen artean. Eta kausa horiei lehen aipatu ditugunak gehitzen badizkiegu, lehenengo jarri beharreko populazioaren neurriz gaineko gehikuntza batez ere, nahitaez onartu beharko dugu kontsumitzaileen masaren pobretzea lehiaren zuzeneko ondorioa dela.

Baina, beste alde batetik, eskariaren iturriak lehertzeko joera duen lehia horrek berorrek produkzioa gehiegizko produkzioa bultzatzen du. Borroka unibertsalak sorturiko nahasmenak produktoreari merkatuaren ego-

era ezagutzea eragozten dio. Iluntasunean lan egin behar du eta, saltzeko, zorte onean jarri uste osoa. Zergatik kontrolatuko du produkzioa, bereziki edozein galerak euren soldatak gora eta behera egiteko arrisku ikaragarrian dituzten langileengan eragina duenean. Produkzioak galerak dakarzkienean ere, manufaktura industrialariak maiz aurrera egiten dute ez dutelako makineria geldi eduki nahi lehengaiak galtzeko edo bezeroak galtzeko arriskuarekin; eta produkzio industria, lehia sisteman eraman izan den moduan, zorizko joko bat baino ez denez, jokalaria ez du zorte handiko kolpe bat jotzeko aukera galduko.

Hartara –eta ez dugu hori gehiegitan esanen– lehiak nahitaez jotzen du produkzioa gehitzera eta kontsumoa gutxitzera; lehiaren joera, beraz, ekonomia zientziak bilatzen duenaren juxtu kontrakoa da; horregatik, zapaltzailea ez eze, zuhurtziagabea ere bada.

*

Eta horretan guztian, topiko bihurtu diren eta euren benetako errealtateari dagokionez erretorika kutsua duten egiak luzaroegi azaltzen ibiltzea ekiditeko, ez dugu ezer esan industriak, gaur egun antolatuta edo, zuzenago esateko, desantolatuta dagoen moduan, klase ertainen baitan sartu duen ustelkeria moral izugarriari buruz. Dena bilakatu da salgarri, eta lehiak pentsamenduaren eremua ere inbaditu egiten du.

Faktoria tailerra zanpatzen, establezimendu handiosak denda xumeak xurgatzen; bere buruaren nagusia den artisaua soldatadunak ordezkatuta; golde bidezko lur-lanketa aitzur bidezkoa ordezkatzen eta txiroaren soroa mailegu-emailari egin beharreko zorigaitzoko omenaldiaren pean jartzen; krakak ugaltzen; manufaktura industria kredituaren hedapen gaizki erregulatua eraldatuta eta pikaroak berak ere irabazteko segurtasunik ez daukan joko sistema bihurtuta, labur esanda, nahasmen izugarria, inbidia, mesfidantza eta gorrotoa sortzeko eta, poliki-poliki, eskuzabaltasunezko asmo oro, sinesmen, norbere burua ukatze eta poesia oro itotzeko kalkulatu, horixe guztia da lehiaren printzipioa aplikatzeak ekarritako ondorioen koadro beldurgarri baina doi-doian ikus dezakeguna.²

Fourieristek, euren eledun printzipal duten Considérant jaunen bidez, egungo zibilizazioaren gaitzak ondoko ordenari jarrai zerrendatzen dituzte:

1. Zibilizazio honek lan eta giza indar kantitate izugarria era ez-emankorrean edo suntsipen lanean erabiltzen du.

Lehenik armada dago, Frantzian, beste herrialde guztietan bezala, gizonik osasuntsuen eta sendoenak, talentu eta adimen argienetarikoa duten asko eta errenta publikoaren zati eder bat bereganatzen dituen... Gizartearen egungo egoerak, bere atmosfera kutsatua, kontatu ezin ahala marjinatu sortzen ditu, lan ez-emankorra ez ezik, garbiki suntsigarria ere egiten dutenak:

abentureroak, prostitutak, zertatik bizi diren inork ez dakien jendea, eskaleak, konbiktuak, iruzurgileak, lapurrak, eta gutxituz barik gehituz doazen horrelako beste asko.

Gure gizartearen egoerak sustatzen dituen emankortasunik gabeko lanean ari direnen zerrendari epailetza eta abokatuen elkartekoak, auzitegie-takoak eta magistratuak, poliziak, preso-zainak, berreroak, etab., gehitu behar zaizkio, egungo gizartearen egoeran ezinbestekoak baitira eginkizunok.

«Gizarte maila ona» deritzoneko jendea, bizitza osoa ezer egin gabe ematen dutenak, mota guztietako alferrontziak, ere gehitu behar zaizkio.

Baita zenbatezina diren aduanetako enplegatuak, zer ga-biltzaileak, udaltzainak, kontribuzio-batzaileak ere; labur esanda, ikuskatu, kontuak eram-an, jaso bai baina produzitu ezer egiten ez dutenen armada osoa.

Zerrendara gehitu beharrekoak dira, halaber, okerreko norabidean lan egiten duten, zientziak aurrera egin dezan ezer egiten ez duten eta iskanbilak eta alferreko eztabaidak besterik sortzen ez dituzten sofisten, filosofoen, metafisikarien eta politikarien lanak, baita abokatuen, auzilarien, testiguen eta antzekoen hitzontzikeria ere.

Eta, azkenez, baita merkataritzako eragiketa guztiak ere, hasi bankar-ien eta mailegu-emaielenetatik eta janari-saltzaileek salmahaiaren atzean egiten dituztenetaraino.³

Bigarrenik, baieztatzen dute sistema honetan produkzioan diharduten industriak eta indarrek ere ez dutela produzitzen, hobeto erabili eta bideratuko balira, produzitu ahal izanen luketenaren zati txiki bat besterik:

Nork, borondate on eta hausnarketa pixka batekin, ez du ikusiko koherentzia falta –desordena, konbinaziorik ez egitea, lana zatikatzea eta oso-osoan norbanakoaren jardunaren mende uztea inolako antolaketarik gabe, ikuspegi zabalago edo orokorrago barik– horiek guztiak produkzio ahalbideak mugatzen eta gure ekinbiderako bitartekoak suntsitzen edo behin-tzat eralkitzen dituzten kausak direla? Ez al da egia desordenak pobrezia sor-tzen duela, ordenak eta kudeaketa onak aberastasuna sortzen duten moduan? Konbinaziorik eza ez al da ahuldade iturri, konbinazioa indar iturri den moduan? Eta nork esan dezake industria, behin dela nekazaritzakoa, etxekoa, fabrikakoa, zientifikoa, artistikoa edo komertziala, antolatuta dagoela Estatuan edo udaletan? Nork esan dezake arlo horietan egiten den lana ikus-pegi orokor baten pean edo aurreikuspen, ekonomia eta ordenarekin burutzen dela? Edo nork esan dezake gizartearen gaur egungo egoeran posible dela, heziketa on bat bitarteko, naturak gizarteko kide bakoitzari emandako ahal-men guztiak garatzea, eta bakoitzari gogoko duen, ondoen egin dezakeen eta, beraz, beretzako eta besteentzako onurarik handienarekin bete dezakeen lana ematea? Ahaleginik ere egin ote da, bada, izaera ezberdintasunak sortzen

dituen arazoei irtenbidea emateko, enplegu ezberdinak berezko gaitasunen arabera erregulatu eta harmonizatzu? Ondikotz, filantroporik gartsuenen utopia hogeita bost milioi frantsesi irakurtzen eta idazten irakastea da! Eta, gauzak dauden moduan, horrexetan ere ezetz ukan arrakastarik!

Eta ez al da ikuskizun harrigarria eta gaitzespena eskatzen ari zaiguna gizartearen egoera hori ikustea, zeinetan lurra gaizki landuta eta batzuetan inola ere landu gabe dagoen, zeinetan gizakia gaizki ostataturik, gaizki jantzirik eta, areago, zeinetan jendetza handiak egun batean eta bestean luzaz edo beti lanik gabe dauden, eta miseria gorriak ahulduta lanik topatu ezin dutelako? Benetan ere beharturik gaude aitortzera ezen, nazio osoak pobreak badira eta goseak hilda badaude, ez dela naturak aberastasuna sortzeko bitartekoak ukatzen dizkigulako, bitartekoen erabileran daukagun anarkia eta desordenagatik baizik; bestela esanda, hori gizartea ezin txartoago eratuta eta lana desantolatuta daukagulako da.

Baina hori ez da dena, eta gaitzaren ideia lausoa ukanen duzue gizartearen hoben guztiei, aberastasun eta oparotasun iturriak lehortzen dituzten hobenei, gizarteak bera osatzen duten kideen artean, izen askoren pean eta era askotara, bultzatzen eta lantzen dituen borrokak haserreak, hitz batean esanda, gerrak gehitu behar zaizkiela kontuan ez baldin baduzue. Liskar eta haserreok erro-errotiko aurkakotasunei dagozkie, interes ezberdinen arteko antinomia sakon sustraituei. Nazio barruan klaseak eta mailak ezartzeko gai garen neurri berean ukanen ditugu aurkako interesak eta barne gerra ageria edo gordea, sistema industrialak bakarrik kontuan hartuta ere.⁴

Eskola horren ideia garrantzitsuenetako bat zera da: herrialdeko produkzioa kontsumitzaile ezberdinen artean banatzeko daukagun antolaketaren zarrastelkeria eta ezmoraltasuna, banatzaile, saltzaile, tratulari, dendari eta berauen enplegatuen kopurua izugarria izatea inondiko beharrik gabe, eta lan banaketa honen izaera galbideratzailea.

Argi dago saltzailearen interesa kontsumitzailearen eta produktorearen bien interesaren kontrakoa dela. Ez al du produktorearekin egindako tratu guztietan, ahalik merkeen eta ahalik gehien gutxietsita erosi gero, euren bikaintasuna gorapatuz, zuri ahalik karuen saltzen dizkizun salgai berberak? Salerosleen kidegoaren interesa, beraz, talde eta norbanako gisa, produktorearen eta kontsumitzailearen interesaren kontrakoa da, hau da, gizarte osoaren interesaren kontrakoa.

*

Saleroslea bitartekari bat da, anarkia orokorretik eta industriaren antolaketarik ezetik etekina ateratzen duena. Salerosleak produktu guztiak erosten ditu, zernahi erosten du, denaz jabetzen da, dena bereganatzen du, eta hartara:

1. Hala produkzioa nola kontsumoa *bere uztarpean* dauzka, batak eta besteak beregana etorri beharra dutelako edo, azkenean, kontsumitu beharre-

ko produktuen bila edo, hasieran, landu beharreko lehengaien bila. Merkataritzak, erosteko eta prezioak igo eta jaisteko dituen metodoekin, bere amarru zenbatezinekin eta dena *bitartekarien* (*middle-men*) eskuetan jartze horrekin, petxa ezartzen du ezker-eskuin: legea ezartzen die despotismorik handienarekin produkzioari eta kontsumoari, haien menpekoea izan behar lukeen arren.

2. Lapurretan egiten dio gizarteari eskuratzen dituen *etekin esker* -*gen* bidez, kontsumitzailearen eta produktorearen lepotik ateratako etekinak eurok, emandako zerbitzuekin inolako proportziorik ez daukatenak gainera, zerbitzuotarako aski bailitzateke enplegatutik dauden pertsonen hogeirena.

3. Lapurretan egiten dio gizarteari, indar produktiboak kentzen dizkiolako, lan produktiboari merkataritza agenteen hemeretziarena edo hogeirena kentzen baitio, izan ere, kopuru horretaraino bizkarroi hutsak dira eta. Hartara, merkataritzak, aberastasun komunaren gehiegizko zatia bereganatuz ez ezik, giza erlauntzaren produkzio indarra neurri handian urrituz ere lapurretan egiten dio gizarteari. Salerosle gehien-gehienak lan produktibora itzuli-lirake, baldin gauzen egoera honetan daukagun kaos zeharo nahaspilatuaren ordezkari merkataritza antolatze sistema razional bat jarriko balitz.

4. Lapurretan egiten dio gizarteari produktuak *aizunduz*, muga guztiak gaingaitzeraino, gainera, gaur egun. Izan ere, lehen hogeia janari-saltzaile baino ez zeuden hiri batean ehun hasten badira lanean, argi dago jendea ez dela hasiko, janari denden arabera, bost bider gehiago kontsumitzen. Horregatik, ehun saltzaile bertutetsu horiek lehen hogeik onestasunez ateratzen zituzten etekinak lortzeko lehian jardun beharra dute; lehiak hutsune hori kontsumitzailearen lepotik betetzera behartzen ditu, behin prezioak igoz, batzuetan gertatzen den moduan, behin salgaiak aizunduz, beti gertatzen den moduan. Egoera horretan akabo fede ona. Behe mailako salgaiak edo aizunduak kalitate oneko gaiak bailiran saltzen dira, bezero fidakorra engainuaz konturatze baina eskarmentu gutxiagokoa den guztian. Eta bezeroa zeharo engainatu ondoren, saleroslearen kontzientzia zera esanez kontsolatzen da: «Nik neure prezioa jartzen dut, eta jendeak hartu zein uzteko eskubidea osoa du; inor ez da hemen behartzen erostera». Salgaien kalitate txarra edo aizuntzea bitarteko dela kontsumitzaileek pairatzen dituzten galerak kalkulaezinak dira.

5. Lapurretan egiten dio gizarteari salgaiak *metatuz*, artifizialki edo ez, horren ondorioz salgai pilo handiak, leku batean bildurik, alferrik galdu eta deuseztatzen direlarik saldu ezinagatik. Fourierek (*Th. des Quat. Mouv.*, 334 orr., 1. ed.) dio: «Merkataritza sistemen funtsezko printzipioak, euren negozioan darabiltzaten salgaiekiko *erabateko jabetza eskubidea ematen die*; salgaioek erabat erretiratzeko eta ezkutuan gordetzeko eskubidea dute, baita erretzekoa ere, Amsterdameko Konpainia Ekialdetarrean behin baino gehiagotan gertatu den moduan, konpainia horrek behin baino gehiagotan erre izan baititu kanela biltegi osoak, jendaurrean erre ere, prezioa igotzeko.

Kanelarekin egindakoa gariarekin ere eginen zukeen; herri xumeak harrika egin ziezaion beldurragatik izan ez balitz, erreko zukeen gariaren zati bat, gainerakoa bere balioa baino lau bider garestiago saltzeko. Izan ere, portuetan egunero gertatzen den kontua da bihi hornidurak itsasora jaurtitzea, salerosleek, prezioen gorakada baten zain, usteltzen utzi dituztelako. Nik neuk, eskribau nintzenean, prozedura lotsagarri horiek ikuskatu behar izan nituen eta, egun batean lau bat mila *bushel* arroz, gorderik zituenak hainbesteko irabazi goserik izan ez balu prezio normalean saldu ahal izanzen ziratekeenak, itsasora jaurti zitzaten agindu nuen. Gizartea da *salerosleei askatasun osoa ematea* agintzen duen maximaren babespean burutzen diren horrelako alferrik galtzeen kostuari eutsi behar diona».

6. Gainera, merkataritzak lapurretan egiten dio gizarteari, produktuak milioika dendetan barreiatzeak eta garraioa ugaritu eta konplikatzek galera, kalte eta alferrik galtzekak dakartzalako.

7. Lapurretan egiten dio gizarteari mugarik gabeko *lukurreria* lotsagabea praktikatzu, ezin izugarriagoa den lukurreria. Salerosleak fikziozko kapitalaz burutzen ditu eragiketak, bere benetako kapitala baino askoz handiagoa den kapitalaz. Mila eta berrehun liberako kapitala duen salerosleak lau, zortzi eta hamabi mila liberako eragiketak gauza ditzake ordaindukoen eta kredituen bidez. Hartara, *ez daukan kapitalari* lukurreriazko interesa ateratzen dio, eduki daukan kapitalarekin inolako proportziorik ez duena.

8. Lapurretan egiten dio gizarteari mila *porroten* bidez; izan ere, gure merkataritza sistemaren eguneroko ezbeharrak, gertaera politikoak eta mota orotako nahaspilak ikusita, derrigor heldu behar du eguna, non saleroslea, bere ahalaren gainetiko obligazioak leporatuta, ez den jada gai izanzen obligazio horiei aurre egiteko; haren porrota, iruzurrezkoa izan edo ez, nahitaez kolpe gogorra izanzen da hartzekodun dituenentzat. Batzuen porrotak beste batzuen inplikatzan du, eta, hartara, porrotak sailean, bata bestearen ostean, gertatzen dira eta hondamen zabala sortzen dute. Eta produktorea eta kontsumitzailea dira beti sufritzen dutenak, zeren merkataritzak, osoan hartuta, ez baitu aberastasunik sortzen eta oso gutxi inbertitzen baitu, bere eskuetatik pasatzen den aberastasunaren ikusian. Zenbat eta zenbat manufaktura industrialari jo eta eraitsi dituzten horrelako kolpeek! Eta zenbat eta zenbat aberastasun iturri emankor agortu horrelako amarruek!

Produktoreak salgaiak jartzen ditu, kontsumitzaileak dirua. Merkataritzak kreditua jartzen du, kapital urriz edo benetako kapitalik gabe bermatua, eta merkataritza taldeko kide ezberdinak ez dira elkarren erantzule. Horixe da, hitz gutxitan, auziaren teoria guztia.

9. Merkataritzak lapurretan egiten dio gizarteari *mendekotasun eza* - *ren* eta *ardunagabekeriaren* bidez, bi horiei esker produktoreek, errenta eta produkzio gastuetarako beharrezko duten dirua eskuratzeko, saldu eta elkarrekin lehian aritu beharra duten garaian erosten baitute salerosleek.

Merkataritzak merkatua izakinez gainezka eta salgaiak merke daudenean erosten du. Gero gorakada bat sortzen du, eta maniobra xume horrek hala produktorea nola kontsumitzailea larrutzen ditu.

10. Lapurretan egiten dio gizarteari *kapital desbideratze* handi baten bidez, kapital hori produkzio industriara joanen delarik berriro merkataritzak bere eginkizun menekoa betetzen duenean eta produktoreen (gutxi-asko urrunekoen) eta kontsumo zentro handien –elkarte komunalen– arteko transakzioak burutzen dituen agentzia bat baino ez denean. Hartara, merkataritzako espekulazioan konprometituriko kapitala (salerosleen eskuetatik pasatzen den ikaragarritzko kapitalaren ikusian txikia izan arren, kopuru berez eskergez osatua) produkzioa estimulatzeraz etorriko litzateke berriaz, baldin merkataritzari salgaietako bitartekaritza kenduko balitzaio eta salgaien banaketa antolaketa administratiboko kontu bihurtuko balitz. Akzioen salerosketa da merkataritzaren bizio horren erarik higuinargiena.

11. Lapurretan egiten dio gizarteari lehengaiak *monopolizatuz* edo den-denak erosit. «Izan ere –Fourierek dio, *Th. des Quat. Mouv.*, 359 orr., 1. ed.– kantitate handietan erosten diren salgaien prezioen igoera kontsumitzaileen lepora doa azkenean, nahiz eta lehenbizi manufaktura industrialarien lepora, zeren euren negozioari eutsi beharrean egonda, diru-sakrifizioak egin behar izaten baitituzte eta etekin txikiekin manufakturatutako egun hobeen esperantzaz; eta maiz denbora asko igarotzen da monopolizatzaileak jasanarazitako prezio igoeraren konpentsazioa hartzeko aukera ukan arte...»

Labur esanda, bizio horiek guztiak, eta aipatu ez ditudan beste batzuk, ugaritu egiten dira merkataritza arazoek konplikazio demasaren eraginez; zeren produktuak ez dira behin bakarrik pasatzen merkataritzaren atzapar gutziatsuetatik; batzuk hogeia eta hogeita hamar aldiz ere pasatzen dira, kontsumitzaileengana heldu aurretik. Lehenengo, lehengai lehenbizi landuko duen industrialariarengana heldu aurretik pasatzen da merkataritzaren atzaparretatik; gero merkataritzara dator berriz eta honek bigarren forma ematera bidaltzen du berriro, eta horrelaxe azken forma hartu arte. Orduan salerosleen eskuetara pasatzen da eta haiek handizkarietara saltzen diete, handizkarietara, osteraz, hirietako txikizkarietara eta horiek tratulari txikietara eta herrixketako dendetara; eta eskutik eskura pasatzen den bakoitzean, ondorioen bat du salgaiak.

...Duela gutxi Jura mendikatea, non metalezko eskulan asko egiten den, esploratzen zebilen nire lagun batek palagilea zen baserritar baten etxera sartzeko parada ukan zuen. Palen prezioa galdetu zuen. «Hel gaitezen akordio batera» erantzun zion ekonomista inondik ere ez, baina zentzun handiko gizona bazen langileak. Nik zortzi pennytan saltzen diet salerosleei, eta haiek txelin bat eta zortzi pennytan saltzen dituzte txikizka hirietan. Langilea eta kontsumitzailea bitartekaririk gabe harremanetan jartzeko modua baduzu, orduan txelin bat eta 2 pennytan eraman ahal izanen duzu pala, eta guk biok 6na penny irabaziko ditugu salerosketa honetan». ⁵

Antzerako ondorioak ateratzeko, Owenek, *Book of the New Moral World*, 2. parte, III. kapitulua.

Orain praktikan jartzen den printzipioa zera da, alegia, gizartearen zati handi bat bultzatzea euren bizitza osoan aberastasuna eskala handi, ertain eta txikiak banatzen jardutera eta lekutik lekura kantitate handiago edo txikiagotan eramatera, era horretan gizartearen eta norbanakoaren sektore ezberdinek, hiri, herri eta baserrietan dauden moduan, zer nolako baliabideak eta beharrak dituzten aurkitzeko. Banaketa printzipio horrek talde batzuei *erosi* eta beste batzuei *saltzean* datzan negozioa daukan klase bat sortzen du gizartearen. Prozedura horren bidez, aldi horretan merkatuan prezio baxuan agertzen diren gaiak erosten eta gero horiek atera ahal zaien etekin iraunkor handienaz saltzen ahalegintzera bultzatzen dituzten zirkunstantzietan jartzen dira, euren benetako helburua saltzailearen eta eroslearen bien irabazi gisa gai horiei euren transakzioetan atera ahal zaien etekin guztia ateratzea delarik. Gizartearen aberastasuna horretara banatzetik kontatu ezin ahala printzipioko errakuntza eta praktikako gaitz datoz nahitaez.

1. Banatzaileen klase orokor bat eratu da, erosten dioten norbanakoaren eta saltzen diotenaren interesetatik bereizita eta itxuraz kontra dauden interesak dituen.

2. Hiru banatzaile mota osatu dira: erosle eta saltzaile txikiak, ertainak eta handiak, edo txikizkariak, handizkariak eta salerosle handiak.

3. Hiru erosle mota sortu dira: erosle txikiak, ertainak eta handiak.

Erosle eta saltzaileen klase ezberdinetan eratze horren eraginez, taldeek erraz ikasten dute eurek interes bereizi eta aurkakoak dituztela eta gizartearen maila eta egoera diferenteak daudela. Sentimendu eta aiurri ezberdintasun handia sortu eta mantentzen da, berdintasunik gabeko antolabide horiek dudarik gabe eragiten duten hala fidelkeria nola harrokeriarekin batera. Taldeak normalean iruzur sistema batean jokatzeko trebatzen dira, merke erosi eta garesti saltzeko artean arrakastarik handiena izateko xedez.

Saltzaile txikiak alferkeria kaltegarria ohitzen dira, orduak eman behar izaten baitituzte maiz bezeroen zain. Eta gaitz hori neurri handian iristen da handizkako saltzaileen klasera ere.

Antolaketa horren eraginez, behar baino saltoki gehiago, askoz gehiago, daude baserri, herri eta hirietan; eta hartara kapital handia alferrik galtzen da gizartearentzat onurarik ekarri gabe. Eta, asko direlako, elkarren kontra ibiltzen dira herrialde guztian, bezeroak lortzeko, bata bestea baino merkeago saltzen ahaleginduz; eta, horregatik, produktoreari kalte egiten ere etengabe ahalegintzen dira denda merkeak eta saltoki handiak deritzenak jarritz; eta horiei eusteko ugazabak edo bere morroiek adi eta argi ibili beharra dute pagotxak erosteko, hau da, salgaiak produkzio kostuetatik beherako prezioan eskuratzeko.

Banatzaileei –txiki, ertain eta handiei– produktoreek eutsi behar diete, eta zenbat eta handiagoa den lehenengoen kopurua bigarrenenarekin konparatuta, orduan eta handiagoa da produktoreak eutsi behar izanen dion karga; izan ere, banatzaileen kopuruak gora egin ahala, aberastasunaren metaketak behera egin behar baitu, ondorioz produktorearengandik gehiago lortu beharra datorrelarik.

Aberastasun-banatzaileak, sistema horretan, pisu hila dira produktoreentzat, baita gizartearen moralgabetzaile eraginkorrenak ere. Euren mendekotasun egoerak, lanean hasten direnean, bezeroekin fidelkeriaz jokatzeko eta merke erosi eta karu salduz dirua egiten ari diren bitartean berdin segitzen irakasten die edo horretara bultzatzen ditu. Baina euren ustezko independentziarako –negozioa utzita bizitzeko– behar den adina diru egin dutela pentsatzen dutenean, sarri askotan harrokeria ezjakinenaz gainezka egoten dira eta ozartasunez jokatzeko dute menpekoekin.

Antolaketa hori gizarterako inolako aurreikuspenik egiten ez duena da; izan ere, gizartearen interesa kalitate oneneko ahalik aberastasun gehien produzitzea da; egungo banaketa sistemak, ordea, jende asko produktotik atera eta banatzaile bihurtzen du eta, gainera, kontsumitzaileen kostuei banaketarik eralkitzaileen eta nabarmenenaren gastua gehitzen dio halatan, non askotan banaketa erositako salgaiaren jatorrizko prezioa beste kostatzen zaion.

Orduan, irabazteko gogoak eraginda saltzailea jartzen den egoeraren ondorioz, alde batetik, eta antzeko produktuak saltzen dituzten aurkariak erakusten duten lehiaren eraginez, bestetik, salgai dituen gaiak narriatzeko tentazio handia sentitzen du; eta, narriatuak elikagaiak direnean, produkzio nazionalekoak nahiz inportaziokoak, kontsumitzaileen osasunean eta ondoriozko ongizate eta zorionean dituzten efektuak erabat kaltegarriak eta heriotza goiztiarra eragiten dutenak izaten dira maiz, batik bat langile klaseen artean, zeren horiek beherengo mailako elikagai merkeenak erosi behar izaten dituztenez, kalterik handienak berenganatzen baitituzte...

Britainia Handian eta Irlandan aberastasuna horretara banatzearen gastua, lekutik lekura iragatea eta arlo horretan zuzenean edo zeharka inplikaturiko eragile guztiak barne hartuta, urtero ehun milioikoa baino gutxi gutxiagokoa da, garraioaren eta kantitate txikietan zatitu eta biltegi eta leku desegokietan edukitzearen ondorioz aberastasun horretan sartzen diren salgai askoren kalitateak jasan ohi duen narriadura kontuan hartu gabe, leku horietako atmosfera ez baita izaten batere ona salgaiok baldintza on samarretan eta are gutxiago onenetan edukitzeko.

Gizartearen egungo egitura osora zabaldua pertsona baten eta beste baten artean eta klase baten eta beste baten artean dauden elkarren aurkako interesak argiago azaltzeko, *Considérant* jaunak hauxe gehitzen du:

Mahastizainek merkataritza askea nahi badute ere, askatasun horrek porrot eragiten die garia lantzen dutenei eta altzairua, jantziak, kotoia manu-fakturatzen dutenei, baita –gehitu beharrean gaude– kontrabandistei eta aduanetako ofizialei ere. Produkzioa merkatuz prezioak jaisten dituzten makinak asmatzea kontsumitzaileari interesatzen baldin bazaio ere, makina horiek beroriek ehunka langile egozten dituzte lanetik, beste lan bat nola topatu ez dakitenak eta topatzerik ere behingoan bederen ez dutenak. Hor dugu, bada, berriz ere zibilizazioan milaka dauden *sorgin-gurpil* horietako bat..., mila gertakari baitaude pilatuta, prest frogatzeko gure egungo gizarte sisteman gauza on bat sartzeak gauza txarren bat dakarrela beti lagun.

Labur esanda, xehetasun arruntetara jaisten baldin bagara, konturatu-gara jostunari, zapatariari eta kapelugileari jakak, zapatak eta kapeluak agudo hondatzea interesatzen zaiela; beiragileak leihoetako kristalak apurtzeko moduko harritik etekina ateratzen duela; igeltseroak eta arkitektoak, berriz, suteetatik; abokatua auziek aberasten dutela; medikua gaixotasunek; ardo-saltzailea mozkorrek; prostituta lizunkeriak. Eta a zelako hondamena letorkiekeen hala epaile, polizia eta presozainei nola abokatu, prokuradore eta letratu guztiei, krimenak, lege-hausteak eta auziak betiko bukatuko balira!⁶

Ondokoa da eskola horretako puntu nagusi bat:

Gehitu horri guztiari zibilizazio hori, hau da, alde guztietan liskarra eta gerra ereiten dituen, bere ahalaren zati handi bat lan ez-produktiboan eta are suntsipenezkoan darabilena, industrian premiarik gabe sartzen dituen tirabira eta desadostasunen bidez, gainera, aberastasun publikoa gutxitzen duena; gehitu horri guztiari, diot, gizarte sistema horren berorren ezaugarri berezi bat zera sortzea dela, lanarekiko gorrotoa, behar egiteko desgogoia.

Edonon entzuten duzu langilea, artisaua, bulegaria bere egoeraz eta lanaz kexuka, beharrak ezarritako lanetik erretiratzeko eguna noiz helduko luzeiritzian. Gorrotagarria izatea eta motibo eta euskarritzat miseriarekiko beldurra besterik ez edukitzea da lan zibilizatuaren saihestezinezko ezaugarri nagusia. Langile zibilizatua gatibu-lanetara kondenaturik dago. Produkzio lana, atseginarekin lotu beharrean, nekearekin, aspertasunarekin eta atseka-bearekin lotzeko moduan antolatuta dagoen bitartean, ahal duen guztiak ekidinen du beti. Gutxi batzuk salbuetsita, beharrak lanera derrigortuak bakarrik onartuko dute lan egitea. Horregatik, klaserik jendetsuenak, gizarte aberastasunaren egileak, erosotasun eta luxu ororen zuzeneko sortzaile eraginkorrak, pobreziaren eta gosearen atzaparretan bizitzera kondenaturik egonen dira beti; ezjakintasunaren eta degradazioaren esklabo izanen dira beti; beti segituko dute izaten, goiko klaseetako jantxakurrentzat jaki finak eta luxuzko atseginak prestatu ahal izateko, hezur eta azal hutsean, gaixotasunak urrituta, gizarteko lantegi handian goldearen atzean edo salmahaiaren atzean gerri-makur ikusten dugun zamabere talde gaitz hura.

Lana erakargarri bihurtzeko metodorik asmatzen ez den bitartean, egia izaten segituko du harako esaera hark, alegia, «pobre asko izan beharra

dagoela munduan, aberats gutxi batzuk izan ahal izateko», esaera gaizto eta gorrotagarria berori, egunero betiereko egiazat aipaturik entzuten duguna bere burua kristautzat edo filosofotzat daukan jendearen ahotik! Oso erraz ulertzen da zapalkuntza, tranpak eta batez ere pobrezia izatea lana desgogoko izatea ezaugarri duen gizartearen saihestezinezko ondare iraunkorra. Eta horren froga da ezen, baldin langile guztiak bat-batean aberats bihurtuko balira, egun guztira egiten den lanaren hogeitik hemeretzi bertan behera utziko litzatekeela.⁷

Fourieristen iritzian, gizartearen egungo ordenaren joera aberastasuna norbanako edo konpainia arras aberats erlatiboki gutxi batzuen eskuetan biltzea eta gainerako komunitate guztia haien erabat mendeko bihurtzea da. Fourierek hau *la féodalité industrielle* izendatu zuen.

Feudalismo hori (dio Considérant jaunak) eratuta geldituko da industria eta lur jabetzaren zatirik handiena berauen errenta guztia bereganatzen duen gutxiengoarena izan bezain laster, eta gehiengo nagusiak, bitartean, lan-mahaiari lotuta edo lurra lantzen nekez eta pekez, jaurtitzen zaizkion hondakinak marruskatzeaz konformatu beharko du.

Emaizta hondagarri hau, aldez, lehia areagotze hutsak ekarria da, gorago Louis Blanc jaunaren laburpenean zirrimarratuta gelditu den moduan, baina Considérant jaunak herrialdeko lur eta kapital guztiaren hipotekatzen dituen zor nazionalen areagotzeak lagunduta, «les capitalistes prêteurs», gero eta hein handiagoan, lur eta kapital horren jabekide bihurtzea lortzen dutelarik, errenten gero eta zati handiagoa jasoz lanik ez arriskurik gabe.

GIZARTEAREN EGUNGO ORDENARI JARRITAKO OBJEKZIO SOZIALISTEN AZTERKETA

Ez dago ukatzerik aurreko kapituluan azaldutako burutapenek prozesu beldurgarri bat zabaltzen dutela gizartearen egungo ordenaren kontra, edo gizakiak berak mundu honetan duen jarreraren kontra. Gaitz horietarik zenbat egotzi behar zaizkion batari eta zenbat besteari, horixe da ebatzi beharreko auzi teoriko nagusia. Baina kausarik sinesgarriena ere puztu egin daiteke; eta argi ikusi bide dute irakurle askok, aipatu ditudan pasarteetatik ere, gehiegikeriarik ez dela falta

sozialistarik gaien eta lañoenen adierazpenetan ere. Beraien arrazoibideetako asko erantzun ezinezkoak diren arren, eurotako ez gutxi ekonomia politikoko errakuntzen ondorio dira; eta hori adieraztean, esan dezadan behin betiko, ez dut esan nahi ekonomista politikoei ezarritako arau praktikoei uko egiten dietenik, baizik ez dituztela ezagutzen gertakari ekonomikoak, ezta gizarteko fenomenoak, gizartea den moduan hartuta, benetan determinatzen dituzten kausak ere.

Lehenik, zoritxarrez egia da lan normalagatiko soldatak, Europako herrialde guztietan, izugarriro urriak direla populazioaren behar fisiko eta moralei erantzun ahal izateko. Baina esaten zaigunean ezen ordainketa urri horrek ere beheranzko joera duela, ezen, Louis Blanc jaunaren berbez, *une baisse continue des salaires* dagoela, baieztapen hori informazio zuzen ororen eta ageriko gertakari askoren kontra dago. Frogatu egin behar da, oraindik frogatzeke dago eta, mundu zibilizatuko herrialderen batean lan normalagatiko soldatak, dirutan edo kontsumo gaitan kalkulatuak, beherantz doazela; askotan, ordea, oro har, gorantz doaz, gero eta astiroago barik gero eta azkarago, gainera. Badira, kasu batzuetan, industri adarrak, apurka-apurka beste batzuek ordeztzen ari direnak, eta, horietan, harik eta produktioa eskarira egokitu arte, soldatak deprimituta egonen dira; eta hori oker bat da, baina aldi baterakoa, eta asko arin daiteke gizarte ekonomia egungo sisteman ere. Horrela, zenbait enplegutik sorturiko ordainketaren jaisiera beste enpleguen batean ordainketak gora egin izanaren edo ordainketa iturri berri bat sortu izanaren ondorio edo froga da; hartara, ordainketa guztira eta batez beste ez doa beherantz, eta are gorantz doa. Edozein industri adar nagusitan soldaten mailan itxuraz izandako beherakada bat hautemateko, beti ikusi da beharrezko erkatzea oraintsu igarotako aldi baterako depresio bereziko hilabete edo urte bat, edo are maila bereziki altu bat, lehenagoko batez beste soldata mailarekin. Gorabeherak, dudarik ez, gaitz handia dira, baina ekonomi historiaren lehenagoko aldietan orain diren bezain maizkoak eta latzak ziren. Transakzioen eskala handiagoak eta fluktuazio bakoitzean inplikaturiko pertsonak gehiago izateak fluktuazioak handiago ematea ekar lezaket, baina, populazio handiagoak kalte gehiago suposatzen duen arren, gaitzak ez du pisu handiagoa hartzen norbanako bakoitzaren gainean. Europako herrialdeetako langile jendearen bizimoduak hobera egin duela erakusten duten froga asko

dago, eta bat ere ez –hori gauza ziurra da erabat– txarrera egin duela erakusten duenik; kontrakoa inoiz agertzen denean, arazo lokala edo partziala izaten da, aldi baterakoa baino ez den hondamenen baten presioak edo zuzengarri den lege txarren batek edo zuhurtziarik gabeko gobernu-ekintzaren batek eragindakoa dela ikus daitekeena, kausa iraunkor guztien eragina, oster, hobekuntzarantz denean.

Horregatik, Louis Blanc jauna bera, berdintzaileen eta demokraten lehenagoko eskola baino askoz ilustratuago dela erakutsi arren, soldata urrien eta populazioaren gehikuntza biziki azkarraren arteko lotura onartzen duen heinean, badirudi hasieran Malthus jaunak eta bere jarraitzaileek egindako errakuntza berean erori dela, hau da, populazioa gehitzeko ahala bizibidea gehitzekoa baino handiagoa delako, hark bizibidearen gain duen presioak gero eta handiagoa izan behar duela suposatzeko errakuntzan. Diferentzia bakarra da hasierako malthustarrek presio hori joera kontrolaezina zela uste zutela, eta Louis Blanc jaunaren ustez, ordea, kontrolagarria dela, baina komunismo sistema baten pean soilik. Egiaren aldeko puntu garrantzitsu bat irabazten da gainpopulaziorako joera hala komunismoak nola egungo gizarte ordenak jorratu beharreko gertakari bat dela ikustera heltzeaz. Eta biziki poztekoa da egiaztatzea dauden sozialismo eskola gehienek onartzen dutela behar hori. Owenek eta Fourierek ere, ez Louis Blanc jaunak baino gutxiago, onartu zuten hori, eta nork bere sistemarentzat zailtasun hau gainditzeko besteen gaintetiko ahala aldarrikatu zuten. Dena dela kontu hori, esperientziak erakusten du gizarteak egun duen egoeran populazioak bizibidearen gainean duen presioa, soldata urrien kausa nagusia dena, gaitz handia den arren, ez dela areagotuz doan gaitza; aitzitik, zibilizazioa deritzon guztiaren aurrerapenak gaitz hori arintzeko joera du, aldez enplegua sortzeko eta lana mantentzeko bitartekoak azkarrago gehitzen direlako, aldez lanari beste herrialde batzuetara eta enplegurik gabeko eremuetara mugitzeko erraztasunak ireki zaizkiolako, eta aldez populazioaren adimenak eta zuhurtziak gehienengan hobera egin dutelako. Aurrerapen hori, zalantzarik gabe, geldoa da izan; baina gauza handia da aurrerapen hori mailarik txikienean bada ere gauzatzea, noiz eta jende guztiaren heziketarako mugimendu publiko horren lehenbiziko etapan gaudenean, hau da, aurrera egitean gorago zehazturiko hobekuntzaren kausa bien indarra asko areagotu behar duen mugimenduaren hasieran.

Eztabaidagarria da, jakina, zein gizarte erak duen populazioak bizibidearen gainean duen presioa gainditzeko ahalik handiena, eta gai horri buruz asko dago esateko sozialismoaren alde; luzaroan haren punturik ahulena zela uste zena agian punturik sendoenetarikoa dela demostratu du. Baina ez du arrazoirik esateko sozialismoa dela bitarteko bakkarra, pobrezia gainpopulazioa sortzeko duen joera bereziaren eragina bitarteko dela, gizateri masak jasaten duen degradazio orokor eta hazkorra galarazteko. Gizartea gaur eratuta dagoen moduan ez da ari leize horretan behera amiltzen, baizik gradualki, astiro baina, leize horretatik irteten; eta hobekuntza hori segurutik gero eta handiagoa izanen da lege txarrek oztopatzen ez badute.

Hortaz, ohartu beharra dago sozialistek oro har, eta eurentako ilustratuenek ere, lehiaren eraginaren nozio inperfektua eta alde bakarrekoa dutela. Lehiaren ondorioen erdi bat ikusten dute eta beste erdia ez dute aintzakotzat hartzen. Nornahiren ordainsaria murrizten eta nornahi bere lanagatik soldata urriagoa edo bere salgaiengatik prezio murriztagoa onartzera behartzen duen eragileztat daukate lehia, hori egia bakar-bakarrik litzatekeelarik, baldin nork bere lana edo salgaiak monopolista handi bati saldu behar balizkio eta lehia guztia alde bakar batean balego. Ahantzi egiten dute ezen lehia dela prezio eta balio altuen sorburua, baxuena ere den moduan; ezen lana eta salgaiak erosten dituztenak elkarren lehiari aritzen direla saltzen dituztenak bezalaxe; eta ezen, baldin lana eta salgaiak duten prezio baxuan mantentzen dituen lehia bada, bera dela are beherago erortzen uzten ez diena ere. Benetan ere, lehia alde bietatik erabat aske denean, haren joera ez da izaten bereziki salgaien prezioak igotzera ez jaistera, berdintzera baizik; ordainsarietako ezberdintasunak berdintzera da haren joera, eta dena batez besteko orokor batera ekartzera, emaitza hori, gauzatzen den heinean (modu hobegarrian beti, zalantzarik gabe) printzipio sozialisten arabera guragarria delarik. Baina baldin, prezioei goian eustean datzan lehiaren ondorioen parte albo batera utzita, arreta behean mantentzen dituen ondorioan soilik jartzen badugu eta ondorio hori langile klaseen interesen ikuspuntutik bakarrik kontuan hartzen badugu, orduan badirudi lehiak, soldatak behean mantentzen baldin baditu eta, hartara, langile klaseei lan merkatua, ahal badute, lehiaren eragin osotik aldentzeko motiboa ematen badie, eragina ukan behar duela, beste aldetik, soldatekin erosten diren salgaien prezioak

behean mantentzeko, soldatapeko guztien mesede handitan. Ideia horri ihardesteko, sozialistek, Louis Blanc jaunari buruzko aipamenean esan dugun moduan, lehiaren bidez ekoizturiko salgaien prezio baxuak engainagarriak direla eta azkenerako lehengoak baino prezio altuagoetara garamatzatela besterik ez diote, lehiakide aberatsenak bere kontrario guztiak aldamenetik kentzea lortzen duenean, bera omen delako merkatuan agintzen duena, nahi dituen prezioak eska ditzakeelarik. Orain, esperientziarik komunena erakusten du, norgehiagoka benetan librearen araupean, horrelako egoera bat erabat irudipenezkoa dela. Lehiakiderik aberatsenak ez ditu kentzen eta ezin kendu ere ditu bere kontrario guztiak aldamenetik eta bera gelditu merkatuaren jaun eta jabe bakar; eta lehenago lagun askoren artean banatuta egon den industria edo merkataritzako adar inportante bat ez da inoiz gutxi batzuen monopolio bihurtu, ezta horretarako joerarik erakutsi ere.

Deskribaturiko politika moldea gerta daiteke batzuetan, adibidez, trenbideen kasuan bezala lehian bizpahiru konpainia handik bakarrik parte har dezaketen negozioetan, kapitalista indibidualek parte hartu ahal izateko baino eskala handiagoan direlako operazioak; eta horixe da nahitaez konpainia anonimo handiek aurrera eraman beharreko negozioak lehiaren pean utzi ezin izateko dauden arrazoietako bat; horrelako kasuetan, izan ere, negozio horiek, Estatuak berak hartzen ez dituenean, Estatuak jarritako eta alditik aldira aldaturiko baldintzen pean eraman behar dira aurrera, publikoaren beharrei interes pribatuak, behar adina lehiakiderik ukan gabe, erantzunen liekeen baino merkeago erantzuteko modua segurtatzeko. Baina industri adar arruntetan ezein lehiakide aberatsek ere ez du bere esku txikiago guztiak kanpora botatzeko ahalmenik. Negozio batzuek produktore edo salerosle txiki askoren eskuetatik handiago gutxiagoren eskuetara pasatzeko joera erakusten dute; baina horrelako kasuak kapital handiagoa edukitzeak makineria indartsuagoa, prozesu garestiagoen bidez eraginkorragoa, eskuratzeko edo negozioa aurrera eramateko modu hobeto antolatua eta ekonomikoagoa ezartzeko aukera ematen dutenak dira, eta, hartara, salerosle handiari bere salgaiak, zilegitasunez eta iraunkorki, eskala txikian sal litezkeen baino merkeago saltzeko ahalbidea ematen diote, kontsumitzaileen eta, beraz langile klaseen mesede handitan eta asko gutxiturik, *pro tanto*, bai sozialistek hain-

besteko kexuz aipatzen duten komunitatearen baliabideen eralkitzea eta bai banatzaile hutsen eta Fourierek industriako parasito esaten dien beste klaseen alferreko ugaltzea. Aldaketa hori burutzen denean, negozioan partaide diren kapitalista handiak, direla norbanakoak edo konpainia anonimoak, oso gutxitan, egundo bada, izaten dira, merkataritza adar handi batean, beren arteko lehiak eraginkor ez segitzeko bezain gutxi; hartara, kostuetako aurrezpena, saltzaile txikiagoei merkeago saltzeko aukera ematen diena, gero ere hasieran bezala pasatzen da, prezio baxuagoetan, haien bezeroengana. Lehiak salgaien prezioak behean mantentzeko daukan eragina, beraz, ez da irudipenezkoa, errealia baizik, eta –gehi genezake– beherantz barik gorantz doan faktorea da.

Baina auziaren garrantzia bereko beste alderdi batzuetan sozialistek lehiari egotzitako karguei ezin liezaieke hain erantzun biribilik eman. Lehia merketasuna lortzeko bermerik onena da, baina inondik ere ez du kalitatea segurtatzen. Hasieran, produktore eta kontsumitzaileak hainbeste ez zirenean, biak lortzeko bermea zen lehia. Merkatua ez zen salerosle batek, bezero berriak etengabe erakarriz, dirutzak egin ahal izateko bezain handia, eta publizitate bitartekoak ere ez ziren horretarako behar bezainbeste: haren arrakasta lehendik zeuzkan bezeroei eustearen mende zegoen; eta saltzaile batek jenero ona eskaintzen zuenean zein ez zuenean, hori aurki zabalitzen zen interesatuen artean eta saltzaile ondradu edo maltzur fama hartzen zuen, eta hori inportanteagoa zen harentzat lantzean behin erosleren bati iruzur eginda irabazten zuena baino. Baina eskala handiko transakzio modernoetan, lehia hainbeste ugaltu denean eta norgehiagoka aritzeko negozioen kopurua hainbeste hazi denean, saltzaileak hain neurri txikian daude bezero finkoen mende, non izen ona ez duten hain funtsezko eta, aldi berean, merezi duten izen ona lortzeko askoz ziurtasun txikiagoa duten. Saltzaile batek iragartzen dituen prezio baxuak mila lagunek ezagutzen badituzte, horietarik bat baino ez da salgaien kalitatea beraien merketasunari dagokiokeena baino txarragoa dela bere kabuz edo inork esanda deskubritzen duena; bestalde, aldi berean salerosle batzuek egun egin dituzten dirutza handiagoei denen diru-gosea pizten dute eta azkar aberasteko gogoak hartzen du norbere negozioaz bizitzeko lain atera nahiak izan duen lekua. Hartara, aberastasuna gehituz doanez eta prezio handiak eskueran ageri direnez,

jite espekulatzaila ari da sartzen merkataritzan; eta jite hori gailen den tokian, zuhurtzi arau xumeenak albo batera uzteaz gain, diru kontuko makurkeri era guztiak, arriskutsuenak ere, bultzada ikaragarria hartzen dute. Horixe da lehia modernoaren indarra deritzonaren esanahia. Aipatu beharrekoa da, gainera, indar horrek neurri bat hartu duenean eta gai baten produktoreen edo salerosleen zati batek zenbait iruzur eratarata, hala nola, aizuntzera, neurri txikiagoa ematera, etab., jotzen duenean (berauen gehikuntzak egun kexu ugari sortarazten du), iruzurra praktikatzen hasteko tentazio ikaragarria sentitzen dute berez horretan hasiko ez zirenek; izan ere, publikoak badaki prezio baxuak iruzurra dutelako direla baxuak, baina lehenengotan, eta agian inoiz ere, ez da konturatzen salgaiak ez duela balio jarri dioten prezio baxua ere, eta ez da joanen salgai hobearen prezio altuagoan erostera, eta saltzaile ondradua, horretara, desabantaila ikaragarrian gelditzen da. Beraz, hasieran gutxi izan ziren iruzurrak merkataritzako ohitura bihurtu ziren, eta merkataritzako klaseen moralitatea gero eta okerre-rago doa.

Horregatik, puntu horretan sozialistek benetan ere agerian jarri dute gaitz handi bat ez ezik, populazioarekin eta aberastasunarekin batera hazten ari den eta hazteko joera duen gaitz bat dagoela. Hala ere, esan behar da gizarteak ez dituela erabili gaitz horri konponbidea ematen saiatzeko dagoeneko bere esku dituen bitartekoak. Merkataritzako iruzurraren kontrako legeak oso akastunak dira eta euren egikaritzea are akastunagoa. Horrelako legeek ez dute benetan indarrean jarrita egoteko aukerarik, baten batek lege horiek beren beregi indarrean jartzeko betebeharra ukan ezean. Fiskal baten premia berezia dute. Oraingoz jakiteke dago zenbateraino den posible lege kriminalerantz erreprimitzea egun auzitegietara oso gutxitan eraman daitezkeen eta, eramaten direnean ere, herrialde honetako administrazio judizialak gehiegizko barkaberatasunaz epaitzen dituen mota horretako delituak. Mota inportanteeneko iruzurrak, alabaina, jende masari egiten zaizkionak eta eguneroko kontsumo gaien prezioa edo kalitatea ukitzen dutenak, kontsumo kooperatibak eratuz gandi daitezke neurri handian. Plan horren bidez aipaturiko xedearekin elkarre bat sortzen duen kontsumitzaile talde orok txikizkako saltzaileei paso egin eta erosgaiak handizkakoei zuzenean erosteko aukera du, edo hobeto (handizkako kooperatibak jada ezarrita dauden honetan) produktoreei

erostekoa, hartara, talde hori egun banatzaile klaseei ordaintzen dien zerga handitik aske geratzen delarik eta aldi berean aizuntzeak eta bestelako iruzurrak egin ohi dituztenak paretik kentzen dituelarik. Banatzea, horrela, salgaiaren merketasuna eta kalitate ona beste interesik ez dutenek aukeratu eta ordainduriko jendeak buruturiko lan bihurtzen da; eta banatzaileak, hartara, egin beharreko lanerako juxtu behar direnak, ez gehiago, izatea lortzen da. Planaren zailtasunak kudeatzaileek ukan behar dituzten trebezia eta fidagarritasunean eta elkarreak luzera haiengan ukan dezakeen kontrol eskasean dautza. Sistemak hain arrakasta handia ukan eta hain agudo hazi izanak, alabaina, zailtasunok neurri jasangarrian gainditu direla erakusten du. Nolanahi ere, baldin txikizkako saltzaileen lehiak merketasuna bultzatzera duen joera onuragarria amaitu bada eta beste segurtasun batzuek ordezkatu behar badute, lehia berorrek kalitatea narriatzera duen joera desaginda gelditzen da neurri batean bederen; eta kontsumo kooperatiben arrakastak argi erakusten du onura hori merketasunari ezer kendu gabe ez ezik, merketasunaren mesede handitan erdiesten dela, zeren negozioaren etekinek kontsumitzaileei eskaintako salgai bakoitzaren prezioaren honenbesteko handi bat itzultzeko ahalbidea ematen baitiote kooperatibari. Horregatik, gaitz mota horri dago-kionez, abian da jada erremedio eraginkor bat, eta erremedio hori, printzipio sozialistek iradokia eta alde zahietan oinarritua den arren, bateragarria da egun dugun jabetzaren egiturarekin.

Kasu deitoragarri askotan oso ezagunak izan diren ekonomi iruzurrei edo iruzurraren pareko praktika gaizto nabarmenei dagokionez –salerosleek edo bankariek euren artean edo euron eta dirua euron esku utzitakoen artean buruturikoak guztiak–, gorago deskribaturiko erremedioak ez du balio, eta gizartearen egungo eraketak horien kontra ematen dizkigun baliabide bakarrak iritziak horiek zorrotzago gaitzestea eta legeak eraginkorkiago erreprimitzea dira. Ez da egin gano-razko probarik erremedio horiek, ez bata ez bestea, praktikan jartzeko. Kaudimen-gabeziak gertatzean agertu ohi dira argitara onestasunik gabeko praktika horiek; horrelakoak egiten dituztenak ez dira gelditzen gaizkileen artean sailkatuta, zordun kaudimengabeen artean bai-zik; eta herrialde honetako eta besteetako legeak hain basatiak ziren lehenago kaudimen-gabezia hutsaren kontra, non, gizateriaren iritziak askoren artean eduki lezakeen erreakzio baten eraginez, kaudimenga-

beak batez ere errukarri bihurtu baitziren, legearen zein iritzia-
ren bidez presio arinegirik nekez egin zekiekeela pentsatzeraino. Gure
legeak ohikoa duenaren kontrako norabidean egindako errakuntza
bategatik –gure legeak, izan ere, kalteen zigorrari dagokionez kalte-
tuari eman beharreko kalte-ordainari ez baitio eskuarki inolako jara-
monik egiten–, porrotei buruz ditugun legeen ia helburu bakarra har-
tzedunei euren ondasunetatik galdu gabe gelditzen dena itzultzea izan
da, ia inolako garrantzirik eman gabe lehenengo mailako helburu hori
zuzenean oztopatzen ez duen administrazio txarragatik porrota zigor-
tzeari. Azken hiruzpalau urteetan kontrako erreakzio txiki bat izan da,
eta porrot-egintza bat baino gehiago burutu dira, porrot egindakoa-
ren hain barkaberak izan ez direnak; baina kontuan izan den lehen
mailako helburua, hala ere, hartzedunen diru-interesa da, eta porrot
egindakoa-
ren beraren kriminaltasuna, kalteen kopuru txiki ongi muga-
tu bat kanpo utzita, ia inolako zigorrak gabe gelditzen da. Tinko baiez-
ta daiteke, beraz, ezen, gutxienez gure herrialdean, gizarteak ez duela
erabili daukan botere bat: merkataritzan onestasun gabe jokatzeko deli-
tugilearentzat arriskutsu bihurtzekoa. Aitzitik, jokoko tranpa bat da,
non iruzurgileak abantaila guztiak bere alde dituen; tranpa ongi atera-
tzen bada, dirutza egiten du, edo ez du ezer galtzen; gaizki ateratzen
bada, gehien ere txirotasunean gelditzen da, arriskuan sartzea agian
horrexen mehatxuak eraginda erabaki ondoren, eta asuntza zehatzegi
aztertu ez dutenek, eta aztertu duten hainbatek ere, doilorren artean
barik zorigaiztokoen artean sailkatzen dute. Kaudimen-gabezia erru-
duna tratatzeko modu moralago eta razionalagoa bilatzen saiatu eta
ustel atera arte, merkataritzako onestasunik eza ezin da kokatu merka-
taritzako lehian nahitaezko nagusitasuna duten gaitzen artean.

Sozialistek, sindikalistek eta lana kapitalaren aurka jartzearen
aldeko beste batzuek maiz gaizki ulertzen duten beste puntu bat
herrialdeko produkzioa egiatan nola banatzen den eta berau produzi-
tzen dutenei, beste batzuk aberasteko, zenbat kentzen zaien ukitzen
duena da. Oraingoz ez dut lurraz hitz eginen, aparteko gai bat da eta.
Baina negozioetan erabiltzen den kapitalari buruz irudipen pilo bat
dago herri mailako iritzietan. Kapitalista batek, adibidez, bere nego-
zioan 20.000 libra inbertitu eta, esate baterako, urtean 2.000 librako
errenta ateratzen duenean, jenderik gehienari iruditzen zaio hala
20.000 libren nola 2.000 libren jabe gozamenduna dela, langileak,

ordea, euren soldaten beste ezeren jabe ez direnean. Egia, alabaina, da hark 2.000 libra baino ez dituela eskuratzen, 20.000 libren zati bat ere bere gauzetarako ez erabiltzeko baldintzaren pean. Kontrol legala du diru kopuru honen gain eta xahu dezake nahi izanez gero, baina hori eginez gero ez ditu urtean 2.000 libra horiek aterako. Bere kapitalari errentaren bat ateratzen dion heinean, ez du aukerarik besteei kapital hori erabiltzea eragozteko. Inbertituriko kapitala eraikin, makineria eta produkzio lanabesek osatzen duten neurrian, produkzioarako erabiltzen da eta ezin da erabili inoren mantenurako edo dibertsiorako. Horrela aplikatu daitekeena (eraikinak eta lanabesak mantendu eta berriztatzeko ordaintzen dena ere barne) langileei ordaintzen zaie, euren ordainsaria eta produkzioaren banaketan duten partea delarik. Langileek euren xede pertsonal guztietarako kapitala dute; kapitalistak, ordea, etekinak baino ez ditu, eta etekinok kapitala bere beharrei erantzuteko barik langileenei erantzuteko erabiltzen dituenen bakarrik ateratzen ditu. Kapitalaren etekinek kapitalarekin berarekin (edo haren zati zirkulatzailarekin, hobeto) normalean duten proportzioa produziturikoan kapitalistari dagokion parteak langileek gehituriko partearekiko duen ratioa da. Bere partetik ere zati txiki bat baino ez dagokio kapitalaren jabe legez. Kapitalari kapital bezala soilik dagokion produktuaren zatia diruaren interesak neurtzen du, zeren horixe baita kapitalaren jabeak eskuratzen duena, produkzioa kapitala bera besterik ekartzen ez duenean. Orain kapitalaren interesa fondo publikoetan, seguruentzat daudenetan alegia, egungo prezioen arabera (urte pilo batean ez dira asko aldatu) ehuneko 3 eta $\frac{1}{3}$ da. Inbertsio horretan ere bada arrisku txiki bat: uko egiteko arriskua, merkataritzaren krisialdiren batean prezio baxuan likidatzera behartua izateko arriskua.

Arrisku horiek $\frac{1}{3}$ izango direla estimatuz, gelditzen den ehuneko 3a kapitalaren ordainsaritzat har daiteke, kalteen kontrako asegurutik aparte. Hipoteka bermearekin ehuneko 4 erdiesten da normalean; baina transakzio horretan askoz arrisku handiagoak daude: gure lege sistema txarraren pean dagoen lurraren jabetzako tituluen ziurgabetasuna, segurtasuna karga legetako kostu handiarekin gauzatu beharra izateko arriskua, interesa eskuratu orduan geroratzeak jasateko arriskua, tronkoa salbu denean ere. Diruak soilik, erabileratik aparte, batzuetan egiten duen bezala, adibidez, trenbideetako eta beste konpainia batzuetako akzioetan, errenta handiagoa ematen duenean,

superabita ia inoiz ere ez da kapital osoa edo zati bat kudeaketa txar-
ragatik galtzeko arriskuaren baliokidea, Brighton Railwayren kasuan
bezalaxe, zeinaren dibidendua, urtean ehuneko 6 izan ondoren, ehu-
neko 1,5 izatera jaitsi zen eta 120an erositako akzioak 43 ingurutik
gora ezin saldu izan ziren. Dirua batzuetan entzuten diren interes tasa
altuetan, xahutzaileek eta larri dabiltzanek bakarrik onartzen dituzten
tasetan, mailegatzen denean, hain izaten da handia galtzeko arriskua,
non dirudun gutxi eraman daitekeen horiei dirua mailegatzera.
Hagatik, arrazoi gutxi dago «lukurreriaren» kontra zalapartan ibiltze-
ko, langile klaseen karga handietako bat dela esanez. Beraz, industrial
batek edo beste edozeinek bere kapitalari ateratzen dizkion etekineta-
tik ezin dakioke ehuneko 3 bat baino gehiagorik eratziki kapitalari
berari. Kapital guztia bere langileei –zeintzuek jada haren kapital osoa
konpartitzen duten, urtez urte birsortzen baita– utzi ahal eta nahi
balie, haien asteroko soldatek ez lukete gorakada handirik izanen.
Ehuneko 3tik gora erdiesten duenetik zati handi bat industrial horrek
jasateko arriskua duen askotariko galeren kontrako aseguruari dago-
kio, eta ezin du erabili arriskurik gabe bere gauzetarako, galera horiek
gertatzen direnerako gorde behar duelako. Gainerakoa bere trebetasu-
naren eta lanean saiatzearen ordainsaria da, zuzendaritzan egindako
lanaren soldatak. Negozioetan benetako arrakasta badauka, haren sol-
data horiek, zalantzarik ez, ezin oparagoak izanen dira eta inolako
proportziorik gabekoak maila bereko trebetasun eta lanean saiatzeari
kontratu bidez eskainitakoarekiko. Baina, beste alde batetik, enplegu-
rik gabe gelditzekoa baino arrisku handiagoa dauka; ezer irabazi gabe
lanean jardutekoa, lana eta larritasuna bereganatzekoa, soldatarik jaso
gabe. Ez diot desabantailak pribilegioak berdintzen dituztela edo, bere
zerbitzuak inori alokatzen dizkion superintendente trebea izan beha-
rrean, kapitalista eta lan-emaile izateak abantailarik ez dakarkionik;
baina haren abantailen zenbatekoa ez da kalkulatu behar prezio altuak
bakarrik kontuan izanda. Batzuen irabaziei beste batzuen galerak ken-
tzen badizkiegu eta hor ateratzen zaigunari bitzuon estutasun, trebeta-
sun eta lanagatiko konpentsazioa, superintendentzia trebearen merka-
tuko prezioen arabera kalkulatu, kentzen badiogu, gelditzen dena
kopuru nahiko handia izanen da zalantzarik gabe; baina kopuru hori,
hala ere, urtero birsortzen eta soldatatan gastatzen den kapital guztia-
rekin erkatuta, herri irudimenak ikusten duena baino askoz txikiagoa
da; eta kopuru hori langileen parteari osorik gehituz gero, ez lioke

parte horri gehiago gehituko, makineria kontuan sorturiko asmakari inportante batek edo behar ez diren banatzaileak edo bestelako «industriako parasitoak» kentzeak gehituko liokeena baino. Hala ere, kapitala saritzera destinaturiko industriaren produktu zatia osotzeko, ez dugu geratu behar produktuarekin bera produzitzen benetan erabilitako kapitalak irabazitako interesean, baizik ez-emankorki gastatu den eta jada ez dagoen eta, jakina, beste kapitalaren produktutik ordaintzen den kapitalaren lehenengo jabeai ordaindurikoa ere sartu behar dugu. Era horretakoa da zor nazionalen interesa, zeina iragani-ko zailtasun eta arriskuengatik edo agintarien burugabekeria edo zarrastelkeriarengatik nazio bati kargatzen zaion kostua baita, nazio-ak berak gutxi-asko konpartitua. Horri lurjabeen eta beste kontsumi-tzaile ez-emankorren zorren interesa gehitu behar zaio, maileguz har-turiko dirua lurraren produkzio-ahalmenak dirua emateko moduan hobetzeko gastatu denean izan ezik. Funts-ondasunei edo lurraren errentaz jende pribatua jabetzeari dagokionez, gai hau, esan bezala, geroago eztabaidatzeko uzten dut; izan ere, lurraren jabetza eskubidea onargarri ikusten den edozein eratan alda daitekeenez gero, lur guztia Estatuaren jabetzako deklaratu daiteke, beti ere giza lan eta abstenen-tziaren fruitu den edozeren jabe izateko gizakiak duen eskubideari ezer kendu gabe.

Sozialismoaren eta gizarte honen egoeraren arteko egiazko pun-tuak behar bezala ulertu ahal izateko, hobe zela zirudien sozialismoa-ren gaiari gehiegikeria sozialistak leuntzeko erabilitako oharretatik hel-duz hastea. Egungo sistemak ez dihardu, sozialista askok uste duten moduan, guztiok behingo batean pobrezia eta esklabotasun egoerara eramaten. Sistema honen pean pairatzen diren gaitzak eta bidegabeke-riak handiak dira, baina ez doaz gehituz; aitzitik, apurka-apurka gutxi-tzera dute, oro har, joera. Gainera, kapitalaren eta lanaren artean egiten den produktuaren banaketan ikusten diren ezberdintasunek berezko justizi sena erabat iharroz dezaketen arren, horretan berdintasuna lor-tze hutsak ez luke sortuko beherengo mailako soldatak igotzeko behar adinako fondoa, sozialistek eta sozialista ez diren beste askok aise asko pentsatzen duten moduan. Gaur gizartean nagusi den edozein abusu edo bidegabekeria abolitze hutsaren bidez gizateria ez da sufrimendu-tik zorionera pasako. Guri dagokiguna gizarte sistema ezberdin biren artean erkaketa lasai bat egitea da, ahalik ongien ebazteko euretako zei-

nek dakarzkigun baliabiderik indartsuenak bizitzako zailtasun halabeharrezkoak gainditzeko. Eta galdera horri, pentsatu ohi dena baino zailagoa den eta baldintza moral eta intelektualen mendeago dagoen galdera horri, erantzuna aurkitzen badiogu, gogobetegarri da kontuan izatea badugula aurrean denbora galdera honen erantzuna eskala esperimentalean lantzeko, benetako probak eginez. Uste dut aurkituko dugula ezen ezin dela egin beste probarik sozialisten planak praktikan jar daitezkeela edo eragin onuragarria izanen dutela jakiteko; baina, era berean, ezen sozialismoaren arrazoi intelektual eta moralek azterlanik arretatsuen merezi dutela, gizartearen egungo sistema ekonomikoari aukerarik onena emateko beharrezko diren hobekuntzetarako printzipio gidatzaileak eskaintzen dizkigutelako kasu askotan.

SOZIALISMOAREN ZAILTASUNAK

Beren buruak sozialistatzat dituztenen artean bi pertsona mota bereiz daitezke. Lehenengo motakoak, gizartearen ordena berri baterako planak, hau da, jabego pribatua eta lehia indibiduala kendu eta horien ordeztatu jardunerako beste motibo batzuk jartzekoak, baserri edo herri mailan aplikatu eta gero unitate autonomo horiek ugalduz herrialde osora hedatzearen aldekoak dira; horrelakoak dira Owen eta Fourieren sistemak, baita pentsalari eta filosofo sozialista gehienek ere. Bigarren motakoek, Britainia Handiaren sorkariak baino areago kontinentearenak direnek eta sozialista iraultzaileak esan dakiekeenek, askoz kolpe ausartagoa proposatzen dute. Haien eskema herrialdeko produkzio baliabide guztiak agintaritzat zentral batek, gobernu orokorrak, zuzentzean datza. Eta ikuspegi horrekin eurentako batzuek aitortzen dute euren xedea langile klaseek, edo beraien izenean norbaitek, herrialdeko jabetza guztia hartzea eta guztien onerako administrazioa dela.

Direnak direla sozialismo era biotarik lehenengoak dituen zailtasunak, bistan da bigarrenak zailtasun berak eta beste asko gehiago inplikatu behar dituela. Lehenengoak, gainera, abantaila handi bat dauka: pixkanaka jar daitezkeela abian eta proba eginda egiazta daitezkeela dituen gaitasunak. Aukerako populazio batekin proba daiteke lehenbizi eta gero beste populazio batzuetara hedatzea, beraien hezkuntza eta kulturak horretarako aukera eskaintzen duten heinean. Ez luke iri-

tsi behar, eta gauzen ordena naturalean ez litzateke iritsiko, subertsio makina bat izatera, harik eta berreraikitze makina bat izateko gaitasuna ere badaukala erakutsi arte. Bestearekin ez da horrelakorik gertatzen; izan ere, horren helmuga zera da, kolpe bakar batez araubide zaharra berriaz ordeztu eta oraingo sisteman egindako gauza on guztiak eta hobetzeko dauden ahalbide ugariak behera bota ondoren, inolako prestakuntzarik gabeko salto bat egitea gizarte bizitzako ekintza guztiak abian mantentzeko arazoaren era muturrekoeneraino, orain arte gizarte makineria guztia beti funtzionarazi duen indar eragilerik gabe. Aitortu behar da joko hori beren iritziz partikularrean, egiaztapen esperimentalez egundaino berretsi gabekoan, oinarrituta, hau da, orain bizimodu fisiko erosoaren dutenak berori zaintzeko egun dituzten bitarteko guztiez bortxaz gabetuko lituzkeen eta, jendea ahalegin horren aurka jaikiz gero, odol isurketa ikaragarria eta ondorengo miseria ekarriko lukeen iritzian oinarrituta jokatu lukeenek bi ezaugarri ukan beharko lituzkete: beren zuhurtzian konfiantza lasaia, alde batetik, eta besteen sufrimenduekiko aihergatasuna, bestetik, Robespierren eta St. Justen pare, tasun bion orain arteko adibide tipikoak biak. Hala ere, eskema horrek onarpen maila handiko elementuak ditu, sozialismoaren era zuhur eta arrazoizkoagoek ez dituztenak, egingen omen duena agudo egingen duela agintzen duelako eta bere aldeko gartsuei euren nahiak eta asmoak euren bizialdian eta kolpe batez beteta ikusteko esperantza eskaintzen dielako.

Sozialismoaren era iraultzailearen berezitasunak, hala ere, era biekin batera dagozkien burutapenak behar bezala haztatu ondoren aztertuko ditugu egokiro.

Munduko produkzioak ezinen luke egungo mailara hurbildu, ezta gaur dituen biztanleen kopuruaren hurbilekorik sostengatu ere, bi baldintza bete ezean: makineria, eraikin eta produkzio lanabes ugari eta kostu handikoak edukitzea eta ekimen luzeak martxan jartzeko eta beraien fruituaren zain luzaro egoteko gai izatea. Bestela esanda, kapital metaketa handia egin behar da, hala lanabes eta eraikinetako kapital finkoari nola zirkulatzailari, hau da, langileak eta euren familiak harik eta produkzio operazioak osatu eta produktuak lortu arte sostengatzeko erabiliari, dagokionez. Behar hori lege fisikoen mende dago eta giza bizitzaren izaerari datxekiona da; baina herrialdeko produkzioaren eskakizun horiek, kapitala, finkoa eta zirkulatzaila (zei-

nari lurra eta lurrak bere baitan daukan guztia gehitu behar zaion), kapital hori darabilten guztien jabetza kolektibokoa izan daiteke, edo gizabanakoena izan daiteke; eta galdera da ea antolabide horietatik zein den giza zoriona lortzeko egokiena. Sozialismoaren ezaugarri nagusia produkzioko lanabes eta bitarteko guztiak komunitateko kide guztien jabetza komunekoak izatea da; eta horrek ondorio gisa dakar produktuaren banaketak jabe guztien artean ekintza publiko bat izan behar duela, komunitateak ezarritako arauen arabera buruturikoa. Sozialismoak inola ez du galarazten kontsumo ondasunen jabetza pribatua, bakoitzak, berari dagokion produktuaren zatia hartu ondoren, hura gozatzeko, emateko edo aldatzeko duen eta berea beste inorena ez duen eskubidea. Lurra, adibidez, oso-osoan izan daiteke komunitatearen jabetzakoa nekazaritzarako edo bestelako produkzio xedeetarako eta guztien artean labora daiteke, eta, hala ere, gizabanako edo familia bakoitzari euren ordainsariaren zati gisa esleituriko etxebizitza bakoitzarena bakarrik izan, lan komunean dagokien partea betetzen segitzen duten artean, edozeinen etxea orain den moduan; eta etxebizitza bakarrik ez ezik, baita elkarteak etxeari erantsita eta ingurua apainduz gozatzeko eman liezaiekeen edozein lur-txatal ere. Sozialismoaren bereizgarria ez da gauza guztiak komunak izatea, baizik produkzioa denen kontura bakarrik burutu ahal izatea eta produkzio lanabesak jabetza komunekoak izatea. Sozialismoaren *bideragarritasuna*, beraz, Owen jaunaren edo Fourier jaunaren herrietako eskalan, eztaba daezina da. Nazio bateko produkzio guztia antolakuntza zentral batek zuzentzeko saioa, ordea, beste kontu bat da; baina bi milatik lau milara laguneko nekazaritza eta manufaktura elkarte misto bat ordea, lur eta klima nahiko onargarria ukanez gero, sozietate anonimo kolektibo asko baino errazago zuzen daiteke. Aztertu beharreko auzia da ea kudeaketa kolektibo hori kapital pribatuak buruturiko industria pribatuaren kudeaketa bezain eraginkorra eta arrakastatsua izanen denentz. Eta auzi horretan bi alde izan behar dira kontuan: zuzendaritzako buruaren edo buruen eraginkortasuna eta langile xumeena. Eta auzi hori erarik sinpleenean aztertzeko, sozialismo mota hori komunismoa dela suposatuko dugu, hau da, produktua partaide guztien artean berdintasunez banatzea edo, Louis Blanc jaunaren justizi eredu are jasoagoan, langileen behar ezberdinen arabera hainbanatzea, baina betebeharrak motaren arabera, ezta gizabanakoaren usteko merezimenduen edo zerbitzuen arabera ere, ordainsarian alderik eza-

rri gabe. Badira beste sozialismo era batzuk ere, Fourierismoa batik bat, justizi edo egokitasun arrazoiak kontuan izanda, komunitateari eskainitako zerbitzu mota edo maila diferentei ordainsari ezberdinak esleitzea onartzen dutenak, baina horien azterketa oraingoz geroagorako utz daiteke.

Jabetza pribatuaren peko eta komunismoaren peko gizartearen ekonomiako indar eragileen arteko alderik handiena ekonomiok zuzentzen dituzten buruetan legoke. Egungo sisteman, zuzendaritza oso- osoa kapitalaren jabe (edo pertsonalki kapitalaren arduradun) direnen eskuetan dagoelarik, negozioa eramaten segitzeko erabil daitekeen administrazio txarretik onenera dagoen aldearen onura osoa administrazioa kontrolatzen duen pertsonari edo pertsonei dagokie: beraiek jasotzen dute administrazio onaren etekin guztia, euren interesak edo eskuzabaltasunak etekin hori manupean dituztenekin konpartitzera eramaten ez badituzte behintzat; eta, era berean, administrazio txarraren kalte guztiak ere beraien lepora doaz, administrazio txar horrek langile gehiago enplegatzeko duten indarra geldiaraz dezakeen heinean izan ezik. Eragiketen eraginkortasunaren eta ekonomiaren alde ahalik ondoen eta ahalegintsuen jarduteko motibo pertsonal indartsu hori ez legoke komunismoaren pean, ekoizturikotik zuzendariak eta elkarteko beste kideek dibidendu berdina jasoko luketenez gero. Geratuko litzatekeen motibo bakarra guztien interes komuna litzateke, hau da, dibidendua ahalik gehien hazteko moduko kudeaketa eramateko interesa eta zuzendarien adore publikoaren, kontzientziaren, ohorearen eta izen onaren pizgarriak. Motibo horien indarra, konbinatzen direnean bereziki, handia da. Baina asko aldatzen da pertsona diferenteen arabera, eta askoz handiagoa da xede batzuetarako beste batzuetarako baino. Esperientziaren epaia da, gizateriak orain arte lortu duen heziketa moralaren maila hobegarrian, kontzientziaren eta izen on eta entzutearen motiboak, indarra baduten arren, kasurik gehienetan, indartsuagoak direla indar galgatzaille gisa, bultzatzaille gisa baino; errakuntzak galaraztera areago daude, lan arruntak betetzean energiarik handienak sortaraztera baino. Gizakirik gehien kasuan, nagikeria eta errazkeriarako joeraren eragin egonkorra gaingitzeko eta gizakiak gehienetan berez aspergarria eta ernagarritasunik gabekoa izaten den lanari nagikeriarik gabe ekitera bultzatzeko aurkitu den behar bezainbateko eragile iraunkor eta finkoa euren eta euren familiaren egoera

ekonomikoa hobetzeko esperantza da; eta zenbat eta fruitu handiagoa eskuratu lanean egindako ahalegin bakoitzean, orduan eta indartsuagoa da motibo hori. Horren aurkakoa suposatzea zera pentsatzea adina litzateke, alegia, gaur ditugun gizakien kasuan eginbeharra eta ohorea interes pertsonala baino jardun-motibo indartsuagoak direla, ez bakarrik sentimendu horiek aparteko eran landuak izan diren ekintza eta abstentzioetarako, baizik euren bizitza osoa arautzeko ere; eta hori, nik uste, ez du inork baieztatuko. Sentimendu publiko eta sozialen eragin-kortasun txikiago hori ez dela ekidinezina esan daiteke: hezkuntza akastunaren emaitza da. Aise asko onartzen dut nik hori, baita gehien ahuleziak banakako salbuespen asko dituela ere. Baina salbuespenok gehiengoa, edo are gutxiengo zabala, izatera heltzeko denbora asko beharko da. Gizakien hezkuntza arterik zailenatarikoa da, eta aipaturiko puntuan lortu du gaurdaino arrakastarik txikiena; gainera, hezkuntza orokorreko hobekuntzak mailaz mailakoak dira oso, hurrengo belaunaldia oraingoak hezten duelako eta irakasleei euren akatsek muga gaindiezina jartzen dietelako, ikasleei eurak baino hobeak izaten irakatsi ahal izateko behar duten mailara iristen galarazten diena. Beraz, populazioaren zati aukeratu batez ari ez bagara behintzat, espero beharra daukagu interes pertsonala luzaz izanen dela goragoko motiboak baino bultzagarri eraginkorragoa, gizarteko negozio industrialetan jokaera sendago eta arduratsuagoa eramateko. Esanen da gaur egun dirua irabazteko gutizia, gehiegizkoa delako, bere xedearen kontra dagoela, arrisku handiegiak eta maiz onestasunik gabekoak hartzera bultzatzen duelako. Hori horrelaxe da, izan, eta komunismoaren pean ez legoke normalean gaitz iturri hori. Segurutik, jakina, enpresa, ona zein txarra izan, elementu eskasa litzateke eta negozioa oro har errutinaren mende eroriko litzateke; komunitate horietan eginbeharra betetzeko kanpotik zehapenak ezarri beharra egoten denez, zenbat eta gehiago lotu pertsona bakoitzaren eginbeharra arau finkoetara, orduan eta errazago lortzen da pertsona horrek bere eginbeharra betetzea. Emaiza hori lortzeko aukera areagotzen duen zertzelada bat zuzendariek beren kontura jokatzeko luketen ahalbide urria litzateke. Komunitateak hautatuak izan direlako edukiko lukete aginpidea eta komunitate berak kendu ere egin liezaieke edonoiz aginpide hori; eta horrek beharrezko bihurtuko luke, nahiz eta komunitatearen konstituzioak horrelakorik ez agindu, zuzendariek organismoaren adostasun orokorra erdiestea, negozioa burutzeko ezarritako moduan aldaketaren

bat egin aurretik. Organismo jendetsu bat euren ohiko lan moldean aldaketak egin ditzaten konbentzitzeko dagoen zailtasunak –aldaketaren trabak, izan ere, maiz handiak izaten baitira eta arriskuak abantailak baino argiago ikusten baitira– gauzak ohiko bidean mantentzeko joera indartsua ezarriko luke. Horren aurka esan behar da zuzendariak lanaren arrakastan zuzenean interesaturik daudenek eta irizteko ezagutza eta aukera praktikoak dituztenek hautatzeak gaur egun kapitalaren jabe nor izanen den hain maiz erabakitzen duen halabeharrezko jaiotzak baino batez beste zuzendari trebeagoak ekartzea espero daitekeela. Hori egia izan daiteke; eta horri herentziaz kapitalista denak, komunitateak bezala, bera baino kapazago den zuzendari bat izenda dezakeela ihardets dakioken arren, horrek komunitatearen pare, eta ez gora, jarriko luke abantaileri dagokienez. Baina esan beharra dago, bestalde, sistema komunistaren pean zuzendaritzarako gaituenek, segurutik, zuzendaritza hartzeko uzkur leudekeela oso maiz. Egungo sisteman, zuzendariak, langile kontratatu bat denean ere, negozioan diharduten beste lagunek baino askoz ordainsari handiagoa dauka; eta gizarte maila handiagoak ditu aurrean, zuzendaritza beretzat jauzi-ohol bat delarik. Sistema komunistan ez luke horrelako abantailarik; komunitatearen lanak ekoizturikotik beste edozein kidek adinako dibidendua jasoko luke; ez luke inoiz aukerarik soldatapeko izatetik kapitalisten klasera igotzeko; eta, beste edozein langile baino egoera hobean inola ere ez egotearen truke, bere ardura eta kezkak oso handiak izanen lirarteke halatan, non gizateriaren zati handi batek, segurutik, hain neketsua ez litzatekeen egoera hobetsiko lukeen. Zailtasun hori ikusi zuen jada Platonek, klase gobernatzaileari dagokionez, bere ondasun-erkidegoko Errepublikan proposaturiko sistemarekiko objektio gisa; eta gobernatzeak ematen dituen ardura eta lanak beren gain hartzera pertsona egoiak bultzatzeko, ohiko eragingarrien faltan, ontzat jo zuen motiboa gizon txarragoek gobernatuta bizi behar izatearekiko beldurra izan zen. Motibo horrexetan jarri behar da, benetan ere, konfiantzarik handiena; zuzendaritzarako gaienak prest lirateke zeregin hori betetzeko, lanbidea gaitasun gutxiagoko eskuetara eror ez ledin. Eta motiboa seguruenik eraginkorra litzateke komunitatearen asuntoak, gaitasunik gabeko zuzendaritzaren pean, hondamendira edo nabarmenki txarragora lihoazkeela ikusiko litzatekeen garaietan. Baina ez dago espero izaterik motibo hori, arau gisa, hobekuntza sustatzeko soilik eragiten hastea, berehalako fruitu handiak ekartzea espero izateko moduko aparaturen

bat probatzeko irrikaz dabiltzan asmatzaileen eta azpikarien kasuan izan ezik; eta horrelako pertsonak, izaeraz odolbiziagiak eta iriztean akastunak direlako, desegokiak dira aferak zuzentzeko, eta, gainera, horretarako gai izanda ere, horrelako pertsonak herritar arruntan aurreiritziak pizten dituzte euren kontra, eta sarri ezinen lukete gainditu atariko zailtasuna ere, hau da, komunitatea euren proiektua baiestera eta eurak zuzendari moduan onartzera limurtzekoa. Zuzendaritza komunistak, beraz, ez luke jokatuko zuzendaritza pribatuak bezain ongi bide berriak zabaltzearen eta urruneko eta zalantzezko abantailengatik gertuko sakrifizioak egitearen alde, eta hori, kasurik egin gabe gutxitan uzten den arren arriskuarekin, ezinbestekoa da normalean gizateriaren egoera ekonomikoan hobekuntza handiak egiteko eta are egoerari dagoen-dagoenean eusteko, jaten eman beharreko aho berrien kopurua etengabe goraka doanean.

Honaino motiboek elkargoa zuzentzen dutenen gogamenetan daukaten eragina bakarrik hartu dugu kontuan. Goazen orain ikustera langile arruntei dagokienez nola dagoen planteaturik auzia.

Horiek, sistema komunistaren pean, interes orokorrean duten partearena beste interesik ez lukete euren lana onestasunez eta adorez egiteko. Baina horretan gauzak ez leudeke gaur egun klase produktugileei dagokienez dauden baino okerrago. Horiek, soldata finkoz ordaintzen zaienez, ez dute inolako interes zuzenekorik euren lanaren emankortasunean, zeren antolabide komunistan langile orok interes orokorrean leukakeen partearen interesik ere ez baitaukate. Ondorioz, lan kontratatuaren eraginkortasunik eza, lan mota horrek langileek eduki dauzkaten gaitasunak sustatzeko duen era marketsa, eskuarki sumatzen ohi den kontua da. Egia da langile ona izateko aparteko izaera daukana balio hori ez daukanarengandik urrun dagoela, izaera horrek enpleguan hobetsia izateko ahalbidea ematen diolako eta batzuetan soldata handiagoak eskuratzen ere laguntzen diolako. Langileburu izatera edo menpeko beste postu administratibo batzuetara igotzeko aukera ere badago, lan arrunta baino hobeto ordaintzen direnak izatez gain, batzuetan beste abantaila batzuetarako bidea zabaltzen duten postuak direlarik. Baina, beste alde batetik, esan behar da, sistema komunistaren pean, jendea seguru egon litekeela pertsona bakoitza beren begien aurrean lanean ikusten duten lankideek osatzen duten komunitatearen sentipen orokorra lan ongi eta gogor

egitearen aldekoa eta alferkeriaren, axolagabekeriaren eta zarrastelkeriaren kontrakoa litzatekeela. Oraingo sisteman, kasua hori ez izatez gain, langile klasearen iritzi publikoa horren kontrako norabidean dabil: sindikatu batzuetako arauak debekatu egiten die euren kideei eraginkortasun maila batetik gora jardutea, lanerako behar den langile kopuruak behera egin ez dezan; eta arrazoi beragatik bortxaz egiten diete aurre lana aurrezteko artefaktuei. Hemendik pertsona bakoitzak beste edozein pertsona ahal bezain behargin, trebe eta arduratsu bihurtzeko interesa izatera pasatzea (komunismoan gertatuko litzatekeen moduan) askoz hoberako aldaketa litzateke.

Kontuan izan behar da, alabaina, egungo sistemak laneko eraginkortasunari dagokionez dituen akats nagusiak zuzen daitezkeela eta komunismoak horretan dituen abantaila garrantzizkoenak erdiets daitezkeela jabetza pribatuarekin eta lehia indibidualarekin bateragarriak diren erreformen bidez. Aurrerapauso handia egin da jada horretan somara lan eginez, hala egin daitekeen lan motetan. Lan era horretan, langilearen interes pertsonala lanean produzitzen duen kuantitatearekin dago hertsiki loturik, eta ez hainbeste kalitatearekin, horren bermea enplegatzaileak behatu behar duelarik; eta somarako lanak ez du bere alde langile klasearen iritzi publikoa, hori, aitzitik, lan era horren oso kontrakoa baita, langileen merkatua (haien ustez) urritzen duelako. Eta benetan ere badute arrazoirik somarako lanaren kontra egoteko, zeren, argudiatzen den legez, enplegatzaileek maiz, somarako lanaz langile on batek egin dezakeen gehiena zenbat den jakiteko baliatu ondoren, hain baxu jartzen baitute lan molde horren prezioa, non langile horrek ahal duen lanik gehien eginda ezin duen irabazi lan normalagatik eman beharko lioketen jornala baino gehiago.

Baina bada somarako lana baino osoagoa den beste erremedio bat lan kontratuaren desabantailentzat: orain elkarte industrialak deitzen zaiona, hau da, langile guztiei etekinetan partaidetza bat ematea, irabazi guztiak edo zati bat lanean diharduten guztien artean, irabazien portzentaia baten eran, bananduz, kapitalistari ordainsari bat segurtatu ondoren. Plan hori eraginkortasun itzelekoa gertatu da bai herrialde honetan eta bai atzerrian. Enplegaturiko langileen sentimenduak enpresaren interes orokorra arduraz begiratzearen alde jartzea lortu du; eta arduraz lan egitea sustatuz alde batetik, eta denbora galteza kontrolatuz bestetik, nabarmenki gehitu du lan mota orotako

ordainsaria sistema hori ezarri duten enpresetan. Begi-bistakoa da sistema horrek mugarik gabeko hedakuntza eta mozkinetan langileei esleituriko partean mugarik gabeko gehikuntza onartzen dituela, beti ere zuzendarientzat enpresaren arrakastan interes pertsonala edukitze-ko behar duten mozkina baino gutxiago utzi gabe. Are daitekeena da, erreforma horiek ohiko bihurtzen direnean, enpresa horietako asko, aldiren batean, buruak zendu edo erretiratzean, elkarte kooperatibo garbiak izatera pasatzea, horretarako behar diren erreformak eginda.

Hartara, badirudi ezen, organismo orokorrean saiatzeko dau- den motiboei dagokienez, komunismoak ez duela jabetza pribatuko sisteman erdiets ezin daitekeen abantailarik, zuzendaritzako buruei dagokienez, gainera, komunismoa desabantaila handian dagoelarik. Komunismoak badu dirudienez bere izaerari datxekion beste desaban- taila bat ere, era gutxi-asko arbitrarioan erabaki behar dituzenez gero egungo sistema honetan berez, nahiz eta nahikoa txarto maiz, eraba- kitzen diren arazoak.

Arau sinplea eta, zenbait aldetatik, bidezkoa ere bada lanean partaide diren guztiei berdin ordaintzea. Baina oso justizia akastuna da, baldin lana ere berdinki banatzen ez bada. Orain, gizarte bakoit- zean egin behar diren lan mota anitzak ezberdinak dira gogortasune- an eta gozagaiztasunean. Lanok bata bestearekin erkatu eta bakoitza- ren kalitateari zenbat kantitate dagokion erabakitzea hain da zaila, non komunistek, eskuarki, denek txandaka lan mota orotan lan egin behar- ko luketela proposatzen baitute. Baina horrek enplegu banaketak dituen abantaila ekonomikoak ia zeharo galtzea inplikatzen du; eko- nomista politikoei maiz abantailok larretsi (edo horren kontrako arra- zoiak gutxietsi) egiten dituzte, baina, lanaren produktibitatearen ikus- puntutik, kontuan hartzekoak dira, bi arrazoigatik, alegia, enplegu- ko lankidetzak lana langilearen gaitasun eta dohainen arabera banatzeko aukera ematen duelako, alde batetik, eta langile bakoitzak trebetasun eta azkartasun handiagoa lortzen duelako lan mota bakarrean, bertara mugatuz gero, bestetik. Horregatik, bidezko banaketarako ezinbeste- koa dela uste den erreforma desabantaila handia litzateke segurutik produkzioarako. Areago justizi eredu arras hobegarria da langile orori lan kantitate bera eskatzea. Jendeak gaitasun ezberdinak, bai gorpu- tzeakoak eta bai adimenekoak, ditu lanerako, eta batentzat zeregin arina dena beste batentzat zama eramanezina da. Beharrezko da,

beraz, lana banatzeko agintea duen norbait egotea, eskumena daukana langile jende bat lan kantitate arruntetik libre uzteko eta bakoitzaren gaitasunen neurriko lanak emateko. Eurek lan egin baino besteek euren lanak egitea nahiago duten pertsonak dauden artean, saio asko eginen dira lanetik salbu geratzea lortzeko, dela faboritismoz dela iruzurrez, eta saiooi porrot eragitea zailtasun handiko kontua izanen da, beti, ezta gutxiagorik ere, lortuko ez dena. Eragozpen horiek gutxi sumatuko dira, aldi batez bederen, pertsona finek, esperientzia ongi atera dadin benetan nahi dutenek, osaturiko komunitateetan; baina gizartea onera ekartzeko planak balio ertaineko gizakiak ukan behar ditu kontuan, baita bertute pertsonal eta sozialetan horien mailatik askoz beherago dauden gainerako pertsonak ere. Lan banaketak, horrelako pertsonen artean burutzean, liskar eta haserre handiak sortaraziko lituzke eta komunistek beren kideen artean aurkitzea espero duten harmoniaren eta guztien adostasunaren murrizketa handia ekarriko luke. Gogaidetasun horrek, zirkunstantziarik onenetan ere, komunistek uste duten baino lorrintzeko arrisku handiagoa izanen luke. Erakundeak interes materialen inguruan ez dela liskarrik izanen segurtatzen du; indibidualismoa arazoan eremu horretatik kanpo uzten da. Baina beste eremu batzuetatik kanpo ezin du utzi ezein erakundek: horietan hantxe iraunen du ospea eta botere pertsonala erdies-teko norgehiagokak. Anbizio egoista gizonik gehienek erabili ohi duten eremutik, hau da, aberastasunen eta diru interesaren eremutik kanpo uzten denean, indar handiagoz erabiliko da oraindik zabalik gelditzen zaion esparruan, eta espero izatekoa da zuzendaritzan gailen izatea eta eragina ukatea lortzeko borrokak oso latzak izanen direla, grina pertsonalak, ohikoa duten kanaletik aterata, asegarri nagusia beste norabide horretan aurkitzera bideratzen direnean. Askotariko arrazoi horiengatik daitekeena litzateke elkarte komunista batek ezin erakutsi izatea, komunistek maiz esaten digutenez, elkarrenganako maitasunez eta sentipen eta nahien batasunez gainezka ikustea espero behar dugun margolana, desadostasunek urratuta eta ez gutxitan zeharo apurtuta agertuko baitzaigu.

Beste desadostasun iturri asko komunisten beste printzipio baten baitan daude, alegia, bakoitzarentzat garrantzi handikoak diren arazoak, egungo sisteman norbanako bakoitzak bere arazoari dago-kionez erabakitzeko utz daitezkeenak eta uzten direnak, guztien botoz

erabakitzea agintzen duen printzipioaren baitan. Adibide gisa, har dezagun hezkuntza. Sozialista guztiek ematen diote erabateko garrantzia gazteen heziketari, ez bakarrik orotarako balio duten arrazoiengatik, baizik, euren galdapenak hiritar bakoitzaren adimen eta moraltasunari dagokienez beste edozein sistemarenak baino handiagoak direlarik, euren hezkuntza planen bikaintasunean beste elkarteek baino gehiago dutelako jokoan jarrita. Orain, sistema komunistan planok elkargo kolektiboak egin beharko lituzke hiritar bakoitzarentzat, zeren bakoitzaren gurasoek, euren seme-alabak hezteko beste eraren bat nahiago izanez gero, ez bailukete heziketa hori ordaintzeko modurik, haiek eurek emandako irakaskuntzaz eta eraginaz egin ahal izanen luketen apurrarekin konformatu beharko liratekeelarik. Baina elkargoko kide heldu bakoitzak boz berdina izanen luke denen onerako eratuturiko sistema kolektiboaren antolaketa erabakitzean. Hortxe dauka, beraz, elkarte bakoitzak desadostasun iturri oparo bat. Beren seme-alabentzat nahi luketen hezkuntza moldeari buruz iritzi edo hobespen zehatz bat luketen guztiek komunitate osoaren erabakian eduki lezaketzen eraginean ukanen lukete hezkuntza molde hori erdiesteko aukera bakarra.

Ez dago zehaztu beharrik elkartearen produkzio baliabideak erabiltzeko erarekin, gizarte bizitzako baldintzekin, elkargoaren beste elkarte batzuekiko harremanekin eta antzekoekin zerikusia duten beste hainbat arazo, zeintzuetan iritzi ezberdintasunak, bateraezinak maiz, sortuko liratekeen. Baina espero litezkeen desadostasunak ere gaitz txikiagoa dira gizateriaren etorkizunerako, gehiengoaren ebazpenaren aurrean bakoitzaren iritzi eta nahiak erretiratu beharrak sorturiko guztien adostasun engainagarria baino. Giza aurreramendurako oztopoak handiak dira beti, eta aldeko zirkunstantzia askok egin behar dute bat oztopo horiek gaingitu ahal izateko; baina horretarako ezinbesteko baldintza bat giza izaerak norabide ezberdinetan berez hedatzeko askatasuna edukitzea da, hala pentsamenduan nola praktikan; jendeak bere kabuz pentsatzea eta bere kabuz esperimentatzea, eta agintarien eskuetan, gutxi batzuen nahiz gehiengoaren izenean dihardutelarik, ez uztea euren ordeztatzeko eta nola jokatu behar duten agintzeko zeregina. Baina elkarte komunistetan bizitza pribatua aginte publikoaren menpean egonen litzateke parerik gabeko mailan, eta nork bere izaera eta hobespenak garatzeko aukera gutxiago lego-

ke, giza familiaren adar aurrelarietakoak diren Estatuetan eskubide osoko hiritarren artean egundo egon den baino. Dagoeneko gizarte guztietan gehiengoak norbanakoari ezartzen dion hertsapena gaitz handi eta hazkorra dugu; are handiagoa litzateke segurutik sistema komunistan, gizabanakoak gaitz horri mugak jartzeko ahalmena ukan ezean, burueraz norbere antzekoak diren pertsonen osaturiko komunitate bateko kide izatea aukeratuz.

Egin ditudan gogoeta horietatik ez dut atera nahi inolako inferentziarik komunista erako produkzioak, etorkizunean noizbait, gizateriaren behar eta zirkunstantzietara ondoen egokituriko gizarte mota izateko duen ahalbidearen kontra. Hori, nire ustez, auzi irekia dugu eta izanen dugu luzaz, etengabe argi berria hartuz joanen dena, hala printzipio komunista aldeko zirkunstantzietan praktikan esperimentatuz nola egungo sistemaren funtzionamenduan, jabetza pribatuarenean, apurka-apurka hobekuntzak eginez. Ziur dakigun gauza bakarra da komunismoak, arrakasta lortzeko, komunitateko kide guztiek goi mailako heziketa intelektual eta morala edukitzea behar duela: morala, bizitzan dagokien lana onestasunez eta kemenez egiteko gai izan daitezen, elkartearen interes orokorrean duten parte eta interes horrekin dituzten eginbehar eta sinpati sentimenduak beste bultzagarririk gabe; intelektuala, kide guztiak urrun ikusten dituzten interesak estimatzeko eta horrelako gaiei buruzko gogoeta konplexuetan, gutxienez aholku ona txarretik bereizi ahal izatera eramateko modukoetan, airtzeko gai izatera hel daitezen. Gaur-gaurkoz ezetsi egiten dut oro har gai horietan behar den heziketa eta kulturaren bidez pertsona orok herentzia nazioari uztea ezinezko dela diotenen iritzia; baina erabat sinetsita nago hori oso zaila dela eta egungo egoeratik horra astiro baino ez dagoela pasatzerik. Onartzen dut komunismoak arrakasta lortzeko behar-beharrezko dituen heziketa moraleko puntuetan gizartearen egungo egoera adoregabetzeko modukoa dela eta gizateria komunismorako elkarrekin komunista batek bakarrik hez dezakeela diotenen argumentua. Komunismoari dagokio, beraz, esperientzia praktikoaren bidez frogatzea baduela heziketa hori emateko ahalmena. Esperientziek bakarrik erakutsi lezakete ea jada populazioaren zati batek badaukan komunismoa arrakastara eramateko behar duen adinako hezkuntza moraleko maila altua eta ea euren artean duten hurrengo belaunaldiari maila horri eusteko beharrezko duen heziketa

emateko gai den. Elkarrekin komunistek iraunkorrak eta oparoak izan daitezkeela demostratzen badute, ugaritu egingen dira eta herri aurretuenetako populazioaren zati batek hurrenez hurren bereganatuko ditu segurutik, jende hori bizimodu horretara moralki egokitu ahala. Baina prestatu gabeko populazioak gizarte komunistetara behartzea, iraultza politikoak ahalegin hori egiteko ahala emanda ere, etsipenean bukatuko da.

Komunismoaren gaitasunak egiaztatzeko praktikan probatzea beharrezko baldin bada, ez dute gutxiagorik galdatzen komunismoaren eragozpenak aitortu eta gaingitzeako moduak asmatzen dituzten sozialismoaren beste erek. Horietan printzipala fourierismoa da, sistema bat bera, lañotasun intelektualeko espezimen gisa baino ez bada ere, gizarte edo giza gogamena estudiatzen ari denaren arreta bizia merezi duena. Apenas dagoen objektiorik edo zailtasunik, Fourierrek aurreikusi ez zuenik eta aurrea hartu ez zionik berezko eragina duten planak asmatuz, komunismoarena bezain goi mailakoa, hala ere, ez den banatze-justiziako printzipioan oinarrituak, banaketako desberdintasunak eta kapitalaren jabetza pribatua onartzen dituenek gero, nahiz eta nahierara erabiltzea ez. Fourierismoak soluzioa aurkitu nahi dion arazo nagusia lana erakargarri bihurtzeko modua nola topatu da, zeren, hori lortzeko modurik balego, sozialismoaren eragozpenik handiena gaingituta bailegoke. Baliagarria den ezein lan-mota ere ezin bestez edo unibertsalki gorrotagarria ez delakoan dago, gehiegizko lana edo laguntasunaren eta lagunen pareko izan nahiaren sustagarriarik gabekoa edo gizateriak mespretxuz begiratzen diona izan ezean. Herrixka fourierista bateko langileak berenez sailkatzen dira taldeetan, talde bakoitzak lan mota ezberdina hartzen duelarik, eta pertsona bera talde bateko kide ez ezik, hainbat taldeetakoia izan daiteke; lehenbizi minimo bat aparte utzita komunitateko kide bakoitzaren bizibiderako, lan egiteko gauza izan edo ez izan, elkarrekin produkzioaren gainerakoa talde diferenteen artean banatzen du, bakoitzari egin behar izan duen lanak zenbat dakarkion ikusita, harexen beste, eta ez gehiago, emanez; jendea eurrez baldin badoa zenbait taldeetara, hori talde horiek, besteen ikusian, soldata handiegia jasotzen duten seinale da; jendea talderen bat uzten ari bada, talde horretakoei soldata handiagoa eman behar zaie. Talde bakoitzari esleituriko produkzioaren parteak hiru elementuren artean banatzen da finkaturiko proportzioetan: lana-

ren, kapitalaren eta talentuaren artean; talentuari esleituriko partea taldeko botoekin ebazten da eta askotariko giza gaitasunen artean denak, edo ia denak, nabarmenduko dira talde batean edo bestean. Kapitalarentzako ordainsariak jendea kontsumo indibidualetik aurreztera bultzatzeko modukoa izan behar du, elkarteko akzioak nahi den punturaino gehitzeko. Zailtasun txikiagoei aurre egiteko eta eragozpen txikiagoetatik libratzeko asmatutako bitartekoen kopurua eta lañotasuna harrigarriak dira. Askotariko aurreikuspen horien bidez fourieristek espero dute interes publikoaren alde jokatzeko sustagarriak, bazter utziak izan beharrean, orain diren baino indartsuagoak izanen direla gerora, zeren ziurrago egonen baita jendea emandako zerbitzuaren gehikuntza bakoitzak ordainsaria gehitzea ekarriko duela, orain, lanpostuen gorabeherak hainbesteko eragina dutenean, dagoen baino. Horregatik, espero dute lanaren eraginkortasuna paregabea izanen dela, eta lan-aurrezpena, berriz, sekulakoa, orain alferrekoak edo kaltegarriak diren gauzetan alferrik galtzen dena lan baliagarrietarako erabiliz eta, banatzaile kopuru izugarria saihestuta, komunitate guztia-arentzako erosketak eta salmentak organismo bakar batek eginez. Norbanakoek euren bizimoduan ukan beharreko aukera libreak ez luke ekintza industrialetan lankidetzat betea lortzeko beharrezkoa dena beste eragozpenik jasanen. Oro har, komunitate fourierista batek agertzen digun margolana erakargarria da berez, eta, gainera, beste ezein sistema sozialistak baino gutxiago galdatzen dio giza izaera komunari; eta biziki gura izatekoa da proiektu hori egokiro probatzea, horixe baita gizarte bizitzako proiektu berri ororen egingarritasuna egiaztatzeko bide bakarra⁹.

Sozialismoaren zailtasun ezberdinen azterketak honako ondorio haxe ateratzera eramanez, alegia, produkzio baliabideak erakunde pribatuek barik publikoek zuzentzeko proiektu ezberdinak praktikan probatu behar direla eta eurentako batzuek egungo gauzen ordena baino hobea direla erakutsi dezaketela, baina gaur egun gizateriaren *élite*ak bakarrik jar ditzakeela praktikan, eta oraindik frogatzeko dutela gizateria gerora sozialistek aurrez suposatzen duten hobekuntza egoerarako hezteko kapaz direnik. Arrazoi handiagoz, jakina, esan daiteke hori herrialdeko lur eta kapital guztiaz jabetzea eta berehala aginte publikoaren ardurapean administratzen hastea helburu duen asmo handiagoko planari buruz. Oraingo jabeek egindako bide-

gabekeriak kontuan hartu gabe ere, herrialde bateko industria guztia zentro bakar batetik zuzenduta eramatea hain nabarmenki da kimerikoa, non inor ez baita ausartzen hori egiteko modu zehatzik adieraztera; eta nekez jar liteke zalantzan sozialista iraultzaileek, lehenbiziko helburua lortu eta herrialdeko jabetza guztia eskura edukita ere, ez luketela botere hori praktikan jartzeko beste modurik, zatikatzea baino, zati bakoitza komunitate sozialista txiki baten administrazioa pasatzeko. Ikusi dugun moduan alde zuzenetik ongi prestatutako populazio aukeratu baten kasuan ere hain zaila den zuzendaritzaren kontua behera letorke, eta ahalik ondoen konpondu beharko litzateke arazo hori herriaren arabera soilik bilduriko edo populaziotik inor baztertu gabe harturiko kideen batzarretan, hor nahitaez sartuko liratekeelarik gaizkileak, alferrenak eta lasakenak, lanerako gogoari eusteko, zuzentzerako eta autokontrolerako ezgaienak, baita, hain degradatuak ez izan arren, sozialisten euren iritziz ere, sozialismoa aurrera ateratzeko funtsezko diren gaitasunei dagokienez, gizartearen egungo egoerak moralitasuna kenduriko gehiengoa ere. Gutxi esatea da baldintza horietan sozialismoa ezartzeak porrot hondagarria besterik ez lezarkeela; sozialismoaren apostoluek eduki lezaketen kontsolamendu bakarra zera da: gizartearen ordena egun den moduan deuseztatua izan behar litzatekeela lehenago eta, beraz, ordena horretatik onura hartzen duten guztiek ere hondamendi komunean sartuko liratekeela; eta kontsolamendu hori haietako batzuentzat benetakoa litzateke, zeren, itxurei kasu egiterik badago, sozialista iraultzaile gehiegiren printzipio adonek gaitzetsuak dira eta; oso desentzerratuak den egungo gaitzetsutako gaitzetsuak da hori, orainko sistema kosta ahala kosta bukatuaz gero hustuko litzatekeena berorren baitan sufritu dutenen kasuan ere, kausetik kosmos hobe sortuko litzatekeen esperantza eta mailakako hobekuntzarekiko etsipenaren ezinegona. Ez dakite horiek kaosa egoerarik txarrena dela kosmosa eraikitza abiatzeko eta gatazkaz, indarkeriaz eta indartsuek ahulei ezarritako zapalkuntza tiranikoz beteriko mendeak etorri behar dutela; ez dakite gizateria Hobbesek (Leviathan, I. Parte, XIII. kap. [Euskaraz, Pentsamenduaren Klasikoak, 1994, Jesus Naberan, 117 orr.]) hain indartsu deskribaturiko naturaren egoeran, non gizaki oro gizaki ororen etsai den, hondoratuko luketela:

Horrelako egoeran, lanak ez du lekurik, beronen fruitua ineguri ageri baita, eta, ondorioz, ez dago lur-lanketarik, ez nabigaziorik, ez itsasoz

inporta daitekeen produkturik erabiltzerik; ez dago etxebizitzarik eraikitzerik, ezta indar handiaren laguntza behar duten objektuak mugitu eta garraiatzeko tresnarik egiterik ere; ez dago lur-gainazalaren ezagupenik, ez denboraren konputurik; ez dago arterik, ez letrarik, ez gizarterik; eta okerreña dena, etengabeko beldurra eta heriotza bortitzerako etengabeko arriskua dago. Eta gizakumearen bizitza bakartia, pobrea, nazkagarria, abereen modukoa eta laburra da.

Baldin gizarte zibilizatua deritzoneko kiderik pobreen eta dohakabeenak bizitza zibilizatua deuseztatzeak sorturiko ankerkeri motarik okerreñ horretan kide orok leukakeen egoera berean badaude ere, hortik ez da ondorioztatzen haiek hortik gora ateratzeko modua beste guztiei egoera miserable berori ezartzea denik. Aitzitik, hortik gora lehenengo irteeraren laguntzaz hain zuzen egin dute ihes beste askok gehienek zoritik, eta prozesu beraren antolaketa hobeaz baka-rrik espero daiteke gainerakoek ere hortik gora egin dezaten lortzea.

JABETZA PRIBATUAREN IDEIA EZ DA FINKOA, ALDAGARRIA BAIZIK

Aurreko burutapenek nahikoa indartsuak dirudite agerian jar-
tzeko gizarte egitura guztia, beronen eraketa ekonomikoa, sozialismo-
ak ikusten duen moduan, jabetza pribatuarena eta lehiarena ez den
oinarri zeharo berri baten gainean ezarrita, eredu gisa eta azken posi-
bilitateen profetia gisa ere baliozkoa izan arren, oraingo baliabide
gisa ez dela baliagarria, gauzen ordena berria aurrera eramane behar
dutenenengandik gaitasun hala moralak nola intelektualak, probatu
eta egiaztatu beharrekoak guztiak eta sortu beharrekoak gehienak,
galdatzen dituelako; eta hori ezin da egin parlamentuaren dekretuz,
zeren, kasurik onenean ere, denbora luzea hartuko duen lana izan
beharko du eta. Jabetza indibidualaren printzipioa luzaz, nonbait ere,
izanen da nagusi hemen; eta, herrialderen batean herri mugimenduren
batek sozialistak gobernu iraultzaile baten buru jarriko balitu ere,
haiek jabetza pribatua era askotara hautsi arren, instituzioak berak
iraun egingen luke edo sozialistak kanpora bota ondoren atzera berriro
ezarriko litzateke, jendeak ez lukeelako galdu nahi izanen gaur gaur-
koz euren bizibidearen eta segurtasunaren bermeari oinarri bakarra,
harik eta haren ordezkari bat martxan ipini arte. Besteen jabetza izan-

dakoa euren artean banaturikoek ere gorde nahi izanen lukete eskuraturikoa eta esku berrietako jabetzari atzera eman nahi izanen liokete esku zaharretan zegoela aitortu ez zioten izaera sakratua.

Baina, nahiz eta jabetza indibidualak, arrazoiongatik pentsa daitekeenez, ibilbide luzea, nahiz eta behin-behinekoa, izan aurrean, ez dugu, horregatik, ondorioztatu behar denbora luze horretan guztian aldatu barik egon beharko duenik, edo egun jabetzari dagozkion eskubidetzat dauden guztiak jabetzari datxezkionak direnik eta hark dirauen artean iraun beharko dutenik. Aitzitik, jabetzaren legeetatik onurarik handiena jasotzen dutenen bai eginbeharra eta bai interesa da proposamen guztiak inpartzialki aintzat hartzea, lege horiek gehiengoarentzat hain astunak izan ez daitezen erdiesteko. Edonola ere justiziako bete-behar bat litzatekeen hau zuhurtziaren agindu bat ere bada, eurak leku egokian paratzeko, ziur dakiten moduan, gizarte mota sozialistak goizegi martxan jartzeko maiz gertatuko diren saioen kontra.

Maizenik egiten diren eta giza aferetako errore praktikotik handienak iturri diren errakuntzetariko bat izen berak beti ideia multzo bera adierazten duela uste izatea da. Ez dago hitzik, jabetza hitzak baino mota horretako gaizki-ulertze gehiago bereganatu dituenik. Gizartearen egoera bakoitzean gauzen (eta batzuetan, zoritxarrez, pertsonen) erabilera eskusiborako edo kontrol eskusiborako legeak ematen dituen edo ohiturak, gizartearen egoera hartan, onartzen dituen ahalmenik handienak adierazten ditu; baina erabilera eta kontrol eskusiborako ahalmenok oso askotarikoak dira, eta alde handia dute herrialde batetik bestera eta gizartearen egoera batetik bestera.

Adibidez, gizartearen lehenengo etapetan, jabetza eskubidearen barruan ez zen legatzeko eskubidea sartzen. Ondasunak testamentuz nahierara erabiltzeko ahalmena berandu samarreko instituzioa izan zen Europako herrialde gehienetan; eta legean sartu zenetik oso gerora ere oinordeko naturalak zeritzenen alde bakarrik egin zitekeen testamentua. Legatzen uzten ez den tokian jabetza indibiduala bizialdiko interesa baino ez da. Eta, izatez, Sir Henry Mainek hain ongi eta osoro azaltzen duen moduan irakurlearentzat ikasbide den Antzinako Zuzenbideaz [*Ancient Law*] duen liburuan, jabetzaz zegoen ideia primitiboa jabetza familiara zela zen, ez norbanakoarena. Famili buruari zegokion zuzendaritza, eta berak erabiltzen zituen, erabili, jabetza eskubideak. Famili bizitzaren beste alderdi batzuetan bezala,

horretan ere ia despota boterez gobernatzen zuen familia. Baina ez zuen beste zatien jabekideak ezerezterainoko eskubiderik; ezin zuen erabili jabetza haiei gozamen kolektiboa eta ondorengotza kentzeraino. Nazio batzuetako legeen eta usadioen indarrez, semeen adostasunik gabe ez zegoen jabetza besterentzerik; beste batzuetan, semeak legez galda zezakeen ondasunak banatu ondoren zegokion partea eman ziezaioten, Seme Iriolearen kasuan bezala. Famili burua hil ondoren elkarreak iraunez gero, beste kide bat, ez derrigor seme bat, baina maiz zaharrena, indartsuena, edo besteek aukeraturikoa, da haren oinordeko zuzendaritzan eta zuzentzeko eskubideetan, besteek euren eskubideak lehen bezala atxikitzen dituztelarik. Bestalde lehen-go elkartea familia bereizietan zatikatuz gero, zati bakoitzak bere jabetza partea eramaten zuen. Jabetza diot, ez herentzia, zeren prozesua lehengo eskubideen segida besterik ez zen, eta ez eskubide berrien sortzea; zuzendariaren partea bakarrik pasatzen zen elkartera.

Bestalde, higiezinakiko jabetza eskubideei dagokienez (jabetza mota nagusia zena aro oies batean), eskubideok hedapen eta iraupen ezberdinekoak ziren oso. Juduen legearen arabera higiezinak jabetza aldi baterako emakida baino ez zen; urte sabatikoan oinetxe komunera itzultzen zen birbanatua izan zedin, nahiz eta susma genezakeen juduen Estatuaren garai historikoan bazitekeela jendeak arau horri arrakastaz ihes egitea. Asiako herrialde askotan, Europako ideiak hara sartu aurretik, ez zen existitzen lurraren jabetza esamoldea, guk ulertzen dugun moduan, hertsiki aplikatu zekioken ezer. Jabetza zenbait parte ezberdinen artean zatikatzen zen, eta parteon eskubideak legez baino areago ohituraz erabakitzen ziren. Gobernua jabekidea zen, eta errenta handi baterako eskubidea zeukan. Antzinako ideiek eta are antzinako legeek gobernuaren partea zati zehatz batera mugatzen zuten, baina praktikan ez zegoen muga finkorik. Gobernuak norbanako bati utz ziezaioken bere partea, eta hori orduan fruituak biltzeko eskubidearen eta Estatuaren beste eskubide guztien jabe egiten zen, baina ez pertsona pribatu batek lurzorurekiko dituenen jabe. Eskubide pribatu horiek mota ezberdinekoak ziren. Benetako laborariek, edo lur hartan luzaro finkaturik egondakoek, bazuten jabetzari eusteko eskubideren bat; ilegaltzat zegoen maizterra lurretatik botatzearrenta ordainduz gero, eskuarki bederen adostasunez barik alde hartako ohituraz zehazten zen errenta. Benetako laborarien eta

Estatuaren edo hark bere eskubideak utzitako ordezkoren artean bitartekariak zeuden eskubide handiago edo txikiagoekin. Batzuetan, gobernuko funtzionarioek Estatuari zegokion ekoizturikoaren partea biltzen zuten, barruti handietan maiz, eta funtzionario horiek, nahiz eta biltzen zuten guztia gobernuari ordaintzera behartuta egon, beti ere hainbateko bat eurentzat hartu ondoren, funtzionario hereditarioak ziren maiz. Baziren halaber, kasu askotan, baserri-komunitateak («village communities»), baserriaren fundatzaileen ondorengotzat zeudenek osatuak, eta haiek lurra edo haren produktuak banatzen zituzten euren artean ohiturak ezarritako arauari jarrai, eta dela lurra eurek landuz dela lurrak lantzeko laborariak enplegatuz bizi ziren, eta lurrarekiko zituzten eskubideak hurbilago zeuden lurjabe baten eskubideetatik, Ingalaterran ulertzen diren moduan, inplikaturiko beste edozein parterenetatik baino. Baina baserriaren jabetza eskubidea ez zen indibiduala, baizik kolektiboa, besterenezina (parte indibidualen eskubideak komunitatearen adostasunarekin bakarrik sal edo hipoteka zitezkeen) eta arau finkoz gobernatua. Erdi Aroko Europan ia lur guztia subiranoarena zen zerbitzu militar edo laborantzazkoagatikoko edukitzan; eta Britainia Handian oraindik ere, zerbitzuen eta subiranoarentzat gorderiko eskubideen ohitura galdua denean edo horiek guztiak zergaz ordeztuak izan direnean, legearen teoriak ez dio aitortzen ezein norbanakori lur-jabetzarako erabateko eskubiderik; legeak ezagutzen duen lurjabe osoena, erabateko jabea [*freeholder*], Koroaren «maizter» bat baino ez da. Errusian, lur laborariak lurjabeen jopuak zirenean ere, haien lur-jabetza eskubidea jopuek, beren asuntoak zuzentzen zituen talde moduan, zituzten eskubideek mugatuta zegoen, eta lurjabeak ezin ziren sartu haien asuntoetan. Eta Europa kontinentaleko herrialderik gehienetan joputza abolitu zenean edo horretarako ohitura galdu zenean, lurrak joputza gisa laboratu zutenak eskubideen jabe eta obligazioen mende gelditu ziren. Steinek eta bere ondorengoei Prusian egindako lur erreforma nagusiak hala eskubideak nola obligazioak abolitzean eta lurra lurjabearen eta baserritarraren artean materialki zatikatzean zeutzan, bakoitza lur osoarekiko eskubide mugatu batekin utzi beharrean. Beste kasu batzuetan, Toscanan adibidez, *metayer* baserritarra jabekidea da lurjabearekin batera, zeren ohiturak, legeak ez baina, jabetza iraunkorra eta produktu gordinaren erdia bermatzen baitizkio, maiztergoak ohituraz ezartzen dizkion baldintzak betetzen dituen bitartean.

Era berean, herrialde ezberdinetan gauza berekiko jabetza eskubideak maila ezberdinekoak badira, halakoxeak dira gauza ezberdinekiko erabiltzen dituztenak ere. Antzina herrialde guztietan, eta egun ere batzuetan, jabetza eskubidea gizakien jabetzeraino hedatzen zen eta hedatzen da egun ere. Frantzian, Iraultza aurretik, maiz izan da kargu publikoen, hala nola kargu judizialen eta antzeko enplegu askoren jabetza; badira oraindik Britainia Handian kargu pribilegiatu bana-ka batzuk, nahiz eta nik uste dudan legearen eraginez iraungiko direla, orain dauzkatenak hiltzen direnean; eta oraindik orain ere gradu-ko militarretan abolitzen ari gara jabetza. Erakunde publikoek, xede publikoetarako eratu eta diruz hornituek, norbanakoek euren egoere-tan duten jabetza eskubide bortxaezin berbera erreklamatzeko dute beren egoeretan; eta moralitate politiko zindo batek erreklamazio hori onartzen ez duen arren, legeak eutsita dago. Hartara, ikusten dugu ezen jabetza eskubidea diferente interpretatzen dela eta maila ezberdinekotzat hartzen dela garai eta leku ezberdinetan; ezen jabetzaz dagoen ideia aldakorra dela, maiz berrikusi dela eta ideia horrek berri-kuspen berriak onar ditzakeela. Ohartarazi beharrekoa da, halaber, gizarteak aurrera egin ahala ideia horri gaurdaino egin zaizkion berri-kuspenak hobekuntzak izan direla oro har. Horregatik, zuzen edo oker mantentzen denean ezen gauzetan lege euren jabe aitorturiko pertso-nek dituzten botereetan zenbait aldaketa edo eraldakuntza egitea jen-dearentzat onuragarri izanen litzatekeela eta hobekuntza orokorra ekarriko lukeela, ez da erantzun egokia besterik gabe esatea proposa-turiko aldaketa hori muturka dagoela jabetzaren ideiarekin. Jabetzaren ideia ez da gauza bakar bat, historian zehar beti berbera eta aldaezina izan dena, aldagarria baizik, giza gogamenaren beste sorkari guztiak diren bezalaxe; garai jakin batean garai horretako gizarte jakin baten legeak edo usadioak emandako gauzekiko eskubideak adierazten dituen esamolde labur bat da; baina garai eta leku jakin bateko legeak eta usadioak ez puntu horretan ez beste ezeinetan dute betiko estereo-tipaturik gelditzea eskatzeko eskubiderik. Lege eta usadioetako erre-forma proposamen bat ez da nahitaez gaitzesgarri, hura onartzeak giza asunto guztiak jabetzari buruzko egungo ideia egokitzea barik, jabe-tzari buruzko egungo ideiak giza asuntuen hazkuntza eta hobekuntza-ra egokitzea inplikatzeko delako. Hori baldin badiot, Estatuak jabeei euren jabetza izaerako legezko eskubideak onura publikoa lortzekotan kendu dielako jabe horiek horren konpentsazioa ekitatez erreklama-

tzeko duten eskubidearen kalterik gabe diot. Ekitatezko erreklamazio hori, berorren oinarriek eta bidezko mugek besterik gabe ere aztergai bat osatzen dute eta, beren beregi eztabaidatuko dugu geroago. Hala ere, aipaturiko konpentsazioaren baldintza betez gero, gizarteak eskubide osoa du, ongi aztertu ondoren on publikora garamatzala ikusten duen edozein jabetza eskubide partikular abrogatu edo aldatzeko. Eta, benetan ere, sozialistek, aurreko kapitulu batean ikusi dugun moduan, gizartearen egungo ordena ekonomikoaren kontra mahaigainera deza-keten auziak bete-beteko azterketa bat eskatzen du, instituzioak gaur egun bere zuzeneko onuren gozamen urriena duen gizarte zati handi horrentzat onuragarriagoa izanen den eran lan egiteko aukera ukan dezan erabili behar dituen bitartekoei buruz.

Oharrak

¹ Ikus Louis Blanc, «*Organisation du Travail*» 4. ed., 6, 11, 53, 57 orr.)

² Ikus Louis Blanc, «*Organisation du Travail*», 58-61, 65-6, 4. ed. Paris, 1845

³ Ikus Considérant, «*Destinée Sociale*» 1. lib. 35, 36, 37 orr., 3. ed. Paris.

⁴ Ikus V. Considérant, «*Destinée Sociale*» 1. lib. 38-40 orr.

⁵ Ikus Considérant, «*Destinée Sociale*» 1. lib. 43-51 orr., 3. ed. Paris, 1848.

⁶ Considérant, «*Destinée Sociale*» 1. lib. 59-60 orr.

⁷ Ibid., 60-1 orr.

⁸ Ibid., 134 orr.

⁹ Fourierismoaren printzipioak argi azaltzen eta indartsu defendatzen

dira M. Victor Considéranten zenbait lanetan, batik bat *La Destinée Sociale* izenekoan; baina ikertzaile kuriosoak ongi egingen du printzipio horiek Fourieren beraren idazlanetan aztertzen baditu. Idazlanotan haren jeinutasunaren froga garbiak aurkituko ditu, baina mundu fisikoari buruzko fantasiarik zentzugabe eta azientifikoekin eta gizateriaren historiaren iraganari eta etorkizunari buruzko espekulazio arras interesgarri baina ausartegiekin nahasita. Egoki dateke gehitzea zenbait gizarte gai inportantetan, adibidez ezkontza kontuan, iritzi bereziak dituela Fourierek, baina iritziok, berak aditzera eman duen moduan, haren sistema industrialeko printzipioetatik zeharo bereziak eta inolako loturarik gabekoak direla.

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
OHARRAK.....	19
BIBLIOGRAFIA	23
ASKATASUNAZ	27
I. Sarrera	29
II. Pentsamendu eta eztabaida askatasunaz	42
III. Banakotasunaz, ongizatearen elementuetako bat denez	79
IV. Gizarteak gizabanakoaren gain daukan aginpidearen mugez ...	97
V. Aplikazioak	116
Oharrak.	139
EMAKUMEEN MENPEKOTASUNA	143
I.	145
II.	173
III.	193
IV.	222
Oharrak	247
SOZIALISMOARI BURUZKO KAPITULUAK	249
Atariko oharra	251
Sarrera	253
Objekzio sozialistak gizartearen oraingo ordenari	260
Gizartearen egungo ordenari jarritako objekzio	
sozialisten azterketa	278
Sozialismoaren zailtasunak	290
Jabetza pribatuaren ideia ez da finkoa, aldagarria baizik	305
Oharrak	311

